

Euskal gatazkaren memoria mediatuak: gazteek iragan kolektiboarekiko dituzten pertzepzio eta posizionamendu estrategien analisi diskurtsiboa

Understanding the mediated memories of the Basque conflict:
a discursive analysis of young people's perceptions and
positioning strategies towards their collective past

Gizartea, Politika eta Kultura

doktorego programan aurkeztutako

DOKTORE-TESIA

Egilea / author: **Samara Velte**

Zuzendariak / supervisors: **Aitzpea Leizaola Egaña eta Josu Amezaga Albizu**



GIZARTE
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN

2023

Ikerketa honek honako erakundeon diru bidezko laguntza jaso du:

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarena, doktoratu aurreko laguntzen PREDOC programako 2018ko deialdian emandako beka baten bidez. Beka honek ikertzailearen lanpostua finantzatu du EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean 2019ko urtarrilaren 15etik 2023ko uztailaren 3ra bitartean.

Oñatiko Lege Soziologiarako Nazioarteko Institutuarena (IISJ), herri horretako udalarekin batera finantzatutako Oñatiko Udala Grant bekaren bidez (2018ko deialdia). Laguntza horri esker, bi hilabeteko ikerketa-egonaldia egin ahal izan nuen Oñatin 2018ko maiatzaren 1etik 2018ko uztailaren 1era, eta tesi honen proiektu pilotua bertan gauzatu.

NOR ikerketa taldearena (IT881-16). Talde honen aurrekontuetatik ordaindu dira ikerketa-prozesuan zehar egindako hainbat aurkezpen publiko.

Abstract:

A decade after the definitive cease-fire of the Basque separatist organization Euskadi Ta Askatasuna (ETA), the collective memory about the Basque armed conflict is still a disputed discursive terrain. Meanwhile, the first generation that has no direct memories on the violence(s) of the recent past is reaching adulthood, and thus, worries about which types of discourses and knowledge these young adults have about their collective past are growing. This thesis combines a discursive analysis of in-depth interviews conducted with 42 young people born in the late 1990s and early 2000s with a bibliographic analysis of their different discursive contexts, as well as participatory observation. Its aim is to explore the perceptions that members of the so-called *Generation Z* have about the conflict itself, as well as the social relationships involved in it, including their own position as interlocutors in the construction of collective memory. By conceptualizing the construction of collective memory as a broad social dialogue, the lack of involvement of young people is interpreted in terms of their social position and agency, as young people do not feel legitimated enough to engage in the discussion about the armed past. This thesis presents an inquiry into the reasons for this perception, and identifies some of the gaps in the discursive repertoire available to the youngsters: these are, among others, the predominance of a macro-narrative that equates the concept of *conflict* with the physical manifestations of violence; the presence of an extended social view that perceives a diversity of narratives and experiences as a risk to social consensus; and, in more general terms, a hierarchy of experiences that positions young people's involvement as indirect or secondary in relation to the conflict. Finally, some of the psycholinguistic strategies that the youngsters employ in order to interact with their several discursive contexts are identified and analyzed. The summarizing argument poses that even without a formal policy of memory transmission, young people actually do actively engage in the debate on the Basque conflict by negotiating their own agency as valid interlocutors.

Laburpena:

ETAren behin betiko su-etenetik hamarkada batera, euskal gatazka armatuaren memoria eremu diskurtsibo disputatua da. Bien bitartean, iragan hurbileko biolentzien oroitzapen zuzenik gabe hazi den lehenbiziko belaunaldia helduarora iristen ari da, eta, harekin batera, gazteok iragan kolektiboaz dakitenari buruzko kezka sortzen hasi dira. Tesi honek 1990eko hamarkadaren amaieran eta 2000ko lehen urteetan jaiotako 42 gazterekin egindako sakoneko elkarrizketen analisi diskurtsibo xehea, analisi bibliografikoa, eta behaketa parte hartzailea bateratzen ditu, belaunaldi berri honetako kideek euren iragan kolektiboko biolentziekiko eraikitzen ari diren harremana aztertzeke. Euskal gatazkaren memoriaren eraikuntza eremu diskurtsibo gisara ulertzea planteatzen da, eta gazteek *eztabaida* horretan duten inplikazio falta bertan parte hartzeke sentitzen duten legitimitate faltaren terminoetan interpretatzen da. Legitimitate falta honen arrazoietan arakaturaz, belaunaldi honek eskura duen erreperitorio diskurtsiboaren hutsuneetako zenbait identifikatzen dira; besteak beste, *gatazka* terminoa batik bat biolentzia fisikoaren agerpenarekin parekatzen duen makronarratiba baten existentzia; narratiba eta esperientzia aniztasuna kontsentsu sozialerako arriskutzat duen ikuspegi sozial hedatu baten presentzia; eta, oro har, gazteei gatazkarekin zeharkako edo bigarren mailako harremana dutela ulertarazten dien esperientzien hierarkizazio bat eta haren araberako posizionamendu sozial bat. Azkenik, gazteok euren testuinguru anitzetako diskurtsoekin interaktuatzeko erabiltzen dituzten estrategia psikolinguistikoetako batzuk identifikatzen eta aztertzen dira. Finean, argudiatzen da memoriazko transmisio politika formalik gabe ere hainbat modutara inplikatzeko direla gazteak, eta euren agentzia negoziatzen dutela euskal gatazkari buruzko eztabaidan.

Aitortzak eta esker onak

“Oh, zein polita den Panama” esaten zioten elkarri tigre txikiak eta hartz txikiak, urruneko herrialde lurrintsuen bila abiatutako bidaiak ustekabeen euren etxera itzularazi zituenean. “Zer diozu, horretarako zuzenean etxean gera zitezkeela?”, galdetzen digu Janoschek haur-liburuaren azken orrian: “Ez horixe; orduan ez baitzuten bidean azeria topatuko, eta belea ere ez, eta ez zituzten untxia eta trikua ezagutuko, eta ez zuten sekula jakingo zein eroso den felpazko sofa eder eta bigun bat”.

Tesi hau ere etxe bateko aulki batean hasi eta beste etxe bateko aulki batean bukatu den ibilbide zirkularra izan da, bidean kontaezin ikasketa jaso eta eramateko aukera eman didana. Ezin eskertuago nago bide horretan edo haren zati batean bidaide izan ditudanei, euren laguntza ezinbestekoa izan baita ostera ere helmuga den etxera iristeko:

Aitzpea Leizaola eta Josu Amezaga zuzendariei, hasieratik laguntzeko prest agertu eta bost urteotan behar nuenero norabidea erakusteagatik.

NOR ikerketa taldeko kideei, akademiaren aurpegi humanoa erakutsi eta etxean sentitzeko moduko lankidetzazko testuinguru bat eskaintzeagatik.

Ikerketa diruz finantzatu edota bestelako babesa eman duten erakundeei: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Oñatiko Lege Soziologiarako Institutuari; baita UNAMeko *Lenguaje, pensamiento y complejidad social* ikerketa lerroari ere, eta, bereziki, Sabine Pflieger bertako koordinatzaileari.

Euren konfiantza eta denbora oparitu didaten parte hartzaile gazte ezin jatorragoei eta haiekiko harremana erraztu eta antolatzen lagundu didaten ikastetxeetako arduradun eta irakasleei.

Ikerketaren bestelako alderdietarako materiala eskuratzen, atek zabaltzen eta berriak jotzen lagundu didatenei: Elvira Vidales, Ander Lizarralde, Imanol Esnaola eta Gaindegiko lankideei, Egiari Zor-eko Tasio Arrizabalagari, Etxerat-i, Imanol Murua, Lander eta Emilio Majuelo, Iñaki Sagardoi, Garazi Arrula, Kati Olaizola, Jenofa Berhokoirigoin, Iñigo Astiz, Josu Martinez, Irantzu Fernandez eta ahaztu ahal zaizkidan guztiei.

Tesiaren edizioa eta haren itzulpena atontzen lagundu didatenei: Aritz Branton eta Luisa Kulp (azaleko ilustrazioa berea da).

Urteotan trantsitatutako hirietako adiskideei, uneren batean edo bestean ikerketa (hau da, ikertzailea) emozionalki sostengatu dutenei: Donostiako, Iruñeko zein Zarauzko betiko lagunei. Testuinguru informalenetan euren istorio pribatuak partekatu dizkidatenei.

Eta, azkenik, mila esker handitzen joan den familiari: Alemaniakoari, Oriokoari, Mexikokoari eta Iruñekoari.

Beñati eta Ekaini, ni egunero lurrera itzularazteagatik.

Nire amari, Daniela Velteri, eta amona *Oma* Ingeri, oroitzapenengatik eta haien markoagatik.

Hamar bat urte izango nituen.

Teleberria komunikatu batekin ireki zuten;
hiru lagun ageri ziren, aizkora bat, sugea
eta isilik egoteko agindua egongelan.

Logelara egin nuen, ohe gainean luze eseri.
Guraso bat etorri zen lehenengo,
eta besteari deitu zion gero.

Bakoitza alde banatan jarri zen
eta gogoan dudana hori da:
hiruron irudia armairuko ispiluan.

Hau bizi guztian ezagutu dugu guk,
eta nola ez nuen jakin deskodetzen

eta hemen gaude edo
ez duzu zertaz kezkatu.

Uste izan nuen ukitzea ordea
haiengan ere beldur bat
nigan sartzea nahi ez zutena.

Itziar Ugarte Irizar, 'Komunikatua'
(*Gu gabe ere*, 2021)

Zer dio isiltzen denak
isiltzen denean?

M. Laboa / B. Atxaga, 'Gure Hitzak'
(Gernika Zuzenean, 2000)

Hitzaurrea: ikerketarako bidean, bi memoria pertsonal

Nerabea nintzela, gure udalerrira iristeko errepidearen hiru sarreretan panel handi batzuk kokatu zituzten, zetozenen bistara: "Heriotza zigorrik gabeko herria" zioten, eta azpian, "ETA ez". 2008a zen: urtebete baino ez zen falta ETAk atentatuak egiteari uzteko, eta hiru, behin betiko su-etena emateko. Mende erdi bat lehenago hasitako euskal gatazka armatuaren etapa erabakigarri baten hondarretan geunden, baina une hartan, herritar gehienontzat, beti ezagutu izan genuen gatazka beti bezain present, eta, aldi berean, beti bezain absente zegoen.

Kontzientzia politikoa hartzen ari zen nerabe gisara, ohartzen nintzen garai hartako tentsioaz: urte eta erdi lehenago eten zen azken su-etena, eta ordutik ohi baino gehiagotan ikusten nituen inguruko helduak eskuak burura eramaten. ETArek ekintzek inpaktu eta kuestionamendu gero eta handiagoa eragiten zuten: 2008a izan zen Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzia hil zuten urtea, baita Nafarroako Unibertsitatean eta EiTbren egoitzan lehergailuak ipini zituztenekoa ere. Gure testuinguru hurbilean, herriko eraikuntza-enpresa ezagun baten eraikin distiratsuan poltsa batek eztanda egin zuen urtea ere izan zen; abenduan, Inaxio Uria eskualdeko enpresaria hil zuten tiroz.

Aldi berean, testuinguru abertzale samar, baina ez bereziki militanteetan sozializatutako gazteon esperientzia eta gatazkaren ikuskera erabat modulatu zuten gertakari traumatikoen urteak ere izan ziren: ezker abertzaleko alderdi eta gazte erakundeak legez kanporatuta, guk sarritan indiskriminatu gisara pertzibitzen genituen sarekada zabalak egiten zituzten poliziek. 2008an 321 euskal herritar atxilotu zituzten gatazka armatuarekin eta *terrorismoarekin* lotutako arrazoiengatik; horietatik gutxienez 130 hogeita hamar urtetik beherakoak ziren¹, eta tartean zeuden pertsonalki ezagutzen genituen adinkideak. Urte hartako urtarrilean argitaratu ziren Igor Portu eta Mattin Sarasola torturatuaren irudiak atxilotu guztiei gerta ziezaiekeenaren abisu ziren, aurretik eta haurtzaro osoan zehar ikusi genituen beste torturatuenekin batera. Uste zabaldua zen atxiloketak astelehenetan gertatu ohi zirela; gau horiek etxetik kanpo pasatzen zituzten dozenaka gaztek. Gainontzekook astearte goizetan jasotzen genuen abisua, irratiz edo SMS bidez.

Eta, hala eta guztiz ere, normaltasun erlatibo batean bizi ginen. Frankismoko edozein protesta-abestiren pareko suhartasunaz abesten genituen Beyoncé eta Green Dayren singleak; eskolako sarreran, bezperan telebistan ikusitako *talent show*-aren emaitzak komentatzen genituen; udan ingeleseko trukeak egiten genituen itsasoz bestaldeko familiekin, eta *Spanish* ginela esaten bukatzen genuen, azalpen gehiegi emateko nagiaz eta besteen begietara piztia politikoa arraro gisara ez agertzearen. Testuinguru politikoa gure eguneroko jokabideetan zeukan eragina erabat ikusezin zitzaigun, edo hala izan

¹ Datuok *Gara* egunkariaren urteko zenbaketan oinarrituta egiaztatu ditut (GARA, 2009). Emaitza, bestalde, nahikoa bat dator Gazteen Euskal Behatokiaren datuekin; haien arabera, 2008ko atxiloketa guztien ia erdiak 15 eta 29 urte arteko gazteak ziren (GazteAukera, 2009). Azken datu honek barne hartzen ditu euskal gatazkarekin lotutako atxiloketa *politikoak*, eta bestelakoak, esate baterako, migratzaileen aurkakoak. Azken hauen izaera politikoa gutxietsi gabe, garaiko segurtasun ereduak gazteengan zeukan eraginaren isla dira bi datuak.

zedin ahalegintzen ginen, harik eta tarteka salbuespenezko gertakariren batek errutina apurtu eta lainotik ateratzen gintuen arte: Guardia Zibilaren kontrol bat metrailadoreekin, manifestazio baterako deia, leherketaren baten irudiak telebistan.

Hortaz, herri sarrerako panelek zehazki identifika ezin nezakeen deserosotasuna eragiten zidaten. “Heriotza zigorrik gabeko herria” ginela irakurtzen nuenero, nire buruari galdetzen nion nork hartu ote zuen nire izenean halako baieztapen hiperboliko bat egiteko eskumena. Heriotza zigorra Estatu Batuetako administrazioak erabiltzen zuen neurri bat zen, European aulki elektrikoarekin asoziatzen genuena eta hemen pentsaezina zena. ETAk egiten zuena tamalgarria izan zitekeen, baina beste zerbaitekin. Kontzeptuen translokalisazio hori egunerokoan inguratzen gintuen gatazka konplexuari buruzko eztabaida arrazionala oztopatzeko estrategia bat zela sentitzen nuen.

*

Bigarren oroitza bat, hamarkada bat geroago. Doktorego tesian euskal gatazkaren memoriazioari helduko diodala jakin dutenetik, euren esperientzia partikularrak inizatiba propioz partekatzen hasi zaizkit nire ingurune hurbileko pertsona ugari. Haietako bat haurtzarotik ezagutzen dudana lagun min bat da, hemen arbitrarioki Enara deituko dioguna. *Herriko tabernan* afalosteko tragoa hartzen ari garela, bere haurtzaroko oroitza bat kontatu dit: bere amaren familiak enpresa txiki bat izan zuen 1990eko hamarkadan, eta, era horretako beste askok bezala, ETAREN gutuna jaso zuten, eufemistikoki *iraultza zerga* deitu izan zaiona ordaintzeko eskatuz. Enarak, zazpi urteko bere buruaren posizioan kokatuta, oroitzen ditu ama eta izeba-osabak etxeko egongelan, dirua ETAKO bitartekariak adierazitako tokira nork eramango zuen erabakitzen, harik eta amak bere burua eskaini zuen arte. Haurtzaroko memoria bizienetako baten moduan oroitzen du Enarak: “Une hartan pentsatu nuen agian ez nuela ama berriz ikusiko”.

Beretzat hain garrantzitsua izanik eta hura jazo baino askoz lehenagotik elkar ezagutzen genuela aintzat harturik, istorio hura lehenago nolatan ez zidan kontatu erreklamatu nion lagunari. Sorbaldak jaso zituen: “Ez nuen uste garrantzitsua zenik”.

Enararekin izandako elkarrizketak gatazkari buruz esan daitekeenaren eta ezin denaren eremuen inguruko kezka pizten dit, eta pentsarazten dit bigarrena hazten ari dela gure testuinguru garaikidean. Berak bezalaxe, bere bizialdian arrasto nabarmenak utzi dituzten hainbat esperientzia zerrenda ditzake gaur egun Euskal Herrian hazitako ia edozein helduk, baina gutxienez partekatzen dituzte zirkulu hurbiletik harago; eta haren barruan ere, nekez. Protagonista legitimoagoak dauzkan gatazka handiago baten koruaren parte baino ez gara sentitzen gehienok, eta dozenaka istorio kontatzeko eduki arren, haietako gehienak tribialegitza joko genituzke doktorego tesi batean sartzeko; izatekotan, hitzaurre xume batera baztertuko genituzke, gehikuntza pertsonal eta, hortaz, beti kuestionagarri gisara.

“Istorioek osatzen dute historia”, idatzi zuen Manuel de Pedrolok; eta errealtatearen alderdi mikroskopikoei begiratzen dien kultura periodistiko batetik etorrira, ados nago harekin. Tesi honek istorio *txiki* eta anitz horien baliagarritasuna aldarrikatu nahi du. Ez hori bakarrik: beharrezkotasuna ere bai. Haietako gabe, iraganari buruzko narratiben abanikoa geroz eta monokromatikoagoa geratzen ari delako.

Tesiaren aurkibidea

1. SARRERA: ‘GATAZKA OSTEKO LEHEN BELAUNALDIA’?	1
2. IKERKETAREN EKARPENA	7
2.1. MOTIBAZIOA ETA HELBURUAK	7
2.2. HIPOTESIAK	8
2.3. IKERTZAILEAREN POSIZIONAMENDUA: TERMINOLOGIARI BURUZKO AZALPEN BATZUK.....	9
2.4. <i>DISCLAIMER</i> : EUSKAL GATAZKA EREMU DISKURTSIBO GISARA AZTERTZEKO PROPOSAMENA	12
3. OINARRI TEORIKOAK	13
3.1. MEMORIAREN IZAERA KOLEKTIBOAZ	13
3.2. MEMORIAREN ERABILERAK	19
3.2.1. Identitateen eraikuntza	19
3.2.2. Markoen ezarpena: testuinguru soziala (<i>gaur-hemen</i>) interpretatzeko tresnak.....	21
3.2.3. Traumaren lanketa.....	23
3.2.4. Ahaztea eta isiltasuna: isiltasun motak.....	27
3.3. MEMORIA PUBLIKOA ETA KONTRA-MEMORIA EUSKAL HERRIKO ESPERIENTZIAN	29
3.4. MEMORIEN TRANSMISIOA	31
3.4.1. Transmisioaren forma materialak: memoriaren teknologiak, narratibak eta iruditeriak.....	32
3.4.2. Familiaren barneko belaunaldi arteko transmisioa	34
3.5. MEMORIA ETA LENGOAIA: DISKURTSO IKASKETEN ETA MEMORIA IKASKETEN ARTEKO GURUTZAKETA	37
3.5.1. Lengoiaren dimentsio soziala.....	38
3.5.2. Diskurtsuaren Analisi Kritikoa: oinarritzko kontzeptu teoriko-metodologikoak	41
3.5.3. Nola ‘irakurtzen’, interpretatzen eta gogoratzen dugun: Teoria Soziokognitiboa	53
3.5.4. Diskurtsuaren izaera ideologikoz	55
3.5.5. Diskurtsua eta memoria: Ikuspegi Diskurtsibo-Historikoa.....	56
3.6. GATAZKAK ETA GAZTEAK.....	58
3.6.1. Sozializazio politikorako inguruneak.....	59
3.6.2. Gazteen rola euskal gatazkaren historian	61
3.6.3. Biolentzien legitimazio-estrategiak ETaren jardunaren historian zehar	63
3.6.4. Identitateen polarizazioa gatazka armatuetan	66
3.6.5. Gaur egungo gazteen ezaugarriak eta euren testuinguru sozial diskurtsiboa: “errelatoaren bataila”.....	66
3.6.5.1. ETaren amaierari buruzko narratibak	69
3.6.5.2. ‘Errelatoaren bataila’ arloz arlo.....	71
3.6.5.3. Gazteen pertzepzioak gatazkaren gaur egungo aurpegiez.....	74
3.6.6. Ebatzi gabeko gatazken arriskua	76
4. METODOLOGIA	77
4.1. IKUSPEGI DISKURTSIBO-HISTORIKOA, METODO GISARA	78
4.2. SAKONEKO ELKARRIZKETAK ETA DISKURTSOAREN ANALISA	79
4.2.1. Lagina: Parte hartzaileen adina, jatorria, generoa eta bestelako aldagaiak	79
4.2.2. Parte hartzaileekiko harremana.....	82
4.2.3. Alderdi etikoak: hizkuntzen erabilera eta baimen informatua	84
4.2.4. Elkarrizketen egitura	85

4.2.5. Datuen kategorizazioa eta azterketa	88
4.2.6. Diskurtsoaren analisi-mailak	93
4.3. IKERKETA ETNOGRAFIKOA	99
4.3.1. Landa-koadernoak: ikertzailearen oharrak	100
4.3.2. Elkarriketak informatzaile zehatzekin	100
4.3.3. Behaketa parte hartzailea ekitaldi publikoetan	102
4.4. IDATZIZKO MATERIALAREN AZTERKETA: TESTU LIBURUAK	104
5. EMAITZAK	105
5.1. EUSKAL GATAZKA DEFINITZEN: GATAZKARI BURUZKO KONTZEPtualIZAZIO ETA 'FRAME' NAGUSIAK NARRATIBA INDIBIDUALETAN.....	105
5.1.1. Gatazka biolentzia eta gatazka politikoa	107
5.1.1.1. Aktoreen karakterizazioa: ETari buruzko deskribapenak	108
5.1.1.2. Guardia Zibilaren eta beste talde (para)polizialen deskribapenak	116
5.1.1.3. Gertakari gogoratuenak	122
5.1.1.4. Biktimen karakterizazioa	127
5.1.1.5. Izen propioak.....	129
5.1.1.6. Gatazkaren alderdi politikoak.....	132
5.1.2. Gatazkaren denborazkotasuna	135
5.1.2.1. Gatazkaren barneko denbora: bi faseen narratiba.....	135
5.1.2.2. Gatazkaren denbora hizlariaren posizioarekiko: iraganeko gatazka	137
5.1.2.3. Desarmeari buruzko narratibak.....	142
5.1.2.4. Gatazkaren konponbidea eta presoen auzia	151
5.1.3. Abertzaleen gatazka	156
5.1.4. Tokiko gatazka	157
5.1.5. 'Gatazka' terminoaren birsemantizazio kasuak	160
5.1.6. Atalaren ondorioak	162
5.2. GAZTEEN INFORMAZIO ITURRIAK	164
5.2.1. Iturri ohikoenak.....	166
5.2.2. Hezkuntza arautua	169
5.2.3. Familia.....	180
5.2.4. Adinkideak eta hurbileko giro soziala	191
5.2.4.1. Adinkideak.....	192
5.2.4.2. <i>Kalea</i>	195
5.2.4.3. Sare sozialak	197
5.2.5. Komunikabideak, esfera politikoa eta kultur produktuak	204
5.2.5.1. Parte hartze politikoa	205
5.2.5.2. Komunikabideen kontsumoa eta haiekiko jarrerak.....	209
5.2.5.3. Kultur produktuen kontsumoa: zinema, literatura eta musika	219
5.2.6. Atalaren ondorioak	228
5.3. IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA DISKURTSIBOAK ETA POSIZIONAMENDURAKO ESTRATEGIAK.....	232
5.3.1. Kokatze pertsonala: oroitzapen eta esperientzia propioak	233
5.3.2. Identitate kolektiboen eraikuntza diskurtsoan: ' <i>Ingroup-Outgroup</i> ' erako egiturak.....	247
5.3.2.1. Belaunaldi ardatza.....	248
5.3.2.2. Nazio-ardatza	255
5.4. TABUA ETA EZJAKINTASUNA KUDEATZEKO ERABILITAKO ESTRATEGIA PSIKOLINGUISTIKOAK.....	277
5.4.1. Ebaluazio moralaren nagusitasuna eta baimen eskaerak.....	278
5.4.2. Idealizazioa.....	282
5.4.3. Mito fundazionalen (berr)eraikuntza	284
5.4.4. Naturalizazioa eta eufemismoen erabilera	287
5.4.5. Metaforizazioa, zehazte-estrategia gisara	291
5.4.5.1. Lurraldearen metafora	291
5.4.5.2. Itxitako liburuaren edo amaitutako etaparen metafora	294
5.4.5.3. Epaiketaren metafora.....	294

5.4.5.4. Gerraren metafora	295
5.4.6. Eredu mentalen funtzioa memoriazko diskurtsoetan: berrantolaketa eta osaera	299
5.4.7. Kapituluaren ondorioak	305
6. ONDORIOAK ETA HAUSMARKETAK	309
6.1. TESIAREN ONDORIO OROKORRAK	309
6.2. IKERKETAREN EKARPENAK ETA INPLIKAZIO SOZIALAK	319
6.3. IKERKETAREN MUGAK	320
6.4. ETORKIZUNERAKO IKERKETA ILDO POSIBLEAK	321
7. BIBLIOGRAFIA	323
8. ERANSKINAK	345
8.1. IRUDI ETA TAULEN AURKIBIDEA	345
8.1.2. Irudiak	345
8.1.3. Taulak.....	345
8.2. ERABILITAKO MATERIAL GEHIGARRIA	346
8.2.1. Gonbidapen gutunaren eredia.....	346
8.2.2. Baimen informaturako agiri-eredua	347
8.2.3. Banakako elkarrizketetarako erabilitako gidoi orientatiboa.....	349

1. SARRERA: ‘GATAZKA OSTEKO LEHEN BELAUNALDIA’?


Euskal Herriko gazteek iraganeko biolentzia politikoei buruz eraikitzen dituzten diskurtsoak eta haiekiko euren posizionamenduak aztertzea du helburu tesi honek. Hamarkada bat baino gehiago igaro da Euskadi Ta Askatasunak (ETA), Euskal Herriko eta inguruko historia hurbila modu nabarmenean markatu duen talde armatuak, bere jarduera biolentzia eten zuenetik. “Europa Mendebaldeko azken insurgentzia armatu” gisara ere definitu izan denak (Whitfield, 2015, p. 2) 2011n aldarrikatu zuen behin betiko su-etena, eta zazpi urte geroago desegin zen erakunde gisara. Espainiako Barne Ministerioak 853 pertsona hiltzea egotzen die ETARI eta “hari lotutako erakundeei” (Ministerio del Interior, 2018) 1968 eta 2010 arteko bere historia armatuan.

Desarmeak “aro politiko berri bat” (Larrinaga & Amurrio, 2022, p. 2) ekarri du euskal gizartearen esperientzia kolektibora. Subjektu politikoen (auto)kategorizazioarako euskari sendoa eskaini ohi zuten koordenada identitario tradizionalak lausotu egin dira, joera eta diskurtso globalekin nahastu dira, eta horrek *euskal gatazka* deitu izan zaionaren oinarrian dauden auziak birdefinitzera behartu ditu eragile politiko eta sozialak. Elementu armatuaren interferentziarik gabe, ikuspegi berrietatik heldu izan zaie lurraldetasunari edota tokiko hizkuntzaren biziraupenaren galderari, maila globalean ere present dauden korronte ideologikoekin harilkatuz; besteak beste, ekologiaren eta feminismoaren ildotik (Larrinaga Renteria et al., 2020). Covid-19aren pandemiaren testuinguruan sustatutako metafora belikoei (Castro Seixas, 2021; Crespo-Fernández, 2021) eta estatuko instituzioen heroizazio (berr)eszenifikazioak (McCormick, 2020) marko erreferentzial estatutalaren pertzepzioan eta gutxiengo nazional edo kulturalen irudian izan duten eragina oraindik ikertzeko dagoen arren, esanenez 2020-2022 arteko pandemiak are gehiago urundu gaituela aurreko hamarkadetatik; iraganak, eta, haren barruan, euskal gatazka armatuari lotutako kontzeptu eta formek, inoiz baino urrunago dirudite euskal herritarren eguneroko kezketatik.

Baina 60 urteko ziklo politiko eta armatu batek hain epe laburrean gure bizitzetan hain arrasto laburra uzteak susmoa piztu behar liguke gutxienez: zergatik hitz egiten da gaur egun hain gutxi 1968 eta 2011 artean gure herria inarrosi zuen gatazka politikoaz eta hari hertsiki lotutako kanpaina biolentzia? Zeintzuk dira gizarteko sektore zabalak isiltasunera bultzatzen dituzten arrazoiak? Eta, batez ere, zein diskurtso eta ikasketa ari dira gazteak jasotzen, eta zeintzuk ari gatazka ukatzen isiltasun horren bidez?

Doktorego-tesi honekin, ETAREN jarduera armatuaren ondoren sozializatutako gazteek iragan biolentzia dituzten pertzepzioetara hurbiltzea dugu helburu. *Z belaunaldia*, *Gen Z* edo *zoomers* deitu ohi zaion belaunaldiko kideek osatzen dute gure azterketa-unibertsoa, hau da, 1990eko hamarkadaren amaieran eta 2000ko lehen urteetan jaioetako pertsonak; tesi honen prestaketak iraun duen urteetan (2018-2023) helduarora iristen ari diren gazteek, alegia. Maila globalean, garapen handiko teknologia digitalen erabiltzaile natibo izatea eta, ondorioz, aldi berean hainbat identitate-saretako kide izatea dira gazteon ezaugarri esanguratsuenetako batzuk, horrek dakarren identitateen arteko fluktuazio handiagoarekin eta, Amezaga Albizuk (2009, p. 44) ohartarazten duenez, baita homogeneizazio kultural handiago baterako joerarekin ere. Maila lokalean eta guri dagokigun ikerketa-esparruan, ETAREN jarduera armatuaren zati handienaren oroitzapen pertsonalik ez duen heldu belaunaldia da: talde armatuaren azken atentatua 2009. urtean izan zela aintzat harturik, haren historiaren zati handiena gazteok jaio aurretik gertatua da; edo, bestela, eurak gogoratzeko txikiegiak zirenean.

ETAren amaiera-prozesuak hainbat mugarri esanguratsu izan dituen arren, ikerketa honen xedeetarako haren jarduera armatuaren amaiera faktikoa (2009) hartuko dugu inflexio puntutzat, praktikan hark ekarri zuelako aldaketa handiena gazteon bizi esperientzietara:



1. irudia: ETAren desarme prozesuaren inflexio-puntu nagusiak.

Inflexio puntu honen ezarpena, bistan da, aukeraketa metodologiko bat da: gatazkaren historiaren bilakaeran hainbat unek ekarri dituzte biraketa handiak gizartearen esperientzietara. Ikergai dugun belaunaldiaren egunerokotasunaren ikuspuntutik, ordea, argudia dezakegu 2009a dela ETAren biolentzia euren bizitzatik desagerrarazi zuen urtea, eurak artean haurrak zirenean. Hortaz, belaunaldi helduagoentzat oraindik oso present dagoen garai historiko horri buruz dituzten ezagutzak ezinbestean dira mediatuak: iragana berreraikitzeke eta euren burua bertan kokatzeko erabiltzen dituzten narratibak interdiskurtsiboak dira.

Kasu askotan, baina, hutsunez beteriko kontakizunak iristen zaizkie, edota euren artean kontraesankorrek direnak. Tesi hau idazteko uneraino, ez dago euskal gatazkaren historiari buruzko narratiba kontsentsuaturik, ez eta gaia propio tematizatzen duen unitate didaktikorik ere institutuko adineko ikasleentzat. Esfera politiko-mediatikoan, eremu biziki disputatua da euskal gatazkaren memoria. Areago: mintzakide politikoen deslegitimazio kanpaina erretrospektibo baten presentzia suma daiteke, euskal gatazkak *gatazka* izendapena merezi ote duen ere kuestionatzeraino.

Kontraesan horiek tabua eta kohibizioa eragiten dituzte bestelako espazio sozialetan ere: eremu pribatuenean, etxe askotan ez da gaiaz zuzenean hitz egiten, gurasoek eurek ere ez dakitelako nola mintzatu mingarriak edo konplexuegiak izan daitezkeen gertakariei buruz. Ikastetxeetan ere ez dago irakasleei oinarri diskurtsibo gisara balio diezaiekeen ia material didaktikorik, eta gizartean oro har ez da garatu eztabaida osasuntsurako kulturarik; kontrara, *bakearen* izenean gai gatazkatsuak saihestea bihurtu da arau.

Horregatik, euskal kasua “iragan biolento baten memorian ezohiko zailtasunak” dakartzan egoera bat dela argudiatzen dute Eser eta Petersek (2016, p. 22). Are gehiago euren ikuskera eta identitate politikoak eraikitzen ari diren gazteentzat; Astrid Erll-ek (2017, p. 47) 17. eta 25. urtebetetzeen artean kokatzen du “garai formatibo” hori. Gazteak

uneotan eraikitzen ari diren diskurtso eta esanahitze-prozesuak ulertzea ezinbestekoa da euskal gatazkaren bilakaera sinboliko-diskurtsiboa ulertzeko.

Oro har, euskal gatazkaren memoriaren eraikuntzan modu aktiboan eta ziurtasunezko auto-pertzepzio batekin inplikatzeko baliabide diskurtsiboak falta zaizkie gazteei. Baina transmisio-politika planifikaturik ez izateak ez du esan nahi memoriarik eraikitzen ez dutenik. Gazteok euren harremana eraikitzen ari dira euskal gatazkaren historiarekin, aurreko belaunaldiekiko aski ezberdina dena euren testuinguruko elementuak aintzat hartuz gero. Tentazioa izan genezake Euskal Herriko *gatazka osteko* lehen belaunaldia aztertzen ari garela esateko. Hala egiteak, ordea, *gatazka* ETaren biolentziarekin parekatzea lekarke, haren sustraian dauden auzi politiko eta historikoak, hala nola, haren inplikazio kognitibo, sinboliko eta identitarioak ahaztuta. ETaren 2011ko su-etenak euskal gatazkaren bilakaerara inflexio puntu kuestionaezina ekarri zuen, eta bidezkoa da argudiatzea orduan haur zirenen esperientzia aski desberdina dela aurreko belaunaldien esperientziarekiko, aztertua izatea merezi izateko. Nolanahi ere, badaude gaur egungo gazteek esperimendatzen dituzten hainbat auzi, zuzenean edo zeharka euskal gatazka politiko eta armatuarekin lotu daitezkeenak. Euskal lurraldeen autonomia-graduari buruzko eztabaidek indarrean jarraitzen dute, intentsitate apalagoarekin bada ere; *autodeterminazioarekin* lotutako terminologia *erabakitzeko eskubidea* (Alvarez Ortiz, 2020) kontzeptuak ordezkatu du, gizarteko sektore zabalagoak inplikatzeko helburuz. Bestalde, gatazka armatuaren ondorio zuzena diren errealitate materialak beha daitezke oraindik, ETarekin lotura izatea egotzita preso jarraitzen duten 150etik gora euskal herritarren ebatzi gabeko etorkizuna edota Guardia Zibilaren presentziak eragindako talkak, esaterako. Espainiako gorputz polizial-militar honek eskumen bereziak izan ditu historikoki Euskal Herrian, lurralde osoan aintzat hartzen zen *mehatxu terroristaren* argudiopean. Espainiako Poliziarekin batera, azken hamarkadotan atxiloketa gehien egin dituen polizia-erakundea izan da, eta atxiloketon inkomunikazio aldietan izandako 2.860 tortura kasu dokumentatu dituzte gutxienez (Etxeberria et al., 2017; IVAC/KREI, 2022).

ETaren jardun armatua amaitu eta ia hamarkada batera, Europako Batasuneko lurralde militarizatuenetako bat izaten jarraitzen zuen Hego Euskal Herriak 2018an, mila biztanleko ia zazpi poliziarekin (Albin, 2018a). Oraindik orain, guardia zibilek oro har kuartel militarretan bizitzen jarraitzen dute, eta tokiko gizartearekiko harremana gatazkatsua edo absentea da. Arazo honen azken urteotako sinbolo ezagunena Altsasuko (Nafarroa) auzia izan da (Agirrezabal Moreno & Intxusta Pagola, 2018): 2016ko urrian, jai giroan polizia militarrekin izandako liskar baten ondorioz, terrorismoa leporatuta epaitu zituzten zortzi gazte, gehienak 20 eta 25 urte artekoak. Prozesu judizialaren hasieran, 62 urte arteko espetxe zigorrak eskatu zituen Fiskaltzak haietako bakoitzarentzat. 2019ko urrian heldu zen epaia; terrorismoagatiko akusazioa kendu arren, 2 eta 13 urteko espetxe zigorrak ipini zizkien.

Auziak hasieratik hartutako kutsu politikoak eta epaiketa ETaren desarmearen garai bertsuan gertatu izanak elikatu egin zuten “terrorismoa desegin ondoren ere, bere errealitate materialaz harago existitu” (Sagardoy-Leuza, 2020, p. 13) zitekeenaren sentipena euskal gizartearen sektore zabaletan: *terrorista* gisara izenda zitekeen azken taldeak bere jarduna eten eta hamarkada batera, orduan haur izandakoak ari ziren terrorismo akusazioekin konfrontatzen. Urte haietan helduarora hurbiltzen ari ziren adinkideentzat, euskal gatazkaren sinbolo garaikide argienetako bat bihurtu zen Altsasuko auzia.

Gatazken materialitate aldakorrari buruzko kontzepzio honek pentsarazten digu euskal gatazkaren fase sinbolikoago batera igaro garela: lehia diskurtsiboak lehia militarra

ordezkatu du ia osorik, eta iraganari eta botere harremanei buruzko *egiak* bihurtu dira eztabaidagai nagusi. Gaur egungo gazteek agian ez dute leherketa fisikorik gogoratzen, baina esperimintatu dituzte *euskal herritar terroristaren* estereotipoarekin lotutako aurreiritziak. Neurri handiagoan edo txikiagoan, gai dira haurtzaroan zehar euren gurasoen begiradaren bidez, giro sozialean ikasitako erreferentzien bidez eta komunikabideetako irudien bidez jasotako informazioan oinarrituta esanahiak sortzeko; prozesu hau euren testuinguru garaikideak eskaintzen dizkien markoen terminoetan egiten dute. Modu pautatuan planifikatutako transmisiorik jaso ez duten arren, gatazkaren memorian sozializatuak izan dira, eta ondorioz, uste, emozio eta jokabide-arauen forman barneratutako ezagutza kultural ugariaren jabe dira.

Errelatoaren batailak, ordea, espazio gutxi uzten du narratiben aniztasunerako, are gutxiago gatazka ustez *bizi izan ez dutenen* ahotsetarako. Gatazka armatua ondorio material eta sinbolikoak dituen gatazka diskurtsibo bihurtu da, eta gudu-zelai berri horretan bazterreko posizio batera alboratuta daude gazteak, maiz eta okerki desinteres gisara interpretatu izan den isiltasun batean kateatuta.

Tesi honekin, jarrera horien atzean dauden prozesu sinboliko, kognitibo eta erlazionalak ezagutu nahi ditugu. Analisiaren Diskurtsioa eta, zehazki, haren korrante Diskurtsibo-Historikoa (Reisigl & Wodak, 2017) oinarri teoriko-metodologiko gisara erabiliz eta hura Memoria Ikasketen arloko kontzeptu teorikoekin elikatuz, Euskal Herriko heldu belaunaldi berriek iragan armatuari buruz eraikitzen dituzten kontzeptualizazioak aztertzea dugu helburu, hala nola, harekiko posizionatzeko erabiltzen dituzten estrategia diskurtsibo-kognitibo nagusiak. Belaunaldi honetako kide diren pertsonekin egindako sakoneko elkarrizketetan eta behaketa-lan osagarrian oinarrituta, euskal gatazkari eta hari lotutako auzi politiko eta sozialei buruz osatzen dituzten definizio eta marko kontzeptual nagusiak euren testuinguruan kokatuko ditugu, eta ondoren gazteok euren burua harreman-sare konplexu horretan nola kokatzen duten behatuko dugu.

Ikerketa honekin, gazteok memoriaren eraikuntzan nola inplikatzeko diren aztertu nahi dugu, hau da, nola pertzibitzen eta erabiltzen duten euren agentzia diskurtsiboa iraganari buruzko narratibak eraikitzeke eta partekatzeke orduan. Horretarako, proposatzen dugun azterketak ezinbestean heltzen dio gazteon identitate kolektiboaren eraikuntza diskurtsiboari, hain zuzen ere zelai diskurtsibo zehatz batean subjektu gisara kokatzeko baliabide nagusietako bat denez gero.

Horretarako, Diskurtsioaren Analisi Kritikoa lehenetsi dugu perspektiba metodologiko gisara, eta, zehazki, haren barruko Hurbilketa Diskurtsibo-Historikoa, perspektiba horrek gazteon prozesu kognitiboetako batzuk ulertzeko bidea eskaintzen digulako, aldi berean testuinguru historiko, sozial eta kulturalak analisisan txertatuz (Wodak, 2001). Analisi honen izaera kognitibo-konstruktibistak memoriaren eraikuntza esanahitze- eta ikasketaprozesu aktibo baten gisan aztertzen du, subjektuen agentzian eta posizionamenduetan arreta ipiniz. Edo, Larrinaga eta Amurrioren hitzetan (2022, p. 26), aintzat hartzen dugu sozializazioa ez dela “norabide bakarreko eragin bat, baizik eta [...] aukera, autonomiazko eta kreatibitatezko auzi bat”.

Orain arte, hainbat diziplina eta eremu akademikotatik heldu izan zaio euskal gatazkaren memoriari buruzko kezkarri, besteak beste, Kriminologiatik eta Justizia Trantsizionalaren ikuspegitik (Bengoetxea, 2019; Heath-Kelly & Fernández de Mosteyrín, 2021), Historiatik (Majuelo Gil, 2020a; Mees, 2022), Soziologiatik (Larrinaga & Amurrio, 2022; Larrinaga Renteria et al., 2020; Zubiaga, 2011), Zientzia Politiko eta Administratiboetatik (Castells & Rivera, 2021; Rodríguez Fouz, 2021), Filosofiatik eta Etiketik (Sáez de la

Fuente Aldama et al., 2020; Uson González et al., 2017), Komunikabideen Analisitik (Murua, 2014), Antropologiatik (Zulaika, 2006; Zulaika & Murua, 2017), Literaturatik (Martínez, 2018; Olaziregi, 2019) eta Genero Ikasketetatik (Galardi Fernandez de Agirre, 2021; García González, 2019).

Tesi honekin, prozesu sozial, kognitibo eta linguistikoak bateratzen dituen Diskurtsoaren Analisitik egindako hurbilpen bat proposatzen dugu. Hartara, gatazka politiko zabalago batean inplikaturako talde sozial zehatz bateko pertsonen adierazpen linguistikoak eta pertsona zehatz horien prozesu kognitiboen ondorioz sortzen diren esanahi kokatuak azter ditzakegu. Wodak eta Krzyzanowskiren arabera (2008, p. 3), testuinguru soziopolitiko eta historikoko gatazketarantzko orientazio hau eta datu enpirikoetan oinarrituta egotea dira Hurbilketa Historiko-Diskurtsiboaren ezaugarri nagusietako bi.

Hurbilketa honen bidez, aztergai ditugun subjektu zehatzen pertzepzio sozialen eta identifikaziorako mekanismoen inguruko erantzun batzuk argitu ahal izatea espero dugu. Emaitzak euren adinkide guztiek osatutako populazio orokorrera estrapolagarriak ote diren kuestionagarria izanik ere (horrek, besteak beste, *euskal gazteak* kategorია gisara uniformizatzea lekarkeelako), hain zuzen ere analisiaren zehaztasunak eta sakontasunak egiten diote ekarpena ikergai dugun galderari, eta etorkizunean zabaltzeko moduko hipotesi batzuk planteatzeko oinarri sendoa eskaintzen digute. Baliteke identifikatu ditugun patroï diskurtsiboak ez izatea existitzen diren guztiak, baina euren existentzia argudiatuz, ikertzen jarraitzeko baliozko heldulekua dira.

Ikerketa honen berritasuna bikoitza da. Alde batetik, orain arte ez zaio mintzagai dugun arazo sozialari (euskal gatazkaren memoriaren eraikuntzari) gazteen begiradatik ia heldu; guk, ikerketarako objektu bainoago, diskurtso baliagarrien sortzaile gisara ikusten ditugu, prozesu sozial eta sinbolikoen eraldaketan rol erabakigarria duten subjektuak baitira gazteak. Bestalde, ikerketa honekin Diskurtso Ikasketei ere egin nahi izan diegu ekarpena. Memoria kolektiboen eraikuntza eta iraganarekiko harremana bezain gai sozial konplexuak subjektuen hizkuntz erabileraren bidez zein neurritan azter daitezkeen behatzeko ahalegin bat da, hortaz Diskurtso Ikasketei analisi linguistiko xehe eta anekdotikoez haragoko erabilera errelebante bat aitortuz.

Tesi honek sei atal nagusi ditu. Lehenbiziko sarrera honen ostean, xeheago sakonduko dugu ikerketa hau gidatu duten helburu eta galderetan, eta haren abiapuntu gisara erabili ditugun hipotesietan. Horrez gain, bigarren kapitulu honek irakurketari ekin aurretik aintzat hartu beharreko argibide batzuk jasotzen ditu, besteak beste, erabilitako terminologiari eta ikertzailearen posizionamenduari dagozkionak.

Hirugarren kapitulua gure ikerketa zimendatzeko erabili dugun literatura akademikoari eskainita dago. Marko teoriko honek hiru zutabe nagusi ditu: alde batetik, memoria kolektiboari buruzko kontzeptu eta teoriak arakatzen dira, aztergai dugun belaunaldiak iraganaz eraikitzen dituen diskurtsoetan osagai kolektiboa zentrala dela aintzat hartuta. Bestetik, teoria hauek diskurtsoaren analisiaren inguruko proposamen kontzeptual eta teorikoekin lotu ditugu: memoria funtsean iraganaren bernarratibizazio garaikide bat dela argudiatzen badugu, narratibizazio horrek lengoaiaren antolaketarekin harreman hertsia baitu derrigor. Oinarri teorikoen azken *hanka* edo zutabeak gatazka testuinguruetan sozializatutako gazteei buruzko literatura jasotzen du, hala nola, aztergai dugun belaunaldi zehatz honen posizio historikoa ulertzeko balio duten aurreko ikerketen bilduma bat.

Laugarren kapitulan, gure ikerketan erabilitako urrats metodologikoen berri emango dugu. Bertan, argudiatuko dugu zergatik lehenetsi dugun Diskurtsoaren Analisia

ikerketarako tresna gisara, izaera etnografikoagoko azterketa batekin konbinatuta; eta, aldi berean, gure laginaren aukeraketaren justifikazio bat eskainiko dugu.

Bosgarren kapituluak ikerketaren emaitzak jasotzen ditu. Azterketa diskurtsibo kualitatiboa izanik, datuen erreprodukzioa eta haien interpretazioa elkarri loturik eskaintzen dira, ulerterraztasunaren izenean, hau da, hautatutako pasarte bakoitzari bere interpretazioak jarraitzen dio, ikerketa-galderen arabera tematikoki antolatuta. Denera, lau azpi-kapitulu analitiko ditu tesi honek. Ikerketa gidatu duen galdera nagusiarekiko erantzunak (*Nolako harremana eraikitzen ari dira gazteak euskal gatazkaren historiarekiko?*) kapituluaren azken bi azpiataletan daude jasota, baina hara iristeko, beste bi alderdi argitu behar izan ditugu aurretik: zer esanahi ematen dioten gazteek euskal gatazkari eta hari lotutako elementuei; eta nola kokatzen diren euren testuinguru diskurtsibo zabalagoan, hau da, eskura duten errepertorio diskurtsiboan. Horregatik, lehenbiziko azpi-kapitulu analitikoak gure parte hartzaileek *euskal gatazka* kontzeptuari buruz eraikitzen dituzten makronarratibak ditu ikergai, hala nola, euren *memorian iraun* duten elementu, datu eta izenen analisi bat. Bigarrenak eskura sumatzen dituzten informazio iturrien mapa diskurtsibo bat osatzea du helburu, lehenbiziko atalean esplizitatutako esanahiak non jaso ahal izan dituzten ulertzen lagunduko diguna.

Hirugarren eta laugarren azpiatal analitikoek gazteek elementu horiek kudeatzeko eta euren testuinguruarekin bateratzeko erabiltzen dituzten estrategia psikolinguistikoetan jartzen dute arreta. Alde batetik, euren diskurtsoetan identifikatu ahal izan ditugun identitate kolektiboen eraikuntza aztertu dugu, eta bestetik, identitate horiek tabua gainditzeko eta euren agentzia handitzeko estrategia-sorta zabalago baten barruan nola txertatzen eta erabiltzen diren argituko dugu.

Seigarren eta azken atala azterketa horretatik eratorritako ondorioei eskainita dago. Bertan, argudiatuko dugu gure ikerketako parte hartzaile gazteek iraganeko biolentziarekiko sentitzen duten distantzia emozionalak eta ingurune sozialean pertzibitu duten legitimitate faltak eragozten dietela, neurri handi batean, memoriaren eraikuntzan aktiboki inplikatzeko. Nolanahi ere, oztopo horiek gainditzeko hainbat estrategia erabiltzen dituztela erakutsiko dugu, eta hortaz, argudiatuko dugu okerra litzatekeela haien jarrera desinteres gisara interpretatzea. Horren ordez, gazteen parte hartzea sustatu lezaketen zenbait proposamen planteatuko ditugu, eta, azterketa zehatz honen mugak aintzat harturik, etorkizunean sakontzeko moduko ikerketa-galdera batzuk planteatuko ditugu.

“Sekula ez diogu soilik gauza bati begiratzen”, idatzi zuen John Bergerrek: “Beti begiratzen diogu gauzen eta gure buruaren arteko harremanari” (2000, p. 14 [1972]). Beraz, gazteek eraikitzen dituzten memoriei buruzko kezkek ezinbestean garamatza gazteek euren buruaz duten irudia eta memoriaren eraikuntza den elkarrizketa sozial zabal horretan euren buruari ematen dioten lekua ikertzera. Balio beza tesi honek arazo konplexu baten alderdi zehatz baten ulermenerako lehenbiziko hurbilpen gisara.

2. IKERKETAREN EKARPENA

2.1. MOTIBAZIOA ETA HELBURUAK

Ikerketaren abiapuntu gisara, aintzat hartzen dugu 2011z geroztik trantsizio fase batean dagoela Euskal Herria, ETaren indarkeriaren amaierak inflexio puntu kuestionaezina ekarri duenez gero euskal herritar gehienon bizi esperientziara. Hortaz, iragan gatazkatsura atzera begiratzeko eta etorkizunerako diskurtsoak finkatzeko une erabakigarri batean gaude: urteotan eraikiko den eremu edo mapa diskurtsiboak neurri handi batean baldintzatuko ditu gatazka biolentoari buruzko etorkizuneko ulerkera eta interpretazio sozialak.

Gaur egun gazte edo nerabe direnen pertzepzio-, esanahitze- eta berreraikuntza-prozesuak gakoetako bat dira testuinguru honetan, slde batetik, garai armatuaz ia oroitzapenik ez izanik, harekiko aurreko belaunaldiek ez duten distantzia kognitibo eta emozional bat auresuposa dakiekeelako. Bestetik, euren sozializazio politikoa hain zuzen ere euskal gatazkaren trantsizio-fase honetan garatzeak ezaugarri partikular batzuk gehituko dizkio euren identitate kolektiboen eraikuntzari, eta haiek ezagutzea baliagarri da etorkizunean har ditzaketan posizioak edota praktikak testuinguru ideologiko-identitario baten markoan ulertzeko.

Euskal gatazkaren memoriari buruzko kezka ugari plazaratu dira azken urteotan, bereziki ETaren atentatu historikoen edota desarme ekitaldien urteurren borobilak probestuz. Esparru mediatikoan, fokua gazteengana mugitzen hasi da, ezagutzen (ez) dituzten data historiko eta biktimen izenak bitxikeria informatibo bihurtuz (Nieto et al., 2021; Radio Bilbao, 2021). Ikuspegiotan, ordea, iraganari buruzko ezagutzen transmisioa historialarien edota pedagogoen begiradatik planteatu ohi da. Akademian, gaurdaino ez da existitzen gazteekin eurekin egindako eta haien interpretazio eta berresanahitze-prozesu diskurtsiboak aztertzen dituen ikerketa-lan kualitatibo sakonik; euren pertzepzioei buruzko lehenbiziko hurbilpenak nagusiki kuantitatiboak eta inkesta formako galdeketatan oinarrituak izan dira.

Horregatik, ikerketa honen helburu nagusia da gazteok iragan armatuarekiko eta hark inplikatzan duen testuinguru diskurtsiboarekiko dituzten jarrerak ahozko lengoaiaren bidez nola adierazten diren ikertzea.

Horretarako, lau azpi-helburu bereizi ditugu, jarraian lau ikerketa-galderatan formulatuko ditugunak:

1. ‘Euskal gatazkari’ eta bertan inplikaturako aktoreei buruzko zein narratiba nagusi (*makronarratiba*) eraikitzen dituzte gazteek?
2. Zein kanaletatik jasotzen dituzte gatazkari buruzko diskurtsoak, eta nola eraikitzen dituzte esanahiak horietan oinarrituta?
3. Nola posizionatzen dira hizlariak narraturako gertakarietara, eta nola adierazten dute posizionamendu hori diskurtsuaren bidez?
4. Zein estrategia erabiltzen dituzte euskal gatazkaren inguruko eremu diskurtsibora hurbiltzeko?

Lehenbiziko galderarekin, euskal gatazkari buruzko diskurtsoen eduki proposizionalak ezagutzea dugu helburu; hau da, zeintzuk diren nabarmentzen diren gertakari, aktore eta datak, eta haiek nola antolatzen eta sailkatzen dituzten narratiboki.

Bigarren galderarekin, euren testuinguru diskurtsiboa nola pertzibitzen duten aztertu asmo dugu, hau da, zein iturriren kontzientzia duten eta nola berrantolatzen dituzten haietatik jasotako esanahiak.

Hirugarren galderarekin, gazteen posizionamendu diskurtsiboa aztertu nahi dugu, hau da, nola kokatzen diren subjektu gisara testuingurutzat duten eremu diskurtsiboan.

Laugarren galderarekin, iraganari buruz eraikita dituzten eskema mentalak euren testuinguru eta posizio garaikideekin bateratzeko erabiltzen dituzten estrategiak aztertu asmo ditugu.

2.2. HIPOTESIAK

Abiapuntuko hipotesia baliabide diskurtsiboen falta izan da: 2017an ikerketa honetarako lehenbiziko proposamenak formulatu genituenean, ETAREN azken desarme ekitaldia egiteko zegoen oraindik, eta, beraz, mediatikoki eta sozialki oraindik erabat amaitu gabekotzat jotzen zen haren jarduna. Gazteen ezagutza eta jarrerak ez zeuden agenda mediatikoan, baina hezkuntzako instituzioetan abian zen 1968-2011 arteko garaia propio tematizatuko zuten eduki didaktikoen beharrari buruzko eztabaida (Goikoetxea, 2019). Testuinguru sozialean ere gaia saihesten zela sumaturik, belaunaldi berriek eskura izango zuten errepertorio diskurtsiboari buruzko kezka piztu zitzaigun, eta hark motibatu zuen ikerketa hau.

2018an tesirako ikerketa pilotua egin ahal izan genuen Oñatin (Gipuzkoa), IISJ Oñatiko Lege Soziologiarako Nazioarteko Institutuaren laguntzarekin (Velte, 2020). Hartan argi samar behatu ahal izan genuen egiaz tabu handi baten aurrean geundela, eta horrek ahalbidetu zigun lanerako hipotesiak zehatzago definitzea:

1. ‘Euskal gatazkari’ buruzko makronarratibei dagokienez:
 - a. Tokiko erreferentziek pisu handia dute gertakari historikoak gogoratzeko orduan.
 - b. Gatazkaren alderdi biolentoenak nabarmentzen dira makronarratibetan: zuri-beltzeko ikuspegiak planteatzen dira.
 - c. Frankismotik monarkia parlamentariorako trantsizio espainiarra inflexio puntutzat jotzen da gatazka armatuaren bilakaera ebaluatzeko garaian.
2. Gatazkaren historiari buruzko ezagutza iturriei dagokienez:
 - a. Historia familiarak berebiziko eragina du gatazkari buruz eraikitzen diren irakurketa orokorretan.
 - b. Hezkuntzako edukiek helduleku fidagarria irudikatzen dute gazteontzat.
 - c. Presio mediatiko eta sozial handia sumatzen dute, Hego Euskal Herrian bederen, gaiari buruz modu zuzenean hitz egiteko.
3. Hizlarien posizionamenduari dagokionez:
 - a. Maila pertsonalean, gatazka aurreiritzi forman esperimendu dute gazteok nagusiki.
 - b. Kanpoko diskurtso nagusiak, sarritan, modu inkontzientean erreproduzitzen dituzte.

- c. Narratiben edo narratiba faltaren osagai emozionalari dagokionez, badaude arrazoiak eszeptiko izateko ondorengo belaunaldiek ere *minetik* isiltzen dutela dioen traumaren literaturarekiko. Gazteok ez dute minik sentitzen iraganarengatik; gaurkotasunezko gatazkek eragiten dizkieten bestelako emozioek zeharkatzen dute euren posizioa.
4. Estrategia diskurtsiboei dagokienez:
- a. Informazioaren berrantolaketa bat suma daiteke euren diskurtsoetan, baita terminoen birsemantizazio bat ere.
 - b. Iragan armatuaren idealizazio bat antzeman daiteke diskurtsoetan.

Hipotesi hauetako asko nahiko bistakoak izanda, ondorengo ikerketan haien kausetan arakatzea izan da gure erronka. Hauek, hainbat kasutan, aurreragorako beste hipotesi batzuen formulazioari eman diote bide, ikerketaren ondorioei eskainitako atalean zehaztuko ditugunak.

2.3. IKERTZAILEAREN POSIZIONAMENDUA: TERMINOLOGIARI BURUZKO AZALPEN BATZUK

Ikergaiaren zehaztapenean, bistako oztopo batekin gurutzatu da ikertzailea: gaurdaino, ez dago joan den mende Erdiko biolentzia politikoa izendatzeko formulazio adosturik. Aukeraketa terminologiko orori jarrera ideologiko bat auresuposatzen zaio, arazoa bera ulertzeko marko ezberdinetatik egin daitekeenez gero. Ipar Irlandako gatazkan, *The Troubles* (arazoak edo zailtasunak) bihurtu da gatazka politikoa hitz egiteko kontsentsuzko izendapena. Euskal Herrian, aldiz, *Gaiatz* hitz egiteko errepertorio designatzaile zabala pilatu dugu azken hamarkadotan. Alde batetik, izaera orokorreko izendapenak lehenetsi dituzte autore batzuek ikuspegi zabaltasunaren izenean, besteak beste, “the Basque problem” edo *euskal arazoa* (Aguilar, 2003; Whitfield, 2015; Zulaika & Murua, 2017); “the Basque case” edo *euskal kasua* (Bengoetxea, 2019); edota “cuestión vasca” edo *euskal auzia* (Molina, 2010). Beste batzuek gatazka horren adierazpen biolentzian jarri dute definizioaren fokua, eta haren izaera edo kausak nabarmendu dituzte, esate baterako, auzia “terrorismo vasco” edo *euskal terrorismo* gisara izendatuz (López Romo, 2021), edota, atzerago, “biolentzia abertzaleaz” mintzatuz (Ruiz Olabuénaga, 2005, p. 90); gehienak gatazka elementu desiragaitz gisara ikusten eta euskal herritarren agentzian kokatzen duten ikuspegiak.

Ikerketa honetarako, *euskal gatazka* terminoa lehenetsiko dugu. Alde batetik, hala egin dutelako tesi hau garatu dugun fakultateko beste autore batzuek ere (Arana Arrieta et al., 2016; Ramírez de la Piscina Martínez et al., 2016), baita euskarazko idazketan erreferentetzat jotzen den *Berria* egunkariak ere (O. Urain, 2022). Eta, bestetik, Gatazka eta Bake Ikasketen esparruan kokatu nahi dugulako aztergai dugun arazoa, haren izaera poliedriko eta konplexuan eragiten duten dimentsio historiko, politiko, sinboliko eta etikoak aintzat harturik.

Horretarako, Galtungen Gatazken Teorian (2013) oinarritutako ulerkera batetik abiatzen gara. Teoria honek ez ditu *gatazka* eta *bakea* kontrajartzen: gatazka gizartearen etengabeko ezaugarri bat dela argudiatzen du, indarkeriazko adierazpenak izan ditzakeena edo ez. Era berean, *indarkeria* kontzeptua hainbat materialitate- eta adierazpen-esparrutara atxikitzen du autore honek: Galtungen arabera, indarkeria *zuzena* izan daiteke, haren ondorioak fisikoak edo bistakoak direnean; *kulturala* izan daiteke,

aurrekoa legitimatzen duten adierazpen ideologiko, kultural eta linguistikoez ari garenean; eta *egiturazkoa* izan daiteke, antolaketa sozial eta politikoaren ondoriozko desorekek bizitza osasuntsu baten garapena oztopatzen dutenean. Alderdiotako edozeinetako eskalazioak eragin dezake biolentzia fisikoaren erabilera edo haren mehatxua (Lederach, 1998).

Indarkeria, beraz, gatazkak ebazteko modu bat litzateke, baina ez bakarra; bakea, aldiz, ez litzateke gatazken absentsia, haien indarkeriarik gabeko adierazpen baterako eraldaketa kreatiboa baizik (Galtung, 1996). Galtungek zein Lederachek rol sozialek eta prozesu kognitiboek osatutako prozesu gisa ulertzen dute bakegintza, diplomazia hutsaz edota akordioen sinaduraz harago. Prozesu horretan, alderdi diskurtsiboak garrantzia berezia du. Izan ere, autoreon arabera, gatazkak eragindako interpretazio-eskemak eta iruditeriak aldatzeko “kreatibitatea” (Galtung & Fischer, 2013, p. 98) behar da, aintzat hartzen baitute talde sozialek gatazkaz duten ulerkera bera aldatzen bada, euren arteko harremanak ere aldatuko direla. Honek “subjektiboaren markoa aztertzea garamatza”, dio Lederachek (1998, p. 54): “Belaunaldiz belaunaldi pilatutako pertzepzioak eta sentimenduetan sakonki errotutako beldur eta gorrotoa”.

Prozesu horrek alde guztien irekitze bat eta ulermenerako borondatea eskatzen du: gizarteak prest egon behar du gatazkak eraikitako eskema interpretatiboak aldatzeko. Lederachek “jakin-min paradoxiko” gisara definitzen du ahalegin hori (2007, p. 71): “(...) konplexutasunaren aldeko errespetu iraunkor bat, egiaren kategoria dual behartuen presioetan erortzeari uko egiten diona, eta itxuraz kontraesankorrak diren energia sozialak zerk mantentzen ditzakeen elkartuta jakiteko gogo superlatibo batekin”.

Luze eta zabal aztertu da gatazkek zer egiten duten pertsonekin: guk pertsonen gatazkekin zer egiten duten jakin nahi dugu. Horregatik, euskal gatazka enmarkatzeko proposatzen dugun ikuspegiak eraldaketa historiko, politiko eta sozial esanguratsuak barne hartzen dituen testuinguru batean kokatzen du ikerlaria, eta, batez ere, pertsonen pentsaerak eta arrazonamendu-moduen bilakaerak markatutako “historia sozial” (Majuelo Gil, 2020b, p. 318) baten barruan.

Izan ere, Zulaikak frogatu duenez (1990), edozein gatazkari buruz gizartearen ulerkera eta interpretazioei erreparatzen ez dien irakurketa historiko bat planteatzea azterketa hankamotza egitea litzateke, besteak beste, albo batera geratuko liratekeelako gizarteak berak gatazkan inplikaturako aktore eta gertakariei buruz eraikitako narratiba idiosinkratiko eta haiei atxikitako “rol erritualak” (Zulaika, 1991, p. 228). Biak ala biak sozialki adostutako konstruktuek dira, baina ez horregatik irrealak: hain zuzen ere komunitate zehatz baten barruan duten baliagarritasunak eta hark aitortzen dien egiazkotasunak bihurtzen ditu diskurtso boteretsu. “Biolentzia politikoak beti izan du legitimazio filosofikoa”, argudiatzen du Ruiz Olabuénagak (1985, p. 29). Are, diskurtso legitimatzailearen edukia biolentziaren “egiazko kausalitatearekin” bat etortzea (edo ez) ez da haren indar sinbolikoan eragiten duen faktore erabakigarri bat izan ohi:

“[Z]urumuru anonimoak, komunikabideen deskribapen errepikatu eta xeheak, norbanako bakoitzak bere egoeratik at dauden baina antzekoak diren egoeretara egiten duen proiektzioak, biolentziaren ‘gertakizun’ erreala puzten, erreproduzitzen eta handitzen dute, eta errezeloz, deskonfiantzaz, beldurrez, arduraz, larritasunez eta, hitz batean, segurtasun falta kolektiboz osatutako

mekanismo orokor bat jartzen dute martxan” (Ruiz Olabuénaga et al., 1985, p. 57)

Hortaz, aski justifikatuta dago gatazken bilakaera sinbolikoari eta gizarteak hartaz egiten dituen irakurketei erreparatzeko beharra. Euskal gatazkan gertatutako biolentziak ere ezingo genituzke ulertu garai historiko bakoitzean bizi izan zituztenek haiei buruz egiten zituzten irakurketak aintzat hartu gabe. Norbanakoen pentsamenduek gidatzen dituzte euren jarrerak eta, finean, ondorio fisikoak dituzten ekintza eta erabakiak (Van Dijk, 2008, p. 89): edozein mugimendu politikok oinarrian dituen osagai kognitibo eta emozionalak ezagutzea ezinbestekoa da haren bilakaera ulertzeko.

Soilik horrela uler dezakegu 1960ko hamarkadan Euskal Herritik kanpo ere aski erabiliak eta partekatuak ziren kontzeptu batzuek (*independentzia*, *autodeterminazioa*, eta abar.) eskaintzen zuten marko diskurtsiboa aldatzearekin bat, nola aldatu diren euskal herritar ugari ETaren jarduna ebaluatzeko erabilitako interpretazio-eskemak. Alde batetik, argudia genezake ETaren aurka abiatutako errepresioak gatazka armatuan zuzenean inplikatu gabeko sektore sozial ugari jo zituela, eta hura sufritzearen nekeak bultzatu zituela pertsona eta eragile ugari bestelako irtenbideak bilatzera; bestetik, nekez interpreta genitzake pertsona hauen prozesu kognitibo eta posizionamenduak 2001etik aurrera globalizatutako *terrorismoaren frame*-ak gurean ere izandako eragina ez bagenu aintzat hartuko.

Biolentziaren dimentsio materialak eta sinbolikoak nola uztartzen diren aztertzeko kasu interesgarria da euskal gatazka, besteak beste, haren amaieraren izaera “birtualagatik” (Whitfield, 2014, p. 241). Amaiera-puntu kontsentsuatu edo ofizialik ez egoteak are gehiago uzten du interpretazio partikularren gain erabakitzea noiz igaro den gatazka intentsitate altuko biolentziatzko egoera batetik intentsitate apalagoko fase batera, eta zabalik uzten ditu *bakeaz* egin daitezkeen definizioak.

Webelek eta Galtungek “bake negatibo” gisara definitzen dute biolentzia fisikoaren desagertzea hutsean oinarritutako eredia (Webel & Galtung, 2007, p. 31); haren aldaera “positiboa” litzateke, aldiz, inplikaturako agenteen nolabaiteko “kooperazioa” ere barne hartzen duena. Ipar Irlandakoak bezalako gatazkek erakutsi dutenez, bake prozesuan inplikaturako esfera sozial “gorenetatik” (Ife, 2007, p. 171) soilik sustatutako eredu batek ez ditu gizartearen egunerokotasunean dauden hainbat tentsio ebatzen. Horregatik, esfera guztietako aktoreen parte hartzea jotzen dute garrantzitsutzat autoreok, su-etenaren sinaduran inplikaturako erakundeetatik hasi eta herritar arruntetaraino: “Argitu behar dena eragindako kalteen neurketa objektiboaz askoz harago doa. Nork zer egin zuen ulertu behar da, zein arrazoirengatik, zein intentziorekin” (Santa-Barbara, 2007, p. 176).

Euskal gatazkaren testuinguruan ere gauzatu diren biktimen arteko topaketek ikuspegi honen baliagarritasuna berretsi dute. Haietan, bereizi egin dira berradiskidetzearen alderdi pertsonal eta sozialak, eta aintzat hartu da barkatzea lehenari dagokiola, eta ez errepikatzeko bermeak eraikitzea, bigarrenari: “[Berradiskidetzeak] ez du eskatzen etsaiak lagun bihurtzerik, ostera elkar errespetatzea eta gizarte bereko kide gisara onartzea baizik” (Uriarte, 2012, p. 24). Horretarako, baina, beharrezkoa da ahots aniztasuna bermatzea; hura gabe ez baitago *Bestearen* ezagutzarik. “Kontakizun guztiek izan behar dute ikusgarritasun-gradu bera, gaitzespen sozial bera eta argitzeko ahalegin bera”, erreklamatu zuen gonbidaturako biktima batek topaketa horietan (Galdeano, 2012, pp.

54–55): “Kontziente gara ziurrenik ezin izango dugula egia bakar bat idatzi, baina sinesten dugu, haietako bakoitzaren eta guztien artean, gure elkarbizitzaren oinarria eraiki dezakegula”.

2.4. *DISCLAIMER*: EUSKAL GATAZKA EREMU DISKURTSIBO GISARA AZTERTZEKO PROPOSAMENA

Iraganeko biolentzia politikoaren erabilera tesi honetan behin eta berriz agertzen den gai bat izan arren, ikerketa honen helburua ez da biolentzia horren kontuak ematea edo eskatzea, ez eta haren testuinguruan gauzatutako bestelako praktiken errebisionismoa egin edota haien legitimitatea eztabaidatzea ere. Horren ordez, arazoaren konplexutasunean sakontzea bilatzen dugu, esanahitze prozesu historikoen alderdi sinboliko eta identitarioetan arakatur. Hartara, gatazka historikoaren garapen sinboliko garaikidea ulertzea dugu helburu. Horregatik, ikerketa honen xedeetarako, *euskal gatazka* eremu diskurtsibo gisara ulertzea proposatzen dugu, hau da, portaera eta adierazpen zehatz batzuk onartzen dituen espazio sinboliko gisara, zeina alde aurretik azaleratutako diskurtsoen memoriaren gainean eraikita dagoen, eta, aldi berean, bertan kokatuta dauden subjektuen egitura kognitiboetan eragiteko gaitasuna duen. Subjektu hauek eremua bera modulatzeko egiten dituzten ahaleginetan jarriko dugu fokua, hortaz. Beste era batera esanda: euskal gatazkaren memoria eraikitzea gizarte osoa inplikatzeko duen *elkarrizketa sozial* batean parte hartzea da. Elkarrizketa metaforiko honetan inplikatur dauden ahotsak eta haien arteko harremanak aztertuz, haren *arauak* ere ezagutu ditzakegu.

Hori dela eta, abiapuntutik jarrera kritiko bat hartuko dugu *errelatoaren bataila* kontzeptioak inplikatzeko duen ulerkerarekiko: tesian zehar argudiatuko dugunez, memoriaren eraikuntzari ahots bakarreko narratiba bat eskatzea gatazkaren berezko konfrontazio-eskemetan kateatuta jarraitzea litzateke. Memoria kulturalak hegemonia bilatzen duen arren, memoria soziala beti da ahots anitzekoa: hori ukatzea eta ahots bakarra ontzat ematea botere ekintza argi bat da. Horregatik, zuzenagoa litzateke *errelatoei* buruz hitz egitea. Alde horretatik, baliagarri zaizkigu feminismitik historiaren idazketari egin zaizkion kritiketatik ikasitako hainbat lezio, esate baterako, biolentzia bakar bat ikusarazteak gatazka batean inplikaturako *beste* biolentziak ikusezin uztea dakarrela (Reverter, 2022). Kritika horietan oinarrituta, beraz, egokiagoa litzateke gure kasuan ere pluralaren erabilerak lehenestea, biolentziez, memoriez eta kontakizunez hitz eginda.

3. OINARRI TEORIKOAK

Gure ikergaia diziplinartekoa izanik, hiru eremu akademikotako kontzeptu eta teoriak bateratu ditugu hartara hurbiltzeko, eta kapitulu hau ere hiru azpiatal nagusitan banatuta dago erabaki horren ondorioz. Alde batetik, memoria kolektiboaren eta hari lotutako prozesu semiotiko-kulturalen teorietan oinarrituko gara, marko teoriko orokor gisara. Bestetik, diskurtsoaren analisiak planteatzen dituen konstruktua eta bitarteko teorikoak zerrendatuko ditugu, memoria kolektibo horren errekonstruktibotasuna lengoaiaren bidez nola materializatzen den ulertzeko. Eta, azkenik, belaunaldi gazteek gatazka politiko-armatuetan eta, bereziki, euskal gatazkan izan dituzten rolei buruzko literatura aztertuko dugu, hala nola, ikergai dugun belaunaldi zehatz honen testuinguru diskurtsiboari buruz orain arte argitaratutako literatura akademiko esanguratsuena.

3.1. MEMORIAREN IZAERA KOLEKTIBOAZ

Esku artean dugun ikergaia Memoria Ikasketen testuinguruan kokatzen da; zehazki, gogoratze-ekintzaren alderdi kolektibo edo sozialean arreta ipintzen duten pentsamenduzko korronteen artean. Gatazka bati buruzko oroitzapen zuzenik ez daukan belaunaldi bateko kideek iraganeko gertakariak gogora ekartzen dituztenean, ezinbestean ari dira memoria-ariketa kolektibo bat egiten, kanpoko kontakizunen bidez eraikitzen baitituzte gatazka horri buruz edo hartan inplikaturako aktoreei buruzko narratiba eta irudi mentalak. Sozialki eraikitako eta sinbolikoki mediatutako memoria bat da ezinbestean.

Memoriaren izaera konstruktibo, sinboliko eta sozialari buruzko kezka XX. mendearen hasieran iritsi zen garaiko teoria soziologikoetara. Ordura arte nagusitutako ikuskera biologizista, behaviorista eta psikoanalitikoaren aldean, frogatu zuten kulturaren jarraikortasuna ez zetorrela garunaren edo gorputzaren funtzionamendu fisiko-biologikotik soilik, eta, batez ere, ez zela existitzen identitate nazional edo kolektiboen iraupena bermatuko zukeen “memoria genetiko” (Erll, 2017, p. 18) edo “arrazialik” (J. Assmann, 1988, p. 9); aitzitik, esanahi kultural eta historikoak interakzio sozialean eta testuinguruko elementuen eraginpean eraikitzen dituztela pertsonen.

Eremu frantses hiztunean, Maurice Halbwachs memoria kolektiboaren teoria da ikuspegi horren aitzindarietako bat. Haren ekarpenak jasotzen dituzten hilondoko bi monografikoak, *Les cadres sociaux de la mémoire* (1952) eta *La mémoire collective* (1950), 1920ko hamarkadako bere idatzietan oinarrituta daude. Halbwachs *memoriaren marko sozialei* buruz mintzo da, modu metaforikoan: “Memoria kolektiboak iraganaren irudi bat garai bakoitzarekin eta gizarteko pentsamendu dominatzaileekin sintonian berreraikitzeke erabiltzen dituen tresnak” (Halbwachs, 2004b, p. 19) dira marko sozialak.

Halbwachsentzat, memoriak ez du oroitzapenen biltegi baten moduan funtzionatzen, aitzitik, beti da sozialki mediatutako (berr)eraikuntza prozesu bat. Testuinguru sozial jakin batean bizi den norbanakoak inguruko pertsonetik harremanaren bidez jasotzen ditu iraganeko gertakariei buruzko ezagutza konkretuak eta haiek interpretatzeko *jarraibideak*, hau da, bere pentsamendua gidatzen duten “bitarteko artifizialak, pentsamendu pertsonaletatik at daudenak, haiek denbora eta espazio kolektibo batean barne hartzen dituztenak, eta historia kolektibo batean” (Halbwachs, 2004a, p. 61). Marko sozial hauek norbanakoen oroitzapenen gainetik zabaltzen den “pantaila” baten modura funtzionatzen dute, Durkheimen lehenago planteatutako “kontzientzia kolektiboaren”

haritik (Misztal, 2003, p. 125). Haren ikasle izandako Halbwachsen hitzetan, beti oroitzen dugu besteen bidez, edo, zehatzago esanda, besteen tokian ipinita:

“Memoria kolektiboaz mintza gaitzke, gure taldearen bizitzan toki bat betetzen zuen gertakari bat gogora dakargunean, eta hura orain, gogoratzen dugun unean, gogora ekartzen dugunean, talde horrexen ikuspuntutik.” (Ibid. 2004a, p. 36)

Ulerkera horren arabera, norbanako bakoitzaren oroitzapena perspektiba bat litzateke memoria kolektibo horren barruan, hark taldean okupatzen duen tokiaren eta taldeko gainerako kideekin daukan harremanaren arabera aldatzen dena. Unean uneko testuinguruaren eraginak berebiziko garrantzia dauka gogoratze-ekintza horretan, eta, era berean, ekintza zehatza behatzea da taldearen memoria ulertzeko modu bakarra. Memoriaren gaurkotasunaren garrantziari buruzko ideia hori ere bada Halbwachsen ekarpen nagusietako bat:

“Oroitzapena, neurri handi batean, gaurkotasunetik hartutako datuen laguntzaz egiten den iraganaren berreraikuntza bat da, hain zuzen ere aurreko garaietan egindako berreraikuntzekin prestatua, zeintzuek jada asko aldatu baituten iraganari buruzko irudia.” (Ibid. 2004a, p. 71)

Garai bertsuan, antzeko ikuspegiak planteatzen hasi ziren psikologia sozialaren zenbait autore diziplinaren hastapenetan. Frederic C. Bartlettek “effort after meaning” gisara definitu zituen prozesu kognitiboak (Bartlett, 1932, in Erll, 2017, p. 79): haren arabera, oroitzea (berr)eraikuntza mentala da, mundu sozialaren ulerkera modu sinplifikatuan prozesatu eta eskematikoki antolatze bidea ematen duten interpretazio-patroien arabera egiten dena. Ideia hauek osteraz hizkuntzalaritzan ere gertatu zen “biraketa kognitiboaren” (Hart, 2015, p. 322) aitzindariak ziren, *eskema mental* edo *framing* bezalako kontzeptuei bidea zabalduko zietenak (ikus. 3.5.3. *Nola ‘irakurtzen’, interpretatzen eta gogoratzen dugun: Teoria Soziokognitiboa*). Ikuspegi honen abiapuntua da memoria testuinguru sozial batean “kodetu, gorde eta aktibatzen” diren esanahiek osatzen dutela (Echterhoff & Kopietz, 2018, p. 113), eta, ondorioz, ekintza komunikatiboan inplikaturik dauden subjektuen parte hartze aktiboa ezinbestekoa dela.

Kodifikazio eta deskodifikazio prozesu horiek ikusaraztea izan zen AEBetan sortutako Social Memory Studies korrante soziologikoaren helburua, XX. mendearen bigarren erdian. Berger eta Luckmannen *The Social Construction of Reality* (1966) liburuko tesiak dira korrante honen oinarria: autoreon arabera, “gizartea errealitate objektibo zein subjektibo gisara existitzen da” (Berger & Luckmann, 1966, p. 149). Errealitatearen ulerkerak etengabe elkarrekiko harremanean dauden hiru urratseko prozesu bat eskatzen du:

- 1) Kanporatzea (*externalisation*): gizarteko kide diren norbanakoen esanahi subjektiboaren adierazpena.
- 2) Objektibazioa: ezagutza eta esanahi horien materializazioa (oro har, linguistikoa), gizarteak egiazat hartzeko moduko formatan.
- 3) Internalizazioa: objektibatutako eta “baliozko egiazat” jotako mundu soziala atzera norbanakoaren kontzientziara itzultzen den prozesua, sozializazioaren bidez (ibid., pp. 78-79).

Prozesu hau etengabeko dialektikan gertatzen da: “Knowledge about society is thus a realization in the double sense of the word, in the sense of apprehending the objectivated social reality, and in the sense of ongoingly producing this reality.” (ibid., p. 84)². Horregatik aldarrikatzen dute autoreok hizkuntzaren soziologia baten beharra ezagutzaren soziologia ulertzeko.

Diziplina hauen guztien hastapenetan, *Memoria* terminoa *Historia* terminoari kontrajartzen zitzaion, lehenaren aldakortasuna eta subjektibotasuna nabarmenduz bigarrenaren ustezko egiazkotasun objektibo eta balio unibertsalaren alboan. Halbwachsentzat, bien arteko desberdintasuna, alde batetik, talde sozialaren esperientzian datza: memoria kolektiboa oroitzapen bat partekatzen duen talde sozialaren bizialdiaren eta kontzientziaren mugetan baizik ez da existitzen, eta haren foku nagusia elementu kohesionatzaileetan dago. Historiak, aldiz, inflexio puntuak eta hausturak bilatzen ditu: “Historia bakarra besterik ez dago. (...) Historialaria ez da kokatzen existitzen diren eta bizirik dauden egiazko taldeen ikuspuntuetako batean (...) Dena plano berean geratzen da. Mundu historikoa istorio partzial guztiak elkartzen diren ozeano bat bezala da” (Halbwachs, 2004a, pp. 84–85).

Halbwachsen bideari heldu zion 1980ko hamarkadan Pierre Nora: autore honek bereizi egiten zituen “memoria bizia”, talde sozialei eta euren eguneroko praktika erritualei dagokiona, eta “historia”, memoria horren *a posteriori*-ko berreraikuntza erregulatu eta mediatizatua, hau da, “[bizitako historia] ulergarri bihurtzen duen operazio intelektuala” (Nora, 1984, p. XVIII).

“Gure memoria habitatuko bagenu, ez genuke hari lekuak sagaratzeko beharrik izango. Ez legoke lekurik, ez legokeelako historiak eramandako memoriarik. Keinu bakoitza, baita arruntena ere, betidanik egin izan denaren errepikapen erlijioso gisara biziko genuke, ekintzaren eta zentzuaren haragizko identifikazio batean. Arrastoa, distantzia, mediazioa dagoenetik, jada ez gaude egiazko memoria baten aurrean, historian baizik”. (Nora, 1984, p. XIX)

Noraren *memoriazko lekuak*, modu metaforiko eta zabalean ulertuta, nazio baten iraganeko gertakariak sinbolizatu eta haien oroitzapena berpizteko funtzioa betetzen duten objektu, espazio, artelan edota erritualak izan daitezke; dimentsio materiala edo immateriala, sinbolikoa eta funtzionala duten erreferentzia partekatuak dira nolahi ere. Norarentzat, memoria bizia amaitzen den unean sortzen dira *memoriazko lekuak*: bizitako iraganaren “hondakinak” dira, “[memoria] erdi ofizial eta erdi instituzional bat, erdi afektiboa eta sentimentala; adostasunezko lekuak, dagoeneko ez dutenak konbikzio militanterik edota pasiozko parte hartzerik adierazten, baina oraindik bizitza sinboliko baten arrastoren bat iradokitzen dutenak” (Ibid., p. XXV).

Garai bertsuan argitaratua da David Lowenthalen *The Past is a Foreign Country* (1998 [1985]) lan erreferentziala. Lan honek memoriaren eta historiaren arteko harremanaz eta euren arteko mugez hausnartzen du, garaiko zein antzinako adierazpen kulturaletan oinarrituz. Diziplinarteko bilketa-lan bibliografiko zabala eginez, iraganari begiratzeko

² Aipu hau jatorrizko bertsiotan mantentzea erabaki dugu, ingelesezko “*realization*” terminoarekin egiten duen hitz-jokoa ez aldatze aldera. Honela itzuliko genuke: “Gizarteari buruzko ezagutza hautemate- eta errealizazio-prozesu bat da, bi zentzutan: errealitate sozial objektibatua ulertzearen zentzuan, eta errealite hori etengabe produzitzekoan”.

eta hura erabiltzeko moduen bilakaeraren kronologia bat eraikitzen du, argudiatuz iragana gaurkotasunetik urrundu egin dugula, “herrialde arrotz” (izenburutik) bihurtzeraino; hau da, egungotik at dagoen eta, beraz, eskura litekeen zerbait. “Hainbestetan erabili izan den memoriak jada ez du gaurkotasuna biziagotzen, hari gainezka egiten dio” (Lowenthal, 1998, p. 299), idatzi zuen autore honek Europa Mendebaldeko “memoriaren eta ondarearen *boom*” (Macdonald, 2013, p. 2) betean.

Izan ere, Bigarren Mundu Gerrako gertakariak eta, batik bat, Holokaustoko krimenak argitara ateratzeak paradigma aldaketa bat ekarri zuten memoriaren ulerkeraren soziologikoetara. Alde batetik, traumaren literatura termino sozialetara hedatu zen, Holokaustoa iraganeko mamu kolektiboaren ikono bihurtuz. Hartatik bizirik atera zirenengan traumaren sintomatizat jo ohi ziren adierazpen somatikoak “bistan geratu ziren” (Terr, 1985, p. 818) gerra igaro eta belaunaldi batera, besteak beste, “amesgaiztoak, nahasmena, depresioa, eta errua”. Iraganaren kudeaketa eztabaidagai zentral bihurtu zen garaiotan, hala nola, estatu, erakunde zein hurrengo belaunaldiek hartu beharreko jarrera moralak. Auziak hainbat eztabaida entzutetsu eragin zituen garaiko gizartearen historiografiaren funtzio memorialistikoaz (Habermas, 1986); ordukoak dira, Europa Mendebaldean bederen, eskubideen urraketen biktimen memoriari buruzko lehenbiziko kezka akademiko eta sozialak (Arendt, 1958).

Bilakaera honi zehatzago erreparatzen dio Macdonaldek, Europa “memoriazko lurraldez” edo *memorylands*-ez (Macdonald, 2013, p. 2) josita dagoela argudiatzen duenean: “iragana gaurkotezko” (Ibid., p. 17) etengabeko ahaleginen ondorioz, Holokaustoa europar identitate baten “totem” (Feldman, 2017, p. 146) bihurtu zen. “[Iragana] ez [da], beraz, erabat arrotza den herrialde bat”, ihardesten dio autore honek Lowenthal (2013, p. 23), “baizik eta gauzak beste modu batera egiten ziren toki bat, bisitatzea merezi zuena bertatik ikasteko; eta, are, ez soilik besteei buruz ikasteko, baizik eta baita norberari buruz ere, epe luzean”.

Macdonaldek problematizatu egiten du “memoriazko fenomeno” eta hura inguratzen duen “konplexua” (Macdonald, 2013, p. 5), besteak beste, iragana gogoratzen eta goraiatzen duten adierazpen kulturalen industrializazio bati eman diolako bide, funtsean europar paisaia memorialistikoak berezitu baino, homogeneizatzen dituen.

Bestalde, historiari buruz ez ezik, historiaren kontakizunari buruzko kezka ere zabaldu zen 20. mendearen bigarren erdian, eta ordura arteko historiografia konbentzionalarekiko jarrera kritikoak ugari ziren. Besteak beste, bere buruari egia objektiboen eramaile izatea egozten zion Historia ‘bakar eta unibertsal’ hura ere eraikuntza narratibo eta, ondorioz, partziala zela planteatzen hasi ziren hainbat autore, eta kontakizun hark oro har historiaren garaileen esperientziak ikusarazten zituela, biktimenak isilaraziz (Benjamin, 1980). “Ez dago iragana izan zen moduan berreskura dezakeen txostenik, iragana ez zelako txosten bat, gertakizun eta egoeren bilduma bat baizik”, argudiatzen du Lowenthal (1998, p. 313), eta ohartarazten du txosten edo kontakizun historikoen lengoaiak berak ere moldatzen dituela iraganari buruzko diskurtso eta irudiak, kontatua denaren eta hartzailearen arteko distantzia kognitiboa handituz: “Iragana orainaldiari azaltzeak ez du esan nahi soilik pertzepzio, balio eta lengoia aldakorrekin konfrontatzea, baizik eta baita berrikusten den garaia osteko bilakaerekin ere” (Ibid., p. 317).

Macdonaldek ikuspegi pragmatikoago batetik ebazten du historiaren eta memoriaren ezaugarrien arteko eztabaida. Bi kontzeptuon arteko muga aratza ezartzea are problematikoagoa izan daitekeela argudiatzen du, funtsean bakoitzak iraganarekiko eskain dezakeen egiazkotasunaren inguruko eztabaida zabaltzen delako hartara: “[Galdera hau] ezin da termino orokorretan erantzun, eta ‘egia’ gisara zer esan nahi dugun argitzea eskatzen du (hau da, integritate pertsonalaz birkontatua izatea, ezagunak diren beste datuekiko harreman zehatza izatea). (...) Auzi garrantzitsuagoa dira kontakizun anitz sortzen diren testuinguru, motibo eta marko espezifikokoak, eta haien egiazkotasun-formak” (Macdonald, 2013, p. 13). Autore honentzat esanguratsua da, halaber, “terminoak euren erabileran nola definitzen eta gauzatzen diren, eta atxikitzen zaizkien ebaluazioak” (Ibid., p. 14) narratzen dituztenen partetik.

Hainbat historialarik ere partekatu zuten ikuspegi hau, *herritar arrunten* bizi esperientziei justizia egingo zien “historia soziala” idazteko beharra aipatuz. Zehazki, Peter Burkek (1997, pp. 45–46) argudiatzen zuen historiografiak bi modutan hartu behar lukeela aintzat memoria: alde batetik, iraganeko garaiei buruzko informazio iturri gisara, lekukotzen bidez (Ahozko Historiaren edo *Oral History*-ren ildotik); eta, bestetik, memoriaren historia bera ikertuz, berak “oroitzearen historia soziala” deitzen diona, alegia:

“Memoria soziala, memoria indibiduala bezalaxe, selektiboa denez, aukeraketaren printzipioak identifikatu behar ditugu, eta ohartu haiek nola aldatzen diren tokitik tokira eta talde batetik bestera, eta nola aldatzen diren denboran. Oroitzapenak moldagarriak dira, eta ulertu behar dugu nork eta nola ematen dien forma, hala nola, moldagarritasun horren mugak non dauden”. (Ibid., p. 46)

Iragana gogora ekartzeko eta hari lotutako esanahi berriak eraikitzekeko prozesu selektibo eta kokatu horietan eragina izan dezaketene testuinguruko faktoreak ulertzeko, hiru galdera nagusi planteatzen ditu autore honek:

- a) Zeintzuk dira memoria publikoen transmisio-moduak, eta nola aldatu dira hauek denboran?
- b) Zeintzuk dira memoria hauen erabilerak (“iraganaren erabilerak”), eta nola aldatu dira?
- c) Zeintzuk dira ahanzturaren erabilerak?

Ikuspegi hauek guztiek erlatibizatu egiten dute Halbwachsek eta Norak planteatutako memoriaren eta historiaren arteko banaketa zurruna, argudiatzen dutelako iraganari buruzko ezagutzarako sarbidea beti eskuratzen dugula sozialki eraikitako eta partekatutako kode edo sinbolo kulturalen bidez. Historiografia, ezagutzen dugun moduan, sarbide-forma horietako bat litzateke (Erl, 2017, p. 39); ahozko kontakizunak, tradizioak, erritualak, arteak edota komunikabideak, beste batzuk.

Iraganaren erabileraren kontzeptuari kultur ikasketetatik ere heldu izan zaio. Aleida eta Jan Assmanek garatutako Memoria Kulturalaren Teoriaren arabera, memoriaren bi erabilera desberdindu daitezke: alde batetik, “memoria komunikatiboa”, eguneroko komunikazio-harremanetan oinarritzen dena (J. Assmann, 1988, p. 10) eta “memoria kulturala”, epe luzeko iraganeko esanahiak jasotzen dituen “kultura objektibizatuak” eraikitzen duena (Ibid., p. 11). Halbwachsek planteatutako *memoriaren* eta *historiaren* arteko puntu antzekoan kokatzen dute Assmandarrek oroitzeko bi eren arteko muga,

baina, kontrara, argudiatzen dute bi memoria ereduetan mantentzen dela elementu identitarioa.

“Eguneratutako iragan” gisara ulertutako memoriaren, kulturaren eta taldeko identitatearen eraikuntzaren arteko lotura azaldu asmo du Memoria Kulturalaren Teoriak. Haren arabera, memoria kulturalak sei ezaugarri nagusi ditu (Ibid., pp. 13-14):

- 1) Nortasunaren zehaztapena: Memoria kulturaletik *hartzen* ditu taldeak bere burua eta besteak definitzeko ezagutzak. ‘Nor gara *gu?*’ eta ‘Nor/Zer ez gara *gu?*’ galderei erantzuten dioten “mito fundazionalak” (Erll, 2017, p. 25) osatzen dute.
- 2) Berreraikitze gaitasuna: Oroitze-ariketa egiten den unearen “testuinguruak bere perspektiban kokatzen du objektibizatutako esanahia” (J. Assmann, 1988, p. 13), besteak beste, apropiazio, kritikatzeko, babes edota eraldaketa mekanismoen bidez.
- 3) Formatutasuna: Memoria kulturalaren transmisiorako, beharrezkoa da esanahiak forma zehaztuta objektibizatzea edo “kristalizatzea”, besteak beste, idatzizko edo ikusizko lengoaiari edota erritualetan.
- 4) Antolatutasuna: Memoria kulturalaren transmisioa zeremoniatua da edo sozialki instituzionalizatutako prozedurak jarraitzen ditu, eta “memoriaren zaindariak” formatzen dira haren iraupenerako (xaman eta erritual-gidariak, artxibatzaileak, etab.).
- 5) Lotesletasuna: taldeak bere buruaz daukan irudiari lotuta doan neurrian, talde horren balio-sistemari buruzko ikuspegi normatibo bat dakar memoria kulturalak; elementu garrantzitsu eta periferikoen edota jarrera onargarrien eta ez-onargarrien arteko hierarkiak ezartzen ditu. Horregatik, memoria kulturalak berez bilatzen du hegemonia, taldearen existentziaren oinarrian dauden galderak “negoziatzen” direlako bertan (Erll, 2017, p. 115). Botere posizioan dauden aktoreek posizio hori justifikatzen eta legitimatzen duten diskurtsoak unibertsalizatzeko interesa dute, hura zalantzan jartzen duten diskurtsoen kaltetan.
- 6) Erreflexibitatea: memoria kulturalak eguneroko praktikak irudikatzen ditu alde batetik, eta bestetik, haren bidez, taldeak bere burua eta bere buruaz duen irudia definitzen ditu.

Assmann darrentzat, ez dago kulturalki eraikitzen den identitate bati lotutako memoria bat alde batetik, eta talde sozialen auto-iruditik aparte dagoen *historia* edo memoria-ariketa objektibo bat bestetik; biek ala biek funtzionatzen dute talde baten autodefinizioarako oinarri sinboliko gisara. Desberdintasuna, nagusiki, erreferentzia gisara hartzen dituzten gertakarien denborazko *zeruertzean* dago: memoria komunikatiboak belaunaldi baten bizialdiak bezainbeste irauten du, eta haren aurretik zabaltzen den guztia memoria kulturalaren esparruan legoke.

“Memoria kulturalaren kontzeptuarekin, gizarte bakoitzari eta garai bakoitzari dagozkion testu, irudi eta errito berrerabilgarrien bilduma izendatzen dugu, zeinaren ‘zaintzaren’ bidez gizarte horrek bere auto-irudia egonkortzen eta transmititzen baituen: oro har (baina ez soilik) iraganari buruzko ezagutza partekatu eta kolektibo bat [da], zeinaren gainean taldeak bere batasunaren eta berezitasunaren kontzientzia pausatzen baituen.” (J. Assmann, 1988, p. 15)

Azken hamarkadotan, memoriaren ulerkera hau nagusitu da kultur ikasketetan, eta izaera sozial eta semiotikoko analisi gehienek identitate kolektiboarekin, auto-irudiaren eta

taldearen kontzientziaren iraupenarekin hertsiki lotuta dagoen eraikuntza diskurtsibo baten moduan ulertzen dute memoria kolektiboa, kulturalki baldintzatua dena eta testuinguruaren arabera era anitzetan materializatu daitekeena (Erll, 2017, p. 5).

“Oroitzapenak ez dira iraganeko pertzepzioen irudikapen objektiboak, are gutxiago iragandako errealitate batenak. Berreraikuntza subjektibo eta oso selektiboak dira, haien oroitze-egoeraren menpe daudenak. Oroitzea eskura dauden datuen berrosatze (‘re-member’) operazio bat da, gaurkotasunean gauzatzen dena. Iraganari buruzko bertsioak gogoratze bakoitzarekin aldatzen dira, gaurkotasun aldakorren neurri berean. (...). Oroitzapen indibidual eta kolektiboak, beraz, ez dira sekula iraganaren ispilu; bai, ordea, oroitzen dutenek gaur egun dituzten behar eta interesen zantzu.” (Erll, 2017, pp. 6-7).

3.2. MEMORIAREN ERABILERAK

3.2.1. Identitateen eraikuntza

Memoriaren ‘ber-kidetze’ edo ‘ber-osatze’ (*re-membering*) funtzio horrek bi modutara operatzen du: alde batetik, oroitzea iragandako historiako elementu esanguratsuen hautaketa- eta antolaketa-prozesu bat da; eta, bestetik, iraganeko gertakari bat gogora ekartzean, memoria hori partekatzen duen taldeko kideen arteko kohesioa areagotzen da, ‘Nor gara gu?’ edo ‘Nola iritsi gara honaino?’ galderei erantzunak eskaintzen dizkiolako ariketak berak: “Taldeak, bere iragana gogoratzen duen unean, berbera izaten jarraitzen duela sentitzen du, eta bere nortasunaren kontzientzia hartzen du denboran zehar” (Halbwachs, 2004a, p. 87). Norbanako bakoitzak egiten duen irakurketa *ikuspuntu* bat da, baina emaitza gisara eraikitzen diren diskurtsoak “subjektibitate indibidualen gehikuntza baino gehiago” dira (Olick et al., 2011, p. 227).

Kultur ikasketetan ere maiz parekatu izan dira *kultura* eta *memoria* kontzeptuak: norbanakoak beti oroitzen duenez testuinguru soziokulturaletan, gizarteak partekatutako *memoria* baten gisara ikusten da *kultura*, interakzioan eraikitako sinbolo, instituzio eta kodez osatuta dagoenez gero (Erll, 2017, p. 7). Alderdi kultural horrek ezarriko lituzke kolektibitatearen nortasunaren oinarriak.

Autoreon arabera, memoriaren objektua ez da iragana, gaurkotasuna baizik: oroitzea taldearen egungo behar eta interesen mesedetan egiten den prozesu bat da. “Selektiboa eta errekonstruktiboa” denez, ohikoak izaten dira iraganaren “distortsioak eta berrerekatzeak”, baita “fikzioa” bera ere (Ibid., p.14). Aukeraketa hau subjektu kolektiboaren egungo posizioa eta bere etorkizunerako zero-mugak ahalik eta modu positiboenean moldatzeko helburuz egiten da. Horregatik, iragan partekatu bat gogora ekartzen duen edozein erritual edo jokabidek taldeak bere buruaz daukan irudia elikatzea du helburu, hau da, identitate kolektibo bat definitu eta iraunaraztea: iragana “errepresentatzearen helburu hutsez errepresentatzen da, gogoan sendoago iltzatzeko xedez” (Durkheim, 1995 [1912], p. 587).

Identitate kolektiboa edo “Gu-identitatea” honela definitzen du Jan Assmanek: “Talde batek bere buruaz eraikitzen duen irudia, zeinarekin taldeko kideak identifikatzen baitiren” (J. Assmann, 1992, p. 132). Erll-ek ñabardura bat eransten dio definizio honi: egokiagoa da identitate *kolektiboez* hitz egitea, pluralean; alde batetik, gizarte batean hainbat identitate kolektibo bizi direlako elkarren alboan; eta, bestetik, norbanako


bakoitza talde sozial horietako hainbatetako kide delako aldi berean, eta, beraz, identitate horien arteko “puntu interseksional” bihurtzen delako (Erl, 2017:105).

Memoria partekatuan oinarritutako nortasun kolektiboek bi ezaugarri nagusi dituzte: gogoratzen duen belaunaldiaren bizialdiak baino luzaroago irauten dute denboran, eta beti alteritatearekiko harremanean eraikitzen dira.

Assmannek aipatutako *mito fundazionalak* talde baten identitatearen oinarritzko elementu kohesionatzaileak dira, eta hain zuzen ere, haien iraunkortasuna da euren ezaugarri nagusia. Nazio edo kolektibitate horren parte diren pertsona gehienentzat esanguratsuak eta partekatzen duten nortasun horren ezinbesteko ezaugarri direlako bihurtzen dira hala (Stone & Hirst, 2014, p. 315): arrastoa utzi dute taldeko instituzioetan, tradizioetan, espazioetan, kultur adierazpenetan, pertsonen jokabideetan eta beste hainbat arlotan (Halbwachs, 2004a, p. 54), eta esanahi jakin bat hartu dute partekatzen dituzten kideentzat. Taldera garai historiko berantiarrago batean iritsitako —edo jaiotako— pertsonak ez ditu zuzenean gogoratuko, baina arrasto horien bidez bereganatuko ditu haiek interpretatzeko kodeak. Memoria ikasketa prozesu bat da, finean. Halbwachsen arabera, gertakari historikoak “kopiatu dudak eta nirea ez den memoria bat” dira: “(...) nozioak, sinboloak, forma gehiago edo gutxiago herrikoi batean aurkezten zaizkidanak; irudika ditzaket, [baina] erabat ezinezkoa zait eurak gogoratzea” (Ibid., p. 54-55).

Memoriaren eta identitatearen arteko harremana bi norabidekoa da: alde batetik, historia edo memoria partekatuak kidezka-sentimendua elikatzen du norbanakoarengan; baina, aldi berean, hark bere uneko posizio sozialera egokitzen du oroitze-ariketa. Iraganari buruzko diskurtsoak gaurkotasunaren galbahetik igarota berreraikitzen ditugu beti; horregatik da memoriaren eraikuntza “iragana orainetik begiratzeko eta eraikitzeko prozesu bat, gehientsuenetan etorkizunari begira” egiten dena (Leizaola, 2010, p. 360). Uneko beharren arabera, intentzio batekin gogoratzen dugu: taldearen nortasuna eta kohesioa sendotzea edota hura legitimatzea, esate baterako.

Gu-aren definizio- eta iraunarazte-prozesu horrek berekin dakar *Besteari* buruzko galdera: oroitzean, “kanporako diferentziak nabarmetzen dira eta barrurakoak leundu” (J. Assmann, 1992, p. 26). Ideia hau diskurtso ikasketetan ere sakonki garatu izan da: kategorizazio sozialeko prozesuen bidez, mundu soziala *ingroup* (edo *Gu*) eta *outgroup* (edo *Besteak*) kategorietan banatzeko joera dute pertsonak, norberaren taldearekiko irudi positiboa elikatze gogoak bultzatuta (Devine & Schubotz, 2010, p. 9). Van Dijkek “karratu ideologikoa” (1996, p. 21) deitzen dio interpretazio-eskema polarizatzaile horri (azalpen xeheago baterako, ikus 3.5.4. *Diskurtsoaren izaera ideologikoa* atala).



2. irudia: Van Dijken karratu ideologikoa.

Egitura diskurtsibo hauek ohikoak izaten dira taldeen iraganari buruzko kontakizun memorialistikoetan edota memoriaren *egiari* buruzko testuinguru disputatuetan; halakoetan, memoriak, maiz, egitura narratibo autojustifikatzaile baten forma hartzen du.

Hain zuzen ere, memoria kolektiboa modu kontziente eta planifikatuan erabili izan da nazio nortasunak eraiki eta sendotzeko. Pierre Noraren arabera, joera hori XX. mendean nagusitu zen, nazio-estatuak ezartzearekin bat; gerora *nazio-gizarte* kontzeptura eraldatu zen subjektu kolektiboa (Nora, 1984, p. XXII). Prozesu horren ondorioz, iraganarekiko fideltasuna kidetasun-sentimenduarekin lotzen da; kontzientzia kolektiboak eta indibidualak elkar elikatzen dute; eta memoria identitatearekin harilkatzen da (Leizaola, 2010). Horrela sortzen da iraganaren eta egungo egoeraren arteko lotura: iraganari buruzko narratibek, gertakarien hurrenkera kronologiko bat eskaintzeaz harago, euren arteko kausa eta ondoriozko harreman bat eraikitzen dute maiz. Ulerkera hori “giza pentsamenduekin, motibazioekin eta emozioekin harilkatzen diren herri psikologia baten barruan” ematen da, eta, beraz, “esanahi interperpersonalez eta ebaluazioz” beteriko narratibak eratu ohi dira (Fivush, 2010, p. 89).

XX. mendearen amaierako memoriaren *boom*-aren kausak ere nazio-nortasunak berresteko beharrean kokatzen ditu Olickek (2011, p. 3): gerraosteko narratiba modernisten eta utopikoen beherakadarekin batera, nazio-estatuak iraganera begiratzen hasi ziren euren legitimazioa indartzeko asmoz: “Helburu kolektibo bateratzailerik gabe, politika identitarioak ugaritu ziren”. Eztabaida sozial horretan, ahots kritiko berriak azaleratu ziren, iragan loriatsuak baino, eskubide urraketetan oinarritutako narratibak ikusarazten zituztenak, “trauma eta damuzko kultura bat” agerian utziz (Ibid.). Migrazio edota genero ikuspegitik egindako irakurketek *beste* memoria batzuk ekarri zituzten erdigunera, nortasun nazional “monolitikoetan” (Huysen, 1995, p. 5) oinarritutako narratibak birplantaraziz.

Iraganeko gatazka politiko eta sozialek, biolentzia inplikatu zein ez, lehia memorialistikoei eman ohi diete bide; horregatik, memoriaren eraikuntza, taldetasuna eraikitzeko bezainbeste, taldea zatitzeko tresna bihurtu ohi da. “Memoria ez da inoiz unitarioa, botereak zeinahi gogor hala izan dadin ahaleginduta ere. Beti daude azpinarratibak, garai trantsizionalak, eta nagusitasunaren inguruko lehiak”, dio Olickek (2003, p. 8). Horregatik, etengabe gauzatzen diren “praktika” gisara definitzen ditu nazioak. Memoriaren ikuspegitik, diskurtsiboki behin eta berriz narratibizatuz eraikitzen den nortasun bat da nazioa.

Memoria nazionalak oro har “monologikoak” direla argudiatzen du Aleida Assmannek: euren funtzio nagusia auto-irudi kolektibo bat goratzea izan ohi da. “Iraganeko gertakari negatiboekin konfrontatzerakoan, kolektibo nazionalak har ditzakeen hiru rol duindu bakarrik existitzen dira: gaizkia gaingitu duen garailearena; gaizkia heroikoki borrokatu duen erresistentearena; eta gaizkia pasiboki sufritu duen biktimarena” (A. Assmann, 2009, pp. 40–41). Irudiokin bat ez datozen edo haiek kuestionatzen dituzten gertakari eta bertsioak “komenientziaz ahaztuta”, hau da, esfera diskurtsibo publikotik at, geratzen dira.

3.2.2. Markoen ezarpena: testuinguru soziala (*gaur-hemen*) interpretatzeko tresnak

Iraganari buruzko narratiba intenzionatuago edo inkontzienteagoez harago, kasu guztietan esan daitekeena da memoriak testuinguru soziokultural garaikideetan

nabigatzeko mapa bat eskaintzen duela. Oroitzea esanahiak birsortzea da, norbanakoak bere mundu sozialean eskuragarri dituen interpretazio-patroi, kode eta ezagutzak erabiliz osatzen duen prozesu bat. Ondorioz, kultur ikasketek esanahiak sortzen dituzten testuinguru soziokultural horietan ipintzen dute analisi-fokua, hau da, “semantika kulturalen finkatze- edo birkonbinazio-prozesuetan eta bitartekaritza (masa)medialetan, zeinak ‘bigarren eskuko’ esperientziak ahalbidetzen baitituzten” (Erl, 2017, p. 107).

Halbwachsek jada planteatutako *marko* sozial metaforikoen kontzeptua sakondu zuen Goffmanek *framing*-aren teorian (1974): haren arabera, *frame* (literalki, *marko*) edo egituratutako interpretazio-eskematzen antolatzen dugu mundu sozial, esperientzial eta bibentzialari (Husserl, 2008) buruzko ezagutza. Eskema hauek sozialki eraikiak dira, arau esplizitu edo inplizituago batzuei erantzuten diete, eta gertakarien esanahia inferitzeko “atzealdeko ulerkerak” bat eskaintzen dute: “Gehienek ez daukate itxuraz artikulatutako formarik, eta soilik ulermenezko tradizio bat eskaintzen dute, ikuspegi bat” (Goffman, 1974, p. 21). Marko hauek gure jokabidea gidatzen duten ebaluazio sozial estandarizatuen moduan funtzionatzen dute, informazioaren interpretazioa haien terminoetan “kokatzen, hautematen, identifikatzen eta etiketatzen” dugulako (Ibid.).

Esperientzia sozialetatik elikatzen direnez, “memoria kolektiboaren bidez transmititzen diren oroitze-modu” gisara uler daitezke markoak (Erl, 2017, p. 119). Interpretazio-eskema hauen eta iraganari buruzko narratiben artean harreman dialektiko bat dago, iraganari buruzko ezagutzak lengoaiaren bidez partekatzen ditugun unean eransten dizkiegulako esanahiak eta ebaluazioak: testuinguru garaikideak eraikuntza hau baldintzatuko du, eta, aldi berean, interakzio horrek eragina izango du iraganari buruz norbanakoak eraikitzen dituen irudi eta egitura kognitiboetan (Fivush, 2010, p. 89).

Interpretazio-markoek, bestalde, funtzio ekonomizatzailerik bat betetzen dute memoriarentzat, gogoratzerakoan informazioa termino orokorragoetan kondentsatzea eta eskematizatzea ahalbidetzen digutenez gero. Gure alde aurretiko esperientzia sozialean oinarrituta eraikitako ulermen-patroien bidez, egoera sozial bakoitzari dagokion informazioa aurreikusten dugu, eta hartara ez ditugu xehetasun guztiak gogora ekarri behar, baizik eta aski da “dagokion eta unean-unean aktibatzen den eskemaren hutsune zehatzak” betetzearekin (Erl, 2017:79). Gertakariaren funtza mantentzen da memorian, “irudi orokorraren eraikuntza” (Wertsch, 2002, p. 8) ekarpenik egiten ez duen (edo kontraesankorra izan daitekeen) informazioa ezabatuz edo moldatuz.

Esperientzia, beraz, *Gestalt* edo osotasunezko formatan hautematen dugu. Psikologia kognitibotik planteatutako kontzeptu hori maiz lotu izan zaio hizkuntzalaritzari ulermen- eta semantizazio-prozedurak deskribatzeko: haren arabera, garunaren funtzionamenduaren “printzipio operazionala holistikoa, paraleloa eta analogoa da” (Osmanska-Lipika, 2012, p. 53), hau da, elementu bereziak esanahi bakarri osatzen duten osotasun edo *Gestalt*-etan antolatzeke joera dauka, antolaketa-patroi zehatz batzuei jarraika. Patroi edo lege horietako bat da *pregnantziarena*, zeinaren arabera egoera bakoitzean ahalik eta figurarik sinpleena osatzen dugun mentalki (Ibid., p. 55). Sarritan, osotasuna lehenago hautematen dugu haren zati bereziak baino (Peterman, 1932, p. 30).

Suposa dezakegu iraganari buruzko diskurtsoak osatzerakoan ere antzeko funtzionamendu batek operatzen duela: unean-unean aktibatuta daukagun *frame* edo markoarentzat erreferentzia handiena daukaten datuak hautatzen ditugu, eta alde

aurretik eraikita daukagun eskema kognitiboaren hutsuneetan kokatzen ditugu. Halbwachsen hitzetan, egoera edo objektu bakoitzerako diseinu eskematiko edo “sinplifikatu” bat daukagu barneratuta: “Gizarteak [...] multzoka pentsatzen du: nozioak euren artean lotzen ditu, pertsona eta gertakarien errepresentazio konplexuetan taldekatzen ditu, askoz konplexuagoak diren nozioetan txertatuz” (Halbwachs, 2004b, p. 103).

Eskema horiek gure ikasketa-prozesu kulturalaren, uneko testuinguru sozialaren eta bertan hartzen dugun posizioaren arabera eraikitzen ditugu. Horrek azalduko luke zergatik interpreta dezakegun gertaera bera termino oso desberdinetan, gure posizioaren arabera: esate baterako, norbaitek talde armatu bat *banda terrorista* gisara definitzen duenean eta parez pare duen mintzakideak, *askapen mugimendu* gisara, egoerari buruzko bi eskema mental oso desberdin aktibatu dituztelako da. Horren arabera, espero izatekoa da iraganetik nabarmentzen eta gogora ekartzen dituzten elementuak ere desberdinak izatea, narratiba horiekin koherente izateko: lehenbiziko kasuan, aipaturiko taldea biktimario gisara erretratatzan duten elementuak nabarmenduko dira; bigarrean, aldiz, haren aurkezpen positiboa sustatuko dutenak.

Interpretazio- edo deskodetze-patroi hauek izaera normatiboa ere izan dezakete, gure jokabideak gidatzen dituzten balio edo arau sozialen forma hartzen dutenean: marko bakoitzaren arauak markatzen dituzte jokabide, adierazpen edo ekintza bakoitzaren onargarritasunaren mugak. Alderdi normatibo hau Assmannen Memoria Kulturalan ere topa dezakegu, zeinak bere mito fundazionalekin batera komunitatearentzat funtsezkoak diren jokaera-arau eta balioak ere biltzen baitituen, eta, beraz, sarritan taldearen mundu ikuskerari lotutako funtzio politiko bat betetzen baituen: “Zentzu ‘kulturalak’ legitimazioa behar du. Gertakari fundazionalak urruneko iragan bati edota urruneko etorkizun bati buruzko irudikapenekin lotzen dira hartara” (Erl, 2017, p. 112).

Taldearen nortasunarentzat definitzaileak diren edukiak transmititzen eta finkatzen dituzenez, memoria kulturalak berez du hegemoniaranzko joera, eta horregatik da disputatua: Erlen arabera, gertakari edo garai bati buruzko memoria “oroitze-interesen eta oroitze-konkurrentzien” arteko tentsioan bizi denean, belaunaldi baten bizi-esperientzia eta hari lotutako berrinterpretazio kolektiboak “oroitzearen modu kulturalera” igaro diren seinaleztat har dezakegu (Ibid., p.115).

3.2.3. Traumaren lanketa

Psikiatriaren eta psikologiaren eremuan, Pierre Janet egotzen zaio *trauma* kontzeptuaren lehenbiziko deskribapen eta definizioak egitea, XIX. mendearen amaieran: artatzen zituen eri psikiatrikoengan, disoziazioa identifikatu zuen sufrimendu handi baten ondorengo kudeaketa-mekanismo inkontziente gisara. Azalpen gisara, “memoriaren fobia bat” garatu zutela argudiatu zuen, zeinetan iragan mingarriaren oroitzapenek somatizazioen bidez “iltzatuta” (Van der Kolk et al., 1994, p. 585) jarraitzen zuten, ezin zirelako narratibazioaren bidez “likidatu”. Somatizazio horien adibidetzat jo zituen, besteak beste, jokaera obsesiboak, antsietatea edota amnesia post-traumatikoa.

XX. mendearen lehen erdiko korrante freudianoek batik bat haurtzaroko esperientzia traumatikoetan fokalizatu zuten ikergaia, eta honela definitu zuten trauma: “Bat-bateko, ustekabeko eta kanpotik heldutako kolpe intentsu baten ondorengo kondizio emozionala da trauma psikikoa, oinarrizko kudeatze- eta defentsa-operazioak gainditzen dituen,

norbanakoa denboraldi batez babesgabe utziz” (Terr, 1985, p. 816). Freudek iradoki zuen ostera prozesuok aktiboak izan daitezkeela, babesteko mekanismo gisara.

Trauma, beraz, memoria mota bat da, norbanakoari jazartzen dion iraganaren irudian metaforizatu ohi dena, bere egunerokotasuna baldintzatzeraino. Gertaera traumatiko bat esperimentatzeak neurri batean gertakarian bizitzen jarraitzea esan nahi duela argudiatzen dute Hackett et al.-ek (2009, p. 359): “Ez da soilik iragana etengabe present dagoela, baizik eta haren bizitasunak gaurkotasuna egiazkoa izatea eragozten duela. Iragana eta gaurkotasuna, euren hurrentasunen terminoetan, inbertituta baleude bezala da”.

Ikuspegi honen arabera, iraganeko elementu traumatikoak ahoskatzea eta narratibizatzea da trauma gaingintzeko edo hartatik sendatzeko modua, psikoterapia freudianoaren ildotik, haiek lengoaiaren bidez “kontzientziaren mailara igotzen” (A. Assmann, 2009, p. 37) direlako hartara. Hori dela eta, biktimen sufrimenduaren aitortza-adierazpen publikoak izan ohi dira egungo politika memorialistikoen osagai nagusietako bat. Izan ere, identitate kolektibo garaikideen definizioaz harago, funtzio normatibo bat ere betetzen dute kontakizun memorialistikoek. Haiek eratzen dituztenek egia historikoen jabe izatea aitortzen diote euren buruari, eta aukeraketa erretoriko eta narratiboen bidez “gaurkotasuneko agenda morala” (Poole, 2008, p. 159) ezartzen duten diskurtsoak eraikitzen dituzte: “Hain zuzen ere taldearen izenean gauza zehatz batzuk egin zirelako edo ez zirelako egin dute taldearen egungo kideek, hau da, taldea osatzen dugun *gu* horiek, gauza zehatz batzuk egiteko ardura – agian iraganeko konpromisoak betetzekoa, edo agian okerrak konpentsatzekoa” (Ibid.).

Gatazka biolentoen ondorengo memorializazio-praktika publikoek iraganeko sufrimenduaren aitortza soziala ekarri ohi dute: haien bidez, gizarteak eskubide urraketan biktima izaera aitortzen die aktore zehatzei, eta oroitze-erritualen bidez norbanakoen bizi-esperientziak taldearen erreferentzia-sistema sinbolikora igarotzen dira. Prozesu horretan, ezinbestean galdetu behar diogu, beraz, gure buruari nor den komemorazio-ekintzak interpelatzen duen subjektu kolektiboa: hau da, *gure historiaz* hitz egiten denean, nor den *gu* hori. Komemorazioaren bidez eraiki nahi den subjektu kolektiboak erabilera “integratzailea” (Rheindorf & Wodak, 2017, p. 22) edo konstitutiboa/delimitatzailea izaten du nagusiki, edota interpelatzen duen taldearen barruan dauden tentsioak arintzea du helburu. Kaltearen konponketa irudikatzen duten ekintza publiko eta sinbolikoen bidez, taldeak bere burua biktimaren tokian kokatzen du, edota bere buruaren bikoizketa bat irudikatzen du, kalte-eragile eta konpontzaile gisara: “*Ingroup*-aren iraganeko ekintza okerrak aitortuz, haiekiko demarkazio bat eskatzen du narratibak, nolabaiteko barneko bestetze [*internal othering*] bat” (Ibid., p. 24).

Minaren Antropologiaren arabera (Das, 2008), gizarteak “marka” berezi bat ezarriz bihurtzen ditu biktimak memoriazko gorputz; biktimak taldearen kohesiorako elementu bilakatzen dira hartara, taldeak partekatzen duen “bizitza moralaren” sinbolo direlako (Ibid., p. 415). Hortik dator martiri nazionalaren figuraren garrantzia: “Ez da aski nazio berriek izen bat edo lurralde bat izatea. Izen hori beste lurralde batean idatzi beharra dago, gorputzean” (Ibid., p. 421). Adierazpen hauek kontsentsu sozial handiago edo txikiagoa eragin dezakete, eta usu hainbat aktore, lege eta instituzioren arteko negoziaketaren emaitza izaten dira (Hoondert & Varona Martínez, 2020, p. 5).

Publikoki kommemoratzan diren biktimek, ordea, paradoxa bat ere badaukate: aldi berean dira historia kolektiboaren garapenean ezohiko esperientzien jabe indibidual, eta kolektibitate horren sufrimendua ordezkatzan duen sinbolo. Horregatik, euren aitortza eta konpontze-keinuek informazio ugari dakarte oroitzen duen taldearen balio eta arau dominatzaileei (eta, ondorioz, haiek ezartzen dituzten aktoreei) buruz, kaltearen errepresentazioa bera ere funtzio identitarioz eta kode kultural partekatuen bidez eraikitzen delako.

Horregatik, Webelek eta Galtungek ohartarazten dute garrantzitsua dela eskubideak (esaterako, aitortza jasotzeko eskubidea) eta ardurak (esaterako, damua adieraztea) nork definitzen dituen eta nori eskatzen dizkion behatzea, hala nola, inplikaturik dauden botere harremanak aintzat hartzea: neoliberalismoan, esaterako, ohikoa da eliteen eta boteretsuen “eskubideak” eta “desabantailatsuen obligazioak” (Ibid., p. 169) mintzagai izatea. Iragana eremu diskurtsibo disputatua den kasuetan ere pertinentziazkoa da galdera hauek buruan izatea: narratiba nagusiak nork eraikitzen dituen, nola erretratatu eta kategorizatzen diren bertan inplikaturik aktoreak, eta narratibok zein funtzio sozial betetzen duten euren testuinguruko harreman sozialetan.

“Balio unibertsaleko adierazpen bat egiten dugunero, esate baterako, ‘giza eskubide unibertsalei’ buruz, testuinguru baten egiten dugu, guk geuk bizitako esperientziak baizik ez baitio adierazpen horri guretzat duen zentzua ematen. Unibertsalak, beraz, beti datoz esperientzia pertsonal eta partzialetik, eta, beraz, ezin dute balio enpiriko unibertsalik exijitu (...). Balio unibertsal bati buruzko adierazpena ezin da bereizi bere testuinguruko oinarritik.” (Webel & Galtung, 2007, pp. 167–168)

Iraganeko eskubide urraketei buruzko diskurtso publikoek, sarritan, “narratiba erreduzagarriak” (Toolis & Hammack, 2015, p. 55) patroia jarraitzen dute, zeinetan sufrimenduari esanahi positibo bat erantzen zaion, “ikasketaren erretorika” baten barruan. Erresilientziazko narratibok osagai identitario sendoa daukate: taldeak bere burua oztupoak gainditzeko gai den subjektu aktibo gisara irudikatzen du, eta, hartara, “debaluatutako identitate sozial bat harrotasun-iturri” (Ibid., p. 59) bihurtzen da. Horregatik, memoriaren funtzio nagusia ez da hainbeste iraganari buruzko kontakizun zehatz bat eskaintzea, baizik eta “memoria erabilgarri bat” (Wertsch, 2002, p. 31) izatea, hau da, gizarte bati bere iraganari buruzko “uste eta ideiek osatutako gorputz bat” (Bodnar, 1992, p. 15) eskaintzea, taldeari bere gaurkotasuna eta, ondorioz, etorkizuna ulertzeko balioko diona.

Maila erretorikoan, diskurtso memorialistiko publikoek topiko zehatz batzuk betetzen dituzte sarritan, besteak beste, bidaiarena edo *historia magistra vitae* (historia, bizitzarako irakasle gisara): “Kommemorazioak ez ditu soilik iragan zailak narratibizatzen: gaurkotasunerako ikasi beharreko esanahi edo irakaspen zehatzak eraikitzen ditu” (Rheindorf & Wodak, 2017, p. 24). Funtzio hezitzailea bikoitza da, gainera: taldearen *bizi ibilbidea* deskribatzen duen narratiba interpelatzaile horretan, identitate kolektiboaren oinarrian dauden balio eta ezaugarriak ere txertatzen dira. Iragana gainditu beharreko oztupo edo desgrazia gisara kontzeptualizatzen dute halako diskurtsoek, Alemaniako kultura memorialistikoan nagusitu den *Vergangenheitsbewältigung* (alemanieraz, “iragana gainditzeko edo dominatzea”) ikuspegiaren ildotik (A. Assmann, 2009, p. 39). Kontzeptu horrek lotura estua du norbere buruaren eta egoeraren (ber)legitimazio baten

bilaketarekin, eta, linguistikoki, “erruaren semantika” baten forma hartzen du maiz (J. Assmann, 1999, p. 86).

Horregatik, sarritan, publikoki gogoratzen edo irudikatzen den sufrimenduak zerikusi gutxi izan ohi du biktimen esperientzia errearekin. Haietako gehienak, biolentzia sufritu duten hezur eta haragizko pertsonak, ahotsik gabeko aktoreak izan ohi dira gatazka osteko paisaia komunikatibo publikoetan, sufrimenduari buruzko diskurtsoak profesionalizazioaren galbahetik eraikitzen direlako, besteak beste, gizarte zientzietan, zuzenbidean edo medikuntzan (V. Das, 2008, p. 410). Traumaren ondorioz euren istorioa gogoratu edota kontatu ezin duten biktimen estereotipoak irudikatzen du modu zehatzenean biktimaren kontzeptualizazio hori. Gizarteak, adierazpen publikoen bidez, *bere* egiten du haien esperientzia, eta, sarritan, baita haien ahotsa ere.

Planteamendu hauetan, *trauma* kontzeptua erabili ohi da iraganari buruzko isiltasuna arrazoitzeko: “Esperientziak, euren intentsitate emozionala dela medio, ezin direnean behar bezala landu, hau da, narratibizatu” (Erlil, 2017:82), esperientziak kanporatzea eragozten duen errepresio-mekanismo bat sartzen da indarrean. Edo, zehatzago formulatuta, esperientzia ulergarri bihurtzeko dezakeen marko kognitibo batean kokatzeko ezintasunak ezaugarritzen du trauma, hura ezin delako “iraganari buruzko istorio osatu batean txertatutako ‘memoria narratibo’ bihurtu” (Caruth, 1995, p. 153).

Maila kolektiboan ere, “errepresentazio-krisi” gisara ulertu izan da trauma, bereziki Bigarren Mundu Gerraren eta Holokaustoaren ondorengo eremu literario, soziologiko eta komunikatiboan (Felman & Laub, 1992, p. 79). Garaiko teoriariek sentitu zuten ordura arte estandarizatutako kategoria eta kontzeptuak baliogabe geratu zirela errealitatean bizi izandako sarraski totalitaristaren aurrean (Arendt, 1953, p. 302; Bauman, 1988; Friedländer, 1992, p. 3), eta horrek bultzatu zituen *Auschwitz osteko* pentsamendu sozial eta kulturalaren aukerak kuestionatzera. Theodor W. Adornori atxiki ohi zaion esapideak laburbiltzen du ondoen orduko sentipena: “Auschwitzen ondoren poema bat idaztea erokeria da” (Adorno, 1998).

Holokaustoa edo Shoah memoriaren sinbolo bihurtu da azken mendean. Olickek horretarako lau arrazoi aipatzen ditu: 1) Bigarren Mundu Gerraren osteko komunikabideen gaitasuna, gertatutakoaren xehetasunak erreproduzitzeko (nagusiki irudiaren eta ikus-entzunezkoen eremuan); 2) Giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeen garapena eta sentsibilizazioa; 3) Holokaustoak eragindako biktimen kopuru handia; eta 4) Sufritutako biolentziaren izaera bera, ordura arte ezagutu gabeko “eredu industrial” baten bidez jokatu zutelako biktimagileek (Olick et al., 2011, p. 30).

Ordutik, “biktimaren irudia erdigunean” kokatzen duen kultura memorialistiko baterantz mugitu da gizarteak, soziologo estatubatuarren ustez. *Esanezina* (hizkuntzaren bidez kontzebitzeko gogorregia) den sufrimendu baten biktima gisara erretratatu ohi dira maiz Holokaustotik bizirik atera ziren pertsonak. Diskurtso honen arabera, biolentziaren osteko isiltasuna traumaren somatizazio batetik letorke:

“Holokaustotik bizirik irten zirenak oroitzapenez gainezka baleude bezala erretratatu ohi dira, eta euren istorioa berriz kontatu nahiko ez balute bezala, hark berpiztu dezakeen minagatik. Euren arazoa ez dira memoriaren mugak, baizik eta hizkuntzarenak: hitz arruntak desegokiak dira ikusi duten guztia adierazteko. Narratiba koherente baten aukera bera deusezten duen

hondamendi ulergaitz bat irudikatzen du Holokaustoak.” (Kirmayer, 1996, pp. 174–175)

Aski zabaldutako ikuspegi honen arabera, memoriazko ekintzak, hau da, oroitzapenak ahoskatuz partekatzeak, terapia edo osatze psikologikoaren funtzioa betetzen du. Sufritutako kalteak ordura arte eraikitako eta ziurtzat jotako *norbera narratiboa* (*narrative self*) zalantzan jartzen du, biktimak euren bizitzari buruzko kontakizun berriak eraikitzen behartuz (Pemberton, 2018). Kontakizun berri hori biktimen erresilientziarako ibilbidearen azken helburua litzateke, testuinguru sozial berri batean “agentzia eta kontrola berreskuratzea” ahalbidetzen dien errituala (Green et al., 2020, p. 578).

Ikuspegi horrekiko ahots kritikoek, aldiz, ez dute iraganari buruzko isiltasuna bizitako traumaren somatizazio edo patologizazio moduan ulertzen: aitzitik, argudiatzen dute memoriazko edozein ariketa gauzatzeko, horretarako testuinguru egoki bat behar dela, biktima rolar berari eta haren testigantzari balioa aitortzen dion marko sozial bat. Kirmayerrek *memoriaren paisaia* gisara definitu ditu traumazko narratibak gauzatzen diren inguruneak, hau da, “afektiboki kargatutako eta sozialki definitutako gertakariak, zeinak hasieran lausoak edo inpresionistikoak izan daitezkeen, edo besterik gabe memoriatik absente egon daitezkeen, gogoratzeko behar den distantzia eta ahaleginari forma ematen dien lurralde metaforikoa” (Kirmayer, 1996, p. 175).

Ikerketa literario eta psikologikoetatik ere antzeko kritikak egin zaizkio traumaren diskurtsoari, amnesia traumatikoaren existentzia zalantzan jarriz eta nabarmenduz isiltasuna ez dela hitz egiteko ezintasun biomekaniko edo psikosomatiko baten ondorio, sozialki baldintzatutako hautu baten ondorio baizik (Pederson, 2014, p. 334). Horren ordez, erabilgarriagoa izan daiteke iraganari buruzko diskurtsoak azalartzea ahalbidetzen edo oztopatzen duten faktore sozialei erreparatzea.

3.2.4. Ahaztea eta isiltasuna: isiltasun motak

Maila pertsonalean zein kolektiboan, gogoratze-ekintzak beti eskatzen du aukeraketa bat: gertatutakoa narratibizatzerakoan, alderdi batzuk nabarmentzen dira eta beste batzuk narratibatik kanpo uzten dira. Horregatik, ahoskatzen den hori bezain esanguratsua da isiltzen dena.

Fivushek (2010, p. 89) argudiatzen duenez, ahotsa zein isiltasuna “negoziatu, inposatu, lehiatu eta eman” egiten dira elkarriketetan, pertsona arteko interakzioetan zein gizarte mailako narratibizazio-prozesuetan, eta, beraz, aktore bakoitzak elkarriketa sozial horretan betetzen duen funtzioaren arabera izango da haiek ezartzeko daukan gaitasuna edo boterea: “(...) boterea posiziotik dator, eta ahotsa boteretik. Botereak zeharkatzen dituen gizarteko roler aukera dute aldi berean normatiboa eta preskriptiboa den narratiba partekatu kulturalari forma emateko” (Ibid., p.90).

Printzipio orokor gisara, beraz, esan genezake talde baztertu edo boteregabetuen ahotsa isilarazi egiten dela memoriari buruzko narratiba nagusietan, euren sinesgarritasuna ere zalantzan jartzen delako. Foucaultentzat, zuzenki lotuta daude boterea eta diskurtso hegemonikoak (eta, ifrentzuz, baita isiltasuna ere) ezartzeko gaitasuna: “Boteretik egiten den egiaren produkzioaren menpe gaude, eta ezin dugu boterea erabili egiaren produkzioaren bidez ez bada” (Foucault, 1992, p. 140).

Beste autore batzuek, ordea, nabarmendu dute badaudela borondatezko edo auto-inposatutako isiltasuna eragin dezaketen beste faktore batzuk ere, esate baterako:

- a) Auto-irudiarekiko koherentzia: iraganari buruzko narratiba ez datorrenean bat gure taldearen balio- eta sinesmen-sistemarekin, hura elipsatu dezakegu identitatearen eta barne-koherentziaren izenean. Pierre Bourdieuk *doxa* gisara definitu zituen mundu sozialari buruzko ezagutza-sorta inkontzienteak (Bourdieu, 2000, p. 122); ezagutza horien artean “espazio ez politiko, ez eztabaidagarri bat” (Nohrstedt & Ottosen, 2015, p. 224) eraten da. Doxak diskurtso zehatzen azaleratzea eragozten du, *esanezinaren eremu* bat sortzen duelako: ikasitako eskema sozialak kuestionatzen dituzten elementuak hor kokatzen dira maiz, taldearen barruko narratiba nagusiek, hau da, kulturalki partekatutako marko ebaluatiboek (Assmannen “mito fundazionalekin” lotu ditzakegunak) “xurgatu” (Fivush, 2010:91) ezin dituzten istorioak. Hirsztowicz et al.-ek (2007, pp. 75–76) *non-memory* edo *ez-memoria* terminoa proposatzen dute propio oroimen publikotik at geratzen diren informazio eta narratibak izendatzeko; haren mekanismoen artean aipatzen dituzte zentsura, gobernuen biolentziarako mehatxua eta *memorizidua*, hau da, “estatuen arrazoi gisara eraten den amnesia kolektiboa” sustatzea “azpikontzientzia kolektiboa”.
- b) Ulertezintasuna: *Bestearen* tokian jarriz gero, zerbait ez partekatzea erabaki dezakegu *Besteak* gure esperientziak ulertuko ez dituela edo garrantzirik aitortuko ez diela pentsatzen dugunean (Fivush, 2010: 91).
- c) Nabarmentzearen ondoriozko ahanztura: memoria ekintzak berak, paradoxikoki, ahanztura eragiten du. Zerbait aktiboki oroitzean, bereziki ekintza memorialistiko publikoetan, gerta liteke oroitzen den elementutik hurbil edo harekin lotuta dauden beste eremu batzuk isilaraztea eta denborarekin ahaztea, bereziki eremu horiek ozen oroitzen diren haientzako oztopo potentzialak direnean (Erl, 2017:120).
- d) Isiltasuna, boterearen erakusgarri gisara: Foucaulten tesia nabarmenen kuestionatzen edo osatzen duen planteamendua Fivushena da; haren arabera, isiltasuna botere mota bat ere izan daiteke, norbera justifikatzeko beharrik eza irudikatzen duenean. Ahoskatu beharrik ez izate horretan datza gizarteko diskurtso nagusien hegemonia: partekatutako edo ezarritako egiazat jotzen dira, eta, beraz, jakintzat ematen dira; ondorioz, ez dago haiek propio tematizatzeko beharrik edo borondaterik. Erresistentziatzko narratibak ere haien gainean eraikitzen dira. Kasu horietan, berbalizatutako narratibak legitimitatez gabeturiko taldeetatik datoz: “Botereak ahotsa ematen duenean, isiltasuna zapalgarria da; baina botereak isiltasuna ematen duenean, ahotsa justifikazioa da” (Fivush, 2010:94).

Ikuspegi hau interesgarria zaigu erresistentziatzko diskurtso edo kontranarratiben fenomenoak ulertzeko. Fivushentzat, isiltasunean aukerak edo “espazioak” sortzen dira narratiba hegemonikoak zalantzan jartzen dituzten diskurtsoak eraikitzeko: “Erresistentziatzko narratibek narratiba nagusia abiapuntu gisara hartzen dute, baina perspektiba subjektiboa aldatu egiten da, eta jarrera morala mugitu egiten da perspektiba narratibo dominatzailetik perspektiba narratibo baztertuta” (Fivush, 2010:92). Iraganeko gertakariei buruzko diskurtsoen *egia moralaren* inguruko gatazka bat sortzen da hartara:

“Egia partekatutako esanahiaren eraikuntzatik sortzen da, eta esanahi partekatuak narratiba partekatuen eraikuntzatik sortzen dira. Narratiba bat lehiatua denean, pertzibitzen dena da narratiba bat ezin dela ‘zuzena’ izan,

bestea hala delarik, eta, hain zuzen ere, narratiba ‘zuzenak’ darama inperatibo morala”. (Fivush, 2010:95)

Historia ofizial edo publikoaren eta memoria pribatu edo indibidualagoen arteko “hutsune” horietan, negoziatorako aukerak ikusten dituzte kontra-memoriaren teoriariek, hau da, “memoria preskriptiboaren sistema errepresibo edo soilki konplazenteak” (Davis & Starn, 1989:5) zalantzan jartzen dituzten gutxiengoaren historia soziala eztabaidan txertatzeko aukerak.

3.3. MEMORIA PUBLIKOA ETA KONTRA-MEMORIA EUSKAL HERRIKO ESPERIENTZIAN

Hego Euskal Herrian eta Espainiako estatuaren eremuan *Memoria historikoa* kontzeptua erabili izan da 1936ko Gerran eta haren ondorengo diktaduran frankistek eragindako giza eskubideen urraketari buruz aritzeko. Terminoak berak iradokitzen du kontra-narratiba baten presentzia: *memoria historikoa* memoria ofizialari kontrajartzen zaio testuinguru zehatz horretan. Izan ere, gerra hartatik “memoria publiko ofizial bat eta bakarra” (Leizaola, 2010, p. 353) eratu zen, gerra irabazi zutenek, frankistek, eraikia. Espazio, erritu, monumentu eta oroitarri ugari dira memoria ofizial horren euskarri eta transmisore; iraganeko kolektibitate baten ikuspegia denboran garraiatzea eta hari egungo testuinguruan azalpen logiko bat ematea beste xederik ez duten elementu komunikatiboak, guztiak ere. Botere politikoez “iraganaren kontrolerako tresna” gisara erabili dituzte, helburu autojustifikatzailez: “(...) gertatutakoa leuntzeko erabili izan dituzte botere-egiturek, gerra ondorenetan gertatu bezala, gertaera traumatikoa jasangarriagoa ez ezik, ulertzeko eta onartzeko modukoa bilakatzeko” (Ibid., p.360). Politika memorialistiko horrek frankisten lekukotza eta kodeei eman die ikusgarritasuna urte luzez; gerraren galtzaileei eskainitako espazioa —diskurtso nagusietan, oroitarrietan, egutegi publikoan...—, aldiz, askoz murriztagoa izan da.

1970eko hamarkadan frankismoaren amaiera markatu zuen trantsizio politikoa ere “ahantzuraren itun inplizitu” (Aguilar, 2003, p. 143) batean oinarritu zen: Espainiako eragile politiko nagusiek diktaduratik eredu parlamentariorantz mugitzea adostu zuten, baina diktadurak egindako sarraskiak ez tematizatzeke baldintzarekin. 1936ko Gerra “eromen kolektibo” gisara enmarkatzen zuen “ikuspegi tragiko” (Ibid., 132) bat nagusitu zen, zeinaren arabera alde guztiek egin baitzituzten onartu ezinezko delituak. “Norbera mentalki distantziatzeko lehen urratsa izan zen gerra ‘anai-arreben arteko gerra’ eta ‘tragedia nazional’ gisara ikustea”, argudiatzen du Berneckerrek (2009, p. 135). Horrek frankismoak botere posizio batetik eta kasu askotan sistematikoki egindako eskubide urraketak memoria kolektiboan lausotzea ekarri zuen. Hori dela eta ohartarazten du Aleida Assmannek Trantsizio espainiarreko idatzi gabeko ituna “alde bakarrekoa” (2009, p. 34) izan zela praktikan; inplikaturako partearen arteko boterezko asimetriaren ondorioz, “Frankismoko funtzionarioei amnistia orokor bat eskaintzeko efektua” izan zuelako batik bat. Horren seinaleztat jotzen du Berneckerrek “sistema sinboliko frankistaren iraupena” (2009, p. 127) erreforma politikotik urte askora.

Gaurdaino Espainiako hiri ugarietako espazio publikoan topa daitezkeen oroitarri eta erreferentziez harago, frankistek hildako milaka errepublikarren gorpuak biltzen dituzten hobi komunek osatutako “paisaia ez soilik fisiko, baizik eta baita politiko, sinboliko eta sozialak” (Ferrándiz, 2011, p. 527) ere ezarri zituen ondorengo erregimenaren oinarri diskurtsibo-sinbolikoak. “Sekretu publikozko euren izaeragatik, garaileen mesprezuaren

pean preso egoteagatik eta biolentzia horren biktimei inposatutako isiltasunagatik, [hobiek] biltzen duten izuari buruz sozialki legitimatuak izango ziren kontakizunak sortzea eragotzi zuten, hala nola, doluzko espazio kontsolidatuak sortzea” dio Ferrándizek (2009, p. 86); horregatik, abisu emateko intentzioa atxikitzen die autore honek hobi komunei.

Frankismoko biktimek ez zuten ahots publikorik izan 2000ko hamarkadara arte: mende erdi batez baino gehiagoz, euren *egiak* argitara ateratzeko kontra-memoria lana borondatezko eta militantziazko elkarteek egin zuten, frankismoko giza eskubideen urraketei eta “errepresio bortitzari” buruzko “justizia trantsizionalezko inolako esperientziarik ez” (Bengoetxea, 2019, p. 590) zelako gauzatu. Erakunde publikoek ere, milurteko berrira arte, babes gutxi eskaini zieten gerrako eskubide urraketak argitzeko inizatibei. Hego Euskal Herrian, 2003koa da frankismoak fusilatutakoen aitortza eta erreparazio morala eskatzen duen lehenbiziko adierazpen parlamentarioa, Nafarroan. 2007an, Espainiako Gobernuaren Memoria Historikoaren Legeak bultzada legislatiboa eman zion frankismoko biktimen memoriari, besteak beste, haren bidez Estatuak hobi komunak identifikatzeko “laguntza” eskaintzen zuelako eta faxismoa goraiatzeko zuten sinboloak eraikin eta gune publikoetatik kentzeko konpromisoa hartzen zuelako. Hura indarrean jartzeko prozesua biktimen senideek nahi baino geldoago eta esfera politikoko gatazken erdian abiatu zen (Ferrándiz, 2009, pp. 64–66). Hortik aurrera, memoriari eskainitako hainbat instituzio sortu ziren, besteak beste, Gogora Institutua eta Nafarroako Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia, biak ere 2015ean.

Deshobiratzeek inflexio puntu argia ekarri zuten 1936ko Gerra eta frankismoa ikusteko eta haietaz eztabaidatzeko moduetara. Leizaolaren arabera (2007, p. 487), “une katartiko bat” ekarri zuten Hego Euskal Herriko eta Espainiako historia sozialera, zeinetan biktimen zati batek, “sarritan lehenbiziko aldiz, hitza hartzea eta libreki hitz egitea erabaki” baitzuen, Estatuak sustatutako “amnesia ofizialarekin hautsiz”. Ferrándizek frankismoaren *desikasketa* gisara definitzen du hobi komunen ezagutzak eta biktimen arrastoen lekukotzak sektore sozial zabalaren ulerkeran eragindako biraketa:

“Frankismoko egitura errepresiboaren eta propaganda-arkitekturaren desarmatze edo desegite esanguratsu hau exekutututako gorpuetan idatzi ziren zaurien xehetasun ia mikroskopikoetaraino jaistera behartzen ari da herrialdea, ondoren bere ibilbide diagnostikoa gaur egungo gizarte espainiarrarekin zuzen-zuzenki konfrontatzeko, haren agerraldi mediatikoen erreperitoriotik hasi eta legeetaraino.” (Ferrándiz, 2011, p. 542)

Hego Euskal Herriko memoriaren *boom* berantiar honek bat egin zuen tokiko beste aldi gatazkatsu baten azken fasearekin: 2000ko urteetako lehen hamarkada ETaren jardun armatuaren azken hamarkada ere izan zen. Iraganeko eskubide urraketei buruzko mintzamoldeak eta testuinguru sozial diskurtsiboa oso bestelakoak ziren ordurako: sufrimenduaren biktimei aitortza ez ezik, erreparazio ekonomikoa eta ahotsa eskaintzen zieten erakunde publikoak sortuta zeuden eskualde zein nazioarte mailan. Ondorioz, biktima rola lehiatutako estatus bat bihurtu zen, eztabaida politiko eta sozial gehien erdigunera mugitu zena. “Egoera desiragaitz bati lotuta egon arren –iragandako sufrimenduari–, biktima izateak ondasun desiragarrietarako sarbidea” ematen zuen (Gatti, 2016, p. 119), besteak beste, ikusgarritasuna eta nortasuna, biktimaz bestelako kategoriatan eskuratzen ez direnak.

“(…) haietako askok, nahi izan gabe ere, narratiba nazionalen martiri-bilduma zabala elikatzen zuten, zeintzuek botere-kontakizunen bat edo beste abiarazten edo osatzen, eta, ondorioz, elikatzen eta justifikatzen baitzuten. [Biktimak] lagungarri ziren partekatua den hori irudikatzen zuten ezohiko narratiben eraikuntzan, partekatua den hori maiuskulaz idazten denean (nazioak, aberriak, herrialdeak, herriak...). Ezohiko biktimak ziren, ezohiko fenomenoetarako funtzionalak”. (Ibid., p. 117)

Biktimek komunitatea trinkotzen dute: talde baten mina gorpuzten dute, eta, ondorioz, talde horren iraganaren narratiba autojustifikatzaileko oinarri ezin hobea dira, norberaren aurkezpen positiboa (kaltea jasan duenarena) eta *Bestearen* aurkezpen negatiboa (kaltea egin duenarena) indartzen dutelako. “Sufritzen ditugun kalteen balioa puzten dugu, eta geronek eragindakoaren balioa minimizatzen. Horrek mendekuzko eskalazio-ziklo luze baterako lurra ereiten du, pertzepzio partzialdun alderdi bakoitza bestearen ‘parera’ heltzen saiatzen baita” (Santa-Barbara, 2007, pp. 179–180). Horregatik, ez da harritzekoa Euskal Herriko gatazkaren testuinguruan biktima izaeraren inguruan sortu den lehia: posizio horrek zilegitasuna aitortzen du, ez soilik biktimei norbanako gisa, baizik eta —eta batez ere— eurek irudikatzen duten identitate sozial eta politikoei eta haien adierazpen diskurtsiboei.

Iraganeko eskubide urraketen inguruko diskurtsioetan, 1936ko Gerra eta frankismoko lehen hamarkadak eklipsatuta geratu dira ETaren jardun armatua ardaztat duen garai gatazkatsuen prominentziagatik: lehena *memoria historikoa* kategorian sartzen da, eta bigarrena oraindik nekez jotzen da historiatzat, eta, beraz, eztabaidatik at uzten da sarritan. Paradoxikoki, *euskal gatazka* armatuarekin lotutako urteurren sorta batek markatutako kommemorazioen ugaritze bat bizitzen ari gara azken urteotan, 80ko eta 90eko hamarkadako hilketa eta atentatu ikonikoenetatik mende laurdena igaro denean. 2011tik aurrerako isiltasunean sozializatutako gazteentzat, urteurrenok dira, sarritan, gogoratzen den gertakariari buruz jakiteko lehenbiziko modua.

1936aren ondorengo isiltasuna, neurri handi batean, bere testuinguru diskurtsiboa egituratu zuten botere harremanen ondorio zen, traumak eragindako ezintasun pertsonala bainoago: lehenbizi erregimen frankistak eta gero Ahanzturaren Itunak “gerraren inolako kontu-hartze eta konponketa-eskari eragotzi zituen” (Leizaola, 2007, p. 487), eta, beraz, “Zertarako gogoratu?” galdetzen zioten euren buruari orduko biktimek (Barandiaran Amillano, 2021, p. 72), *gogoratzearen*, hau da, kontatzearen alderdi utilitaristari erreferentzia eginez: etsaitasunezko testuinguru diskurtsibo batean, iragan mingarrien kontakizunak ez zekarren biktimarentzat inolako irabazirik. Esperientzia horretan oinarrituta, beraz, galdetu beharra daukagu zeintzuk ote diren gaur egun iragan hurbileko esperientziak eta urraketak narratibizatzea eta konponketa aldarrikatzea ahalbidetzen duten espazio publiko eta praktika sozialak.

3.4. MEMORIEN TRANSMISIOA

Memoria kolektiboa oroitze-kulturetan islatzen da (ErlI, 2017:98), hau da, giza kolektibo zehatzetan eraikitako eta partekatutako zeinu-sistemetan. Ez da existitzen kultur sistematik aparteko oroitzapen independenterik, garunaren gordeleku moduko batetik *berreskuratzen* denik. Aitzitik, memoriako ekintzei buruz ari garenean, memoriaren errepresentazioei buruz ari gara beti: *a posteriori*-ko “*re-presentation*” (Huysen, 1995, p. 2) edo (*berr*)eraikuntza bati buruz, alegia.

Prozesu semiotikoetan, hiru eragileren arteko interakzioaren bidez eraikitzen da esanahia: 1) testuak edo zeinuak, 2) zeinuen *erabiltzaileak*, eta 3) erabiltzaile horiek zeinuak eraikitzeko edota interpretatzeko erabiltzen dituzten *kodeak* (Posner, 2008, p. 41). Kodeak, bestalde, mundu sozialarekiko harremanean ikasitako edo konbentzioz adostutako signifikante, signifikatu (esanahi) eta arau sorta batez osatuta daude: “Zeinuak interpretatzerakoan oro har kode konbentzional berberak erabiltzen dituzten norbanakoak kultura beraren kide gisara ikusten ditugu” (Ibid., p. 43). Testuen ulermena, zeinuen deszifratze edo prozesamendu hutsaz harago, hainbat mailatako harreman edo “tratu” gisara ikusten du Lotmanek, eta testuak berak kode gisara ere operatu ohi duenez, hura gutxienez bi bider kodifikatzen dela argudiatzen du, hizlariarekin, audientziarekin, testuinguru kulturalarekin eta testuarekin berarekin duen harremanaren arabera (Lotman, 1993, pp. 18–19).

Gertakarien eta pertsonen haiei buruz duten ulermenaren artean “mediatzen” duten “baliabide testualez” mintzo da Wertsch (2002, p. 5), memoria materialki “mediatutako ekintza” dinamiko bat dela dioenean: “Testuinguru soziokultural zehatz batek eskaintzen dituen tresna kulturalak erabiltzea da gizaki izatea”. (Ibid., p. 11).

Gogoratzeak, beraz, bi dimentsio inplikatzeko ditu, eta datozen azpiataletan biak nola harilkatzen diren azalduko dugu:

- a) Dimentsio material bat: esanahiak *garraiatzen* dituzten edo haien interpretazioa bideratzen duten objektu, gorputz, praktika eta instituzioak, besteak beste, ordenagailuak, narratibak (ahozkoak, idatziak, ikus-entzunezkoak zein bestelakoak), oroitarri, memorial eta museoak; eta abar.
- b) Dimentsio kognitibo bat: aurrekoetatik esanahia inferitzeko beharrezkoak diren ezagutza kultural guztiez gain, norbanakoaren irakurketa baldintzatzen duten pentsamenduzko eskema kultural eta balio sistemak, hala nola, haietan inplikaturik dauden dimentsio afektibo, interpersonal, historiko, politiko eta kulturalak (Shahzad, 2011, p. 389).

3.4.1. Transmisioaren forma materialak: memoriaren teknologiak, narratibak eta iruditeriak

Edozein oroitzapen gizarteko beste kideekin partekatu ahal izateko, memoriazko ekintza *gauzatzeko* bitartekoak behar dira. Ahozko, idatzizko zein ikus-entzunezko lengoaiak “memoria kolektiboaren maila psikiko eta sozialen arteko interfaze” (Erll, 2017:101) moduan funtzionatzen dute, ezagutzaren objektibazioaren bidez kolektibizatzen dutelako esperientzia indibiduala.

Memoriazko medioa da “kolektibitate baten interpretazioan iragana transmititzen duen guztia” (Ibid., p.146), hau da, iraganari buruzko esanahiak kode kulturalen bidez atxikitzea ahalbidetzen duen elementu oro. Esanahitze-prozesu horren alderdi intentzional eta aldakorra nabarmendu asmoz, hainbat kontzeptu garatu dira Memoria Ikasketetan. Shahzad, adibidez, *memoriaren teknologiaz* mintzo da (2011, p. 378); hartara, memoria *edukiontzi* metaforikoetan gordetako ezagutza aldagaitz gisara irudikatzen duen interpretazio bati kontrajartzen zaio, argudiatuz giza eragileen eta hauek testuinguru sozio-kultural zehatzean eskura dauzkaten eta erabil ditzaketen *memoriazko*

teknologien arteko bitartekaritza-prozesua dela oroitzea, eta, ondorioz, etengabeko aldaketa- eta egokitze-prozesuan dagoen irudikapen bat dela memoria.

Medioen Teoriak argitzen duenez, esanahiak eraikitze erabiltzen ditugun bitartekoak ere testuinguru soziokultural zehatzen isla dira (Wertsch, 2002:13), eta, aldi berean, gauzaten duten ekintza komunikatiboa moldatzen dute; eta, ondorioz, baita gure pertzepzioa ere. Areago: teoria honen arabera, mundu sozialarekin ditugun harreman guztiak garatzen dira “medioek zabaltzen dituzten aukera bereizgarrien eta haien muga” baldintzapean (Erlil, 2017:136).

“Memoria kolektiboaren medioek errealitateari eta iraganari buruzko bertsioak eraikitzen dituzte. Eraikuntza horietan, bitartekoaren materialitatea (...) haren dimentsio sozial-sistemikoa bezain inplikaturatuta dago: memoriako medio baten ekoizleek eta hartzaileek ere eraikuntza-lan aktiboa egiten dute; esate baterako, erabakiz zein fenomenori egozten zaizkion memoriako medioaren ezaugarriak, eta gogoratu behar den horren aukeraketan, kodifikazioan edota deskodifikazioan, eta esanahien eraikuntzan.” (Erlil, 2017, p. 147)

Beste era batera esanda: iraganari buruzko diskurtsoak egituratzeko erabiltzen ditugun baliabideen antolaketa aukeraketa zehatz bat eskatzen du, zeinak ostera esanahien eraikuntza-prozesu mentalak ere baldintzatuko baitituen. Iraganeko edozein gertakari eskaintako museo batek muga fisiko batzuk ditu, hau da, informazio kopuru zehatz bat baino ez da kabituko bertan; plaza batean eraikitzen den orotarriak gertakari zehatz bat gogoratuko du eta ez beste bat; eta ahoz kontatzen den istorio batek ere bere distortsioak sufrituko ditu kontatzailearen eta kontatze-egoeraren arabera. Ondorioz, mediatutako oroitzapen horietako bakoitzak aktore interpretatzailearen eskema mentala eguneratuko du; baina, aldi berean, esanahitze-prozesu horrek berak ere eragina izango du kokatuta dagoen memoriako kultura zabalean.

Memoria publikoa eraikitzen duten masa medioek iraganeko gertakari buruzko “memoria prostetiko” bat eraikitzen dute, haiekin bestelako loturarik ez duten norbanakoak interpelatzen dituztelako (Landsberg, 2003, p. 148), haiengan esperientzia subjektibo berriak sortuz. Landsbergen arabera, posible da *norberarena* (zentzu indibidualean edota norberaren taldearen zentzuan) ez den memoria batekin enpatizatzea, hain zuzen ere masa medio horien eraikuntza narratiboek eragin dezaketen efektuaren ondorio gisara.

Narratibak dira memoriaren transmisioaren teknologia edo medio erabilienak, edo, alderantziz: iraganaren errepresentazio ia guztiak dira era batera edo bestera narratiboak, nolabaiteko lengoia edo kode-sistema bat erabiltzen dutenez gero. Narratibek esperientzien edo ezagutzen bertsio egituratu bat eskaintzen dute, modu gehiago edo gutxiago konbentzional batean antolatuta. “Kulturalki kanonikoak diren forma linguistikoak” dira (Fivush, 2010, p. 89), gertakariak hurrenkera sekuentzial baten arabera berrantolatzeaz gain, sarritan euren arteko harreman logikoak ere eraikitzen dituztenak: horregatik, ahozko istorioen ohiko egitura narratiboak orientazioa (sarrera), azalpena, gailurra eta lezio moralak izaten ditu (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 17). Errealitate sozialari buruzko “marko esplikatzaile eta ebaluatibo” (Ibid.) bihurtzen dira hartara. Narratibek izaera interpretatzailea dute, beraz; horrela, behin eta berriz kontatzen diren

istorioak “iraganari buruzko bertsio ebaluatibo onartuak” bihurtzen dira (Fivush, 2010, p. 90).

3.4.2. Familiaren barneko belaunaldi arteko transmisioa

Memoria kolektiboaz ari garenean, gizarte osoak partekatzen dituen *oroitzapen* edo errepresentazio kulturelei buruz ari gara askotan. Nolanahi ere, badira gizarteen barruan elkarren alboan edo elkar gurutzatuz bizi diren hedadura murriztagoko memoria partekatuak ere, taldekoak izanagatik ere izaera pribatuagoa dutenak. Familiako memoria da horietako garrantzitsuenetako bat: memoria publikoaz bestelako arau batzuk betetzen ditu (sarritan, harekiko era paraleloan edo haren aurka egiten duelako bere lana), eta, aldi berean, mikro-gizarte zenbaiten memoria belaunaldiz belaunaldi nola transmititzen edo partekatzen den ulertzeko pista batzuk eskaintzen ditu.

Echterhoff eta Kopietzek (2018, p. 114) memoria “partekatuaren” (*shared memory*) hiru esanahi bereizten dituzte:

- a) Zatitan bereizitako memoria bat: norbanako bakoitzak bere memoria daukan eta haiek euren artean gurutzatzen ez diren sistema sozial bat.
- b) Elkarri komunikatutako memoria bat: kasu honetan, hartzailleak ulertzen du hizlariak jarrera bat daukala narratzen ari denarekiko, baina ez du hura partekatzen.
- c) Bi pertsonak edo gehiagok erreferente berari buruz interpretazio, sinesmen eta jarrera ebaluatibo berberak edo antzekoak izatea.

Memoriaren belaunaldi arteko transmisioari buruz ari garenean, azken bi aukerei buruz ari gara gehienetan: belaunaldi bateko adinkideei “esperientziazko komunitateak osatzea” egozten zaie (Devine & Schubotz, 2010, p. 17), eta, ondorioz, antzeko mundu ikuskerak eta eskema interpretatiboak auresuposatzen zaizkie. Aldiz, hurrengo belaunaldiak haien esperientzien berri jaso eta identifikazio propio bat eraikitzen duenean esaten dugu “transmisioa” gertatu dela, hau da: sistema sozial horren ezagutza, balio eta arauak bereganatu dituztenean (aurreko belaunaldien esperientziak eurenak balira bezala sentitzeraino) bihurtzen dira komunitateko kide.

Ondorioz, *bigarren eskuko* memoriak (Lowenthal, 1998, p. 287), hau da, norberak esperimentatu ez dituen gertakariak, baizik eta besteen ahotik jaso ondoren bere egin dituenak, berez dira interdiskurtsiboak edo “ahots antzekoak” (Wertsch, 2002, p. 16), mediatuak izateaz gain. “Hautzarotik gogoratzen duguna historia orokorrezko zein familiarrezko itsaso batean murgilduta dago, eta horrela mantentzen du bere inpresioa”, dio Lowenthalek (1998, pp. 286–288): “Gutxitan bereiz ditzakegu oroitzapen primarioak sekundarioetatik, hau da, gauzak oroitzea haien oroitzapena gogoratzeagatik”.

Idea hau Bakhtinen *heteroglosia* kontzeptuarekin lotu liteke, zeinak defendatzen baituen diskurtso oro dela dialogikoa, lehendik ahoskatutako beste diskurtso baten apropiazio eta eraldaketa prozesu baten emaitza denez gero. Interdiskurtsibitate honetan datza, beraz, diskurtso ororen memoria:

“Jabetze-une hori baino lehen, hitza ez da existitzen hizkuntza neutro eta inpersonal batean (azken batean, hizlariak ez baititu bere hitzak hiztegitik hartzen!); horren ordez, beste pertsonen ahotan existitzen da, beste pertsonen testuinguruetan, beste pertsona batzuen interesen men eginez: handik hartu

behar du batek hitza, eta norberarena bihurtu.” (Bakhtin in Holquist, 1982, pp. 293–294)

Bakhtinen arabera, diskurtso oro dago, funtsean, hartzaile bati orientatuta: harengan erantzun bat sorrarazi nahian egokitzen du hizlariak bere edukia. Ondorioz, belaunaldi arteko transmisioa ezin da norabide bakarreko ekintza komunikatibo gisara ulertu, zeinetan diskurtsoaren sortzaileak (transmititzen duen belaunaldi helduak) edukia osatzen baituen eta belaunaldi hartzaileak pasiboki jasotzen baituen. Horren ordeztu, zehatzagoa da belaunaldi arteko transmisioa testuinguru zehatz batean egiten den iraganaren berreraikuntza interaktibo gisara ulertzea; hau da, bi aldean ahalegina inplikatzeko duen dinamika puntual bat. Nori ari zaion jakiteak esperientzia partekatzen ari denaren diskurtsoa moldatzen du, solaskidearengan espero duen erantzunaren arabera hautatuko dituelako transmititzera doan edukiak, ikuspuntuak eta baliabide narratiboak. Bestetik, hartzailearen inplikazioaren arabera, gogoratze-unean bertan diskurtso berriak ere probokatu ahaliko ditu hark. Eta, azkenik, hartzaileak egiten duen deskodetze, interpretazio- eta adopzio-lanaren arabera gauzatuko da transmisioa, hau da, esanahiaren eraikuntza.

Norberaren memoria besteenen gainean pausatzeko, ez da aski haien lekukotzak entzutearekin: aldeztu aurretik eraikitako marko interpretatibo eta ebaluatiboek indar aski izan behar dute, “oinarri komun” (Halbwachs, 2004a, p. 34) bat eraiki ahal izateko. Kohesio handiko taldeetan, esperientzia eta erreferente kolektiboak periodikoki eta jarraikortasunez gogora ekartzen direnetan, handiagoa izan ohi da elkarren oroitzapenekiko atxikimendua.

Halbwachsen arabera, familiak rol zentrala dauka marko soziokulturalen ezarpenean, bertan formatzen direlako haurtzaroan munduari buruzko lehenbiziko kontzeptualizazio eta balio sistemak. Taldeko memoria mota honek baditu bere ezaugarri, arau eta konbentzio bereziak, inolaz ere naturala ez den, baizik eta ikasia den afektibitate eta leialtasun bat eraikitzen dutenak, sarritan aurreko belaunaldiekiko “heroizazio kumulatibo” bati bide ematen diona (Welzer, 2005, p. 11), hau da, norbere senideak historia gatazkatsuei buruzko berrarratibizazioetan posizio ahalik eta onuragarrienen kokatzea, esate baterako, “betidanik gaur egungo estandar eta ebaluazio normatiboekin bat datorren integritate moralak izan duten pertsona bihurtuz” (Welzer, 2008, pp. 297–298).

Familia bakoitzak du bere *altxortegi memoristikoa*, bere barruko kideekin soilik gogora ekar ditzakeen oroitzapen eta ezagutzek osatua. Memoria kolektibo guztien antzera, familiaren barruko narratibek ere funtzio normatiboa eta auto-definitzailea betetzen dute: “Eredu, adibide eta irakaspen dira aldi berean. Haietan adierazten da taldearen jarrera orokorra: ez dute soilik haren historia erreproduzitzen, baizik eta haren natura definitzen dute, haren kalitateak eta haren ahuleziak” (Halbwachs, 2004b, p. 181). Sinesmen- eta balio-sistema hori izan ohi da pertsonaren sozializazioarako lehenbiziko bidea.

Nolanahi ere, indibidualizazio markatu batek ere bereizten du familiaren memoria: ez dago norbanako bat “ordezkaezinagotzat” (Ibid., pp. 194-195) jotzen den ingurunerik. Familiaren memoria bera aldakorra da, hura osatzen duten norbanakoak hainbat talde sozialen parte direnez gero eta euren ikuspuntuak ere memoria orokorrari eragiten dionez gero. Bestalde, familien barruko memoria bi eratara dago lotuta *kanpoko* memoria sozial

zabalagora: hartan present dauden diskurtsoak filtratu daitezke taldearen memoria pribatura; eta, alderantziz, familian ikasitako arauak eta hari lotutako alderdi afektiboak diskurtso publikoen eta interpretazio pribatuen arteko galbahe edo “intersekzio mnemoniko” (Erl, 2011, p. 308) gisara funtziona dezakete, taldearen markoak norbanakoak (beste talde sozialetako kide ere badiren neurrian) gertakariez egiten dituzten irakurketak baldintza ditzaketenez gero: “Memoria global, kosmopolitaren dinamika partikularizatzaile eta unibertsalizatzaileak jokatzen diren zelaia da familia” (Ibid., p. 315).

Familien barruko sistema kontzeptual eta sinbolikak (istorio berberak behin eta berriz kontatuz iraunarazten direnak) duten osagai emozional eta identitario sendoa dela eta, aldatzeko oso zailak diren *frame*-ak eraikitzen dira komunitateon barruan. Horrek azalduko luke zergatik sarritan familia barneko irakurketek erresistentzia gisara funtzionatzen duten *kanpotik* ezarritako eta “ilustrazio” (Wodak, 2006, p. 185) bokaziozko ulermen-prozesuen aurrean.

Familia bateko belaunaldi berrien esperientzia sozialak derrigorrez direnez aurrekoenekiko bestelakoak (euren testuinguru soziokultural eta politikoa desberdina delako), logikoena litzateke belaunaldi bakoitzarekin taldeko memoria ere aldatzea. Nolanahi ere, kasu batzuetan, posible da besteen esperientziek, bereziki traumatikoak izan direnean, norberarenak estaltzea. Marianne Hirschek *postmemoria* deitu dio *ondorengo* belaunaldiek euren aurrekoen esperientzia traumatiko kolektiboekiko eraikitzen duten memoriazko egiturari. Bere gurasoek Bigarren Mundu Gerran bizitako jazarpena bere haurtzaroko oroitzapen asko baino xeheago oroitzeko gai dela ohartzean sortzen zaio kezka Hirschi:

“Postmemoriak iraganarekin duen harremana (...) ez dago oroitzearen bidez mediatuta, baizik eta inbertsio imaginatiboaren eta sormenaren bidez. Oinordetzan jasotako memoria ikaragarriekin hazteak eta norberaren jaiotza edo kontzientzia baino lehenagotik datozen narratibek dominatuta bizitzeak norberaren bizi-istorioak alboratzeko arriskua dakarte. (...) Nolanahi zeharka ere, gertakarien pasarte traumatikoek norberari forma ematen diote.” (Hirsch, 2012, p. 5).

Postmemoria *bigarren eskuko* gainerako oroitzapenetatik bereizten duena, hain zuzen ere, elementu traumatikoaren prominentzia da. Aurreko belaunaldiengandik jasotako oroitzapenak haien kontakizunen bidez mediatuta daude, baina euren “indar afektiboa” gai da zuzenean bizitako traumaren antzeko “efektu psikikoak” (Ibid., p. 30) eragiteko hura esperimentatu ez dutenengan ere. *Post* aurrizkiak ez dio hainbeste erreferentzia egiten denborazko eten bati, baizik eta sufrimendu larrien biktima izan diren taldeetako hurrengo belaunaldiek sentitzen duten “jarraikortasunaren eta hausturaren arteko oszilazio deserosoari” (Ibid., p. 6).

Ikuspegi honekiko hainbat kritika argitaratu dira azken urteotan, besteak beste, seme-alaben memoria, egiaz, euren gurasoekiko harremanean sentitzen duten “deskonexioaren” (Van Alphen, 2006, p. 487) terminoetan interpretatu behar dela dioten autoreen partetik. Ikuspegi honen arabera, memoria definitzen duen indexikalitatea aintzat hartu gabe geratzen da postmemoriaren kontzeptuaren definizioan.

3.5. MEMORIA ETA LENGOAIA: DISKURTSO IKASKETEN ETA MEMORIA IKASKETEN ARTEKO GURUTZAKETA

Iragana gogoratzeaz ari garenean, hura erreproduzitzeko modu bati buruz ari gara ezinbestean; ariketa horrek etengabe garamatza esparru diskurtsibora, lengoaia, modu zabalean ulertuta, ezinbestekoa zaigulako pentsamendua antolatzeke eta partekatzeke orduan. Edo, Halbwachsen hitzetan, lengoaia da “pentsamenduaren funtzio kolektiboena” (2004b, p. 89). Oroitze ekintza orok behar du unerren batean lengoaia-sistema bat: ezagutzak interpretatzeko, haiek kodifikatzeko edota besteei ulergarri zaien moduan transmititzeko.

Memoria ikasketen esparruak berak ere ematen dizkigu hizkuntzalaritzaren eta oroitzearen arteko harremanari buruzko pista batzuk. Arlo horretako aldizkari espezializatu erreferentzial gutxienetako batek 2016an egindako ikerketa baten arabera, memoria-ikasketetan diharduten adituen artean ez dago jatorri akademiko zehatzik; aldiz, diziplina oso anitzetatik landu izan dira memoriako ikerketak (Dutceac Segesten & Wüstenberg, 2016, p. 10). Erabilitako metodologietan, ordea, batasun handiagoa dago: gehienek jotzen dute diskurtsoaren analisisira edo analisi narratibora. Horren ostean, artxiboen ikerketa, elkarrizketak eta komunikabideen analisisa dira gehien erabiltzen diren metodoak.

Hortik bi ondorio atera ditzakegu:

- a) Memoria hertsiki lotuta dago gizakion gaitasun komunikatiboarekin, eta, horren barruan, hizkuntzarrejub. Memoria ahoskatuz edo irudikatuz eraikitzen da; finean, kulturalki partekatutako kode baten bidez komunikatuz.
- b) Komunikabideek eta memoriaren bitartekoek ere memoriaren eraikuntzan (batez ere kolektiboan) eragin handia dutela uste dute esparruan dihardutenek.

Oral History edo ahozko historiak “pertsonek arruntak” (Shopes, 2002) bizipenen ahozko narrazioak erabiltzen ditu iturri historiografiko gisara. Gidatutako eta grabatutako elkarrizketetan bildutako datuen bidez ohiko iturriez besteko perspektibak bilatzen dira, besteak beste, garaiko pentsaeren bilakaera aztertzeke aukera ematen dutenak. Ahozko Historiak, hortaz, “denboraren historiaz gain, memoriaren historia” (Erll, 2017, p. 46) ere ikertzen du. Halaber, prozesu horretan memoriaren eta narratibaren arteko harreman dialektikoa dago: “(...) iragana interakzio sozialean nola partekatzen den, eragina izango du norbanakoak iragana ulertzeke eta gogoratzeke duen moduan” (Fivush, 2010, p. 89). Hortaz, memoriaren transmisio-ariketa orok, neurri handiagoan edo txikiagoan, oroitzapen partekatua modulatu du; eta iraganari buruzko elkarrizketak ere, sarritan, elkarrizketaren testuinguruaren arabera aldatzen dira. Gogoratzea, funtsean, diskurtso bat eraikitzea da, berreraikuntza prozesu bat: ez iraganetik edo garunaren toki batetik objektu bat (oroitzapena) “ekartzea”, baizik eta hura berriz sortzea, baliabide linguistikoaren bidez. Berreraikuntza hori gure egungo posizioak eta testuinguruak baldintzatzen dute; horregatik da aldakorra memoria.

Prozesu kognitiboen eta testuinguru sozialen arteko harremana eta hizkuntzak bitartekari gisara betetzen duen funtzioa ulertzeke, beharrezkoa zaigu hiru alderdiak aintzat hartzen dituen diziplinarteko marko interpretatibo-teoriko bat. Esanahiak testuinguruan

eraikitzeko prozesu hori ulertzeko tresnak Diskurtsoaren Analisiak eskaintzen dizkigu, eta, zehazki, haren korrante kritikoak.

3.5.1. Lengoaiaren dimentsio soziala

Hizkuntzalaritza tradizionalak testuingurutik ateratako zeinu-sistema gisara aztertu ohi zuen lengoaia, haren zentzu komunikatiboan eragiten duten faktore anitz azterketatik at utzita. 1980ko hamarkadako biraketa konstruktibistarekin, ordea, testuinguru sozial eta kulturalari eta subjektuaren rolari garrantzia ematen zioten ikerketa-perspektiba etnografikoago eta pragmatikoagoak hasi ziren nagusitzen. Perspektiba horiek teoriara moldatutako analisiak egitea egozten zioten ikerketa gramatikal eta sintaktiko hertsari, eta, aitzitik, prozesu kognitiboak, eta, ondorioz, produkzio linguistikoa, neurri handi batean testuinguruak baldintzatzen dituela argudiatu zuten: “Ikastea ez da, enpirizistek aldarrikatu ohi dutenez, esperientzia berria pilatze hutsa. Hauteman eta buruan gordetzen duguna hautemateko eta asimilatze gure alde zuzeneko jarrera kulturalki baldintzatuaren funtzio bat da” (Gumperz, 1982, p. 13).

Gaur egun ezagutzen dugun Diskurtsoaren Analisiak korrante berri hauetako zenbaitetatik edaten du, besteak beste, Komunikazioaren Etnografiatik eta Hizkuntzalaritza Kognitibotik. Bi diziplina hauen helburua ez da hizkuntza zeinu-sistema beregain gisara behatzea, hark testuinguru sozial zehatzetan hartzen dituen funtzio eta esanahiak interpretatzea baizik. Subjektu zehatzetan oinarritutako ikerketak dira, eta *speech community* kontzeptuak (*komunitate diskurtsiboak*) hartzen du protagonismoa, hau da, “arau eta xede komuneko kohezionatutako aniztasun antolatuzko sistema bat” (Ibid., p. 24). Arau komunikatibo horien identifikazioa da diziplinaren analisi-fokuetako bat.

Komunitate diskurtsiboarekin batera, Diskurtsoaren Analisiak ere gerora erabiliko zituen hainbat kontzeptu ekarri zituen Komunikazioaren Etnografiak, besteak beste, *speech act* edo ekintza diskurtsiboaren ideia. Ulerkera honek ekintza sozial gisara interpretatzen du hizkuntzaren erabilera, funtzio bat betetzen duena testuinguru sozial zehatz batean (Austin, 1962, p. 99). Egoera komunikatiboak subjektu aktibo baten parte hartzea eskatzen du; intenzionatua da eta arau eta konbentzioek baldintzatzen dute.

Igorle-Kanal-Hartzaile eskema klasikotik harago doazen analisirako kategoriak definitu zituen Hymesek, S.P.E.A.K.I.N.G. akronimoan laburtuta (Hymes, 1974, pp. 54–62): egoera komunikatiboa, parte hartzaileak, helburuak, ekintza sekuentziak, kodeak, baliabideak, arauak eta generoak osatzen dituzte kategoria horiek. Ikuspegi honek aintzat hartzen ditu, besteak beste, komunitate batek eskura daukan “errepertorio linguistikoa” (Gumperz, 1982, p. 154) eta elkarrizketan eragiten duten konbentzio sozialak. Ekintza diskurtsibo bakoitza miniaturazko sistema sozial gisara ikusten du Komunikazioaren Etnografiak; nolana ere, Gumperzen arabera, ez die erantzuten esanahien eraikuntzarako funtsezkoak diren galdera batzuei, besteak beste, talde sozialen mugei, kideen identifikazio-prozesuei eta ezagutza sozialak informazioaren interpretazioan izan dezakeen eraginari dagozkionei (Ibid., p. 155).

Hizkuntzalaritza kognitibistak heltzen die galdera horietako zenbaiti. Hark lengoaia “munduaren ezagutzaren gordailu” (Geeraerts & Cuyckens, 2010, p. 5) gisara ulertzen du: hizkuntzak esperientzia berriei buruzko informazioa bizipen zaharragoekin modu antolatuan bateratzeko kategoriak eskaintzen dizkigu. “Hizkuntzalaritza Kognitiboak

hizkuntza bere funtzio kognitiboan aztertzen du[,] aintzat hartuz munduarekin dugun interakzioa garuneko egitura informazionalek mediatzen dutela”. (Ibid.)

Ikuspegi honen foku nagusia semantikan dago, haren arabera hizkuntzaren funtzio nagusia esanahien eraikuntza eta kategorizazioa baita. Pragmatikoa da, interakzio sozialetatik bereizitako sistema linguistiko objektibo baten existentzia ukatzen duenez gero (Chomskyren gramatika generatibotik nabarmen urrunduta): hizkuntzak norbanako eta kultura zehatzen “behar, interes eta esperientziak” (Ibid.) islatzen dituela argudiatzen du, eta, beraz, testuen interpretazioak hainbat mailatako analisisa eskatzen duela.

Diskurtsoaren Analisisak *script* (gidoi), eskema edota *frame* (marko) kontzeptuak (Gumperz, 1982, p. 154) ekarri zituen gerora hizkuntzalaritza pragmatikora, ekintza komunikatiboko parte hartzaileek informazioa euren testuinguru eta eragin kulturalen mugen barruan interpretatzeko jarraitzen dituzten prozedurak azaltzeko; marko horiek, memoria ikasketetako *marko sozialen* antzera, informazio berria lehendik eraikitako patroik interpretatiboetan kokatzea ahalbidetuko lukete. Ikuspegi honetan, *diskurtsoa* ez da ulertzen lotura linguistiko edo gramatikal hutsa duen unitate gisara, lotura interpretatiboa duen prozedura psiko-sozial gisara baizik.

Adierazpena (*utterance*) da diskurtsoaren analisi-unitate txikiena, hau da, esanahia eraikitzea ahalbidetzen duen lehenbiziko maila linguistikoa. Adierazpena bereizi egiten da lengoaiatik Saussuraren *parole* eta *langue* bereizketa tradizionalaren era antzekoan: lehena subjektu zehatzek egiten duten erabilera linguistiko kokatua da, egoeratik egoerara aldatzen dena; bigarrena, haren oinarrian dagoen zeinu-sistema egonkorragoa (Bakhtin, 1979, p. 270). Nolanahi ere, Diskurtsoaren Analisisak ezinbesteko hirugarren zutabe bat eransten dio ekintza komunikatiboaren azterketari: testuinguru soziokulturala.

Hizkuntzaren erabilera zehatzak hainbat konstruktua sozial eta prozedura kognitibo barne biltzen ditu, eta bi alderdion arteko elkarrenergina da Diskurtsoaren Analisisaren interesgune nagusietako bat. Esanahien eraikuntza ezagutza linguistiko zein extralinguistikoen arteko konbinazio gisara ikusten da, zeinetan parte hartzaileen uneko testuinguruak eta haien posizio sozialak rol zentrala betetzen duten.

Hizkuntzaren dimentsio sozial hori da Diskurtsoaren Analisisaren fokuetako bat. Ikuspegi honen arabera, bi norabideko eragin “aktiboa” dago (Lemke, 1995, p. 20) diskurtsoaren eta gizartearen artean: testuinguru soziala ezinbestean aintzat hartu beharreko faktorea da esanahien eraikuntzan, baina, aldi berean, eraikitzen ditugun diskurtsoek eragina dute testuinguruan, inplikaturik dauden parte hartzaileen interpretazio-eskemetan eta euren arteko harremanetan. “Testua ekoizterakoan, aktoreek testu hori ahalbidetzen duten baldintzak erreproduzitzen dituzte” (Weiss & Wodak, 2003, p. 10), hau da, indarrean dauden konbentzio sozialak iraunarazteko joera izan ohi dute, baina haiek birnegoziatzeko baliabidea ere badira.

“Diskurtsoa sozialki eraikitzailea da eta sozialki baldintzatua: egoerak, ezagutza-objektuak eta pertsonen eta pertsona-taldeen arteko harreman eta identitate sozialak eraikitzen ditu. Eraikitzailea da bi zentzutan: statu quo sozialari eusten eta hura erreproduzitzen laguntzen duelako, eta aldi berean hura eraldatzen laguntzen duelako. Diskurtsoak hainbeste ondorio sozial dituzenez, botereari lotutako auzi garrantzitsuak eragiten ditu. Praktika diskurtsiboek efektu ideologiko nabarmenak izan ditzakete, hau da, botere

harreman desorekatuak ekoizten eta erreproduzitzen lagun dezakete (...) gauzak errepresentatzen eta jendea posizionatzen duten moduen bidez.” (Wodak & Fairclough, 1997, p. 258)

Diskurtsoaren Analisiaren korrante kritikoak (CDA), hain zuzen ere, hizkuntzaren erabileraren eta gizarteko botere harremanen arteko lotura hori du aztergai. Esanahia testuinguru kultural eta sozial zehatzetan kokatutako pertsonak eraikitzen dutela aintzat hartuz, kontuan hartu beharra dago subjektu horiek posizio bat daukatela sistema zabalago baten barruan, eta ideologia, mundu ikuskera, intentzio eta helburu zehatzen arabera jokatzeko dutela:

“Taldea soziokulturaletako kide gisara, egitura sozialak osatzen dituzten elkartasunezko, dominaziozko eta erresistentziazko botere-harremanek osatutako sare konplexuaren parte dira hizkuntzen erabiltzaileak, beti parekotasunaren eta desorekaren, identitatearen eta desberdintasunaren arteko tentsioan. Pertsonen identitate sozialak –konplexuak, askotarikoak eta baita kontraesankorak ere– erabilera diskurtsiboen bidez eraikitzen, mantentzen eta aldatzen dira. Izan ere, haietan aktibatzen eta materializatzen dira egoera bakoitzerako hautatzen diren aurpegiak”. (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 2)

Sortzen ditugun diskurtsoak gure posizio sozialaren adierazle dira (Lemke, 1995, p. 20), eta, aldi berean, testuinguru gisara duten gizarteko zuzentasun-arau dominatzaileen isla dira. Horregatik, egoera bakoitzaren arau diskurtsiboak ezagutzea edo ez ezagutzea, hau da, arau horietan sozializatua izatea erabakigarri izan daiteke komunikazio-ekintzaren arrakastan eta hizlarien artean eraikitzen diren harremanetan. Ezagutza horiek ahalbidetzen dituzte egoera bakoitzean errebantziazkoak diren esanahien inferentziak, hau da, “testuinguru zehatzean kokatutako prozesu interpretatiboa[k], zeinaren bidez parte hartzaileek besteen intentzioak ebaluatzen dituzten, euren erantzunak haietan oinarritzeko” (Gumperz, 1982, p. 153).

“Konpetentzia komunikatibo” horrek (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 31) egoera komunikatiboari, bertan inplikaturik dauden parte hartzaileei eta euren arteko harremanei buruzko ikasketa sorta bat eskatzen du ezinbestean (nola eta noiz interferitu ekintza komunikatiboan, zeintzuk diren onartutako portaerak, nola modalizatu norberaren adierazpenak, eta abar), eta gizartean modu desorekatuan banatuta dagoen ondasun modura interpreta daiteke: ikuskera horren arabera, gizarteko diskurtso eta arau komunikatibo nagusiak ezartzeko gaitasuna botere posizio batekin lotuta legoke, baina baita egoera bakoitzean egoki hitz egiten jakitea ere.

Kapital kulturalaren eta sozialaren antzera, hizkuntz baliabideekiko sarbidea eta norbere diskurtsoak entzunarazteko gaitasuna ere botere edo kapitaltzat jotzen du Bourdieuk, hau da, “pertsonaren zati integral, *habitus*, bihurtutako kanpo-ondasun bat” (Bourdieu, 1986, p. 283). Garai eta gizarte bakoitzean finkatutako diskurtso hegemonikoek ezartzen dituzte testuinguru horretan “esan daitekeenaren” (*das Sagbare*) mugak (Jäger, 2004, p. 378), sarritan gizarteko gainerako sektoreek ere onartzen eta naturalizatzen dituzten arauak (Lemke, 1995, p. 34). Horregatik, Foucaultek talde sozial boteregabetuei inposatzen zaien indarkeria baten moduan ulertzen ditu diskurtso hegemonikoak: “esklusio-sistema” bat dira, “historikoa, moldagarria, instituzionalki koaktiboa” (Foucault, 2005, p. 19).

Gizarteko diskriminazioa diskurtsoen bidez ere eraikitzen da (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 12), diskurtso hegemonikoek botereko posizioak legitimatzen eta erreproduzitzen dituztenez gero. Kontrara, nagusi eta orokortzat jotako diskurtsoen atzean dauden interes eta faktore ideologikoak identifikatzea eta zalantzan jartzea izan ohi da erresistentziatzko diskurtso baten eraikuntzaren lehen urratsa:

“Diskurtso zehatz batek ideologikoki nola funtzionatzen duen galdetu nahi badugu, (...) diskurtso hori hainbat komunitateren arteko harreman sozial eta politikoetan eta euren arteko interesetan nola kokatzen den behatu behar dugu. Eta, zehazki, galdetu behar dugu zer esaten digun nolabait talde sozial dominatzailearen mesederako diharduen subjektuaz”. (Lemke, 1995, p. 12)

Subjektuek eskura dituzten baliabide eta egoera komunikatiboen bilduma horrek osatzen du gizarte baten ekonomia linguistikoa; sistema zabalago batean kokatu dagoenez, sistema horren aldaketek ere eragiten diote (Gumperz, 1982, pp. 43–44). Aldaketa sozial nabarmenak gertatzen direnean, komunikazio moduak ere aldatzen dira, usu subjektu eta taldeen arteko harremanak eta haiek arautzen dituzten konbentzioak ere eraldatu direlako.

Diskurtsoaren Analisi Kritikoarentzat, boterea kontrol diskurtsiboarekin parekatzen da, hainbat zentzutuan: alde batetik, egoera diskurtsiboaren bilakaera bera kontrolatuz; eta, bestetik, diskurtsoaren bidez norbanakoen pertzepzioak eta pentsamenduak baldintzatuz, hau da, euren ezagutzak, iritziak eta ideologiak. Honela definitzen du Van Dijkek (2008) hizkuntzaren eta boterearen arteko lotura:

“Oro har, garunaren kontrola zeharkakoa da, diskurtsoaren ondorio bilatu baina soilik posible edo probable bat. Diskurtsoa kontrolatzen duten horiek, zeharka, jendearen garunak kontrolatzeko aukera dute. Eta jendearen ekintzak euren garunaren bidez kontrolatzen direnez (ezagutza, jarrerak, ideologiak, arauak, balioak), garunaren kontrolak ekintzen zeharkako kontrola esan nahi du”. (Van Dijk, 2008, p. 9)

3.5.2. Diskurtsoaren Analisi Kritikoak: oinarritzko kontzeptu teoriko-metodologikoak

Diskurtsoaren Analisi Kritikoak (aurrerantzean, CDA, bere ingelesezko sigletan) modu irekian planteatzen du edozein ekintza komunikatibok daukala osagai subjektibo eta interpretatibo bat, eta ezein analisitan ezin dela errealitate sozial, historiko eta kultural zabalagoa begiradatik galdu; horretan datza haren izaera kritikoa. Horregatik, metodo zientifiko gisara kuestionatua izan da sarritan, haren jarrera ideologikoegia eta aski zientifikoa ez izatea egotzita. Kontrara, CDAREN garatzaileek ohartarazten dute ikerketa akademikoak bere buruari aitortu izan dizkion egiazkotasuna eta objektibotasuna ere eraikuntza sozialak direla (Weiss & Wodak, 2003, p. 3), eta beraz, edozein lan teorikok ere posizionamendu, hautaketa eta perspektibaziozko ekintza bat eskatzen duela ingurune kultural zehatzetan kokatutako subjektuen partetik. Hau da, *Lebenswelt* edo mundu ikuskera zehatz baten barruan txertatzen dela egiaren bilaketa oro:

“Eguneroko bizitzaren zentzu onezko ezagutza bilaketa ororen hasieran dagoen oinarri kuestionatugabe baina beti kuestionagarria da, eta soilik hartan oinarrituta gauzatzen da bilaketa. (...) Munduaren edozein ezagutzak, zentzu onezko pentsamenduan zein zientzian, bere pentsamendu-antolaketako mailari dagozkion konstruktua mentalak, orokortzeak, formalizazioak, idealizazioak inplikatzeko ditu”. (Schütz, 1962, p. 57)

Teoria bakar bat bainoago, diziplina eta maila anitzetako analisirako tresna teoriko-metodologikoak biltzen dituen ikuspegia da CDA. Gaur-gaurkoz, ez dago gizartearen, hizkuntzaren erabileraren eta prozesu kognitiboen arteko harreman konplexuak azaltzen dituen teoria oso bat; horren ordean, teoria soziologikoak eta linguistikoak bateratzen dituen marko interpretatibo bat eskaintzen du CDAk (Wodak, 2006, p. 181).

Zehazki, hiru analisi-maila bereizi ohi dira. Alde batetik, gizartearen antolaketari eta jokabide sozialei buruzko galderak planteatzen dituzten teoria soziologiko, antropologiko eta kulturalak (*makro* teoriak). Gure kasuan, esaterako, Halbwachsen Memoria Kolektiboaren teoria edota Galtungen Gatazken teoria zaizkigu erabilgarri. Bestetik, hizkuntzaren erabilera zehatza aztertzeko tresnak eskaintzen dituzten *mikro* teoriak behar dira; esate baterako, Bakhtinen Dialogizitatearen kontzeptua edo Griceren Kooperaziozko Printzipioa. Eta azkenik, bi mutur horien arteko zubiak ezartzeko lagungarri diren *meso* edo erdi mailako teoriak, oro har, gizartearen eta hizkuntzaren arteko interfaze lana egiten duten prozesu kognitiboetan jartzen dute arreta, hau da, nola modulatu ditugun gure jokabide eta ekintzak gure harreman sozialen arabera. Maila honetan kokatzen dira Diskurtso Ikasketen ekarpen interesgarrienak, esate baterako, Posizionamenduaren Teoria (Davies & Harré, 1990), Kategorizazio Sozialaren teoria (Silverman, 1998), Metafora Kontzeptualen teoria (Lakoff & Johnson, 1980), Van Dijken teoria soziokognitiboa (1997; 2003) edota Hallidayren Erregistroen kontzeptua, *erregistroa* hizkuntzak eskaintzen dituen patroi funtzionalen multzo gisara ulertuta (Halliday & Matthiessen, 2004, p. 27).

Meso mailako teoria hauek guztiek adierazpen linguistikoaren eta sistema sozialaren arteko analisi-kategoriak ezartzen dituzte (Lemke, 1995, p. 27) eta pertsonen jokabide indibiduala gidatzen duten egitura edo patroi kulturalak identifikatzea dute helburu, hau da, “diskurtsoaren ordena, hibridotasun semiotikoaren (interdiskurtsibitatearen) egituraketa soziala” (Weiss & Wodak, 2003, p. 6). Hallidayk, zehazki (2004, p. 309), baliabide diskurtsiboak hiru mailatan sailkatzen ditu: maila ideazionala (*zeri* buruz ari garen), maila interpersonalak (komunikazio ekintzan inplikaturik dauden beste subjektuekiko eta eduki ideazionalarekiko dugun harremana), eta baliabide testualak (esanahiak osatzeko eta haien arteko loturak egiteko erabiltzen ditugunak).

Perspektiba horietatik abiatuta, hainbat analisi-eredu sortu dira azken hamarkadotan, besteak beste, Erlan eredu semiotiko-kulturala (Erl, 2017), Pfliegeren espazio komunikatibo erlazional eta identitarioa (ECRI) (Pfleger, 2021a) eta Wodaken ikuspegi diskurtsibo-historikoa (Van Leeuwen & Wodak, 1999; Wodak, 2015).

Diziplinartekotasun eta aniztasun teoriko hori gorabehera, hainbat ezaugarri nagusi partekatzen dituzte diskurtso ikasketek. Van Dijkek honela definitzen ditu: “Hainbat testu- eta hizketa-mailaren egitura eta estrategia anitzen azterketa sistematiko eta esplizitua” (Van Dijk in Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 3). Zehatzago, Wodak eta Krzyzanowskik (2008, pp. 3-4) honako ezaugarriak lotzen dizkiete diskurtso ikasketei:

- Hizkuntzaren erabilera erreal eta “naturalen” nolakotasunarekiko interesa: arazo sozialetara orientatutako ikerketa da, datu enpirikoetatik abiatzen dena.
- Hitz eta esaldi isolatuek haragoko unitate zabalagoetan fokua jartzea (testuak, ahozko komunikazio publikoak, elkarrizketak, gertaera komunikatibo zabalagoak, etab.).

- Ahozkoak ez diren komunikazio- eta interakzio-moduak ere aintzat hartzea, besteak beste, semiotika zentzu zabalean, komunikazio multimodala eta ikusizkoa.
- Aldaketa sozio-kognitiboekiko, estrategia komunikatiboekiko eta hizkuntzaren erabilera funtzionalekiko interesa.
- Komunikazio ekintza barne biltzen duten maila anitzen analisia: analisirako unitate bakoitza osotasun semiotiko gisara hartzen da, eta haren inguruan kokatzen diren harreman intertestual eta interdiskurtsiboak aztertzen dira, nola testuaren barruan hala testutik kanpoko errealitate sozial zabalagoan.

Halaber, *diskurtso* kontzeptuaren polisemiak eragin ditzakeen nahasmenduak saihesteko, komeni da Diskurtso Ikasketen oinarrizko kontzeptu batzuk bereiztea, zehazki, *diskurtsoa*, *testua* eta *adierazpena*.

- a) **Diskurtsoa** esanahi bidezko batasuna duen ekintza linguistiko eta sozial gisara ulertzen da. Ahozkoa, ikusizkoa edo bestelako baliabide sinbolikoen bidez eraikia izan daiteke, betiere arau eta konbentzio sozial batzuei jarraika.
- b) **Testua** diskurtsoa ezaugarritzen duen esanahia sortzen den bakoitzean materializatzen da: “Begirada gertaera edo egoera baten zehaztasunetan finkatu nahi badugu, testuaz mintzo gara; testu eta egoera ezberdinak bateratzen dituzten patroik, antzekotasun eta harremanei begiratu nahi badiegu, diskurtsoez mintza gaitzke” (Lemke, 1995, p. 6). Testua “unitate komunikatibo, intenzional eta osoa” da (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 3).
- c) **Adierazpena** (*utterance*) esanahia duen gutxieneko elementua da. *Adierazpenak* elkartzen dira *testuak* sortzeko, zeinak, aldi berean, *diskurtso* zabalagoen interpretazioa ahalbidetzen duten testuinguruko informazioarekin osatuta.

Adierazpenek ez dute zertan esaldi edo egitura gramatikal osoen forma hartu behar; ondorioz, testuen arteko loturak ez dira gramatikalak, interpretatiboak (kognitiboak) baizik. Diskurtsoaren egituraketak talde sozialean indarrean dauden arau zehatz batzuei erantzuten die, eta haren esanahia eraikuntza-prozesu baten ondorio da. Horregatik, diskurtsoaren izaera interaktiboa edo dialogikoa da. Alde batetik, subjektu baten jarrera irudikatzen du; eta, bestetik, hartzaile baterantz orientatua da: eragin bat izatea du helburu, eta, horregatik, ekintza bat ordezkatzeko du.

Horrenbestez, ia edozein adierazpen linguistiko edo sinboliko izan daiteke Diskurtso Analisiaren ikerketa-objektu. Nolanahi ere, tradizioz talde sozialen arteko botere harremanak kristalizatzen dituzten interakzioak nabarmendu ohi dira diziplina honetako ikerketetan. Horietako bat da prentsaren analisia, gizarteko diskurtso nagusi edo “ahots idiosinkratikoak” (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 32) bilatzen dituenak. Aukeraketa lexikoaz harago, testu horien egitura narratiboetan eta gaien antolaketan islatzen diren posizio ideologikoak identifikatu ohi dira (Van Dijk, 1996, p. 19), komunikabideak gizarteko eliteekin nola aliatzen diren edo haiek nola kuestionatzen dituzten aztertzeko (Giró, 2007, p. 200).


Kontrara, Ahozko Historiak “baztertutako ahotsen egiazkotasuna” (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 149) bilatzen du maiz, gertakari historikoen lekuko *arrantak* elkarrizketatuz eta euren kontakizunak grabatuz. Diskurtsoaren Analisisian ohikoa izaten da analisirako datuak banakako zein taldeko elkarrizketetatik hartzea, egoera naturaletan zein ikerketarako propio antolatutakoetan. Izan ere, elkarrizketek diskurtsoaren eraikuntza gidatzen duten egiturei eta parte hartzaileen helburuei, portaerari eta hartzen dituzten posizioei buruzko hainbat datu agertzea ahalbidetzen dute. Dialogizitate hori diskurtsoaren oinarriko elementuetako bat izanik (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 23), ekintza komunikatiboan inplikaturako subjektuei eta euren arteko harremanari buruzko informazio kopuru handia eskura daiteke elkarrizketen azterketatik.

Metodologikoki, eztabaida edo elkarrizketa osoa sozialki antolatutako testu bakar gisara behatu ohi da (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 19). Bi pertsona edo gehiagoren arteko hitzeko interkazioak arau zehatz batzuei erantzuten diela hartzen du aintzat Diskurtsoaren Analisisiak, eta horiek identifikatzen ahalegintzen da, esate baterako, parte hartzaileek, elkarrizketaren garapenean, gaiak txertatzeko eta aldatzeko erabiltzen dituzten negoziazio estrategiak eta prozesu horretan ikusarazten diren botere harremanak. Griceren kooperazio printzipioak (1975) deskribatzen ditu subjektuek komunikazio ekintza arrakastatsu baterako erabiltzen dituzten lau *maximak*: kopuruarena (informazio kopuru doia ematea), kalitatearena (informazioaren edukia egokia izatea), formarena (ematen den informazioa ahalik eta zehatzena izatea) eta pertinentziazkoa (informazioa egoera komunikatiborako erabilgarria izatea). Elkarrizketaren Analisisiak (Silverman, 1998) ohiko ahozko interakzioen antolaketa erreparatzen die; besteak beste, hitza hartzeko eta hura txandakatzeko *arauei*.

Elkarrizketa, funtsean, esanahien eta hizlarien rolen unean uneko negoziazio prozesu gisara behatzen dute diziplinok. Negoziario estrategia horiek hainbat erabaki linguistiko inplizituen bidez gauzatzen dira, besteak beste, diskurtsoaren interpretazioa bideratzen duten zantzu (*cue*) kontestualizatzaileen bidez (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 21) edota hizlarien posizionamendua denotatzen duten markagailuen bidez. Ondorioz, elkarrizketei aplikaturako analisi diskurtsiboan ohikoa izaten da elkarrizketaren edukia osatzen duten gaien antolaketa eta hierarkizazioa, parte hartzaileek taldean eraikitzen dituzten identitateak, topikoen erabilera, egitura narratiboak edota baliabide erretorikoak aztertzea.

Taldeko elkarrizketa “ikuspegi publiko/kolektiboen eta talde txiki edo norbanakoen ikuspegiaren arteko mugan” (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 169) kokatzen da, eta, familiako memoriaren antzera, esfera sozialeko diskurtsoen eta eremu intimoetakoeren arteko elkarreragina aztertzeko egoera komunikatibo egokia da horregatik. Horretarako, taldeko eztabaidan parte hartzen duten norbanakoen banakako diskurtsoak aztertu beharko lirake, eta, paraleloki, taldearen testuinguru sozial eta politiko zabalean present dauden diskurtsoekin alderatu.

“Focus group-aren bidez, esfera publikoak norbanakoak politikari eta gizarteari buruz dituen ikuspegietan nola eragiten duen (eta haiek nola aldatzen dituen) mapeatu daiteke, eta nola, kontrara, maila (indibidual) ‘sozialerako’ ezinbestekoak diren ideiak txertatzen diren, ahal bezainbeste, politikan, komunikabideetan eta esfera publikoaren beste osagaietan.” (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 169)



3. irudia: Diskurtsoaren analisi mailak eta erabilitako teoriak.

Diskurtsoaren Analisiak testuaren eta testuinguruaren arteko harremanarekiko interesa duenez oinarrian, hiru testu (edo testuinguru) maila bereizten ditu, eta maila bakoitzaren analisirako hainbat teoria erabiltzen ditu:

- a) Testu barneko loturak: subjektibitatea eta identitatearen eraikuntza.

Maila mikrotestuarean, pasarte berean topa daitezkeen adierazpenak eta haien arteko harremanak aztertzen dira. Ko-testuaren azterketek sarritan harreman lexikoetan, bereziki karga semantiko handia edo “polarizazio ebaluatiboa” (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 38) dutenetan, eta subjektuen eraikuntza diskurtsiboan jartzen du arreta.

Maila honetan, Benvenisteren Enuntziarioaren Teoria zaigu baliagarri, lengoaiaren eta subjektibitatearen arteko lotura argitzen baitu. Teoria honen arabera, hizkuntzaren erabileraren bidez baizik ez gara subjektu gisara eraikitzen: “*Ego* da *Ego* esaten duena” (Benveniste, 1978, p. 181). Nortasun hori alteritatearekiko dialektikan eraikitzen da beti: “Ez dut *Ni* erabiltzen norbaiti zuzentzean baizik, nire *Zu* alokuzioari” (Ibid.). *Ni/Zu* edo *Norbera/Bestea* kategoria horiek harreman hierarkikoan daude, Benvenisteren arabera: *Ni*-ak traszendentziatzko posizioa dauka bestearekiko, *Barne-Kanpo* eskemarekiko paralelismo batean: haatik, elkarren beharra duten kategoriak dira, eta dualtasun hori da hizkuntzaren oinarria.

Subjektibitatearen eta alteritatearen eraikuntzarako erabiltzen diren baliabide linguistiko nagusien artean daude “diskurtsoaren instantziak” (Ibid., p. 182), hau da, hizlariak diskurtsoa sortzen (eta, ondorioz, bere burua subjektu gisara eraikitzen) duen uneari erreferentzia egiten dioten elementuak; besteak beste, izenordeak eta haien ordezkio perifrasiak, deiktikoak, denborazko adierazpenak eta aditz modal batzuk.

Hauek guztiak semantikoki *hutsak* diren elementuak dira, soilik diskurtsoaren subjektibitatearen bidez zentzua hartzen dutenak: “Lotzen zaizkion errealitatea diskurtsoaren errealitatea da” (Ibid.), eta hizlariaren uneko egoera dute beti erreferentzia puntu: hura lengoaiaz “jabetu” (Ibid., p. 183) egiten da subjektu gisara agertzen denean, hau da, orokorra eta denena den hizkuntza konkretua eta pertsonala den diskurtsoa eraikitzeke erabiltzen duenean. Apropiazio edo *norbereratze* horren emaitza da adierazpena edo enuntziazioa.

Ikuspegi horri lotuta daude, halaber, ekintza komunikatiboan inplikaturik dauden subjektuen identitateen eraikuntza diskurtsiboa argitzeko balio diguten beste bi teoria: Kategorizazio Sozialaren Teoria eta Posizionamenduaren Teoria.

Lehenbizikoaren autore nagusia Harvey Sacks da, elkarrizketaren analitika datorren teorialaria. Hark sistematizatu zituen hizlariaren auto-kategorizaziorako zein egoera komunikatiboan parte hartzen ari diren gainerako aktoreen kategorizaziorako prozedurak. Sacksentzat, eguneroko elkarrizketa etengabeko trantsizioz osatutako joan-etorria da, eta identitateak ere, hau da, aktore bakoitzak elkarrizketaren une bakoitzean hartzen dituen posizioak, aldatzen doaz elkarrizketan zehar. Kategoriatu horiek munduaren ezagutza partekatutik elikatzen dira, eta sarritan kategoriatu-sorta zabalagoetan oinarrituta hautematen edo inferitzen ditugu. Sorta horietako bakoitzari Kideen Kategorizaziorako Dispositibo edo *Membership Categorization Device* (Silverman, 1998, p. 79) deitzen zaio. Hortaz, identitatea, diskurtsoan, ez da *izate* (*being*) bat, *izate egite* (*doing being*) bat baizik (Sacks, 1985, p. 415). Identitatea, egoera komunikatiboan, ez da hizlariaren berezko ezaugarri bat, subjektibitatea diskurtsoan zehar eta haren bidez eraikitzeke “etengabeko lanaren” (Greco & Mondada, 2014, p. 15) efektua baizik. Ideia hau norbanakoen zein nortasun kolektiboen eraikuntzari aplikatu dakiok:

“Identitate soziala ‘ni’-aren eredu mental konplexu baten moduan uler liteke, zeina ‘ni’ horrek bere ingurune soziokulturalean besteekin dituen interakzioetan izandako esperientzien osotasunetik elikatzen baiten. (...) Hizkuntzan instantziazio egitura kognitibo komun eta partekatuen eraikuntza-prozesu baten emaitza da identitate kolektiboa.” (Pfleger, 2021b, p. 330)

De Fina (2006, p. 355) bezalako autoreek zehazten dutenez, baina, akatsa litzateke identitatea testuaren maila lokalenean soilik eraikitzen den konstruktua baten gisara ikertzea: horren ordez, identitatearen unean uneko adierazpenak “ideologia eta uste partekatuekin lotu” behar direla argudiatzen du, hain zuzen ere instantziazio diskurtsibo horietan garatzen eta negoziatzen direlako “identitateari buruzko kategoriatu eta uste partekatuok”.

Posizionamenduaren Teoriak hainbat kontzeptu osagarri eskaintzen dizkio subjektibitatearen eraikuntza diskurtsiboari. Teoria honentzat, hizlariaren “rolaz” hitz egitea kontzeptu estatikoegi bat erabiltzea da (Van Langenhove & Harré, 1999, p. 14); horren ordez, *posizio hartzea* (*positioning*) terminoa proposatzen dute, hizlariak elkarrizketan zehar subjektu-formak hartu, atxiki eta negoziatzearen (Benwell & Stokoe, 2006, p. 43) prozesua deskribatzeko: “Pertsona baten jokabideak ulergarri eta ekintza sozial gisara erlatiboki determinatu bihurtzen dituzten istorio pertsonalen eraikuntza diskurtsiboaren gisan uler liteke posizionamendua, zeintzuen barruan

elkarrizketako solaskideek kokapen zehatz bat dauzkaten” (Van Langenhove & Harré, 1999, p. 16).

Posizionamenduak Psikologia Sozialen du jatorria, eta hastapenetan marketing helburuetarako erabili ohi zen, erabiltzaileek produktu edo zerbitzu jakin batzuekiko zeuzkaten jarrerak eta ideologiak ikertzeko. Psikologia Sozialaren biraketa diskurtsiboarekin, posizionamenduaren ulerkera psikolinguistiko bat nagusitu zen ostera. *Posizioa*, kasu honetan, kontzeptu metaforiko bat da: narratiba edo ekintza diskurtsibo orok hizlariari hainbat *toki* eskaintzen dizkiela hartzen da aintzat, eta haietako bakoitzak bere uneko subjektibitatea osatzen duten ezaugarriak biltzen dituela.

Posizionamenduak, hau da, ekintza komunikatiboaren barruko unean uneko identitatearen eraikuntza diskurtsiboak, bi norabidetan operatzen du (Hart 2015:22): alde batetik, hizlariak bere buruaren kontzeptualizazio bat eraiki dezake, *ni autobiografiko* baten forman edota *ni sozial* baten forman; bestetik, posible da *Besteak* norbera kategorizatzea, *Bestearen* begiradapeko posizionamendu bat eraikiz, esate baterako, talde zehaztutako kide, ideologia zehatzen jabe edota jarduera zehatzen egile gisara erretratatu: “Jendeak egoera zehaztutan elkar ‘ekoizten’ du (eta baita bere burua ere) ‘izaki sozial’ gisara”. (Bamberg, 1997, p. 336).

Teoria honek hizketa-ekintzaren (*speech act*) eta harreman sozialen arteko loturak argitu asmo ditu, alde batetik, rol edo posizio (aldakor) bakoitzaren ezaugarriak konbentzio sozialen bidez eraikiak direlako; eta, bestetik, hizlariak posizionamenduaren bidez eraikitzen dutelako besteen aurrean euren buruaren irudi bat edo beste. Posizio horien etengabeko negoziazio-prozesu semiotiko eta diskurtsiboa da posizionamendua: “[Posizionamenduaren Teoriak] subjektuaren posizionamenduaren (hau da, haren identitatearen) eta botere harreman sozialen arteko lotura estua postulatu du. Horregatik, ikuspegi analitikoak lan identitarioari erreparatu dio elkarrizketaren mikro-mailan zein makro-maila sozio-politikoan” (Benwell & Stokoe, 2006, p. 43).

Egoera komunikatiboan eragiteko gaitasun hori (edo haren falta) *agentibitate* gisara definitu ohi da, hau da, “subjektu batek bere identitatea ‘beste batekin eta harekiko’ eraikitzeke esperimendatu duen kontrol-gradua” (Pfleger, 2021b, p. 331). Agentibitatea nagusiki *ahal izatea* eta *jakitea* denotatzen duten elementu linguistikoetan beha daiteke. Subjektuen eta talde sozialen arteko botere harremanek baldintzatzen dute bakoitzaren agentibitate-maila:

“[Subjektuen] artean bada espazio diskurtsiboa okupatzeko lehia bat, eta hartara elkartruke sinbolikoaren nagusitasun interpretatiboa ezartzekoa. (...) subjektu batek bere burua soilik agentibo gisara hautemango du bere ekintzen borondatezko egile sentitzen bada, eta, ondorioz, bere diskurtsoarena, testuinguru eta interakzio zehatz batzuekiko harremanean” (Ibid., pp. 331-332)

Posizionamendua *stance* (jarrera) kontzeptuarekin ere lotu daiteke, hizlariak hizketagaiaren edukiekiko dituen iritzi, sentimendu, epai edota konpromisoaren adierazpen lexiko eta gramatikalen kasuan (Biber & Finegan, 1989, p. 93). Maila metodologikoan, modalizazioa behatzen da *stance*/jarrera ezagutzeko. Beste era batera esanda, mezuren esanahia eraikitzeke, ez da aski galdetzea *zer* esaten den

(*dictum*), baizik eta, baita ere, *nola* esaten den (*modus*), hau da, hizlariaren subjektibitate lokutiboa esandakoaren eduki proposizionalarekiko (Bally, 1965, p. 36).

Modalitate mota nagusiak honakoak dira:

- I. Espresiozko, afektibitatezko edota apreziaziozko modalitatea: hizlariaren sentimenduak, epaiak edota iritziak islatzen dituzten baliabide linguistiko enfatizatzaile edo afektiboen erabilera (tematizazioa, lexikoa, adjektibazioa, entonazioa, etab.).
- II. Modalitate epistemikoa: hizlariak adierazpenaren edukiarekiko daukan ziurtasun maila denotatzen duten formak, baita probabilitateari dagozkionak ere (“esango nuke”, “segur aski”, “dudarik gabe”, etab.). Modalitate epistemikoan, ebidentziazko markagailuak erabiltzen dira maiz, hizlariaren posizioari eta haren konpromiso mailari eusten dioten elementu linguistikoak: “Hizlari baten ‘ezagutzarako’ aldarrikapenen justifikazioa gorpuzten eta islatzen dute ebidentziales”. (Hoye, 2008, p. 154).
- III. Modalitate deontikoa: obligazioarekin edo permisibitatearekin zerikusia duten adierazpenak (“hala behar luke”, “onartezina da hori”, etab.)

Hiru modalitate hauek graduazio eta konpromiso-eskala batean zehar adieraz daitezke (González et al., 2017, p. 76; Martin & White, 2005, p. 197). Hizlari batek erabateko inplikazioa ager dezake bere iritzi batekiko (“zalantzarik gabe, hala da”, edo, areago: “hala da”), edo distantziamendu bidez murriztu dezake bere ardura (“hala dela esango nuke”). Ardura edo inplikazio hori esplizitua edo inplizitua izan daiteke alde batetik, eta indibiduala edo kolektiboa bestetik: norberaren izenean egiten diren adierazpenek, oro har, kolektibitate baten izenean egiten direnek baino konpromiso-maila handiagoa erakusten dute esandakoarekiko (Marín-Arrese, 2011, p. 793).

b) Harreman intertestualak eta interdiskurtsiboak

Diskurtsuaren analistentzat, ekintza komunikatibo guztiak dira interdiskurtsiboak: “Esanahiak ez dira soilik testu barruan eraikitzen, baizik eta baita ‘testutik testura’ ere” (Lemke, 1995, p. 41). Alde batetik, hizlariak kanpoko ahotsak ekartzen dituzte elkarriketara, aipu, topiko edota ezagutza partekatuarekiko erreferentzia gisara (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 153); eta, bestetik, testuen irakurketa eta interpretazioa ere kanpoko diskurtsuotan oinarrituta egiten da, besteak beste, munduaren ezagutza partekatu eta konbentzionalki eraikitako esanahi-patroien forman (Lemke 1995:41).

Intertestualitatearen ulerkera honek Bakhtinen Dialogizitatearen Teorian du jatorria, lehenago ere aipatu dugun *heteroglosia* kontzeptuarekin lotuta. Haren arabera, talde sozial bakoitzak partekatzen dituen zeinu eta esanahi sistemek “atzealde aperzeptibo” (Bakhtin, 1979, p. 286) bat osatzen dute, zeinaren gainean interpretatzen dituzten taldeko kideek komunikazio-ekintzetako mezuak. “Adierazpen edo diskurtsu-zati bakoitzaren esanahia esaera eta ikuspegi sozialen arteko harremanean eratzen da, eta ez forma linguistikoen arteko harremanean euren horretan (...). Edozein testu zehatz interpretatzeko, oso garrantzitsua da ulertzea komunitate jakin batek zein beste testuri aitortzen dien erreferentzia” (Lemke 1995:23).

Testu batek “memoria” daukala esaten dugunean, hain zuzen ere bere intertestualitateaz ari gara modu metaforikoan: testuen artean “eremu mnemoniko” (Erll, 2017, p. 64) bat zabaltzen da, zeinaren gainean testuak ulertzeko ezagutza partekatua *biltegitratzen* den. Foucaultek interpretazio-eremu komun horren berkontzepzio bat proposatzen du *zelai enuntziatiboaren* ideiarekin. Hartan gauzatzen dira adierazpenak, eta hartan eraikitzen dituzte beste diskurtsoekiko loturak: “Ez dago adierazpen libre, neutro, independente, orokorrik; aitzitik, adierazpen bat beti da bilduma baten edo osotasun baten parte, beti jokatzeko du rol bat beste adierazpenen artean, haietan bermatuz eta haiengandik bereiziz” (Foucault, 1972, p. 99).

Intertestualitatea hainbat modutan beha daiteke diskurtsoan:

I. Zeharkako diskurtsoan: ohikoa da parte hartzaileek kanpoko ahotsen aipuak txertatzea euren diskurtsoetan, besteak beste, euren posizioa indartzen duten autoritatezko argudio edo ebidentzial gisara, kontrako posizioak eraikitzeko, narratioak dramatizatzeko edota efektu erretoriko zehatzak eragitea helburu duten egoera hipotetikoak eraikitzeko (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 153). Memoriaren ikuspegitik, bereziki interesgarria zaigu *Besteen ahotsaren* erabilera argudio legitimatzaile moduan. Shahzadek azaltzen duenez (2011, p. 387), norbanako bakoitza hainbat talde sozialetako kide da aldi berean, baina haietako bakoitzak memoriaren eraikuntzan daukan eragina aitortzen zaion autoritatearen araberakoa da: “Adierazpenak eta euren esanahiak finkoak diren ustean oinarritzen da autoritatea, ez direla moldagarriak ahots berriekin topo egin ahala” (Ibid., p. 389).

Aipuek bestelako jarrerak ere adieraz ditzakete: sarritan, hizlariak adierazpenaren proposizioarekiko euren konpromiso maila denotatzeko erabiltzen dituzte. Ikuspegi diskurtsibotik, aipuak ez dira soilik estilo zuzen edo zeharkakoan egindako parafrasi testualak, “kanpoko adierazpen edo pentsamendu bat ebokatzeko hizlariaren intentzioa” (Reyes, 1996, p. 9) ulertarazten duten prozedura linguistiko guztiak baizik. Aipu horiek testuinguru zehatzean baino ezin dira zuzen interpretatu, eta sarritan parte hartzaileen alde aurretiko ezagutza partekatua eskatzen dute. Hauen artean daude:

- Ezkutuko estilo indirektoa: beste norbaiten sistema kontzeptualaz jabetuta egiten diren baieztapenak (Ibid., p. 20)
- Funtzio ebidentziala duten aipuak: hizlariaren distantziamendu maila adierazten dute.
- Oihartzun ironikoak: ironiaren erabileran, hizlariaren “bikoizte” bat (Ibid., p. 56) gertatzen da. Hark diskurtsoaren edukiaren bertsio erridikulizatu bat aurkezten du, eta hartzaileari ezinbestekoa zaio testuinguruko informazioa ezagutzea hura zuzen interpretatzeko.
- Bestelako forma linguistikoen bidez eraikitako loturak: ukazioak, auresuposizioak eta inplikatura bidez inferitutako proposizioak.

II. Ezagutza orokorrarekiko apelazioan: *Bestearen ahots* horrek, maiz, *mundu guztiaren ahotsaren* forma hartzen du, sozialki partekatua den eta ondorioz ezagutza orokortzat jotzen den informazioa ekartzen denean diskurtsora. Esplizitatu gabeko informazioaren kasua da hau: mezuaren deskodifikazioa inplikatura bidez gauzatzen da, diskurtso inplizituen lehendiko ezagutzari esker. Bestalde, toki komun edo topikoek (*topoi*) ere argudio orokortzaile

moduan funtzioa dezakete. Topikoak “inferentzia zehatz bat eragitea helburu duten argumentazio-eskema errepikakorrak” (Wodak, 2011, p. 173) dira; talde sozial baten barruko arau eta balioak islatzen dituzte, eta sarritan gizartean zabaldutako metaforen forma hartzen dute, esate baterako, “Bizitza bidaia gisara” kontzeptualizatu ohi denean (Erl 2017:62).

- III. Birkontestualizazioan: birkontestualizazioak testu bateko argudioak beste batean erabiltzeari egiten dio erreferentzia (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 3). Memoriazko diskurtsoen esparruan, *kolonizazio* terminoa erabili izan da iraganaren irakurketa birkontestualizatua deskribatzeko: gertaera bat beste baten tokian kontatzen denean, kontakizunean bertan gertakariaren testuingurua “egokitzen” denean edota belaunaldi berriek iraganeko gertakariak euren testuinguru garaikidetik irakurtzen dituztenean, esanahi berriak sortzen dira (Wodak, 2011, pp. 169–170).
- IV. Metaforetan: iruditeria kolektiboekin lotura estua duten neurrian dira metaforak elementu interdiskurtsibo bat. Metaforaren funtza kontzeptu bat beste baten terminoetan ulertu eta esperimentatzea da: “Metaforak, adierazpen linguistiko modura, posible dira, hain zuzen ere, pertsona baten sistema kontzeptualean metaforak direlako” (Lakoff & Johnson, 1980, p. 38). Esperientziak objektibizatuz edo pertsonifikatuz, errazagoa zaigu haiek “kategorizatzea, taldekatzea, kuantifikatzea eta haiei buruz arrazoitzea” (Ibid., p. 58). Metaforek *mental model* gisara funtzionatzen dute, informazio kopuru handiak kondentsatzea ahalbidetzen dutelako eta egoera berri bat interpretatzeko *gidalerroak*, aldeztatik aurretik eraikitako ezagutza, epai eta iritziak, eskaintzen dituztelako.

Memoria ikasketetan, literaturan bezalaxe, analisirako lehenetsi ohi diren elementuetako bat izan ohi dira metaforak: memoria ezin denez zuzenean behatu, haren adierazpenak sarritan hartzen du lengoia figuratiboaren forma (Erl, 2017, p. 71). Areago: memoria bera, eta memoria kolektiboa bereziki, oso metaforizatutako kontzeptua da. Pierre Norak zuhaitz baten “enborra” eta “azala” gisara definitu zituen, adibidez, memoria eta historia (1984, p. XXI). Memoria kolektiboaren kontzeptuari egin zaion kritika nagusia ere bere izaera metaforikotik dator: haren arabera, ezin zaio berez norbanakoena edo organismo zehatzena den prozedura kognitibo bat besterik gabe talde bati atxiki. Kontrara, defendatzaileek argitu dute memoria kolektiboa termino metaforiko gisara ulertu behar dela, baina horrek ez diola baliorik kentzen ikerketa-objektu soziologiko gisara: “memoria kolektiboaz” ari garenean, funtsean, errepresentazio-sistema partekatu bati buruz ari gara. Ez dago norbanako baten oroitzapena bere horretan taldearen oroitzapen bihurtzeko modurik, bitarteko prozesu sinbolikorik gabe. Taldearen memoria ez da banakako oroitzapenen baliokidea, ez eta haien bilduma ere: “Berreraikitako istorio bat da, norberaren oroitzapenatarako marko bat ezartzen duena, norberak esperimentatu duena hartan berriz antzemateko edota norberak bere burua istorio horren barruan edo harekin bat eginez ikusteko” (A. Assmann, 2020, p. 17).

Gaurdaino, metaforei buruzko lan teoriko erreferentzialenetako bat izaten jarraitzen du Lakoff eta Johnsonen *Metaphors We Live By* (1980) liburuak.

Bertan, metaforizazioaren alderdi gramatikal edo formaletik harago jartzen dute begirada, eta norbanakoen mundu ikuskera bera modu metaforikoan antolatuta dagoela defendatzen dute. Hausnarketa hori metaforaren (elementu bat beste batengatik ordezkatzeta) eta metonimiaren (elementu batekiko erreferentzia harekin kausaz lotuta dagoen beste baten terminoetan egitea) arteko bereizketatik abiatzen dute: biek ordezkaten dute elementu bat, eta bien funtzioa da ulermena erraztea, baina metonimiak, bereziki sinekdokeak (zati bat izendatzea osotasuna ordezkatzeko), balio erreferentzial erantsi bat dauka: elementu esanguratsuen aukeraketa, eta, ondorioz, hierarkizazioa. “Zati askok ordezketa dezakete osotasuna. Guztia ordezkatzeko aukeratzen dugun zatiak baldintzatzen du osotasunaren zein alderditan ipintzen dugun fokua” (Ibid., p. 69).

Metafora Kontzeptualen teoriaren arabera, eguneroko bizitza ere modu metonimikoan esperientatzen dugu: “Zehaztugabeen eta lausoena den hori (adibidez, emozioak) kontzeptu zehatzagoen terminoetan egituratzeko joera daukagu, gure esperientzian argiago lerratuta daudenetan” (Ibid., p. 146). Printzipio horretatik abiatuta txertatzen dute autoreok *egiturazko metaforen* kontzeptua: metafora orientazional eta ontologikoez bezala, kontzeptuak kuantifikatzea eta haiei buruz hitz egitea ahalbidetzen dute, baina, horrez gain, “oso egituratutako eta argi eta garbi delineatutako kontzeptu bat erabiltzea ahalbidetzen dute, beste kontzeptu bat egituratzeko” (Ibid., p. 96). Esperientziatzko domeinu horietako bakoitza gure sistema kontzeptualaren barruko “gestalt esperientzial” (Ibid., p. 150) gisara ulertzen da.

c) Egoera komunikatiboaren testuinguru hurbila

Memoria Ikasketetan bezala, Diskurtso Ikasketetan ere ezinbestean aintzat hartu beharreko elementua da testuinguru soziokulturala. Iraganeko esperientzien transmisioa “ekintzara orientatutako berreraikuntza dinamiko eta malgua” da (Bietti, 2011, p. 184), parte hartzaileen interesek eta ingurunearen baldintzek moldatzen dutena. Termino antropologikoetan, ekintza komunikatiboaren testuingurua haren eragin soziokultural guztiek osatzen dute, hau da, “pertsonen talde edo azpitalde zehatz bateko kide izateko duten moduak esanahiz janzten ditu egoera baten parametro fisikoak (tokia eta denbora) eta une zehatz batean bertan gertatzen dena” (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 95).

Hizkuntzalaritza estrukturalista formalean eta generatibistan, oro har, analisitik kanpo utzi ohi dira testuinguruko faktoreak, eta testuingurua testuan bertan (ko-testua) soilik bilatu izan da. Pragmatikak eta hartatik eratorritako Diskurtsoaren Analisiak, ostera, ikerketaren elementu zentral bihurtu dute, ekintza komunikatiboan eragiten duten faktoreen zerrenda itxuraz infinitua osatzeraino. Zentzu hertsian ikusita, aurretik esplizitatu ditugun azterketa-mailak ere (nortasunaren eraikuntza, kategorizazio sozialeko prozesuak, intertestualitatea) ezin bereizizkoak dira testuingurutik. Nolanahi ere, analisiaren mailak eskematikoki sailkatze aldera, testuinguruari propio dagozkion elementuak zerrendatuko ditugu hemen.

Egoeraren testuingurua ekintza diskurtsiboa modu immediatoan inguratzen duten baldintza guztiek osatzen dute, besteak beste, egoera komunikatiboaren espazioak

eta denborak, inguruan dauden objektuek, formalitate-graduak eta erregistroak, edota subjektuen mundu ikuskerari eta psikologiari dagozkion faktoreek. Azken horien artean daude, besteak beste, komunikazio-egoerari eta beste parte hartzaileei buruz izan ditzakeen ezagutza, iritzi eta usteak; euren arteko botere harremanak; iragandako, paraleloki gertatzen ari diren edo gertatuko diren ekintzak; eta parte hartzaileen ezagutza eta arreta-egoera (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 98; Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 154). Horregatik, testuingurua ez da agertoki estatiko baten moduan ulertu behar, komunikazio-ekintzan zehar (berr)egituratzen doan marko moldagarri gisara baizik: “Pieza diskurtsibo baten hasierak ‘etengailu’ gisara funtzionatzen du gure garunean, gure memoria historiko eta kulturalan, eta jarraian datorrenarekiko espektatiba batzuk sortzen ditu” (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 102).

Prozesu hori Gumperzek (1982, p. 131) *testuinguruko zantzu* edo *contextualization cues* deitzen dionaren bidez eraikitzen da, hau da, “testuinguruko auresuposizioak seinaltzeko lagungarri diren forma linguistikoen edozein alderdi”. Zantzu horien eduki informatiboa ez datza hainbeste haien esanahi erreferentzian, egoera komunikatiboan parte hartzaileek ematen dieten esanahian baizik. Horregatik, inplizituak izaten dira sarritan: “Parte hartzaile guztiek ulertzen eta hautematen dituztenean zantzu esanguratsuak, prozesu interpretatiboak bermatuzat jotzen dira eta oharkabean igaro ohi dira” (Ibid., p. 132). Ideia honek oinarri komun edo *common ground* kontzeptura garamatza, Halbwachsek bere marko sozialen teorian jada planteatu zuena eta Bietik (2011, p. 184) honela birdefinitzen duena: “Pertsonen arteko komunikazioan ezinbestekoa den ezagutza partekatua”. Oinarri hori kode epistemiko eta emozional partekatuek osatzen dute, parte hartzaileei egoera komunikatiboan nola jokatu, sentitu eta inferitu behar luketen ulertarazten dietenak. Jarrera horiek, sarritan, interakzioan zehar alda daitezke, testuinguruko elementu objektiboak aldatu ez badira ere; horregatik, Gumperzek (1982:153) komunikazioa eta interpretazioa “mugimendu eta kontramugimenduen patroio dinamikoen funtzio” gisara aztertzea proposatzen du.

Egoera komunikatibo bakoitzean inplikaturik dauden testuinguruko harreman aldakor eta anitzak modu grafikoagoan kontzeptualizatzeko, espazio fisiko baten metafora proposatzen du Pfliegerrek (2017, p. 678) bere ECRI (espazio komunikatibo erlazional eta identitarioa) eredu analitiko deskribatzerakoan: aldi berean hainbat gertakizun eta interakzio gauzatzen diren plaza baten antzera, subjektuek oinarri soziokultural partekatu baten gainean eraikitzen dituzten posizionatze- eta esanahitze-prozesuak gauzatzen diren espazio sinboliko konplexua da ECRI (Ibid., pp. 673-675).

- d) Testuinguru sozio-politiko, historiko eta kulturalaren azterketa: boterearen eta hizkuntzaren arteko harremana.

Parte hartzaileek etengabe txertatzen dituzte euren mundu ikuskerak eta ezagutzak elkartruke komunikatiboan; eta egoera komunikatiboa bera botere-harreman historiko eta sozial zabalago batzuen barnean txertatuta dago. Botere harreman horien arabera erabakitzen dira egoera komunikatiboaren alderdi fisiko ugari (tokia eta unea, hitza hartzeko txandak, gaien ezarpena, etab.), eta, aldi berean, parte hartzaileek harreman horien arabera egituratzen eta inferitzen dituzte

elkarriketako elementu asko: hizketakideen posizioari eta jarrerari buruzko hainbat suposizio, euren jarreraren zulentasunari buruzko arau ikasiak, eta abar. Interpretazio hauek egokiak izan daitezke ala ez, baina edozein kasutan egoera komunikatiboa baldintzatzen dute (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 157).

Diskurtsoaren Analisi Kritikoaren interesgune nagusietako bat da, hain zuzen ere, botere posizioetatik gauzatzen diren “abusuak” (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 13) diskurtsoaren bidez nola materializatzen edo/eta berrindartzen diren ikusaraztea. Prozesu horien artean daude “gatazkak ezkutatzeko, ukatzeko edota sortzeko estrategiak; eufemismoaren edo kalifikatzaile iraingarrien bidezko estilo baztertzailak; [edo] entzutea edo irakurtzea debekatuta dauden diskurtsoak” (Ibid.). Analiaren maila honetan, bereziki baliagarriak izan dira azken hamarkadotan talde boteregabetuen memoriari buruz idatzitako lanak, besteak beste, historia kolonialistei buruzkoak eta genero ikuspegitik egindako lanak (Hirsch & Smith, 2002; Martin, 2003). Diskurtsoaren Analiak jatorritik defendatu du diskurtsoaren eragin sozialen printzipioa. Nolanahi ere, talde sozialen dinamiken eta prozesu linguistiko-kognitiboen arteko harremana ezin da modu zuzenean ezarri: bitartekaritza-prozesu bat behar da loturak identifikatu ahal izateko. Diskurtsoaren hiru ertz horiek (gizartea, kognizioa eta lengoia) lotuko zituen makro-teoria baten eske jardun dute diskurtsoaren analistek hainbat urtez, eta bidean lanerako hainbat eredu metodologiko-teoriko diseinatu dituzte, baina gaurdaino ez da diseinatu diskurtsoaren fenomeno bere osotasunean deskribatzen duen teoria bakar bat (Wodak, 2006, p. 181). Gure ustetan, gehien hurbiltzen den eta emaitza erabilgarrienak eman dituen teoria Teun Van Dijken Teoria Soziokognitiboa da.

3.5.3. Nola ‘irakurtzen’, interpretatzen eta gogoratzen dugun: Teoria Soziokognitiboa

Neurozientziak frogatu dute oroitzapenek ez daukatela toki finko bat garunean: giza garuna ez dela “biltegi” bat, “nerbio-sisteman modu egonkorrean ezarritako egitura kognitiboen” sare bat baizik (Erl, 2017, p. 83). Ondorioz, zerbait gogora ekartzeak egitura eta patroi horien aktibazioa eskatzen du aldiro-aldiro, diskurtsiboki ere oroitzeta aldiro-aldiro kontakizun *berri* bat eraikitzea den era berean.

Van Dijkek zientzia kognitiboa hartzen du oinarri gisara: haren arabera, diskurtsoek gaitasuna dute hartzaileen iritzi, jarrera, ezagutza eta asmoetan —hau da, prozesu kognitiboetan— eragiteko, baina prozesu kognitibo horiek zuzenean behatzea ezinezkoa denez, bitarteko tresna teoriko bat planteatzen du: “eredu mental” edo *mental models* kontzeptuarekin, norbanakoak *kanpoko* mundu sozialetik datorren informazioa *barneko* bere egitura kognitiboekin bateratzeko erabiltzen duen interfaze edo prozedura kognitiboa deskribatu asmo du autore honek.

Ereduok “esperientzia baten errepresentazio mentala” dira, hau da, “pertsonak bizi izan duten, parte hartu duten edota irakurri duten gertakari batena” (Van Dijk, 1996, p. 14). Egoera zehatzei buruzko narratiba edo ulerkerak egituratuak eskaintzen dituzte, norbanakoaren alde zehatzei esperientzian, bere uste eta iritzietan eta testuinguruaz duen informazioan oinarrituta. “Lengoia-portaerak interpretatu, ulertu eta gogoratzeko behar den informazioa” (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 10) sozializazio-prozesuen bidez ikasten goazen neurrian, eredu edo marko kognitibo horiek eguneratzen goaz. Ondoren, egoera berri baten aurrean, “dagokion ezagutza pilatuaren aktibazioa” (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 99) ahalbidetzen dute. Alderdi horretatik, *frame* eta

eskema kontzeptuekin lotu litezke buruko ereduak; nahiz eta haiek izaera sozialago eta estereotipatuagoa duten; eta buruko ereduetan, aldiz, esperientzia pertsonalak pisu handiagoa daukan: “Buruko ereduak normalean talde sozialen ezagutza (instantziatu, aplikatua) eta bestelako sinesmenak gorpuztu ohi dituzte, baita norbanakoaren auto-kontzientzia definitzen duten errepresentazio kognitiboak ere” (Van Dijk, 1997, p. 190).

Van Dijken arabera, honela funtzionatuko luke lengoaiaren eta ekintzaren arteko harremanak: diskurtsoa sortzen duenak mintzagai duen egoerari buruzko eredu mental bat (errepresentazio bat) eraikitzen du; hartzaileak diskurtso bat entzun edo irakurri eta ulertzen duenean, beraz, eskaintzen zaion eredu hori alde aurretik dauzkan informazio-esparruetara egokitzen du, lehendik zeukan buruko eredu bat eguneratuz edo berri bat eraikiz, alde aurretik dauzkan ezagutza eta iritziekin osatuta eta errelebantzia handiena aitortzen dion informazioa aukeratuta. Ezagutzazko testuinguru hori esperientzia pertsonal zein kolektiboak (testuinguru sozio-kulturalak) osatzen dute; horrek azalduko luke zergatik pertsona desberdinek modu desberdinean interpreta dezaketen informazio bera.

Horrenbestez, diskurtsoek hainbat modutan eragin dezakete hartzaileak jada egoera bati buruz eraikita daukan eredu edo patro mentalen: informazio jakin bat nabarmenduz edo ezkutatuz, edo, maila xeheagoan, arreta diskurtsoaren edukiaren alderdi zehatzetara bideratzen duten baliabide erretorikoen bidez. Wodaken arabera (2006, p. 183), diskurtsoen ekoizpena zein ulermena “prozesu errekursiboak” dira, zeinetan egitura kognitiboak etengabe eguneratzen diren memoria episodikoan zein epe luzekoan; eta, aldi berean, norbanakoen pertzepziotik datozen buruko eskema horiek diskurtsoen bidez berreraikitzen, azaleratzen eta sozializatzen dira, ideologia edo uste sozial zehatz batzuk berrindartuz. Informazio esanguratsua aukeratzeko eta nabarmentzeko prozedura horiek kontzientzia-graduazio askotarikoa izan dezakete, erabat sistematizatuak izatetik erabat inkontzienteak izateraino.

Eredu mentalek osagai kultural garrantzitsu bat daukate: gehienetan, talde sozial oso batek partekatzen dituen errepresentazioak barne hartzen dituzte, eta “talde horretako kideek gertaera komunikatibo zehatzei buruzko jarrera edo ideologia tipikoak errepresentatzen” (Van Dijk, 1997, p. 196) dituzte. Behin errepresentazio horiek eraikita daudenean, are gehiago sustrai kultural eta historiko sakonak dituztenean, zaila da haiek aldatzea; epe luzeko ereduak berri batzuegatik ordezkatzeko, prozesu “katartiko” bat (Wodak, 2006, p. 185) gertatu beharko litzateke. Horrek azaltzen du zergatik den nekezagoa sozialki sustraitutako iruditeriak eta estereotipoak aldatzea. Haiek indartsuagoak dira kuestionatuko dituzten eguneroko esperientziarik ez dagoenean, baina sarritan esperientzia zuzen bakar bat ere ez da nahikoa izaten jada eraikitako ideiak aldatzeko: “Folklorean eta aurreiritzizko oinordetzan oinarritutako fantasia, proiektzio eta irudikapenak belaunaldiz belaunaldi transferitzen dira eta, bistan denez, eredu mental eta zentzu komuneko ezagutza gisara gordetzen dira” (Ibid.).

Buruko eredu edo *mental models*-en kontzeptua hainbat adarretan banatu dute gerora hainbat autorek:

- Van Dijk *context models* edo testuinguruko ereduaren ideian sakontzen du. Haren arabera, komunikazio ekintzaren garapena baldintzatzen duten egitura mentalak ez dira soilik parte hartzaileek elkarriketaren edukiari buruz eraiki dituztenak, baizik eta, baita ere, ekintza komunikatiboaz beraz dituzten eredu edo eskemak

(Van Dijk 1997:192–193). Gertaera diskurtsiboaren testuinguru zuzenaren errepresentazio erreflexibo horiek *context model* gisara definitzen ditu, eta pertsonen prozesu kognitiboan eta egoera sozialaren arteko beste maila baten moduan planteatzen ditu:

“[Kasu honetan,] aktoreek euren burua parte hartzaile diskurtsibo gisara aurkezten dute, eta inplikaturak dauden ekintzak une honetan bertan gauzatzen edota jasotzen diren diskurtso, ahozko interakzio edota ekintza diskurtsiboen bidez osatzen dira. Hau da, ereduaren eskemaren kategoriek, esate baterako, Kokapenak (Denbora, Tokia), Zirkunstantziak, Parte Hartzaileak eta Ekintzak (eta haien aldaerek, baita iritziak ordezkatzeko dituzten haiek ere), egoera edo testuinguru komunikatibo baten egitura kanonikoen kontraparte mentala (eta, ondorioz, subjektiboa) definitzen dute orain.” (Ibid., p. 193)

- Bietik (2011, p. 185) *situation models* terminoarekin birformulatzen du kontzeptu bera. Harentzat, egoera komunikatiboari buruzko errepresentazio mentalak errepresentazio kultural zabalagoetatik eratorritzen dira, eta egoeraren interpretazio pertsonalen forma hartzen dute, besteak beste, ikus-entzunezko elementuetan edo elementu proxemikoetan oinarrituta egiten direnak. Errepresentazio hauek “parte hartzaile bakoitzarentzat uneko egoera komunikatiboaren definizio berezia” (Ibid., p. 186) irudikatzen dute.

3.5.4. Diskurtsoaren izaera ideologikoaz

Hizkuntzaren eta botere-harreman sozialen arteko lotura nabarmentzen duenean, diskurtso orok modu ideologizatuan operatzen duela defendatzen ari da Diskurtsoaren Analisia. Ideologiak talde sozial batek partekatutako sinesmen-sistema axiomatikoak dira, izaera “nahiko orokor eta abstraktukoak” (Van Dijk 2005:10), taldearen oinarritzeko balio kulturalak biltzen dituztenak eta kideek modu gradualean bereganatzen dituztenak. Ondorioz, ideologiak taldeko kideen jokabideetan eragiteko gaitasuna duten errepresentazio-sistemak dira.

Ideologiaren funtzio nagusia taldearen kohesioa indartzea da. Memoria kulturalak bezalaxe, ‘Nor gara *gu*?’ galderari funtsezko erantzunak eskaintzen dizkiote, eta, beraz, hertsiki lotuta doaz taldeen autokategorizazioari eta alteritatearen irudikapenari. Van Dijken arabera (2008:174), taldeek euren buruaz eraikitzen dituzten eskematan oinarritzen dira ideologiak, eta funtsezko informazioa honako kategoriatan sailkatzen dute: kidezarako irizpideak, ekintzak, helburuak, balioak/arauak, baliabideak eta posizio soziala. Azken kategoria horretan eraikitzen dira Besteekiko harremanen errepresentazioak.

Norbanakoek zein talde sozialek mundua bi aktore-kategoriatan banatu ohi dute: *Gu* eta *Beraiek*, edota *ingroup* eta *outgroup* (Devine & Schubotz, 2010, p. 9). Printzipio teoriko honen arabera, berezkoa da norberaren irudia interakzioan hobetzeko desioa, edo, gutxienez, inpresio negatiboak saihestu nahia; hau diskurtso publikoan zein pribatuan gertatzen da (Van Dijk, 2008, p. 196).

Autoaurkezpen positibo hori, usu, *Bestearen* aurkezpen negatibo bati lotuta joan ohi da ideologikoki operatzen duten diskurtso polarizatzaileetan. Van Dijkek *karratu ideologikoa* (2005b, p. 30) deitzen dio aktoreen kategorizaziorako prozedura horri: kontzeptu horren arabera, hizlariak joera du, estrategia polarizatzaileen bidez, *Gure taldea*-rekiko jarrera positiboak eta *Besteen taldea*-rekiko jarrera negatiboak sustatzeko. Ondorioz, *Gureen* ezaugarri positiboak nabarmentzen dira eta negatiboak leundu, eta

alderantziz *Besteenen* kasuan. Taldeen arteko desberdintasunak nabarmendu egiten dira, eta talde barrukoak, ezkutatu; paraleloki, alde baten interesak besteenaren aurkakoak balira bezala ulertzen dira.

Hau bereziki nabarmena da eremu diskurtsibo disputatuetan, esate baterako, gerretan, esfera politikoan edota memoriari buruzko lehietan: aktoreen deskribapena eta kategorizazioa erabiltzen da haien helburuak legitimatzeko edo deslegitimizatzeko. *Ingroup*-aren eta *outgroup*-aren arteko ezberdintasunak gatazkaren errepresentazio mentalen funtsezko oinarri bihurtzen dira orduan. Galtungen arabera (2003), bereizketa horren eskema interpretatiboa eraikita dagoenean, konfrontaziozko irudipena “bere burua betetzen duen profetia” bihurtzen da:

“Bestea ez dagoenean soilik deshumanizatuta, baizik eta gizatasunez gabetutako Hura batean bihurtzea lortu denean, prest dago agertokia edozein biolentzia zuzenarako. [Bestearen] suntsiketa psikologikoki posible den obligazio bihurtzen da”. (Galtung, 2003, p. 17)

Indarkeriazko gatazkek zeharkatutako gizarteetan, interesgarria da behatzea nola eraikitzen den *Bestearen* irudia banakako diskurtsoetan zein diskurtso sozialetan, hura izan ohi baita indarkeria esplizituaren oinarrian dagoen legitimazioaren ezinbesteko elementuetako bat. Lederachek (1998, p. 39) ohartarazten duenez, gainera, hautemandako banaketa bortitz horiek politikoki ere instrumentalizatu izan dira aginteguneen partetik, talde sozial baten barruko kohesio-irudipena handitzeko eta barneko kritika ahultzeko: halakoetan, *Bestearen* errepresentazioak partekatutako uste edo epai baten forma hartzen du (“partekatutako errealtate bat”, Echterhoff & Kopietz, 2018, p. 114), ifrentzu gisara norbere taldearen irudikapen positiboa daukana. Horrek azalduko luke, neurri batean, gobernu batzuek barruko gatazka sozialak konpontzeko agertzen duten interes eskasa.

Indarkeriazko gatazka baten osteko garaian, gatazkaren oinarrian egon diren konfrontaziozko eskemak iraunaraztea kaltegarria da baketze edo berradiskidetze prozesuetarako. Aitzitik, Gatazken Teoriak argitu duenez (Galtung, 1996), pareko baldintzetan egindako harreman zuzenak lagungarri izan ohi dira *Bestea* humanizatzeko eta karratu ideologikoa leuntzeko.

3.5.5. Diskurtsoa eta memoria: Ikuspegi Diskurtsibo-Historikoa

Ikerketa-esparruaren arabera, hainbat analisi-eredu bereizi proposatu izan dira CDAtik. Guri dagokigun eremuan, Memoria Ikasketetan, Ruth Wodakek garatutako Ikuspegi Diskurtsibo-Historikoa da proposamen esanguratsuenak, eta, beraz, hemen sakonean azalduko duguna.

Ikuspegi Diskurtsibo-Historikoa (DHA) teoria soziokognitiboan du jatorria, eta diskurtsoa bera memoria-forma baten gisan ikusten du (Weiss & Wodak, 2003, p. 13). Horregatik, arreta berezia jartzen du gertaera diskurtsiboak inguratzen dituzten faktore soziologiko eta iturri historikoetan, hala nola, haien aurrekari sozial eta politikoetan, eta haien itzalean interpretatzen ditu eraikuntza diskurtsiboak.

Ikerketa historiko-diskurtsiboak iraganaren “negoiazio” (Wodak, 2011, p. 173) prozesuak aztertzen ditu, nola maila indibidualean hala kolektiboan. Talde sozialek iraganeko gertakari traumatikoen aurrean nola jokatzen duten aztertzen du, eta nola

garatzen diren gertakari horiei buruzko diskurtsoak edo kontzeptualizazioak denboran, belaunaldiz belaunaldi transmititu ahala. Ikerketa-objektu zehatza ideia baten bilakaera izan daiteke, edota taldeko kide bakoitzaren posizionamendua. Sarritan, honako galderek gidatzen dute ikerketa (Ibid., p. 170):

- Nola adierazten dira linguistikoki iraganari buruzko ezagutza eta ezezagutza?
- Nola adierazten dira jarrera pertsonalak (errua, ardura, justifikazioa) diskurtsoaren eduki proposizionalarekiko?
- Zeintzuk dira denboran errepikatzen diren patroik linguistiko edo topikoak eta zein funtzio betetzen dute?
- Nola elkar-erakitzen dira narratibak interakzio komunikatiboan zehar?

Funtsean, “gizarte demokratiko eta pluralistek” (Ibid., p. 162) euren auto-irudiarekin bat ez datozen iraganak kudeatzeko dituzten zailtasunak eta zailtasun horiei erantzuteko erabiltzen dituzten baliabide linguistikoak ezagutzea da Ikuspegi Diskurtsibo-Historikoaren helburu nagusietako bat. Wodaken eta bere eskolaren ekarpen nagusia diskurtso memorialistikoetan erabiltzen diren *estrategia diskurtsiboetako* batzuk argitzea izan da. Bieltiren hitzetan (2011, p. 187), “egoerazko ereduaren instantziazio komunikatiboak kudeatzea eta testuinguruko ereduak definitutako uneko interakzio komunikatibora egokitzea” da *estrategia diskurtsibo* bat erabiltzea, hau da: unean uneko helburu komunikatibo eta egokitasunezko arauen arabera aukeraketa linguistikoak egitea. Kontzeptu honek memoriaren izaera errekonstruktiboan eta hartan inplikaturako subjektuaren rol aktiboan jartzen du arreta. Estrategien eta haien makro-funtzio sozialen sailkapen zehatzago baterako, ikus 4.2.7. *Diskurtsoaren analisi-mailak* kapitulu metodologikoa.

Van Leeuwenen eta Wodaken arabera (1999, pp. 96–111), gertakari historiko bati buruzko diskurtso bat sortzean, ezinbestean birkontestualizatzen dugu gertakari hori, eta, prozesu horretan, informazioa momentuko gure helburuen arabera berrantolatzen dugu. Euren makro-funtzioa edozein delarik ere, honako *estrategiak* beha daitezke maiz diskurtso memorialistikoak eratzeko baliabide gisara:

- Elipsiak: Egileon arabera, ezinezkoa da praktika sozial bat bere osotasunean errepresentatzea: aukeraketa bat egiten da beti. Galdera da zer uzten den kanpoan.
- Berrantolatzea: Praktika soziala osatu duten elementuak ez dira beti diskurtsoan agertzen gertatu diren hurrenkeran. Kasu horretan, kausa-efektu antzera egitura dezakete diskurtsoa.
- Ordezkatzea: Ekintza sozialak zeinuen bidez ere ordezkatzen dira sarritan, besteak beste, metaforak, sinonimoak, funtzionalizazioak edota sailkapenak erabiliz. Prozesu horietan, zeinuaren esanahizko karga edota kategorizazioa eransten zaio ekintza komunikatiboari. Abstrakzioak eta orokortzeak ere, esaterako, ordezkatze *estrategia* bat dira.
- Eranstea: Diskurtsoan azaltzen den gaiari zerbait gehitzen dion informazioa da, berez ez dena beharrezkoa gertakaria bera ulertzeko, baina bestelako funtzioak betetzen dituen, esate baterako, erreakzioak adieraztea (parte hartzaileen sentipen eta irudipenak deskribatuz), helburuak aipatzea (deskribatzen denari zentzu logiko bat erantsiz hartara), edota legitimazio *estrategia* gisara.

- Istorioak kontatzea (“mythopoesis”): Wodaken arabera, legitimazio-estrategia arruntenetakoa da ahozko diskurtsoetan eta testuinguru ez-ofizialetan, bereziki praktika arrazistak edo diskriminatzaileak legitimatzeko orduan: “Istorio edo gertakari bakar bat portaera-arau orokor baten ebidentzia gisara hartzen da” (Ibid., p. 110).

Wodaken ikerketetan ondorioztatzen da gatazka biolento edota traumatikoen ostean ohikoa izaten dela justifikazio-estrategien erabilera esperientzia pertsonaletan oinarritutako narratiben eta narratiba ofizialen arteko bitartekari gisara, eta horrek diskurtsoetan antzemateko moduko dilema ideologikoak eragin ohi dizkiela hizlariei. Austriarren Bigarren Mundu Gerrako esperientziak ikergai hartuta, Wodakek gaiari iskin egiteko sei estrategia nagusi identifikatu zituen: gaiak ez hitz egin nahi izatea (edo gertatutako krimenak erabat ukatzea); ezjakintasuna adieraztea; norbere buruarekiko biktimizazioa adieraztea; arrazionalizazio zientifikoa eta erlatibizazioa (*Besteen krimenak zerrendatzea* edo “Gerra oro da txarra” bezalako orokorkeriak erabiltzea); norbere aurkezpen positiboa (elkarrizketatuaren indibidualtasuna nabarmentzea, eta besteek ere ardurak zeuzkatela adieraztea: “Gertakari historikoek behartu ninduten”); eta ulertzen saiatzea (Wodak, 2011, p. 188).

3.6. GATAZKAK ETA GAZTEAK

CDAk diskurtsoak, testuak eta interakzioak aztertzen ditu, baina ez haien interes linguistiko hutsagatik: abiapuntua eta helburua beti da auzi eta arazo sozialen ezagutza eta ulermena: “Jendeak bere bizitza sozialetan topatzen dituen arazoak, arrunki Soziologiak, Zientzia Politikoak edo/eta Kultur Ikasketek heldu ohi dietenak. CDAk arazo hauei termino semiotikoetan begiratzen die” (Fairclough, 2001, p. 26).

Gatazka sozial eta politikoen alderdi sinbolikoan topa ditzakegu *biolentzia kulturalaren* hainbat elementu. Fischerrek (2007, p. 188) “egiturazko eta zuzeneko biolentziaren justifikazio” gisara definitzen du biolentzia kulturala: Galtungen Gatazken Teoriaren arabera, *lehertzen* den biolentziak, hau da, ikusgarria den horrek, beti dauka hura justifikatzen duen osagai sinboliko bat oinarrian, taldeek elkarrez duten irudi polarizatuarekin zerikusia duena eta egitura narratibo mental zein berbaletan gauzatzen dena:

“Oinarrian dagoen arazoa buruko eta portaerazko dualismoa da, gestalt eta egituretan izoztua. Barneko munduak Ona eta Gaietza baizik ez ditu ikusten, eta ona soilik Norberarengan eta negatiboa soilik Bestearengan. (...) Polarizazio mentalak portaerazko polarizazioa legitimatzen du, zeinak aldi berean aurrekoa berrindartzen baituen. (...) Helburua honakoa da: despolarizazioa, humanizazioa (ez ber-humanizazioa, balitekeelako lehendik ez egon izana irudi positiborik edo irudirik oro har). Horrek Norberari eta Besteari buruzko ikuspegi normalago bat esan nahi du.” (Webel & Galtung, 2007, p. 29)

Gure ikerketarako, bereziki esanguratsuak zaizkigu gatazken testuinguruan eraturako identitate eta interpretazio-patroien iraupena, aldaketa edota deuseztapena eragiten duten prozesu sinboliko eta kognitiboak. Ikergai dugun talde soziala (euskal gatazkaren hondarretan jaiotako gazteak) baliabide diskurtsiboen bidez sozializatu da bere testuinguru politikora, eta haien bidez eraikitzen ditu bere identitate eta posizionamenduak iraganeko gertakarietarako. Galtungen hitzetan (2006, p. 261), zuzenean

zein zeharka esperimentatutako “gertakari dramatikoek aztarnak” uzten dituzte, eta aztarna horiek ingurune sozialean ikasitako “paradigmatan” txertatzen dira.

Gazteek hainbat esfera sozialetako diskurtsoak jasotzen dituzte aldi berean: familiakoak, ikastetxeakoak, aisialdikoak edota bestelako instituzio sozialetakoak, baita hedabideetakoak ere. Horregatik argudiatzen du McEvoy-Levyk belaunaldiok gauzatzen dituzten interpretazio, birkontestualizazio eta bernarratibizazio prozesuak memoriaren eraikuntzaren gakoetako bat direla gatazka biolentoen osteko garaietan:

“Bakearen eraikuntza iraganarekiko elkarrizketan sortzen da. Artearen, jai kulturalen, tokiko istorioen kontaketa eta familiako kroniken, eskolako testu liburu eta curriculumen, eta erretorika politikoen forman haur eta gazteen ekologietan filtratzen diren historiaren eta tradizioaren bertsioek, sarritan, gatazka konpontzearen aurka dihardute. Konpetentzia efektiboa izateko, jakin behar [da] era horretako gerra-diskurtso eta balioetako zenbat eta zein mota barneratu dituzten gazteek, eta nola erreproduzitzen edo eraldatzen dituzten”. (McEvoy-Levy, 2006, p. 285)

Ezarritako paradigmatik iraunaraztea edo kuestionatzea testuinguru zehatzen arabera prozesu aktiboak dira, besteak beste gazteen posizionamenduarekin eta identitateen eraikuntzarekin zerikusia dutenak.

3.6.1. Sozializazio politikorako inguruneak

Sozializazio politikoa honela definitzen dute Reidy et al.-ek: “Norbanako batek patroiz sozialak ikasteko prozesua, bere posizio sozialekin zerikusia duena eta gizarteko hainbat agentziak mediatzen dutena. (...) Sozializazio politikoa harreman sozialei buruzko ikasketak inplikatzeko, besteak beste, botere erlazionalaz eta taldearen estatusaz” (Reidy et al., 2015, p. 12). Prozesu hori nerabezaroaren amaieran eta helduaroaren hasieran gertatu ohi da, eta, autoreon arabera, lau ingurune edo talde sozialek mediatu ohi dute batik bat: familiak, adinkideek, hezkuntzak eta komunikabideek (Ibid., pp. 12-13).

a) *Familia* arau sozialen, aurreiritzien eta orientazio politikoen lehenbiziko ikasketa-gune gisara ikusten dute autoreok. Etxeko testuinguruan, transmisioa informala eta sarritan zeharkakoa izaten da: seme-alabek gurasoen elkarrizketak entzunez ikasten dute historiaren berri, edota familiako anekdoten bidez, eta horrela familiak kanpoko diskurtso eta errepresentazio-sistemen *galbahe* lana egiten du maiz. Stringer et al.-en arabera (2010, p. 234), gatazka identitarioak oso bizirik dauden egoeretan handiagoa izaten da familiaren sozializazio-eragina eta haien bidezko talde-jarreraren transmisioa nerabe eta gazteengan. Reidyk ohartarazten du, ordea, gazteen interesa eta “esanahien bilaketa” (2015:12) aktiboa faktore kritikoak direla etxeko transmisioa aktibatzeke.

b) *Adinkideek* talde sozial zabalago baten moduan funtzionatzen dute, eta hartan nagusi diren balio kulturalak eta identitateak transmititzen edo berrindartzen dituzte. Ereku familiar intimoagoaren eta instituzio sozialen arteko erdibideko ereku erdi publiko eta erdi pribatutzat jo daitezke.

c) *Hezkuntza* arautuaren ezaugarri nagusia “uste politikoa modu formalean instilatzeko gaitasuna” da (Reidy et al., 2015, p. 13). Prozesu hori instrukzio kontziente eta planifikatuaren bidez zein ikastetxeak eskaintzen dituen eguneroko esperientzia informalean bidez gauzatzen da. Ikastetxeek egituratutako diskurtsoak eskaintzen dizkiete gazteei testuliburuaren forman, sarritan izaera inperatiboz, ezarritako curriculumaren

ezagutza eta barnerapena puntuazio- eta onarpen-sistema bati lotuta egon ohi delako. Horregatik, familiaren eta adinkideen sozializaziotik datozen gazteek gertakarien bertsio *ofizial* batekin topo egiten duten lehen esparrua izan ohi da hezkuntza arautua; bertsio horrek indartu egin ditzake euren harreman pertsonalen esparruan eraikitako interpretazio-patroiak, edota, alderantziz: talka bat eragin dezake.

d) *Komunikabideek* diskurtso memorialistikoen aurpegi publikoenarekiko sarbidea eskaini ohi dute; alde batetik, esfera politikoa eta instituzio publikoetan sortzen diren mezuak erreportatzen dituztelako; eta, bestetik, gizarteko balio-sistemen garraiatzaile nagusietako bat direlako. Komunikabideek komunitatea eraikitzen dute, subjektu kolektibo zehatz bat interpelatzen duten neurrian:

“Bistan da hedabideak lehen mailako eragileak direla talde nortasunen eraikuntzan (...). Historiari so eginez gero, esan daiteke hedabideak izan direla, lehenago eskola izan zen bezalaxe, XIX. mendearen amaieratik aurrera estatuetako nazio nortasunaren eragile handienak. (...) nazionalak izan dira, hots, estatu nazioen mugean barnean eraikiak. Areago, estatuak arautuak[.] Komunikabide horiek irudikatu duten komunitatea estatu nazioen subjektua izan da, hots, estatuak definitutako nazioa. Gizartea (‘society’) ere, hartara, gizarte nazionala izan da.” (Amezaga Albizu, 2009, pp. 47–48)

Memoriaren ikuspegitik ere ikertu izan da komunikabideen agendaren eta gizartearen “memoriazko agendaren” (Kligler-Vilenchik et al., 2014, p. 495) arteko korrelazioa, bereziki telebista gehien kontsumitzen duten herritarren diskurtsoetan antzeman daitekeena.

Reidyren sailkapen honi bi ñabardura gehitu behar zaizkio. Alde batetik, *komunikabideak mass media* tradizionalekin (prentsa, telebista, irratia) parekatzeak hainbat arazo eragin ditzake gaur egun: Interneteko sare sozialek informazioaren hedapenerako bezainbeste funtzionatzen dute adinkideekiko sozializazio-bitartekari gisara, eta, beraz, komenigarriagoa litzateke norbanakoaren eta taldearen arteko harremanean maila erdi pribatu bereizi gisara aztertzea. Aztergai dugun belaunaldi hau Interneteko sare sozialen garaian politikoki sozializatutako lehenbizikoa izateak perspektiba analitikoak doitzera behartzen gaitu: alde batetik, plataformok norbanakoen bizi estiloari, ohiturei eta jarrerai buruzko edukia argitaratzea ahalbidetzen dute, erabiltzaileei elkarren jokabideetarako sarbidea eskainiz; bestetik, promoziozko algoritmoen geroz eta menperago dago sareotako edukiekiko sarbidea. Ondorio gisara, sozializazioan eragin dezakeen “dieta mediatiko pertsonalizatua” (Ohme & De Vreese, 2020, p. 4) dute eskura gaur egungo gazteek, sarritan eduki politiko eta zibikoak entretenimendurekin lotzen dituen eta haiek forma “sinplifikatu eta tribializatueta” (Jakubowski, 2021, p. 17) eskaintzen dituen.

Bestetik, garrantzitsua deritzogu adinkideen eta diskurtso sozial zabalaren arteko beste sozializazio-maila bat txertatzeari: *auzoa, herria* edo *ingurune soziala* dei dakioke. Euskal Herriko testuinguru soziologikoan bereziki, sozializazio politikorako rol esanguratsua betetzen dute eguneroko biziguneez eta bertan dauden pertsona eta taldeek (Zulaika, 1990, p. 392); ez dira familia eta lagunak bezain agente sozializatzaile hurbilak, baina eragiten dute gazteek euren giro sozialaz duten pertzepzioan.

Azkenik, ez da ahaztu behar fikziozko literaturak, zinemak eta kontsumorako sortutako bestelako kultur produktuek izan dezaketen eragina memorien eraikuntzan eta

moldaketan. Euren izaera argiki narratiboagatik, memoria ikasketen analisirako objektu ohikoa dira nobelak eta filmak, fikzioak eskaintzen dien askatasun-gradua gorabehera hartzaileen eredu mentaletan eragiteko gai diren “oroimenezko figura nabarmenak” eta “iraganaren bertsioak” eraikitzen dituztelako (Erll, 2017, p. 167):

“Literaturak lehen zein bigarren mailako behaketa ahalbidetu ohi die irakurleei: iragana behatzearen ilusioa ematen digu (modu esperientzial, mitiko edo antagonistikoan) eta, sarritan aldi berean, errepresentazio-prozesu horiexei buruzko hausnarketa kritikorako medioa da. Memoria aldi berean eraikitzen eta behatzen duen medioa da literatura”. (Erll, 2010, p. 391)

Hego Euskal Herriko eta Espainiako testuinguruan ere, 1936ko Gerrari buruzko kontakizunak “burezur eta eskeletoak” (Thompson, 2005, p. 81) baino lehenago atara ziren argitara fikziozko literaturaren bidez (Olaziregi Alustiza, 2009): “Literaturak, memoria kulturala hornitzen duen heinean, gure memoria kolektiboa eraikitzen du, eta memoria horretan gure amets, sufrimendu, eta galerek leku garrantzitsua dutela azpimarratzen du” (Olaziregi Alustiza & Altuna Lizarraga, 2020, p. 13).

Era berean, musika ere bihur daiteke transmisio kulturalerako sozializazio-eremu, batik bat gazteontzat: aisialdi guneetan oso present dagoen kultur adierazpena izanik, haren bidez ere jaso ditzakete iraganean sortutako, eta beraz, iragandako garaien eta orduko ikuspegi sozialen sinbolo bihur daitezkeen esanahiak. Hau bereziki esanguratsua da euskal gatazkaren historiaren kasuan, zeinetan (bereziki frankismo garaian eta Trantsizio ondorengo urteetan) musikak izaera politiko argia eduki baituen (Dávila Balsera & Amezaga Albizu, 2003; J. Larrinaga, 2015, p. 42).

3.6.2. Gazteen rola euskal gatazkaren historian

Esku artean dugun ikergaiaren xede-taldea (milurteko aldaketaren inguruan jaiotako euskal gazteak) hobeki definitu eta ulertzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu lehenbizi gazteek, talde gisara, euskal gatazkaren historian bete dituzten rola laborri bada ere aztertzea. Gazteen parte hartze politikoak onura esanguratsuak ditu euren agentibitatearen auto-pertzepzioan eta taldeari eragiten dizkioten arazoekiko inplikazioan (Senehi & Byrne, 2006, p. 238). Hartara, arazo sozialetan zeresana duten belaunaldiak “aldaketa sozialerako agente oso eraginkor” (Reidy et al., 2015, p. 21) bihur daitezke.

Euskal gatazka armatuaren historian protagonismo handia izan ohi zuten gazteek. Hasteko, Ruiz Olabuénaga soziologoak (2005, p. 23) “belaunaldi helduagoekiko hausturazko gazte mugimendu” gisara definitzen du ETA bere hastapenetan. Frankismo garaiko politika instituzionala “erroetatik kuestionatzea” eta “bere konbikzio propioaren etikak bultzatuta mugitzea” ziren gerora armetara joko zuen erakundearen oinarritzko ezaugarriak.

Ikuspegi hori aski partekatua zen garaiko euskal gizartean. 1936ko estatu kolpe frankistak Hego Euskal Herrian tradizionalista eta karlisten babesa jaso zuen arren, gerraren irabazleek ez zuten “herritarren legitimaziorik” bilatu, kontrara baizik: “Ofentsiba Nazional-Sindikalistako Batzordeen [JONS] Espainiako Falangeak artikulatutako botere-sistema bilakatu zen, zeinak gizartearen kontrola bilatzen baitzuen, ez haren onspena” (Montero, 1998, p. 96). Ondorioz, gerra galdu zuten errepublikazale, ezkertiar eta abertzaleez gain, Hego Euskal Herriko sektore nazionalista tradizionalista batzuk ere zapuztu egin ziren erregimen frankistarekin: “Diktadura militar gisara jarraitzeaz gain,

Euskal Herrian babes argia soilik tradizionalki eskuindarrak ziren enpresa-sektoreetan topatzen zuen sistema gisara eutsi zion; haiek, bide batez, ekonomikoki errentabilizatzen zuten diktadurarekiko euren babesa” (Ibid.).

Frankismoak “Espainiaren ikuspegi monolitiko bat” (Ibid., p. 97) ezarri zuen instituzio publikoetatik, kontrol diskurtsibo hertsu baten bidez, euskalduntasunarekin lotutako sinbologiaren zein euskararen erabilera publikoak debekatuz. Oposizioak klandestinitatean eraiki zituen bere komunikazio-egiturak, ilunpeko balio- eta antolaketa-sistema politiko paralelo baten moduan, instituzionalizazio prozesu espainiarrekiko eszeptizismoak markatua: “Enfrentamendua, eta, ondorioz, errepresioa, ez zen Euskadin amaitu gerraosteko etaparekin. Jarraipenezko irtenbiderik gabe, gizartearen zati zabal batek ezarritako boterearen legitimitatea ukatzen jarraitzen du, eta errepresioa eta biolentziaren biktimak erreproduzitzen dituen etengabeko frikzioa eragiten du” idatzi zuten Olabuénaga et al.-ek (1985, p. 51) Trantsiziotik hamarkada batera.

1976ko Trantsizioa baliozkotzeko erreferendum konstituzionalean, bi euskal alderdi nagusiek, EAJk eta HBk, abstentziorako eta aurkako botoa emateko deia egin zuten hurrenez hurren. Ondorioz, Hego Euskal Herriko herritarren gutxienez babestu zuten Espainiako Konstituzioa: %50etik gorako abstentzioa egon zen Gipuzkoan eta Bizkaian, eta %48,8koa eta %32,9koa, hurrenez hurren, Araban eta Nafarroan. Urtebete geroago, instituzionalizazio prozesuaren hurrengo urratsean, banaketa politiko handiagoa antzeman ahal izan zen: Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua (*Gernikako Estatutua*) bozkatzeko erreferendumean, aldeko botoa eskatu zuen EAJk, eta kontrako, aldiz, ezker abertzaleak. Abstentzioa %40koa izan zen orduan.

Espainiako prozesu demokratizatzailearekiko eszeptizismo zabal hori ulertzeko, ezinbestekoa da tokiko gizartearen pertzepzio- eta interpretazio-patroiei erreparatzea. Monteroren arabera, “Estatu demokratikoak, beste Estatuak ez bezala, ez du soilik legalitatea behar, baizik eta baita ere, eta, batez ere, balio erantsi bat behar du: subjektu sozialek eta indar politikoek ematen dioten legitimitatea” (Montero, 1998, p. 81).

Euskal gizartearen zati handi batek Frankismoan eta Trantsizioan izandako esperientzia kolektiboek ez zuten legitimitate hori elikatzen, alderantziz baizik. Garaiko gatazka sozial zein politiko ugariei ordena publikoko politika oldarkor batekin egin zien aurre Estatuak, eta errepresio horrek bereziki gogor jo zuen Hego Euskal Herria: “Espainian 1974an eta 1975ean Poliziak eragindako 36 hildakoetatik, hirutik bi euskal herritarrak” (Ibid., p. 82) izan ziren. Franco hil aurreko zazpi urteetan, zazpi larrialdi egoera ezarri ziren Espainiako Estatuan; horietatik bost, Euskal Herriko gune batzuetan soilik. Torturaren erabileraren ezagutzak eta sona handiko hainbat gertakarik (tartean, Martxoaren 3ko istiluek edota German Rodríguez eta Joseba Barandiaranen moduko gazteen hilketek³) estatu errepresibo baten irudia elikatu zuten herritarren artean. *Bestearen* kontzepzio negatibo hori gurutzatu egiten zen dagoeneko gizartean existitzen zen beste ideia politiko batekin: Euskal Herriaren autonomiarako edo independentziarako desioa. Prozesu politiko errealekiko gaitzespenak eta Espainiaren “defizit demokratikoaren” (Ibid., p. 83) diskurtsoak elikatu egin zituzten independentziaren aldeko argudioak.

Abertzaleen eskakizun politikoak entzunarazteko espaziorik eskaintzen ez zuen sistema errepresibo batekiko erantzun gisara aurkeztu zuen ETAk biolentziarako bere hautua

³ German Rodríguez gaztea 1978ko sanferminetako istiluetan hil zuen Poliziak balaz; Joseba Barandiaran, hurrengo egunetan hedatutako protesta eta manifestazioetako batean.

1960ko hamarkadaren amaieran. Ruiz Olabuénagaren arabera, ETArena “biolentzia tekniko” gisara defini liteke (1985, p. 109), *Bestearen* deuseztapena helburu batzuen menpeko kalkuluen ondorio gisara ikusten duelako:

“Helburu kontraesankorrezko egoerekiko IRTENBIDEA [sic] da biolentzia, zeinetan alderdietako baten interesak derrigor bestearen kaltea inplikatzen baituen. (...) biolentziaren erabileraren aurretik porrot bat dago, porrot kulturala dei dakiokena, bi alderdien interesekoak izan daitezkeen eta, ondorioz, akordioak sortzeko gai diren helburuak bilatzeko ahaleginak egin baitu huts.” (Ibid.)

Diktadorea hil ondorengo Trantsizioa ezaugarritu zuen *Ahantzuraren Itunak* ez zion iraganeko biolentzien auziari heldu, ez 1936ko estatu kolpearen osteko gerrari, ez eta frankismoak eragindako eskubide urraketari ere. Areago: erregimen frankistako elite juridiko, politiko eta militarrek “aski botere” izaten jarraitu zuten Estatuko instituzioetan nolanhiko “garbiketa” sistematiko bat eragozteko (Aguilar, 2003, p. 131). Ondorioz, Trantsizioari legitimitatea ukatu zioten ETAk zein ezker abertzaleak, eta demokrazia berria ere Frankismoaren jarraipentzat jo zuten. Gertakari historikoen bi interpretazio bateraezin horiek (trantsizio demokratikoan sinesten dutenena eta hura ukatzen dutenena) bihurtu dira harrezkero euskal gatazkaren oinarrian dagoen karratu ideologikoaren poloak. Zentzu horretan, azken hamarkadotako gatazka armatuak zerikusi zuzena du frankismoarekin, finean haren jarraipena edo etena delako eztabaidatzen dena.

Gazteak, talde soziologiko gisara, euskal gatazkan bete-betean nahastuta egon dira historian zehar, biolentziaren eragile zein biktima modura. 1980ko hamarkadako inkesta baten arabera, gazteen %35,4k uste zuten egon litezkeela biolentziaren erabilera justifikatuko luketen zirkunstantziak (Elzo Imaz, 1987, p. 39). Hogei urte geroago egindako beste neurketa baten arabera, motibazio politikoko biolentzia sufritzeko kezka oraindik gazteen beldur nagusien artean zegoen, prekariedade ekonomikoaren atzetik: %7,2k zioten beldurra Poliziaren partetik tratatu txarrak jasotzeari; eta %5,4k, atentatu batean nahastuta amaitzeari (Ruiz Olabuénaga, 2005, p. 50). Ruiz Olabuénagaren kalkuluen arabera, une hartan 30.000 eta 35.000 gazte inguruk (adin tarte horretako populazioaren %6 eta %10 artean) sufritua zuten atxilotetaren bat; eta 40.000k baino gehiagok salatua zuten tratatu txar motaren bat indar armatuen partetik (Ibid., p. 61). ETAren partetik zuzeneko mehatxuak edota biolentzia fisikoa sufritu zutenak, berriz, %1,8 zirela estimatzen du autore horrek, eta gizartean zein *kale borrokaren* testuinguruan bestelako mehatxu, margoketa edo irainak sufritu zituztenak, %3 inguru.

Horrez gain, baina, gazteen parte hartzea aktibismo politiko eta sozialeko hainbat esferatan izan da nabarmena, batik bat Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren aterkipean existitu ziren hainbat gazte erakundetean. Hain zuzen ere, euren aldarrikapenen aniztasuna nabarmendu dute mugimenduok ikertu dituzten autoreek (Elzo & Arrieta, 2005). Historia kolektibo horrek “auto-antolakuntzazko” (Larrinaga & Amurrio, 2022, p. 24) lorratz luzeko tradizio bat utzi zien ondorengo belaunaldiei.

3.6.3. Biolentzien legitimazio-estrategiak ETAren jardunaren historian zehar

Esperientzia kolektibo horiek ilustragarriak dira euskal gazteen orduko joera eta inplikazio politikoak hobeto ulertzeko. 2000ko urteen hasieran, batik bat 15-19 urte artekoek hartzen zuten parte *kale borrokan* eta baimenik gabeko manifestazioetan (Ruiz Olabuénaga, 2005, p. 87). Ruiz Olabuénaga soziologoarentzat, “biolentziaren

azpikultura” (Ibid., p. 70) baten testuinguruan kokatzen zen orduko aktibismo politikoaren zati handi bat, eta orduko gazteen sozializazio politikoan eragiten zuten aktore nagusiak familia eta lagunartea ziren, hezkuntza-ingurunea baino askozaz gehiago.

Kultura orok bezalaxe, hark ere bazituen bere konbentzio- eta balio-sistemak, hala nola, kide izateko modu zehatzak eta bere helburu, jarduera eta identitateari eusteko diskurtso justifikagarriak. Ruiz Olabuénagaren arabera, legitimazio horrek honako ezaugarriak zeuzkan kasu zehatz hartan (2005, p. 70):

a) Legitimazio *motibatzaile* bat: arrazoi politikoko biolentzia ez zen Euskal Herriko gazteek sufritzen zuten biolentzia bakarra, ezta, Ruiz Olabuénagaren hitzetan, biktima gehien eragin zituena ere. “Euskal nazioak bizi duen injustizia politikozko egoeraren” diskurtsoak oinarri legitimatzaile bat eskaintzen zuen nazio askapenaren alde armak hartzeko erabakia justifikatzeko: helburu legitimo batek babesten zuen erabakia.

b) Legitimazio *instrumental* bat: Estatuak eragindako errepresioa ere armatua zenez (talde polizial eta parapolizialen forman), bide armatua nazio askapena lortzeko bitarteko egoki edo posible bakar gisara aurkezten zen.

c) Legitimazio *pertsonala*: Ruiz Olabuénagaren arabera, estrategia armatudun talde batean sartzea (ETA, Komando Autonomoak...) ekintza altruista gisara ikusten zen.

d) Legitimazio *koral* bat: Borroka armatua ez zen pertzibitzen “eskukada bat fanatikoren” (Ibid.) interes gisara, babes komunitario zabala zeukan mugimendu gisara baizik.

e) Legitimazio *subkultural* bat: aurreko puntuan aipatutako *koru* horren oinarri ideologikoa gatazka armatuan inplikaturik zeuden talde eta pertsonen harago zihoan; aitzitik, “eguneroko elkarbizitzari dagokion jarrera-multzo baten humus sozial batek” (Ibid.) babestuta zegoen, ETAREN biolentziari kasu askotan zentzu “erritual” eta “sinbolikoa” emateraino (Zulaika, 1991, p. 220).

Ruiz Olabuénagaren arabera, “biolentzia abertzalea” (Ibid., p. 90) pautatua, ohikoa, autonomoa eta sistema ideologiko baten itzalpean babestua zen. Sistema horrek batzuen begietan “sinplista eta erredukzionista” eman zezakeen arren, “barnera begira kontsistentea eta erabateko araztasun eta plausibilitateduna” zen. Ondorioz, ETAREN jarduna “bijilantismo politiko” gisara interpretatzen du autore horrek: Estatuaren “legimitatearen suplantazio” ahalegin bat zen, ordena sozial berri bat ezartzeko instrumentu posible bakar gisara biolentziaren erabilera aurkezten zuena (Ibid., p. 109). Honela laburtu liteke ETAK bere jarduna justifikatzeko erabilitako makro-narratiba: “Euskal gizartea bere biziraupen kolektiboa mehatxatzen duen biolentzia baten biktima da, eta biolentzia hori soilik saihesta eta gaindi liteke kontra-biolentzia baten bidez” (Ibid., p. 110).

Hizkuntzalaritza kognitiboaren terminoetan, *Ingroup*-aren barnean gerraren *frame*-ak funtzionatzen zuen oinarri komun legitimatzaile gisara: euskaldunak nazio zapaldu gisara erretratatzeko ziren hartara, eta Estatu erreprimatzaile baten eskutik sufritutako injustizia horrek bide ematen zuen defentsa moduan planteatutako erantzun armatua naturalizatzeko. Defentsa hau taldeko kide gehienek interes gisara aurkeztuta, *ad populum* legitimazioa bilatzen zen, hau da, “euskal gizartearen identitatea efektibotzat” jotzen zen (Ruiz Olabuénaga et al., 1985, pp. 121–122). Ruiz Olabuénagak kalkulatu

zuenez, 80ko hamarkadan euskal herritarren %5ek babesten zituzten esplizituki ETAREN ekintza biolentoak: “Ez da bere bozeramaileek dioten bezain babes zabala, baina ezta esangura sozial handia ukatzeko bezain murrizta ere” (Ibid., p. 123). Legitimitatearen irudipena indartu egiten zuen, halaber, indar armatu publikoekiko eszeptizismoak: orduko babesa %51koa zen, “maioritaria izan arren, unibertetsala izatetik oso urrun” (Ibid.) zegoen zifra bat.

Ikuspegi antropologikotik, ETAREN biolentziak euskal gizartean bete izan duen rola termino erritualetan irakurtzea proposatzen du Joseba Zulaikak *Violencia vasca: metáfora y sacramento* (1990) lan erreferentzialean. Errituala “errealitate politikoaren zentzua lortu eta adierazteko beharrezkoa den oinarrizko ekintza sozial” (Zulaika, 1990, p. 331) gisara definituta, argudiatzen du frankismoan sortutako euskal talde armatuek jasotzen zuten babesa ez dela hainbeste termino kausal edo utilitaristetan ulertu behar, “kulturaren espazio semantikoaren testuinguruan” (Ibid., 335) baizik, hau da, jokabide erritualak ahalbidetzen dituen eta haietan oinarritzen den espazio kognitibo-kultural gisara. Zulaikaren arabera, ikuspegi horretatik uler litezke ETAKO kideen hainbat erabaki, hala nola, haien ekintza bakoitzaren errelebantzia: keinu bakoitzak esanahi-sorta zabalago bat zekarren inguruko gizartearentzat.

“ETAK piztutako borroka militantearen azken hogeita hamar urteotako aspirazio politikoak hitz bakar honetan laburtu daitezke: ‘In-de-pen-den-tzi-a!’ manifestazio nazionalista handitan lelo gisara koreatzen zena. Esan liteke azken borroka honetan torturatuak, espetxeratuak, erbesteratuak edo hilak izan diren ehunka aktibista errepresentatzen dituela hitz horrek. Madrilekiko enfrontamendu politiko bat da, euskalduna denaren [*lo vasco*] biziraupen historikoaren testuinguruan pertzibitua.” (Zulaika, 1990, p. 359)

Zulaikarentzat, ETAREN ekintza eta atentatu bakoitzak operatu ohi zuen gatazka osoaren sinekdoke gisara euskal gizartearen begietan. Ikuspegi horren arabera, militante bihurtzea “helduarorako erritua” batekin pareka zitekeen, zeinaren bidez herriko gazte arrunta “gerlari nazional” (Ibid., 369) bihurtzen baitzen. ETAKO kideek Euskal Herriko sektore sozial zabalengan hedatuta zeuden akordio politiko eta sozialak gorpuzten zituzten, eta ikonikotasun horretan zetzan euren kuestionaezintasuna: “Kontrako mezuen nahasketa honek ilegimitoa irudi dezake erritualetan parte hartzen ez dutenen begietara, baina ‘ohiko hizkuntzan zarata dena, liturgian esanahia da’”, dio Zulaikak, Rappaport (1977) aipatuz.

Nazio askapenerako estrategia armatuaren diskurtso legitimatzaile horrek elementu mnemoniko edo historiko garrantzitsu bat izan du uneoro. ETAK bere historian zehar keinu ugari egin zizkion 1936ko Gerrari: bere lehenbiziko atentatu planifikatua 1961eko uztailaren 18an egin zuen, estatu kolpe frankistaren 25. urteurrenean, soldadu ohi frankistaz betetako tren bat bidetik ateratzen saiatu zenean. 57 urte geroago desarmatu zenean ere Gernikako bonbardaketari egin zion aipamena, armak uzteko bere erabakia sufrimenduzko *continuum* historiko baten barruan kokatuz: “ETA jaio aurretik samina zen nagusi gure herrian, eta ETAK borroka armatua utzi ostean ere oinazeak segitzen du. Gernikako bonbardaketaren ondorengo belaunaldiok bortxa eta arrangura hura heredatu genuen, eta guri dagokigu ondorengo belaunaldiek oso bestelako etorkizun bat jasotzea” (ETAK Euskal Herriari: Eragindako Kaltetari Buruzko Adierazpena, 2018).

Era horretan, zirkunstantzia politikoek eragindako ondorio natural gisara aurkezten du bere burua ETAK, beragandik aparte existitzen den sufrimendu baten hartzaile den komunitate zabalago baten parte. Egoera hori aldatzeko misioa ezartzen dio bere buruari,

baina misio horrek forma aski ezberdinak hartu ditu denboran: aurreko komunikatuetan, gatazka armatua gogortzea izan ohi zen proposatutako irtenbidea; 2011tik aurrerakoetan, aldiz, bide armatua alboratzea.

3.6.4. Identitateen polarizazioa gatazka armatuetan

Gatazka egoeretan, “gatazkazko identitateak” (Yerkes, 2004, p. 933) eraikitzen dira. Karratu ideologikoa, hau da, *Gu* eta *Besteak* kategorien bereizketa, egoera politikoa ulertzeko oinarritzko koordenada bihurtzen da, eta identifikazioa muturrera eramaten da: hartara, *ingroup*-aren biktimizazioa eta *outgroup*-aren deshumanizazioa sustatzen dira talde barruko kohesioa handitzeko eta “baldintza arruntetan onartezintzat joko liratekeen ekintza zehatz batzuk onargarri bihurtzeko” (Ibid.).

Ondorioz, ohikoa da testuinguru armatuetan identitateen eraikuntza diskurtsiboa helburu ideologikoetarako instrumentalizatzea: *kanpoko* erasoarekiko izuak, oro har, taldearekiko (auto)kritikotasuna eta taldearen jokabideekiko kuestionamendua murrizten du, haiek mehatxuaren pean legitimatuta geratzen direlako. Norbere burua biktima gisara kategorizatu dutenez, oso zaila da norbera biktima-eragile ere izan daitekeela onartzea: “[Norberak] kaltea eragin bazuen, bere buruaren defentsan izan zen, eta etsaiak merezi zuen. (...) taldeek euren ezaugarri eta portaera negatiboak ‘Bestearengan’ proiektatuko dituzte auto-irudi aratza mantentze aldera, auto-identitate fragmentatugabe bat” (Ibid., p. 935).

Euskal gatazkaren historian ere funtzio polarizatzaile nabarmena bete du biolentziak. Gizarteko sektore baten barnean nagusi zen gerraren *frame*-ak oinarri naturalizatzaile bat eskaintzen zuen muturreko posizionamenduekiko. Honela azaltzen zuen Elzo Imazek (1987) orduko gizartean nagusi zen “moral bikoitza”:

“Gerra orotan daude hildakoak, eta, logikaz, gerra orotan norbera ‘poztu’ egiten da beste aldekoak hiltzen direnean —edo gutxienez horrek dirudi ‘normala’— eta protesta egiten du berekoak hiltzen direnean. (...) Kontabilitate bikoitza da: gudaria zara edo terrorista. Estatuko Segurtasun Indarretako kide zara edo armada okupatzaileko parte hartzaile.” (Elzo Imaz, 1987, p. 39)

1990eko hamarkadatik aurrera, ETAk alderdi politiko bateko kideren bati eraso egiten zionean, biktima horrekiko elkartasun-bulkada bat aktibatzen zen, haren alderdiarekiko mesede politikoan islatzen zena (Murua Uria, 2015a, p. 17). Identitateen polarizazioak, baina, ez zuen soilik *ETA* eta *Espainiako Gobernua* aktoreen artean funtzionatzen. Euskal Herrian bertan ere, ezker abertzaleak irudikatzen zuen mehatxu “antisistema” baliatu zuen EAJk bere burua autogobernuaren bermatzaile konstituzional eta legitimo gisara aurkezteko (Montero, 1998, p. 89); eta, kontrara, ilegalizazioak eta bazterketa politikoa identitate eta harreman-sareak trinkotzea ekarri zuen ezker abertzalearen barruan.

3.6.5. Gaur egungo gazteen ezaugarriak eta euren testuinguru sozial diskurtsiboa: “errelatoaren bataila”

ETAren behin betiko su-etenaren osteko urteek “aro berri bat” (Larrinaga & Amurrio, 2022, p. 10) ekarri zuten ezker abertzalearen inguruko aktibismo herrikoi eta autonomoan sozializatutako gazte mugimenduetara, haien praktikak eta diskurtsuak politika ulertzeko

molde berrietara egokituz, besteak beste, subjektuaren eta agentziaren ulerkeraz geroz eta indibidualago baterantz (Larrinaga Renteria et al., 2020, p. 27).

2020ko hamarkadako euskal gazteen egoera aski desberdina da hainbat arrazoi direla-eta. 15 eta 24 urte arteko gazteek 292.769 pertsonako taldea osatzen dute gaur egun (Gaindegia, 2020), Euskal Herriko biztanleria osoaren %9,23. Milurteko aldaketaren inguruko urteetan jaiotako belaunaldi bat da; euren gurasoak ez bezala (zeinak oro har Frankismo amaieran edo Trantsizioan jaiotakoen baitziren), normalizazio politiko erlatibo batean hazi dira. Euren haurtzaroko lehenbiziko urteetako egoera soziopolitiko oraindik aski gatazkatsua izan arren, gehienak nerabazarora iritsi zirenerako nabarmen jaitsia zen tentsioa, nagusiki ETaren jardueraren armatuaren amaiera faktikoak (2009) eta ezker abertzalearen legalizazio eta berrinstituzionalizazioak (2011) eraginda. Ondorioz, gehienek ez dute gatazka armatuarekin lotutako esperientzia zuzenik gogoratzen.

Memoriaren transmisioaren ikuspegitik, aniztasun mediatikoa da belaunaldi honen ezaugarri nagusia: globalizazioak eta Internetek neurri handi batean mundu erreferentzialaren mugak zabaldu dituzte, eta ondorioz, memoria kolektiboen dinamikak ere “askotarikoago, partekatuago eta lehiatuagoak” (Shahzad, 2011, p. 379) bihurtu dira, hainbat markok aldi berean eragiten dietelako. Beste autore batzuek ikuspegi baikorragoa dute Interneteko sareez: “[Sareak] norberaren diskurtsoaren kontrol handiagoa hartzeko modu bat dira, (...) eta, horrela, agentibitatea hobe zehaztekoa norberaren identitatearen eraikuntzan”. (Pfleger, 2021b, p. 328).

Gatazkaren ikuspegi historikotik, belaunaldi honen ezaugarri nagusia da euskal gatazkaren historiaren zati handienarekiko harremana batik bat (edo, kasu batzuetan, ia eskusiboki) diskurtsiboa dela: esperientzia propioen faltan, *bigarren eskuko* memoriatan (Erll, 2017:107) eta hirugarrenen kontakizunetan oinarritako memoria kolektibo bat da eurena, eta, ondorioz, ezinbestean interdiskurtsiboa.

Memoriaren eraikuntza narratibo horrek, ordea, izaera disputatua du ezaugarri nagusi: iraganeko gatazka armatuari buruzko diskurtsoetan bertsio kontrajarriak nahasten dira maiz, “errelatoaren bataila” (Aizpeolea, 2018) deitu zaionari bide emanez esfera politikoan, komunikabideetan zein akademian.

Errelatoaren bataila metaforak diskurtso memorialistikoaren arteko lehia termino belikoetan kokatzen du, eta etsaitutako bi ikuspegiren artean garaile bakarra egon daitekeela inplikatzeko du. Rodríguez Fouzen arabera (2021, p. 2), gatazkaren izaerari buruzko bi interpretazioaren arteko lehia dago disputaren oinarrian: alde batetik, ezker abertzalearen diskurtsoa legoke, zeinak gatazka armatua biolentzia politiko zabalago baten testuinguru historikoan kokatzen duen; bestetik, “alderdi ez abertzale” eta ETaren biktimen elkartearen ikuspegia legoke, zeinak “ETaren legitimitate ezaren ñabardurarik gabeko identifikazioa erreklamatzeko” baituten, bestelako biktimei edo testuinguru historiko-politikoari erreferentziarik egin gabe.

Eremu disputatu horretan, gazteei kontakizun erabat kontrajarriak iristen zaizkie maiz: iragana biolentzia irrazionalak baldintzatutako psikosi kolektibo gisara irudikatzen duten diskurtsoak (Ruiz Olabuénaga, 2005, p. 48) talka egiten du familia askotan erreproduzitzen den normaltasun irudiarekin. Areago: familia askotan mantentzen den *nazio askapenaren aldeko gudarien* diskurtsoa erabat deslegitimatuta geratu da

terrorismo erradikalizatu eta, ondorioz, irrazional eta ilegítimo baten diskurtso hegemonikoaren aldean.

2001eko irailaren 11n New Yorken eta Washingtonen izandako erasoek eta haren ostetik abiatutako ‘terrorismoaren aurkako gerrak’ inflexio unea ekarri zuten biolentzia antolatua ulerkeria globalerara. Izan ere, botere interpelatzaile handia duen diskurtso bat eratu zen: ordutik, Mendebaldean eraso bat sufritzeko izua hedatuago dagoela ondorioztatu dute ikerketa soziologikoek (Krause et al., 2022), eta Estatu aparatuetatik bermatutako *segurtasuna* bihurtu da bakearen sinonimo. Diskurtso horrek estatu-nazioen segurtasun politiken agendaren justifikatzaile gisara operatzen du hartara:

“Hainbat herrialdetan, herritarrak manipulatuak dira gizartean geroz eta segurtasun falta handiagoa dagoela sinesteko, eta euren eskubide zibilen mozketa batzuetan drakoniarrak babesteko mobilizatzen dituzte. Fokua modu selektiboan (eta aproposalan) jartzen da eraso terroristen gainean, bai politikan eta baita komunikabideetan ere, etengabeko izu hori iraunarazteko”. (Van Dijk, 2008, p. 204).

Terrorismoaren aurkako gerraren *frame*-ak Euskal Herriko pertzepzioan ere eragin zuen (Bengoetxea, 2019, p. 589) hainbat modutara. Maila politiko-instituzional zehatzean, sarritan nahastu dira nazioarteko terrorismoari egindako erreferentziak ETaren biolentziarekin. Van Dijkek berak José María Aznarren 2003ko diskurtsoetan behatu ahal izan zuenez, Espainiako presidente ohiak tokiko gatazka batekin (euskal gatazkarekin) lotu ohi zuen “herritar gehienei” egiaz axola ez zitzaizkien arazo bat (Ekialde Hurbileko egoera), Irakeko gerrako esku hartzea justifikatzeko: “Terrorismoaren mehatxuaren gaia bestelako frogarik behar ez duen argudio estandar bat bihurtzen ari da, hau da, topiko bat, edozein eztabaidatan erabil litekeena” (Van Dijk, 2008, p. 207). Euskal Herriko zein Kataluniako mugimendu nazionalisten aurkako diskurtso “sutu” horiek Espainian eragiten zuten polarizaziotik hauteskundeetan probetxu atera ohi zuela ondorioztatzen du Aizpeoleak (2018, pp. 101–102). Horrek, “ez gutxitan, ustezko etsaiek erretorikoki elkarren interesak elikatzea eragin du, alde bakoitzak abantailak antzematen dizkiolako bestearen existentziari” (Zulaika & Douglass, 2008, p. 29).

Errepresentazio soziokognitiboen mailan, aldiz, moralki onartezina den edozein biolentzia izendatzeko topiko bihurtu da terrorismoa, ekintza biolentoak inguratzen dituzten testuinguruen aniztasuna gutxietsiz (Ramsay, 2015, p. 173). Estatuena ez den biolentziaren erabilera oro *terrorismo* gisara izendatuta, “*insurgentziaren* ideia bera eta *terrorista/askapen borrokalariaren* arteko antimonioa neurri handi batean zaharkituta geratu” dira (Zulaika & Douglass, 2008, p. 28), euskal gatazkaren testuinguruan aurreko belaunaldien zati handi baten oinarri diskurtsiboa baliogabetuz. Horrez gain, bestelako egoeretan Estatuaren partetik egindako eskubide urraketak edo gehiegikeriatzat joko liratekeen beste hainbat praktika eta neurri legitimatzeko bidea eraiki da (Murua, 2014, p. 137); horren adibidetzat jotzen du Theresa Whitfieldek (2015, p. 6) Espainiako Kongresuak 2002an onartutako Alderdien Legea, zeinaren bidez ezker abertzalea eta hari lotutako hainbat mugimendu legez kanporatzeko bidea zabaldu baitzen.

Elementu hauek guztiak ere harilkatzen dira gaur egungo gazteek iraganaz eraikitzen dituzten narratiben atzean dagoen paisaia interdiskurtsiboan; are gehiago globalizazio mediatikoaren garaian, zeinetan sarritan urruneko erreferentziak tokikoak bezain sendoak edo sendagoak bihur baitaitezkeen. Gazte hauen egungo testuinguru diskurtsiboaren

oinarri den *atzealde partekatua* osatzen dute era honetako diskurtsoek, sarritan esplizitatzen ez dena baina gainerako diskurtsoetarako oinarri komun gisara funtzionatzen duena. Garrantzitsua deritzogu horregatik euskal gatazkaren naturari eta amaierari buruz zabaldu diren diskurtso nagusietako batzuk hemen esplizitatzeari, gero analisisian hizlariak haiei egiten dizkieten erreferentziak ere behar bezala interpretatu ahal izateko.

3.6.5.1. ETaren amaierari buruzko narratibak

Paisaia hori are konplexuagoa da *errelatoaren batailaren* ertz guztiak aintzat hartuz gero. Izan ere, gatazkaren naturaz bakarrik ez, haren amaierari buruzko narratiba kontsentsuaturik ere ez dago gaur egun. *Historiaren garaile* eta *galtzaile* terminoetan planteatutako diskurtsoek narratiba aski ezberdinak eraikitzen dituzte, irakurketa egiten duenaren interesen eta auto-irudiaren arabera moldatzen direlako. Lau dira 2011 eta 2018 arteko desarme-prozesuari buruzko narratiba nagusiak, eta bakoitzak aktore baten agentibitatean jartzen du fokua:

a) Fokua Espainiako Gobernuan eta indar armatuetan: galera militar eta sozialaren narratiba.

Ikuspegi honen arabera, ETaren jardun armatuaren amaiera alde batetik haren deslegitimazio sozialaren eta, bestetik, Poliziaren eta Justiziaren “jazarpenaren” (Aizpeolea, 2013, p. 12) ondorio izan zen. Tesi honi eutsi diote, besteak beste, Espainiako Gobernuak eta PSOEko hainbat kargudun ohik (Next Educación, 2020). Hartan, ez da ukatzen armak uzteko azken erabakia ETarena izan zenik, baina haren inizatiba baino, ahultasun militar eta soziala (Muro, 2016) enfatizatzen dira.

Narratiba honek Miguel Ángel Blanco Ermuko PPko zinegotziaren hilketan (1997) kokatzen du ETaren deslegitimazio sozialaren inflexio puntua: une hartatik aurrera, ETaren aurkako jarrera euskal gizartean nagusitu egin zela argudiatzen du Aizpeoleak, eta horrek bide eman ziola ezker abertzalearen bazterketa politikoari, Espainiako Kongresuan 2002an onartutako Alderdien Legean eta “Dena ETA da” (Albin, 2021) logikan islatuta, zeinak gerora ezker abertzalea behartu baitzuen ETari jardun armatuaren amaiera eskatzera.

2001eko irailaren 11n New Yorken eta Washingtonen (AEB) gertatutako erasoek eta haren ondotik zabaldu ziren *terrorismoari* buruzko narratiba globalek ere izan zuten eragina euskal gatazkaren pertzepzio publikoan: Jose María Aznarren gobernuak bultzatuta, Batasuna, ordura arte Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik zegoen alderdia, nazioarteko “talde terroristen” zerrendan sartu zuten (Aizpeolea, 2018, p. 97); ETaren bozeramailatzat jota, haren diskurtso politikoei entzunak izateko aukera moztea bilatzen zuen ekintza hark.

Paraleloki, ETako kideen aurkako jazarpen poliziala aipatzen du Aizpeoleak haren amaierarako gako gisara: bereziki Bidarteko atxiloketak (1992) jotzen ditu taldearen ahultzearen inflexio puntutzat, ETako orduko zuzendaritza espetxeratzeak talde armatua berrantolatzea behartu zuelako, “bere historia operatiboko krisi handiena” (Ibid., p. 71) eraginez. Horren frogatzat jotzen du autore honek atxiloketen ondorengo urteetan hilketek behera egin izana.

b) Fokua ETArengan: alde bakarrek desarmearen narratiba

Bigarren narratiba nagusi batek ETAre agentibitatean jartzen du fokua, eta armak uzteko prozesua borondatezko edo estrategiazko urratsen hurrenkera baten moduan ikusten du, galera militar, politiko eta sozial batek behartutako ekintza baten ordez. Tesi honen arabera, desarmatzeko erabakia ezker abertzalearen eta ETAre arteko elkarrizketa prozesu estrategiko baten ondorio izan zen: desarmatuz, hainbat auzi politiko konpontzeko aukera handiagoak leudekeela ikusi zuten, besteak beste, presoak apurka askatzen joatea eta legalizazio politikoaren bidez babes soziala berreskuratzea (Zabalo & Saratxo, 2015, p. 377). Ondorioz, ETA prest agertu zen “trukean ezer eskatu gabe desarmerako urratsak emateko” (Ventas, 2017), baina Espainiako Gobernuak uko egin zion desarme prozesua aitortzeari, are gutxiago negoziazio zuzenetan inplikatzeari (Ibarra Güell, 2017, p. 1). Areago: hura kontzienteki oztopatzea egotzi izan zaio, besteak beste, ETAre desarmea egiaztatzea deitutako nazioarteko begiraleak susmagarritzat jo zituelako (Elejabarrieta Diaz, 2015, p. 160). Ondorioz, alde bakarrek prozesu gisara, eta ez bi aldeetatik negoziatutako eta aitortutako bake prozesu gisara, aurkeztu ohi da ETAre jardun armatuaren amaiera, “baketze birtual” edo *virtual peacemaking* (Whitfield, 2014, p. 319) gisara definitu izan den eredu berezi bat sortuz. Hainbat autorek nabarmendu dute, ordea, desarmearen *aldebakartasunak* negoziazio ofizialen faltari eta Estatuan mintzakiderik ezari egiten diola erreferentzia; ez, ordea, haren borondate erabat indibidualari. ETAre desagitea ekarri zuen “azken bultzada bere oinarri sozialak” (Zulaika & Murua, 2017, p. 4) eman zion; helburu militarrek erdietsi ez izana onartzeak ahalbidetu zion, paradoxikoki, “entitate politiko berri” (Ibid., 3) bihurtzea.

c) Fokua euskal gizarte zibilean: herritarrek bultzatutako aldaketaren narratiba

Hirugarren narratiba nagusia lehenbiziko bien artean kokatzen da, eta desarmearen agentibitatea Euskal Herriko gizarte zibilari aitortzen dio. Narratiba honek aintzat hartzen du ETAre ahulezia 1990eko hamarkadatik aurrera, baina 2007 eta 2008. urteen artean kokatzen du ETAre barne krisi sakonena, zeina talde armatuak berak ere irudikatu baitzuen barne agirietan erabilitako metaforetan: “Etsaiari buztinezko orpoetan sartu behar diogu aizkora, ez armaduraz hornitutako paparretan” (Murua Uri, 2015a, p. 20) zioenean, ustez suntsiezina den Akilesen mito grekoaren *frame*-a eraiki zuen ETAk, bere txikitasuna nabarmenduz Espainiako Gobernuaren aldean.

Narratiba haren arabera, bere historia operatiboaren azken urteetan oraindik Estatu negoziazio mahaira behartzeko helburua zeukan ETAk, baina armak uzteko inizatiba nagusiki gizarte zibilaren partetik heldu zen, eta haren presiopean edo “harekin elkarrizketan” (Bengoetxea, 2019, p. 587) hartu zuen ETAk behin betiko su-etena emateko erabakia. 2017 eta 2018 artean Ipar Euskal Herrian Bakearen Artisauak bake mugimenduak sustatutako desarme ekintzen hurrenkera jotzen da prozesuaren inflexio puntutzat (Esnaola Karrera, 2017; Gogora, 2019).

d) Fokua ETAre biktimengan: gatazka politikoaren ukapena

Azkenik, bada gatazkaren izaera politikoa ukatzen duen narratiba sendo bat ere, nagusiki ETAre biktimen zati bat batzen duten elkarte entzutetsuek eta sektore politiko eskuindarrenek sustatzen dutena (Majuelo Gil, 2020a, p. 287). Narratiba honek aktore politiko (eta, ondorioz, arrazional) izaera ukatzen dio ETAre, eta terrorismo fanatikoaren *frame*-a eraikitzen du; ikuspegi horrek atea ixten dio edozein negoziaziori, eta ETAk bere

historian eragindako biktima guztiak errugabe gisara aurkezten ditu ñabardurarik gabe, ez baitie heltzen haren estrategia armatuaren arrazoi posibleei. Ikuspegi honen arabera eraikitako diskurtoetan ez da euskal *gatazka* baten terminoetan hitz egiten, soilki *terrorismoaren* terminoetan baizik.

3.6.5.2. ‘Errelatoaren bataila’ arloz arlo

Garai armatuaren sorrerari eta ETaren amaierari buruzko narratiben arteko eztabaida hauek erabat baldintzatzen dute gaur egungo zelai diskurtsiboa, *esanezinezko* hainbat eremu eta tabu sortzen dituztelako esfera diskurtsibo publikoenetan. Honakoak dira, gaur egun, iraganeko biolentziaz hitz egiteko eragozpen handienak arloz arlo:

a) Politikan: gaitzespenaren exigentzia

Ajuria Eneko Itunak (1989) eta Alderdien Legeak (2002) euskal politikagintzaren kontzeptio polarizatu bat ezarri zuten, *demokratak* eta *biolentoak* kategoriatan banatua (Azurmendi, 1997; Torrealdai Nabea, 2021). Ordutik eta gaurdaino, biolentzia bere forma guztietan gaitzestea bihurtu da gutxieneko legitimazio politikoa irabazteko baldintza. ETA aktibo zenean, hura gaitzestea exijitzen zitzaien legezko alderdi guztiei. Gaur egun, talde horren mehatxu armaturik gabe, biolentzia historikora eta hari lotutako egungo adierazpenetara hedatu da eskakizuna: presoak Euskal Herriko espetxeetara hurbiltzeko eta baldintza arruntak ezartzeko, euren iraganari buruzko damua eskatzen zaie; eta hainbat harrera ekitaldi edo adierazpen publiko ere gaitzetsi edo kriminalizatu izan dira biolentziaren goraiamentzat jota.

Exigentzia horien atzean sarritan Espainiako alderdi eskuindarretako “sektore erradikalenen” eta haiei lotutako biktimen elkarte batzuen presioa dagoela aipatzen du Aizpeoleak (2018, p. 157), eta “Tea Party espainiar” horrek ahaleginak egiten dituela egungo agenda politikoa baldintzatzeko:

“AVTren kupularen atzean eskuin mediatiko indartsu bat dago, eta erdigune ideologiko bat, FAES [fundazioa], PPren barruko sektore erreakzionarioena ordezkatzeko duena. Borroka antiterroristaren inguruan sortutako interesei ere erreparatu behar zaie. Terrorismo etarraren onurei buruzko azterketa zorrotz bat egiteko dago (poliziak, politikariak, kazetariak, segurtasun enpresak, etab.)” (Aizpeolea, 2018, p. 157)

Gaurkotasunezko testuinguruan, geroz eta ahots gehiago ageri dira kritiko biolentziaren gaitzespenaren exigentzia unibertsalarekiko. Alde batetik, argudiatzen dute *biolentzia* terminoa esanahiz husteko arriskua dakarrela haren gehiegizko erabilerak: hura gaitzesteak ez duela laguntzen haren kausak ulertzen eta haiei erantzuten (Olariaga, 2019). Bestetik, soilik biolentzia mota batzuk seinalatuz (*Besteak* eragindakoak), norberaren ardura historikoari muzin egitea eta bake prozesu historikoa oztopatzea leporatzen zaie hainbat aktoreri. Demokrazia garaikideetan, biolentziaren gaitzespena estatuen legitimitate moralaren iraupenarekin lotuta doala argudiatzen du Azurmendik (1997, p. 34): “Biolentzia moraliki zilegi izan daitekeela pentsatzeko posibilitatea bera behar da (...) suntsitu, kontrara inork demokrazia immorala kontsideratzeko posibilitatea nahi bada eliminatu”.

Arazoaren muina, Aizpeolearen hitzetan, eskuineko sektore erradikalenek ETaren jarduera armatuari buruz egiten duten irakurketan datza: sektore horiek ukatu egiten dute

ETA behin betiko desegin denik, eta bestelako forma batzuetan jarduten duela argudiatzen dute, besteak beste, ezker abertzaleari lotutako alderdien forman instituzio politikoetan; “eta, euren iritzitan, hori ez da garaipena” (Aizpeolea, 2018, p. 165). Ondorioz, iragan armatuari egindako erreferentziek eta hura gaitzesteko exigentziek *Bestea* militarki ez ezik politikoki ere desegiteko helburua dute.

Exijentzia horrek alderdi eta talde abertzaleei eragiten die zuzenki, eta haiekin negoziatzen duten gainerako taldeei zeharka. Presoen auzian irtenbideak proposatu izan dituzten alderdi espainiarrei (PSOERI edo Unidas Podemosi, besteak beste) ere traizio egitea leporatu izan diete horregatik. Aizpeolearen arabera, jarrera honek zerikusi gehiago dauka egungo interes politikoekin, historiarekin baino; izan ere, Espainiako Gobernu eskuindarren garaietan askoz preso gehiago hurbildu izan zituzten Euskal Herrira, eta askoz indultu gehiago eman zituzten, gobernu sozialdemokraten garaietan baino, gaur egungo eremu diskurtsibo politiko murriztuan “pentsaezinak” lirartekeen keinuak (Ibid., p. 35).

b) Komunikabideetan

Esfera politikoko diskurtsoek isla zuzena dute agenda mediatikoan. 2000ko lehen hamarkadako ikerketen arabera, ETAREN jardun armatua artean indarrean zegoela “antiterrorismo mediatikoan” (Idoiaga & Ramírez de la Piscina Martínez, 2002, p. 143) inplikatu ziren Espainiar Estatuako hedabide nagusiak, gehienetan Gobernuaren bertsioa erreproduzitzen, euren ildo editorialak harekin lerrotatuz eta *terrorista* gisara erretratututako aktoreei buruzko irudi negatiboak sustatuz. Iruditeria hau euskal gizartera orokortu zen hainbat kasutan, “betiereko euskal terrorista potentzialaren” (Atutxa, 2011, p. 69) estereotipoa sortuz.

2011ko su-etenaren eta, batez ere, 2017-2018ko desarme prozesuaren ondotik, zabaldu egin zen komunikabideek islatutako istorio eta lekukotzen aniztasuna, batik bat Euskal Herriko tokiko prentsan (Ramírez de la Piscina Martínez et al., 2016, p. 1029). Nolanahi ere, gai zehatz batzuek oraindik eztabaida politikoa eragiten dute: esate baterako, 2018an EITB telebista publikoak *Motxiladun Umeak*, presoen seme-alabei buruzko dokumentala, emititu zuenean, ETA “zuritzea” (Mateos, 2018) egotzi zion biktimen elkarte batek telebista publikoari.

Halaber, Estatuaren eta talde paramilitarren indarkeria sufritu izan duten familiek ere salatu izan dute nabarmen espazio gutxiago eskaintzen zaiela komunikabideetan. GAL talde armatu parapolizialak hildako Xabier Galdeanoren alaba Karmenek 2012an ospatutako biktimen topaketa batean emandako lekukotzak ilustratzen du sentimendu hori:

“Gure lekukotza eta eskubideei balioa nola kentzen zaien entzuten dugu, kuantitatiboki gutxiago garelako, eta horregatik ez dugulako egiazko sufrimendu eta mina oztopatu behar: soil-soilik ETAK eragindakoa. Jakina, bakoitzak bere erara baloratuko du biolentzia baten eta bestearen garrantzia. Guretzat, Estatuak eragindako biolentzia bi bider larria da: bere arduradunen ezaugarriengatik (Estatuak eta haren menpekoen betebeharren artean dago pertsona guztien bizitza eta segurtasuna zaintzea), eta haren krimenetatik eratorritako ardura penalaren gradu ia hutsagatik. Batzuentzako zigorra eta besteentzako erabateko inpunitatea edozein eratako parekatzea eragozten duen errealitate duala da.” (Galdeano, 2012, p. 59).

c) Akademian eta hezkuntza arautuan

Hezkuntza arautua eta goi mailako ikerketa (historiografikoa, besteak beste) ezinbesteko tresna dira memoriaren eraikuntzan eta transmisioan, diskurtso egituratu eta koherenteak eskaintzen dituztelako eta hain zuzen ere belaunaldiz belaunaldi berrirakurriak izateko moduko euskarritan (oro har, testu liburu eta artikulua akademikoetan) materializatuta geratzen direlako.

Euskal gatazkaren biolentziaren ondorengo fase honetan, ordea, eremu gatazkatsua dira diskurtso akademikoak ere. Bi eratako zailtasunekin egiten dute topo euskal gatazka armatuaz ikertu edo irakatsi nahi dutenek. Alde batetik, oztopo materialak daude, ikertzaileentzat zaila izaten baita Poliziaren eta bestelako instituzio publikoen artxiboak eskuratzea (Naiz, 2021), zer esanik ez ETAreneko barneko dokumentazioaz; asko ez da argitara atera kriminalizazio berria eragiteko arriskuagatik. Ondorioz, Euskal Herriko biolentziaren fenomenoaren “perspektiba global, ulergarri eta arrazoigarri” batean (Majuelo Gil, 2020a, p. 284) aztertzen duten ikerketa-lan gutxi argitaratu dira, eta horrek, aldi berean, bestelako ikerketa-esparru batzuen garapena oztopatu du, besteak beste, mugimendu sozialen historia edota Euskal Herriko indar politiko zehatzen historia.

Bigarren oztopo nagusiak alderdi deontikoarekin du zerikusia. Historiari buruzko diskurtso nagusi gehienek, hezkuntza arautuko testu liburuek barne, biktimak “lekuko moral” gisara ikerketaren “erdigunean” (Sáez de la Fuente Aldama et al., 2020, p. 25) kokatzen dituzte, eta haien ikuspegia gainerako elementuak ebaluatzeko galbahe bihurtzen da hartara. *Biktimak* kategoriak, euren errepresentatibitateagatik eta kopuruagatik, ETAk eragindako biktimei egiten die erreferentzia kasu guztietan, eta batzuetan gainerako aktoreen biktimei ere bai. Ondorioz, eskola-curriculumaren helburuen artean txertatuta dago iraganaren ebaluazio moral zehatz bat, “biktimekiko elkartasuna” eta “biolentziaren gaitzespena” sustatzen dituen (Nafarroako Gobernua, 2016).

Orain arte Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako diseinatu izan diren programa gutxietako batzuek gatazkaren biktima zuzenak ikasgeletara lekuko moduan eramatea izan dute funts nagusi. Irazuzta et al.-ek politika pedagogiko hauen efektua aztertu zuten, eta ondorioztatu zuten “aurre-politiko” gisara aurkeztutako diskurtso kuestionaezin bat sustatzen zutela, “balio unibertsaletan oinarritua eta identitate politiko zehatzak eta eguneroko eztabaidak gaindi ditzakeena” (Irazuzta et al., 2017, p. 64). Ondorioz, gatazka historikoak interpretatzeko ikuspegi emozional eta despolitizatu bat eratzen dela argudiatzen dute: “Sentimenduak errealitate puru eta esentzial batetik sortuta bezala ikusten dira, botere harreman edota prozesu historikoei lotuta edo haien bidez mediatuta ez baleude bezala” (Ibid.)

Auzi horrek desadostasun politiko handiak eragin izan ditu, eta horrek eragotzi du, besteak beste, 2020ko hamarkadara arte Eusko Jaurlaritzaren menpeko ikastetxe publikoetan euskal gatazkaren historiari buruzko unitate didaktiko adostu bat indarrean jartzea (Velte, 2019a). Ondorioz, gaur egungo nerabeek erabiltzen dituzten Historiako testuliburu gehienek ez dituzte aintzat hartzen Trantsizio osteko gertakari gehienak; edo aipatzen badituzte, gai periferikoa izan ohi dira.

Goi mailako ikerketa akademikoa ere ez dago salbu *errelatoaren batailatik*: biktimen rola inguruko eztabaidek ere baldintzatzen dute esparru hori, hala nola, euren posizioa

argi agertzen duten ikertzaileei leporatu ohi zaien gehiegizko subjektibitateak (berrirakurketa xeheago baterako, ikus Murua Uria, 2015b).

Biktimen zentralitateak ikerketa historiografikorako hainbat arrisku dakartzala ohartarazi du Emilio Majuelo historialariak, foku horrek iraganeko gatazka armatuaren “aho bakarreko balorazio bat” sustatzen duelako, garai historiko bakoitzaren berezitasunak aintzat hartu gabe. Haren arabera, mundu akademikoan analisiaren fokua Frankismotik ETArantz mugitu da, eta hura testuinguru politiko zabalago baten ondorio gisara ikusi ordez, gatazkaren iturburu gisara hartzen da: “Erregimen frankista alboratu egiten da eskubide eta askatasunen urratzaile gisara; ikerketa zatitu, eta frankismoaren azken zatiari eta diktadorearen desagerpenaren osteko urteei lotzen zaie hertsiki, ardatz interpretatibo gisara ezarriz frankismoaren aurkako oposizioaren praktika biolentoei eragindako urraketak.” (Majuelo Gil, 2020a, p. 287).

Legitimitate historikoaren inguruko lehia horrek eragotzi egiten du hainbat diskurtso azalera ateratzea, eta, beraz, Euskal Herrian gaur-gaurkoz ez dago Galtungen Gatazken Teoriaren arabera *bakerako hezkuntza* deitzen zaionik. Bakerako hezkuntza honela definitzen dute Cabezudok eta Haavelsrudak:

“Prozesu liberalizataile bat, zeinetan pertsonak —ez hartzaile gisara, baizik eta subjektu jakitun gisara— euren bizitzari forma ematen dien errealitate soziokulturalari buruzko kontzientzia sakonagoa eskuratzen duten, hala nola, errealitate hori eraldatzeko euren gaitasunari buruz. Horregatik, bakerako hezkuntza askatasunezko praktika bat litzateke, ez dominaziozkoa —ekintza kontziente bat ere bai, aukeratzekoa, jasotze hutsezkoa baino—; kogniziozko ekintza bat, informazioaren transferentzia hutsezkoa bainoago.” (Cabezudo & Haavelsrud, 2007, p. 286)

Ikuspegi honen arabera, gatazka biolentoen osteko eraldaketa demokratiko baterako hezkuntzak kontakizun eta ahots anitzekin konfrontatzea eskatzen du, baita *Besteen* diskurtsoekin ere, eta esperientzia errealak ahoskatzeko plaza eskaini behar du, hezkuntza arautuan zein handik kanpo. Bakerako hezkuntzak tabuaren aurka egin behar du, autozentsura gainditzen laguntzeko eta “helburu kolektiboren bat islatzen duen garapen ez-biolento eta transformatzaile baten bisio kolektibo bat” (Ibid., p. 294) eraikitzeko.

3.6.5.3. Gazteen pertzepzioak gatazkaren gaur egungo aurpegiez

Trantsiziotik ia mende erdi batera, euskal gatazkaren muinean dauden galderetako batzuek ebatzi gabe jarraitzen dute, batik bat Euskal Herriaren eta Espainiaren arteko harreman administratiboari buruzkoek (Ruiz Olabuénaga, 2005, p. 17). Gazteek ezagutu dituzte lurralde-antolaketari buruzko eztabaidak, besteak beste, Kataluniako auziaren bidez eta Gure Esku Dago-ren gisako herri inizatiba baketsuen bidez (Alvarez Ortiz, 2020).

Bestalde, euskal gatazkaren etapa armatuaren ondorio zuzena diren arazo batzuek present jarraitzen dute; besteak beste, Guardia Zibilarren presentziak eragindako elkarbizitza-arazoak (ikergai dugun belaunaldiarentzat erabat sinboliko bihurtutako Altsasuko auzian kristalizatuta geratu dena) eta presoan auziak. 2022ko udaberrian, 190 pertsona zeuden kartzelan ETArekin lotura izatea egotzita, gehienak euskal gatazkaren testuinguruan diseinatutako espetxe-neurri bereziekin. Haietatik hamazazpik gaixotasun larriak zituzten, eta 48ri ez zitzaion aplikatu Europako Batasunaren 2008/909/JAI Erabaki

Markoa, zeinaren arabera estatuek zigorrak batera ditzaketen; ondorioz, 48 presori kondena luzeak betearazi zizkieten (Sare, 2021).

Gazteentzat, ordea, figura ezezagunak dira presoak. Deustuko Unibertsitateak 2016an egindako ikerketa kuantitatibo baten arabera, indiferentzia handia eragiten du arazo horrek gazteen artean: “bakea eta bizikidetzaz sustatzeko” neurrien zerrendan, azken postuan dago presoaren gizarteratzearen inguruko kezka, nahiz eta %39k defendatzen zuten presoaren sakabanaketa amaitzea (Uson Gonzalez et al., 2017, p. 24). Datuok harreman distantziatu bat irudikatzen dute gazteen eta presoaren artean: printzipio politiko gisara defenda ditzakete haien eskubideak, baina ez dago eurekiko enpatiarik.

Ikerketa horren arabera, oro har, “genero indarkeria” eta “munduko pobrezia” bezalako aukerekin alderatuta, oso bigarren mailakoa da euskal gatazkaren ondorioei buruzko kezka gazteen artean. Interesgarria da, nolana ere, galdeketak gazteen informazio iturriei buruz argitaratutakoa: euskal gatazkari buruzko informazioa nagusiki hedabideetatik (%68) eta familiarik (%59) iristen zaie gazteei, hau da, esfera diskurtsibo oso publikoetatik eta oso pribatuetatik; ikastetxeek duten eragina, aldiz, oso txikia da euren pertzepzioan. Gehienek dute desinformatuta egotearen sententzia.

Historia politikoarekiko harreman distantziatu hori desinteres gisara interpretatzeko tentazioa dago aurreko belaunaldien partetik. Arazo horri heltzen dio, hain zuzen ere, gai honi buruz sakonean egin diren ikerketa erreferentzialesak: Larrinaga Renteria et al.-en arabera (2020), euskal gatazkaren historiarekiko mutismo horrek zerikusi gehiago dauka gazteek gaur egungo gizarterean okupatzen duten posizioarekin: biztanleria gaztea proportzionalki geroz eta talde murriztagoa denez, talde hori geroz eta bazterrerago kokatzen dute politika publikoek, eta, alderantziz, “gazteek ere gero eta gutxiago ikusten dituzte beren interesak eta premiak gaur egun nagusi den esparru politikoan, sistema demokratiko liberaletan, islaturik” (Ibid., p. 4). Maila globalean, boterea estatu-erakundeetatik merkatu handi eta deszentralizatuera mugitzen ari den garai batean bizi dira, eta, ondorioz, asko “gero eta deskonektatuago” (Ibid., p. 69) sentitzen dira erakundeetatik.

Ikerketa honek xeheago aztertzen ditu inplikazio politikoaren eta testuinguru pertsonal zein kulturalaren arteko harremana: haren arabera, interes politikoa nabarmen handiagoa da familian ezagutza historiko eta politikoen elkartruke handiagoa egon den kasuetan, batez ere “giro abertzaleetan” hazitako gazteen kasuan (Ibid., p. 28); hau da, familiak jarraitzen du sozializazio politikorako lehenbiziko agentea izaten, nahiz eta gaztaroan bestelako eraginak handitzen doazen. Hezkuntza arautuari gazteek aitortzen diotena baino eragin handiagoa antzematen diote autoreek, batez ere DBH eta Batxilergoko urteetan. Ondorioztatzen dute politika konbentzionalarekiko desatxikimendua ez litzatekeela “despolitizazio” gisara deskribatu beharko, gazteek antolaketa-forma tradizionalatik kanpo topatzen dituztelako euren aktibismoarako espazioak, besteak beste, boluntariotzan edo mugimendu feministan (Ibid., p. 94). Hain zuzen ere, tradizionalki euskal gatazkaren historian bazterrekoagoak izan diren mugimendu eta perspektibetatik ere planteatu dira Euskal Herriko historia hurbilari buruzko kritika eta irakurketa berriak, iraganari buruzko *frame* sozialak aldatzeko helburuz; horren adibide da, esate baterako, biolentzien ugaritasuna ikusaraztea xede duen *Hau ez da gure bakea* leloa (Bilgune Feminista, 2015).

3.6.6. Ebatzi gabeko gatazken arriskua

Garrantzitsua deritzogu gazteon pertzepzioak ikertzeari, ez soilik memoriaren eraikuntzari dagokionez, baizik eta baita etorkizunean azalera daitezkeen bestelako gatazkei aurre hartzeko xedez ere. Ebatzi gabeko erresumin batek, une zehatz batean adierazpen biolentorik ez eduki arren, berriz *lehertzeko* arriskua izan lezake, edo, ostera, gerta liteke belaunaldi berriek indarrean diren akordio sozialei baliorik ez aitortzea (Quintero Mejía & Vasco Montoya, 2007, p. 100). Idealizazioaren arriskuaz ari gara, beraz: iragan armatuari buruz elementu desiragarriak gogora ekartzeaz. Biolentzia politikoarekiko babes “latentea” gatazka bizietarako arrisku faktore da, batez ere taldeen arteko desoreken pertzepzioa handia denean:

“Talde arteko desorekek statu quo-aren kuestionamendua bultza dezakete; (...) taldeko identitate sendoei lotutako ondoezak lidergoa, ekintza kolektiborako frame arrakastatsuak, taldeko elkertasuna eta amorrua, eta alde aurretik existitzen ziren sare sozialen eta antolaketa-sareen aktibazioa errazten dituelako.” (Dyrstad & Hillesund, 2020, p. 4)

Frustrazio hori alderantziz proportzionala da pertzibitutako efikazia politikoarekiko, hau da, norberaren aukera politikoa (kasu honetan, armarik gabeko bidea) arrakastatsua izan daitezkeen perspektibarako (Ibid., p. 22). Norbere helburuak bide baketsuetatik lortzeko perspektibarik ez egotea kaltegarria da taldearen ongizate identitarioarentzat (Fivush, 2010, p. 96), hartutako konpromisoetarainoko bideari buruzko narratiba koherente bat eraikitzea eragozten duelako. Kasu horretan, taldeen arteko harremanak ere polarizatzen dira, gatazkaren bestelako adierazpenetarako arriskua handituz. Erradikalizazioaren diskurtsoak, hain zuzen ere, gazteengan jarri ohi du fokua, haiek muturreko jarrera politikoak hartzeko joera handiagoa dutela auresuposatzen duelako (Lobato et al., 2022).

Nazioarteko hainbat gatazkak ere erakutsi dute maiz ez dela aski bake prozesu ofizial batekin: Ipar Irlandan egindako hainbat ikerketaren arabera, behin betiko su-etenetik hamarkada batera bake prozesuarekiko “desilusioa” zen nagusi 15-16 urteko nerabeen artean (Devine & Schubotz, 2010, pp. 16–17); taldeen arteko identifikazio polarizatuak jarraitzen zuen; eta hezkuntza arautuko irakasleek ez zeukaten tresnarik kontrobertituak izan zitezkeen gaiak ikasgelan lantzeko (Stringer et al., 2010, p. 225). Antzeko pertzepzioak behatu ahal izan dira Balkanetan eta Latinoamerikako gatazka armatuen osteko egoeretan ere: Serbian, gazteek ez diote baliorik aitortzen tokian justizia trantsizionala sustatzeko funtzioa duten Gobernu Kanpoko Erakundeei, eta ez dute sentitzen bake prozesuak eurei mesederik egin dienik (Yerkes, 2004, p. 929): “boteregabetuak” eta “ahotsgabetuak” sentitzen dira. Kolonbian, aldiz, indiferentziazko edo eszeptizismoko jarrerak identifikatu dituzte gatazka armatuaren konponketarekiko eta berradiskidetzaren ideiarekiko (Wilches Tinjacá & Hernández Pérez, 2016, p. 37), edo, areago, ikusi dute iraganari buruzko erabakiek gatazka moral handiak eragiten dizkietela gazteei (Quintero Mejía & Vasco Montoya, 2007, p. 105).

Nazioarteko esperientziek aski arrazoi eskaintzen dizkigute gatazken amaiera lerro ofizialekin eszeptiko izateko. Egoera haiek guztiok ebatzi gabeko gatazka baten sintoma dira, eta Euskal Herrian ere akatsa litzateke pentsatzea gatazkaren alderdi biolentoaren zati bat (biolentziaren alderdi ikusgarriena izanik ere) desagertuta, oinarrian dagoen gatazka politikoa ere desagertu dela. Aitzitik, beharrezkoa da haren alderdi kultural eta sinbolikoari erreparatzea, talde sozialen eta haiek osatzen dituzten kideen pertzepzioetan, diskurtsoetan eta mundu ikuskeretan arreta jarrita.

4. METODOLOGIA

Ikerketa honekin, gertakari biolento edo traumatikoen osteko memoria kolektiboan eraikuntza eta harekin lotutako identitateen garapena ulertzeko balio duen analisi kualitatibo bat egitea izan dugu helburu, diziplinarteko ikuspegi teoriko-metodologiko batetik abiatuta: Ruth Wodakek garatutako Ikuspegi Diskurtsibo-Historikotik (Reisigl & Wodak, 2017; Wodak & Weiss, 2003), oinarri teorikoetan xeheago azaldu duguna.

Ikerketaren galdera nagusietako bat da ea ikerketa hau egiten ari garen garaian (2018-2023) dagoeneko “gatazka osteko lehen belaunaldiaz” hitz egin ote daitekeen Euskal Herrian. Horretarako, beharrezkoa iruditu zaigu auresuposatutako belaunaldi hori definituko lukeen irizpide bateratzaile bat ezartzea. Jaiotza-urte edo adin zehatz bat ezarri ordez, esperientzia bat aukeratu dugu: belaunaldiko kide gehienek gatazka armatuari buruzko oroitzapen zuzenik ez edukitzea (salbuespenak salbuespen), horrek bihurtuko bailituzke ezinbestean memoria mediatu baten hartzaile, eta horrenbestez hasi ahalko ginateke memoria kolektibo baten *berreraikuntzari* buruz hizketan. Bestalde, era honetako memoriak, hau da, *bigarren eskukoak* (Erl, 2017, p. 107), beti dira berreraikuntza narratibo interdiskurtsiboak, eta horrek are pertinateagoa bihurtzen du Diskurtsoaren Analisiaren erabilera metodologikoa.

Ikergai dugun belaunaldiaren esperientziak funtsean aurreko belaunaldiekiko ezberdinak direla argudiatuta, ordea, bigarren eztabaida bat zabaltzen zaigu: *gatazka osteko* edo *gatazkaren* etapa biolento baten osteko diskurtsoei buruz ari bagara, zehazki zein unetan kokatzen dugu etapa horren amaiera? Puntu honetan ere mugari teoriko bat ezartzera behartuta ikusi dugu gure burua, belaunaldi berrien memoria nagusiki kolektiboa eta mediatua dela argudiatzea ahalbidetzen diguna. Horregatik, ETaren jarduera armatuaren amaiera hartu dugu erreferentzia gisara; ez euskal gatazka ETaren jarduera armatuarekin parekatu asmo dugulako, baizik eta uste dugulako haren atentatuen amaierak etapa aldaketa nabarmen bat ekarri zuela euskal herritarren bizi-esperientzietara, eta gatazkaren adierazpen biolentoa murriztu zuen neurri berean eragin zuela aldaketa bat gatazkaren beraren garapenean. Denborazko muga zehatza ezartzerakoan, ez ditugu bakarrik aintzat hartu ETaren jardunaren amaiera ofizialtzat jo izan diren datak: 2011ko urriaren 20ko su-eten adierazpena edota 2017ko desarmeko ekitaldia (Esnaola, 2017) zalantzarik gabeko inflexio puntuak izanik ere, gure parte hartzaileen bizi-esperientzia hartu dugu erreferentziazko denbora lerrotzat (ikus 1. irudia). Horregatik, talde armatuaren azken atentatu planifikatuan, 2009ko uztailearen 30ean egindakoan (Lopez Adan, 2021b, p. 801), kokatu dugu gure muga. Inflexio puntu hauetako edozein ezartzea aukeraketa metodologiko bat da; jakin baitakigu ETaren desarmearen inguruko urteek bere horretan osatzen dutela garai politiko berri baterako trantsizioa, beste hainbat aldaketa esanguratsurekin batera, besteak beste, ezker abertzalearen legeztatzearekin eta mugimendu sozial berrien artikulazioarekin batera.

Nolanahi ere, argudia dezakegu euskal gizarteak ez duela biolentzia mota baten (ETarenaren) espresiorik bizi izan 2009tik. Ondorioz, 2009an haur zirenak gonbidatu ditugu ikerketan parte hartzera, aintzat hartuz gehienek ez dutela oroitzapen zuzenik izango (edo, izatekotan, oso gutxi izango dituztela) aurreko urteetako gatazka armatuaz. Gure ikerketako elkarrizketatu helduenak hamalau urte zeuzkan une hartan; gazteenak, aldiz, sei.

Tesi honen helburua ez da Euskal Herriko gazteen iritzi eta ezagutzei buruzko ikerketa errepresentatibo bat egitea; horretarako, izaera kuantitatiboko metodoak erabiliko genituzkeen, hala nola, inkestak eta galdetegi zabalak. Horren orde, lagin murriz baten sakoneko azterketan oinarritutako ikerketa kualitatibo bat planteatu dugu, gazte hauek iraganari buruzko diskurtsoak eraikitzerakoan erabiltzen dituzten mekanismo psikolinguistikoak ulertzeko balioko duena. Horrenbestez, gure elkarrizketetan behatu ahal izan ditugun narratibak ez dira orokortzeko modukoak, baina argigarriak izan daitezke zabala eta askotarikoa den eremu diskurtsibo baten zati bat ulertzeko, hala nola, pertsonen euren errealitate sozialaren interpretaziorako erabiltzen dituzten baliabide diskurtsibo-kognitiboen funtzionamendua gehixeago argitzeko.

4.1. IKUSPEGI DISKURTSIBO-HISTORIKOA, METODO GISARA

Gazteok sortutako ahozko diskurtsoak aztertuz, iraganari buruz orainaldian eraikitzen dituzten *mental models* edo buruko ereduak ikusaraztea izan da gure helburua, hala nola, euren posizionamendu-estrategiak eta identitateen eraikuntza diskurtsiboa. Helburu horrek hainbat diziplinatako teoriak eta hainbat mailatako metodologiak batzera behartu gaitu, Diskurtsoaren Analisiaren ikuspegi kognitibo-konstruktibistak eskatzen duen perspektiba historiko eta soziala ere aintzat hartzeko.

Metodologikoki, zientzia politikoak, semiotika, kultur ikasketak, diskurtsoaren analisia eta ikerketa historikoa bateratzen ditu Ikuspegi Diskurtsibo-Historikoak (Wodak, 2011, p. 164). Reisigl eta Wodakek (2017, p. 96) ikerketa-prozesuan zehar “errekurtsiboki” erabiltzen diren zortzi urrats aipatzen dituzte:

1. Aldez aurretiko ezagutza teorikoaren kontsulta eta aktibazioa.
2. Ikerketarako datu eta testuinguruko informazio bilketa.
3. Ikerketa-helburuen araberako datuen aukeraketa eta lanketa, betiere etnografia eta landa-lana biltzen dituen (Wodak, 2001, p. 69).
4. Ikerketa-galderen eta hipotesien (bir)formulazioa.
5. Analisi pilotu kualitatiboa.
6. Kasu-ikerketa zehatzak.
7. Emaizten interpretazioa eta kritikaren formulazioa.
8. Emaizta analitiko zehatzen aplikazioa.

Guk ere urrats hauek jarraitu ditugu ikerketa-prozesuan zehar, ondorengo kapituluan xeheago azalduko ditugunak:

1) Ikergai dugun arazoa ulertzeko beharrezkoak diren testuinguruko datu historiko eta sozialak Oinarri Teorikoetan esplizitatu ditugu. Horretarako analisi dokumentala (literatura akademikoa eta prentsa, nagusiki) eta informatzaile adituekin egindako elkarrizketak erabili ditugu, hala nola, nazioarteko bestelako ikerketen erreferentziak. Tesi honen helburua ez da azterketa konparatibo bat egitea, baina haietan oinarrituta hainbat hipotesi edo intuizio formatu ahal izan ditugu ikerketaren hastapenetan, beharbada etorkizunean azterketa konparatibo zabalagoi bide eman diezaieketenak.

2-3) Analisisarako datuak ahozko elkarrizketen bidez sortu eta Diskurtsoaren Analisiaren bidez aztertu ditugu nagusiki, baina, triangulazio printzipioari jarraikita, ikerketa etnografikoarekin osatu dugu analisi hori: hainbat ekitaldi

publikotan behaketa parte hartzailea egin dugu, landa-koaderno bat eraman dugu prozesu osoan zehar, eta lotura duten idatzizko hainbat diskurtso aztertu ditugu.

4) Analisi pilotu gisara, sei parte hartzaileko kasu azterketa bat egin genuen 2018an Oñatin (Gipuzkoa), bi hilabeteko egonaldi akademiko bat baliatuta. Emaitzak bi urte geroago argitaratu ziren artikulu akademiko formatuan (Velte, 2020).

5) Lehenbiziko hurbilketa horrek gure ikerketaren hainbat alderdi metodologiko doitzera bultzatu gintuen, hipotesiak finduz eta helburuak zehaztuz. 4.2.2. *Parte hartzaileekiko harremana* atalean azalduko ditugu aldaketa hauek.

6) Oñatiko esperientziaren ostean, Euskal Herriko gainerako herri, hiri eta ikastetxeetara jo genuen tesi honen corpusa osatzen duten beste 36 elkarrizketen bila. Hurrengo ataletan azalduko ditugu xeheago hauen aukeraketa, parte hartzaileen soslaietan eragiten duten aldagaiak, elkarrizketen egitura eta bestelako alderdiak.

7) Emaitzen interpretaziorako, Diskurtsoaren Analsiak planteatzen duen lau mailako analisia erabili dugu, azterketa linguistiko xehea, harreman intertestual eta interdiskurtsiboen analisia eta testuinguru soziopolitikoaren azterketa bateratzen dituen uneoro.

8) Identifikatutako patroi eta hutsuneetan oinarrituta, egungo paisaia diskurtsiboan gazteak memoriaren eraikuntzan inplikatzeko baliagarri izan daitezkeen hainbat proposamen eta hausnarketa planteatu ditugu tesi honen amaierako atalean.


4.2. SAKONEKO ELKARRIZKETAK ETA DISKURTSOAREN ANALISIA

Ikerketa honen elementu zentrala 42 parte hartzaileekin egindako sakoneko elkarrizketak eta haietan identifikatutako baliabide diskurtsiboen azterketa zehatza izan dira. Bere izaera kognitibista-konstruktibistagatik, gure helburuetara hobekien egokitzen den ikuspegi metodologikoa da Diskurtsoaren Analsia. Haren oinarritzko ideietako bat da ekintza komunikatiboak ezinbestean garatzen direla euren testuinguruko harreman politiko eta sozialen eraginpean; eta, aldi berean, hizkuntzak prozedura psikosozialei buruzko informazio baliagarria eskaintzen digula, giza pentsamendura iristeko daukagun *ate* urrietako bat delako. Ondorioz, gazteek nola eta zer gogoratzen duten jakin nahi badugu, ezinbestean aztertu behar ditugu eurek sortzen dituzten diskurtsoak eta haietan eraikitzen dituzten egiturak, baina betiere diskurtso horietan eragina izan dezaketen testuinguruko faktoreak ahanzi gabe.

4.2.1. Lagina: Parte hartzaileen adina, jatorria, generoa eta bestelako aldagaiak

1996 eta 2003 artean jaiotako 42 gazterekin egin ditugu sakoneko elkarrizketak, banaka zein taldeka. 19 parte hartzailek banakako elkarrizketak egin dituzte; 9k taldekoetan hartu dute parte; eta 14k, bi formatuetan. Elkarrizketek 30 eta 75 minutu arteko iraupena izan dute oro har.

Elkarrizketak 2018ko maiatzetik 2020ko urtarrilera bitartean egin ditugu, parte hartzaileek 15 eta 24 urte artean zeuzkatenean. Nolanahi ere, laginaren hiru laurdenak (%76) 2000 eta 2003. urteen artean jaiotako gazteek osatu dituzte (4. irudia), hau da, elkarrizketen unean 16 eta 21 urte artean zeuzkatenek.



4. irudia: Parte hartzaileak, jaiotza-urtearen arabera.

Sarreran azaldu dugun moduan, ikerketa honen helburua ez da Euskal Herriko gazteen errepresentatibitatea bilatzea; era horretako ikerketa kuantitatibo batek askotarikoa eta konplexua den kolektibo bati buruzko ondorio orokor eta lausoegiak aterako lituzke, pertsonak bizi dituzten errealitate zehatzekin zerikusi gutxi leukaketenak. Nolanahi ere, eta aniztasun horretatik ahalik eta gehien jaso asmoz, garrantzitsua iruditu zaigu lurraldetasunaren eta generoaren arabeko oreka bat mantentzea. Ondorioz, bi faktore horiek aintzat hartuz egin dugu laginketaren planifikazioa. Ikerketaren hasieran, 40 elkarrizketa egiteko helburua ezarri genuen, genero orekari erreparatuta, eta, posible izanez gero, identitate ez-binarioak txertatuta. Azkenean, 42 gazte eta nerabe elkarrizketatu ditugu; haien artean, 21 emakumezko gisara identifikatu dira eta beste 21 gizonezko gisara.

Jatorri geografikoari dagokionez, mugaren alde bateko zein besteko gazteak gonbidatu ditugu ikerketara, euskal gatazka armatuak batik bat eragin zuen gunen geografikoak aintzat hartzeko asmotan. Hori dela eta, beharrezkoa iruditu zaigu Ipar Euskal Herriko gazteen perspektibak ere jasotzea, besteak beste, Baiona Ttipiko kale bat jotzen delako euskal gatazkaren testuinguruan 1980ko hamarkadatik hona atentatu kontzentrazio handiena sufritu duen gunetzat (Zabalza, 2017, p. 155).

Hortaz, Euskal Herriko biztanleen lurraldekako banaketa hartu dugu irizpide gisara, eta lurralde bakoitzeko biztanleriari dagokion ehuneko berbera aplikatu diogu lurralde horri dagozkion parte hartzaileen kopuruari. Ondorioz, 1. taulan azaltzen den moduan planifikatu ditugu hasiera batean egin asmo genituen 40 elkarrizketak. Ikerketak aurrera egin ahala, ordea, informatzaile batek bi parte hartzaile gehiagorekin kontaktatzeko aholkatu zigun, haien esperientzia konkretuengatik datu kualitatibo baliagarriak eskaini

zitzaketelakoan. Bi elkarrizketa erantsi horiek zertxobait aldatu zuten laginaren osaera, biak gipuzkoarrak izanik:

Euskal Herriko biztanleria osoa: 3.140.300 (Gaindegia, 2020)					
Lurraldea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Ipar EH
Biztanleria	328.400	1.148.600	719.300	643.200	300.900
Biztanleria osoaren %	10,45	36,57	22,91	20,48	9,58
Ikerketan dagozkion parte hartzaileak (% 100 = 40)	4	14	10	8	4
Egindako elkarrizketak, generoaren arabera	1 emak. 3 giz.	8 emak. 6 giz.	7 emak. 5 giz.	5 emak. 3 giz.	0 emak. 4 giz.

1. taula: Elkarrizketen planifikazioa, lurraldeka.

Gaindegia Euskal Herriko Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Behategiaren aholkua bilatu dugu elkarrizketen planifikazioa egiterakoan. Han, errealitate sozial, politiko eta linguistikoaren aniztasuna aintzat hartzeko eta honako irizpideei erreparatzeko gomendatu digute:

- Sentsibilitate politikoaren arabera banaketa: Ipar Euskal Herrian, kostaldea eta barnealdea bereizten dira; Hego Euskal Herrian, abertzaleak nagusi diren lurraldeak eta gainerakoak (Nafarroa, Iruñetik hegoalderantz; eta Arabako Errioxa).
- Egoera linguistikoaren arabera: euskara nagusi den udalerriak eta erdarak nagusi direnak.
- Herri eta hirien tamaina, biztanleriaren arabera: txikiak (<10.000), ertainak (10.000-20.000) eta handiak (20.000<).

Jakin badakigu hizlarien jatorriak ez duela irizpide hauek hizlariaren kasu zehatzean betetzen direnik bermatzen; parte hartzaile bat bizi daiteke gune ez abertzale batean eta abertzalea izan; edo giro euskaldun batean nagusiki erdaraz bizi. Horregatik, arreta handiagoa ipini diogu kasu bakoitza eta hartan eragina izan dezaketen faktore soziokultural eta politikoak sakonean aztertzeari. Nolanahi ere, esan dezakegu elkarrizketatuen jatorrizko hiri eta herrien artean bermatu dugula Gaindegitik aholkatutako aniztasuna:

Elkarrizketatuen jatorrizko hiri eta herrien adierazle nagusiak (2021)

Elkarrizketatuen bizilekua	Tamaina	Batez besteko errenta	Euskararen erabilera soziala	Gehiengo abertzalea
Abadiño	Txikia	22.558	% 17,5	Bai
Altsasu	Txikia	19.812	% 2,8	Bai
Anhauze	Txikia	19.851	% 22,7	Bai
Arbizu	Txikia	21.878	% 61,8	Bai
Arrasate	Handia	23.520	% 19,5	Bai
Barakaldo	Handia	18.750	% 1,9	Bai
Basauri	Handia	18.249	% 3,1	Bai

Bilbo	Handia	22.985	%3,4	Bai
Donostia	Handia	27.297	%10,2	Bai
Etxarri Aranatz	Txikia	21.045	%45,8	Bai
Gasteiz	Handia	22.111	%3,7	Ez
Getxo	Handia	30.050	%4,9	Bai
Hendaia	Ertaina	21.861	%0,4	Ez
Lekeitio	Txikia	21.024	%57,6	Bai
Markina-Xemein	Txikia	21.532	%50,2	Bai
Mutriku	Txikia	21.693	%58,2	Bai
Oñati	Ertaina	26.391	%46,3	Bai
Tafalla	Ertaina	19.895	%0,2	Ez
Urnieta	Txikia	21.367	%20,4	Bai

2. taula: Elkarriketatuen jatorrizko hiri eta herrien adierazle nagusiak. Iturriak: Gaindegia, Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, INSEE, UEMA.

4.2.2. Parte hartzaileekiko harremana

Ikerketan parte hartzeko prest zeuden gazteekin kontaktatzeko, hiru kanal nagusi erabili ditugu: hezkuntza zentro formalak (ikastetxe eta fakultateak), aisialdi guneak eta Internet. 18 urtetik beherako parte hartzaile gehienak euren ohiko ikastetxeen bidez kontaktatu ditugu, zentro horietako irakasle edota orientatzaileen laguntzarekin. Honako ikastetxeetan egin ahal izan ditugu bakarkako zein taldeko elkarrizketak:

- Bernat Etxepare Lizeoa (Baiona): 4 parte hartzaile.
- Urbi BHI (Basauri, Bizkaia): 4 parte hartzaile.
- Trueba BHI (Barakaldo, Bizkaia): 4 parte hartzaile.
- Mendizabala LHII (Gasteiz): 5 parte hartzaile.
- Zuazola-Larraña BHI eta Elkar Hezi ikastetxea (Oñati, Gipuzkoa): 6 parte hartzaile.
- Altsasu BHI (Altsasu, Nafarroa)⁴: 4 parte hartzaile.

Gure jatorrizko planifikazioan, eskola publikoetara soilik jotzeko asmoa genuen, saihestu nahi genuelako curriculumen arteko aldea edota ikastetxe desberdinei atxiki ohi zaizkien ezaugarri soziokulturalak aldagai bihurtzea. Ikertzailearen mugek eta izena emateko bestelako aukerek, ordea, irizpide hau malgutzera behartu gintuzten. Kasu horietako bat izan zen Baionako Bernat Etxepare Lizeokoa: 2018an, Ipar Euskal Herrian euskara hutsezko lizeo bakarra zenez eta gure hizkuntza-gaitasunen mugen ondorioz, bertan egin genituen Ipar Euskal Herriko elkarrizketa guztiak, titularitate pribatukoa izan arren. Antzera gertatu zaigu aisialdi guneen bidez edo Interneteko formularioaren bidez ikerketan izena eman dutenekin ere: parte hartzeko gonbidapena irekia zenez gero, ikastetxe pribatu eta kontzertatuetako ikasle batzuek ere eman dute borondatez izena.

⁴ Ikerketaren helburuetako bat zuzeneko esperientzien eta mediatutako memorien berreraikuntzaren arteko aldea ikertzea ere badenez, garrantzitsua iruditu zaigu ikergai dugun belaunaldiarentzat bereziki esanguratsuak diren erreferentziei buruz ere galdetzea. Euskal gatazkaren testuinguruan, Altsasuko auzia (Agirrezabal Moreno & Intxusta Pagola, 2018) da, alde handiarekin, belaunaldi honek zuzenean esperimentatu duen gertakari traumatikoena, euskal gatazkaren gaur egungo adierazpenen sinbolo nagusietako bat bihurtzeraino. Horregatik, errebantziatzkoa iritzi izan diogu elkarrizketetako batzuk herri horretako institutuan egiteari. Gainerakoak ausaz aukeratu ditugu, baldintzak betetzen zituzten aukeren artean.

Gerora, ikerketak aurrera egin ahala, testuinguru soziokultural anitz horietako elementu batzuk informazio-iturri baliagarri izan zitezkeela ohartu gara, esate baterako, migraziozko historia familiarra izatea edo ez. Ondorioz, gazteon narratiben eraikuntzan eragina izan dezaketen kategoria zenbaitekin gurutzatu ditugu elkarrizketetatik jasotako ahozko datuak: generoaz eta lurraldeaz gain, migraziozko historia, ingurune politizatua izatea edo ez, identifikazio politikoa (*abertzalea / ez abertzalea / ezkerrekoa / eskuinekoa / zentrokoa / definitugabea* kategorien arabera sailkatuta) eta elkarrizketarako hautatutako hizkuntza izan dira aldagai horiek. Azken hau aintzat hartzeko moduko aldagaia iruditua zaigu, besteak beste, euskararen erabilerak joera abertzaleko boto-ohiturekin duen lotura ikertu izan delako (Garmendia, 2015, p. 38). Aldagaiok guztiok aztertutako datuetan eragin esanguratsua izan duten kasuetan, hala esplizitatu dugu analisiari dagokion atalean.

Denera, DBH eta Batxilergoko bost ikastetxetan, Lanbide Heziketako zentro batean, unibertsitateko campus batean (EHUren Leioako campusean) eta aisialdi gune batean egin ditugu elkarrizketak. Unibertsitateko ikasle gehienak (11tik 9) Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak ziren (titularitate publikokoa), eta beste biak Deustuko Unibertsitatekoak (titularitate pribatua); Gizarte Zientzietako (Zientzia Politikoa, Zuzenbidea, Enpresaritza eta Lehen Hezkuntza) eta Osasun Zientzietako (Bioteknologia) graduako ikasleak izan dira nagusiki. Kasu horietan ere, irakasle baten bidez egin dugu lehenbiziko kontaktua, baina horren ondoren, elkarrizketetarako hitzorduak eskola ordutegietatik kanpo izan dira, parte hartzaile bakoitzarekin adostu moduan. DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxeen kasuan, aldiz, irakasle edo orientatzaileek zentroan bertan antolatu dizkigute hitzorduak, ikasleen eskola-ordutegiaren barruan. Zentro horietako parte hartzaile gehienak adingabeak zirenez, egokiago ikusi dugu ikastetxeen bitartekaritza baliatzea. Berdin jokatu dugu aisialdi-guneen bidez antolatutako elkarrizketekin.

Elkarrizketatzailearentzat, ezezagunak izan dira parte hartzaile guztiak. Euren borondatezko parte hartzea bilatu dugu, eta horretarako, kontaktu-hartzearen lehen fasean gonbidapen gutunak helarazi dizkiegu irakasleen bidez (gutunaren eredu bat amaierako eranskinetan topa daiteke). Bertan, ikerketaren xedeak eta parte hartzeko baldintzak zehaztu zaizkie, hala nola, euren datuen trataera anonimoari buruzko informazioa eta datuak soilik ikerketa-helburuetarako erabiltzeko konpromisoa.

Nolanahi ere, bilakaera bat egon da parte hartzaileei elkarrizketen aurretik emandako informazio kopuruan. Lehenbiziko saioetan, gonbidapen gutunean esplizitatu egiten genuen ikerketaren helburua zela “15 eta 20 urte arteko gazteek Euskal Herriko historia hurbilaz —batez ere *euskal gatazka* deitu izan zaionaz— duten iritzia” ezagutzea. Gutun hori erabili genuen Altsasuko Institutuko, Baionako Bernat Etxepare Lizeoko eta Oñatiko hiru ikastetxetako ikasleak gonbidatzeko. Hiru saioetan identifikatu ahal izan genuenez, parte hartzaile gehienak gaiari buruzko interes handia zuten gazteak ziren, ingurune politizatuetatik zetozenak, oro har diskurtso egituratuak eta inplikazio handiz modalizatuak osatzeko gai zirenak; gehienak, mutilak (Baionako irakasle batek azaldu zigun ezinezkoa izan zitzaioala gai horri buruz hitz egiteko prest zeuden neskak topatzea). Hurrengo kontaktu-hartzeetan, ezabatu egin genituen gatazka armatuari erreferentzia esplizitua egiten zioten datuak, eta soilik “gazteek Euskal Herriko historia hurbilaz duten iritzi eta jarrerei” buruzko ikerketa zela azaldu genien. Une horretatik aurrera izena eman zutenen artean, nabarmen aldatu zen parte hartzaileen perfila: gehienak ez zetozen

testuinguru politizatuetatik, eta euren motibazio nagusia “ikerketan laguntzea” zen. Emakumezkoen parte hartzea ere nabarmen igo zen.

4.2.3. Alderdi etikoak: hizkuntzen erabilera eta baimen informatua

Elkarrizketen edukia ahalik eta gutxien baldintzatzearren, parte hartzaileek aukeratutako hizkuntzan egin ditugu saioak. 25ek nagusiki euskaraz egitea hautatu dute, 15ek gaztelaniaz, eta bik antzera erabili dituzte bi hizkuntzak interakzio berean. Taldeko elkarrizketen artetik, bi izan dira euskaraz eta hiru gaztelaniaz. Datuak transkribatzerakoan, mantendu egin ditugu jatorrizko hizkuntzak eta hizkuntzen arteko jauziak, ahozko diskurtsoaren berezko espresibitatea mantentze aldera.

Parte hartzaile adingabeak elkarrizketatu aurretik, euren guraso edo legezko tutore batek sinatutako baimen informatuak bildu ditugu. Zinpeko aitorten orrian, honako datuak esplizitatu dira:

- Ikerketaren nondik norakoak: tesiaren izenburua, ikertzailearen eta zuzendarikideen izenak, erakunde babesleen aipamena eta haren aurreikusitako iraupena.
- Adingabeen parte hartzeari buruzkoak: elkarrizketen izaera (banakakoak eta/edo taldekoak), parte hartzea borondatezkoa izateko baldintza, eta hizkuntza hautatzeko aukera.
- Datuen trataera eta konfidentzialtasuna: atal honetan, soinuaren grabaketari buruz informatu zaie adingabe eta gurasoei, datuen transkripzioa errazteko helburuz; halaber, agindu zaie ez dela irudirik hartuko. Bestalde, ikertzaileak konpromisoa hartu du parte hartzaileen nortasunari dagozkion datuak anonimotasunez tratatzeko, datu esanguratsuenak interpretatu ahal izateko kodeak erabiliz eta egiazko izenik ez argitaratuz. Datuok soilik ikerketa-helburuetarako erabiliko direla ere zin egiten da.
- Balizko eragozpenak: Ikerketan parte hartzeko, ikasleak euren eskola orduetatik liberatu beharko direla esplizitatzen da, eta elkarrizketak ikastetxean bertan izango direla.
- Balizko irabaziaz: elkarrizketatuek uko egin diote ikerketa honetan parte hartzeagatik diruzko ordainik edo bestelako ordain materialik jasotzeari. Nolanahi ere, euren parte hartzeak euren inguruko errealitate soziala ulertzeko datuak sortzen lagunduko duenez, tesiaren amaieran ikerketaren ondorioen berri jasotzeko aukera eskaini zaie. Hau gauzatu ahal izateko, tesia ontzat jo eta argitaratu ostean jatorrizko bitartekaritza eskaini ziguten ikastetxeekin jarriko gara harremanetan, 6. Ondorioak eta hausnarketak kapitulua jaso nahi duten galdetzeko.
- Kontakturako datuak: amaitzeko, adingabeei edota euren gurasoei aukera eskaintzen zaie ikertzaile nagusiarekin edozein unetan kontaktatzeko, ikerketarekin zerikusia duten zalantzak argitzeko.

Adinez nagusi ziren elkarrizketatuen kasuan, aldiz, elkarrizketak grabatzeko baimena ahoz eskatu diegu elkarrizketan bertan. Haien kasuan, adingabeen modu berean tratatu ditugu datu pertsonalak.

4.2.4. Elkarrizketen egitura

Parte hartzaileekin banaka egindako saioetan, erdi-egituratutako elkarrizketen formatua lehenetsi dugu: elkarrizketa guztiak gidoi berberarekin abiatu ditugu, baina gero, kasu bakoitzaren arabera, elkarrizketatuaren testuinguruaren eta berak mahai gaineratutako mintzagaien ildotik, egokitu egin dugu elkarrizketa; tokian tokiko erreferentziak ere aldatu egin ditugu kasu bakoitzean. Galderen zehaztasuna ere aldatzen joan da kasuan kasu. Hala ere, elkarrizketa guztiak formulazio oso zabaleko galderekin abiatu ditugu, elkarrizketatuei euren eskema mentalak ahalik eta askatasun handienarekin berreraikitze aukera emateko; gerora, narratiba horien gainean joan gara gai zehatzagoei buruz galdetzen.


Gure abiapuntuko gidoi orientatiboak, besteak beste, aurkezpen labur bat, atal teknikoago bat, *gatazka* kontzeptuari buruzko galderak eta euren esperientzia eta jarrera pertsonalen inguruko galderak jasotzen zituen. Erabilitako gidoi orientatiboaren erreproduktzio zehatzago bat eranskinetan topa daiteke.

Mintzagai hauetako askoren aipamena elkarrizketatzailearen pertzepzio subjektiboan oinarrituta egin dugu: oro har, sozialki gehien ezagutzen edo gogoratzen diren gertakariak jotzen ditugunak aukeratu ditugu. Gertakariotako gehienak elkarrizketatuak jaio aurretik edo gogoratzeko gaitasuna eduki aurretik izan zirenez, espero genuen haiei buruzko ezagutza urria izango zutela, eta horren kontzientziak lotsarazi edota isiltzera bultzatuko zituela. Horregatik lehenetsi dugu atal hau galdera irekiekin abiatzea eta bertan eman dituzten erantzunak *feedback* positiboaren bidez balioztatzea. Gure intuizioak baieztatu ditugu gerora: ezagutzen ez dituzten gertakariak buruz galdetuta, nabarmen urduri eta deseroso agertu dira elkarrizketatu gehienak. Zenbait kasutan, beharrezkoa izan da konfiantza eskaera berri bat elkarrizketatzailearen partetik, elkarrizketaren beraren kodeak berrezarrituz: “Lasai egon, gertakari hauek zu jaio baino lehenagokoak dira, eta normala da ez ezagutzea”.

Ondoren, banakako elkarrizketetan jasotako datuak kontrastatzeko asmoz, taldeko saio batzuk ere antolatzeke beharra ikusi dugu, haietan hizlarien posizionamendua argiago beha zitekeelakoan. Taldeko elkarrizketan edo *focus group*-ean, diskurtsoa etengabeko interakzioan eraikitzen da, eta metodo erabilgarria da iraganari buruzko *frame* edo interpretazio patroien “berreraikuntza, komunikazioa, negoziazioa eta sinkronizazioa” (Bietti, 2011, p. 188) aztertzeke.

Nabarmendu beharra dago, nolahi ere, elkarrizketa hauek, tonu informalean gauzatu arren, ez direla testuinguru natural batean sortzen den eguneroko interakzio bat. *Focus group*-ak xede zehatz baterako elkartzeko dira: gai zehatz baten inguruan datuak sortzea, elkarrizketa gidatzen doan moderatzaile baten eskakizunei jarraia (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 164). Hark, ahalik eta rol diskretuena hartu arren, baldintzatu egiten du interakzioa, eta, beraz, analisi diskurtsiboan ere aintzat hartzeko moduko interferentzia bat da.

Hasiera batean, parte hartzaile bakoitzari banakako elkarrizketa bat egiteko asmoa geneukan, eta gero bere adinkideekin batera taldeko eztabaida edo ariketa kolektibo batzuetan inplikatuazaztekoa; hartara, lehenbiziko saioan azaleratutako posizionamendu eta jarrerak bigarren saioko testuinguruan nola aldatzen edo indartzen ziren behatu nahi genuen. Azkenean, denborazko bateraezintasunengatik, erabaki pertsonalengatik edota



6. irudia: Denbora-lerroaren berreraikuntza digitala (gazteen formulazioak mantenduta).

b) Artelanaren ariketa. Dinamika honen lehenbiziko atalean, prentsako artikulua bat erakutsi diegu parte hartzaileei (Naiz.eus, 2018). Bertan, Koldobika Jauregiren ‘Aizkora eta Arbola’ irudia ageri da, hain zuzen ere *Gara* egunkariak 2017ko apirilaren 9an (ETAren desarmarearen erakustaldiaren biharamunean) azalean argitaratu zuena. Irudian, lurperatutako aizkora bat ikus daiteke, beste muturrean zuhaitz bihurtzen dena.



7. irudia: ‘Aizkora eta Arbola’ (Koldobika Jauregi)

Gazteei irudia komentatzeko eskatu diegu ariketaren lehenbiziko atalean. Ondoren, honako galdera planteatu diegu: “Nola irudikatuko zenukete zuek euskal gazteak, artelan baten bidez?”.

Ariketa hau uste baino emankorragoa suertatu da lehenbiziko bi saioretan, eta, ondorioz, taldeko elkarrizketa guztietan errepikatu dugu. Ikerketaren beste atal batzuetan ere behatu ahal izan dugunez, ikusizko lengoia indar handiko tresna da gazteen artean, eta kreatibitatea, haurtzaroko elementu garrantzitsua; ez da

harritzekoa, hortaz, irudi baten inguruko eztabaidak inplikazio handiagoa eragitea gazteenen artean, galdera teorikoagoek baino.

- b) Aktualitatea komentatzea. Aurreko ariketaren antzera, argitalpen edota erreferentzia garaikideak eskaini dizkiegu gazteei, irakurri eta euren artean komenta zitzaten eskatuz. Pieza laburrak izan dira gehienetan: aktualitateko gertakariren bati buruzko albiste bat, eduki politikodun lelo bat edota kultur produktu zehatz bat. Ariketa hauen helburua izan da material horietan problematizatzen diren gai zehatzei (omenaldiak, umorearen erabilera, idealizazioa...) buruzko eztabaida sustatzea eta parte hartzaileek interakzio horretan erabiltzen dituzten estrategia erretoriko eta linguistikoak behatzea. Banakako elkarrizketetan ere behatu ahal izan dugunez, tokiko gertakariak prominentzia handia hartzen dute gazteek gatazkaren historiari buruz eraikitzen dituzten diskurtsuetan; horregatik, euren inguruko gertakariak ere izan dira eztabaidagai hauetako bat.
- c) Sufrimenduaren mapa. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Bake Prozesua Indartzeko Foro Sozialak 2018ko maiatzean Bilbon antolatutako eztabaida saioaren ondotik (ikus, aurrerago, 4.3. *Ikerketa etnografikoa* atala), han erabilitako *Sufrimenduaren mapa* deitutako metodologia txertatu genuen gure ikerketan. Ariketa honetan, gatazka armatuek eragiten dituzten lau eskubide-urraketa mota identifikatzea da helburua: “Bizitzeko eskubidea”, “Osotasun fisiko-psikikoa”, “Eskubide zibil eta politikoak” eta “Ondorio ekonomikoak”. Ondoren, parte hartzaileei burura datozkien kontzeptu, izen eta gertakariak kokatzeko eskatzen zaie. Gure kasuan, ariketaren helburua sufrimendu motak identifikatzeaz gain memorian iraun duten aktore zehatzak identifikatzea ere bazenez, interesgarria iruditu zaigu gazteok sufrimendu horiekin lotzen dituzten figurak ere txertatzea. Horregatik, bosgarren atal bat erantsi diogu gure Sufrimenduaren Mapari: *Biktimak*. Gerora, atal horixe izan da erreferentzia gehien bildu dituen. Ariketa honen lehenbiziko zatia banakakoa da: nor bere erreferentziak kokatzen ditu besteenen alboan; ez dago, beraz, hasierako negoziatorik (denbora-lerroaren ariketan bezala), *a posteriori*-ko iritzi-trukea baizik. Aurretik banaka elkarrizketatutako sei gazteko talde batekin egin dugu ariketa hau, eta behatu ahal izan dugu gazteek, euren erreferentziak kokatzerakoan, lehendik eraikita zeuzkaten eredu mentalei eta narratibei eusten zietela, baina azken emaitza, mapa osoa, ez zela izan guztiek esandakoaren batura hutsa, irudi anitzagoa baizik: eztabaidaren eta albokoen erreferentziak entzutearen ondorioz, lehendik aipatu gabeko elementuak ere txertatu zituzten. Horrek honako hipotesira eraman gaitzake: gogoratze-ariketa diskurtsibo kolektibo batek, parekotzat jotzen diren beste parte hartzaileekin batera egiten denean, alde batetik indar ditzake posizio pertsonalak, baina aldi berean enpatia ere susta dezake.

4.2.5. Datuen kategorizazioa eta azterketa

Parte hartzaileekin adostu bezala, elkarrizketetan sortutako ahozko datuen soinua grabatu egin dugu. Ez dugu irudirik hartu, datuak erregistratzeko metodo inbasiboagoak saihestu nahi izan ditugulako. Ikus-entzunezko erregistrorik gabe ekintza diskurtsiboaren alderdi ez-berbalak galtzeko arriskua zegoela jakin arren (proxemika eta kinesia), parte

hartzailen konfiantza erraztuko zuketzen metodoak lehenetsi ditugu (grabagailua eta elkarrizketatzailearen eskuzko oharrak), bideokamera batek hizlariengan uzkuratzen edo lotsa areagotu zitzakeela pentsatuta. Ondorioz, ekintza komunikatiborako esanguratsuen iruditu zaizkigun keinu eta gorputzezko jarrerak idatziz jaso ditugu ohar gisara.

Grabatutako ahozko datuak transkribatzerakoan, ez dugu transkripzio fonetiko zurruna egin, kasu honetan egitura morfemiko eta gramatikalaz gairako eduki eta esanahisistematizazio jarri dugulako arreta. Hala ere, mantendu egin ditugu diskurtsoaren eraikuntza funtzio bat betetzen zuten adierazpen para-berbalak (“mmm...”, “e...”), autozuzenketak eta hizkuntza-jauziak. Azken hauek, izan ere, hizlariarentzat erabat naturalak eta sarritan inkontzienteak izan arren, funtzio espresibo bat betetzen dute komunikazioan, eta hizlariak lortu nahi duen efektuarekin edo ulertua izatea nahi duen moduarekin dute zerikusia (Gumperz, 1982, p. 61). Beraz, diskurtsoaren interpretaziorako zantzu garrantzitsuak izan daitezkeen kasuetan, transkripzioan bere horretan mantendu ditugu euskaratik gaztelaniarako jauzi ugariak eta alderantzizko adibide urriagoak.

NVivo ikerketa kualitatiborako *software*-a (2020ko martxoan argitaratutako bertsioa) erabili dugu ahozko datu transkribatuak sailkatzeko. Kodifikazioari ekin aurretik, 4.2.1. puntuan (*Lagina: parte hartzaileen jatorria, generoa eta bestelako aldagaiak*) zehaztutako irizpideen arabera ezaugarriak erantsi dizkiogu hizlarietako bakoitzari zegokion dokumentuari, gero elkarrizketen edukiarekin gurutzatu daitezkeen *Kasual* sortuz. Ondoren, gure ikerketaren helburuen arabera *kode* edo kategoriatan sailkatu ditugu transkripzioetan identifikatutako pasarte esanguratsuenak. Kategoriatan horietako batzuk ikerketaren hasieratik behatu nahi genituen elementuekin daude lotuta (adibidez, *Identifikazio pertsonala* edo *Informazio iturriak*); beste batzuk, aldiz, elkarrizketek aurrera egin ahala txertatu ditugu, gazteon diskurtsoetan errelebantzia handia hartzen zuten gaiak zirela ikusi dugunean (adibidez, *Altsasu eta Kataluniako auziak* edota *Euskara*).

Honako kategoriatan edo *kodeak* bereizi ditugu:


Kodea	Azpikodeak	Azalpena / Helburua
Euskal gatazka definitzen	Lehenbiziko ideiak Nola azaldu kanpotar bati Garapenari buruzko narratibak	‘Euskal gatazka’ kontzeptuari buruz lehendik dakartzaten asoziazio, narratiba eta patroimentalak identifikatzea.
Identifikazio pertsonala	Oroitzapen zuzenak Hurbilekoei gertatuak Posizionamendua eta inplikazioa Ebaluazio morala eta emozioak Idealizazioa Tabua Berrantolaketa	Parte hartzaileek euskal gatazkaren historiarekin izan duten harremana esploratzen da atal hauetan, hala nola, identitatearen eraikuntza gertakari horiekiko, eta jasotako diskurtsoak euren testuingurura egokitze erabilitako baliabide psikolinguistikoak.
Informazio iturriak	Iturri ohikoenak Hezkuntza Etxea	Parte hartzaileek gatazkari buruz dituzten eredu mentaletan eragin dezaketzen

	Komunikabideak eta politika Kalea eta aisialdia Kultura	kanpoko diskurtsoak identifikatzen saiatu gara, hala nola, horiekiko euren pertzepzioa.
Aktoreak	ETA Espainiako Gobernua Frantziako Gobernua Guardia Zibila Euskal alderdi politiko eta erakundeak Nazioartea Gazte erakundeak GAL	Elkarrizketetan errepikatzeagatik edota euren faltagatik nabarmendu diren aktoreei buruzko aipamenak eta haien kategorizazioa aztertzen da, parte hartzaileen diskurtsoetan ageri diren moduan: aktore bakoitzaren deskribapen orokorrak, egotzitako ekintza eta ezaugarriak, eta hizlarien posizionamendua haiekiko.
Gertakariak	ETAren ekintzak Indar armatuen ekintzak Egungo gertakariak (Altsasu eta Katalunia)	Elkarrizketetan gehien errepikatzen diren gertakari historikoak zerrendatzen dira, eta haiei buruzko narratibak aztertzen.
Biktimak		Elkarrizketatuek biktima gisara identifikatzen dituzten aktoreak eta 'biktima' kategoriarekiko euren posizionamendua ikertzen da.
Presoak eta iheslariak		Preso eta iheslariari buruzko narratiba eta erreferentziak bildu ditugu atal honetan: izen propioak, deskribapenak, oroitzapen pertsonalak eta zeharka jasotako esperientziak.
Bakea	Bakearen definizioa Desarma Gatazkaren amaiera Justizia Bake inizatibak Memoriaren eraikuntza	'Bakea' kontzeptuarekin lotzen dituzten ideiak bildu ditugu, hala nola, desarmeari eta hari lotutako gaiei buruzko narratibak.
Euskara		Hainbat hizlarik hizkuntzari eta gatazkari buruzko aurreiritzien arteko lotura esplizitatzen zutela ikusirik, pasarte hauek aparteko kategoria batean bildu ditugu.
Termino zehatzen birsemantizazioa eta birkontestualizazioa		Elkarrizketen hasierako ataletan arreta eman digute, besteak beste, <i>gatazka</i> eta <i>terrorismo</i> terminoen askotariko erabilerek.

	Termino horien birkontestualizazioa berariaz aztertu dugu ondoren.
--	--

3. taula: Datuak sailkatzeko erabilitako kategoria edo kodeak.

Jarraian, 8. irudian, erabilitako kodeak hierarkikoki antolatuta ageri dira, elkarrekiko harremanen arabera eta haietan sailkatutako item edo aipamen kopuruaren arabera. Beha daitekeenez, euskal gatazka armatuaren historiarekin lotu ditzaketen gertakari zehatzak kodifikatu ditugu sarrien; hau ulergarria da, gertakarion aniztasuna aintzat hartuz gero. Bigarrenik, gazteok euren identifikazio pertsonalaz mintzatu dira gehien; eta haren ondoren, euren testuinguru diskurtsiboez.



8. irudia: Kodeen hierarkia, elkarrekiko harremanaren eta item kopuruaren arabera.

Aztertutako pasarteak tesian aipatzeko orduan, pseudonimoetara jo dugu: anonimotasunaren izenean, asmatutako izen bat, adina eta bizitoki duen herria adierazi ditugu. Hala, aipu baten iturria “Irene-19-Donostia” gisa kodifikatuta agertzen denean, uler bedi goitzenak identifikazioa errazteko funtzioa betetzen duela; 19 hizlariaren adina dela, eta *Donostia*, haren bizilekua.

Nolanahi ere, garrantzitsua deritzogu gure ikerketako parte hartzaileak hezur-haragizko pertsonen moduan ikusteari, eta ez datuen sortzaile huts gisara: bakoitzak bere errealitate konplexua du testuinguru, eta sortzen dituen diskurtsoak haren baitan interpretatu behar dira. Horregatik, nolabaiteko soslai orientatibo batzuk eraikitze aldera, hemen zerrendatuko ditugu parte hartzaile guztiak, geuk emandako pseudonimoarekin identifikatuta eta arestian aipatutako zeharkako aldagaiak aintzat harturik. Datuok eurek emandakoa dira; *Identifikazio politikoa* aldagaiari dagokionean, esplizituki agertutako identifikazioak soilik hartu ditugu aintzat, gain-interpretazioan ez erortzeko helburuz; definizio lausoak eskaini dituztenean, zuzeneko aipu bidez txertatu ditugu taulan.

4. taula: Parte hartzaileen soslai zehaztuak.

Goitizena	Adina	Herria	Generoa	Ingurune politizatua	Migraziozko historia	Uneko ikasketak	Identifikazio politikoa	Hizkuntza nagusia
Nora	21	Getxo	N	Bai	Ez	Unibertsitate gradua	Ezkerrekoa “EH Bildu / Unidas Podemos”	Biak pareko mailan
Paulo	19	Urnieta	M	Bai	Ez	Unibertsitate gradua	“Anarko-kapitalista” Ez abertzalea	Gaztelania
Laura	21	Donostia	N	Bai	Ez	Unibertsitate gradua	Ezkerrekoa Ez abertzalea “Unidas Podemoskoa”	Biak pareko mailan
Ekhi	21	Lekeitio	M	Ez	Ez	Unibertsitate gradua	“Zentroan”	Euskara
Joseba	20	Bilbo	M	Ez	Ez	Unibertsitate gradua	Definitugabea “Zapuztua”	Euskara
Jokin	21	Gasteiz	M	Bai	Ez	Lanbide Heziketa	Abertzalea “Eskuinerantz”	Gaztelania
Gari	20	Getxo	M	Bai	Ez	Unibertsitate gradua	Ezkertiarra Abertzalea “Ernaiko kidea”	Euskara
Ane	21	Mutriku	N	Ez	Ez	Unibertsitate gradua	Definitugabea / ez daki	Euskara
Alex	18	Barakaldo	M	Ez	Ez	Batxilergoa	“Neutroa” Ez abertzalea	Gaztelania
Lander	20	Gasteiz	M	Bai	Ez	Lanbide Heziketa	Abertzalea	Gaztelania
Eider	19	Altsasu	N	Bai	Ez	Lanbide Heziketa	Abertzalea Ezkerrekoa	Gaztelania
Ibai	20	Donostia	M	Bai	Bai (Madrilen jaioa)	Unibertsitate gradua	Ez abertzalea “Ezkerrantz jotzen”	Gaztelania
Irene	19	Donostia	N	Ez	Ez	Unibertsitate gradua	Definitugabea / ez daki	Euskara
Ana	19	Gasteiz	N	Ez	Ez	Lanbide Heziketa	Definitugabea / ez daki	Gaztelania
Udane	18	Markina-Xemein	N	Ez	Ez	Unibertsitate gradua	Definitugabea / ez daki	Euskara
Nagore	17	Oñati	N	Ez	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra “Zalantzia”	Euskara
Maite	17	Oñati	N	Bai	Ez	Batxilergoa	Definitugabea: “Ezkererantz, baina ez ditut etiketak atsegin”	Euskara
Ekaitz	16	Altsasu	M	Bai	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra Ez abertzalea	Euskara
Unai	16	Anhauze	M	Bai	Ez	Batxilergoa	Abertzalea	Euskara
Sebas	17	Barakaldo	M	Ez	Bai (Boliviakoa jaiotzez, 15 urterekin etorria)	Batxilergoa	Ez abertzalea	Gaztelania
Elena	17	Barakaldo	N	Ez	Ez	Batxilergoa	Definitugabea / ez daki	Gaztelania
Malika	17	Barakaldo	N	Bai	Bai (Saharakoa jaiotzez, 10 urterekin etorria)	Batxilergoa	Ezkerrekoa, “sozialista-komunista” Ez abertzalea	Gaztelania
Dani	18	Bilbo	M	Ez	Ez	Batxilergoa	Abertzalea Eskuindarra “EAJtik gertu”	Euskara
Ilargi	16	Etxarri Aranzatz	N	Bai	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra Abertzalea	Euskara

Galder	18	Gasteiz	M	Ez	Ez	Lanbide Heziketa	Definitugabea / ez daki	Gaztelania
Lur	16	Hendaia	M	Bai	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra Abertzalea	Euskara
Enaitz	17	Oñati	M	Bai	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra	Euskara
Fernando	17	Oñati	M	Ez	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra Abertzalea	Euskara
Idoia	17	Oñati	N	Bai	Ez	Batxilergoa	Abertzalea “Ez ezkertiar”	Euskara
Eli	15	Altsasu	N	Ez	Ez	DBH	Abertzalea Ezkertiarra	Euskara
Imanol	15	Arbizu	M	Ez	Ez	DBH	Definitugabea	Euskara
Joana	16	Arrasate	N	Bai	Ez	Batxilergoa	Definitugabea / ez daki	Euskara
Edurne	17	Basauri	N	Ez	Ez	Batxilergoa	Definitugabea / ez daki	Gaztelania
Erika	17	Basauri	N	Ez	Bai (Errumaniar sortua)	Batxilergoa	Definitugabea / ez daki	Gaztelania
Xan	15	Hendaia	M	Bai	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra Abertzalea	Euskara
Gorka	15	Hendaia	M	Bai	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra Abertzalea	Euskara
Eñaut	15	Oñati	M	Ez	Ez	DBH	“Gehiago ezkerretara”	Euskara
Endika	17	Tafalla	M	Ez	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra, “agian Bildu”	Euskara
Haizea	17	Tafalla	N	Bai	Ez	Batxilergoa	Definitugabea / ez daki	Euskara
Maddi	17	Tafalla	N	Bai	Ez	Batxilergoa	Ezkertiarra Abertzalea “Ernaiko kide”	Euskara
Jaione	16	Basauri	N	Ez	Ez	Batxilergoa	Definitugabea / ez daki	Gaztelania
Gabriele	16	Basauri	N	Ez	Ez	Batxilergoa	Definitugabea / ez daki	Gaztelania

4.2.6. Diskurtsoaren analisi-mailak

Gure datuak aztertzeko orduan, Diskurtsoaren Analisia erabili dugu; zehazki, haren eskola kritikotik eratorritako Diskurtsoaren Analisi Kritikoa. Ikuspegi hau testu-analisi soilaz harago doa, diskurtsoa nagusiki ekintza komunikatibo kontestualizatu gisara ulertzen duelako, eta testu sekuentzien arteko harremanaren izaera interpretatibo edo kognitiboan, eta ez gramatikalean, jartzen duelako arreta (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 3). Ondorioz, hainbat maila edo geruzatako analisi baten beharra planteatzen du: alde batetik, testuaren esanahia harengan eragiten duten testuinguru ezberdinen ulerkera egokiarekin soilik eraikitzen da; eta bestetik, beharrezkoa da esanahi horiek sostengatzen dituzten elementu linguistikoak testuaren barruan identifikatzea, haiek baitira gure metodoaren ebidentziak.

Kasu honetan, Van Dijkek planteatutako printzipio teoriko-metodologikoekin (1997) lotuta dagoen Ikuspegi Diskurtsibo-Historikoa hartu dugu aintzat esanahiak interpretatzeko garaian. Bi ikuspegiok partekatzen dituzten elementuetako bat da analisi beraren maila desberdin gisara ikusten dituztela testuaren eduki zehatza eta ekintza komunikatiboa gauzatzen den testuingurua.

1. Testuaren beraren analisisan, edukiaren araberako bi maila bereizi ditugu: alde batetik, gai nagusiak eta haien antolaketa, hau da, Van Dijken “makroegitura” (1996) deitzen

diona; eta, bestetik, gai horiei buruzko diskurtsoak osatzen dituzten sekuentzia testual zehatzetan erabilitako baliabide erretoriko eta linguistikoak (“mikroegitura”).

a. Maila mikro-linguistikoan, honako elementuei erreparatu diegu:

- ❖ Lexikoa: hitzen aukeraketa, bereziki karga semantiko edo ebaluatibo nabarmena dutenena edota elementu intertestual gisara funtzionatzen dutenena. Aukeraketa lexikoa aztertuz, diskurtsoetan nagusitzen diren edukietan eta haien arteko asoziazioetan jartzen dugu arreta; mapa kontzeptual bat osatzeko ere balio digu hortaz. Calsamiglia eta Tusonen arabera (2012:84), maila lexikoan suma daiteke testuinguru kulturalaren eragin nagusienetakoa: hitzen aukeraketak, maiz, talde batekiko kideza irudika dezake. Esate baterako: sekula ETAn egon ez den gazte batek talde armatuari buruz hitz egiteko *Erakundea* terminoa erabiltzen duenean, edota presoei *kide* deitzen dienean, identitate kolektibo bat eraikitzen ari da argi eta garbi diskurtsoaren bidez, eta bere burua haren barnean kokatzen. Aktoreen kategorizazioan ere rol garrantzitsua jokatzen du aukeraketa lexikoak.
- ❖ Maila morfosintaktikoa:
 - Deixia: diskurtsoko elementuak (pertsonak, espazioak, denborak, etab.) hizlarien posizioarekiko harremanaren arabera seinalatzen direnean, gertakariaren testuingurua edo markoa definitzeko tresna bihurtzen dira (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 47), hala nola, identitateak testuinguru horren barnean eta harekiko eraikitzeko eta definitzeko.
 - Lokailuak eta gaien antolaketa: gatazkari eta biolentziari buruzko narratiba nagusiak aztertzerakoan, bereziki menpeko perpausen erabileran eta kausazko eta ondoriozko lokailuetan jarrai dugu arreta. Hauek informazioa antolatzeko eta diskurtsoaren barruko elementuen arteko harremanak zehazteko funtzioa betetzen dute.
 - Sintaxia: Esaldien osaera eta euren egitura ekintza komunikatiboaren emaitzetarako esanguratsua den modu batean antolatuta dauden kasuetan, elementu horri ere behatu diogu. Kasu horretan, tematizazioaz ari gara (Ibid.).
- ❖ Modalizazioa: Hizlariaren subjektibitatea eta hark adierazpenen edukiarekiko duen hurbiltasuna edo distantzia (inplikazioa) seinalizatzen duten hizkuntzaren erabilerak aztertzen ditugu modalizazioaren bidez. Hauek jarrera (*attitude / stance*) eta graduaziozko terminoetan interpretatzen dira: hau da, afektuzko, epaiezko edota apreziaziozko jarrerak graduazio handiago edo txikiagoan adieraz ditzake hizlariak (Martin & White, 2005, p. 135), baita bere jarrera epistemikoa ere. Markagailu modalizatzaileen artean daude aditz eta adberbio modalak (“Baliteke hala izatea”); deiktikoak; trantsitibitatearen erabilera (“Hark hil zuen” vs. “Hil egin zen”); iturrien aipamen esplizitua (“Kontatu didatenez”, “Nire amak beti dio...”); tonu sendoko adierazpenak eta karga semantiko handiko aukeraketa lexikoak; ziurtasun eta zalantza adierazpenak; jakintzat emandako informazioa; edota iritzi pertsonalen esplizitazioa (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 41).
- ❖ Polifonia: ahotsen aniztasuna testuaren barruan eta haien arteko harremana du aztergai polifoniak (aipuak, tropoen erabilera edota interdiskurtsibitatearen bestelako adibideak). Zeharka edo zuzenean aipatutako diskurtsoen bidez, parte hartzaileek ez dute soilik edukiarekiko euren posizioa modalizatzen: euren ikuspegia indartzen duten dramatizazioak edo hipotesiak eraikitzeko tresna erretorikoak ere badira aipamenak (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 153).

Aipuak agerikoak, zeharkakoak edo ezkutuak izan daitezke, eta hauek seinalizatzen dituzten elementuen artean daude ukapena, lokailu intertestualak, ironiaren erabilera eta aurre-suposizioak, hau da, diskurtso baten oinarrian dagoen eta egiazat ematen den edozein diskurtso (Reyes, 1996, p. 47).

- ❖ Baliabide argumentatiboak: galdera erretorikoak, lengoia figuratiboa, interpelazioak, zentzu onarekiko edota informazio partekatuarekiko erreferentziak, tropoak eta *ingroup* edo identitate kolektibo baten eraikuntza sustatzen duten egiturak. Hauek hizlariaren mundu ikuskera, hau da, gatazka edota auzi zehatz bati buruz eraikita dauzkan eredu mentalak eta haietan bere buruari ezartzen dion posizioa ikusaraz dezakete.
- ❖ Hitzezkoak ez diren baliabide linguistikoak: intonazio enfatizataleak, prosodia, bokalizazioak (luzapenak, soinu betegarriak, barrea, onomatopeiak...), proxemia (espazioa nola banatzen duten parte hartzaileek ekintza komunikatiboan), etab.

b. Maila makrolinguistikoan, aldiz, honako kontzeptuak erabili ditugu batik bat:

- ❖ Narratibak: gertakarien antolaketa sekuentziala, iraganari buruzko azalpen egituratu bat eskaintzen duena, ez soilik denborazkoa, baizik eta, batez ere, posizio bat indartzeko funtzioa duena (Erll, 2017, p. 85; Fivush, 2010, p. 89).
- ❖ Eskema mentalak / *mental models*: Ekintza komunikatibo bateko parte hartzaileek ekintzari berari buruz, bertan inplikaturako aktoreei buruz, edukiari buruz eta ekintzaren testuinguruari buruz alde aurretik eraikita dauzkaten patroi mentalak, informazio berria interpretatzeko eta esanahiak eraikitzeke oinarri gisara erabiltzen dituztenak (Van Dijk, 1997, pp. 189–190).
- ❖ Estrategia diskurtsiboak: posizio edo tesi zehatz bat indartzeko funtzioa betetzen duten argumentazio-eskema errepikakorrek, inferentzia zehatz bat egitera bultzatzen dutenak (Wodak, 2011, p. 173). Van Leeuwen eta Wodakek (1999, pp. 92–93) lau makro-funtzio sozial eta hari dagozkion lau estrategia nagusi bereizten dituzte, Wodakek ostera (2011) garatutako eredu batean:

Makro-funtzio sozialak	Estrategia diskurtsiboak	Adibideak
<i>Statu quo</i> sozial baten eraikuntza diskurtsoaren barruan	Estrategia eraikitzaileak	Aktoreen kategorizazioa, identitateen eraikuntza (<i>Gu-Haiek</i> taldeak)
<i>Statu quo</i> sozialaren justifikazioa edo berrezarpena	Iraunarazte eta justifikazio estrategiak	Arrazoi moral ‘objektiboak’ Gehikuntzak (adibidez, emozioak eranstea) Autoritatezko argudioak eta bestelako falaziak Arrazionalizazioa (instrumentala eta teorikoa) Erlatibizazioa Autoaurkezpen positiboa
<i>Statu quo</i> sozialaren eraldaketa	Transformazio estrategiak	Birformulazioak Birdefinizioak Berrantolaketa

		Birkontestualizazioa eta kolonizazioa Elipsiak Ordezkapenak
<i>Statu quo</i> sozialaren deuseztapena	Deuseztatze estrategiak	Oposiziozko diskurtsoak Ukazioa

5. taula: Estrategia diskurtsiboak eta haien makro-funtzio sozialak.

2. Testuinguruaren araberako enfokea: aztertu ditugun adierazpenak harreman sozial zehatz batzuen barruan kokatuta daudenez, euren edukia bezain garrantzitsua iruditu zaigu testuinguru horretan betetzen duten funtzioa aintzat hartzea. Testuinguru honetan, era berean, lau maila bereizten ditugu:


a. Diskurtsoaren hurbileko ko-testua: elkarrizketan bertan esandako edo egoera berera ekarritako bestelako pasarte diskurtsiboak eta haiekiko harremana.

b. Harreman intertestualak eta interdiskurtsiboak. Hauen artean leudeke kanpoko diskurtsoekiko erreferentziak, aipuak eta oihartzunak, hau da, diskurtso zehatz horren eraikuntzan eragina izan dezaketen kanpoko mezuak.

c. Egoeraren testuinguru zehatza: elkarrizketa antolatua izateak, tokiak, uneak, hizlarien egoerak, etab. ekintza komunikatiboaren eduki eta bilakaeran izan dezaketen eragina, hala nola, hizlariak egoerari buruz eraikitako dauzkaten *frame* (Goffman, 1974) edo eskema mentalek izan dezaketena. Gure kasuan, eragin nabarmena izan du, esate baterako, elkarrizketatuak elkarrizketaren helburuei buruz aldeztu aurretik zeukan informazioak (ikus 4.2.2. *Parte hartzaileekiko harremana*), edota, kasu batzuetan, elkarrizketatuak elkarrizketatzaileari buruz eraikitako irudiak: unibertsitateetik etortzeagatik eta eurak baino helduagoa izateagatik, ezagutza gehiago auresuposatzen zioten; eta, zenbait kasutan, gai zehatz honekiko interesa edukitzeagatik, abertzalea izatea ere bai. Ondorioz, informazio sekuentzia handiak elipsatzeko joera izan dute elkarrizketatu askok, ezagutza partekatutzat edo jakintzat jo dutelako informazio hori; edo, zenbait kasutan, diskurtsoa bera modalizatu dute elkarrizketatzaileari egotzitako ezagutza eta jarrerekin bat etortzeko edota haren aurrean posizio zehatz bat irudikatzen. Elkarrizketatzaileak, sarritan, ezjakinaren edo kanpotarraren rola hartu behar izan du horregatik. Elkarrizketaren testuinguru hurbileko elementu hauek guztiak landa-koadernoan jaso ditugu.

Analisiaren maila honek zentralitate handia hartu du gure ikerketan, izan ere, egoera komunikatiboari buruz eraikitako *mental model* edo patroia interpretatiboek haren garapenaren zati handi bat baldintzatzen dute, parte hartzaileen auresuposizioen eta haietan oinarritutako inferentzien bidez. Mekanismo hauek azaltzeko, teoria soziokognitiboaren printzipioak hartu ditugu aintzat, eta behatu dugu nola jotzen duten hizlariak eraikitako patroietara diskurtso berriak eraikitzerakoan. Mekanismo hauek 5.4.6. *Eredu mentalen funtzioa memoriazko diskurtsoetan: berrantolaketa eta osaera* atalean aztertu ditugu xeheago.

d. Ekintza diskurtsiboaren testuinguru historiko, politiko eta kulturala, adierazpenen edukia egoki interpretatzea ahalbidetzen duena. Mintzakideek kanpoko errealitatean (edo pertzibitutako errealitatean) oinarritutako diskurtsoak, usteak eta iritziak ekarri ohi dituzte elkarriketara, eta haien arabera moldatzen dute elkartruke komunikatiboa (Wodak & Krzyzanowski, 2008, p. 157).



9. irudia: Testu-analisiaren mailak.

Elementuok guztiok analisi osoan zehar aintzat hartu ditugun arren, ikerketaren atal bakoitzean alderdi zehatz batzuetan jarri dugu fokua, hain zuzen ere atal horri dagokion ikerketa-galderarekiko koherentzian. Ondorioz, kapitulu analitiko bakoitzak bere tresna analitiko zehatzak ditu.

Lehenbiziko atalean, *5.1 Euskal gatazka definitzen: gatazkari buruzko kontzeptualizazio eta 'frame' nagusiak narratiba indibidualetan* kapituluan, bereziki aukeraketa lexikoari, edukien antolaketari, lengoia sinbolikoari eta *frame* edo patroia interpretatibo eskematikoen eraikuntzari erreparatu diegu; finean, makronarratiben eraikuntza sostengatzen duten elementuek eta hauek testuinguru zabalarekin duten harremanak dute nagusitasuna. Bestalde, kapitulu honetan gazteek gatazkaren alderdi zehatzei buruz eraikitzen dituzten narratibak ere aztertu ditugu: iraganeko biolentziari, presoei edota bakearen eraikuntzari buruzko diskurtsoak ikertzerakoan, arreta berezia ipini diegu aktoreen kategorizazioan inplikaturako elementu linguistikoei, baliabide argumentatibo eta erretorikoei (metaforak, tartean) eta kontakizunaren barruko antolaketa sostengatzen duten elementuei (lokailuak eta tematizazioa).

5.2. Gazteen informazio iturriak atalean, interdiskurtsibitatean fokalizatu dugu analisia. Parte hartzaileek eraikitzen dituzten diskurtsoetako gehienak mediatuak direla aintzat hartuz gero, haien eraikuntzan eragina izan dezaketen bestelako diskurtsoak identifikatzen saiatu gara atal honetan. Ondorioz, errelebantzia berezia hartu dute polifoniak, harreman intertestual eta interdiskurtsiboek eta hizlariaren testuinguru zehatzak.

Hirugarren kapitulu analitikoan, 5.3. *Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak* izenburua duenean, hizlarien posizionamendua edo *stance*, Biber eta Fineganek definitu moduan (1989, p. 93), denotatzen duten egituretan ipini dugu batik bat arreta. Hauen artean daude modalizazioa, deixia, erretorika, elementu paraberbal zenbait eta interdiskurtsibitatea (Martin & White, 2005, pp. 94–100). Hauek guztiak diskursoaren bidezko identitatearen eraikuntzaren analisisian kokatzen dira.

Azkenik, 5.4. *Tabua eta ezjakintasuna kudeatzeko erabilitako estrategia psikolinguistikoak* deitutako kapitulu analitikoak estrategia diskurtsiboak eta erretorikoak erreparatzen die nagusiki, memoriazko diskursoen eraikuntzan inplikaturiko dagoen alderdi aktiboa nabarmenduz.

Aukeraketa hau ez da hertsia: hainbat ataletan, besteetan behatutako elementuak ere identifikatu ahal izan ditugu, eta kasu horietan, narratiba zehatzen eraikuntzarako funtzio bat betetzen zutenetan, analisisian ere aintzat hartu ditugu. Hala ere, beharrezkoa iruditu zaigu kategoria bakoitzean ikerketako galdera nagusiekin bat datozen foku nagusi batzuk ezartzea:

Ikerketaren atala	Ikerketa galdera(k)	Behatutako elementuak
<i>Euskal gatazka definitzen: gatazkari buruzko kontzeptualizazio eta 'frame' nagusiak narratiba indibidualetan</i>	'Gatazkari' buruzko zein narratiba eta ulerkerak ari da nagusitzen gazteen diskurtsioetan? Zeintzuk dira gazteen diskurtsioetan agertzen diren gertakari eta aktore nabarmenenak, eta zein narratiba eraikitzen dituzte haiei buruz?	Lexikoa Antolaketa tematikoa Frame-ak Lengoaia figuratiboa (tropoak eta metaforak) Testuinguru zehatza eta zabala Aktoreen kategorizazioa Deixia Baliabide argumentatibo eta erretorikoak (metaforak) Tematizazioa eta lokailuak
<i>Informazio iturriak</i>	Zein kanaletatik jasotzen dituzte gatazkari buruzko diskurtsioak, eta nola eraikitzen dituzte esanahiak horietan oinarrituta?	Polifonia Interdiskurtsibitatea Hizlariaren testuinguru zehatza eta zabala Modalizazioa Erretorika
<i>Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak</i>	Nola posizionatzen dira hizlariak narratutako gertakarietara, eta nola adierazten dute posizionamendu hori?	Modalizazioa Aktoreen kategorizazioa Deixia Erretorika Elementu paraberbalak Interdiskurtsibitatea
<i>Tabua eta ezjakintasuna kudeatzeko erabilitako estrategia psikolinguistikoak</i>	Zein estrategia erabiltzen dituzte euskal gatazkaren inguruko eremu diskurtsibora hurbiltzeko?	Modalizazioa Lengoaia figuratiboa (metaforizazioa, metonimia, ironia) Aktoreen kategorizazioa

6. taula: Behatutako elementuak, ikerketa-atalen eta galderen arabera.

4.3. IKERKETA ETNOGRAFIKOA

Ikerketa honen funtsa elkarrizketetan sortutako ahozko datuen analisi diskurtsiboa den arren, prozesuan zehar hainbat datu etnografiko bildu ahal izan ditugu, aztergaiaren interpretazio egokirako esanguratsuak iruditu zaizkigunak eta horrenbestez ikerketan aintzat hartu ditugunak. Alde batetik, behaketa parte hartzailearen bidezko datu-bilketa bat egin dugu, landa-koaderno batean jasoz ikerketan zehar behatutako ebidentziak.

Etnografia edo behaketa parte hartzailea Antropologiatik datorren ikerketa-metodo sozial eta kualitatiboen bilduma bat da, ezaugarri nagusi gisara ikertzailearen behatzaile-rola daukana:

“Etnografoak modu irekian edo ezkutuan parte hartzen du, denboraldi batez, pertsonen eguneroko bizitzan, zer gertatzen den behatzen, zer esaten den entzuten, galderak egiten; are, ikerketaren oinarri den gaiari buruzko argibideren bat eskaintzeko balio dezakeen edozein datu eskuragarri bilduz.”
(Hammersley & Atkinson, 1994, p. 15)

Etnografia ez da abiatzen lege unibertsal teoriko batzuen aplikaziotik; aitzitik, mundu soziala eta parte hartzaileek hura interpretatzeko duten modua derrigor errealitatearen behaketa zehatzean oinarritu behar dela diote, eta behaketa horretatik atera taldearen portaerari buruzko ondorioak. Izan ere, “giza ekintzak esanahi sozialetan oinarrituta edo haiek eraginda osatzen dira: intentzioak, motiboak, jarrerak, sinesmenak” (Ibid., 21).

Etnografiak hainbat informazio iturri eta ikerketa metodo konbinatzen ditu: ohikoenen artean daude elkarrizketa formalak zein informalak, eta behatutako/entzundako datu esanguratsu guztien erregistroa, gerorako interpretaziorako oinarri gisara. Komunikazioari aplikatuta, etnografiaren ekarpen nagusietako bat da diskurtsoa testuinguru kokatu zehatz batean eraikitzen dela ohartaraztea, eta beraz, egoera horren terminoetan gauzatu behar dela haren interpretazioa, bataren zein bestearen aldakortasuna aintzat hartuz.

Aztergai den fenomeno soziala ahalik eta zehatzen deskribatzea da lanaren helburua, eta horretarako beharrezkoa da ikertzaileak talde sozial zehatz horren kode kulturalak menperatzea, taldean barneratuz. Ikertzaileak norberaren talde soziala deskribatzeko ikusle-jarrera hartzen duenean, autoetnografiak hitz egiten da (Blanco, 2012, p. 172); horretarako, beharrezkoa da behatzaileak “barneko Bestetze” (*internal othering*) posizio bat hartzea (Rheindorf & Wodak, 2017, p. 24).

Gure kasuan, ikergai dugun talde sozialarekin hainbat kode kultural partekatzen ditugu, testuinguru geografiko berean bizi garenez gero. Nolanahi ere, 6 eta 12 urte arteko adin-tartea egon da elkarrizketatzailearen eta elkarrizketatuen artean; horregatik, iraganari buruzko hainbat erreferentzia partekatutan interpretazio-alde esanguratsua antzeman dugu.

Ikerketarako propio sortuak ez ziren egoeretan behatutako interakzioez gain, gaiari buruzko elkarrizketa formal zein informalak egin ditugu hautatutako informatzaile zehatzekin. Eta, azkenik, ikerketa-objektu den belaunaldiko kideek erabiltzen dituzten edo eurek sortutako zenbait testu bildu ditugu, era berean argigarri izan daitezkeenak. Datu hauek guztiak ez dira gure ikerketaren foku nagusia, baina baliagarriak dira elkarrizketetan behatutako zenbait elementu kontrastatzeko.

4.3.1. Landa-koadernoak: ikertzailearen oharrak

Datu bilketak iraun duen bi urte jarraituetan (2018ko otsailetik 2020ko urtarrilera) eta Covid-19aren pandemiaren testuinguruan izandako murriztapen administratibo eta sozialen osteko hilabeteetan (2021eko urritik 2022ko otsailera) egindako ikerketajarduera guztien laburpen eta iruzkin pertsonalak biltzen dituen dokumentua da landa-koadernoak.

Denera 3.000 hitz inguru ditu, eta bertan jasota daude, alde batetik, herri eta ikastetxe bakoitzera egindako bisitetan grabatu gabe geratutako datu esanguratsuak; besteak beste, elkarrizketa formalen aurretik eta ondoren izandako elkartrukeak (ikasleekin zein irakasleekin), unean uneko aktualitateko gaiak eta lengoaia berbalaz haragoko keinuetan, ahotsaren erabileran edota prosodian oinarritutako ikertzailearen interpretazio propioak, gerora ahozko datuen analisi diskurtsiboaren bidez egiaztatzeko edo gezurtatzeko hipotesiei bide eman dietenak.

Datuen analisiari dagokion kapituluan (5. *Emaitzak*), tipografia ezberdinen bidez bereizi ditugu gazteekin egindako elkarrizketa formaletatik sortutako pasarteak eta landa-koadernotik datozenak. Lehenbizikoak 10 neurriko *Times New Roman* letra italikoz eta erdian lerrotatuta eman ditugu, hizlariaren pseudonimoa, adina eta bizilekua adierazita; pasarte hauek zenbakituta egongo dira orrialdearen ezkerreko ertzean, analisi diskurtsibo xehean aipatutako ebidentziak nabarmenduta. Landa koadernoan jasotako pasarteak, aldiz, letra italikorik gabe eta eskuinean lerrotatuta ageriko dira, hizlariaren izena eta kargua adierazita, eta zenbakitu gabe.

Honela agertuko dira ikergai dugun belaunaldiko kide diren parte hartzaileekin egindako elkarrizketa formaletatik sortutako ahozko datuak. Azpimarratuta ageri diren pasarteak gure analisi diskurtsiborako ebidentzia esanguratsuren bat eskaintzen dutenak dira, ondorengo analisi garatuan erreferentzia egingo zaienak.

Hizlariaren izena-Adina-Jatorria

Honela agertuko dira, aldiz, ikerketak iraun duen tartean bildu dugun testuinguruko informaziotik eskuratutako datuak eta informatzaileekin egindako elkarrizketak, oro har landa-koadernoan jaso ditugun apunteetatik erreproduzitu ditugunak.

Hizlariaren izena, kargua eta elkarrizketaren erreferentzia

4.3.2. Elkarrizketak informatzaile zehatzekin

Gazteen diskurtsoak propio aztertzeaz gainera, testuinguruko datuak biltzeko baliagarriak izan zaizkigun elkarrizketak egin dizkiegu hainbat informatzaile zehatzi. Pertsona hauek euskal gatazkaren testuinguruan gazteekin edota memoriaren eraikuntzan lan egin izan dutelako hautatu ditugu, euren esperientzia zehatzek arazoa ulertzeko perspektiba erabilgarriak eman zitzaketelakoan.

Elkarrizketa hauetatik sortutako datu erabilgarrienak ere landa-koadernoan daude jasota, eta, beraz, koadernoko gainerako edukien estilo berean aipatuko ditugu tesian.

Honako pertsona aditu edo arituengana jo dugu testuinguruko informazio eske:

a) Gazte erakundeetako ordezkari ohiak: gazteek belaunaldi gisara euskal gatazkarekin izan duten harremana ezagutzeko, ez zitzaigun aski literatura akademikoarekin, hark sarritan irakurketa soziologiko zabalak egiten zituelako, xehetasunei erreparatu gabe. Hura osatzeko, beharrezko ikusten genuen euskal gatazkaren garai biolentoagoetan aktibismo politikoan ziharduten gazteen bizipenak zuzenean ezagutzea, hala nola, 2000ko urteetatik aurrera gazteen artean sustatu diren memoriazko iniziatiben berri jasotzea. Horretarako, honako soslaiak bilatu ditugu:

I. Segi gazte erakundeko kide ohia (2018ko otsailean Donostian elkarrizketatua): elkarrizketatu honek ardurak izan zituen Segin 2010eko hamarkadan, ilegalizazio garaian. Elkarrizketa egiteko unean, Sortuko zuzendaritzako kidea zen. Euren garaian gazteek sufritutako kriminalizazioaz mintzatu zaigu, eta horrek nola oztopatu duen memoriaren transmisioa.

II. Elvira Vidales, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) bake eta bizikidetzatza teknikari ohia (2019ko irailean Donostian elkarrizketatua): elkarrizketa egiteko unean Deustuko Unibertsitateko irakaslea da elkarrizketatu hau. Haren eskutik hasi zen EGK 2000. urtean “bakearen kultura” lantzen, eta erakunde publiko gisara, alderdi politikoekin eta Eusko Jaurlaritzarekin izandako tentsioen berri eman digu.

III. Ernaiko gaur egungo bozeramailea (2021eko abenduan Iruñean elkarrizketatua): 22 urteko emakumezko bozeramailearekin, talde abertzaleen barruko memoriaren transmisioaz eta kontra-memoriaz aritu gara. Hark argitu digu, besteak beste, taldeon batez besteko adin baxuak eta errotazio altuak zaildu egiten dutela memoriaren transmisioa.

b) Preso ohi eta gurasoak

Testuinguru informalean, gure ikerketaren berri izan duten hainbat pertsonak partekatu dizkigute euren bizipenak gatazkaren memoriari eta transmisioari dagokionean. Horietatik bi nabarmendu ditugu landa-koadernoan; izan ere, biak preso egondako aitak dira, eta 13 eta 22 urte arteko seme-alabak zituzten elkarrizketen unean (2017 eta 2018 artean). Lehenak ardurak dauzka Sortun, eta pertsonaia politiko ezaguna da; Batasuneko Mahai Nazionaleko kide zela atxilotu eta espetxeratu zuten. Bigarren elkarrizketatua 1970eko hamarkadan eta 1980ko hasieran ETAKo kide izan zen, baina gaur egun ez dauka ezker abertzalearekiko edo bestelako alderdi politikoren batekiko loturarik.

Bi kasuak esanguratsuak iruditu zaizkigu norberaren esperientzia transmititzeko zailtasuna aztertzeko. 5.2. *Gazteen informazio iturriak* kapituluaren, familiari dagokion atalean azaldu ditugu bi kasuak.

c) Irakasleekin elkarrizketak: Familia sozializazio politikorako lehen ingurunea bada ere, hezkuntza arautuaren eragina ere handia dela uste dugu. Horregatik, memoriaren eraikuntza publikoaz ari garenez gero, interesgarria iruditu zaigu ikasgeletan ematen den transmisioaren nondik norakoak ezagutzea, ez soilik ikasleen pertzepzioetan, baizik eta baita irakasleen esperientziatik ere. Era honetako interakzioak espontaneoki sortu dira elkarrizketa formalak egiteko hautatutako ikastetxe gehienetan, elkarrizketen arteko atsedean uneetan: irakasle askok euren kabuz partekatu dituzte euren bizipenak gurekin. Elkarrizketa hauek ez ditugu grabatu, baina eduki esanguratsuena landa-koadernoan jaso

dugu ohar moduan. 5.2. *Gazteen informazio iturriak* kapituluan, hezkuntzari dagokion atalean daude jasota.

d) Emilio Majuelo historialaria, 2021eko urrian Iruñean elkarrizketatua: Memoria ikasketen ibilbideari buruzko dokumentazio-prozesuan, garrantzitsua iruditu zaigu Euskal Herrian iraganeko gatazka politiko eta armatuekiko memoria-kulturaren bilakaera aztertzea. Horretarako, auzia hurbiletik aztertu duten hainbat historialariren erreferentziak erabili ditugu alderdi bibliografikoan, eta haietako batekin zuzenean elkartzeko eta aurrez aurreko zein idatzizko ideia-truke bat edukitzeko aukera ere izan dugu. Bertan, besteak beste, memoriaren inguruko kezka bilakaera aztertu dugu Hego Euskal Herriko testuinguruan, eta euskal gatazka armatuari buruzko historiografia egiteko zailtasunak zehaztu dizkigu. Datuok, dagozkion erreferentziekin, oinarri teorikoen atalean daude xeheago azalduta.

4.3.3. Behaketa parte hartzailea ekitaldi publikoetan

Ikerketa-prozesuan zehar, gazteekin eta euskal gatazkaren memoriarekin lotutako lau ekitaldi publikotan egon gara, ikusle, moderatzaile zein hizlari moduan, eta laurak baliatu ditugu behaketa parte hartzailea egiteko. Ekitaldion aukeraketarako, gazteen inizatibaz sortuak izatea edo gazteak antolaketan inplikaturik egotea lehenetsi dugu.

I. ‘Gazteak eta memoria: elkarrekin bizitzeko solastu’ topaketa (Bilbo, 2018ko maiatza).

2018ko maiatzaren 10ean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bake Prozesua Indartzeko Foro Sozialak gazteei zuzendutako eta euskal gatazkaren inguruan hitz egiteko ekitaldi bat antolatu zuten Bilborock aretoan, Bilbon. Hamabost lagun inguru elkartu ziren, gehienak EGK-k egindako deialdiaren bidez etorriak, eta euren artean oro har ezezagunak.

Foro Sozialeko kide batek egin zuen aurkezpena, eta topaketaren helburuaren berri eman zien bertaratutakoei: *Sufrimenduaren Mapa* bat osatzea. Topaketaren helburua gazteek euskal gatazkaren ondorio gisara identifika zitzaketen sufrimendu mota guztiak ikusaraztea zen, “aldi berean zehatza eta zabala den panorama” irudikatzeko⁵. Horretarako, parte hartzaile bakoitzari nahi adina *post-it* erako ohar itsasgarri eskaini zizkieten, eta bururaten zitzaizkien sufrimendu motak edo adibideak idazteko eskatu. Zenbait kasutan, parte hartzea sustatzeko, honako galderak erabili behar izan zituzten dinamizatazaileek:

- *Atzera begiratzen dugunean, zer etortzen zaigu burura?*
- *Sufrimenduak aurpegi desberdinak ditu, norberarenak identifikatzea erraza izaten da, baina besteenak identifikatu al ditugu?*
- *Herri desberdinetan egoera mingarri asko bizi izan ditugu, ikusgarrienak zeintzuk?*
- *Oraindik sufrimendua dagoela uste duzue? Zeintzuk?*

⁵ Iturria: antolatzaileen barne dokumentua.

Ariketaren bigarren atalean, parte hartzaile bakoitzak bere oharrak ozen irakurri eta azaldu zizkien taldeko kideei, eta lau ataletan banatutako orri handi batean kokatu zituen:

- 1) Bizitzeko eskubidearen urraketak.
- 2) Ondorio ekonomikoekin lotutako sufrimenduak.
- 3) Eskubide zibil eta politikoen urraketak.
- 4) Osotasun fisiko-psikikoari egindako kalteak.

Amaieran, talde bakoitzeko edukiak sintetizatzeko eta talde zabalarekin partekatze eskatzen zitzaie, nabarmenduz ez zela behar kontsentsurik agertutako aukeren artean. “Gertatu diren sufrimendu guztiak gatazka berberaren ondorio dira, giza eskubideen urraketa kontsiderazioa izan ala ez. Hori dela eta, guztiak hartu behar ditugu aintzat memoria inklusiboa eraikitzeke” (barne dokumentua).

Ariketaren azken helburua Foro Sozialaren eta EGKren aurreragoko lanketarako materiala ekoiztea zen. Talde bakoitzaren jarduna dinamizatzeko, beste hiru pertsonak lagundu genuen. Guk, dinamizazaile rolaz gain, behatzaile funtzioa ere bete genuen, eta ikerketarako erreferentziak izan daitezkeen hainbat datu jaso genituen; esanguratsuenak *5.3 Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak* kapituluaren daude azalduta.

II. ‘Bizikidetzaren landuz, tejiendo compromiso: krisi garaian gazteriak sustatutako ekimenetatik ikasten’ mahai-ingurua. Donostian, 2021eko maiatzaren 22an.

Foro Sozialak antolatutako solasaldi hau ikusle gisara behatu genuen antolatzaileen *streaming* zerbitzuaren bidez. Bertan, hainbat elkartetako bozeramaile gazteek (Darkum, GazteAgora, Gurutze Gorria eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua) gaur egungo bizikidetzaren erronkez hitz egin zuten. Izenburuak iradokita, euskal gatazka armatuaren osteko bizikidetzaz arituko zirela espero genuen, baina gure harridurarako, hizlariak ez zuten auzi horren aipamenik egin ekitaldi osoan. Datu hori, halaber, esanguratsua iruditzen zaigu gaur egungo gazteen kezka eta Euskal Herriaren historia armatuak haien artean betetzen duen posizioa ezagutzeko.

III. ‘Nola gogoratu, nola kontatu euskal gatazka’ mahai-ingurua. Iruñean, 2021eko urriaren 23an.

ETAren su-etenaren 10. urteurrenaren harira, gatazkaren kontakizunei buruzko mahai-ingurua antolatu zuen Laba sareak Iruñeko Gazteluko plazako bere aretoan. Bertan, hizlari gisara gonbidatu gintuzten Emilio Majuelo historialaria; Emilio Lopez Adan militante ohia eta ETAren historiaren dokumentatzailea; Maider Galardi, gatazkaren memoria genero ikuspegitik ikertzen ari den doktoregaia; eta gu geu. Denera 50 ikus-entzule inguru bertaratu ziren, eta *Berria* egunkariak bideoa argitaratu zuen (BerriaTB, 2021). Perspektiba eta posizionamenduen arteko aldeaz hainbat datu ondorioztatzeke baliagarria izan zen topaketa, bistan

geratu baitzen esperientzia zuzenen eta zeharkakoen eragina *a posteriori*-ko diskurtsoen eraikuntzan.

IV. ‘Gatazka armatua eta gazteak: transmisioetik konpromezura’ solasaldia. Iruñean, 2021eko abenduaren 27an.

Ernai ezker abertzaleko gazte erakundeak antolatutako mahai ingurua behaketa parte hartzaileko aukera egokia bihurtu zen 2021eko abenduan. Ernaiko kide bat izan genuen solaskide, eta ikus-entzule gehienak ere talde horretako kideak ziren; gure ikerketako objektu den belaunaldiko kideak izateaz gain, sektore politiko zehatz batekin (ezker abertzalearekin) identifikatzen diren gazteekin ideiak trukatzeko eta euren diskurtso batzuk jasotzeko aukera izan genuen, bereziki nortasun kolektiboen eraikuntzari dagozkion egituretan arreta ipiniz. 5.3. *Gazteen informazio iturriak* eta 5.3.1. *Kokatzeko pertsonala: oroitzapen eta esperientzia propioak* ataletan daude xehatuta bertatik lortutako datuak.

4.4. IDATZIZKO MATERIALAREN AZTERKETA: TESTU LIBURUAK

Euskal gatazkaren gaia ikasgeletara eramateko ezintasuna, ikasleen diskurtsoan pertzibitzen dena eta irakasleekiko elkarriketetan baieztatua, indartu egiten da eskola-material kontsentsuatua sortzeko ezintasun politikoa ezagututa. Bestalde, hezkuntza arautuko diskurtso pedagogikoak memoriaren eraikuntza ofizialaren zutabeetako bat dira, nerabe guztiek eskura dituzten narratibak izanik. Horregatik, triangulaziorako baliabide gisara, beharrezkoa iruditu zaigu hezkuntza arautuan erabiltzen diren testu liburuetan eta proposatutako unitate didaktikoetan eraikitzen diren diskurtsoak ere aintzat hartzea.

Zehazki, honako materialak aztertu ditugu:

- a) Eusko Jaurlaritzak diseinatutako *Herenegun!* unitate didaktikoa (4 koaderno, 2018an argitaratutako bertsioa).
- b) Nafarroako Gobernuaren “Memoria duten eskolak, bakea eta bizikidetzak lantzen” programa didaktikoa.
- c) Ikastolen sareko ikastetxeetan erabiltzen den *Eki* proiektuaren DBH4ko Euskara eta Gizarte Zientziak ikasgaietako liburuxkak (6 koaderno).

Lehenengo biak material publikoak dira eta sarean eskuratu ahal izan ditugu. Azkena, aldiz, Elkar argitaletxearen bidez eskuratu dugu. Azterketa horren emaitza partzialak artikulu akademiko batean (Velte, 2019a) eta kongresu batean (Velte, 2019b) eman genituen argitara, eta 5.2. *Gazteen informazio iturriak* kapituluan hezkuntza arautuari dagokion atalean azalduko ditugu xeheago.

5. EMAITZAK

Ikerketa-prozesuaren hasieran planteatutako lau galdera nagusiei jarraika, lau elementu behatu ditugu gazteek sortutako ahozko diskurtsoetan; tesi honek, hortaz, lau azpi-kapitulu analitiko izango ditu. Alde batetik, gazteek euskal gatazkari buruz eraikitzen dituzten diskurtsoak zein marko interpretatibotan kokatzen dituzten jakin nahi izan dugu; hortaz, lehenbiziko atalean banakako elkarrizketetan eraiki dituzten oinarriko kontzeptualizazio eta asoziazioak aztertuko ditugu.

Bigarren atalean, ikergai dugun belaunaldiaren testuinguru diskurtsiboaren azterketa egingo dugu: euren informazio iturri nagusietatik jaso dituzten *input*-ak eta pertzibitzen dituzten arau eta portaera komunikatiboak deskribatuko ditugu, arreta bereziki hezkuntza arautuan, familia testuinguruan, adinkideen arteko giro sozialean, eta komunikabideetan eta diskurtso publikoetan jarrita.

Azkenik, hirugarren eta laugarren ataletan, gazteek kanpotik jasotzen dituzten diskurtsoen aurrean hartzen duten jarrera propioa eta haien aurrean eraikitzen dituzten identitateak aztertuko ditugu. Azken galdera hau (“Nolako identitateak eraikitzen dituzte gazteek euskal gatazkaren historiarekiko?”) bi azpiataletan banatu dugu: lehenbizi, gazteen kokatze pertsonala eta identitate kolektiboaren eraikuntzak aztertuko ditugu 5.3. *Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak* kapituluan. Ondoren, posizionamendu horiek berak baldintzatzen dituzten tabua eta ezjakintasuna kudeatzeko erabiltzen dituzten estrategia psikolinguistikoetan arakatuko dugu.

Lau azpiatal analitiko hauetan, analisiaren oinarri diren ebidentziak jaso ditugu, eta hauek oro har pasarte diskurtsiboaren bidez islatu ditugu. Gure ikerketaren izaera kualitatiboa dela eta, narratiba minoritarioagoen balioa ere aintzat hartu dugu ilustragarria izan denean; hala ere, patroi diskurtsibo errepikakorak ere nabarmendu ditugu, haiek ere esanguratsuak direlakoan.

5.1. EUSKAL GATAZKA DEFINITZEN: GATAZKARI BURUZKO KONTZEPTUALIZAZIO ETA ‘FRAME’ NAGUSIAK NARRATIBA INDIBIDUALETAN

Gure analisiaren abiapuntu gisara, elkarrizketatu ditugun gazteen ahozko narratibetan eraikitzen diren *frame* nagusiak identifikatu eta aztertuko ditugu sakonean. Esperientzia eta ezagutza sozialak hauteman ahala egituratutako ezagutza- edo “kontzeptu-sortatan” (Dascal, 2003, p. 156) antolatzea eta, hartara, aldeztatik eraikitako ezagutza eta narratibekin bateratzea ahalbidetzen diguten marko interpretatiboak dira *frame*-ak, hala nola, hutsune kognitiboak osatzeko behar diren inferentziak egitea ahalbidetzen dutenak. Marko hauek informazioaren interpretazioa eta ebaluazioa gidatzen dute maiz (Goffman, 1974, p. 21), haien bidez hizlariak egoera, garai, aktore edo harreman zehatz batzuei buruzko narratibak eraikitzen dituztelako mentalki, eskura duten informaziotik alderdi zehatz batzuk aukeratuz, lehenetsiz eta antolatuz.

Frame-ek osagai sozial garrantzitsu bat dute, oro har kultura edo komunitate epistemiko bereko kideek informazioa modu edo patroi antzekoetan antolatzeko joera dutelako (Van Dijk 2005:17). Diskurtsoaren Analisisian, azterketa-maila makroestruturalekin dute zerikusia, hau da, diskurtsoen gai nagusien antolaketarekin. Makro-egiturek “diskurtsoaren edukiaren zentzuari buruzko ideia orokor bat eskaintzen dute, eta diskurtsoaren eta haren analisiaren beste hainbat alderdi kontrolatzen dituzte” (Van Dijk

2001:102). Testu-errepresentazioak memorian antolatzeko eraikitzen eta erabiltzen ditugun egiturak dira makro-egiturak: “Pertsonak testu bati buruz gogoratzen dutena ez da hainbeste haren esanahia, baizik eta testu horrek aipagai duen gertaerari buruz eraikitzen duen eredu [marko mental] subjektiboa” (Van Dijk, 2015, p. 4).

Subjektiboak izanagatik ere, sozialki mugatutako ulerkerekin osatzen dira marko hauek, eta horregatik harremana dute Goffmanen (1974) *frame* kontzeptuarekin. Elkartruke komunikatiboaren mugak ere ezartzen dituzte *frame*-ek: gaia mugatzeaz batera, egoera komunikatibo bakoitzean onargarriztat jotzen diren estrategia diskurtsiboei buruzko ezagutza partekatua ere badakarte. Beste era batera esateko, hizlarien arteko “oinarri komun bat” (Van Dijk 2003:86) ezartzen dute *frame*-ek, elkartruke komunikatiboa arrakastaz garatzeko ezagutu beharreko kontzeptu eta erreferentzia partekatuak kondentsatzen dituena. Horregatik, diskurtsoaren maila zehatzagoak aztertu aurretik (hizlarien posizionamendua edota estrategia diskurtsiboak, esaterako), beharrezkoa iruditzen zaigu lehenbizi haien testuinguru diskurtsiboa ezartzen duten markoak aztertzea.

Horretarako, gazteek *euskal gatazka* adierazpenarekin lotzen dituzten kontzeptu nagusiak identifikatu ditugu lehenik eta behin, eta jarraian, hari buruz ahozko elkarrizketetan eskaini dituzten definizio erako makronarratibak aztertu ditugu. Lehenbiziko punturako, parte hartzaile guztiei abiapuntu gisara planteatu diegun galderan emandako erantzunak aztertu ditugu: “Zer da burura datorkizun lehenbiziko gauza *euskal gatazka* entzuten duzunean?”. Galdera horrekin, alde aurretiko elaboraziorik gabeko asoziazioak egiteko eskatu diegu gazteei, hau da, *hitz gakoak* eskatu dizkiegu diskurtso egituratuagoen ordez.

Propio aukeratu dugu tonu informaleko formulazio interpelatzaile zuzena, galdera formal edo orokorrak alboratuz; esate baterako, “Zer da / nola definituko zenuke *euskal gatazka*?”. Izan ere, guk aukeratutako formulazioak bi funtzio betetzen ditu: alde batetik, elkarrizketaren hasierako *izotza haustea* eta elkarrizketatuei konfiantzazko ingurune batean daudela sentiaraztea, non espontaneotasuna eta euren ikuspegi pertsonala baloratzen baitiren; hau beharrezkoa iruditu zaigu elkarrizketaren ondorengo garapenerako. Bestetik, garrantzitsua iruditu zaigu gehiegi arrazionalizatu edo modalizatu gabeko erantzunak jasotzea; izan ere, diskurtsoan zenbat eta elaborazio gehiago egon, orduan eta modalizazio, arrazionalizazio eta antolaketa-estrategia gehiago agertu ohi dira, eta hauek guztiek diskurtsoaren edukian nabarmen eragin dezaketela ohartu garenez, elaborazio handiegirik gabeko kontzeptu aratzaioak jasotzea lehenetsi dugu ikerketaren hasieran. Horien bidez, gazteek gatazkarekin lotutako marko edo eredu mentalak interferentzia edo bitartekaritza gutxiagorekin berbalizatuko zituztela espero izan dugu. Gogora dezagun eredu mentalak (ingelesez, *mental models*) gertaera edo diskurtso espezifikoaren interpretazio pertsonalak direla, aldi berean munduari buruzko ezagutza orokorraren bidez osatzen direnak (Ibid., 93).

Bigarrenik, gatazkari buruzko narratiba orokorren identifikaziorako, egoera hipotetiko bat baliatu dugu gazteei gatazkari buruzko kontakizun esplizituago eta egituratuagoak eskatzeko: urrats honetan, “Nola azalduko zenioke kanpotar bati zer den *euskal gatazka*?” galdera eta haren aldaerak baliatu ditugu nagusiki. Galdera hauen helburua gazteek elkarrizketan jakintzat ematen dituztelako elipsatuko lituzketen datuak esplizitatzea izan

Gatazka armatu edota biolentoaren markoa diskurtsoan nola eraikitzen den behatzeko, lehenik eta behin gatazkan protagonismoa aitortzen zaien aktoreen aurkezpen- eta kategorizazio-prozesuei erreparatuko diegu. ETA ez ezik, nagusiki euren alderdi armatu edo militarragatik karakterizatzen diren aktoreak ekarri dituzte hizpidera gazteek, batik bat Guardia Zibila, Polizia eta GAL bezalako aktore kolektiboak. Horrez gain, biktimen karakterizazioari ere erreparatuko diogu, eta ondorioztatuko dugu hiru aktore horien (ETA, talde polizial eta parapolizialak, eta biktimak) erretratazioak, oro har, biolentziatzko gatazka baten markoa elikatzen duela, zeinetan instituzio eta ordezkari politikoak eta biolentziarik gabeko jarduerak fokutik at geratzen diren.

5.1.1.1. Aktoreen karakterizazioa: ETAr buruzko deskribapenak

Lehen kolpean, badirudi hizlari gehienentzat ETA dela kontzeptu zentrala, gatazkaz hitz egiten hasteko abiapuntua. Aktore hori nagusiki bere jarduera armatuetatik definitu dute hizlari askok:

1 *Bueno, pues en principio un conflicto entre un grupo de terroristas, que es*
2 *ETA, que tiene un conflicto principal con el Estado, español, porque busca la*
3 *independencia, vasca. Por tanto tomaron unas vías que ellos creían*
4 *consecuentes, que a través de la violencia o la fuerza armada podían*
5 *conseguir, pero... pues eso es el conflicto, vamos, que yo creo que es – que*
6 *hubo.*

Paulo-23-Urnieta


Pasarte honetan gatazkan inplikaturako bi aktoreen arteko polarizazio bat eraikitzen den arren (ETA eta Espainiako Estatu, 1-2. lerroetan), *gatazka* markoaren protagonista ETA da: Paulok hura bihurtzen du gatazkaren eragile. Agentibitate hori edo agentzia diskurtsibo hori “aktoreek konstelazio diskurtsiboen aurrean duten askatasun-graduen integrazio” (Leipold & Winkel, 2017, p. 2) gisara definitu izan da, eta adierazpen diskurtsiboetan hainbat markagailuren bidez beha dezakegu. Aztergai dugun adibidean, alde batetik, hizlariak ETA bera bihurtzen du pasarte diskurtsibo osoko subjektu agente nagusi: aditz forma aktiboek (“tiene”, “busca”, “tomaron”, 2., eta 3. lerroetan) inizatibadun eta bere ekintzen jabe den subjektu bihurtzen dute ETA. “Euskal independentzia bilatzen duelako” kausazko perpausak (“porque busca la independencia, vasca”, 2-3. lerroetan) ETAREN helburuetan kokatzen du euskal gatazkaren sorburua.

Aktoreari atxikitako ezaugarriei dagokienez, hura nagusiki agente biolento gisara erretratatu dela, eta, ondorioz, negatiboki ebaluatzen dela beha dezakegu: “grupo de terroristas” deskribapena (1. lerroa) karga semantiko nabarmena daukan eraikuntza bat da, aipatzen den subjektuaren jarduna deslegitimatzen duena (Shanahan, 2010, p. 174). Diskurtsoan aktorearekin lotuta ageri diren ekintza eta jarduerak, aldiz, “biolentzia” eta “indarra” dira (“la violencia o la fuerza armada”, 4. lerroan); hartara, aktore biolento eta ilegítimo gisara erretratatu da ETA pasarte honetan.

Aurkezpen negatibo honek ulertarazten digu hizlaria ez dela identifikatzen deskribatzen ari den aktore horrekin; areago, ETAREN jokabidearekiko desadostasuna nabarmentzen du distantzia diskurtsiboaren bidez, haren jarrera zeharka berreraikiz edo parafraseatuz (“unas vías que ellos creían consecuentes”, 3-4. lerroetan) eta hirugarren pertsona erabiliz: ETA “ellos” da uneoro, hau da, hizlariaren taldetik kanpoko subjektu bat. Diskurtsoan ez da ageri hizlaria barne biltzen duen identifikazio-formularik, beraz, *ETA* aktorea *outgroup* gisara eraikitzen duen narratiba baten aurrean gaudela ondoriozta

genezake (E. Das et al., 2009, p. 458). *Gatazka* kontzeptua aktore zehatz horren jarduerarekin parekatzeak ere *outgroup*-aren karakterizazioa indartzen du: egiaz hainbat talde sozial inplikatu dituen arazo konplexu bat aktore baten jardunera murrizten da kasu honetan, hura bihurtuz gatazkaren erantzule nagusi edo bakar.

ETA nagusiki bere jardura armatu eta biolentoagatik definitzen duen, eta, ondorioz, biolentzia-eragile gisara kategorizatzen duen marko diskurtsibo hau bildu ditugun ahozko narratiba gehienetan errepikatu da. Kategorizazio mota hau bi elementu diskurtsiboren bidez behatu ahal izan dugu: aktoreari buruz eskaintako definizioen bidez alde batetik, eta hari atxikitako ezaugarrien bidez, bestetik. Azken hauek aktorea deskribatzeko erabilitako adjektiboan eta hari egotzitako ekintzen bidez identifikatu ditugu. Bi elementuok aktoreen kategorizatorako markagailu gisara (Schegloff, 2007, pp. 466–474) operatzen dute diskurtsioan, aktore bati buruzko alderdi zehatz batzuk nabarmentzen dituztelako, hizlariak eraiki nahi duen marko orokorrarekiko koherentzian.



11. irudia: ETArari buruz eskaintako definizioak.

Gazteek ETArari buruz eskaini dituzten definizioetan, “talde terrorista” da gehien errepikatu dena (11 aipamen), eta, haren ondoren, “erakunde armatua” (8 aipamen). Bi formulazio hauek aktore berbera enmarkatzen duten bi *frame* interpretatibo kontrajarri eraikitzen dituzte. Lehena formulazio kriminalizatzaile bat da: *talde* izenak antolakundearen izaera politikoa ezkututzen edo ukatzen du, eta *terrorista* adjektiboak ezaugarri esentzialista batera murrizten du haren izaera: entitate edo pertsona bat *terrorista dela* diogunean (eta ez ekintza terrorista bat egin duela), haren izaeraren berezko ezaugarri bihurtzen dugu alderdi hori, haren poliedrikotasun edo garapen posibleak ukatuta (Velte, 2016a, p. 512).

Terrorismo terminoari buruzko literaturan zabal eztabaidatu da haren erabilera diskurtsibo-identitarioa: hari buruzko definizio unibertsalik ez dagoela aintzat hartuz gero (Shanahan, 2010, p. 176), oro har norbere taldearen interesen aurka diharduten aktoreen jarduna deslegitimatze erabili ohi den dispositibo kategorizatzailetzat jo ohi da

(Ramsay, 2015, p. 1), gehienetan terminoa erabiltzen duenaren posizioaren arabera interpretatu behar dena. Norbait “terrorista” gisara izendatzea, hortaz, posizio ideologiko eta identitario argi bat dakarren erabaki diskurtsibo bat da.

Definizio horren beste muturrean leudeke “erakunde armatu” bezalako definizio legitimatzaileak. Euskal Herriko testuinguruan, gainera, komunitate ideologiko zehatz batek partekatzen duen terminologia propioaren parte da formulazio hori, izan ere, ETAk bere buruari “erakundea” deitu zion bere historian zehar (Euskadi Ta Askatasuna, 2010). Formulazio horrek taldearen antolatutasunari egiten dio erreferentzia, bere burua armada baten moduko instituzio batekin parekatzen baitu: helburu legitimo batekin eta egitura logiko batekin jarduten duen kolektibitate baten irudia eraikitzen da hartara, biolentzia bestelako motibazio arrazionalik gabe eragiten duen talde terroristaren *frame*-ari kontrajarrita.

Gure elkarrizketetan ere bi marko nagusi hauen arteko talka identifikatu ahal izan dugu, eta oro har koherenteak izan dira hizlariak kasu bakoitzean hartu duten posizio ideologikoarekin: ETAREN iraganeko jardunarekiko ulerkorragoak zirenek edo hura legitimatzeko diskurtso justifikatzaileak eraikitzen zituztenek, oro har, *erakunde armatu* gisara definitu dute taldea. Era honetako diskurtsoetan, ETAREN helburu eta motibazio politikoari buruzko aipamen gehiago bildu ditugu. Aldiz, *talde terrorista* gisara definitu duten hizlariak haren ekintza armatu eta biolentoak nabarmendu dituzte batik bat diskurtsoan.

1 Zuk nola definituko zenuke?
2 ETA? Ba grupo terrorista bat bezala.
3 Zergatik?
4 Ba adibidez irakasle, bueno, hemen unibertsitatean jarri zuten bonba bat, ez?
5 Edo adibidez, [irakaslearen izena], dela nire GRALeko tutorea, baita
6 amenazatua egon zen, bere alabak baita. Ez dakit, pues niretzako hori — nik
7 logikoa ikusten dut ba adibidez Francoren garaian, ba ez dakit, pues aurre
8 egitea, baina jada beste gauza bat da kazetariei edo irakasleei... edo politiko
9 bat, PSOEkoa. Edo PPkoa, berdin zait.

Laura-21-Donostia

1 Iruditzen zait [gatazka] lehen horrela ETArekin hasi zela, edo erakundea sortu
2 zenezan, eta ondotik, hori ez dakit zenbat, 59an edo? Eta ondotik hemen
3 Iparraldean Iparretarrak-ekin, eta uste dut hor izan zela hasiera. (...) Baina
4 hori gero Frankismoarengatik izan zen Hegoaldean, eta euskaraz luza
5 baztertua edo oprimitua izan zen Frankismo garaian, eta hori, euskarari berri
6 leku bat emaitako. Euskarari eta euskal kulturari orokorrean, iruditzen zait.

Unai-16-Anhauze

Bi adibideotan, aktore berberari buruzko aurkezpen kontrajarriak eskaintzen dituzte bi hizlariak: Laurak ETAREN biolentziazko jarduerak nabarmentzen ditu bere diskurtsoan (4. eta 6. lerroetan), sufrimendua eragiten duen aktore gisara kategorizatuz. Pertsonalki ezagutzen dituen biktimen esperientzien narratibizazio batekin ilustratzen du rolen banaketa diskurtsibo hau (5. eta 6. lerroetan); hurbiltasunezko alegazioak, kasu honetan, bere diskurtsoa indartzen duen ebidentzial gisara (González et al., 2017, p. 3) operatzen du. Ifantidouren arabera (1994, p. 14), ebidentzialek bi funtzio betetzen dituzte: ezagutzaren iturburua seinalatzea eta hizlariaren ziurtasun maila adieraztea bere diskurtsoaren edukiarri buruz. Laurak darabilen “talde terrorista” designazioa (2. lerroan) koherentea da, hortaz, bere posizio ideologikotik eraikitzen ari den karakterizazioarekin.

5
6
7
8
9

edo beste bat ba familia. Familia, atentatu bat eduki duena edo. Eta gero terroristak eurek ere, euren familietatik hainbeste urrunduta ere, biktimak ahal dira izan. Guk ere azkenean hori sufritzen dugu, gure kontrakoan... bo, azkenean... ez dakit nola esplikatatu. Orain dagoen Euskal Herriaren kontrako hori moduan; guk ere alde batetik sufritzen ditugu konsekuentzi horiek.

Nagore-17-Oñati

Pasarte honetan, Nagorek *ingroup* argi bat eraikitzen du presoekin. Identifikazio hori, besteak beste, haien karakterizazioan eta aditzen erabileran antzeman daiteke: Nagorek hurbileko pertsona baten adibidea ilustratzen du, haren alderdi gizatiar bat (sufrimendua) nabarmenduz. Bestalde, biktima den taldearen barruan kokatzen du bere burua euskal herritar gisara, pluraleko lehen pertsona erabiliz (7. eta 9. lerroak). Biktimizazioa aktore zehatz batekiko enpatia piztea helburu duen eraikuntza diskurtsiboa izanik (Irazuzta et al., 2017, p. 56), presoan eta haien ingurukoan aurkezpen positibo bat osatzen duela ondoriozta genezake. Van Dijken *karratu ideologikoak* dioenez (1996, p. 21), subjektuek joera dute euren burua edo *ingroup*-a ahalik eta argi onuragarrienaren pean aurkezteko, eta horretarako ohiko mekanismoa da norbere alde positiboak nabarmentzea eta negatiboak ezkutatzea; teoria honen arabera, beraz, presoak “terrorista” gisara izendatzea (6. lerroan) kontraesankorra litzateke Nagore eraikitzen ari den *ingroup*-aren aurkezpen positiboarekin. Gure elkarrizketetan, hainbat aldiz errepikatu dira era horretako formulak antzeko testuingurutan, hau da, gazteek “terrorista” gisara deskribatzea diskurtsiboki legitimatzen, babesten edo *ingroup*-ean txertatzen duten aktore bat. Ondorioz, *terrorismo* terminoaren birsemantizazio bat gertatzen ari delako hipotesia planteatu genezake: gazteok ez dute *terrorismo* terminoa diskurtso guztietan elementu kriminalizatzaile gisara erabiltzen, baizik eta, sarritan, deskribatu nahi duten aktorearen izaera armatuaren sinonimo gisara. Beste era batera esanda: aurkezpen negatiboan lotutako narratibetan ez ezik, aurkezpen positiboan lotutakoetan ere identifikatu ahal izan dugu *terrorismo* terminoaren erabilera. Ondorioz, terminoaren orokortze edo naturalizazio bat gertatzen ari dela hipotetizatu dezakegu.

ETA nagusiki bere jardun armatu eta biolentoagatik definitzen duen marko hau gazteek talde armatuari buruzko definizioetan aipatutako ezaugarri eta ekintzetan ere beha dezakegu, ondoko hitz-lainoak ilustratu asmo duenez:

A word cloud of terms associated with ETA. The most prominent words are 'terrorista' and 'talde', both in large, bold, orange letters. Other words include 'askapen', 'nahia', 'biolentzia', 'atentatu', 'armatua', 'ekintzak', 'antolatua', 'erradikalak', 'erakunde', 'kaputxadunak', 'independentzia', 'manipulatuak', 'iraultzailea', 'eroak', 'alderdi', 'komunista', 'ekintza', 'presoak', 'aipaezina', 'alde kulturaren', and 'hotza'. The words are arranged in a roughly circular pattern, with 'terrorista' and 'talde' at the center.

12. irudia: ETArekin karakterizazioerako erabilitako adjektibo eta ekintzak.

Kasu honetan, gazteek euren ahozko diskurtsoetan ETArri atxiki dizkioten ekintza eta ezaugarriak aztertu ditugu. Alde batetik, nagusiki biolentziarekin zerikusia duten jarduerak egotzi dizkiote, batik bat “hilketak” (7 aipamen), “lehergailuak / bonbak jartzea” (3 aipamen) eta “atentatuak / erasoak” (4 aipamen). Kasu honetan ere sumatzen da bi marko interpretatiboren arteko lehia iradokitzen duen gatazka terminologiko bat: *talde terrorista vs. erakunde armatua* formulazioen antzera, oraingoan ere modu bertsuan erabili dituzte hizlari batzuek *atentatu/eraso* eta *ekintza* (3 aipamen) terminoak: hizlariaren posizio ideologikoaren arabera, *atentatu/eraso* terminoa, oro har, aurkezpen negatiboetara lotuta agertu da; eta *ekintza* terminoa, aldiz, aurkezpen positibo edo legitimatzaileei.

1 *Al principio ETA es un ente, un organismo político, pero luego, a medida que*
2 *va avanzando el tiempo y me imagino que a medida que la represión era más*
3 *dura en el País Vasco, empiezan a radicalizarse más, y luego sí que hay una*
4 *división entre ETA político y ETA político-militar. Y luego, al final, pues*
5 *digamos que la que vence es ETA político-militar, y esa es la que desde el*
6 *primer asesinato, que no sé si es Melitón Manzanas o así, hasta 2011, pues es*
7 *la que impuso su ley digamos en el País Vasco y en el resto de España pues*
8 *matando a gente, haciendo atentados, cometiendo asesinatos, pues para*
9 *conseguir su objetivo, que al final era la independencia del País Vasco.*

Ibai-20-Donostia

1 ETArren zein atentatu eta ekintza gogoratzen dituzu?
2 *EiTBko hori bai, baina bueno, ez zen — izan zen horren kontrako ekintza bat,*
3 *ez dakit adierazpen askatasunaren aurkako ekintzatzat sailkatu, baina oroitzen*
4 *du hori, bai. Nire ustez salaketa bat izan zen, bai EiTBk eta bai eraikin*
5 *horretan zeuden bertze komunikabideek komunikatzeko zerabiltzaten formen*
6 *kontrako eraso bat izan zen, hori argiki.*

Lur-16-Hendaia

Jokabide zehatzen atxikimendu bidezko karakterizazioaren ilustragarri dira bi adibideok. Bi hizlariak ETArri eragindako biolentziaz mintzo diren arren, erabiltzen duten terminologia eta eraikitzen dituzten markoek oso bestelako aurkezpenei ematen diete bide. Ibaik aurkezpen negatibo edo kriminalizatzaile bat eraikitzen du, *talde terrorista*-ren marko baten barnean kokatuta: ETArren jarduna “hilketa” (“asesinato”, 6. eta 8. lerroak), eta “atentatu” (8. lerroa) kontzeptuen bidez deskribatzen du batik bat, sufrimendu-eragile gisara erretratatu. “Impuso su ley” (7. lerroa) adierazpideko aditzaren aukeraketak aktore autoritario baten irudia eraikitzen du. Lurren kasuan, aldiz, negoziazio-sekuentzia intradiskurtsibo bat identifika dezakegu: hizpide duen gertakariak (EiTB irrati-telebista kate publikoaren aurkako atentatua, 2008ko abenduaren 31n) ETA biolentzia eragiten duen aktore gisara erretratatu duenez, baina hizlariak aurkezpen positiboago edo leunago bat eraiki asmo duenez, birformulazio bidezko transformazio estrategia bat (Van Leeuwen & Wodak, 1999, pp. 92–93) darabil 2-5. Lerroetan. “Baina bueno” lokailuak *disclaimer* gisara operatzen du, ondoren bere tesi birformulatua txertatzea ahalbidetzen diona: terminoak zehazteko prozesu horretan, *atentatu* terminoa *ekintza* termino eufemistikoagoagatik ordezkatzeko du hizlariak lehendabizi; eta ondoren, *salaketa* metafora darabil hura definitzeko. Hartara, injustizia bat seinatzen duen aktore gisara erretratatu du ETA, aurkezpen positibo bati bide emanez.

1 Tú mismo has mencionado ETA. ¿Me podrías decir cómo funcionaba ETA,
 2 quiénes lo conformaban, si conoces a algún representante?
 3 Los típicos que salen en la televisión, que están encarcelados y ahora alguno
 4 sale o así... pero no, no, no sé mucho de ETA.
 5 ¿Sabes lo que hacía?
 6 Sé que era un grupo político, como puede ser el PP o el PSOE y así, y pues no
 7 sé por qué exactamente, se cambiaron a matar a gente, en plan, pues eso.
 8 Matar a gente sí porque sí. (...)
 9 ¿Cuáles dirías que son las motivaciones ETA? A favor de qué están?
 10 ¿A favor de qué? Ostras, pues... A favor de la violencia, por supuesto. Cuando
 11 no quieren, o sea, cuando alguien dice, "No quiero esto" que tú dices, entonces
 12 recurren a la violencia.
 13 ¿Y como proyecto político?
 14 Ninguno. ¿Qué proyecto? Bueno, o implantar igual la anarquía — bueno, no,
 15 sí, podría ser, la anarquía. Que todo el mundo aquí como Pedro por su casa.

Alex-18-Barakaldo

Pasarte honetan, ETArek erabateko despolitizazio bat antzeman dezakegu: aktorea bere jarduerak biolentoagatik karakterizatzen da, eta ez zaio izaera politikorik edota motibazio arrazionalik aitortzen. Ondorioz, hizlariak zailtasun handiak ditu haren jarduerak testuinguru zabalago batean kokatzeko, hala nola, haren jokatzeko arrazoiak ulertzeko; narratiba honetan, beste helbururik identifikatu ezean, biolentzia bihurtzen da helburu bat bere horretan (10. lerroa). Alex argumentazio bat eraikitzen doa *ad hoc*: ETArek jardunari ezin dionez proiektu politiko bat erantsi, hura zentzugabe gisara ebaluatzen du. Elkarrizketatzaileak insistentzia gehixeagoz galdetzen dionean, kaosa edota ordenamendurik eza iradokitzen dizkion kategoria politiko batekin (*anarkia* kontzeptua, 14. lerroan) lotzen du pertzibitutako irrazionaltasun hori; “todo el mundo aquí como Pedro por su casa” adierazpen eginak ilustratzen du pertzepzio hori.

Gatazken alderdi politikoa ukatzen duten narratiba kriminalizatzaile soilek izan dezaketen eraginaren ilustragarri da adibide hau: gazteak ez badira gai gatazka historikoetan inplikaturako aktoreen motibazioak modu arrazionalen ulertu eta aztertzeko, absurdo gisara pertzibitzen dituzten elementuetan oinarritutako narratibak eraikitzen dituzte, sarritan ulertezintasuna dutenak elementu kohesionatzaile bakar gisara. Aktorearen jarduteko arrazoia ulertzen ez dugunez, gatazkaren garapena ere absurdoa iruditzen zaigu, hala nola, haren adierazpen gehienak; eta gisara kategorizatuta geratzen denak ez du errelebantziarik hartzen gazteen kezketan.

Analisi honen hirugarren atalean argudiatuko dugunez, tabuak ulertezintasun hori elikatzen du, bestela ulergarriagoak izan daitezkeen eremuak eztabaidatik kanpo uzten dituelako. Gure elkarrizketetan ere, deigarria izan da ETArek prominentzia zenbat kasutan egon den lotuta hari buruz hitz egiteko ezintasun batekin: gazte gehienentzat kontzeptu zentrala izanik ere, askok zailtasunak dituzte aktorea xehetasunez deskribatzeko edo hari buruzko datu gehigarriak eskaintzeko.

1 Nik adinkideak dauzkat, o sea, bost axola zaiela; ETA eurentzako da, ba hori,
 2 “lo innombrable”, Harry Potterren Voldemort dena? Ba ETA da. Ezin da
 3 aipatu. Eta ez dakite ezer, ez dutelako bizi izan; o sea, ez familia, familia ez da
 4 egon politikan sartuta, orduan ez zaie iritsi, eta nik uste dagoela pasotismo bat
 5 oso handia eta jada ahaztuta bezala. O sea, gertatu ez balitz bezala eta duela
 6 urte asko izan balitz bezala, ez direnean hainbeste urte.
 7 Tabu sentazioa daukazu gai honen inguruan? Ezin dela hitz egin?
 8 Hori da, hori da según zein alderekin, baina bai. O sea, nik kuadrilla
 9 arruntarekin (...) uste dut sekula ez genuela hitz egin ETArek buruz, ez bada

10
11
12

txiste bat egiteko. O sea, serio ez dugula hitz egin inoiz, ez sufrimenduaz, ez zer izan den ez... Eta ez dakit, nik ere nire partetik ikusten dut e – informazio falta nabari bat.

Gari-20-Getxo

Garik bere belaunaldiaren ikono kultural partekatuenetako bat erabiltzen du ETAK iradokitzen dizkion ezaugarriak irudikatzeko: *Voldemort* pertsonaiak gaizkia errepresentatzen du, baina baita tabua ere, hizlariak “aipaezin” gisara deskribatzen duena 2. lerroko aipu zuzenaren bidez; hartara, bere belaunaldiak partekatzen duen erreferentzia kultural bat erabiltzen ari da bere *statu quo* diskurtsiboa eraikitzeke (Van Leeuwen & Wodak, 1999, pp. 92–93). Garirentzat, ETARI buruzko ezezagutza da hari buruzko mutismoaren arrazoa: gatazka historikoari buruzko eztabaidan inplikatzeko konpetentzia komunikatiborik ez dutenez (Gumperz, 1982, pp. 43–44), gazteek umorea erabiltzen dute esparru diskurtsibo horretan sartzeko baliabide gisara (9-10. lerroak).

Kontzeptualizazio honen elementu zentrala, hain zuzen ere, ETAREN pertzepzio kontraesankorreak dago. Alde batetik, presentzia unibertsala da ezagutza kolektiboan: elkarrizketatu ditugun gazte guztiek ezagutzen dute, izenez bada ere; baina bestalde, tabuak eta ezjakintasunak hari buruz hitz egitea eragozten diete, eta horrek, aldi berean, areagotu egiten ditu bai tabua eta bai ezjakintasuna. Hari buruzko deskribapenen artean, “hotza eta antolatua” (Nagore-17-Oñati) eta “profesionala” (Unai-16-Anhauze) bezalako adjektiboek ere urruntasunezko pertzepzio bat iradokitzen digute aktore honekiko. Diskurtsioan ere islatzen den distantzia identitario edota kognitibo hau transmisio faltaren ondoriozko ezagutza faltarekin ere lotzen da, gazteei ezezagun eta ulergaitza zaielako sarritan aktore honen jokabidea.

Distantzia emozional hau aintzat hartzea ezinbestekoa da gazteok ETARI buruz eta gatazka armatuari buruz eraikitzen dituzten diskurtsioak aztertzerakoan. Gure datuetan, esaterako, ETA esplizituki gaitzesten duten diskurtsio kategoriko oso gutxi jaso ditugu. Horrek, alde batetik, pentsarazten digu gazteek distantzia emozional handiagoa sentitzen dutela hark iraganean gauzatutako biolentziekiko, eta, beraz, ez dutela *euren batailatza* sentitzen aktore horren deslegitimazioa. Bestetik, pentsa dezakegu ETAREN biolentziarekiko gaitzespena sozialki hedatutako eta ezarritako diskurtsio bat dela gaur egun, gazteon sozializazioan txertatuta egon dena eta haien arteko oinarri diskurtsibo komun gisara operatzen duena. Honen froga da gazteek eraikitzen dituzten narratiba asko premisa horren gainean osatzen dituztela inplizituki, hura jakintzat emanda edota hari erantzunda.

5.1.1.2. Guardia Zibilaren eta beste talde (para)polizialen deskribapenak

Gatazkan inplikaturako gainerako aktoreen artean ere marko armatu edo biolentzia nagusitzen da. ETAREN ostean, Guardia Zibilari buruz mintzatu dira gure elkarrizketatu gehienak sarrien. Harekin lotu dituzten kontzeptuen artean, “kontrola” izan da gehien errepikatu dena (%20), eta, haren ondoren, “frankista” (%7,5), “gorrotoa” (%5) eta “intimidazioa” (%5). Hizlarien jatorrizko herri edo eskualdearen arabera, asko aldatzen da Guardia Zibilarekiko duten harremana eta hari buruz duten ezagutza. Hego Euskal Herriaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko mugan bizi direnek, herri edo auzoan kuartela dutenek edota Altsasuko auzia hurbiletik ezagutu dutenek, oro har, Guardia Zibilari buruzko deskribapen eta hura inplikatzen duten gertakariei buruzko narratiba xeheagoak eskaini dituzte, harekiko harreman handiago bat adieraziz. Narratiba horietako gehienek Guardia Zibilaren errepideko kontrolekin edota bat-bateko agerpenekin dute zerikusia:

1 *Es que harrigarria iruditzen zait pues ostirale, Etxarrin pasatzea patrol bat,*
2 *presoen aldeko kontzentra bat dagoelako. Ostirale berdina egiten da, ez da*
3 *ezer gertatzen, eta hala ere pasatzen dira, jakiteko – nik uste dut gehienbat*
4 *delo guk jakiteko daudela hor. Psikologikoki, nik uste dut Poliziaren presentzia*
5 *ez dela hain estrategikoa arma – e, zentzu armatu batean, baina bai*
6 *psikologikoki ere min handia sortzen duena. Esateko: “Gu hemen gaude, ez*
7 *gara gaiaz ahazten, eta errepresioa jasan dezakezue edozein momentutan”.*

Ilargi-16-Etxarri Aranatz

Kasu honetan, Guardia Zibilarekiko harremanaren esperientzia pertsonal bat ari da narratzen hizlaria. *Patrol* kontzeptuak modu metonimikoan operatzen du: erakunde poliziala izendatu ordez, hark erabili ohi duen auto motaren bidez seinatzen du hizlariak. Ilargiri ulergaitza (“harrigarria”, 1. lerroan) zaio Guardia Zibilaren jarduna; izan ere, Ilargik normaltasunezko testuinguru baten barnean kokatzen du bere herrian presoen alde egiten den ostiraleroko elkarretaratzea. Beretzat, hori “ezer ez gertatzea” (2. lerroa) da, hau da, protesta modu baketsu bat da; biolentzia fisiko baten faltagatik definitzen du normaltasuna edo bakea. Beraz, inkoherentea zaio Guardia Zibilaren presentzia bertan, eta gatazkaren historiaren testuinguruan baizik ez dio zentzua topatzen (“ez gara gaiaz ahazten”, ipintzen du haien ahotan, 6-7. lerroetako aipu zuzenaren bidez). Guardia Zibilaren jarrera mehatxu gisara pertzibitzen du, zuzeneko aipu hipotetikoaren bidez formulatzen duenez: “Errepresioa jasan dezakezue edozein momentutan”.

Bildu ditugun ahozko diskurtso gehienetan, Guardia Zibilari buruzko ebaluazio eta karakterizazio negatiboak nagusitzen dira, sarritan emozioekin lotuta. Hura “zaharkitu”, “faxista” edo “gorrotagarri” gisara deskribatu dituztenetako askok, ordea, zailtasun handiak izan dituzte haren funtzioa, gaur egungoa zein historian bete izan duen rola, deskribatzeko:

1 *Ba [barre]... Ba, o sea, Guardia Zibilaren – o sea, da gorrotoa etortzen zaidan*
2 *lehen hitza entzuten dudanean Guardia Zibila. Baina teorikoki baino, ez*
3 *naizelako asko informatu, errealtatean edo praxian ikusten dena delako, ez*
4 *dakit, pues Altsasukoena da como el summum hau guztiarena, baina haraino*
5 *iristeko ere, uste dut haiek ere ez daudela inor zerbitzatzeko, baizik eta dela*
6 *más un acto de “aquí estamos y no nos vamos a ir”.*
7 *Badakizu Guardia Zibilaren funtzioa zein den Euskal Herrian? Zergatik eta*
8 *zertarako dauden?*
9 *[Buruarekin ezetz].*

Maddi-17-Tafalla

1 *Zer iritzi daukazu Guardia Zibilaren presentziaz Euskal Herrian? Lotzen dituzu*
2 *gatazkarekin?*
3 *Bai, bai. Zuzen. Ba es que gainera guk Algortan kuartela daukagu, eta hori –*
4 *o sea, nik justu lan egiten dut ikastola batean gero arratsaldeetan, eta hortik*
5 *pasa behar naiz bai ala bai. Iruditzen zait intimidazio puntu hori oso nabaria*
6 *dela, euren beldur bezalako hori. Eta presentzia izugarria, ez dakit Algortan*
7 *bakarrik diren, baina behar baino gehiago, eta zein da euren...? Ez dakit, guk*
8 *badaukagu “gure polizia”, esango nuke, eta ez dakit, iruditzen zait esajeratua,*
9 *esango nuke.*

Gari-20-Getxo

Bi adibideotan, Guardia Zibilarekin izandako harreman erreal baten narrazioa eskaintzeko gai dira hizlariak: hark eragiten dion emozio bat (“gorrotoa”) deskribatzen

du Maddik; Garik, aldiz, bere egunerokoan bizi ohi duen egoera baten kontakizuna eraikitzen du. Hartan, Guardia Zibila aktore “intimidatzaile” (5. lerroa) gisara erretratatu da, eta haren presentzia gehiegizko gisara ebaluatzen da (6. lerroa). Narrazioen zehaztasun mailak erakusten du bi hizlariak ezagutzen duten eremu bati buruz ari direla: Maddik zuzeneko aipu hipotetiko bat darabil, Guardia Zibilari buruzko bere iritzia haren ahotan jartzeko (6. lerroa); *Bestearen* ahotsaren berreraikuntza horrek *Bestearen* ezagutza bat iradokitzen duen baliabide erretoriko gisara funtzionatzen du. Halaber, bere tesia indartzen duten hainbat ebidentzial ere eskaintzen ditu Maddik, esate baterako, Altsasuko auzia aipatzen duenean (4. lerroa): “sumum” latinismoak auzi horrek hizlariarentzat duen izaera paradigmaticoa ilustratzen du. Maddik elipsatu egiten ditu Altsasuko auziari eta Guardia Zibilak hartan izandako parte hartzeari buruzko azalpenak, ezagutza partekatutzat jotzen dituelako; ondoriozta dezakegu, ordea, Guardia Zibila jotzen duela Altsasuko auziaren arduradun.

Bi pasarteotan arreta ematen du hizlariak ongi ezagutzen dituztela deskribatzen ari diren aktorearen alderdi zenbait (euren bizitzarekiko eraginari dagozkionak, bederen); baina ez Maddik eta ez Garik ez dakite zein den Guardia Zibilaren funtzioa. Gari galdera formulatzen hasten da 7. lerroan: “Zein da euren...?” galdetzen duenean, *funtzioa* hitza edo sinonimoren bat elipsatzen du. Haren rol historikoari buruzko daturik ere ez dute eskaintzen gazteek euren narratibetan. Honek erakusten digu sentimendu eta emozioen transmisioa ez doala derrigor lotuta ezagutzen transmisio batekin: Guardia Zibilaren kasuan, gure datuek bederen erakusten dute ebaluazio edo jarrera negatibo bat oso orokortuta dagoela, baina gazte gehienentzat ezezaguna dela aktore horren jarduna.

Era honetako egiturak sarritan topatu ditugu; areago, elkarrizketatu gutxienek aipatu dute Guardia Zibila inplikatu duen iraganeko gertakari zehatzen bat, ez bada euren auzi garaikide bat: horien artean, Altsasuko auzia da gehien nabarmentzen dena, alde handiarekin nabarmendu ere, gazteon belaunaldiko ikono bihurtzeraino. Guardia Zibilarekiko jarrera edo iritzi negatiboak esplizitatu dituztenei horren arrazoien inguruan galdetu diegunean, askok ez dute jakin zer erantzun, edo Guardia Zibilaren erabilgarritasunik eza erabili dute argumentu gisara: gehienek “zentsuragabe” edo “erabilgaitz” gisara definitu dute, oro har legitimoagotzat jotzen duten Ertzaintzaren existentziaren itzalean. “Guk badaukagu *gure polizia*” argudiatzen du Garik (8. lerroan); hartara, *polizia arruntan* kategoriatan batean kokatzen du Guardia Zibila, baina *ingroup*-etik aparteko posizio bat ematen dio. Horrek pentsarazten digu Guardia Zibilak euskal gatazkaren historian izandako rola eta haren jardura zehatzak eremu ezezaguna direla elkarrizketatu ditugun gazteontzat, eta, informazio hori gabe, euren egungo testuinguruko elementuetan oinarrituta eraikitzen dutela aktoreari buruzko ebaluazio erretrospektibo bat. Ebaluazio horrek, gehienetan, *Bestearen* eta kuartelen presentziak sentiarazitako intimidazioa, Altsasuko Auziari buruzko ezagutza eta *Polizia arruntak* bete beharko lituzkeen funtzioei buruzko hausnarketa bat inplikatu ohi ditu.

Salbuespen bat topatu dugu, nolana ere, Estatutik eratorritako talde polizial eta parapolizialen aipamenetan: Guardia Zibila euskal gatazkaren historiarekin asoziatzeko zailtasun handiagoak izan dituzten moduan, gazte gehienak askoz modu argi eta ziurragoan mintzatu dira GALen inplikazioaz. Elkarrizketatuen ia erdiek (%48k) aipatu dute euren iniziatibaz 1980ko hamarkadako talde parapoliziala solasaldiaren uneren batean; %19k, propio galdetuta, ez zutela ezagutzen adierazi dute. Gainerakoekin

elkarrizketa beste bide batzuetatik garatu da, eta, beraz, ez da haren aipamenik sortu, ez elkarrizketatuaren aldetik, ez eta elkarrizketatzailearen aldetik ere.

GALen berri nagusiki bi bidetatik iritsi zaie gazteoi: etxeko edo hurbilekoen esperientzien bidez, edota ikus-entzunezkoen bidez. Etxeko esperientziak, batik bat, eremu abertzalean aktibo izandako familietan eta Ipar Euskal Herrikoetan identifikatu ditugu:

1 GAL izan zen Estatuko talde ez dakit, txakur, bueno, polizia – es que ez dakit
2 nola deskribatu. Zen como antiterrorista, ez? Deitzen zela “antiterrorista”.
3 E... Galindo? zela buru. Eta baita egon dela kondenatua, pues, ez duela ezer
4 – o sea, ez zegoela espetxean. Eta bai daukala – nire familiarekin dauka oso
5 lotura estua: nire aitona (...) egon zen baita HBn eta asko mugitzen zen gai
6 horietan, eta GALek, bueno, ez dakit, GALek erreibindikatu zuen aldizkari
7 batean; GALek bere etxea metrailatu zuen, eta orduan bai izan dela pues hori,
8 gai hurbila.
9 Eta hori beldurrarekin bizi izan da zure etxean, edo nola gogoratzen dute?
10 Nire amak kontatu dit pues iritsi zela, eta, pues zituela kaskiloak, etxean
11 zeudela kaskiloak. Hori, kendu zituztela. Iritsi zela nire ama, eta esan ziola
12 nire amonak: “Jarri eskua”, nire amak jarri zuela eskua eta: “Hau da gaur
13 gertatu zaiguna”. Eta horrela. Eta esan zuen: “Eta hau?” – “Ni ez naiz
14 biktima, ni gatazka batean sortu naiz, eta alde baten etsaia naiz”. Ez da inoiz
15 biktima sentitu, alde bateko etsai bat bezala sentitu dira; eta nire amak ez, o
16 sea, normaltzat hartu zuen. Hurrengo egunean, uste dut Ikasle Abertzaleak
17 izan zela kartelak jarri zituena bere ikastetxean eta hor hasi zela negarrez,
18 baina momenturaino ez zela – o sea, zela normala bezala.

Ilargi-16-Etxarri Aranatz

Ilargiren pasarte honetan, bere narratiba osatzen duten hainbat elementu interdiskurtsibo topa ditzakegu elkarren talkan. Alde batetik, Ilargik partez erreproduzitzen duen *kanpoko* marko bat dago, zeinak GAL talde “antiterrorista” gisara kategorizatzen duen: Ilargik zeharkako aipu gisara txertatzen du diskurtso hau bere narratiban, harekiko distantzia nabarmena hartuz; aipu bat, eta, hortaz, beste inoren esana dela esplizitatzen du 2. lerroan. Bestetik, bere familiako esperientzia dago, amaren eta amonaren ahotsen bidez erreproduzitzen dena: hartan, “txakur” metaforaren bidez irudikatzen dira poliziak (1. lerroa). Adierazpen hau Ilargik bere ingurune sozialean ikasi duen lengoaia politikoaren parte da, egoera komunikatibo zehatz honetan birformulatzen duena, hau da: Ilargi ohartzen da lengoaia pribatuago baten parte dela kode hori, ez ikerketa-helburuetarako elkarrizketa baterako egokia. Kanpoko normatibitate diskurtsiboa ez urratzearen, bere burua zuzentzen du ostera.

Ilargiren kontakizunean, GALen biktima diren senideak dira protagonista: eurek hitz egiten dute eta eurek sentitzen dute. Aktore agentibo gisara erretratatu du Ilargik bere ama, biktima kategoriaren aurrean hartzen duen jarrera deskribatzen duenean (13-14. lerroa). Hartara, bere familiak sufritutako tiroketa estrategia diskurtsibo normalizatzaile edo leuntzaile batekin kokatzen du beretzat logikoa edo ulergarria den testuinguru diskurtsibo batean, hau da, gerraren edo gatazka biolento baten *frame* batean.

GALi buruz xeheen mintzatu den beste talde bat Ipar Euskal Herriko elkarrizketatuak izan dira. Eskualde horren historiagatik, euskal gatazkarekin izan duten esperientzia kolektiboa desberdindu egiten da Hego Euskal Herriko gazteenengandik, hainbat zentzutan: alde batetik, Ipar Euskal Herria hegoaldeko errefuxiatuentzako babesleku izan zelako 80ko hamarkadara arte; eta, ondorioz, GALek ere bertan gauzatu zuelako bere

jardunaren zati handi bat, hain zuzen ere iheslarien aurka (Goenaga, 2013, pp. 77–83). Bestalde, ETaren jardunaren zati txikiena bertan gauzatu izana eta, aldiz, desarme prozesuan tokiko gizarte zibilak izandako parte hartzea ere (Esnaola Karrera, 2017) Ipar Euskal Herriko esperientzia kolektiboaren ezaugarri bereizgarri dira, bertako gazteei ere iritsi zaiena:

1 *GAL zer zen? Erakunde armatu bat, beraz, ETaren kontrakoa, baina sekretua*
2 *normalki. Eta hori zen aliantza sekretua justuki estado[e]n artean; eta*
3 *finantzatzen zuen GAL, sekretuki, bistan da, etakideak hiltzeko.*
4 *Hemen Ipar Euskal Herrian Hegoaldeko errefuxiatu asko egon ziren 80ko*
5 *hamarkadan. Ez dakit haien istoriorik kontatu dizuten.*
6 *Bo, bat kontatu didate. Hori zen hor, hor izan zen pertsona batek kontatua;*
7 *berak lan egiten zuen – Baigorri bizi da, eta Arrosan lan egiten zuen. Eta*
8 *justuki bere etxean baziren errefuxiatuak, beraz horiek ekartzen zituzten. Eta*
9 *horiek ere leku berean lan egiten zuten. Eta horiek hiru ziren, uste dut*
10 *errefuxiatuak, eta beraz autoan abian zen horiekin (...). Eta bidean moto bat*
11 *gurutzatu, tipo bat ikusi bere motoan, eta ez du gehiago kasu egiten; eta gero*
12 *jakin zuten besteak horiek errefuxiatuak etxera sartzean moto batek doblatu*
13 *zituela eta tipoak tiratu; eta hil ziren bi edo hiru. Hori kontatu dit.*
14 *Zuri nola kontatu dizute GALen garai hura, zuek jaio baino 20 urte lehenago?*
15 *Bai, baina hori zinez – hori hara, jakiten da kontatuta, eta Baionan izan den*
16 *tiroketa, eta Monbar Hotelekoa, guziak entzun ditut. Baina, gero ere beti*
17 *erraiten dut; ez dut sekula ikuspegi objektibo batetik entzun, eta beti*
18 *euskaldunen ahotik dut entzun edo. Eta beraz gertatu zena ere ez dakit sekula*
19 *zer den egia edo.*
20 *Zure gurasoek hitz egin dizute honi buruz?*
21 *Ez, gutti. Nik entzun ditut hola, honek hilketak edo izan zirela. Eta zinez GAL*
22 *zirela – GAL gaixtoak, eta Iparretarrak-ekoak gixajoak. Baina hori normal,*
23 *“gu” baiginen. Gu edo gure familiakoak-eta.*

Unai-16-Anhauze

Unai GALi buruz ingurune sozialean jaso dituen ezagutzekiko posizio bat hartu nahi du pasarte honetan. Interdiskurtsibitatearen presentzia nabarmena dago bere kontakizunean, eta berak ere esplizitatzen du narrazioaren polifonikotasuna: “kontatu didate” aditzak (6. lerroan) zeharkako aipu luze baterako sarrera-formula gisara operatzen du. “Hor izan zen pertsona baten” lekukotza erreproduzitzen ari dela zehaztean, aldiz, bere ezagutzen egiazkotasunaren ebidentzial bat eskaintzen ari da: kontatzera doana ez du berak zuzenean ikusi, baina bigarren eskutik ezagutzen du. Hortik aurrerako kontakizuna, funtsean, zeharkako aipu bat da, eta jasotako diskurtso baten berreraikuntza bat. Unai GAL hiltzaile gisara erretratatu duen gertakari bat deskribatzen du, ostera ere gatazkaren marko biolentoenean kokatuz. Pasarte horren zeharkako ezagutza nabarmenduz amaitzen du kontakizuna: “Hori kontatu dit” formularekin (13. lerroa), berriz ere distantzia hartzen du narratu berri duen edukiarekiko.

Era berean, “jakiten da kontatuta” adierazpidea ere (15. lerroa) zeharkako aipu baten sarrera formula bat da; baina oraingoan hizlariak ez du interdiskurtso horren iturririk aipatzen. Aitzitik, ezagutza partekatua dela ulertarazten du, bere ingurune sozialean transmititzen den jakintza bat. “Guziak entzun ditut” (16. lerroa) perpausean lehen pertsona erabiltzen duenean, bere burua transmisio-giro horren barruan kokatzen du, *ingroup* epistemiko bat eraikiz. Beste era batera esanda: bere ingurune sozialean kontatzen diren istorioek eta haien ezagutza partekatuak osatzen dute, Unairentzat, *Gu* deitzen dion komunitatea.

Jarraian, ordea, *disclaimer* bat txertatzen du, komunitate horretako *statu quo* diskurtsiboa zalantzan jarriz: “Ez dut sekula ikuspegi objektibo batetik entzun, eta beti euskaldunen ahotik dut entzun edo. Eta beraz gertatu zena ere ez dakit sekula zer den egia edo” (17-19. lerroak). Eskura duen informazioaren iturria *ingroup*-a bera izateak ez du Unairen begietara fidagarriago bihurtzen (Ilargiren kasuan bezala), kontrara baizik: iturriaren gizatasunak eta hurbiltasunak zalantzarriago bihurtzen du, eta hartatik kanpoko ikuspegi “objektiboago” (17. lerroa) baten eskaerak hura kontrastatu edo egiaztatuko duen diskurtso publikoago baten absentsia iradokitzen du. Unaik *ingroup-outgroup* kategorien kontzientzia handia erakusten du pasarte honetan, eta, hain zuzen ere taldeak iraganari buruzko diskurtsoak bere buruaren aurkezpen positiboaren mesedetan sortzen dituela uste duelako, ez zaizkio sinesgarriak iruditzen kategorizazio sozial horretan oinarritzen diren diskurtsoak.

Bi kasuistika horietatik at (familia oso politizatueta eta Ipar Euskal Herriko parte hartzaileak), Hego Euskal Herriko gainerako elkarrizketatu gehienentzat idatzizko edota ikus-entzunezko medioak izan dira GALen berri jakiteko euskarri nagusia.

1 *Eta Espainiak, ba, o sea, bakea lortzeko oso disposizio gutxirekin [jokatu du].*
2 *Eta... gainera ere, ba, o sea, oso zikin jolastuta. Adibidez GAL bezalako bat*
3 *sortzea, ba, nahiko gogorra-edo [da].*
4 *GALi buruz zer nabarmenduko zenuke?*
5 *Ba... joe, Felipe González? Eta GALen inguruan gehien iritsi zaigun kasua*
6 *izan da Lasa eta Zabalarena, batez ere pelikula egin zelako gero eta agertzen*
7 *delako.*

Maddi-17-Tafalla

Maddirentzat, bi izen edo kontzeptu dira zentralak GALi buruz hitz egiteko: Felipe González Espainiako presidente ohia (alde handiarekin, GALen testuinguruan gehien aipatu duten izena izan da; zortzi elkarrizketatuk ekarri dute hizpidera) eta Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren bahiketa eta hilketak⁶ (Goenaga, 2013, pp. 29–43). Azken horren prominentzia haren mediatikotasunak eragin du belaunaldi honentzat: elkarrizketatu gehienek 2014an estreinatutako *Lasa eta Zabala* luzemetraiari (Malo, 2014) egin diote erreferentziaren bat kasua aipatzerakoan. Honek iradokitzen digu ikus-entzunezkoen garrantzia memoriaren transmisioan. Bestalde, Maddiren pasartean antzeman daiteke interdiskurtsibitatearen beste adibide bat: bere ezagutza ikus-entzunezko diskurtso batean ez ezik, sozialki partekatua den kontzeptu batean ere oinarritzen da. Izan ere, “zikin jolastu” metaforak (2. lerroa) *gerra zikina* kontzeptuari egiten dio erreferentzia, GALen testuinguruan erabili ohi izan dena (Goenaga, 2013, pp. 5–12) Estatuak bere *arma* legitimo edo ofizialetatik harago erabilitako baliabide armatuak izendatzeko. *Zikin jolasteak* gatazka armatua joko baten terminoetan kokatzen du, eta haren *arauak* ez betetzea inplikatzeko, hau da, Estatuak erakunde armatu ofizialekin jardutea, eta ETAk, klandestinoki. Metafora horretan, Estatuak baliabide klandestinoak (hau da, erakunde paramilitarrak) erabiltzeak jokoaren arauak hautsiko lituzke.

Haatik, GALi buruzko ezagutza erlatiboki handia antzeman dugu gure elkarrizketetan, eta horren arrazoia gazteek eskura duten errepertorio komunikatiboan datzala planteatu genezake. Zinemako film ezagun batean ez ezik, testu-liburuetan ere jasota daude hari

⁶ Joxean Lasa eta Joxi Zabala iheslariak 1983an bahitu zituzten Guardia Zibileko kideek GAL (Grupos Antiterroristas de Liberación) talde paramilitarraren izenean. Haien gorpuak bi urte geroago agertu ziren Alacanten, baina ezin izan zituzten 1995era arte identifikatu (Goenaga et al., 2013).

lotutako hainbat aipamen (Velte, 2019a, p. 67). Hortaz, gazteek eskura dituzte GALi buruzko narratiba publiko eta kontsentsuatu samarrak. Guardia Zibilaren kasuan, ostera, indarrean jarraitzen duen arazo politiko eta soziala izanik, oraindik ez da existitzen hark euskal gatazkan izandako inplikazioari buruzko narratiba partekaturik. Gure ustez, horrek azalduko luke bi aktoreei buruzko diskurtsoen arteko aldea: GALen eragina denboran urrunago eta kontzentratuago egon arren, gazteak ziurrago eta xeheago mintzo dira hartaz, oinarri diskurtsibo sendoagoa daukatelako eskura.

5.1.1.3. Gertakari gogoratuenak

Gatazka biolentoaren *frame*-a ez da soilik aktoreen karakterizazioan antzematen: elkarrizketatuek gehien *gogoratzen* dituzten gertakariei erreparatuta ere, ondorio berdinerara hel gaitezke. Ondorengo taulan laburtu ditugu euren inizatibaz elkarrizketetan aipatu dituzten gertakari zehatzak. Egozten zioten egilezaren eta biolentzia mailaren arabera sailkatu ditugu, giza bizitzen galerak inplikatzen dituzten eta ez dituzten gertakarien artean bereiziz; bestalde, hizlariak tokiko erreferentzia gisara hizpidera ekarri dituztenak ere aintzat hartu dugu.

Gertakariaren izena	Aipamen kopurua	Hilketa	Tokiko erreferentzia
Hiperkorreko leherketa	6	Bai	0
Auto leherketak	4	Bai	1
Ortega Lararen bahiketa	4	Ez	1
Carrero Blanco	4	Bai	0
Mehatxuak	4	Ez	3
Guardia Zibilak zauritzea	3	Ez	3
Yoyesen hilketa	3	Bai	0
EiTBren aurkako atentatua	3	Ez	1
Guardia Zibilak hiltzea	2	Bai	1
Miguel Angel Blancoren hilketa	1	Bai	0
Meliton Manzanasen hilketa	1	Bai	0
Irene Villaren atentatua	1	Ez	0
Isaias Carrascoren hilketa	1	Bai	1
Lemoiz	1	Bai	1
Zuloak egitea	1	Ez	0
Kontainerrak erretzea	1	Ez	0
Drogaren aurkako kanpaina	1	Bai	1
Diskoteketan lehergailuak	1	Bai	1
Bahiketak	1	Ez	1
Denera	20 gertakariaren 43 aipamen	25/43 (%58,1)	15/43 (%34,9)

7. taula: ETArri atxikitako gertakariak.

Gertakariaren izena	Aipamen kopurua	Hilketa	Tokiko erreferentzia
Altsasu	10	Ez	5
Atxiloketak	9	Ez	5

Torturak eta tratu txarrak	9	Ez*	1
Ilegalizazioak	4	Ez	1
1936ko kolpea, gerra, Gernika, fusilamenduak	4	Bai	1
Martxoak 3	2	Bai	1
Egunkariaren itxiera	2	Ez	0
Pasaiaiko Badiako Segada	1	Bai	0
Susana Arregiren hilketak	1	Bai	1
Denera	10 gertakariaren 42 aipamen	8/42 (%19)	15/43 (%34,9)

8. taula: Indar armatuei atxikitako gertakariak.

Bi taulen alderaketak erakusten du oro har aipamen kopuru antzekoa bildu dugula aktore bati zein besteari atxikitako gertakarietan: 43 aldiz aipatu dute gure elkarrizketatuek ETari atxikitzen dioten jazoeraren bat, eta 42 aldiz, indar armatuei egotzen dieten bat. Nolanahi ere, alde handia dago aipamen horien aniztasunean: ETari hogeitaz gertakari desberdin inguru atxiki dizkiote hizlariak. Indar armatuez aritzerakoan, aldiz, hamar gertakari buruz baino ez zaizkigu mintzatu elkarrizketatuak; oro har ETaren jardunari buruzko ezagutza xeheagoa dagoen seinale.

Sailkapen honetarako, soilik kontuan hartu ditugu elkarrizketatuek euren inizatibaz elkarrizketara ekarritako aipamenak, eta kanpo utzi ditugu elkarrizketatzaileak propio planteatu dituenak; hartara, gazteen memorian *berez* edo interkazio honen aurretik zer nabarmentzen den ezagutu nahi izan dugu, ikertzailearen interferentzia baino lehen. ETari atxikitako gertakarien kasuan, erdiak baino gehiago (%58,1) giza bizitzen galerak inplikatu dituzten gertakariak izan dira, kasu askotan izen-abizen edo tokiko deskribapen zehatzen bidez jantzi dituztenak. Indar armatuei atxikitako gertakariak, aldiz, askoz deskribapen orokorragoen bidez aipatu dituzte, eta oro har giza hilketarik inplikatu ez zuten gertakariak izan dira. Hainbat tortura kasu ondorio gisara atxilotuen heriotza izan duten arren (adibidez, Lasa eta Zabalen kasuan), gure elkarrizketatuen narratibetan ez da hilketen aipamenik agertu; horregatik, sailkapen honetarako kategoria horretatik kanpo utzi ditugu torturak eta tratu txarrak.

Indar armatuei egotzitako gertakarietan, historia hurbileko jazoerak nabarmentzen dira batik bat: Altsasuko auzia eta hainbat atxiloteta, batez ere 2010eko hamarkadan egin ziren Herri Harresien testuinguruan gertatutakoak (Iruretagoiena, 2016), elkarrizketatutako gazteetako zenbaitek pertsonalki gogoratzen dituzten edo hurbilekoen bidez jaso dituzten gertakariak dira. Hain zuzen ere, hurbiltasun geografikoa ere oroitzapen zehatzen prominentzia azaltzeko aldagai garrantzitsu bat dela uste dugu: hizlariak garrantzitsutzat jo eta elkarrizketara ekarri dituzten gertakarien heren bat baino gehiago euren testuinguru geografiko hurbilean jazotako pasarteak izan dira. Honen arrazoietakoa izan daiteke etxeko transmisioa, sarritan, familiaren ingurune fisiko eta sozialera mugatzen dela: belaunaldi artean kontatzen diren istorioetako asko senideei edo haiek pertsonalki ezagutzen zituzten pertsonen buruzkoak izan ohi dira. Gazteek istorio horiei eszenatoki fisiko edo geografiko ezagun bat atxiki badieziaiekete, litekeenagoa da istorio horiek xehetasun handiagoz gogoratzea eta, ondorioz, ziurtasun handiagoarekin

erreproduzitzea, *urrun* (denboran eta espazioan) edo ezezagun gisara pertzibitzen dituzten beste gertakari batzuk baino.

Horren adibide da, esaterako, Susana Arregi ETako kidearen heriotza soilik Oñatiko elkarrizketatu batzuek aipatu izana; izan ere, Arregi herri horretakoa zen. Irunberriko Arroileko gertakarietan (1990) galdu zuen bizitza, Guardia Zibilarekin enkontrua izanda. Bertsio ofizialak suizidio gisara dokumentatu du gertakaria; ETak eta ezker abertzaleak, aldiz, torturen ondorengo “exekuzio” gisara salatu zuten bere garaian (Lopez Adan, 2021a, pp. 791–794). Oro har, ez da memoria kolektiboan ikono bihurtu den gertakari bat, baina errelebantzia berezia hartzen du Arregiren herrikideen narratibetan, hurbiltasun bat atxiki diezaioketelako.

Arregirekin batera, indar armatuei egotzitako ekintzen artean jaso ditugun bi izen propio bakarrak Igor Portu eta Mattin Sarasolarenak dira. Hauek hizpidera ekartzekoan ere, hurbiltasun geografikoa faktore erabakigarria da:

1 Etxean kontatu izan dizute zu txikia zineneko gertakari politikoen berri?
2 *Ez, baina bueno, gauzaren bat... adibidez, nire aita medikua da, Donostiako*
3 *ospitallean. Eta e, tokatu zitzaion Igor – Lesakako bat –*
4 *Igor Portu?*
5 *Bai. Eta hautsi zizkiotela bi saiheits, eta eraman zutela beregana, eta holako*
6 *gauzak.*
7 *Eta berak ezagutzen zuen?*
8 *Bai, herrikoa.*
9 *Gogoratzen duzu hori kontatu zizunekoa?*
10 *Orain dela gutti erran zidan. Bo, militantzian enteratu nintzelako. Hori, eta*
11 *azkenean berak erraten zuela herrikoeri nola zegoen.*
12 *(...)*
13 *Zuretzako zeintzuk dira gatazkaren biktima nagusiak? Badaukazu buruan*
14 *pertsona edo kasu jakinen bat?*
15 *E... Mattin – Mattin Sarasola, bere familia, dagoena Jaenen.*
16 *Zein da euren kasua? Esplikatu dezakezu?*
17 *Bueno, Igor eta Mattin egun batez hola joan ziren Arrasatera edo, eta*
18 *azkenean guardia zibil batzuek hartu zituzten, eta inkomunikatu zituzten,*
19 *akusatzen Madrilgo T-4, hori, Terminal Cuatroko atentatua egiteaz.*
20 *Inkomunikatu zituzten, torturatu, e, Igorreri saiheitsak hautsi zizkioten,*
21 *ospitalera joan zen, eta bitartean – adibidez Igorrek bazekien Mattineri*
22 *torturatzen ari ziotela, eta azkenean hori da beretzat ere tortura psikologikoa.*
23 *Gero, e, bere, bo, etxera eraman zituzten, registratzera dena eta, eta hori*
24 *herrian jendeak badaki; ikusten da, bo, sartu zirela beraien etxeetara, familia*
25 *barruan izanda, eta kriston guardia zibil pila. Eta azkenean, hori, espetxera;*
26 *Igor ustez Cordoban dagoela, eta Mattin Jaenen. Bo, Espainian, bertze*
27 *puntan. Andaluzian eta – eta Espainiar konstituzioak erraten du berez etxetik*
28 *ahalik eta hurbilen egon beharko zirela, eta azkenean kontrakoa da.*

Gorka-15-Hendaia

Igor Portu eta Mattin Sarasolaren aurkako torturak egiaztatutzat jo zituen Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (Conseil de l’Europe, 2018). Kasu honetan, Gorkak bere testuinguru sozialaren perspektiba berreraikitzen du kasu hau narratzeko, beretzat errelebantzia duten elementuen arabera egituratua: oro har, izen hutsez aipatzen ditu bi pertsonaiak, hau da, “Igor eta Mattin” (17. lerroa), hurbiltasuna adieraziz; beretzat, Portu eta Sarasola bere familiaren herriko bi pertsona arrunt dira, ETako kide edo pertsonaia publikoak bainoago, eta gizatasun horrek bihurtzen ditu, beretzat, gatazkaren biktimen sinbolo.

Elkartruke komunikatibo honetan, hainbat informazio mota partekatutzat ematen dituzte bai elkarrizketatuak eta baita elkarrizketatzaileak ere: lehenak “bi saiheits hautsi zizkiotela” dioenean (5. lerroa), elipsatu egiten du ekintza horren subjektua (Guardia Zibila) eta testuingurua (atxiloketa). Horiek bigarren pasartera arte ez ditu esplizitatzen, gertakaria xehetasun handiagoz berreraikitzen duenean.

Berreraikuntza horretan, ingurune sozialetik jaso dituen diskurtsoetan oinarritzen da osoki Gorka. Alde batetik, bere aitaren (medikuaren) perspektiba txertatzen du: “adibidez” (2. lerroa) adberbioa zeharkako aipu edo kanpoko diskurtso batekiko sarrera-formula da, eta hortik aurrera erabiltzen dituen aditz konpletiboak (“zizkiotela” eta “eraman zutela”, 5. lerroan) ere zeharkako aipu baten presentzia seinatzen duten markagailuak dira. Implikaturaz, ondoriozta daiteke bigarren pasartean xehetasun handiz deskribatzen dituen torturak ere aitaren, hau da, Portu artatu zuen sendagilearen bidez jasotako ezagutzak direla. Gorkak ingurune sozialetik jaso duen diskurtsoa implikazio handiz berreraikitzen du, distantziamenduzko formula diskurtsiborik gabe ia; “ustez” (26. lerroan) da pasarte osoan erabiltzen duen modalizatzaile bakarra. “Herrian jendeak badaki; ikusten da” adierazpideak (24. lerroa) ere ezagutza sozial horri egiten dio erreferentzia, eta *ad populum* erako ebidentzial gisara operatzen du diskurtsoan.

Gorkaren ingurunean, biktimizazio injustu baten markoa nagusitzen da Portu eta Sarasolaren istorioari buruz mintzatzerakoan, eta Gorkaren narratibak ere marko hori elikatzen duten elementuak txertatzen ditu. Protagonistak herriko gazte arrunt gisara erretratatu dira, eta haien jardueraz eskaintzen den informazio bakarra da “egun batez Arrasatera” joan zirela (17. lerroa). Ekintza honek ez dauka bere horretan lotura zuzenik atxilotua izatearekin eta torturak sufritzearekin; hortaz, informazio hori ikusarazteak areagotu egiten du injustiziaren markoa. Espainiako Konstituzioaren aipamenak ere (27 eta 28. lerroetan) funtzio erretoriko berbera betetzen du: *Bestearen* diskurtso ofizial bat parafraseatuz, haren kontraesana agerian uzten du.

Azkenik, interesgarria da Gorkak bere etxeko transmisioaz kontatzen duena 10 eta 11. lerroetan. Izan ere, Portu eta Sarasola 2008an atxilotu eta torturatu zituzten, hizlariak sei urte zeuzkala; narratzen dituen ospitaleko gertakariak, hortaz, elkarrizketa gertatu baino ia hamar urte lehenago izan ziren. Gorkak, ordea, “duela gutxi” jakin du horren berri, “militantzian”, hau da, interes politiko baten ondorioz; implizituki ulertzen da berak abiatu zuela informazioaren bilaketa aktiboa, eta haren haritik gauzatu zela ezagutzaren transmisioa.

Aipatu ditugun bi kasu zehatzez harago (Susana Arregiren eta Portu eta Sarasolaren kasuak), hizlariak orokorrean xehean deskribatu dizkiguten gertakariak euren hurbileko pertsonen indar armatuen partetik sufritutakoak izan dira, besteak beste, atxiloketak, kontrolak eta espetxeratzeak, baina gehienak izen propiorik aipatu gabe eta anekdota arrunten marko baten barruan narratuta. Hizlariak hurbileko informazio-iturrietan oinarritzen dituzte alderdi honi buruzko narratiba gehienak, baina ez diete aski erreferentziarik aitortzen, eta normalizaziozko narratiben barruan kokatzen dituzte oro har.

ETAk eragindako gertakariei dagokienean, aldiz, kontrakoa behatu ahal izan dugu: hizlariengandik urrun (denboran zein espazioan) gertatutako kasuak dira xehetasun gehienekin erreproduzitu dituztenak. Hurbiltasunak faktore esanguratsua izaten jarraitzen

du gertakarien prominentziarako, baina analisi diskurtsibo xeheagoa eginez gero, ikus daiteke gazteek oro har narratiba egituratuagoak eraiki dituztela kanal publikoetatik iritsi zaizkien gertakariari buruz. Hauek, oro har, heriotzak eragin dituzten gertakariak izan ohi dira, hizlariak euren hurbilean esperimentatu ez dituztenak; esate baterako, Carrero Blancoren hilketak 1973an⁷.

Atentatu horren xehetasun ugari azalerau dira elkarrizketetan: besteak beste, “beti mezetara joaten omen zen toki berdinetik, eta jarri zioten lur azpian bonba bat” (Ekaitz-16-Altsasu), eta haren autoa propulstatu egin zuela lehergailuak. Gertakaria umorezko tonuan berreraiki dute zenbaitek, adierazpen hiperbolikoak erabiliz; adibidez, autoak “hegan” egin zuela (Ane-21-Mutriku) nabarmenduz. Unibertsitateko lehenbiziko mailan zeuden parte hartzaileek selektibitateko ikasitako gaitegiari egin diote erreferentzia, iturri gisara; besteak beste ezagutza partekatua edota ikus-entzunezko produktuak aipatu dituzte.

- 1 Carrero Blancoren hilketak zerorrek aipatu duzu, esplikatu zenuke zer
2 dakizun gaiari buruz?
3 *Gutxi, baina Franco hil ondoren izendatu behar zuten Carrero Blanco*
4 *generala diktadore berri bezala, eta orduan jarri zioten bonba lata bat*
5 *[barre], eta hori, hil zuten. Deitzen zela “Operación Ogro”, orain atera dutela*
6 *dokumental bat.*
7 Historiara nola pasa da? Zerbait ona bezala, tristea, txiste bezala...?
8 *Carrerorena? Bai, eta gaur ere, zeren gainera ETAren inguruan esango nuke*
9 *dagoela polemika asko; lehen esan dudana, ez dugula hitz egiten gure artean,*
10 *baina, berriz, Carrerori buruz, edonork hitz egiten du, edo edonork esaten du*
11 *edozein gauza.*
12 Eta hori zergatik da, historian urrunago geratzen delako edo adostasun
13 handiagoa dagoelako?
14 *Uste dut dela adostasun askoz ere gehiago dagoelako. Orduan, da: nor ez da*
15 *egongo diktadore baten aurka? Gutxi gorabehera. Nire inguruan, noski. Gero*
16 *ateratzen bazara urrun, ba...*

Maddi-17-Tafalla

Maddirentzat, eroso da Carrero Blancoren hilketaz hitz egitea, bere inguruan kontsentsu sozial zabala eragiten duen gertakari gisara hautematen duelako: hau da, diskurtso publiko samar bat du eskura bere narratiba bertan oinarritzeko. Euskal Herriko memoria kolektiboan *memoria lekutzat* jo izan da atentatu hori, bere momentuan tokiko gizartean eragin zuen “katarsi kolektiboak” (Ayerbe & Olaziregi, 2016, p. 219) haren transmisioa erraztu zuelako. Bere inguruko kontsentsu sozialaren hartzaile gisa, Maddiren erosotasuna diskurtsoaren tonu lagunkoi eta umoretsuan antzeman daiteke, besteak beste, gatazkari buruzko eremu diskurtsiboari dagokion adierazpen propio bat erabili eta nahi gabe hura birsemantizatzen duenean (“bonba-lata”, lapa-lehergailuaren orde), egoerak eragiten dion barreguran. 14 eta 15. lerroetako galdera erretorikoak (“Nor ez da egongo diktadore baten aurka?”) are gehiago nabarmentzen du kontsentsu sozialaren pertzepzioa, eta aipatzen duen ikus-entzunezko produktuak kanpoko diskurtso bati egiten dio erreferentzia. Haatik, bitxia da denborazko deixiaz 5. lerroan egiten duen erabilera: *Operación Ogro* 1979an estreinatutako dokumentala da, hizlaria mintzo den unea baino ia 40 urte lehenago; suposa dezakegu beretzat informazio berri samarra dela


⁷ Luis Carrero Blanco Francoren diktadurako gobernuko presidentea izan zen, eta haren eskuin eskua. ETAK 1973ko abenduan hil zuen Madrilen, haren autoa leherrarazita (Agirre, 1978; Ayerbe & Olaziregi, 2016; Eser & Peters, 2016).

dokumentaetik jaso duena, eta horri egiten diola erreferentzia “orain” denborazko deiktikoak (5. lerroa). Gorkaren adibidean bezalaxe, hizlariak informazio zaharra aktiboki prozesatzen dutenean kokatzen dute datu berri gisara euren eredu mentaletan.

Bestalde, adibide honek ilustratzen du kontsentsu sozial handia duten gaietan handiagoa dela ezagutzaren transmisioa, eremu diskurtsibo *baimendua* ere handiagoa delako. Gazteek euren narratibak oinarritzeko kanpoko diskurtso gehiago dituzte eskura; hauek zenbat eta publikoagoak izan (hezkuntzan edo komunikabideetan, esaterako), oinarri sendoagoa eskaintzen diete. Aldiz, polemiko gisara hautematen diren gaiak (adibidez, ETA eta haren jarduna, Maddiren arabera) tabu bihurtzen dira, gazteek ez dutelako sentitzen aski oinarri diskurtsiborik dutenik haiei buruzko eztabaidan inplikatzeko. Honek azalduko luke zergatik jaso ditugun historian urrun gertatutako kasu mediatikoenei buruzko narratiba xeheak, eta, aldiz, auzi berriago eta disputatuei buruzko narratiba zalantzatiagoak, nahiz eta, paradoxikoki, azken hauek liritekeen hizlariengandik hurbilen leudekeenak eta, logikaz, hobekien ezagutu beharko lituzketenak.

5.1.1.4. Biktimen karakterizazioa

Halaber, bildu ditugun datuen behaketan oinarrituta, planteatu genezake beste ideia bat: biolentzia fisikoa ezaugarri nagusitzat duen gatazkaren *frame*-ra gehien egokitzen diren narratibetan ere transmisio handiagoa ematen dela, hau da, atentatu eta hilketekin zerikusia duten gertakariak eta haiek sufritu dituzten figurak gehiago nabarmentzen direla memoria kolektiboari buruzko diskurtsoetan.



13. irudia: Biktimak eta haien sailkapena, gazteen diskurtsoetan.

Norbere taldearen biktima-identitate historikoaren eraikuntza diskurtsiboak alde batera utzita (zeinak zehatzago azalduko baititugun 5.3. *Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak* kapituluan), hizlariak argi eta garbi biktima gisara identifikatu dituzten talde edo aktore zehatzen aipamenak jaso ditugu euren narratibetan. 12. irudian grafikoki eta aipamen-kopuruaren araberrako hurrenkeran antolatu ditugu; bertan ikus daitekeenez, *biktimak* kategoria, oro har, hilketekin lotu dute hizlariak, eta,

zehazki, ETAk eragindako heriotzekin. Azken hauek aipamenen heren bat baino gehiago bildu dituzte; haien senideak ere batuz gero (bigarren biktima mota aipatuena), ETaren biolentzia zeharka edo zuzenean sufritu dutenek *biktima* kategorian sailkatutako aipamenen ia erdiak bete dituzte gure datuetan. Nabarmen gutxiago, eta euren artean kopuru antzekoetan, aipatu dituzte hizlariak sakabanaketa sufritzen duten presoek familiak (%10), eta guardia zibilak eta haien familiak (%10). Estatuaren partetik biolentzia zuzena sufritu duten pertsonak (modu orokorrean “errepresaliatu” gisara deskribatuta edota frankismoko fusilatutako, esaterako) eta presoak kasu gutxiagotan jo izan dira biktimatzat. Aipamenen %1 baino gutxiago bildu dituzten figurak, aldiz, *Besterik* kategorian bildu ditugu; haien artean daude, besteak beste, ETAk bahitutakoak, politikariak eta “txibatoak” (Idoia-17-Oñati).

Grafikoan beha daitekeenez, zuzenean edo zeharka biolentzia fisikoa sufritu duten pertsonak kategorizatu dituzte gure elkarrizketatuek nagusiki biktima gisara. Biktimen kontzeptualizazio hau koherentea da aztergai dugun marko kognitiboarekin: euskal gatazka batik bat biolentziak (eta, bereziki, ETaren biolentziak) markatutako gatazka gisara definitzen badugu, logikoa da lehen lerroko biktimatzat biolentzia fisiko hori sufritu dutenak hartzea.

1 Zeintzuk esango zenuke izan direla euskal gatazkaren biktima nagusiak?
 2 *E... ez dakit, o sea, biktimak, como tal, hil direnak, edo biktimak de... sufritu*
 3 *izan dutenak?*
 4 Denak.
 5 *Bueno, ba, nahi gabe... o sea, nahi gabe ez, baina, e – hil ziren pertsonak eta*
 6 *hil ez behar zirenak, en plan, ez zirenak el objetivo; haien familiak, eta... ez*
 7 *dakit, hori.*
 8 Ados. Badaukazu kasu konkreturik buruan?
 9 *Mm... nola deitzen da? Irene ez... hil zena – o sea, ez zela hil, geratu zela*
 10 *hankarik gabe.*

Haizea-17-Tafalla

1 *Se habla mucho (...) del sufrimiento de todas las víctimas, evidentemente. De*
 2 *que no es solo una parte o, bueno, en este caso es una parte las víctimas de*
 3 *ETA, pero también parte, pues, temas de régimen de Franco etcétera. Que*
 4 *también había guardias civiles o determinados grupos que también pueden*
 5 *tener más mano libre y hacían lo que les daba la gana. Entonces, pues señalar*
 6 *todas las víctimas.*
 7 ¿Tú estás de acuerdo?
 8 *Sí, sí, sí. Al igual... Yo creo que independientemente de quién haya matado,*
 9 *no? Es... la víctima es la víctima. O sea, tú has sufrido e igual que ha habido*
 10 *igual gente de ETA que las han secuestrado y como el caso este que hubo, no*
 11 *me acuerdo muy bien como fue, que está en Podemos esta la chica, que tiene*
 12 *unos hermanos, Lasa o...*
 13 ¿Pili Zabala?
 14 *Sí, eso es. Que le secuestraron no sé qué, y luego aparecieron no sé dónde y*
 15 *tal. Pues evidentemente si esos –no sé muy bien el caso–no hicieron nada, o*
 16 *por estar próximos a un movimiento se los quitaron de en medio de esa*
 17 *manera, pues evidentemente estoy en contra de eso.*

Paulo-19-Urnieta

Bi kasuotan, biktimei buruzko irudi antzekoa eraikitzen dute bi hizlariak: biek *hildakotan* pentsatzen dute *biktima* kontzeptuaz galdetzen zaienean, eta, bereziki, *hildako errugabe* kategorian. Interesgarria da, halaber, biak testuinguru ideologiko aski ezberdinetatik datozela: Haizearen ingurunea abertzalea da, eta ETaren jarduna begi onez ikusten da bertan oro har; eremu horretako diskurtso dominatzaileak haren jardunaren legitimazioa

du oinarri. Paulok, aldiz, talde armatu horrexen biolentzia sufritu izan du familian. Hortaz, biek seinalatzen dituzte euren ingurunean ezagutu ez dituzten *Beste* biktima batzuk, baina bi kasuetan gatazkarekiko inplikazio edo ardura zuzenik gabeko figurak aukeratzen dituzte euren narratiben eraikuntzarako. “Hil ziren pertsonak eta hil behar ez zirenak” adierazpenean (6. lerroa), Haizeak erabiltzen duen modalitate deontikoak biktima horiekiko injustizia azpimarratzen du, baina baita, inplikaturaz, “hil behar zuten” figura batzuen existentzia ere; hau da, biolentziaren erabilera justifikatu gisara ebaluatuko lukeen bestelako kasuak, ez lituzkeenak biktimatzat joko.

Antzera, Paulok ere lehen lerroan ETAk eragindako biktimak sartzen ditu kategorian horretan. “Pero también parte de...” adierazpena (3. lerroa) gehikuntza bidezko transformazio-estrategia bat da, bigarren ideia bat eransteko: bestelako biktimak ere badaudela *Beste aldean*. Zehazki, Lasa eta Zabalaren kasua jartzen du adibide gisara; “si esos no hicieron nada” baldintzazko perpausak (13-14. lerroetan) haiek *biktima* kategorian sartzeko bete beharreko koalitatea ezartzen du: erantzukizunik ez izatea.

Antzeko diskurtsoak azaleratu dira parte hartzaile talde batekin gauzatu dugun *Sufrimenduaren mapa* ariketa kolektiboan. Hartan ere, gatazkak eragindako biktimak identifikatzeko orduan, nabarmendu dira “kulpa barik kartzelaratuak izan direnak” eta “erailak izan ziren pertsona zibil errugabeak” bezalako baieztapenak, biktimen izaera moral aratza eta borondatezko inplikazio falta azpimarratuz.

Gure datuetan oinarrituta, esan genezake *biktima* kontzeptua oraindik orain biolentzia fisikoarekin eta, bereziki, ETaren biolentzia fisikoarekin lotzen dela batik bat; era honetako egiturak elkarrizketa gehienetan antzeman ditugu, hizlariaren posizio ideologikoa zeinahi izanik ere. Horren ondoren, norberaren posizioaren eta testuinguruaren araberrako irakurketak nagusitzen dira, zeinetan hizlariak bere komunitate ideologikoaren barruko figuren sufrimendua nabarmentzen duen, adibidez, presoena. Kasu horietan ere, ordea, nolabaiteko sufrimendu fisikoa inplikatzeko duten egoerak dira gehien aipatzen direnak, besteak beste, norberaren askatasun fisikoa (mugitzekoa, bizitzekoa) ukatu zaien pertsonak jotzen direlako biktimatzat.

Azkenik, “denok gara biktima” gisako orokortzeak ere identifikatu ahal izan ditugu hainbat elkarrizketatan. Era honetako egiturek norbere taldearen identitatearen eraikuntza diskurtsiboari erantzuten diotela uste dugu, eta, horregatik, 5.3. *Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak* kapituluaz aztertu ditugu xeheago.

5.1.1.5. Izen propioak

Elkarrizketatuek gehien aipatu dituzten izen propioei erreparatuta ere, antzeko ondorioetara helduko gara: euskal gatazkaren protagonista gisara ikusten dituzten figurak Arnaldo Otegi (%18,75) eta Felipe González (%15,62) dira, eta haiei jarraitzen diete Jose Migel Beñaran *Argala*-k (%9,38), Josu Uribetxebarriak (%6,25), Enrique Rodríguez Galindok (%3,12) eta Iñaki de Juanak (%3,12).

Gatazkaren alderdi militarari lotutako izenak dira ia guztiak, bai ETako kide ezagun edo buruzagi ohienak, eta baita Espainiako Gobernuaren GALen garaian ardurak izandakoenak ere. Salbuespena Arnaldo Otegi EH Bildu alderdiaren egungo koordinatzailea litzateke, zeina bere prominentzia garaikideagatik nabarmendu den, nahiz eta hizlari askok ez duten zehazki jakin nola sailkatu ikuspegi historiko batetik:

1 *Ba, e, pues uste dut hasiera batean ETAKoa zela – ETAkidea zela, baina gero*
2 *pues politikari ekin zion, eta gero ya pues atxilotu egin zuten. Eta orain, pues*
3 *berriz dago bide horietan.*

Ekaitz-16-Altsasu

1 *Elkarrizketatzailea: ¿Conocéis a alguien que ha sido detenido?*
2 *[Isilunea. Pentsakor. Barreak]*
3 *Jaione: Sí... no me sale. El de Bildu, ¿no?*
4 *Edurne: Arnaldo Otegi.*
5 *Jaione: Eso.*
6 *Edurne: Pero eso fue que salió en libertad después de haber estado preso.*
7 *Jaione: A, estuvo preso y salió. ¿Pero estuvo condenado por ETA? ¿O sea,*
8 *por... por el tema?*

Basauri, taldeko elkarrizketa

Bi adibideotan, hizlariak zailtasunak dituzte euren testuinguru politiko garaikideko figura bat gatazka armatuaren historian kokatzeko: ez daude ziur Otegi ETAn jardunaren testuinguruarekin nola lotu. Bi adibideotan hitza hartzen duten hizlariak (batez ere Ekaitzek eta Jaionek) zalantzazko eta distantziamenduzko hainbat estrategia diskurtsibo erabiltzen dituzte, besteak beste, modalitate epistemikoa (“uste dut”, Ekaitzen adibideko 1. lerroan) eta *feedback* eskaerak (“¿No?” eta galdera berrestailen erabilera, Basauriko talde elkarrizketako 3. eta 8. lerroetan). Bigarren pasartean, argi antzeman daiteke, gainera, interakzio komunikatiboaren barruko rol banaketa: Edurnek, Jaione baino urtebete helduagoa izanik, aditu rola hartzen du, eta bere ikaskidearen zalantzen aurrean modalizaziorik gabeko erantzun ziurrak eskaintzen ditu.

Kontraesana, ziurrenik, Otegi *politikariaren* figura garaikidearen eta iraganeko gatazka armatuaz eraikita duten eredu mentalaren arteko inkoherentziatik dator: ETAn kideez talde terroristaren *frame*-a nagusi den testuinguru batean figura politiko edo ez biolento bat txertatzeko, bateratze-estrategia diskurtsibo bat erabili behar dute hizlariak. Estrategia hori lehenago ere azaldu dugun *bi aurpegiko narratibarekin* ebazten da usu, hau da: aktore berari aurpegi positibo eta arrazional bat eta aurpegi negatibo eta irrazional bat eransten zaizkio.

1 *Bueno ba inportanteak edo destacableak izan direla, ba Argala adibidez, eta*
2 *gero gaur egun nahiko bake prozesu horretan parte hartuta dagoen Otegi,*
3 *adibidez.*
4 *Nola deskribatuko zenituzke Argala eta Otegi?*
5 *Argala bai militantzia biolentoaren-edo bai, zera, biolentoaren barruan*
6 *intelektual bat, eta Otegi zuzenean intelektual bat. (...) Ba leku denetan*
7 *modura badaude batzuk sartu direnak ETAn euren idealak defendatze aldera*
8 *eta badaude batzuk sartu direnak norbait izateko gogoarekin. Nik uste dut*
9 *jende asko pistola bat eskuan edukitzean morbo horrek eraginda sartuko zela*
10 *ETAn, eta bueno, ba ezer apartekorik gabe defendatzeko. Eta hori, ba pistola*
11 *batek boterea ematen dizunarekin bat, horrekin aurrera segitzeko. Beste*
12 *batzuk sartuko ziren herriaren borroka defendatzeko. Niretzako diferentzia*
13 *hor dago: batzuk izango ziren verdugo batzuk sin más, eta beste batzuk jada*
14 *ideal batzuk defendatzeko zeuzkan jendea.*

Enaitz-17-Oñati

Kasu honetan, Enaitzek gatazka biolentoaren eskemari heltzen dio, baina biolentzia gauzatzeko motiboen artean bereizten du; hortaz, berak “intelektual” (5-6. lerroak) gisara

definitzen dituen figurei legitimitate handiagoa aitortzen die, helburu arrazionalak atxikitzen dizkielako. Bereizketa honek aktoreak kategorizatzeke dispositibo (Silverman, 1998) polarizatziale bat du oinarrian, gatazkako aktoreak *biolento* eta *politiko/demokratikoen* terminoetan sailkatzen duena. Bereizketa dikotomiko hau diskurtso orokortua da euskal gatazkaren historian; dokumentatua eta kritikatu izan da (Azurmendi, 1997; Torrealdai Nabea, 2021, p. 54), besteak beste, biolentziaren erabilerari izaera politikoa ukatuz eta aktore zehatz batzuk harekin lotuz interlokutore politiko gisara deslegitimatzeke erabili izan delako.

Diskurtso hau hizlariaren testuinguruan partekatua den ezagutza bat da, eta hark ere erreproduzitzen du bere diskurtsoa eraikitzen duenean. Hortik dator Argalaren eta Otegiren artean egiten duen bereizketa: lehenbizikoa, “militantzia biolentoaren barruko intelektuala”, ETArene estrategia armatuaren barruan kokatzen du. Otegi, aldiz, “zuzenean” jotzen du intelektualtzat, eta, aldiz, bere testuinguru garaikideko bake prozesuarekin lotuz, iraganeko estrategia armatuarekin baino gehiago. “Zuzenean” adberbioak elementu armatuaren interferentziarik eza irudikatzen du. “Verdugo” (13. lerroa) eta “ideal batzuk defendatzeko zeuzkan jendea” (14. lerroa) karakterizazio kontrajarriek ere aktoreen kategorizaziorako dispositibo horri egiten diote erreferentzia.

Pertsonaia prominenteen zerrenda horretan agertzen diren beste lau aktoreak gatazkaren alderdi biolentoenarekin lotutakoak dira: ETako bi kide ezagun eta mediatiko, Josu Uribe txebarria eta Iñaki de Juana; eta GALen arduraduntzat jo ohi diren Felipe González eta Enrique Rodríguez Galindo. Lehenbiziko biek euren garaiko prentsan jasotako arreta, eta, maiz, sufritutako demonizazioak (Velte, 2016b) azaldu lezake neurri batean zergatik hartzen duten gaur egun hain leku nabarmena gazteek gatazkari buruz eraikitzen dituzten diskurtsoetan.

Bestalde, arreta handia ematen du zerrendako izen guztiak gizonezkoenak izatea: politikari zein militante, badirudi haien izenak ari direla geratzen gazteen memorian iltzatuta. Euskal gatazkaren testuinguruko emakumeen errepresentazio eta irudien eraikuntza aztertu duten autoreek lehenago ere nabarmendu izan dute haiei oro har amatasun, bikotekide edota zaintzaile rolei lotutako estereotipoen bidez begiratu izan zaiela, eta rol horietatik atera ohi direnak, aldiz, demonizatu egin ohi direla diskurtso publikoan (Rodríguez Lara, 2013, p. 157). Bakegintzaren eta gatazken ikerketaren esparruan, aldiz, irudi eta diskurtso polifonikoagoak aintzat hartzeko beharra nabarmendu dute García González (2019) eta Galardi Fernández de Agirre (2021) bezalako autoreek.

Gure datuak ere neurri handi batean bat datoz ondorio horiekin; izan ere, gazteen narratibetan ETako emakumezko militanteekiko erreferentzia gutxi batzuk topatu ditugun arren, gehienak hizlariaren ingurune sozial edo familiarreko pertsonak izan dira, eta oro har ez dituzte pertsonaia publiko gisara kategorizatu. Figura ezagun gisara aipatu duten emakume bakarra Dolores González Katarain *Yoyes*⁸ izan da, baina hura ere gehiagotan kokatu dute biktimizaziozko marko batean, haren parte hartze aktiboa nabarmentzen duten *frame*-etan baino:

⁸ Maria Dolores González Katarain *Yoyes* ETako militantea eta une batean zuzendaritzako kide izan zen. 1980ko hamarkadan Mexikora erbesteratu zen, talde armatutik distantziatuta (Pando Canteli & Rodríguez Pérez, 2020), eta handik bost urtera Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen. ETak berak hil zuen tiroz 1986an.

1 *Yoyes ETAn pertsona garrantzitsu bat izatera edo iritsi zen bitartean, erabaki*
2 *zuen beretzat zuzena izango zen bidea hartzea. Gainera uste dut seme bat edo*
3 *zeukala, eta erabaki zuen bide zuzenago bat edo hartzea, eta ETAk ez zion*
4 *barkatu irtetze hori. Orduan, pentsatzen dut ETAn sartzeko inizatiba*
5 *errespetatu den momentutik irteteko ere errespetatu behar dela; orduan ez*
6 *dut pentsatzen Yoyesen hilketari zer edo zer duina izan zenik.*

Enaitz-17-Oñati

Enaitz bezalaxe, Yoyesen kasua aipatu duten beste bi hizlariak ere (Eli-15-Altsasu eta Laura-21-Donostia) haren heriotzaz mintzatu dira batik bat. Guztietan, arrazionalitate bateranzko (“bide zuzena”, Enaitzen hitzetan) trantsizioa egin duen figura gisara karakterizatzen da, eta horregatik injustuki biolentzia sufritzen duena. Hirutik bi kasutan, gainera, haren ama rola nabarmentzen da (2. lerroa), feminitatearen ezaugarri estereotipatuak betez: pasibitatea, biktima izaera edota besteentzat sakrifizioak egitea, besteak beste.

Gainerakoan, emakumeei buruzko aipamenak batik bat ezagutzaren transmisore rolean identifikatu ahal izan ditugu, hau da, hizlarien hurbileko ama, lagun edo ezagunen baten esperientziaren erreproduzioaren bidez. Hizlariak eurek, ordea, ez dituzte gatazkan figura esanguratsutzat jo, generoaren araberrako ikusgarritasun-arrakala nabarmen bat agerian utziz.

5.1.1.6. Gatazkaren alderdi politikoaz

Oro har *euskal gatazka* gatazka armatu eta biolento baten terminoetan kontzeptualizatzen duten arren, haren izaera politikoa, hau da, biolentziaren azaleratzean eragin duten egiturazko faktore eta aldagai kulturalak (Galtung, 2003, p. 7) nabarmentzen dituzten narratibak ere eraiki dituzte hainbat elkarrizketatuk, nahiz eta hauek argiki minoritarioagoak izan diren.

Era honetako eraikuntzek ez dute gatazkaren sorburua ETaren biolentzian kokatzen, baizik eta bestelako aldagaietan: diktadurako errepresio kulturalan, abertzaleen independentzia nahietan edota proiektu politiko eta sozial zehatzetan. Egitura diskurtsibo hauetan, biolentzia ondorio bat litzateke, kausa bat baino gehiago.

1 Etorriko balitz turista bat Euskal Herrira, ez dakiena ezer Euskal Herriari
2 buruz, eta galdetuko balizu, “Zer da euskal gatazka?”, nola azalduko zenuke?
3 *Hori dut beti arazo nik, ez dakidala sekula xuxen esplikatzen, ez dakit, e; nik*
4 *esplikatzen hola xuxen ez dakit, ez baitit sekula neherek ikuspuntu objektiborik*
5 *eman zinez.*
6 Inork ez dauka ikuspegi objektiborik.
7 *A, baina ez dakit, hobe, Euskal Herriak bere independentziarako edo, bai, eta*
8 *euskararen ezagupenerako eta eramaiten duen borrokan kontra izan diren*
9 *elementu guztiak eta horrek sortu du euskal gatazka.*

Unai-16-Anhauze

Lehenbiziko instantzian, Unai ez da legitimatuta sentitzen euskal gatazkari buruzko azalpen bat emateko. Legitimitate falta hori diskurtso sinesgarrien (“objektiboen”, 4. lerroa) eskuragarritasun ezari egotzen dio (3-5. lerroak). Elkarrizketatzaileak konfiantza handitzeko berreste-formula bat txertatu arte (7. lerroan), ez du eskumenik sentitzen bere diskurtso propio bat eraikitzeke. Hartan, bost elementu bereiz ditzakegu: subjektu bat (Euskal Herria), bi helburu (independentzia eta euskararen ezagutza), hura lortzeko

instrumentu bat (borroka), antagonista bat (kontrako elementuak) eta ondorio bat (gatazka).

Borroka terminoa biolentziaren erabilera deskribatzeko hautatutako metafora bat da: gutxienez bi alderen arteko gatazka inplikatzeko du, eta kutsu legitimatzaileagoa dauka, esaterako, *terrorismo* terminoak baino. *Borroka* helburu legitimo baten alde egiten da; *terrorismoa*, aldiz, norbaiti izua eragiteko mina edo mehatxua egitea da (Shanahan, 2010, p. 177). Helburu hori esplizitatu egiten du hizlariak: Euskal Herria subjektibizatuz, hau da, erreferentzia geografiko bat subjektu bihurtuz, agentzia lausotzen da, eta, aldiz, kolektibitate zabal baten interes orokor gisara aurkezten dira “independentzia” eta “euskararen ezagutza” helburuak. Aditz intrantsitiboaren erabilerak funtzio naturalizatzailea betetzen du kasu honetan: borroka “egon da”, bere kabuz gertatzen den zerbaiten gisara, eta ez du subjektu zehatz batek egin edo eragin. Kasu zehatz honetan, gainera, ezkutuko aiputzat (Reyes, 1996, p. 20) joenezake aukeraketa lexikoa: *borroka* terminoak ETAk berak erabili ohi zuen *borroka armatua* terminoaren oihartzuna dakar (Lopez Adan, 2021).

Unai indar antagonista baten presentzia txertatzen du diskurtsoan (“kontra izan diren elementu guztiak”, 8-9. lerroetan), eta interes horien arteko talka jotzen du gatazkaren kausatzat. Narratiba honetan, gatazkaren elementu biolentzia lausotuta edo maila instrumental batera murriztuta geratzen da, haren funts politikoa (helburua) kokatzen delako lehen planoan. Metodoak edo moduak bigarren mailan geratzen dira, eta aktoreak, ikusezin.

Narratiba hibridoago batek bereizi egiten ditu gatazka armatua eta gatazka identitarioa:

1 “Euskal gatazka” entzuten duzunean, zer da burura datorkizun lehenbiziko
2 ideia?
3 *Bueno. Bi ideia. Bata da independentziari buruzkoa; ez ETArekin, baizik eta*
4 *hemen dagoen identitate nazionalari buruz, edo Espainiaren gatazka. Eta*
5 *gero beste bat da jada ETArekin. O sea, zer paper jokatu duen ETAk eta nola*
6 *sartu diren, ba bueno, beste konfliktorekin, independentziarekin edo hemen*
7 *nahi dugun, bai, independentzia hori, ba nola ETA jada sartu den bere*
8 *estrategiarekin. (...) Nik uste dut, a ver, erlazionatuta daude, noski; baina nik*
9 *uste dut ETAk bere kabuz egin zuela (...) bera izan zen hasiera hori eman nahi*
10 *izan zion mugimendua.*

Laura-21-Donostia

Kasu honetan, gatazka armatua ez da zuzenean gatazka identitarioaren ondorio edo efektu gisara kontzeptualizatzen: paraleloki garatu diren bi arazo dira Laurarentzat. Bakoitzaren erroa eta hartatik eraikitzen duen lauki polarizatzailea desberdinak dira: lehenbizikoan, aurrez aurre dauden aktoreak Espainia eta euskal herritarrak dira, eta bigarren aktore honen helburu batek (independentziak, nortasun nazionalaren aitortzak) eragiten du euren arteko interes gatazka. Hizlariak argi identifikatzen du bere burua azken talde horrekin: *ingroup* bat eraikitzen ari da “hemen” tokiko deiktikoa darabilenean (6. lerroa) eta pluraleko lehen pertsonako aditzak osatzen dituzenean (“nahi dugun”, 7. lerroa).

Eskema horretan, ETA eragile arrotza da: diskurtsoan, *sartu* desplazamenduzko aditzak (7. lerroan) espaziozko metafora baten funtzioa betetzen du, hizlariak eraiki duen jatorrizko gatazkatik kanpo kokatzen den, baina gatazkan eragiten duen aktore baten arrotasuna erakusten duena. Oraingoan, ez dago hura barne hartzen duen *ingroup* baten

eraikuntzarik: hizlariak hirugarren pertsona darabil ETArri buruz mintzatzeko, eta bigarren gatazkaren ardura eragile horren jarduerari egozten dio.

1 (...) alde batetik, ETA sortu zela, e, ba bidezkoak ez ziren – gobernuaren
2 bidezkoak ez ziren ekintzei aurre egiteko. Gero ETAREN barruan egon zirela
3 arazoak, ba batzuek nahi zutelako politizatu eta beste batzuek, nik uste,
4 indarkeriagaz jarraitu. Bueno, argi daukadana da e separazio bat egon zela,
5 batzuk politikaren aldetik eta beste batzuk ba gehiago beste aldetik. Eta gero
6 ba esan beharra dagoena da gobernuak sortu zuela beren 'ETA' esango dugu,
7 GAL izan zena, eta azkenean horiek, GALEkoak, zirela ba karnizero batzuk,
8 saiatu zirena, ba zer esango dugu, pomada berdina topatzen edo ekintza
9 berdina topatzen; nahi dut esan, ba azkenean indarkeriagaz kaña sartzea edo.
10 Nik esango neutzan ETAK gauza asko egin dituela onak esango dugu, ba
11 paratzeko Euskal Herrian – ni gogoratzen naiz nire herri ondoan, Lekeitio
12 ondoan, zegoela Ispasterreko terreno batzuk, eta bertan egin nahi zuten
13 zentral nuklear bat hortxe zonan. Eta ETAK egin zuen uste dut bertako
14 arkitektoa edo, ba hil, akatu. Eta horregatik en parte lortu zen, presioagaz eta
15 hori, ba ez egitea. Gauza batzuk daude onak lortu zituena egitea. Gero
16 adibidez daude beste gauza batzuk, ba adibidez kriston hilketak egin
17 dituztenak; ba Barajasen pasa zena izan liteke, edo pare bat kotxe bonba egon
18 direnak hortik.

Ekhi-21-Lekeitio

Aurreko adibideen antzera, kasu honetan ere atzerritar hipotetikoaren figura baliatu dugu hizlariari euskal gatazkaren historiari buruzko azalpen bat eskatzeko: baliabide horrekin, diskurtsoaren hartzaile ideala aldatu nahi izan dugu, hartara Ekhi esplicita zitza bestelako egoera batean elkarrizketatzailearen aurrean jakintzat emango lituzkeen datu batzuk.

Hizlariak gatazka ETAREN jardunarekin lotzen du batez ere, baina haren karakterizazio positibo bat eraikitzen ari denez, hura legitimatzeko hainbat estrategia diskurtsibo erabiltzen ditu. Lehenik eta behin, injustiziazko testuinguru bat eraikitzen du (“gobernuaren ekintza bidegabeak”, 1-2. lerroan), hartara ETAREN jardun armatua erresistentziazko edo erreakziozko marko batean kokatuz. Bestalde, aktoreen arteko karratu ideologiko argi bat eraikitzen du, *Bestearen* akatsak ikusaraziz eta *Norberaren* ekintzak positiboki ebaluatuz. Kasu honetan, Espainiako Gobernuaren jardura zehatz bat ikusarazten du hizlariak diskurtsoan: GAL sortzea. Hura “harakin” (“karnizero”, 7. lerroa) metaforarekin deskribatzen du, haren alderdi biolentzia nabarmenduz.

Aldiz, ETA aktorea konplexutzen du hizlariak, haren *bi aurpegiak* (biolentzia eta politikoa) aipatuz: batak biolentzia indiskriminatua erabiltzen du (“kriston hilketak”, 16. lerroan), besteak helburu arrazional batzuen arabera jokatzeko du. Bere ebaluazioa indartzen duten adibideak eskaintzen ditu Ekhi. Horregatik, ETAREN aurkezpen positiboa elikatzen duten ekintza bat deskribatzen du: zentral nuklearren aurkako kanpaina. Hizlariarentzat, kanpaina horren barruan erabilitako biolentzia (zentralaren arkitektoaren hilketak) helburu legitimo baterako instrumentua da, eta, beraz, ez du karakterizazio negatibo baten testuinguruan kokatzen, alderantziz baizik; beretzat, ETAREN alderdi ekologista edo sozialaren adibidea da.

Aurreko ataletan ere behatu izan dugun moduan, kasu honetan ere bi gertakari motari buruz mintzo da hizlaria. Alde batetik, bere ingurune hurbileko gertaera bat narratzen du, hau da, zentral nuklearrak gelditzeko prozesua: Lemoizko (Bizkaia) zentralaren eraikuntza eta beste bi zentralen proiektuak (tartean, Ekhi aipagai duen Ea-Ispastergoa)

1984an geldiarazi zituzten (Ferreira, 2019), hizlaria jaio baino 13 urte lehenago. Hala ere, hizlaria gai da gertaeraren narratiba egituratu bat eskaintzeko, testuinguru geografiko bat (Ispasterko lurrak, Lekeitio ondoan), aktore zehatz batzuk (ETA eta arkitektoa) eta testuinguru politiko bat (nuklearren aurkako presioa) xeheki deskribatzeko; narrazioan zehar, ez du zalantza adierazten duten modalizatzailerik epistemikorik erabiltzen, bere diskurtsoaren edukiaz ziur sentitzen denaren seinale. Are: “gogoratzen naiz” (11. lerroa) baieztatzen du, egiaz pertsonalki gogoratzea ezinezkoa zaion gertakari bati buruz ari denean; azken finean, Ekhi mintzagai duen proiektua 1980ko hamarkadakoa da, bera jaio baino ia 20 urte lehenagokoa. Hortaz, “gogoratzen naiz” ebidentzialak jasotako narratiba baten oroitzapenari egiten dio erreferentzia, edo, Lowenthalen hitzetan (1998, p. 286), “gauzak oroitzen ditugu haien oroitzapena gogora ekarriz”.

Bestetik, Ekhi ETaren biolentziatzeko jardueri buruz mintzo da, baina haiek ez ditu xehetasunez deskribatzen, termino orokorragoetan baizik: “kriston hilketak” (17. lerroa) enfatizatzailerekin eta “pare bat kotxe bonba” adierazpen eufemistikoarekin deskribatzen ditu negatibotzat jotzen dituen alderdiak. Jarduera hauek gehiago datoz bat talde terroristaren *frame*-arekin, presio-talde ekologistaren *frame*-arekin baino; Ekhi ez dauka hurbileko esperientziarik haiek deskribatzeko, baina ETari buruz eraikita dauzkan eskema mentalen osagai nagusietako bat dira halere, ziurrenik kanpotik jaso dituen diskurtso publikoaren eraginez.

5.1.2. Gatazkaren denborazkotasuna

Euskal gatazkari buruzko markoak haren biolentzia (fisiko) mailaren arabera egituratzen dituzten diskurtsoez gain, haren tenporalitatearekin zerikusia duten ardatz diskurtsiboak ere identifikatu ahal izan ditugu, bai gatazkaren historiaren barneko garapenari dagokionez, eta baita hizlariaren testuinguru garaikideari dagokionez ere. Laburki, hiru modutara kontzeptualizatu dute gure elkarrizketatuek *euskal gatazka* bere denborazko alderdiaren arabera: bi faseko gatazka bat bezala; iraganeko gatazka bat bezala; eta norbere posizio garaikidearen araberrako errelebantzia duen gatazka bat bezala.

5.1.2.1. Gatazkaren barneko denbora: bi faseen narratiba

Gatazkaren historia bi garai edo fasetan antolatzen duen patroia diskurtsibo bat identifikatu ahal izan dugu gure elkarrizketatuen erantzunetan. Gehienek Espainiako Trantsizioan kokatu dute bi faseen arteko muga: horren aurretik, diktadura baten testuinguru errepresibo bat eraikitzen dute, eta bertan, ulergarri gisara ebaluatzen dute kontra-biolentziaren erabilera; *nazio askapenaren* edo erresistentziaren narratiba bat eraikitzen dute, hortaz, lehenbiziko fase horretan. Denborazko mugaren ondoren, ordea, bestelako gatazka baten narratiba eraikitzen da, batik bat aktore baten (ETaren) biolentziak karakterizatzen duena testuinguru politiko ustez neutral batean.

1 *Lo del 78 marca, marca una fase de ETA y otra que empezó. Por ejemplo, [la*
2 *anterior] sería una fase donde hubo apoyo del pueblo, porque fueron jóvenes*
3 *que se levantaron contra — una parte, porque sabemos que otra parte*
4 *apoyaba al régimen. Y la otra fue directamente — la violencia se aumentó,*
5 *porque dicen que aumentó mucho la violencia cuando murió Franco, porque*
6 *yo creo que España vivía una etapa de inestabilidad muy grave. Todo el mundo*
7 *explotó en ese entonces. Y creo que eso marcaría parte de lo que pasó, de lo*
8 *que siguió y lo que la gente formó con ETA, lo que la gente definió a ETA. Y*
9 *todos los ataques que hubo de ahí, que ya fueron contra el pueblo.*

Sebas-17-Barakaldo

Sebasek esplizituki bereizten ditu gatazkaren garapen historikoan identifikatzen dituen bi faseak, gainera berak ezarritako bereizketa-puntuari (1978. urtea) erreferentzia eginez. Erabiltzen dituen markagailu diskurtsiboek ere desberdintasuna nabarmentzen dute: lehenbiziko etapan, armetara jotzen dutenak diktadura (“erregimen”, 4. lerroa) baten aurka “altxatutako gazteak” (3. lerroa) dira; legitimo gisara ebaluatzen den jarduera bat atxikitzen zaio hartara subjektuari. “Herriaren babes” (2. lerroa) adierazpenak legitimitate hori indartzen du, *ad populum* gisako autorizazio erretoriko gisara funtzionatzen duelako. Ostera, bigarren fasean aktore beraren ekintzak “herriaren aurka” (9. lerroa), hau da, interes orokorra partekatzen duen subjektu kolektibo zabalaren aurka zuzendu zirela argudiatzen du hizlariak, eta, horretan oinarrituta, ilegitimo gisara ebaluatzen ditu Trantsiziotik aurrerako ekintza armatuak. Sebasen eraikuntza diskurtsiboan, diktadura garaian erregimenaren aurkako ekintzak egiten ziren, eta ondoren, zibilen aurkakoak. Horiek jada ez ditu kokatzen altxamenduzko edo erresistentziazko marko batean, baizik eta biolentziazko (4. lerroa) marko batean.

1 *A ver, azkenean gatazka hasi da, hombre, diktaduraren ondorioz. Azkenean*
 2 *diktadura sartu zen hemen, eta azkenean hemengo jendeak alternatiba bat*
 3 *hartu behar zuen. Eta orduan, ba, izan zen kontra joatea, eta azkenean hori.*
 4 *Baina gero gauza da demokrazia garaian ere bai, hemen ya askok gura zutela*
 5 *demokrazian sartu, beste batzuek jarraitu, eta hor bai hasi zen hemen gatazka*
 6 *barrukoa.*

Joseba-20-Bilbo

Josebak euskal gatazkaren abiapuntua frankismoarekiko oposizio sozialean kokatzen du: hartan, diktadura *ingroup*-aren espazioa okupatzera datorren agente arrotz gisara irudikatzen da, “diktadura sartu zen hemen” espaziotzko metaforaren bidez (2. lerroan). “Hemengo jendea” subjektuak *ingroup* kolektibo zabal eta legitimo bati egiten dio erreferentzia, eta “alternatiba bat hartu behar zuen” perpausaren modalitate deontikoak saihestezintasunaren edo betebeharraren narratiba bat eraikitzen du. Hartara, frankismo garaiko euskal talde armatuen sorrera testuinguru antagonistiko baterako irtenbide legitimo gisara kontzeptualizatzen da.

Trantsizioaren ostean, gatazkaren bigarren fasea identifikatzen du Josebak, “hemen barruko” talkek (5-6. lerroa) karakterizatua. Hortaz, indar antagonistikoen ardatza aldatu egiten da: diktaduran, kanpoko *Beste* baten aurkako gatazka bat irudikatzen du; hortik aurrera, aldiz, *ingroup*-aren barneko ikuspegi politikoen arteko talkak eragiten du gatazka.

Sarritan, bi faseen bereizketa lotuta doa unean uneko aktoreen helburu, jokabide eta erabilitako metodoekiko ulerkortasunarekin eta hizlariak berak senti dezakeen enpatia edo identifikazioarekin, baina baita biolentziaren aurkako *statu quo* sozial diskurtsiboarekin ere (Azurmendi, 1997, pp. 28–29). Ondorioz, gertatutakoaren ebaluazio bati lotuta joan ohi da egituraketa hau, ontzat jotzen den garai baten eta ulertezin edo okertzat jotzen den beste garai baten arteko muga ezartzen delako:

1 *Ba hasiera batean alderdi faxistak egiten zutena zen ba hori, eurena inposatu,*
 2 *kosta ahala kosta hori egin, eta normalean indarkeriaz izaten zen. Indarkeriaz*
 3 *eta beldurrez. Eta gero ETak egiten zuena hasiera batean, horri aurre egin,*
 4 *baina gero ja ailegatu zen momentu bat ez zena jakin noiz jare edo zelan*

5 akabo, eta beharrezkoak ez ziren gauzak egiten zituela bakarrik hor
6 segitzeagatik, presentzia izateagatik.
7 Zein momentu izan zen hori?
8 Ba adibidez ja trantsizio garai bat egon zenean, finkatu zenean demokrazia
9 bat, nahiz eta orain zalantzan jartzen den gauzak asko aldatu direna, baina
10 hortik aurrera, momentu batetik aurrera jada ez zegoen borroka armatuarekin
11 jarraitzeko beharrik. Bake momentua zen. (...) Zeren horrekin batera egon
12 ziren beste mugimendu iraultzaile batzuk, ba bakea modu baketsu batean egin
13 zuena, adibidez euskal rock radikala. Iraultza kultural bat egin beharko zen
14 momentu honetan nire ustez, ez armatua.

Fernando-17-Oñati

Fernandok denborazko markagailuen bidez ezartzen du beretzat gatazkaren garapen historikoan esanguratsuak diren bi faseak: “hasiera batean” egitura errepikatuak (1. eta 3. lerroak) frankismo garaia egiten dio erreferentzia. “Gero” denborazko adberbioa ere bi bider errepikatzen du, 3. eta 4. lerroetan. Lehenbizikoan, ordea, ez dio erreferentzia egiten inflexio-puntu historikoari: “Eta gero ETAk egiten zuena...” esaldian, *gero* denborazko adberbioak kausa eta ondoriozko markagailu baten funtzioa betetzen du; ETaren jokabidea azaltzeko estrategia baten barnean txertatzen da, baina oraindik “hasierako” garaitik atera gabe. Inflexio puntuaren ondorengo egoeraz ari dela azaltzeko, *gero* denborazko deiktikoari *baina* kontrakotasunezko lokailua eranstean dio hizlariak: “baina gero ja ailegatu zen momentu bat...” (4. lerroa) sarrera-formulak testuinguru aldaketa bat eraikitzen du diskurtsoan, argi eta garbi bi fase bereiziz gatazkaren denboran eta garapenean. Inflexio puntu horretatik aurrera (hizlariak Espainiako Trantsizioarekin parekatzen duena), ETaren jardun armatua “ez beharrezko” gisara (5. lerroa) ebaluatzen du hizlariak: “bakea modu baketsuan egitea” egitura erredundanteak (12. lerroa) estrategia armatuari egiten dio erreferentzia. Fernandok modalitate deontikoa darabil bere jarrera agertzeko: “Iraultza kultural bat egin beharko zen”, hau da, ez militar bat. Interesgarria da, halaber, hizlariak berak txertatzen duela bere tesian neurri batean kuestionatzen duen kanpoko diskurtso bat: “nahiz eta orain zalantzan jartzen den gauzak asko aldatu direna” (9. lerroa) adierazpenarekin, interdiskurtsibitateara jotzen du bere tesia leuntzeko estrategia gisara; kontrako diskurtso bat txertatuta, eraiki berri duen diskurtsoarekiko (Trantsizioarekin demokrazia iritsi zela) distantzia hartzen du hartara.

Finean, *bi faseen narratibak* gazteek eskura dituzten marko kontzeptual ezberdinak bateratzeko estrategia bati erantzuten dio: haren bidez, ETak historikoki irudikatu izan duen erresistentziatzko narratiba egungo biolentziaren gaitzespen sozialarekin bateratu dezakete. Hau da: euren eremu pribatuagoetan jasotako diskurtsoetako zenbait mantentzea ahalbidetzen dien egitura bat da, sozialki normatibotzat pertzibitzen dituzten diskurtso hegemonikoak erabat kuestionatu gabe.

5.1.2.2. Gatazkaren denbora hizlariaren posizioarekiko: iraganeko gatazka

Distantzia diskurtsibo hau hainbat modutan adierazi dute hizlariak euren diskurtsoan: narratutako gertakariak interdiskurtsibitatearen bidez erreproduzituz (Li et al., 2022, p. 9); posizionamendu diskurtsiboaren bidez (zeina 5.3. *Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak* kapituluan aztertuko baitugun); edo, sinpleki, gertakariak diskurtsoan iraganari dagozkion denborazko markoetan kokatuz. Euskal gatazkari buruzko lehenbiziko kontzeptualizazio edo hitz gakoaren artean (ikus 10. *irudia: Lehenbiziko asoziazioen hitz-lainoa*), esaterako, erreferentzien %6,5etan identifikatu ahal izan dugu iraganarekin lotutako adierazpideren bat (*historia, iragana,*

50eko edo 80ko hamarkadak...) edota familiako aurreko belaunaldien aipamenen bat (nagusiki *aita* eta *aitona*). Erantzunak perpaus osoen forman eman dituztenen artetik, gehienek erabili dute iraganeko aditzen bat euskal gatazka defintizerako orduan:

1 *E... Euskal Herriaren askapenerako egon den – azken mendean egon den*
2 *borroka.*

Gorka-15-Hendaia

1 *Denbora. Ez dakit, pasa den denbora bat, denbora hartu duena baina baita*
2 *ere ja iraganean geratu zen denbora bat.*

Lur-16-Hendaia

1 *Euskal gatazka? A ver, galdera handia. [Barre]. Pff... ba ez dakit. Egon den,*
2 *ez dakit, azkenean egon den historia, ez? Gure historia azkenean da. Egon da*
3 *hemen gatazka urte askotan, eta bueno, ba orain gatazka hori apur bat*
4 *saiatzen da konpontzen modu batera (...)*

Joseba-20-Bilbo

Hiru pasarte hauek “Nola defintituko zenuke euskal gatazka?” galderari emandako lehenbiziko erantzunak dira. Hiruretan nabarmentzen da hizlariaren distantziamendua gatazkarekiko: iraganean gertatutako, edo, are, iraganean *geratutako* arazo bat (Lurrek esplizitatzen duenez) da eurentzat, euren errealitate garaikidearekin lotzen ez dutena; edo ez, behintzat, lehenbiziko kolpean. Hiru adibideotatik, soilik Josebak eraikitzen du lotura bere testuinguru garaikidearekin, identifikazio-estrategia baten bidez: lehen pertsona eta tokiko deixia erabiliz (“gure historia”, “hemen”, 2. eta 3. lerroetan), identitate kolektibo bat eraikitzen du eta bere burua historia hori partekatzen duen taldeko kide gisara aurkezten du.

Distantzia pertzeptibo hau identifikatzea garrantzitsua da aztergai dugun belaunaldiak iraganeko pasarte zehatz batzuekiko eraikitzen duen harremana eta haren adierazle diren diskurtsoak aztertzeko. Ondoko adibidearen moduko pasarteak testuinguru horretan baizik ezin daitezke interpretatu:

1 *Ba [gatazka] hasi zen – gazte talde batean, ba asanbladak egiten, biltzen,*
2 *helburu batzuekin, eta ez dakit.*

3 *Hasierako urte horiek non kokatuko zenituzke, gutxi gorabehera?*

4 *E... mila bederatzehun edo laurogeita hama... ez dakit.*

5 *90eko hamarkadan?*

6 *Bai.*

Eli-15-Altsasu

Elik zailtasun nabarmenak ditu gatazkaren historiari edo abiapuntuari buruz modu zehatzean hitz egiteko. Erabiltzen dituen deskribapen orokor eta eufemistikoek ere ziurgabetasun eza erakusten dute: “gazte talde bat” deskribapen aseptikoa darabil ETA izendatzeko, eta “helburu batzuk” aipatzen ditu, haiek izendatu gabe. Gertakariak denboran kokatzeko zailtasuna urrun pertzibitzen duen garai batean kokatuz ebazten du: 1990eko hamarkada nekez joko litzateke euskal gatazkaren hasiera garai gisara, baina hizlariaren posizioari erreparatuta, ulergarria da haren aipamena. Izan ere, Eli 2002. urtean jaioa da; urrun pertzibitzen du bere jaiotza urtea baino lehen gertatutako ia edozein garai, baita kronologikoki hurbil samar dagoen 1990eko hamarkada ere. Bere bizialdiaren aurreko garaia da, eta ez dauka hari buruzko oroitzapenik; hortaz, historiako beste edozein garai bezain urrun dago bere esperientzian. Gatazkaren hasiera 90eko hamarkadan

kokatzeak, funtsean, denboran eta identifikazio pertsonalean distantzia batera dagoen garai batean kokatzea dakar: datu objektiboen erreproduzio akastun gisara interpretatu ordez, hizlariaren identitate diskurtsiboaren eraikuntzarako dispositibo gisara interpretatu behar dugu, hortaz.

Esana dugu iraganaren irakurketa oro egiten dela norbanakoaren uneko posiziotik eta testuinguru zehatzetik, eta, gehienetan, uneko interes bat betetzeko helburuz. Posizio horrek ere baldintzatzen ditu iraganeko gertakari edo garai zehatzei buruz eraikitzen diren marko eta narratiba nagusiak, haiek aldatzen doazelako irakurketa egiten duen pertsonaren eta hura kokatuta dagoen testuinguruaren arabera.

Hainbat elkarrizketaturentzat, gatazkari buruz hitz egiten hasteko heldulekua izan da lehenbizi euren testuingurua deskribatzea, edo iraganeko elementuak euren testuinguru garaikidean identifika ditzaketen gertakariekin lotzea:

1 Zer da burura etortzen zaizun aurreneko gauza ‘euskal gatazka’ entzuten
2 duzunean?
3 *Ba... lehen gauza, ETAk e – utzi zuen – utzi zuen zera, aztarna bezalako hori,
4 esango nuke. ETA bera, Eta gaur egun horrek eragin duena, o sea, esan nahi
5 dit, ez bakarrik ETA, utzi duen aztarna hori eta utzi dituen, e – esango nuke
6 balore negatibo zein positibo guztiak.*

Gari-20-Getxo

1 *Nik euskal gatazka modura ulertzen dut 58-59tik aurrera ba orain dela oso*
2 *gutxira arte eta gaur egun ere segitzen duen konfliktoa dela, eta nik igarri*
3 *dudana da, ba – hasieran ez nengoen bizirik, eta horixe, baina hemen herrian*
4 *asko entzun da Oñati “cuna de etarras” dela, eta azkenean hemen ere*
5 *abertzaletasuna asko finkatu da, orduan jaso dudan influentzia ez da izan oso*
6 *negatiboa. (...) Eta gaur egun oraindik influentzia izaten jarraitzen duen*
7 *zerbait dela uste dut, zeren azkenean Altsasuko gazteen kasuan ikusten da:*
8 *terrorismoa orain ez dago, eta zerbaitekin erlazionatu behar dute. baldintzatu*
9 *egiten digu azkenean.*

Fernando-17-Oñati

1 *Ba... ez dakit. E... ondo definitu gabeko borroka edo, ez dakit. Edo helburu, o*
2 *sea, helbururik gabekoa. Ez dakit nola esan. O sea, helburua bazuen, baina*
3 *argi zegoen ez zela lortu behar, modu horretan ba.*
4 *Indarkeriarekin, diozu?*
5 *Bai. Zergatik begira katalanak: ez da inoiz erabili indarrarekin, eta hala ere...*

Ekaitz-16-Altsasu

Hiru adibideotan, hizlariak euren posizio eta testuinguru garaikidetik abiatzen dute iraganaren irakurketa. Garik foku nagusia “aztarna” (3. lerroa) metaforan oinarritzen du, hau da, iragandako figura batek orainaldian utzitako marka edo ondorioan. Horrekin, euskal gatazkaren gertakari fisikoak igaro direla ulertarazten du, baina bere testuinguru garaikidean antzeman ditzakeela harekin lotutako edo hartatik eratorritako elementuak, berak balio “positibo zein negatibo” gisara definitzen dituenak (6. lerroa). Ondorioz, kasu honetan ebaluazio garaikide bati lotuta doa iraganaren irakurketa. *Balioaren* kontzeptuak, bestalde, gatazkaren dimentsio sinboliko eta identitario batera garamatza: hizlariak gatazkaren arrasto *ez ukigarriak* sumatzen ditu bere ingurunean, portaera-arauei buruzko ikuspegi normatibo bati lotuta daudenak.

Fernandok eta Ekaitzek *gatazka* euren testuinguru garaikidera ekartzeko darabilten mekanismoa euren bizialdian ezagutu dituzten gatazka politiko zehatzak hizpidera

ekartzea da: narratiba hauetan, Altsasuko auzia, Kataluniako independentzia erreferendumaren inguruko gatazka edota bestelako kasu zehatzak gatazkaren funtsa azaltzeko balio duten adibide bihurtzen dira; beste hizlari batzuek, esate baterako, Valtonyc rap abeslariaren aurkako atxilotze-agindua eta Evaristo Paramos abeslariaren aurkako salaketa ere aipatu dituzte. Azken bi gertakari hauek 2018ko udaberrian izan ziren, eta hurrengo hilabeteetan egindako elkarrizketetan agertu ziren batik bat. Horrek erakusten digu denborazko hurbiltasuna gertakari zehatzen prominentziarako faktore erabakigarrietako bat dela memoriazko diskurtsoetan: iraganari buruz hitz egiterakoan, gaurkotasuneko elementuek eskaintzen dute atzera begirako irakurketak kokatzeko marko interpretatiboa.

Gertakarioi buruzko ezagutza, kasu gehienetan, ezagutza partekatutzat jotzen dute hizlariak. Horregatik, Ekaitzek informazio ugari elipsatzen du: “Zergatik begira katalanak” (5. lerroa) ebidentzialaren bidez, jakintzat jotzen ditu Kataluniako 2017ko independentzia erreferendumean gertatutako istiluak eta boto-emaileek Poliziaren partetik jasotako errepresioa. Egoera hori premisa bihurtzen da bere ebaluazioari eusteko: modu demokratikoan ezin bada independentzia eskuratu (Kataluniako kasua), are irrealagoa da biolentziaren bidez lortzen saiatzea (euskal kasua). Ondorioz, ETaren estrategia zentzugabe gisara ebaluatzen du (“helbururik gabekoa”, 2. lerroa).

Fernandok ere bere testuinguru garaikideari egiten dio erreferentzia, baina bere esperientzia pertsonalean oinarrituta eraikitzen du bere narratiba. Interesgarria da bere jaiotza unearen arabera bereizten dituela gatazkaren faseak: “hasieran ez nengoen bizirik”, 3. lerroa. Adibide honek modu argian ilustratzen du hizlariaren *ni*-a elementu zentrala dela iraganari buruzko narratibak sortzerakoan, abiapuntuko markoa posizio horretatik eraikitzen duelako hizlariak. Fernandoren kasuan, bere hurbileko testuinguru sozialaren deskribapen batean oinarritzen du bere irakurketa, eta horretarako *ingroup*-ari buruzko kanpoko diskurtso bat erreproduzitzen du: “cuna de etarras” aipu zuzenak (4. lerroa), eta adierazpena gaztelaniaz erreproduzitzeak, Espainiatik Oñatiren moduko herri abertzale bati buruz eraiki den irudi baten pertzepzioa ilustratzen du. Elementuotan oinarrituta, bere posizioa argitzen du: “Jaso dudan influentzia ez da izan oso negatiboa” (5-6. lerroa) dioenean, *negatibo* adjektiboak iragan armatuari buruzko ebaluazioari egiten dio erreferentzia, hau da, hizlariak adierazten du berak ez duela hura negatiboki ebaluatzen duten diskurtsoak jaso bere ingurune sozial hurbiletik. Fernando jakitun da horrek diskurtso dominatzaile batekin talka egiten duela (biolentzia kasu guztietan negatiboa dela dioenarekin); azalpen horrek eraikitzen ari den diskurtsoaren estrategia justifikatzaile gisara operatzen du, hortaz.

Hain zuzen ere, hainbat elkarrizketatan behatu ahal izan dugu *euskal gatazka* kontzeptuarekin egindako lehenbiziko asoziazioen artean ebaluazioak gailentzea. Erantzun mota hauetan, gazteek ez dute eduki informatiborik eskaintzen, kontzeptu edo definizio zehatzen forman, ezta iraganeko gertakariei edo aktoreei buruzko narrazio edo deskribapenik ere; horren ordez, haiei buruzko ebaluazio pertsonal batekin abiatzen dute euren diskurtsoa.

1 ‘Euskal gatazka’, etortzen zaidan lehenengo hitza? Ba *injustizia totala*.
2 Azkenean, ahots bakarra entzun delako, Espainia maila osoan zehar, eta
3 hemengo, ba, kultura eta dena, eta horrek dituen inplikazio guztiak alde batera
4 bota egin dituztelako (...). *Yo lo que asocio con el conflicto vasco en realidad*
5 *es todo absolutamente negativo, porque se ha desvalorizado al pueblo vasco*

6 *en general. O sea, se ha asociado el conflicto vasco con ETA, únicamente con*
7 *ETA, las implicaciones negativas que ha tenido ETA, pero todo lo que ha*
8 *traído, e, ETA entre otras cosas, han sido – o sea, aparte de negativas han sido*
9 *positivas también, porque al final lo que han hecho ha sido luchar por los*
10 *derechos de los vascos, y por la gente de aquí. Vale que estuvieran armados,*
11 *tal, que hubiera asesinatos y demás, ha manchado la imagen, pero – bueno, o*
12 *eso ha hecho creer el estado español en realidad. Sin más, es que yo tengo una*
13 *opinión un poco ‘heavy’ con todo eso.*

14 Lasai, ez dugu epaitzen iritzirik.

15 *Bale. Es que nire familiak hori gertu gertutik bizi egin du, o sea, nire osaba*
16 *enkartzelatuta egon da, azkenean txorrada batengatik.*

Nora-21-Getxo

1 *Para mí, el inicio creo que podía tener cierto sentido, ¿no? Porque en el*
2 *régimen de Franco igual no había ciertas libertades, o, bueno, sobre todo*
3 *políticas, no había ninguna. Y, o sea, tampoco puedo justificar esas muertes,*
4 *porque en muchos casos creo que no es justificable matar al guardia civil de*
5 *turno que está por ahí pasando. Y aunque haya sido torturador, creo que en*
6 *una sociedad civilizada no creo que sean los medios para alcanzar los*
7 *objetivos. Una cosa es la defensa o así, pero el crimen directo o así no creo*
8 *que sea la solución. Eso al principio: y luego ya creo que pierde toda*
9 *legitimidad el movimiento cuando hay una democracia en España que mejor*
10 *o peor, pues contiene democracia. Hay unos derechos que reconocen a la*
11 *sociedad vasca, y otra cosa es que ya la vía independentista sea mas difícil de*
12 *lograrla, pero desde luego desde ese cauce me parece imposible.*

Paulo-19-Urnieta

Bi adibideotan, *ni*-aren gailentasuna nabarmena da: hizlariak esplizitatu egiten dute diskurtsoaren subjektibitatea, eta hain zuzen ere subjektibitate horretatik abiatuta eraikitzen dute euren diskurtsoa kokatzeko markoa. Noraren kasuan, bere posizioa ulertarazteko lehenbizi bere testuinguruaren berri ematen du, hau da, bere ingurune sozialean jaso dituen diskurtso eta esperientziak narratzen ditu, eta haien prismatik eraikitzen du gatazkari buruzko bere ebaluazioa. 5.4. *Tabua eta ezjakintasuna kudeatzeko erabilitako estrategia psikolinguistikoak* atalean xeheago aztertuko dugunez, norbere posizioaren arrazoiak bilatzeko eta ulertarazteko kezka hauen atzean, sarritan, sozialki zentsuratua izan daitekeen diskurtso bat adierazteko baimena eskatzen dute hizlariak: kasu honetan, ETAre jarduna modu positiboan ebaluatu daitekeela. Norak baimen eskaera hori esplizitatzen du, bere posizioa “heavy” edo gehiegizko gisara deskribatuz (13. lerroa); adierazpen hori txertatuta, elkarrizketatzailearen *feedback*-aren bila ari da, eta haren oniritzia jasotakoan jarraitzen du bere diskurtsoarekin, elementu esplikatibo bat txertatuz, hau da, ETArengandik hurbil egondako bere senide baten esperientzia.

Pauloren pasarteak edukiz oso bestelakoa den arren, hark ere hizlariaren subjektibotasun esplizitua du oinarri: lehen pertsonako izenorde eta aditzen erabilera enfatikoak (“para mí”, “creo”, 1. lerroa), hala nola, modalizatzaile faltak, hizlariak bere diskurtsoaren edukiarekiko erabateko inplikazioa agertzen duela ulertarazten dute. Paulo hainbat aldiz mintzo da “justifikazioaz” (3. eta 4. lerroak) eta “legitimitateaz” (9. lerroa); beretzat, ebaluazio moralak kontzeptu zentrala da iraganeko gertakariei buruz hitz egiterakoan, zehazki ETAre biolentziaz, nahiz eta ez duen hura une bakar batean ere esplizitatzen (“movimiento” eufemismoaren bidez ondorioztatzen da nori buruz ari den, 9. lerroan). Ondorioz, gatazkaren kontakizun kronologikoa ere posizio pertsonal baten eraikuntzatik

abiatzen du: “Biolentziaren erabilera ulergarria / logikoa / justifikagarria iruditzen zait, edo ez?” litzateke marko honen oinarrian dagoen galdera, eta hari emandako erantzunaren arabera egituratzen du gatazkaren garapenari buruzko diskurtsoa. Frankismo garaian, justifikazio posible bat topatzen du (askatasun falta, 2-3. lerroetan). Jarraian, ostera, autozuzenketa bat txertatzen du, biolentziaren legitimaziorako espazioa zabaltzeko berri duen diskurtso horri erantzunez; hildako guardia zibilak euren lana betetzen ari ziren biktima errugabe gisara erretratatu dituzte. Erretratazio hau kanpoko diskurtso batekiko erantzun bat da, Paulok zeharkako aipu bidez esplizitatzen duena: “Aunque haya sido torturador” (5. lerroa) perpaus kontzesiboak aipu inplizitu bat dakar (“torturatuak ez diren kalteak”), eta haren deusezte-estrategia bat txertatzen du hizlariak bere posizioa esplizitatzerakoan. Paulok ez du frankismo garaiko biolentzia (ETAk eragindakoa) justifikatu nahi, baina logika topatzen dio testuinguru zehatz batean; Trantsizioetik aurrera, ordea, ez dio zentzurik topatzen. Eta ulertzen ez duguna ezin dugunez legitimatu, ohikoa da hizlariak gertakari buruzko narrazioak eraiki aurretik, norberaren posizioaren arrazoiak azalpen bat eskaintzea, entzulearen enpatia edo oniritzia bilatzen duen baliabide erretoriko gisara.

Bi adibideotan, nabarmena da ebaluazio moral *egoki* bat eskaintzeko beharra: bai Norak eta bai Paulok testuinguru diskurtsibo berberaren gainean eraikitzen dituzte euren narratibak. Biak dira *biolentziaren kondenaren* exigentzia sozialaren jakitun, eta harekin koherentea den diskurtso bat eraikitzen dute, nork bere posizioetik abiatuta: Noraren kasuan, izaera justifikatzaileagoa hartzen du; Paulorena, aldiz, diskurtso nagusiarekin bat dator.

5.1.2.3. Desarmeari buruzko narratibak

Gatazkaren denborazkotasunak hainbat narratiba posible ahalbidetzen ditu, sarritan euren artean kontraesankorrak izan daitezkeenak. Gure elkarrizketetan ere antzematen da guztiz ebatzi gabeko tentsio bat: gazteek, oro har, iraganean kokatzen dute *euskal gatazka* kontzeptua, baina euren testuinguru garaikidearekin ere loturak ikusten dizkioten neurrian, askok zailtasunak dituzte haren amaiera gertatu ote den ala ez ebazteko.

2018ko martxoan hasi ginen lehenbiziko elkarrizketak egiten, Baionako desarme ekitaldi jendetsua (2017ko apirilaren 8an) baino ia urtebete geroago, eta ETAREN desagite-iragarpena (2018ko maiatzaren 3an) baino bi hilabete lehenago. Elkarrizketa gehienak, hortaz, ETAREN desarme-prozesuan zehar edo justu haren ondoren eginak dira. Ondorioz, parte hartzaile gehienek bazuten nolabaiteko oroitzapen zuzenen bat desarmeari buruz, nahiz eta gehienek ostera ere mediatutako diskurtsoak erreproduzitu dituzten, familiaren perspektibatik edo komunikabideetako diskurtsoen laguntzarekin berreraikiak:

1 *Nire etxean beti izan dira –o sea, ez dira izan, o sea, nire etxean ez da egon*
 2 *etakiderik edo. O sea, gertatu zenean ETAREN armagabetzea, ez zuten esan*
 3 *ospatu egin behar zela, baina, o sea, poztu bai. Edo bide bat zabaltzeko zela ikusi*
 4 *bai.*

Ekaitz-16-Altsasu

1 *Ba ordua zela. Nik uste, nire etxean... es que nire etxean nire iritzi iguala*
 2 *daukate, eta igual daukat iritzia jaio naizelako etxe horretan, baina esaten*
 3 *zuten: “ETAk egin beharrekoa egin du, gauza asko gaizki egin ditu, baina*
 4 *horrek ez dauka atzera bueltarik”. Eta nik uste dut ordua zela esateko: “Orain*
 5 *arte”. Nire aitak esan zuen berak faltan bota zuela barkamen bat; nahiz eta*
 6 *beste bandotik ez jaso barkamenik, eurek barkamena eskatuta eta biktimen*

7 *familiiei esatea “Sentitzen dut”, horrek asko egingo zuela. Nik ez dakit nire*
 8 *aitaren iritzi horren alde nagoen, baina etxean hori.*
 9 *Zuri zer eragiten dizu albisteak?*
 10 *Es que zelan jada urte asko zen, ba ezer egin barik, bueno, ba hori, borroka*
 11 *armatua-edo, ez dakit zelan esan, ez da atzo jarri zutela bonba bat eta gaur*
 12 *“Agur”. Ba jada nahiko urte dira entzun ez dugula ETA izena horrela,*
 13 *iragarkitan edo; orduan, niri, sin más, Nire gurasoei gehiago. Azkenean euren*
 14 *garaian ba gehiago afektatu du. Ni umetan, nahiz eta ETAk baten bat hil, umea*
 15 *nintzen eta ez nintzen enteratzen.*

Idoia-17-Oñati

Bi hizlariak euren familiako testuinguruaren berri ematen dute, euren diskurtsoetarako oinarri legitimatzaile gisara. Ekaitzek jarrera moderatuagoa adierazten du ETAre desarmearerako: “ospatu ez, baina poztu bai” adierazpenak (3. lerroa) bere testuinguru hurbilean pertzibitutako jarrera anbibalente bat ulertarazten du albistearekiko. Era berean, Idoiak ere albistearen modu positiboan ebaluatzen duen ingurune sozial baten berri ematen du, baina naturalizazio-estrategia baten barruan kokatzen du: “Ez du atzera bueltarik” (4. lerroa) metaforak topiko gisara funtzionatzen du, *historiaren orrialdea pasatzearen* narratibarekin bat datorrena. Idoiaren testuinguruan, antzematen da ETAre jardunarekiko jarrera kritikoa; besteak beste, horregatik exijitzen zaio biktimei barkamena eskatzea (6-7. lerroak). Diskurtsoak, ordea, ez dauka elementu demonizatzailerik; areago, *Beste* aldearen jarrera negatiboak ere ikusarazten dira, adibidez, bueltan barkamenik ez eskatzea.

Bere gurasoen perspektiba erreproduzitu ostean esplizitatzen du Idoiak bere jarrera, zalantzazko modalizatzaile batekin: “Ez dakit iritzi horren alde nagoen” (7-8. lerroa). Ez da aski legitimatuta sentitzen bere ingurune sozialeko diskurtsoak zuzenean kuestionatzeko, eta elkarriketatzailerik propio galdetuta baino ez du bere posizioa argitzen: denborazko egitura adberbial eta deiktikoen bidez (“jada urte asko zen”, “atzo eta gaur”, “nahiko urte dira”...), gertakariarekiko urruntasun diskurtsibo bat eraikitzen du, bere burua haiengandik bereiziz, eta, aldiz, haiek bere gurasoen esperientziarekin lotuz. “Sin más” (13. lerroa) gaztelaniazko makulu-adierazpenaren bidez, auziak eragiten dion indiferentzia deskribatzen du Idoiak.

Etxean politikari buruz hitz egiteko ohiturarik ez duten gazteek, aldiz, oro har komunikabideen bidez jaso zuten desarmearen berri:

1 *¿Recuerdas o conoces alguna iniciativa de paz que haya habido durante el*
 2 *conflicto?*
 3 *¿Típico de nombre o así?*
 4 *Sí. O algún grupo que haya trabajado a favor de la paz.*
 5 *Pues... yo creo que no. (...)*
 6 *No sé si seguiste el año pasado un acto muy grande que se hizo en Baiona, con*
 7 *un grupo que se llamaba los Artesanos de la Paz.*
 8 *Eso quizá sí que me suena. Que fue cuando — puede ser, ¿eh? No lo sé — fue*
 9 *cuando ETA dijo que iba a quitar todas las armas y que se iban a disuadir.*
 10 *No: dividir, o algo así.*
 11 *¿Y cómo recuerdas aquello? ¿Se comentaba alrededor tuyo?*
 12 *Salía — típico lo ves en las noticias y así. Luego la gente lo [veía como] algo*
 13 *positivo; como una limpieza en la imagen del País Vasco.*

Elena-17-Barakaldo

Bake inizatibei buruzko ezezagutza orokorra izan da gure datuetan. Elkarriketatutak esanguratsutzat jotzen zituelako aipatutako negoziazio-prozesuen artetik, soilik bi

elkarrizketatuk zeukaten Lizarra-Garaziko prozesuaren (1998) berri; bakar batek ezagutzen zituen Txillarre eta Loiolako negoziazioak (2001-2006); eta beste bat zen gai Aieteko Bake Konferentziari buruzko xehetasunen bat emateko. Euren kabuz aipatu dituzten bestelako bake inizatibien artean, bik Miguel Ángel Blancoren hilketaren ondorengo *Esku Zuri*en mugimendua aipatu dute; horren ostean, aipamen bana jaso dute Gure Esku Dagok, Aljerreko negoziaketek, Biktimen elkarteek (modu orokorrean izendatuta, ETArekin biktimei erreferentzia eginez) eta Gesto por la Paz / Bakearen Aldeko Koordinakundeak.

Gazteek maiztasun eta xehetasun handienarekin deskribatu duten bake inizatiba Bakearen Artisauak izan dira. Ulergarria da elementu hau gailentzea, euren bizialdiko auzi garaikide bat denez gero. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da elkarrizketatuen ia laurden batek (%23,8k) ez zeukatela haren berririk, gaurkotasunezko gai bat izanagatik ere. Hari buruz mintzatu diren parte hartzaileek gehien errepikatu duten elementua telebistan ikusitako irudiren bat izan da, batik bat nazioarteko begiraleei armak emateko unea eta basoko armen biltegi edo *zuloak* ageri diren irudiak. Horren ondoren, Bake Bideak 2017ko abenduan Parisen egindako manifestazioa, presoen aldeko bestelako ekintzak eta nazioarteko bitartekarien Auzitegi Nazionaleko zitazioa (2014ko otsailaren 22an) dira gehien gogoratu dituzten gertakariak.

Hurbiltasunaren aldagaiaren garrantzia aintzat hartuta, ulergarria zaigu batik bat Ipar Euskal Herriko parte hartzaileak izatea 2017 eta 2018 arteko desarme prozesua xehean deskribatu dutenak. Garaikidea ez ezik, geografikoki ere hurbileko erreferentzia zaie, desarmeari lotutako gertakari esanguratsuenak Ipar Euskal Herrian gauzatu baitziren, Luhusoko (Lapurdi) atxiloketak eta Baionako ekitaldi publikoa, esaterako.

Desarmeari buruz jaso ditugun kontakizun xeheenetako bat ondorengoa da:

1 *Ba lehenik izan zen Luhusoko arrestaketa eta hori. Eta Txetx eta Etxerekin eta*
2 *horiek ere ezagutzen ditut. Ari ziren armen deuseztatzen Luhusoko etxe batean,*
3 *eta hor ziren arrestatuak izan. Eta gero izan zen berantago, beraz, desarmea*
4 *Baionan.*
5 *Zu izan zinen Baionan?*
6 *Ez, ez nintzen izan azkenean. Baina hurbil segitu nuen irratitik-eta.*
7 *Eta nola gogoratzen duzu, zer sentsazio eman zizun?*
8 *Ez dakit. Da... bitxia atxemaiten dut. Egia, zinez, ez dakit horrela erran behar*
9 *den, zinez enterramendu bat bezala; edo aski egun tristea iruditzen zait, eta*
10 *bo, en fin. Suposatzen dut beharrezkoa zela.*
11 *Zergatik egun tristea?*
12 *Ez dakit. Irudi zuen ari ginela pixkat – hara, armak uzten, bistan da, baina...*
13 *ez dakit, gelditzen genuela, uzten genuela, amore emaiten genuela. Ez dakit,*
14 *eguna hori bera. Gero bistan da, ez zen hori.*
15 *Galera bat bezala?*
16 *Bai. Bo, egun hori bera justuki. Egun hura nola ikusten nuen: hara, armak*
17 *emaiten dituzte, eta diskurtso horiek guztiak. Ez dakit, ez dut uste hori zela*
18 *egunaren egiazko mezua.*
19 *Oro har armagabetzea nola ikusten duzu? Zeintzuk ziren arrazoiak?*
20 *Bo, egoera blokatua zela. Baziren zazpi urte ETAk armak utziak zituela, eta*
21 *deus ez zen mugitzen. Eta beraz, hara, hori: armak uztea ofizialki, ez dakit –*
22 *segurrik beharrezkoa zen gauzak aitzinarazteko eta mugitzeko. Ez dakit efektu*
23 *handirik ukan duen, baina...*
24 *Sentitzen duzu ETA garaitua izan dela urte hauetan?*
25 *Garaitua ez dakit, ETA bukatu da. Eta ez dut uste zinez garaipenik izan dela,*
26 *gero eta ttipitzen izan da, hara, eta preso kopurua handitzen. Eta ez zen hola*
27 *segitzen ahal, ez dut uste gisa guziz betiko soluzioa zenik gatazka armatua eta*

28 *borroka armatua zela soluzioa denari. Ez zuen hola segitzen ahal beti, eta*
29 *jendea hiltzen eta presoak espetxerutzen. (...) Baina hara, uste dut, en fin,*
30 *bukaera beste bat izan behar zela. Berdin lorpen gehiagorekin bukatzea eta*
31 *zinez, hara, nahi ginuena edo – bo, nahi ginuena, edo parte bat bederen zinez*
32 *loritu eta hor erraitea. Uste dut hori izanen zela hoberena, hor erraitea: “Hara,*
33 *loritu dugu nahi genuena eta uzten dugu, uzten ditugu armak”. Uste dut*
34 *gehiago izan dela: “Nehorek ez du deus egiten, zazpi urte hola girela, zer*
35 *egiten dugu? Armak uzten ditugu, orai zuek egin zerbait, otoi”.*
36 *Posible ikusten duzu etorkizunean negoziazio prozesu bat irekitzea? Aukera*
37 *gehiago daude orain?*
38 *Ez dakit. Gero ez dakit izango zen – baina iruditzen zait gero eta urrunago*
39 *dela justuki “euskal terroristen” irudi hori, eta bere – kanpotiarrek-eta*
40 *dutena. Eta hara, hortako uste dut alde onak dituela armagabetzeak.*

Unai-16-Anhauze

Unai hainbat ahots bateratzen ditu desarmeari buruzko bere diskurtsoan. Emozionalki eta sozialki hurbila zaion gai bat da. Nolanahi ere, aurreko adibideetako hizlariak egin duten moduan, lehenik eta behin bere ingurune sozialeko perspektibak berreraikitzen ditu bere diskurtsoaren oinarri legitimatzaile gisara: “Txetx eta Etxe” izengoitiek (1. lerroa) Jean-Noël Etxeberri eta Stéphane Etxegarai *bakearen artisauei* egiten diete erreferentzia. Izengoitiak soilik erabiltzeak hurbiltasuna irudikatzen du, eta “horiek ezagutzen ditut” (2. lerroa) formula ebidentzialak aipu baterako sarrera-formula gisara operatzen du: bere burua istorioko protagonistekin lotuta, bere diskurtsoaren edukiari sinesgarritasuna eta legitimitatea eranstean dizkio hizlariak.

Unai, ordea, ez da geratzen bere ingurune sozialeko diskurtsoen erreproduzio hutsean. Inplikazio emozional handiko narratiba bat osatzen du desarmeari buruz, hura “egun triste” gisara (9. lerroa) deskribatuz. Enterramenduaren metaforak hurbilekoa edo maitea den norbaiten heriotza irudikatzen du; hortaz, armak uztea (lurperatzea) Unairentzat garrantzia sinbolikoa zeukan garai edo jokabide baten amaieraren ikurra da. Kontziente da, hala ere, gaiaren inguruan dagoen tabuaz eta hartan onartutako diskurtsoez; horregatik, baimena eskatzen du “ez dakit horrela erran behar den” (8. lerroa) adierazpeneko modalitate epistemiko eta deontikoarekin.

Sinbolo hori (ETA eta haren estrategia armatua) partekatzen duen komunitate ideologiko bat eraikitzen du Unai diskurtsoan, eta erabat identifikatzen da harekin. Hainbeste, ezen lehen pertsona pluralean mintzo baita desarmeaz: “Ari ginela armak uzten” eta “Gelditzen genuela, uzten genuela, amore emaiten genuela” perpausetan (12-13. lerroak), bere burua kokatzen du desarmatzen ari den taldearen barruan. Hortaz, identifikazio diskurtsibo argia dago ETArekin: hizlariak ez ditu fisikoki armak utzi, baina bere egiten du ETArekin eta bakegileen jokaera. Subjektu kolektiboaren posiziotik mintzo da kasu honetan Unai.

Pasarte honetan antzeman daitekeen beste ahots bat esplizitatzen ez duen subjektu batena da. Hark positibo edo beharrezkotzat jotzen du ETArekin desarmea. Unai zeharka parafraseatzen du diskurtso hau, bere etsipena adierazten duenean: “Suposatzen dut beharrezkoa zela” (10. lerroa) eta “segurrik beharrezkoa zen” (22. lerroa). Bi kasuetan, zalantza edo eszeptizismoa iradokitzen duten modalizatzaileak erabiltzen ditu, adierazpenaren edukiarekiko urruntasuna irudikatuz. “Ez dakit efektu handirik ukan duen” perpausak biltzen duen modalizatzaile epistemikoak, ezjakintasuna bainoago, eszeptizismo hori adierazten du.

30. lerrotik aurrera esplizitatzen du bere jarrera pertsonala, modalitate deontikoaren bidez: “[B]ukaera beste bat izan behar zen”. Pasarte horretan, desarmea etsigarri gisara ebaluatzen du, *ingroup*-aren helburuak bete gabe amore ematea dela uste duelako. Tesi hori ETAREN diskurtso hipotetiko bat ironikoki aipatuz esplizitatzen du (34-35. lerroetan); haren bidez, nora ezean dabilen aktore gisara erretratatzeko du ETA.

Unai galera militar edo estrategikoaren narratiba bat eraikitzen du, *ingroup*-aren helburuak bete gabe eta haren ezintasunagatik amaitu den etapa baten gisara irudikatzen baitu ETAREN jarduera armatua. Hala ere, ez dio garaile rolik aitortu nahi beste aktore bati ere: elkarrizketatzailearen galderari “Garaitua ez dakit, ETA bukatu da” erantzuten dionean (25. lerroa), birformulazio bidezko emendatze estrategia diskurtsibo bat erabiltzen ari da. Subjektu agentedun aditz bat zuzentzen du (*garaitu*), eta aditz intrantsitibo batengatik aldatzen (*amaitu*): hartara, ETAREN jardunaren amaiera berez gertatu den zerbaiten moduan irudikatzen da; ondorio natural bat, testuinguruko baldintzetatik (blokeoa, egoera berberean jarraitzeko ezintasuna) eta ETAK haien aurrean hartutako jokabidetik datorrena. “Garaipena” *ingroup*-aren interesen terminoetan definitzen du Unai; eta, haiek bete ez direnez, porrot baten narratiba eraikitzen du.

Oro har, termino militarretan mintzo da Unai gatazkaren amaieraz: gatazkaren ondoriozko sufrimendua aipatzen duenean, batik bat ETAK hildakoez eta presoek ari da (28-29. lerroak): kasu honetan ere, “jendea hiltzea” bihurtzen da ETAREN jarduera armatuaren metafora.

Pasarte erredentziozko narratiba batekin amaitzen du: jatorrian negatiboki eta galera gisara ebaluatu duen desarmea positiboki ebaluatzen du bere ondorioetan (38-40. lerroak), *ingroup*-aren helburuak bete ez diren arren, harekiko aurreiritziak leundu direla nabarmentzen duenean.

Galera militarren narratiba elkarrizketa gehiagotan ere antzeman dugu. Nolanahi ere, salbuespenekoak izan dira Estatuaren politika aktiboki txalotu dutenak; hizlari gehienek denboraren ondoriozko ahitze prozesu baten testuinguruan kokatu dute ETAREN desarmea.

1 *Yo creo que ETA se ha desinflado poco a poco, igual por la – porque el Estado*
2 *en cierta medida ha aguantado, no ha querido negociar directamente esa vía*
3 *para llegar a la independencia por ejemplo, o lo que se quería.*

Paulo-19-Urnieta

Galtungek *bake negatibo* (Webel & Galtung, 2007, p. 31) gisara definitzen duena kontzeptualizatzen du Paulok: narratiba horretan, *outgroup*-arekin (kasu honetan, ETAREkin) negoziatzea amore emate gisara interpretatzen da; eta haren eskaerei muzin egitea erresistentzia edo garaipentzat jotzen da. Paulok hori *eutsi* edo “aguantado” metaforaren bidez irudikatzen du (2. lerroa). Egitura honetan, erresistentziako narratibaren protagonista Estatu da; eta ETA, hari aurka egiten dion indar antagonista. Azken hura “hustu” izana (“se ha desinflado”) entitate eta substantziako metafora ontologiko bat da (Lakoff & Johnson, 1980, pp. 58–59), kontzeptu lausoago bat substantzia zehatz baten terminoetan hauteman, kuantifikatu eta hari buruz arrazoitzea ahalbidetzen diguna. ETAREN desarmea *huste* gisara kontzeptualizatuta, prozesu fisiko batekin parekatzen da; esate baterako, denborarekin airea galtzen duen puxika batekin

edo grabitatearen ondorioz hutsuneren batetik edukia galdu duen ontzi batekin. Hartara, desarmea ulertzeko fisikaren legeetan oinarritutako narratiba naturalizatzaile bat eraikitzen da, prozesu politiko bat ingurune fisikoan topa daitezkeen prozesuekin parekatzen duena.

Elkarrizketetan behatu ahal izan dugun bigarren narratiba nagusiak ETAREN agentzian kokatzen du desarmearen kausa. Parte hartzaile gehienek uste dute armak uztea taldearen borondatezko erabakia izan dela, eta agentzitate hori garaipenezko narratiba batean kokatzen dute sarritan:

1 Duela bi asteko albisteaz hitz egin dezagun: ETAREN disoluzioa. Etxean hitz
2 egin zenuten? Zer komentatzen zen? Zuri zer eragiten dizu?
3 *Bai, ba komentatu zena izan zen, bueno, lagun batzuk entzun nituen*
4 *komentatzen: “Bueno, ba ja Espainiako Gobernua pozik egongo da”*. *Eta*
5 *nire erantzuna izan zen ezetz, Espainiako Gobernua izango dela gaur egun*
6 *okerren egongo dena* ETAREN desagerpen, bueno, armagabetze eta
7 *disoluzioaren ondorioz. Lehen esan dizudana: beti izan dela aitzakia bat dena*
8 *justifikatzeko, eta orain eman den disoluzio hau eta gero, suposatzen da*
9 *Espainiako Gobernuak esan duena izan dela terrorismoa garaitu duela* edo
10 *terrorismoaren aurkako garaipena lortu duela, eta nik pentsatzen dudana da*
11 *porrot handiena eurek lortu dutela, eta garaipen bakarra guretzat izan dela*
12 *gaur egun ETAREN biolentziaren disoluzioarekin.*
13 Zergatik?
14 *Ba bide berri baten hasiera delako, biolentzia ETAK armagabetzearekin batera*
15 *baztertu duen momentuan, baina... Gaur egun arte, ETAK iraun duen*
16 *momentuan, ekintza asko ahalbidetu barik geratu dira ETAREN aitzakian, eta*
17 *bai ailegatu dela puntua bide berri bat hasteko biolentzia barik.*

Enaitz-17-Oñati

Enaitzek hiru aktoreko eskema bat osatzen du bere narrazioan: alde batetik, Espainiako Gobernua eta ETA leudeke, gatazkaren protagonista eta polo gisara; baina, bestetik, bietako bakar bat ere barne biltzen ez duen *ingroup* bat dago, “gu” (11. lerroa). Enaitzen narratiban, hirugarren talde horren interesen arabera baloratzen da desarmea, eta “garaipen bakar” gisara (11. lerroa) ebaluatzen da etapa aldaketa. Hartara, ETAREN jarduerarik gabeko garai berria idatzi gabeko orrialde baten bidez metaforizatu liteke, zeinetan *ingroup*-ak agentzitate irabazten duen, *lehen* hartu ezin zezakeen protagonismoa har dezakeelako *orain*. Hortaz, Enaitzek bere posizio zehatzetik eraikitzen du desarmeari buruzko markoa, galera edo garaipen militar hutsetik haragoko irakurketa bat eginez.

Era honetako egiturak (norbere posiziotik atzera begira egindakoak) ohikoak izan dira gure datu bilketan:

1 ¿Por qué ha llegado el desarme de ETA?
2 *Porque, no sé. Yo creo que – la verdad es que ha sido como un poco, “¿Ahora?*
3 *¿Ya, ahora?”. No sé, yo creo que han visto que ya mucho no iban a hacer, y*
4 *no tenía sentido seguir con los atentados, y han dicho: “Pues no perdemos*
5 *nada desarmándonos”*. *Es más, yo creo que si quisiesen podrían volver en*
6 *cualquier momento. Podrían volver a constituirse. Pero, no sé, no tenía mucho*
7 *sentido seguir, yo creo.*
8 ¿No crees que fue producto de una debilidad por la presión policial?
9 *A ver, también. Joder, es que obviamente pues les han perseguido mucho, ¿no?*
10 *Pero si les hubiese importado la represión policial no habrían empezado en*
11 *un principio, porque es obvio que les iban a perseguir, les iban a matar, que*
12 *les iban a torturar, etcétera etcétera. Eso es algo que ellos deberían de haber*

13
14
15
16

sabido desde el principio, y el que no, es que es tonto. Básicamente. Yo creo que han visto que no tenía sentido. O sea, si me pongo en el lugar de un etarra, que sería difícil, yo tampoco habría seguido. Joder, hace tiempo, apaga y vámonos.

Malika-17-Barakaldo

Pasarte honetan, absurdoaren narratiba bat eraikitzen du Malikak: berak ETaren jarduna zentzugabe gisara ebaluatzen duenez, irakurketa horrekin koherentea den arrazoiak bilatzen dizkio armak uzteko erabakiari. Adibide honetan argi beha daiteke zein neurritan baldintza dezakeen hizlariaren jarrerak amaierako narratiba: Malikarentzat, ulergaitza da ETak bere jardun armatuarekin jarraitzeko izan zezakeen arrazoa; ondorioz, ez du logiko gisara ebaluatzen; eta, beraz, desarma bez bihurtzen da ekintza logiko edo ulergarri bat, bestelako arrazoirik behar ez duena.

Absurdoaren marko honek ulertezintasuna edo ezezagutza gainditzea ahalbidetzen dion umorezko tonua erabiltzea *baimentzen* dio Malikari: ironiara jotzeko baimena ematen dio bere buruari, ETaren aipu hipotetiko bat asmatuz eta hari barre eginez. Genero diskurtsibo zehatz honen aukeraketarekin (Hymes in Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 4), larritasuna kentzen die hizlariak hizpide dituen gertakariei; fribolizazioa distantziamendu diskurtsiborako tresna bihurtzen da hartara. Nolanahi ere, umorearen erabilera eta haren funtzio diskurtsiboak zehatzago aztertuko ditugu gazteen informazio iturriei dagozkien kapituluak, zehazki euren testuinguru sozialean eta adinkideen artean dituzten interakzioak aztertzerakoan (5.2.4. *Adinkideak eta hurbileko giro soziala*).

Elkarrizketatu gutxi batzuek (bik, zehazki) ETaren desarma negoziazio prozesu baten ondorio izan dela uste dute; gainerakoek alde bakarreko edo berez gertatutako urrats baten moduan kontzeptualizatu dute, eta askok ez dute armen amaiera gatazkaren amaierarekin parekatu, kontrara baizik: gatazka iraunarazten duten faktoreen artean, haren instrumentalizazio politikoa, independentziaren auzia ebatzi gabe egotea, gizartearen jokabide eta emozioen iraupena, presoen auzia eta aurreko hamarkadetako arrasto instituzionalak aipatu dituzte.

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14

Gatazka bukatu dela esango zenuke?
Biolentziaren aldetik seguruena bai; bestea ez. Zeren nire ustez Espainiako gobernu batzuri komeni dakie ETak oraindik segitzea, zeren badakite: caladero de votos, seguru; hor badaukate zerbait jendeari esateko, "Hemen oraindik horrela gaude".
Gaur egun, gatazka zertan da? Indarkeriarik gabe, zeinen artean dago edo zein da korapiloa?
Ikusi dut duela gutxi Frantziako Gobernuak esan duela ahalik eta azkarren desarmatzeko, baina Espainiako Gobernuak ez duela nahi edo askoz mantsuago doala.
Orduan, gatazka erabat ebazteko zein urrats falta dira oraindik?
Etarrek barkamena eskatzea, baina sentitzea benetan egin dutena ez dela ongi. Eta gero Espainiar gobernutik ere egitea ahalik eta, o sea, zera egitea presoak ateratzeko.

Imanol-15-Arbizu

Imanolen narratibak bi gatazken eskema bat inplikitzen du: alde batetik, gatazka armatua ("biolentziarena", 2. lerroan), eta bestetik, esplizitatzen ez den "beste" gatazka bat, lehenak eragindako kaltearen konponketarekin zerikusia daukana. Kontuan izan behar da elkarrizketa hau 2018ko martxoan egindakoa dela, hau da, Baionako desarme ekitaldia

baino bi hilabete lehenago; hortaz, Imanolek planteatzen duen eskaera (ETAren barkamen eskaera) une hartan komunikabideetan sarri entzuten zen exigentzia bat zen. ETAk handik hilabetera, 2018ko apirilaren 8an, argitaratu zuen “egindako kalteari buruzko adierazpena” (Euskadi Ta Askatasuna, 2018).

Imanolek gatazkaren jarraipenerako bi argudio erabiltzen ditu: haren instrumentalizazio politikoa (2-5. lerroak) eta presoen auzia (13-14. lerroak). Bi gaiok izan dira, alde handiarekin, elkarrizketetan gehien errepikatu direnak gatazkaren ebatzi gabeko alderdiei buruz galdetzerakoan; haren instrumentalizazio politikoa, batik bat, Altsasuko auziaren testuinguruan ekarri dute hizpidera gazteek.

Beste narratiba baten arabera, Euskal Herriaren independentziaren auzia ebatzi gabe goteak bihurtzen du euskal gatazka bukatu gabeko gatazka bat:

1 ¿Te parece que el conflicto ha terminado?
2 Si el origen del conflicto es que Euskadi consiga la independencia... no.
3 Porque – porque se sigue pidiendo la independencia. Entonces, si se celebrara
4 igual un referéndum sobre la independencia y sale que sí o que no,
5 independientemente del resultado yo creo que igual ahí sí que se acaba el
6 conflicto. Es que tampoco sé decirte cuál es el porqué del origen de ETA. O
7 sea, lo que yo creo que es, pues eso, ¿no? Represión por parte de, vamos a
8 decir de España: te sientes atacado, claro, entonces te sientes atacado, igual
9 menospreciado, pues tú lo que quieres es ser independiente... entonces, si ese
10 es el origen del conflicto, pues hasta que no se hable sobre la independencia,
11 no se va a acabar. Si no, pues... si no es eso, pues no sé. Igual sí que se ha
12 acabado, no sé.

Ibai-20-Donostia

Ibaik narratiba metadiskurtsibo eta erreflexibo bat eraikitzen du: berak eraikitako markoari egiten dio erreferentzia, eta hura baldintza gisara hartuta eraikitzen ditu bere hipotesiak, betiere baldintzazko perpausak erabiliz (2., 3. eta 5. lerroak); hauek iradokitzen dute hizlariaren beraren markoa dela testuinguruko oinarria, diskurtsoan eraikitzen diren *egiak* marko horren baldintzapean bihurtzen direlako *statu quo*. Ibaik gatazkaren sorburua ETAren existentzian kokatzen du, ez hainbeste haren jardun armatuan; ondorioz, haren izateko arrazoiaren arabera ebaluatzen du gatazkaren jarraipena.

Esanguratsua da, halaber, Ibaik ez duela bere burua independentistatzat: areago, ETAk eragindako biolentzia kasu larri bat izan du familian, eta horrek nabarmen urruntzen du talde armatuaren posizio ideologikoetatik. Gure elkarrizketetan, ohikoa izan da hizlariak gatazkaren garapena euren edo euren *ingroup*-aren helburuen arabera ebaluatzea (Unai eta Enaitzen adibideetan behatu izan dugun moduan). Kasu honetan, ordea, *outgroup*-aren helburuei egiten zaie erreferentzia: Ibaik haren jokatzeko motiboak ulertzen ditu, eta ase gabeko behar gisara ebaluatzen du gatazka.

1 Nik uste dut gatazka bat ez dela akabatzen nahiz eta orain borroka armaturik
2 ez egon... bueno, bai, presente edo ez egon, uste dut gatazka bat ez dela
3 amaitzen gorroto hori desagertu arte. Eta nik uste dut gorroto hori ez dela
4 inoiz desagertuko.
5 Ez duzu ikusten posible?
6 Bai, independentzia hori lortuz gero egongo dira... bueno, nik uste dut orain
7 erreferendum bat eginez gero, Euskal Herrian ezetz irtengo zela askogatik. Eta
8 pena emango zidan, baina nik uste dut egunen batean Euskal Herri aske bat-

9
10
11
12

edo lortuz gero edo, gorroto hori gutxitu egingo zela espainolekiko, ze azkenean izango zen “Bale, Espainia - Euskal Herria, ados”, baina nik uste dut Euskal Herrian espainol asko daudela, eta hor sortuko zen gatazka nik uste dut.

Idoia-17-Oñati

Identitate nazionalen arteko talka gisara kontzeptualizatzen du Idoiak euskal gatazka: bi talde argi bereizten ditu: euskal herritarrak *ingroup* gisara; eta espainiarrak *outgroup* gisara. Agentibitaterik gabeko aktore gisara erretratatu du lehena, bigarrenaren menpe. Egoera horren aldaketan ikusten du gatazkaren irtenbide posible bat (“Euskal Herri aske bat lortzea”, 8-9. lerroetan); hau da, *ingroup*-aren interesen arabera *bake* bat planteatzen da. Nolanahi ere, Idoia eszeptiko da erreferendum baten baliozkotasunarekiko, gatazka identitarioak jarraituko lukeela uste duelako: “Espainol asko daude” dioenean (11. lerroa), *outgroup*-aren existentzia bera kokatzen du gatazkaren muinean. Hortaz, Galtungen terminoetan, *bake negatibo* gisara planteatzen du gatazkaren irtenbidea: soilik norberaren aldearen helburuen arabera ebaluatutako irtenbide bat, *Bestearen* existentzia traba gisara ikusten duena, alegia (Webel & Galtung, 2007, p. 29).

Interesgarria da, halaber, Idoiak gatazkaren bi dimentsio bereizten dituela: alde batetik, haren adierazpen armatua dago (hizlariak desagertutzat jotzen duen “borroka armatua”, 1.-2. lerroetan), baina bestalde gatazkaren dimentsio emozional bat identifikatzen du, “gorroto” gisara deskribatzen duena (3. eta 9. lerroetan). Alderdi emozional honek gatazkan inplikaturako aktoreek elkarrekiko dituzten aurreiritziei egiten die erreferentzia, eta gatazkarekin lotutako iruditeria eta alderdi sinbolikoarekin du zerikusia.

Herritarren pentsaeran eta jokabidean eragiten duen gatazka sinboliko horren iraunkortasunaz beste hainbat hizlari ere mintzatu zaizkigu. Besteak beste, nostalgiaren eta aurreiritzien presentzia aipatu dute:

1
2
3
4
5
6

Gatazka bukatu dela esango zenuke?
Ez.
Zergatik ez?
Ba gehienbat amorrua. Beste etsaitasun hori, edo beste alde etsai moduan ikusten dugulako eta jendeak oraindik ez daukalako onartuta ba jada etapa hori bukatu dela moduan, nik uste dut oraindik asko dagoela.

Nagore-17-Oñati

1
2
3

(...) azkenean, aurreiritziegatz segitzen baduzu, eta beti jendea irudi horregatik zure kontra ipintzen bada, azkenean hor jarraitzen du beti. Azkenean, irudi hori kendu arte...

Udane-18-Markina-Xemein

Alderdi sinboliko hori gazteek gatazkari buruz eraikitzen dituzten kontzeptualizazioen osagai zentraletako bat da; aztergai dugun belaunaldiko kideek ez dute haren adierazpen armatua euren bizialdian ia espermentatu, baina, horren orde, aurreiritzi, jarrera eta emozioen bidez bizi dute gatazka neurri handi batean, eta esperientzia horiek ere baldintzatzen dituzte gatazkari buruz eraikitzen dituzten makronarratiba eta marko interpretatiboak. Nolanahi ere, alderdi honek gatazkaren esperientziekin eta, beraz, identitatearen eraikuntzarekin zerikusi handiagoa duenez, tesi honen hirugarren atal analitikoan (5.3. *Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak*) aztertuko dugu sakonago.

Azkenik, gatazkaren egungo adierazpenez galdetuta, gehien aipatu dituzten zantzuen artean daude arrasto instituzionalak. Haien artean aipatzen dituzte, besteak beste, propio euskal gatazka armatuaren testuinguruan diseinatutako eta indarrean sartutako arau juridikoak, presoak sakabanatzeko neurriak edo terrorismoa goratzea delitutzat jotzen duten legeak, adibidez:

1 *Yo lo que veo, más que violencia, las leyes, algunas. Aquí hay leyes para la*
2 *Kale Borroka; aquí, por ejemplo, si en una manifestación quemas un*
3 *contenedor, te caen [de] seis a doce años de cárcel. En cambio, si eso lo haces*
4 *en Miranda, son 6.000 euros de multa.*

Jokin-20-Gasteiz

1 Gatazka bukatu dela esango zenuke?
2 *Esango nuke ezetz.*
3 *Zergatik ez?*
4 *Gauza da gaur egun badagoela jendea, ba, Euskal Herria nazio modura hartu*
5 *nahi duena. Eta badaude ba arauak edo Konstituzioan idatzita dauden gauzak,*
6 *ba horren aurka pues egiten diona. (...) Ba, adibidez, Katalunian eman zen*
7 *gaia izan zen ba hori, nahi zutela independentzia, baina ezin zuten*
8 *independizatu ez zekitelako zer emango zuten bozkaketaren arabera, orduan*
9 *egin nahi izan zuten erreferenduma; ez zuten izan baimenik, eta horrek mugitu*
10 *zuen guztia.*

Endika-17-Tafalla

Bi hizlariak euskal gatazkaren testuinguruan existitzen diren diskurtso juridiko-normatiboei egiten diete erreferentzia; haiek “idatzita” daude (Endika, 5. lerroa), hau da, finko eta aldagaitz gisara pertzibituak dira. Bi hizlariak adibide desberdinak jarri ilustratzen dute tesi berbera. Euskal Herrian eta bertatik kanpo neurri desberdinean zigortzen den delitu baten kasu hipotetiko bat (“egiten baduzu” baldintzazko egiturak iradokitzen du hipotetikoa dela) eraikitzen du Jokinek: “hemen” deiktikoaren bidez (1. eta 2. lerroetan) ezartzen ditu muga geografikoa eta legeen aplikazioari dagokion muga.

Endikak erabiltzen duen egitura ebidentzialak, aldiz, Kataluniako historia hurbileko gertakariak ditu oinarri: hartan, katalanen helburua (independentzia edota hari buruzko erreferenduma) eragozten duen indar antagonista gisara erretratatu dira Espainiako Konstituzioa eta hura osatzen duten legeak, hark ez duelako “baimenik” (9. lerroa) ematen helburua gauzatzeko. Kataluniako auziak analogia gisara operatzen du kasu honetan: Endikarentzat, euskal gatazka termino zehatzagoetan kontzeptualizatzeko prisma erabilgarria da, auzi garaikideagoa delako eta hura hobeto ezagutzen duelako.

5.1.2.4. Gatazkaren konponbidea eta presoen auzia

Gazteek euskal gatazkarekin lotzen duten beste auzi garaikide bat presoen arazoa da. Askok euskal presoen sakabanaketan oinarritutako espetze-politika ezagun duten arren, gazte gehienek ez dute presorik ezagutzen pertsonalki edo hurbiletik. Elkarrizketak egiten hasi ginenean (2018ko martxoan), 291 euskal herritar zeuden preso ETArekin lotura izatea egotzita (*Gara* egunkariaren zenbatzailearen arabera); ia bi urte geroago, azken elkarrizketen garaian (2020ko urtarrilean), 241 zeuden. Horien artean, bostetik batek 20 urte baino gehiago zeramatzan espetxean⁹; hau da, gure elkarrizketatuen batez besteko

⁹ Etxerat elkarteak ikerketa honen xedeetarako emandako datua.

bizialdia baino denbora gehiago. Presoen elkarteetan datuen arabera, soilik %13 ari ziren une hartan zigorra Euskal Herriko espetxe batean betetzen (Etixerat, 2020); gainerakoak urrunduta zeuden, Espainiako Gobernuak 1980ko hamarkadan abiatutako eta Frantziakoak ere indarrean sartutako urruntze-politikaren ondorioz (Albin, 2018b). Urtebete geroago, %53ra igoa zen Euskal Herriko espetxeetara hurbilduta zeuden presoen kopurua (Etixerat, 2021). 2023ko martxoan erabat amaitu zen urruntzea.

2000ko urteen bueltan jaiotako gazte gehienentzat, presoak figura urruna dira zentzu guztietan. Gutxienean ezagutzen dute pertsonalki espetxean egon den norbait, eta ezagutzen dutenen artean, ia inoiz ez zuten ezagutzen atxilotu aurretik; oro har, kartzelatik atera direnean ezagutu dituzte hezur eta haragitan; gehienetan, herri edo auzokideak direlako edo, kasu gutxiagotan, senideak edo senideen lagunak direlako. Gainerakoentzat, presoak sinbolo bat dira batik bat, argazki eta aldarrikapen politikoetatik ezagutzen dituztenak, baina giza alderdi errealik ezagutzen ez diotenak.

Horregatik, bi patroi identifikatu ahal izan ditugu gazteek presoari buruz eraikitzen dituzten narratibetan, ezagutza hori pertsonala edo soilik sinbolikoki mediatua izan denaren arabera. Aurrez aurre ezagutzen dituzten presoari buruz aritzean, oro har haien alderdi humanoa, sufrimendua eta haiek positiboki erretratatzeko dituzten jarduerak nabarmentzen dira: osasun arazoak, hurbilekoen elkatasun inizatibak, espetxeko ikasketak edo sormena, eta abar. Esperientzia zuzenik ez dagoen kasuetan, aldiz, presoak bere delituaren arabera definitzen da, sarritan *hiltzaile/ez hiltzaile* kategorietara murriztuta.

- 1 Ezagutzen duzu preso egon den inor, edo dagoena?
2 *E... Altsasukoak.*
3 Zure adiskideak edo ezagunak dira?
4 *Ezagunak, ez dira lagunak baina... [etena].*
5 Eta zer sentimendu edo ideia eragiten dizu kartzelan ikusteak?
6 *Ba, bueno, kasu honetan e, ez dakit, bahiketa bezala ia-ia. Ez dakit.*
7 Eta beste presoetan? Adibidez, ETako kideren baten espetxealdia?
8 *Ba ez dakit, agian, ez dakit, norbait, o sea, hilketaren batean parte hartu izan*
9 *balute, ba ez dakit, ideia -o sea, politikatik aparte norbait hil badu, pues*
10 *azkenean kondena bete beharko du. Gehiago edo gutxiago gustatu, baina ez*
11 *dakit.*

Ekaitz-16-Altsasu

Ekaitzen elkarrizketa-pasaratean argi bereizten dira bi patroi diskurtsiboak. Pertsonalki ezagutzen dituen gazteen atxiloteta “bahiketa” metaforaren bidez deskribatzen du (6. lerroa), errealitate horren legitimitate falta nabarmenduz eta Estatua injustu edo kalte-eragile gisara erretratatu. Altsasuko gazteak, adinez zein geografiaz, gainerako preso gehienak baino hurbilago ditu hizlariak, eta identifikazio edo ulermen bat dago haien egoerarekiko. Aldiz, ezezagunak zaizkio ETako kide izan edo harekin lotura edukitzeagatik atxilotutako gainerako presoak: haien espetxealdia, delituaren arabera, ordaindu beharreko prezio justu baten gisan ebaluatzen du.

Behaketa honetatik abiatuta, honako hipotesia planteatu genezake: bada *preso* kategoriari buruzko *frame* edo irudi prototipiko bat gazteon iruditerian, presoen egoerari buruz modu orokor edo kolektiboan galdetuta aktibatzen dena: hartan, presoren indibidualtasuna eta humano gisara erretratatzeko duten ñabardurak desagertzen dira, eta, aldiz, gatazka biolentoaren eskemarekin bat datozen narratibak eratzen dira, arreta nagusiki delituetan

3 Badakizu zein den gutxi gorabehera euren egoera?
4 *Hombre, bai, hori bai. Daudela pila bat kilometrotara, egon beharko zutela*
5 *berez hemengo kartzeletan, baina ez dietela uzten hemengo kartzeletan egoten,*
6 *eta hori da doble zigorra familientzako eta presoentzako. Eta familiak igual ez*
7 *du gauzetan errurik izan, zeren ez daki zer egin duen bere semeak; eta joan*
8 *behar dira 40 minutu egoteko mila kilometro hori, horregatik '40 Minutu*
9 *Rock' eta hori dena. Eta... hori, azkenean ba da injustizia bat.*

Joseba-20-Bilbo

Josebak presorik pertsonalki ezagutzen ez duen arren (2. lerroa), haien egoerari buruzko hainbat datu eskuratu ditu ingurune sozialetik heldu zaizkion diskurtsoen bidez. Zehazki, ezagutzen du urruntze politika, espetxeko bisiten laburtasuna eta senideen sufrimenduaren berri ere badu. *Zigor bikoitza* (6. lerroa) sozialki zabaldutako formulazio egin bat da: presoen senideen elkarteek ere erabili izan dute, urruntze politikaren ondorioak salatzerakoan (Tolosaldeko Ataria, 2014). Durangon (Bizkaia) egiten den *40 Minutu Rock* musika jaialdiak ere ezagutza horren transmisiorako baliabide gisara funtzionatzen du kasu honetan; presoekin bestela pertsonalki izango ez lukeen harreman bat eskaintzen dio hizlariari.

1 *Ni bertso eskolan nago orain dela zortzi urtetatik, eta bertan badaude bi,*
2 *kartzelan egon direnak baita ere leporatuta ETArekin, e, harreman zuzena*
3 *izateagatik. Eta pixkat hori ere txikitan, ze gogoratzen dut honekin beste*
4 *esperientzia bat: nola etorri zen horietako bat, [presoaren izen arrunta].*
5 *Etorri zen orain, ez dakit, zortzi urte? Gure txikitako laguna zen, o sea,*
6 *nagusia, e? Baina gurekin ibiltzen zen gurasoekin, eta kuadrillatxo horretan,*
7 *eta bueltatu zenean nola bertsoak kantatu genizkion bueltan, baina klaro: nik*
8 *ongi etorri, baina ez nekien zenbat egon zen, ez zer leporatuta. Eta hori ere*
9 *urteekin ba jakin dugu pixkat gehiago. Baina ez dakit hala ere horren sakon*
10 *gero lantzen den benetan zeintzuk diren arrazoiak. Gehiago izaten da: "Joan*
11 *da, kartzelean dago, baina ez dakigu zenbateko – zer leporatu dioten, ez beste*
12 *ezer ez". (...) Da ideia bat, hor, e, Herrikoko kartelean dagoen pertsona hori.*
13 *Baina hor ez dakizu nor den, ez zer egin duen, ez beste ezer ez. Eta hori, ba,*
14 *gure belaunaldiak ja... adinak pasata daude, ja gazte mugimendutik ez dira*
15 *egongo, horregatik. Niri hori gertatzen zait: hotz bezala, ongietorrietan-eta.*
16 *Eta askotan bertsolari izatearren joan behar dugu bertsoak kantatzera*
17 *ongietorrietan, eta izaten dira bertso berdinak guztientzako horregatik: ez*
18 *duzulako familia ezagutzen.*

Gari-20-Getxo

1 *Ikusten ditudanean horiek pentsatzen dut ETAn ibili zirela; bale, jendea hil*
2 *zuten, baina hil zuten jendea pentsatzen zutelako ez zegoela beste modurik*
3 *askatasuna eskatzeko. Eta alde batetik ikusterakoan argazki horiek, ba, ez*
4 *dakit, e, ba hori, jendea hiltzea niri ez zaidala ondo iruditzen, baina egin*
5 *zutena Espainiako zerak ezta.*

Eñaut-15-Oñati

Bi pasarteok agerian uzten dutenez, euren eguneroko bizitzan ez dauden figurekin harreman sinbolikoa eraikitzen dute gazteek; presoen kasuan, nabarmena da argazkien pisua, batez ere herriko tabernetan eta antzekoetan erakutsi ohi direnak.

Garik badu oroitzapen pertsonal bat, preso egondako pertsona bat inplikatzeko duena. Harekiko sentitzen duen urruntasunak ("hotza" tenperaturazko metaforaren bidez irudikatua, 15. lerroa), ordea, barne kontraesan bat eragiten dio beragandik espero den rol sozialarekin (presoari ongi etorria egitea): kosta egiten zaio ezezaguna zaion figura bat omentzea. Halaber, esanguratsua da hizlariak berak presoak "zer egin duen", hau da,

haren delitua zein den jakiteko beharrean jarritako enfasia (7-8., 11. eta 13. lerroetan errepikatzen du ideia bera); delitua edo kartzelan egoteko arrazoia informazio garrantzitsua da Garirentzat, pertsonari buruzko irudia osatzeko.

Eñauten adibidean ere beha daiteke kriminalizazio hori, hau da, preso funtsean delitugile gisara ikustea: adibide honetan, ETAko kide izatea (“ETAn ibiltzea”, 1. lerroa) ETArek ekintza biolentoenekin, hilketarekin (1-2. lerroetan), parekatzen da; pentsamendu metonimikoaren adibidetzat joenez, beraz. Eñaut ez da preso zehatz bati buruz ari, baizik eta *preso* kategoriari buruz eraikita daukan eskema kognitibo bat erreproduzitzen ari da. Haiei buruzko karakterizazio positibo edo leundu bat eraiki nahi duen arren (alde bakoitzaren legitimitate moralaren alderaketa baten bidez), ez dio uzten presoiei buruzko diskurtso deshumanizatzailea eraikitzeari.

Argumentazio-eskema hau elkarrizketa gehienetan errepikatu da: preso nagusiki sinbolo gisara ikusten denez, alderdi sinboliko horrek tonu hiperbolikoko irakurketei ematen die bide, hau da, heroizazio bati edo, kasu gehienetan, demonizazio bati. Etxean edo testuinguru sozial hurbilean kasu zehatzik ezagutu ez dutenek, gehienetan, diskurtso oso publikoen bidez jasotzen dute preso en egoeraren berri, komunikabideetatik edota espazio publikoko margoketa eta afixetatik:

- 1 ¿Qué falta para que termine el conflicto?
2 *Pues, por ejemplo, los presos. Es que yo no entiendo muy bien, pero cuando*
3 *dicen que un preso sale y ha sido de ETA, no sé si realmente está bien que*
4 *salgan o se quedaran ahí toda su vida. No entiendo muy bien por qué hay gente*
5 *que se alegra, y por qué hay gente que se... parece que se frustra.*
6 ¿En tu opinión que debería hacerse con los presos?
7 *En mi opinión depende de lo que han hecho. Hombre, si han matado a alguien*
8 *pues sí, a la cárcel y ya está, no hay más. Pero si solamente han pertenecido*
9 *a ETA y luego por lo que sea se han dado cuenta de que no valía la pena estar*
10 *ahí, pues bueno, que salga, tampoco hace falta.*
11 ¿Conoces a algún preso?
12 *No. Creo que había uno que se llama Josu, ese es la única persona. No*
13 *recuerdo, pero hace nada que salió, y encima por toda mi zona pues aparecen*
14 *“Presos etxera”, no sé qué, y aparecen sus nombres, y pues se me ha quedado*
15 *el de Josu.*

Alex-18-Barakaldo

Kasu honetan, gatazka amaitzeko konpondu beharreko auziez galdetuta, elkarrizketatuak berak ekarri du hizpidera preso en auzia; ezagun du arazo bat dagoela, baina ez da gai posizio bat hartzeko daukan informazioarekin. Modalizatzaile epistemiko eta zalantzazko adierazpen ugariak (2-5. lerroetan) ulertezintasuna adierazten dute. Elkarrizketatzaileak animatuta, inplikazio handiagoko adierazpen bat osatzen du ondoren: presoak euren jokabide indibidualen arabera irakurriak edo ebaluatua diren eskema bat eraikitzen du, ostera ere odolezko delituak eta odolirik gabekoen arteko muga ezarriz ebaluaziorako neurgailu gisara.

Bestalde, Alexen kasuan, presoiei buruzko bere ezagutzaren iturria komunikabideak eta espazio publikoko diskurtsoak dira batik bat: “esaten dutenean” adierazpena (“cuando dicen”, 2-3. lerroak) aipu baterako sarrera-formula da; ez du subjekturik zehazten, baina testuinguruagatik inferi liteke albistegi edo antzeko diskurtso mediatikoren bati egiten ari zaiola erreferentzia, oro har preso en irteerak bihurtu ohi direlako albiste. Izenez aipatzen duen preso bakarra, “Josu” (12. lerroan), Josu Uribetxeberria dela hipotetizatu dezakegu,

bi arrazoiengatik: alde batetik, Alexen informazio iturriak ezagututa, koherentea delako figura mediatiko bat gogoratzea nagusiki (Velte, 2016b); eta bestalde, hizlariak berak egindako denborazko erreferentziak aintzat hartuz, posible delako haren memorian iraun izana: Uribetxeberria 2012an irten zen espetxetik, baina 2015ean hil zenean komunikabideek ostera aipatu zuten haren kasua. Alexen elkarrizketa 2018ko azarokoa da, beraz, posible da “Josu” delakoaren kasua denbora gutxi lehenago izan zelako pertzepzioa edukitzea.

5.1.3. Abertzaleen gatazka

Bestalde, bada gatazka armatuaren memoriaren eraikuntzari eta hartan inplikatu daitezkeen sektore sozialei buruzko kezka bat gazteen artean. Izan ere, iraganaz hitz egiteko kezka horrek nagusiki komunitate abertzaleari eragiten diola sentitzen dute, aurreko belaunaldiei eragiteaz gain. Horrek aktoreen kategorizaziorako patroi bati ematen dio bide: iraganari buruzko interesa joera ideologiko jakin batzuekin lotzen duen iruditeria bat identifikatu ahal izan dugu gure elkarrizketen edukietan. Hainbat parte hartzailek, esaterako, elkarrizketatzailea abertzale gisara kategorizatu dute ikerketaren ildo nagusiaren berri izan dutenean; *Metodologia* atalean ere esplizitatu dugunez, honek hainbat erantzunetan eragin ahal izan duelakoan gaude.

Iruditeria horren ondorioz, memoriaren eraikuntzatik baztertuta sentitzen dira hainbat gazte. Sentipen hau bereziki esplizitatu dute ingurune ez-abertzaleetan hazitakoek:

1 (...) dago neska bat, nire laguna dela, eta ni nago egiten GRALa, ez ETAr
2 buruz, baizik eta prozesu — bakeari buruz edo memoriari buruz edo horrela.
3 Eta egiten dizkit komentario batzuk en plan: "Tú no tienes derecho a hacer
4 eso".
5 Zergatik?
6 Ba erdaraz ikasten dudalako, bueno, orain erdaraz ikasten dut. Edo ez
7 nagoelako, ba ez dakit, Ernain sartua, edo horrelako gauzengatik. Eta klasean
8 baña ditu komentario batzuk, ba bueno, irakasleei buruz edo, "Este es un
9 facha", delako, yo qué se, del PSOE. Edo horrelako gauzak.

Laura-21-Donostia

Laurak esperientzia propio baten berri ematen du, unibertsitatean sentitzen duen seinalamendua deskribatzen duenean. Kasu honetan, “euskaraz ikastea” eta “Ernain egotea” (6-7. lerroak) abertzaletasunaren analogia bihurtzen dira; hizlariak sentitzen du hirugarren aktore batek ez-abertzale gisara kategorizatzen duela, eta, hortaz, gatazkaren memoriari buruzko eremu diskurtsiboan parte hartzeko legitimitatea ukatzen zaiola.

Paradoxikoki, ingurune abertzaleetan edo gatazkarekin lotutako esperientzia larriak izan dituzten familietan hazitako gazteek ere ez dute legitimitaterik sentitzen memoriaren eraikuntzan parte hartzeko, hain zuzen ere euren komunitate ideologikoaren karga historikoagatik. Jarraian datorren pasarte, esaterako, senide presoak dauzkan gazte batek ekitaldi publiko batean egindako adierazpenetatik jaso dugu:

1 Guri dagokigu gure egia kontatzea. Erakutsi dugu ahazten ez duen herri bat garela, baina
2 indarra jarri beharko dugu, gertatu denarekiko atxikimendua garatzeko. (...) Zailtasunak
3 oso handiak dira. Inposatu diguten errelato hegemoniko horrek kalatu du, oso eskura
4 dugu, sare sozialen bitartez, Netflix, HBO, hedabideak... eta nik uste horregatik,
5 errelatoaren “beste zati hori” daukagunok, bizirik gauden bitartean, kontatu behar dugula,
6 bestela beste inork ez du kontatuko. Erraz esaten da, askotan ez da erraza: kuadrillakoa
7 izan daiteke, txikitako laguna, eta ez badute etxean edo kalean formatu, jaso duten errelato

8 hori asko urruntzen da nik bizi izan dudan errealitate horretatik. Lehenago galdetzen
9 didate kartzelako senideek zer egin duten, niri galdetu baino zer modu nagoen edo bidaiara
10 zer moduz. (...) Espazio seguruak behar ditugu gure esperientziak konpartitzeko, gure
11 errelatoa entzuteko prest daudenekin [partekatze]. Testu liburuetan “gu gara
12 hiltzaileak”, hori eraso faxista bat da. Eurek erabakitzen dute nor hartzten duen irabazle,
13 galtzaile, hiltzaile eta biktimaren paper hori.

Leire, Ernaiko militantea

[Iruñean 2021eko abenduaren 27an emandako hitzaldia]

Pasarte honetan, etsaitasunezko ingurune diskurtsibo baten pertzepzioa deskribatzen du Leirek: bere gurasoak espetxean egondakoak dira, eta horrek gatazkaren historiari buruzko eztabaidan bazterreko posizio batean kokatzen duela sentitzen du, zeinetan ez baituen “bere” esperientzia (pertsonala zein ingurune hurbilarena) entzunarazteko edo ulertarazteko aukerarik. Bere komunitateko diskurtsuak narratiba hegemonikoekiko lehian daudela sentitzen du, eta ez daukala haiek zigorrik gabe azaleratzeko biderik: horregatik eskatzen du “espazio seguru” bat (10. lerroa). Hegemonia diskurtsibo hori idatzizko eta ikus-entzunezko diskurtsuen bidez irudikatzen du. Internet, ikus-entzunezko plataformak eta testu liburuak zeharka parafraseatzen ditu diskurtsu horiek berreraikitze, 4. eta 11. lerroetan: haiei aitortzen die agentibitatea, hau da, egoera komunikatiboaren arauak ezartzeko ahalmena. “Kalatu” (barruraino sartu, blaitu) aditza (3. lerroa) pertsonen pentsamenduetan eragiteko gaitasun horren metafora da.

Diskurtsu boteretsu horien ondorioz delitugile edo biolentziaren eragile gisara kategorizatua sentitzen da hizlaria (11-12. lerroak), bere gurasoen esperientzien bidez. Halaber, Leirek ere identifikatzen du gatazkaren irakurketa biolento edo kriminalizatzaile baten nagusitasuna: adiskideek bere senideen delituez galdetzen diotenean, kontraesana sentitzen du bere esperientzia pertsonalarekin, zeina askoz lotuago baitagoen berak ahaide gisara bizi izan dituen esperientzia mingarriekin, kasu honetan “kartzelarako bidaiara” kontzeptuan kondentsatuta daudenak (9-10. lerroak), hartan inplikaturik dauden elementuak elipsatuz: jakintzat ematen du, foro zehatz horretan, espetxerako bidaiak sufrimendua dakartela senideentzat.

Hortaz, ondoriozta genezake markatze ideologikoak oztopo gisara operatzen duela gazteak gatazkari buruzko eztabaida sozial zabalean inplikatze orduan, baina ez dela joera ideologikoen arabera: gazte abertzaleek zein ez-abertzaleek sentitzen dute ez zaiela gatazkaren memoriaz hitz egiteko legitimitaterik ematen. Hortaz, planteatzen genezake legitimitate faltaren sentipenak zirikusi gehiago izan dezakeela elementu generazional batekin: joera politiko bateko zein besteko gazteek euren ahotsa entzunarazteko ahalegina egin behar dute gaur egungo testuinguru diskurtsiboan. Legitimitate falta honen pertzepzio eta adierazpenetan hirugarren azpialal analitikoan sakonduko dugu, hau da, 5.3. *Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak* kapituluan.

5.1.4. Tokiko gatazka

Atal honen hasieran eta, zehazki, *Gertakari gogoratuenak* azpialalean azaldu dugunez, hizlariaren ingurune fisiko hurbileko gertakariak prominentzia berezia hartzen dute gatazkaren historiari buruz eraikitzen dituzten diskurtsuetan. Hala, sarritan tokian tokiko

gertakariak xehetasun handiagoz ezagutzen dituzte historian inflexio puntutzat jo izan diren gertakari *larriagoak* baino.

Horretaz harago, ordea, behatu ahal izan dugu euskal gatazkaren kontzeptua bera ere erreferentzia geografiko moduan eraikitzen dela sarritan gazteen diskurtsoetan. Hau da: haren adierazpen biolentoari edo haren funts politikoari erreparatu beharrean, euskal gatazkaren ezaugarri nagusia Euskal Herrian gertatu izana dela nabarmentzen dute gisa honetako erantzunek.

1 *Euskal gatazka? Es que euskal gatazka hain da gauza bat zabala, es que ez*
2 *dakit. Baina bueno, euskal gatazka, ba ez dakit, egon zena sasoi batean igual*
3 *ETAgaz lotuta ere bai, edo, ez dakit, adibidez nazio mailako gerrak, baina*
4 *Euskal Herriak parte hartu zuenak. Adibidez, imajinatu, ja atzera joatea da,*
5 *baina Gerra Zibila edo frankismoaren osteko sasoi eta hori dena; ba hori bai*
6 *lotuko nuke. Zer, baina bertan pasa zena, ez beste naziotan.*

Udane-18-Markina-Xemein

Udanek zailtasunak ditu euskal gatazkaren kontzeptua zehazteko: “hain zabala” adjektibazioak (1. lerroa) gaiarekiko bere pertzepzioa irudikatzen du; neurtezina edo eskuragaitza den zerbaiten metafora da. Ostera, zehazten doa bere narratiba, eta euskal gatazka definitzeko irizpide nagusi gisara haren alderdi geografikoa hartzen du.

Eskema horren arabera, *Euskal Herria* deritzon eremu geografikoan gertatutako ia edozein gatazka jo daiteke euskal gatazkatzat. Horrek azalduko lituzke behatu ahal izan ditugun ezusteko zenbait patroi, esate baterako, *Karlismo* kontzeptuaren eta hari lotutako erreferentzien (*foruak, gerra karlistak, etab.*) prominentzia gazteen diskurtsoetan. Elementu hau espero gabeko aurkikuntza bat izan da gure ikerketan: euskal gatazkari buruzko lehenbiziko asoziazioen artean, gehien errepikatzen diren lehenbiziko hamar erreferentzien artean daude Karlismoa eta hari lotutako kontzeptuak. Are: galderaerantzunen sail honetan, sarriago jaso dugu Karlismoaren aipamena, Frankismoarena baino.

1 Zer da burura etortzen zaizun lehenbiziko gauza ‘euskal gatazka’ entzuten
2 duzunean?
3 *A ver, izan liteke gaur egungo - XXI. mendekoa, ETAre gaiari buruz. Baina*
4 *ni, nire, pertsonalki uste dut dela — niri burura etortzen zaidan beste gauza*
5 *bat izan liteke Karlistaldiak. Baina hori da beste gauza bat.*
6 Zuk lotura ikusten diezu?
7 *Bai.*
8 Zein zentzutan?
9 *Karlistaldiak izan zirelako — Karlistaldien garaian gertakari*
10 *garrantzitsuenak Euskal Herrian gertatu zirelako.*
11 Zein zen gatazkaren funtsa, edo zeren inguruan zen?
12 *Foruen inguruan izan liteke. Garai haietan euskaldunek nahi zutela foruak*
13 *mantendu.*

Dani-18-Bilbo

1 Zer da burura etortzen zaizun lehenbiziko gauza ‘euskal gatazka’ entzuten
2 duzunean?
3 *E... gerra karlistak. Hirugarren karlistak. Hirugarren karlistak, gehienbat*
4 *hori.*
5 Eta horiei buruz zer esango zenuke, zergatik kokatzen dituzu gatazkaren
6 sorburu bezala?
7 *Ba nik uste gehien erakusten digutena delako, eta gehienbat Historian hori*
8 *delako azpimarratzen dena, nik uste det. Bai, Euskal Herriari buruz.*

Josebak “familia arteko gatazka” gisara (10. lerroa) kontzeptualizatzen du euskal gatazka. “Hemen” tokiko deixi errepikatuak (1. eta 7. lerroan) interes antagonistikoko hainbat aktorek partekatzen duten eremu geografiko bati egiten dio erreferentzia: gatazkaren lurraldea da, kasu honetan, Euskal Herria, zentzu fisikoan. Josebaren narratiban, ez dira nabarmentzen gatazkaren alderdi ideologikoak edo ñabardura politikoak: lurralde edo eremu horretan bizi diren aktoreak parekatzen dira (sufirimenduan), eta klan edo tribuen eskema bati jarraika, kontrajarritako interes zehatz batzuk atxikitzen zaizkio *familia* (10. lerroan) bakoitzari. Era honetako narratibek gatazkaren funts politikoa ezkututzen dute diskurtsoan, hala nola, hartan inplikaturako talde edo aktoreen ardura zehatzak: familia arteko gatazkaren *frame*-arekin, biztanleria osoa barne hartzen duen eta norbanako zehatzez gaindi gertatzen den tragedia handi baten irudia eraikitzen da.

Bestalde, birritan enfatizatzen du “atzekoa atzean uztea eta aurrera jarraitzea” topikoa (4-7. lerroetan), *orrialdea pasatzearen* narratibarekin lotzen dena. Marko honetan, klan edo familien arteko gatazka historikoa ahaztu beharreko kontu pribatu baten gisara interpretatzen da, hizlariak bere testuinguru garaikidean aipatu nahi ez duena edo zabaldu nahi ez duen *liburua*.

5.1.5. ‘Gatazka’ terminoaren birsemantizazio kasuak

Data eta elementu zehatzak gorabehera, XX. mendean euskal independentismoaren bueltan gorpuztutako biolentzia politikoarekin lotu ohi da *euskal gatazka* terminoa. Iruditeria kolektiboan, *Gatazka* izen propio bat izan ohi zen, elementu horiek guztiok biltzen zituen azalpen gehiagoren beharrik gabe. Atal honetan behatu ahal izan dugunez, ordea, historiako etapa horri buruzko definizioak aski lausotzen dira belaunaldi berriek sortutako hainbat diskurtsotan; hau are nabarmenagoa da kontuan hartzen badugu elkarriketen gai zentrala 1960ko hamarkadatik aurrerako biolentzia politikoa izan dela. *Gatazka* terminoak jada ez dakar soilik arestian aipatu dugun arazo politikoaren eta haren adierazpen biolentoaren oihartzuna: gazteen diskurtsoetan, euren testuinguruan ere antzeman ditzaketen bestelako arazoekin parekatzen da sarritan *gatazka* terminoa.

1 *Igual ez da – o sea, uste dut mundu guztiak dakiela gatazka egon zela, baina*
2 *ni bezala, bagaudela oso desinformatuak, ez dakigula ezer, edo oso gutxi. Eta*
3 *hori, uste dut jendeak badaukala ideia bat, edo gatazkaren aurka edo alde edo,*
4 *baina ez da ideia sendoa, o sea, uste dut dela más porque me han contado.*

Haizea-17-Tafalla

Adibide honetan beha dezakegu *gatazka* terminoaren birsemantizazio bat, haren erabilera bitxitik inferi daitekeena: “gatazkaren alde edo kontra egotea”-k (3. lerroan) inplikaturako aktore edo bando batekin parekatzea dakar. Kasu honetan, Haizearentzat, ETaren estrategia armatuaren sinonimo da *gatazka*; horrek ahalbidetzen du haren alde edo aurka egotea.

Beste kasu batzuetan, alderantzizkoa behatu ahal izan dugu: horietan, *gatazka* urrundu egiten da ikergai dugun garai historiko zehatzetik eta hartan gertatutako biolentzia politikoetatik, eta, oster, gazteek euren testuinguru garaikidean identifika ditzaketen interes-gatazkei egiten die erreferentzia:

1 *Euskal gatazka, orokorrean? Pf. Ba... gauza asko. Pf. A ver, azkenean politika*
2 *partearen dauden – egon ahal diren arazoak, ba partido asko daudela; batzuk*
3 *borratzen direla, beste modu batean sortzen direla. Ba adibidez lehen EA zena*
4 *orain EH Bildu [da], eta horrelako gauzak... Gero, beste alde batetik, gatazka*
5 *modura azken urteetan egon dena, ETA izango zen, nik uste dut. Ba nik ez dut*
6 *bizi lehenengo pertsonan, zeren azkenean gaztetxo atrapatu nau, baina gauza*
7 *batzuk entzun ditut, irakurri ditut eta hitz egin dut jendeagaz. (...) azkenean*
8 *informatzen zara apur bat ba ze gatazka mota egon diren hor zentzuan. (...)*
9 *Gero bai, badaude gatazkak – azkenean, zer esango dizut? E, etorkinekin*
10 *pasatzen dena, ba arazoak daudela, gehienbat hemen Bilbo inguruan ikusten*
11 *dena. Diotsut, orain justu Bilbon bizi naizelako. Hor ikusten da, gehienbat*
12 *gaueko inguruan izaten dena; ba gauean juergan irten eta izaten direla*
13 *arazoak.*

Ekhi-21-Lekeitio

1 Esango zenuke gatazka bukatu dela?
2 *Hombre, gatazka beti egongo da, zeren azkenean gatazkarik gabe bizitzea, ez*
3 *dakit... gizartean beti egongo dira gatazkak. Badago jendea, ez dakit,*
4 *desahogatzeko-edo – azkenean jendea ez bada zoriontsu, gatazkarantz joango*
5 *da. Eta gizarteko jende dena, lanagatik edo lo que sea, ez da zoriontsu; orduan*
6 *beti egongo da gatazka. Jende dena egon beharko zen zoriontsu gatazkarik ez*
7 *egoteko.*

Joseba-20-Bilbo

Bi adibideotan, *gatazka* terminoak ez dio soilik erreferentzia egiten iraganean ETAk erabilitako estrategia armatuari eta haren inguruko faktoreei; horren aurretik, egungo talka politikoeekin lotzen du Ekhi terminoa. Josebak, aldiz, eremu parlamentario edo instituzionalekin kanpoko elkarbizitza arazoekin parekatzen du *gatazka* terminoa, eta definizio naturalizatzaile bat eskaintzen du harentzat: “Gizartean beti egongo dira gatazkak” (3. lerroa) perpausak probabilitatezko modalitate epistemiko bati erantzuten dio, hizlariarentzat erabat segurua delako gatazken iraupena, hura norbanakoen zoriontasunarekin edo beharrekin lotzen duelako. Hortaz, Josebak *gatazka* kontzeptuaz eraikitzen duen eskema urrundu egiten da mintzagai dugun arazo politiko eta armatu zehatz eta kokatutik, eta gizakien elkarbizitzan iraunkorra den interesen arteko talka edo dialektika (zentzu hegeliarioan) gisara kontzeptualizatzen da, gazteek euren testuinguru garaikidean identifika dezaketena. Narratiba naturalizatzaile baten aurrean geundeke, beraz.

Finean, karga semantiko handia izan ohi duen termino baten birsemantizazioaren atzean prozesu identitario-diskurtsibo bat identifikatu ahal izan dugu: *gatazka* birdefinituz, gertakari historikoekiko distantzia hartu eta euren testuingurura hurbiltzen dituzte gazteek. Horregatik, *gatazkaz* mintzo direnean geroz eta gutxiagotan ari dira iraganeko *gatazka* politiko eta armatuaz, eta geroz eta gehiagotan, euren eguneroko bizitzako bestelako arazoei buruz.

Bestalde, behatu ahal izan dugu *gatazka* kontzeptua, kasu askotan, ezaugarri negatiboei lotzen zaiela, eta arazo bati parekatzen zaiola. *Gatazka* bat elementu problematiko gisara pertzibitzeak hura saihestea ekar dezake, eta, hurrengo atalean xeheago azalduko dugunez, hori da hainbat familiatan eta oro har hezkuntzan gertatzen ari dena: *gatazka* ideologikoa arazo gisara hautematen denez, hura tematizatzea saihesten da, transmisioari eta *gatazken* konponketarako kulturari bidea itxiz.

5.1.6. Atalaren ondorioak

Atal honetan, tesiaren hasieran planteatutako lehenbiziko ikerketa-galderari erantzun nahi izan diogu: “Zeintzuk dira gazteek euskal gatazkari buruz eraikitzen dituzten marko diskurtsibo nagusiak?”. Helburua gazteek euren kabuz eraikitako eredu kognitibo edo eskema interpretatibo nagusiak identifikatzea izan da, gero horien terminoetan azaldu ahalko baititugu tesi honen gainerako ikerketa-helburuetarako aztertutako aspektu zehatzagoak.

Lau ardatzen arabera eraikitako markoak identifikatu ahal izan ditugu, euren prominentziaren hurrenkeran: biolentziaren jatorriaren arabera; denboraren arabera; ideologia politikoaren arabera; eta lurraldetasunaren arabera. Hauek ez dira bateraezinak: aitzitik, sarritan gurutzatzen dira.

Gehien errepikatu den patroia, alde handiarekin, gatazka biolentoaren marko edo terrorismoaren *frame*-a izan da. Marko hori eraiki duten hizlariak inplikaturako aktoreak nagusiki euren jarduera biolentoagatik edo alderdi militaragatik definitu dituzte, eta biktimak sufritutako kalte fisikoaren arabera sailkatzen dituzte.

Marko honetan gehien nabarmentzen den kontzeptua ETA da. Hari biolentziarekin zerikusia duten ekintzak atxiki dizkiote gehienbat, batez ere giza bizitzen galerak inplikatzen dituztenak. Nolanahi ere, hizlariaren posizio ideologikoaren araberrako bi marko kontrajarri identifikatu ahal izan ditugu ETAREN karakterizazioan. Tentsio hau *talde terrorista vs. erakunde armatua* dikotomiaren bidez laburbildu daiteke. Lehenbiziko deskribapena ugariagoa izan da eta oro har aktorearen aurkezpen negatiboei lotuta joan da, esaterako, haren jarduera armatu eta biolentoaren aipamenei; bigarrenari, aldiz, ETAREN motibazio politikoei buruzko aipamen gehiago atxiki zaizkio. Dena den, kategoria hauek ez dira zurrunik: “erakunde terrorista” bezalako deskribapen hibridoak ere identifikatu ditugu. Horietan, hainbat esfera diskurtsiboren arteko elkarreragina identifika daiteke, baita *terrorismo* terminoaren orokortze edo naturalizazio bat ere, Estatuaren aurkako biolentziari buruzko diskurtso globalagoekin lotu daitekeena.

Gatazkaren alderdi biolentoa soilik (edo batik bat) aintzat hartzen duen irakurketa honi lotuta, ulertezintasunaren edo absurdoaren narratiba bat ere identifikatu ahal izan dugu, batez ere politikari buruz gutxien hitz egiten den inguruneetako gazteen artean. ETARI edo biolentzian inplikaturako aktoreei ezin badiete izaera politikorik edo motibazio arrazionalik aitortu, gazteek zailtasunak dituzte haren jokabideak ulertzeko eta koherentziazko testuinguru batean kokatzeko. Puntu honetan hutsune nabarmen bat antzeman daiteke gaiari buruzko euren konpetentzia komunikatiboan, ziurrenik aktore honen inguruko demonizazioarekin eta tabuarekin zerikusia daukana. Ondorioz, parte hartzaile guztientzat da ETA elementu zentrala, baina gero zailtasunak dituzte hura xeheki deskribatzeko.

Gainerako aktoreen artetik ere, nagusiki euren jarduera armatuagatik ezagun direnak nabarmentzen dira: Guardia Zibila eta GAL, batik bat. Guardia Zibilar buruz hurbileko esperientziak dituzten gazteak mintzatu dira batez ere, baina oro har termino emozionaletan; haiek ere zailtasunak izan dituzte polizia horren funtzioa edo rol historikoa deskribatzeko. Ondorioz, pentsa genezake kasu askotan emozioak transmititu direla ezagutza zehatzak transmititu gabe ere.

Paradoxikoki, GAL gehiagotan eta xehekiago deskribatu dute gazteek, denboran eta esperientzian urrunago egon arren. Gure hipotesia da ikus-entzunezkoek eta testu liburuek oinarri diskurtsibo sendoagoa eskaintzen dietela aktore horri buruz mintzatzerakoan. Guardia Zibilarekiko harremana gaurkotasunezko arazo soziala izanik, ez dago hari buruzko diskurtso publiko kontsentsuaturik, eta horrek eremu diskurtsibo *labainagoa* bihurtzen du. Sarritan, gazteek fidagarritasun handiagoa aitortzen diete diskurtso publikoei, euren etxeko edo ingurune sozial hurbilekoei baino; hau bereziki nabarmena da diskurtso pribatuek publikoagoekin talka egiten dutela hautematen dutenean. Horrek euskarrion garrantziaz hausnartzera eramán beharko gintuzke.

Hurbiltasun geografikoa aldagai esanguratsua izan da gehien gogoratzen edo aipatzen diren aktore eta gertakarien prominentziarako, batez ere indar armatuei atxikitako gertakarien kasuan: horien transmisioa zirkulu pribatuenetan gauzatzen da, familian edo herrian; aldiz, ETARI atxikitako ekintzen kasuan, gehien eta xeheen erreproduzitzen diren gertakariak sarritan denboran edo espazioan urrun geratzen diren gertakari oso mediatikoak izan ohi dira. Ondorioz, honakoa baieztatu dezakegu: kontsentsu soziala zenbat eta handiagoa izan, eta hura zenbat eta publikoagoa izan edo finkatuago egon euskarri legitimatuetan (ikus-entzunezkoetan edo hezkuntzan, adibidez), orduan eta handiagoa da ezagutzaren transmisioa, eremu diskurtsibo *baimendua* handiagoa delako.

Gatazkaren protagonistatzat dituzten figurez galdetuta ere, oro har haren alderdi militarri lotutako izenak agertu dira gazteon diskurtsoetan; guztiak ere gizonezkoenak. Emakume militanteak ingurune hurbileko pertsonaia gisara agertu dira, ez figura publiko moduan; hala enmarkatu duten bakarra Dolores González Katarain *Yoyes* izan da, eta oro har bere hilketa nabarmendu dute, militante gisa bainoago biktima gisara kategorizatuz.

Gatazka biolentoaren *frame*-ari kontrajarrita, askoz minoritarioagoak izan dira gatazka politikoaren edota identitarioaren narratibak. Biolentzia ondorio ikusgarri gisara duten gatazken *azpiko geruza* politiko, kultural eta egiturazkoen konplexutasunari erreparatzen dioten narratiben falta sumatu dugu gure ikerketan. Bigarren marko hau agertu denean, beti marko biolentoarekin batera agertu da, sekula ez hura ordezkaturik. Bi marko hauen koexistentziak kontraesana eragiten die gazteei, eta hura ebazteko irtenbide gisara, *bi aurpegiko aktorearen* narratiba bat atxikitzen diote ETARI. Egitura kognitibo hau lotuta dago gatazkaz beraz eraikitzen duten beste *frame* batekin: bi faseko narratibarekin, hain zuzen ere. Izan ere, gatazkaren denborazkotasunari dagokionez, argiki antzeman daiteke patroia bat gazteon diskurtsoetan: haren arabera, ETAREN biolentzia legitimatuago zegoen frankismoan, eta deslegitimatuago Trantsizioaren ondoren. Hau, aldi berean, bat dator terrorismoari buruzko diskurtso garaikideekin.

Oro har, norberaren posizio garaikidetik eraikitzen dira iraganari buruzko narratibak. Zentzu horretan, euskal gatazka, gazte gehientzat, iraganeko gatazka bat da batik bat: hizlariak diskurtsoaren bidez islatzen duten distantziamendua identifikatzea garrantzitsua izan da belaunaldi honek iraganarekiko duen harremana ezagutzeko, izan ere, distantzia hori aintzat hartuta aztertuko ditugu haien posizionamenduak eta identitatearen eraikuntza diskurtsiboak kapitulu honen amaieran.

Bestalde, memoriazko politikak diseinatzerakoan, garrantzitsua da honako behaketa kontuan hartzea: belaunaldi helduagoentzat oso hurbilekoak eman dezaketen gertakari asko, gazteontzat, historiako beste edozein gertakari bezain urrun egon daitezke, euren

bizialdian esperimentatu ez badituzte. Euren esperientzia nagusiki alderdi sinboliko eta emozionalera mugatu da, alderdi materialera baino gehiago: emozio eta aurreiritziak identifikatzeko gai dira, arazo sozial, legislatibo edo politiko konkretuak bainoago.

Halaber, hizlariaren edo oroitzen duenaren subjektibitatearen garrantzia agerian geratu da gazteok iraganari buruz eraikitzen dituzten narratibetan. Sarritan, ebaluazio moralak gailendu dira definizio eta datuen gainetik; honek pentsarazten digu *biolentziaren gaitzespenaren* exijentzia sozialak gaiari buruz mintzatzeko gutxieneko moral gisara operatzen jarraitzen duela gazteongan; gaitzesteko exijitzen zaien biolentzia mota euren bizialdian ezagutu ez duten arren, zuzenean edo zeharka, gehienek egituratzen dute diskurtsoa exijentzia horren gainean.

Nagusiki iraganean kokatzen duten gatazka izateak ez du esan nahi, baina, gatazka amaitutzat jotzen dutenik. Tentsio hau batez ere desarmeari buruzko narratibetan antzeman daiteke. Hartan, galera militarren narratiba eta denboraren poderiozko ahitzearen narratiba naturalizatailea identifikatu ahal izan ditugu. Bake inizatibei buruzko ezezagutza orokorra izan da.

Presoak ere, oro har, figura ezezaguna eta sinbolikoa dira gazteontzat. Horrek dakar *preso* kategoriari buruzko eredu mental hiperboliko eta deshumanizataile bat orokortzea: hartan, preso bere delituagatik definitzen da, *hiltzaile / ez hiltzaile* terminoetan, eta haren alderdi humanoagoak ikusezin geratzen dira.

Hirugarren narratiba batek euskal gatazka batik bat abertzaleei ardura zaien gatazka gisara kontestualizatzen du; markatze politikoa eskusioarekin lotzen da. Esanguratsua da, halaber, joera ideologiko anitzetako gazteak, baita abertzaleak ere, sentitzen direla memoriaren eraikuntza prozesutik kanporatuta.

Azkenik, euskal gatazka sinpleki lurralde geografiko bati atxikitako gatazka gisara ikusten duen narratiba bat identifikatu ahal izan dugu: senide arteko gatazkaren narratiba. Irakurketa despolitizatuena da hau, oinarrian dauden arrazoi ideologikoei ez dielako erreparatzen. Ez da kasualitatea irakurketa hauek batik bat ingurunean politikari buruz hitz egitera ohituta ez dauden gazteen partetik iritsi izana; askok testu liburuetan oinarritutako ezagutzak egokitu dituzte *euskal gatazka*-ri buruzko diskurtsoak eraikitzeko.

Behaketa hauek gezurtatu egiten dute transmisio faltaren diskurtsoa. Transmisio-politika kontsentsuaturik ez izateak ez du esan nahi ezer transmititzen ez denik. Oro har, gizarteko diskurtso nagusien pertzepzio handia antzeman daiteke gazteen artean, eta hau bi modutara islatzen da diskurtsoan: haiek inkontzienteki erreproduzituta edo haiei erantzunda. Gazteek eskura duten errepertorio komunikatiboak eragin nabarmena du eraikitzen dituzten marko orokorretan; eta, hauek, aldi berean, iraganeko gertakariei buruz egiten dituzten interpretazioetan eta haiekiko hartzen dituzten jarrera pertsonal zein kolektiboetan. Hortaz, planifikatutako transmisio politika baten faltak hain zuzen ere diskurtso dominatzaile horien nagusitasuna elikatzen duela planteatzen genezake.

5.2. GAZTEEN INFORMAZIO ITURRIAK

Sortzen ditugun diskurtsoak testuinguru sozial desberdinetan betetzen ditugun posizio sozialen arabera direla aintzat hartzen badugu, uneoro kontuan izan behar genuke

batzuk zein besteak aldakorrak eta unean uneko testuinguru diskurtsiboaren menpekoak direla. Astrid Erll-ek dioenez,

“pertsona bakoitza hainbat talde sozialetako kide da – ez soilik familia batekoa, baizik eta baita, adibidez, herri batekoa, mugimendu politiko batekoa, futbolzale talde batekoa edo eskolako gela batekoa. Pertsona bakoitzak, hortaz, taldearekiko espezifikoak diren esperientzia eta pentsamendu-sistema anitzek osatutako errepertorio bat du eskura”. (2011, pp. 305–306)

Norbanako bakoitzaren memoriaren indibidualtasuna, hain zuzen ere, talde horiekiko kidesunaren ondoriozko “memoriazko marko sozialen konbinazioan” datza (Ibid.). Horregatik, gazteek euskal gatazkari buruz eraikitzen dituzten makro-narratiben eta euren posizionamendu pertsonalaren artean mediatzen duen erdibideko maila diskurtsibo bat ezagutu beharra daukagu: euren inguruko esfera sozial anitzetatik jasotzen dituzten narratibek osatutako mapa diskurtsiboa. Horretarako, gazteen sozializazio politikoan eragin ohi duten lau esfera sozial nagusiei buruz eskaini dizkiguten deskribapenak eta haietan pertzibitzen dituzten diskurtso nagusiak aztertuko ditugu: hezkuntza, familia, testuinguru sozial hurbila eta eremu diskurtsibo publikoa.

Memoria esanahien eraikuntza aktibo gisara ikusten duen hurbilketari jarraika, bereziki baliagarria zaigu *errepertorioaren* metafora, gazteen testuinguru diskurtsiboa baliabide linguistikoen menu baten gisan ulertzeko. Memoriaren eraikuntzak haietako esanahien aukeraketa eta hierarkizazio aktibo bat eskatzen du ostera.

Datu hauek aztertzerakoan, uneoro gogoan izan behar dugu gazteek euren kabuz identifikatutako edo modu esplizitu samarrean seinalatutako iturriei buruz ari garela: hortaz, iturrien eraginaren *pertzepzioa* neur dezakegu. Iturriok gazteon diskurtsoetan daukaten eragin erreala neurtzea zailagoa da, eta diskurtsoaren analisitik behin-behineko hurbilpen bat baino ezin dezakegu egin. Komunikabideetako diskurtsoen eragin sozialaren kasuan, bereziki zaila da bereiztea zer den hartzaileak kontzienteki identifikatzen duena eta zerk osatzen duen sozialki partekatua den “lurralde komuna” (Van Dijk, 2003, p. 86), talde sozialeko kideentzat ikasketa errotua eta normalizatua dena eta ondorioz sarritan kontzienteki hautematen ez dutena. Arazo bera antzematen dugu iruditeria sozialekin: jakin badakigu *giroko ezagutza sozial* baten parte direla eta hura moldatuz subjektuen pentsaeretan eta jokabideetan ere eragiten dutela (Jäger, 2004, p. 337), baina hain zuzen ere hizlariak hain barneratuta dituztenez, sarritan ez dituzte aintzat hartzen (Gumperz, 1982, p. 132).


Hortaz, ezin diogu soilik erreparatu parte hartzaileek galdera esplizitu bati emandako erantzunetan ageri diren informazio iturriei, hauek oro har euren pertzepzio kontzientearekin dutelako lotura, eta ziurrenik memoriaren *transmisio* kontzeptuari buruz ikasitako hainbat eskema erreproduzitzen dituztelako. Beste era batera esanda: euren memoria kolektiboa osatzen duten ezagutzak nondik jaso ohi dituzten galdetuta, gazte askok transmisioari buruz eraikita daukaten eredu mentalari jarraitzen diote, eta familiarren testuinguruan kokatzen dira automatikoki, memoriaren transmisioa ahoz aho eta familiarren gauzatzen den ezagutzen partekatzearekin berdintzen dutenez gero.

Jakin badakigu, ordea, memoriaren transmisioak familia-giroan iraunarazten diren diskurtso autodefinitzaile positiboak baino gehiago barne biltzen duela, eta hainbat eremu

edo esfera sozialetako diskurtsoek eragiten dutela norbanakoen oroitze-prozesuetan. Hortaz, nola inferi dezakegu subjektuak kontzienteki hautematen ez dituen diskurtso publiko eta partekatuen eragina? Diskurtsoaren Analsiaren bidez, gazteon ahozko narratibetan espontaneoki azaleratzen den interdiskurtsibitatea azter dezakegu; besteak beste, zeharkako erreferentzia eta aipu inplizituak, topikoen erabilera errepikatuak, orokortutako mintzamoldeak eta hizlariaren posizionamenduarekin talka egiten duten termino eta adierazpideak. Hauek guztiek hizlariaren narratibetan eragiten duten kanpoko diskurtsoen presentzia iradokitzen digute, hark beti kontzienteki hautematen ez dituen arren. Nolanahi ere, arlo honetan hipotesiak baino ezin ditugu planteatu. Horregatik, datozen orriotan gazteek euren ingurune diskurtsiboaz duten pertzepzioaz arituko gara hertsiki, eta etorkizunean bestelako metodo zientifikoen bidez frogatzeko moduko galderak planteatuko ditugu.

5.2.1. Iturri ohikoenak

Analisiaren lehen atalean aztertu dugu ikergai ditugun gazteek nola kontzeptualizatzen duten euskal gatazka, hari buruzko diskurtsoak kokatzeko eraikitzen dituzten marko interpretatiboetan oinarrituta. Marko horien analisiak hainbat hipotesi indartu ditu, besteak beste, diskurtso publikoek eragin handia dutela gazteen besignifikazio prozesuetan. Atal honetan, eragin hauek zehatzago aztertuko ditugu, horrek lagunduko digulako gazteon testuinguru diskurtsibo eta sozialaren mapa bat osatzen, eta ondoren subjektu gisara bertan nola kokatzen diren aztertzen; kapitulu honen 3. eta 4. ataletan helduko diogu gai horri.



14. irudia: Gazteen informazio iturri ohikoenak.

Euskal gatazkari buruz gehienbat nondik ikasi duten galdetuta, erantzunen ia heren batean *familia* eta harekin asoziatutako kontzeptuak (etxea, gurasoak...) aipatu dituzte gazteek, eta beste hainbestetan, izaera mediatikoko diskurtsoak: *Komunikabideak* eta *Internet* kategoriek erantzunen %29 biltzen dituzte gure datuetan. Kasu honetan, *Internet*-ek


gazteek sarean egiten dituzten informazio-bilaketa aktiboei egiten die erreferentzia (Google, YouTube eta antzeko bilatzaileetan); horien bidez batik bat masa komunikabideetan eta bokazio antzekoko hedapen-plataformetan argitaratutako edukietara heltzen direnez, gure analisirako *Komunikabideak* kategorian txertatu eta sare sozialetako diskurtsoetatik bereizi ditugu, azken hauek erabiltzaileek sortutako eduki pribatu eta pertsonalagoak izanik. Azken hauen aipamenak oso minoritarioak (%3,50) izan dira, eta, beraz, *Ingurune soziala* kategorian pilatu ditugu, *Lagunak* eta *Kalea* kontzeptuekin lotutako aipamenekin batera. Gazteon testuinguru sozial hurbil honek gehien aipatutako iturrien %22,8 hartu du.

Ikastetxea, aldiz, ez dute informazio iturri nagusitzat jotzen: gazteen %12k soilik aipatu du euren lehen informazio-kanal gisara. Aipamen minoritarioagoak ere jaso ditugu, besteak beste, militantzia politikoaren bidez informatzen diren gazteen partetik (%5,3) eta gatazkari buruzko ezagutzak nagusiki liburu, film eta antzeko kultur produktuetatik jaso dituztenen partetik (%3,5). Azken kategorian hau bereizi egin dugu ildo editorial zehatza duten edo informaziozko lerroa lantzen duten komunikabide konbentzionaletatik, baina, ikertzailearen fokuari arabera, sar liteke komunikabideen eta Interneteko bilaketen sail berean, guztiak publikoki eskuragarriak diren diskurtsoak direnez gero.

Ondorio hauek nahikoa bat datoz Uson González et. al-ek (2017, p. 13) 2016an unibertsitateko ikasleekin egindako ikerketa kuantitatibotik ateratako ondorioekin; hartan ere, gazteek adierazi zuten nagusiki hedabideen eta familiaren bidez jasotzen zutela “terrorismoaren eta Giza eskubideen urraketen” berri; hau da, diskurtso oso publiko eta oso pribatuen bidez. Hezkuntza arautua iturri ohikoaren bosgarren tokian baino ez zen ageri, sare sozial fisiko zein birtualen ondoren. Aipatutako ikerketaren egileek *Internet* azken kategorian honetan sartu zuten, eta horrek eragin du gure datuekiko desberdintasun handiena.

Egoeraren irudi zehatzagoa izateko, baina, gure parte hartzaileen jatorri eta ingurune sozialeko politizazio-mailari buruzko datuekin gurutzatu ditugu emaitzok. Behatu ahal izan dugunez, ingurunearen politizazio mailak eta, bereziki, familia hurbilean politikari buruz hitz egiteko ohiturak eragin nabarmena dauka gazteok eskuratzen dituzten baliabide diskurtsiboetan. Ingurune politizatueta hazitako gazteentzat, familia izan da euskal gatazkari buruzko ezagutzak eskuratzeko lehenbiziko transmisio eremua; ingurune ez politizatueta gazteentzat, aldiz, azken bigarren aukera da. Azken hauentzat, lagunen partetik jasotako azalpenak edo testuinguru sozial hurbilean behatutakoak (tartean, kaleko margoketak edo herri eta auzoan nagusitzat pertzibitutako diskurtsoak) dira gatazkari buruzko informazio iturri nagusiak. Hezkuntzak eta komunikabideek ere eragin handiagoa dute (edo, zehatzago esanda, hala pertzibituak dira) gazte hauen kasuan.

Azkenik, nabarmentzekoa da ingurune politizatueta datozen gazteak direla, oro har, informazioa militantzia politikoaren bidez jasotzen dutenak edo gaiari buruzko kultur produktuak kontsumitzen dituztenak, bi kategoriotako aipamenik ez baitugu jaso ingurune ez politizatueta gazteen artean. Hauek, aldiz, Interneteko sare sozialak aipatu dituzte iturri gisara, minoritarioki bada ere. Ñabardura gisara, ingurune politizatueta gazteen partetik euren iturriei buruzko azalpen xeheagoak jaso ditugu, oro har aipamen gehiagorekin (31). Ez politizatueta kasuan, iturri ohikoenei buruzko 25 aipamen jaso ditugu, eta horrek ere eragin dezake grafikoko datuen arteko aldea.



15. irudia: Gazteen iturri ohikoenak, politizazio mailaren arabera.

Datuok ez dute balio estatistiko orokortzailerik, oinarritzat hartzen den corpusa txikiegia delako. Nolanahi ere, etorkizunean metodo kuantitatiboen bidez berrestea mereziko lukeen norabide bat iradokitzen dute, aztergai dugun talde sozialaren barruan. Hortaz, tesi honetatik planteatu genezake honako hipotesia: familian politikaz hitz egiteko ohiturarik ez duten gazteek, oro, har diskurtso publikoetara jotzen dute gaiari buruzko informazio bila.

Interneteko informazio bilaketa autonomoak, aldiz, pareko neurrietan aipatu dira bi taldeetan, eta sarritan iturri nagusitik heldutako datuen haritik abiatzen dute gazteok arakatze hau:

- 1 Nondik esango zenuke ikasi duzula gehien euskal gatazkari buruz?
- 2 *Es que ikasi, ... ps. Zer da ikasi? Ez dakit ba. Nik esango nizuke, pf, apur bat*
- 3 *hasten zarela enteratzen Euskal Herrian zer pasa den, ba Historiako*
- 4 *klaseetan, irakasleak komentatu dizunaren arabera. Gero lagunekin ahal*
- 5 *duzuna komentatu; da informazio pixka bat bilatu Interneta erabilia edo sare*
- 6 *sozialetan ailegatu zaizun zer edo zer hartu. Eta azkenean familian egiten duzu*
- 7 *berba horri buruz. Azkenean, beti nik uste dut familian dagoela beti eskumako*
- 8 *partea eta ezkerreko partea izaten dena, eta bakoitzak bere ideiak mahaian,*
- 9 *ba bazkarietan-edo ahal du esponitu, eta horren arabera konturatzen zara*
- 10 *jendea ideológicamente ba alde batera edo bestera doala. Eta nik esango*
- 11 *nizuke ba apur bat horren guztiaren mix bat edo izan daitekeela egiten dizuna*
- 12 *konturatzea apur bat zer pasa den.*

Ekhi-21-Lekeitio

Ekhiren narrazioak ilustratzen duenez, iraganarekiko ezagutzara informazio bilaketa aktibo baten bidez iristeko, katalizatzaile edo interesa pizten dien gertakariren bat behar izaten dute gazteek. Kasu batzuetan, Ekhirenean bezala, ikastetxean izaten dute gaiarekiko lehen harremana, baina hark gutxitan asetzen du euren jakin-mina. Hezkuntza araututik jasotako *input*-a oso aldakorra dela argudiatu dute gazte gehienek, edo, Ekhi-

formulatzen duen moduan, irakasle zehatzen borondate eta interesen arabera izaten da gehienetan (4. lerroa).

Horren osteko lehen bilaketa aktiboak gazteek euren kabuz Interneten egiten dituztenak izan ohi dira, edota lagun arteko giroan; adinkideen artean posizio parekotasunak gaiaz hitz egiteko konfiantza ematen die. Familia informazio bilaketaren azken eremua da maiz, batez ere familia zabala: belaunaldi arteko aldeak eragindako legitimitate faltaz eta lotsaz gain, hura desadostasun politiko handiagoko eremu gisara ikusten dute gazte askok, eta gatazkak saihestarren gaia bera ere saihesten dela pertzibitzen dute. Hortaz, uste dute familian talka handiagoak gerta daitezkeela lagun artean baino: Ekhiren narratiban, *mahaia* (8. lerroa) sinboloak familiako harreman komunikatiboen sinekdoke modura operatzen du.

Datozen ataletan xeheago aztertuko dugu eremu hauetako bakoitza, gazteok pertzibitzen dituzten errepertorio diskurtsiboen mapa bat osatu eta, hartara, euren testuinguru diskurtsiboari buruzko ondorio batzuk formulatu ahal izateko.

5.2.2. Hezkuntza arautua

Gazte eta nerabeei zuzendutako memoriaren transmisio politiketan pentsatzerakoan, hezkuntza arautuko esku hartzeak ekarri ohi dira eztabaidaren lehen lerroa. Ikastetxeetako curriculumek diskurtso boteretsuak barnebiltzen dituzte, hainbat arrazoiengatik: alde batetik, eremu politikoan sozializatzen hasi berriak diren gazteei (Reidy et al., 2015, p. 13) helduleku kognitibo sendoak eskaintzen dizkietelako; bestetik, testu liburuetao edukien derrigorrezkotasunak diskurtso normatiboen kategorian sartzen dituelako. Testu liburuek errealitate konplexu eta poliedrikoak modu eskematiko eta didaktikoan sintetizatu ohi dituzte, oro har positiboki edo negatiboki ebaluatuko den azterketa baterako prestakuntza gisara.

Gazteengana modu masiboan iristeko kanala da hezkuntza arautua, horretan ez da zalantzarik. Eta, beraz, ulertzekoa da eskola curriculumeko edukiak ere eremu diskurtsibo disputatu bihurtzea, bertan ere idazten baitira historiari buruzko *egiak*, komunikabideen eta Justiziaren eremuetan bezainbeste. Komunitatearen autodefinizioaren inguruko lehiaren barruko jokalaritzat har daitezke testu liburuak, identitate kolektiboen eraikuntzarako tresna bat direnez gero: hartan, ahalik eta modu positiboenean erretratatzeko da liburuak interpelatzen duten komunitate ideal bat.

Diskurtso hegemoniko izateko bokazio hau agian argien ageri dakiguke Historia eta Geografia ikasgaietan: haietan, aise galde genezake nor den irakasten den *Historiaren* subjektua, edo non kokatzen diren erreferentzia gisa hartzen diren muga geografikoak. Baina curriculumeko gainerako adierazpen diskurtsiboetan ere azter genitzake hartan inplikaturik dauden dimentsio ideologikoak; esate baterako, nongo literatura eta zein hizkuntzetakoa irakasten den, zientziaren historian noren lorpenak nabarmentzen diren, eta abar. Aski aztertutako izan dira, esaterako, gutxiengo etnikoek hezkuntzako edukietan sufritzen duten errepresentatibitate eskas edo hutsa (Morales & Lischinsky, 2008); ildo beretik, planteatu genezake zein neurritan uzten diren testu liburuetatik kanpo nazioaren autodefinizioa kuestionatzen duten planteamendu politiko eta sozialak. Bidean dira, esate baterako, Hego Euskal Herriko testu liburuetao erreferentzia geografiko eta politikoei buruzko ikerketak (Fernández Iriondo, 2022), haiek neurri handi batean nazio espainiar baten markoa eraikitzen dutela argudiatzen dutenak.

Historiako gatazken bilakaeraz hezkuntza arautuan eraikitzen diren narratibek ere eraikuntza horretan eragiten dute, eta gizarteko dinamika identitarioek bertan ere izan ohi dute euren adierazpena. Iraganeko gertakarien ezagutzak gaurkotasunaren argipean erakusten dira, gehienetan eskolatik harago doan helburu pedagogiko batekin. Horregatik, Galtungen Gatazken Teorian oinarritutako *Bakerako Hezkuntzak* “biolentziarako alternatibak sustatzen dituzten alternatibak garatzen laguntzea” du helburu, baina ahotsen pluraltasunean oinarrituta eta ikasgelan azaleratzen diren kontraste sozialak ikusarazita:

“Bakerako hezkuntza ez da abiatuko kategoria abstraktuetatik, baizik eta pertsonen beharretatik, euren espresio propioetan gorpuztuta. Edukia gai anitzen laburpen gisara ulertzen duen kontzeptualizazio tradizionalaren orde, mikro-errealitatearen azterketa egitea da: arazoak aukeratu, makro-arekin loturak bilatu eta haien arteko elkarrizketa sortu” (Cabezudo & Haavelsrud, 2007, p. 288).

Ikergai dugun testuinguru eta epean, oso gutxi ziren euskal gatazka armatuaren historia hurbilari buruzko eduki testualak hezkuntza arautuan. Tesi honen helburuetarako bisitatu ditugun bost ikastetxeetatik hirutan erakutsi edo deskribatu dizkigute irakasleek gaiari buruzko nolabaiteko aipamenak biltzen zituzten materialak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), Gizarte Zientziak eta Euskara ikasgaietako testuliburuetan ageri ziren; Batxilergoan, aldiz, Historian, Frankismoaren amaierarekin batera. Batean zein bestean, aipamen ia anekdotikoak ziren, bi orrialde baino gehiagoko hedadurarik ez zutenak. Eusko Jaurlaritzak 2018an sortutako *Herenegun* unitate didaktikoak hutsune hori betetzeko bokazioa zuen: hura zatekeen gaiari propio eskainitako lehenbiziko unitate didaktikoa. Nolanahi ere, edukiei buruzko eztabaida parlamentarioek haren inplementazioa geldiarazi zuten, eta ikerketa honek iraun duen bost urteotan ez da pilotu fasetik harago heldu (Radio Bilbao, 2022).

Nola edo hala, gaiari buruz tesi honekiko modu paraleloan egin ditugun ikerketek erakutsi dute testu liburuek, oro har, euren erabiltzaileei aurreuposatzen zitzaizen joera ideologikoetara egokitutako diskurtsoak sustatzen zituztela, autodefinizio positiboa elikatuz (Velte, 2019b) eta baketze negatiboaren ideari eutsiz (Velte, 2019a, p. 71).

Atal honetan, elkarrizketatu ditugun gazteek euren ikastetxea eta bertan gauzatzen diren interakzioak nola pertzibitzen dituzten deskribatu asmo dugu, betiere euskal gatazkaren historia erreferentzia puntutzat hartuta. Ikerketa honetarako, ez ditugu aldagai gisara hartu ikastetxeen ezaugarriak (publikoak, kontzertatuak edo pribatuak izatea; eta, azken bien artean, laikoak edo erlijiosoak), lagina murriztegia iruditu zaigulako ondorio erabakigarrikerik ateratzeko. Nolanahi ere, elkarrizketetan behatu ahal izan ditugun alde sotil batzuek iradokitzen dute etorkizunean ikertzeko ildo interesgarri bat izan daitezkeela ikastetxe motaren araberako lanketa zehatzak.

Oro har, euskal gatazka ikasgeletan present ez dagoen gai bat dela baieztatu digute hezkuntza arautuko komunitateko kideek, bai elkarrizketatutako ikasleek eta baita elkarrizketa informalagoetan datu osagarriak eskaini dizkiguten irakasleek ere.

1 Eskolan gaia ukitu duzue nolabait?
2 *ETA aipatu eta bazegoela gatazka bat eta bai, baina bere historia, berez, ez.*
3 *O sea, gure adineko norbaitek ez luke jakin behar gaur egun Tafallan zer den*
4 *ETA.*

Pentsamendu metonimikoan oinarritutako adierazpen bat darabil Maddik hezkuntzako transmisio falta deskribatzeko: *ETA* erreferentzia komunitateko kideek partekatzen duten oinarri-oinarrizko elementutzat jotzen du, hau da, historiari buruzko gutxieneko ezagutzat. Adierazpen honek inplikatura hau du oinarrian: “Mundu guztiak daki zer den *ETA*”. Baieztapen implizitu honek sortzen du efektu hiperbolikoa hezkuntza sistemako edukien transmisioaz ari denean: gazteen ezagutza haren araberakoa balitz, oinarrizkoentzat jotzen duen hori ere ez legoke bermatuta.

Transmisio falta hau tabuarekin lotzen dute ikasleek. Hainbat metafora geografikoren bidez kontzeptualizatu dute *esanezinaren eremu* hori: euren arabera, irakasleak “ez dira sartzen” (Eli-15-Altsasu) “lurralde zingiratsu” (Ekaitz-16-Altsasu) gisara pertzibitzen den horretan. Irakasleak modu esplizituagoan mintzatu zaizkigu arazoaz:

Hemen [Historiako liburuaren bukaeran] aipatzen da zerbait, baina ia inoiz ez gara iristen ematera, denbora faltagatik. Guk ere ez dugu jakiten zenbateraino kontatu; azkenean, Historian ezin zara objektiboa izan, eta adin honetan [16-17 urte] oraindik ez daukate gaitasun kritiko handirik. Zuk iritzi bat esaten baduzu, iritzi horrekin geratzen dira. Ni akaso ez naiz egokiena gaiaz hitz egiteko; nire aita sindikalista zen eta... Sakanako gizartea politikoki nahiko homogeneoa da, baina beti ez dakizu zein diren ikasleek etxean entzuten dituzten iritziak.

Miren, institutuko irakaslea

Informatzaile honen arabera, gaiaren lanketa faltak alde batetik hezkuntza materialekin du zerikusia (historiako liburuetan garai horri ematen zaion presentzia urri eta bazterrekoagatik), eta bestetik, nabarmenago, irakasleen euren zalantza eta beldurrekin. Ikasgelan egon daitekeen esperientzien aniztasuna, elkartrukerako eta eztabaida osasuntsurako aukera gisara ikusi ordez, talkarako eta mina eragiteko arrisku faktore gisara ikusten dute, eta sarritan irakasle gisara ere ez dira legitimatuta sentitzen subjektiboegitza jotzen duten gai bati buruz mintzatzeko, hain zuzen ere euren subjektibotasunak irakasle roletik urruntzen dituela sentitzen dutelako. Mirenek kezka agertzen du bere ikasle gazteengan izan dezakeen gehiegizko eraginagatik. Gogora dezagun euskal gatazkaren historia hurbilaren aipamen hutsa oraindik ideologikoki oso kargatutako ekintza bat dela, hau da, hura eztabaidatzeko interesa nagusiki komunitate ideologiko eta politiko zehatz bati (ezkerrekoari edo/eta abertzaleari) egozten zaiola. Irakasleek markatze horretatik at geratu nahi izaten dute, ezagutzaren transmisore neutral gisara agertzeko euren sinesgarritasuna salbatzearen mesedetan.

Pertzepzio hauek bat datoz lehenbiziko kapitulu analitikoan aztertu ditugun zenbait patroiarekin, besteak beste, euskal gatazka gai sentibera, tabua edota abertzaleen interesekoa den zerbaiten gisara kontzeptualizatzen duten ulerkerekin. Oro har, eskola gizarteko arau diskurtsiboen luzapen gisara ikusten dute gazteek:

1 ¿Te parece que hay sensación de tabú sobre el tema?
2 Sí. *Mogollón. Pero una pasada. Sobre todo, o sea, en mi ikastola, ya te digo,*
3 *que cada vez que salía algo relacionado, alguna noticia, era como: “Bua, no*
4 *se puede hablar de eso”. La gente comentaba: “¿Habéis visto que no sé qué,*
5 *que no sé cuántos?”, y no, no hablaban los irakasles. Y era como extraño. A*
6 *ver, pues lo mismo que comentas la noticia de que ha subido – o sea, de que*
7 *se va a poner el euro en el momento ese, ¿no? De que va a entrar el euro y*
8 *vamos a entrar en la comunidad europea, pues hablabas de otras cosas, o sea,*
9 *relacionadas con los presos políticos y demás, y no hablaba nadie de eso.*

10 ¿Había casos de otras familias en la ikastola?
11 *Yo creo que sí, pero al final, ya te digo, nadie decía nada: ni los hijos de*
12 *guardias civiles decían que eran hijos de guardias civiles, ni los que tenían*
13 *familiares en la cárcel lo decían. Entonces, era como, “Estamos jugando aquí*
14 *al gato y al ratón todos”. Sin más. *Que de mayor te das un poco cuenta y dices,**
15 *hostia.*

Nora-21-Getxo

Haurtzaroan esperimentatutako egoera baten narrazioa eraikitzen du Norak: berak senide bat espetxean zeukan, baina ikastetxea ez zen horri buruz hitz egiteko espazio seguru bat. Norak “bitxi” (“extraño”, 5. lerroa) gisara deskribatzen du eskolak osatzen zuen eremu diskurtsiboko arauen arteko aldea: bertan, ikasleen testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoko hainbat auzi *mintzagai arruntak* ziren, pasarte honetan euroaren sarrerak metonimia gisara irudikatzen dituenak. Euskal gatazkaren adierazpenak, ordea, kategoria horretatik at geratzen ziren, ikasleen bizitzetako arazo errealean parte izan arren. Eztabaidaezinenaren eremuaren deskribapen oso zehatza egiten du pasarte honetan hizlariak.

Tabu honen kausez galdetuta, gazteek hiru arduradun seinlatu ohi dituzte: gurasoak, hezitzaileak eta hezkuntza sistema, testu liburuetan eta haien diseinatzaileetan gorpuztua.

1 Iruditzen zaizu gaia tabua dela? Ez dakitela oraindik nola erakutsi?
2 *Izan liteke. Ez umeengatik, baizik eta gurasoak kejutuko zirelako ikastolari.*
3 *Nik uste dut hori. Azkenean, gurasoek esango zutela: “Ei, nik ez dut gura hau*
4 *erakustea nire semeari, zeren ez dut gura”. Ez dakit. Azkenean betiko rolloa,*
5 *gurasoena eta umeena: umeak daude prest dena entzuteko eta dena*
6 *asimilatzeke, baina gurasoak dira ipintzen dituztenak trabak, edo nire ustez*
7 *hori da.*

Joseba-20-Bilbo

Euskal gatazka nagusiki aurreko belaunaldien arazo gisara kontzeptualizatzen duen ulerkerari jarraika, belaunaldi helduagoetako kideek ager dezaketen oposizioa ere jotzen dute gaiari buruz eztabaidatzeko eragozpenzat. Kasu honetan, arau sozial nagusien aurpegia dira gurasoak: berez seme-alabena den hezkuntza eremuko interakzioak *kanpotik* baldintzatzen dituzten jarrera eta jokabide normatiboak gorpuzten dituzte.

Familiarteko edota testuinguru sozialeko zirkuluetan bezalaxe, ikasgelan ere arriskutsutzat jo ohi da iritzi aniztasuna edota talka narratiboa. Ondorioz, gatazka diskurtsiboak eragin ditzaketen gai kontrobertituak saihesteko joera dago oro har, eta, aldiz, kontsentsu handien eragiten duten gaiei buruz hitz egiten da. Kontsentsuak zerikusi zuzena du curriculumean eta eskola materialean jasota dauden narratibekin, haiek *egia* kuestionaezin bat eraikitzen dutelako eskola eremuan. Euskal Herriko historia hurbilari buruzko edukirik ez dago ia; horrek azal lezake zergatik lantzen diren sakonago eta xeheago historian atzerago geratzen diren gertakariak edota beste gune geografikoetako gatazkak inplikitzen dituztenak:

1 Eskolan landu duzue gaia?
2 *Ez. Oso gutxi. Baina ez.*
3 *Eta zergatik uste duzu ez dela lantzen?*
4 *Zeba beti dago bi parteak. Esan nahi dut, baita – batzuk e, ez dakit, dira*
5 *abertzaleak, hola; beste batzuk, ez; eta orduan ez dute nahi sortu, ez dakit, ez*
6 *dute nahi irakatsi hori, jartzen alde batean, zeba beste aldeak egongo ziren*
7 *beti gatazkan. (...) ikasten ditugu historia batzuk, direla atzerritakoak, baina*

8 *uste dut hasi beharko ginatkeela gurea ikasten, nola gure historia, eta gero*
 9 *joaten kanpora. Ez dakit. Zeba uste dut hala ere dela inportantzia handikoa*
 10 *hemen pasatu dena guretzako. Eta ez dakit, ukan duela eragin handia familia*
 11 *mailan eta denan.*
 12 *Eta zer gustatuko litzaizuke erakustea? Gatazkaren zer alderdi ezagutu nahiko*
 13 *zenuke?*
 14 *Ez dakit. Sorrera, denaren sorrera. Zerk piztu duen zer, eta... eta hori. Eta*
 15 *gero nola sortu diren, zergatik sortu diren adibidez ETA eta horrela,*
 16 *erakundeak. Eta zer egin duten, eta zergatik egin duten... dena, ez dakit. Uste*
 17 *dut dena jakin behar genukeela. Eta zer izan ziren ere euskal herritarrek*
 18 *sufritutako akzioak edo legeak, hola.*

Xan-15-Hendaia

Xanen pasarte diskurtsibo honek hezkuntza eremuko tabuaren hainbat alderdi deskribatzen ditu. Alde batetik, gatazka diskurtsiborako izua dago (4-7. lerroak). Bestetik, *kanpokotzat* jotzen dituen edukien prominentziaz mintzo da. Ideia hau, *kanpoko historia ikasten dugu eta gurea ez*, hainbat elkarrizketatan errepikatu da; eurentzat beharrezkoak eta, neurri batean, desiratuak diren ezagutzei buruzko mutismoa norbere komunitatearen historiarekiko mesprezu edo gutxiespen gisara pertzibitzen dute. Hau da: historiako liburuek ere nazioaren autodefiniziorako tresna gisara operatzen duten modu berean, pasarte historiko zehatzak narratiba horretatik kanpo uztea ere bada komunitate zehatz baten esperientziak ukatzea. Gazteok euren identitate kolektiboan narratiba hauetatik kanporatuta sentitzen dira.

Xanek bereziki enfatizatzen du kausazko eta ondoriozko egiturak ezagutzeko bere desioa 14-16. lerroen artean: “zerk piztu zuen zer”, “zergatik sortu diren erakundeak” eta “zergatik” egin zituzten egozten zaizkien jarduerak. Honekin, hizlariak gertakari zehatzen ezagutzatik harago joateko eta inplikaturako aktoreen jardunbideetarako arrazoiak ulertzeko nahia adierazten du; eta bereziki enfatizatzen du *ingroup*-aren biktimizaziozko historia ezagutzeko interesa. “Ere” emendiozko lokailuak (17. lerroan) diskurtso inplizitu bati egiten dio erreferentzia: datu hori erantsi beharko litzatekeela iradokitzen duenean, informazio hori (euskal herritarrek sufritutako ekintzak eta neurriak) falta duela nabarmentzen du Xanek.

Gazteek hezkuntza arautuari ikusten dioten beste eragozpen bat euskal gatazka armatuari buruzko diskurtsoetan nabarmendu ohi den osagai morala da. Gaiari buruzko lanketa propio eta sakon baten faltan, nazioarteko terrorismoari eta bestelako biolentzietan lotutako gaien testuinguruan kokatu edo aipatu ohi da 1960ko hamarkadatik 2011ra bitarteko garai armatua, eta horrek gatazkaren konplexutasunari buruzko ikuspegi oso mugatu bat eskaintzen diela uste dute gazteek:

1 *[Lo que se enseña] en el cole es muy poco; te cuentan al final que en Euskadi*
 2 *hubo terrorismo, hubo un grupo terrorista que se llamaba ETA y poco más.*
 3 *No te explican por qué surgió, ni... ni, no sé, ni qué factores hicieron que se*
 4 *creara un organismo como ETA, ni cuál ha sido su desarrollo hasta hoy. No*
 5 *te dicen nada, te cuentan lo básico. Es como un tema tabú.*

Ibai-20-Donostia

1 *M... O sea, yo aquí fui a un colegio católico y así, pero directamente no se*
 2 *hablaba de eso, sino que se hablaba de cosas, pues lo típico: en contra de la*
 3 *guerra, en contra de crímenes, este tipo de cosas. Injusticias que todos vemos,*
 4 *pero directamente el tema de ETA... sí que se hacían reivindicaciones por la*
 5 *paz en el cole.*

6
7
8
9
10

¿Y cómo eran?
Al final era un colegio católico, cosas de esas de “Manos Unidas”, o Manos Blancas, no me acuerdo cómo era. Pero sin más, en el colegio nos juntaban y leían algo de “Hay que ir por la paz, por el camino de...”, ¿sabes? Actuar bien.

Paulo-19-Urnieta

Eskola batzuek modu esplizituan hartu dute euren gain zuzentasunezko arau hori. Bi hizlarion ikastetxeetan (biak kontzertatuak eta erlijiosoak, ikerketako gainerako parte hartzaile gehienek ez bezala) etikaren arloan irakasten da euskal gatazkaren berri, hura terrorismoaren *frame*-an kokatuz; hartara, batik bat ETaren biolentziarekin parekatzen da gatazka. “Esku zurien” irudiak, hain zuzen ere, ETaren biolentziaren aurka 1990eko urteen amaieran sortutako mobilizazio sozialari egiten dio erreferentzia (Gil Grande, 2022). Nolanahi ere, badirudi Pauloren oroitzapenetan lausotuta dagoela esperientzia hori. Berak eskolan gaia inplizituki landu dela pertzibitzen du, hura modu irekian tematizatu gabe: “zuzenean ez” adierazpen errepikatuak (2. eta 5. lerroetan) eremu diskurtsibo horretara iristeko zeharkakotasun bati egiten dio erreferentzia. Berak eskola katoliko baten ohiko jarraibide erlijiosoen ildo berean kokatzen ditu gatazkari buruzko irakurketak, “bakearen” aldeko ekintza orokorren barruan eta irakaspen moralen lerroan: han “ongi jokatzeko” (10. lerroa) irakatsi diote. Welzerrek (2005, p. 2) ere deskribatutako joera beha dezakegu, hortaz, kasu honetan: gai gatazkatsuen aurrean, eskolak politikoki zuzena den narratiba elikatu ohi duela, gizarteko kontsentsu eta diskurtso nagusiak indartuz.

Gazteek eskuratu nahiko lituzketen ezagutzak, ordea, jasotzen dituzten lezio moraletatik harago doaz: Ibaiek esplizitatzen duen moduan (eta Xanek adibideak arestian ilustratu moduan), tabu diren iraganeko gertakarien zergatiak eta arrazoiak ezagutu nahiko lituzkete. Kasu honetan, esanguratsua da bi hizlariok (Ibaie eta Paulo) ETaren biolentziaren biktima izan diren familietako kideak direla; euskal gatazka nagusiki abertzaleen intereseko gai bat dela dioen estereotipoaren aurka, bistakoa da euren ere ezagutu nahi dituztela gatazkaren konplexutasunak.

Hain zuzen ere, izaera normatibo horretan datza hezkuntza arautuko edukien boterea. Curriculumeko diskurtsoen ezagutza eta memorializazioa positiboki ebaluatu ohi da eskola eredu tradizionalen; hortaz, erantzun *zuzen* eta *okerren* artean mugitzen da ikasketa prozesuaren zati handi bat. Testu liburuek oro har erantzun *zuzenak* eskaintzen dituztela hartzen da aintzat: hortaz, diskurtso kontsentsuatuak dira, egiazkotzat eta baliozkotzat jotzen direnak. Horregatik, narratiba ofizialen parte izan ohi dira. Arazoa sortzen da testu liburuek eta curriculum arautuak eskaintzen dituzten edukiak ez datozenean bat ikasleek bizi dituzten errealitate eta esperientziekin; orduan, ikastetxeko edukiarekiko arreta pizten zaie, eta aukeratu behar izaten dute zein diskurtsori eman sinesgarritasuna.

Gure elkarrizketetan ere, testu liburuetako diskurtsoak oro har gizarteko korrante ideologiko nagusi edo normatiboekin parekatu dituzte hainbat gaztek:

1
2
3
4

O sea, ikastetxean ez dute gura esan ezer ez. Pasan del tema.
Eta zergatik iruditzen zaizu ez dela lantzen?
Ez dakit. Baina es que hasten baginen lantzen, landuko genuen, o sea, liburuak gura duen moduan landu. O sea, izango zen lanketa bat non ETA izan den

5 *hiltzailea eta beste denak izan diren super onak. Eta ez da izan horrela.*
6 *Orduan, ba hori.*

Joana-16-Arrasate

1 *Elkarrizketatzailea: ¿En la escuela habéis dado el tema de alguna forma?*
2 *Edurne: No.*
3 *Erika: Qué va.*
4 *Gabriele: Yo creo que no. Nunca hemos hablado. Es un tema que se esquivaba*
5 *bastante.*
6 *Edurne: Ya, es verdad.*
7 *Jaione: Sí, es muy tabú. Ni siquiera en el instituto. Hemos estado dando*
8 *Historia muchos años, menos ahora en Bachi que yo no tengo, pero no*
9 *hemos...*
10 *Edurne: Ahora en segundo de Bachi sí que vamos a dar el franquismo y los*
11 *nacionalismos vascos y esto, pero de momento no hemos llegado.*
12 *Erika: Y es tarde, porque si hasta segundo de bachiller no das el tema, me*
13 *estoy dando cuenta que es un poco... [barre].*
14 *Jaione: Sí.*
15 *Gabriele: Ya, sí, sí.*
16 *Elkarrizketatzailea: Y cuando decís que se evita, ¿por qué creéis que es?*
17 *Gabriele: Porque siempre se da la Historia de España, o más generalizado,*
18 *pero ese tema...*
19 *Jaione: [keinua beldurtua] ¡No, no!*
20 *Gabriele: Nunca. Es como que tienen miedo de lo que podemos pensar o que*
21 *nos hagan pensar de una manera... no sé.*
22 *Jaione: O igual, como es tan cercano aquí, igual no les gusta hablar del tema.*
23 *No sé. Pero sí que es muy tabú.*

Basauri, taldeko elkarrizketa

Bi adibideotan, eskolak diskurtso (eta isiltasun) ofizialak edo nagusiak elikatzen dituela adierazten dute hizlariak. Joanaren kasuan, testu liburuen pertsonifikazio bat dago: “Liburuak gura duen moduan” (3-4. lerroak) irakasten da. Pertsonifikazio horrek gorpuzten du ofizial gisara pertzibitzen duen diskurtso bat: ETAREN biolentzia etsai gisara kategorizatu eta kriminalizatzen duena, eta gatazkan inplikaturako beste aktoreak arduratik salbuespen dituen (4-5. lerroak). Hizlariak berak eraikitzen du diskurtso horrekiko deusezte estrategia bat: “ez da horrela izan” baieztapenarekin, hezkuntzan pertzibitzen duen ebaluazio hegemonikoa gaitzesten du kategorikoki, baina ez du kontranarratibarik eraikitzen.

Basauriko talde elkarrizketaren kasuan, hizlariak zalantzazko modalizatzaile gehiago txertatzen dituzte hezkuntzako tabuaren kausen inguruan, besteak beste, “ez dakit” aditz errepikatuarekin (20. eta 22. lerroetan). Nolanahi ere, planteatzen dute hipotesi bat: iragan armatuaz hitz egiteak sozialki desiragaitzak diren arrazonamenduak eragin ditzakeela, eta hori hezkuntza sistemaren interesen aurkako izan daitekeela (“beldurra izango baliote bezala”, 19. lerroan). Inplikaturaz, hezkuntza gizarteko diskurtso nagusiak erreproduzitzeko interesa nagusi den eremutat dutela ondoriozta daiteke.

Azpiatal honen hasieran erreproduzitu dugun irakaslearen pasarte diskurtsibotik interpreta daitekeen markatze politikoarekiko beldurrak bere kontraparte du ikasleen begiradan. Sarritan errepikatu duten patroia bat da oro har euskal gatazkari buruz hitz egiten ez den ikastetxean, gaia bere inizatibaz ateratzen duen irakaslearen figura. Irakasle hauek berezitasun edo salbuespen gisara ikusiak dira ikasleen partetik, eta oro har ezaugarri bertsuak egozten dizkiete: abertzaleak izatea, gatazka armatuarekin lotu dezaketen esperientziaren bat eduki izana, eta politikoki aktiboak edo militanteak izatea.

Irakasleok, ikasleen ustez, “aitzakia” bila aritzen dira gatazkarekin lotutako mintzagaiak curriculumean txertatzeko:

1 Eskolan nola landu izan duzue gaia?
2 *Eskolan, e, orain arte eta kolegioan, gutti. Baina orain, aurten, lizeoan badugu*
3 *Euskarako kurtsuetan eta horrela beti bai aipatuak izan dira istorioak.*
4 *Eta zer da azaldu dizuetena?*
5 *Gero... gure horretan Literatura bagenuen opzioz, eta beti lotura egiten zen*
6 *Sarrionandiarekin testuekin, eta berak idatzitako testuak. Edo Mikel Antzaren*
7 *testuekin, eta hori ere kartzelan da. Eta, beraz, hara, eurekin lotura egiten zuen*
8 *irakasleak eta euskal gatazkaz mintzatzeko.*

Unai-16-Anhauze

Kasu honetan ere, gaira hurbiltzeko zeharkako bidea eskaintzen dute Literatura arloko edukiek: jatorrian interes linguistikoa edo literarioengatik aztertzen diren obrek errealitate politikoaz mintzatzeko aitzakia eskaintzen dute, eta irakasleek erabakitzen dute hari heldu edo ez. Era honetako transmisio-mekanismoak sarriagotan deskribatu dituzte gure parte hartzaileek, eskolak edo curriculum arautuak sustatutako transmisio-kanal egituratu eta planifikatuak baino. Nolanahi ere, ezagutza hauek ia beti anekdota edo istorio atomizatuen forman jasotzen dituzte gazteek, ez elkarrekin harilkatutako narratiba baten forman. Hortaz, gazteen esku geratzen da ondorengo kohesio- eta testuinguratze-lana.

Unairen adibideak neurri batean baieztatzen digu ikerketaren hasieran planteatutako hipotesietako bat: Ipar Euskal Herrian zabalxeagoa dela esan daitekeenaren eremua gatazkaren alderdi tabuei dagokienean. Unai ilustratutako adibidea, ikasgelan ETako kide ere izan diren erreferente kulturei buruz termino politikoetan hitz egitea, Hego Euskal Herriko parte hartzaileek aipatu ez duten zerbait da, salbuespen bakarrarekin: Joseba Sarrionandia idazlea Hego Euskal Herriko bi hizlarik lotu dute espetxearekin.

Kasu hauetan guztietan, ikastetxeak funtzio bikoitza betetzen du: zuzeneko transmisore gisara (araututako eta ikasi beharreko edukiekin), eta sozializatorako gune modura. Testu liburuek eta eskola-ordu finkoek sortutako hutsunea korridoreetako elkarriketek osatu ohi dute bertan. Eskolak transmisiorako ingurune gisara operatzen duela diogunean, kasu askotan eremu informaletan ematen diren interakzioen ondorioz da, ikastetxeak gazteei euren artean eta irakasleekin harremantzeko espazioa eskaintzen dielako.

1 *Irakaslearen arabera. Izan ditugu irakasleak, senarra baita – bueno, senarra*
2 *errefuxiatua egon dena, espetxeratua eta torturatua. Eta irakasle – andereño*
3 *bakoitzaren ikuspuntu pertsonalaren arabera, konpartitu dute eta horretaz hitz*
4 *egin dugu. (...) ikastolan lortzen genuen gure espazioa, gure klaseak, gatazka*
5 *horrekin – gatazka hori sartzen, e, beti ematen – e, saiatzan ginen gutxienez,*
6 *eta uste dut aldi batzuetan lortu dugula jendeari pentsaraztea. Baina institutua*
7 *guztiz arrotza egiten zait, ez? Beti ikusten dut norbait, ez? Kurtso osoan ez*
8 *dudana ikusi. Eta asko, euren egoera soziala, ekonomikoa, hain ezberdina*
9 *izanik, ez dugu influentzia lortzen institutu guztiko espazio bat izatea eta*
10 *eztabaida puntu bat izatea Euskal Herriko gatazka[z hitz egiteko].*

Ilargi-16-Etxarri Aranatz

Ilargi ere baieztatzen du irakaslearen testuinguru pertsonalaren eta borondate zehatzaren arabera tematizatzen direla arantzatsutat jotzen diren gaiak. Kasu honetan, berak ere uste du batik bat abertzaleen interesekoa dela euskal gatazkaz hitz egitea: errefuxiatutako senarra duen irakasleak (1-2. lerroak) eta ikastolako eremuak irudikatzen dituzte komunitate ideologiko zehatz horren praktika diskurtsiboak. Pasarte honek ikuspegi

interesgarri bat eransten dio gure ikerketari, ikastetxea gazteen aktibismo politikorako espazio gisara planteatzen duelako. Tradizionalki, *goitik beherako* transmisio normatibo bat gauzatzen den gune gisara ikusi ohi dira ikastetxeak, non irakasleek emandako edukiak jasotzen dituzten ikasleek, rolen banaketa agentibo eta pasibo argi baten arabera. Ikuspegi hau gazteen diskurtsoetan ere erreproduzitzen da, gehienek transmisio falta irakasleen produkzio diskurtsibo urrian kokatzen dutenean. Kasu honetan, baina, Ilargik adinkideen arteko eztabaida politikorako espazio gisara ikusten ditu ikastetxeak, eta bere uneko institutuari horretarako egokitasun faltan kokatzen du arazoaren zati bat.

Eremu komunikatibo gisara operatzen duten topagune informal hauek tresna garrantzitsua dira ikastetxetik kanpo tokiko historiari buruzko informazio iturri gutxi dituzten ikasleentzat, bereziki lehen belaunaldiko migratzaile direnentzat:

1 ¿En la escuela habéis trabajado el tema tal cual?
2 *No, no, es más comentarios y así.*
3 ¿Recuerdas alguna anécdota en concreto que te hayan contado?
4 *Sí, de hecho, me acuerdo de una anécdota que me contó una profesora en*
5 *primero de la ESO, mi tutora, mi profesora de Matemáticas y así. Que me dijo*
6 *que cuando ella era pequeña, es que claro, la ikurriña ellos no la podían sacar,*
7 *¿no? Pues su hermano tenía una ikurriña de papel y pasó justo por un control*
8 *de la Guardia Civil, y que se tuvo que tragar la ikurriña, masticarla y tragarla,*
9 *para que no les detuviesen en el control de la Guardia Civil. O sea, sus padres*
10 *le dijeron: “Deshazte de ella”. Y solo se le ocurrió tragársela. Y pues eso, tan*
11 *fuerte es la represión que alguien prefiere perjudicar su salud, ¿no?*
12 *Tragándose un trozo de papel, antes de... por el temor que hay, por lo que te*
13 *puede pasar. Puedes desaparecer de un minuto a otro, simplemente por llevar*
14 *una bandera, tu bandera.*

Malika-17-Barakaldo

Euskal Herrira 10 urterekin iritsitako saharar gisara, Malikak tokiko historiarekin izan duen harremana nagusiki ikastetxean gauzatu da. Gatazka armatu eta politikoari buruzko narratiba kronologiko eta kontsentsuatuen faltan, eskola eremuko interakzio informalagoen bidez eraiki ditu gatazkari buruzko bere narratibak. Kasu honetan, irakasle zehatz bat da bere ezagutzaren iturria: pasarte honetan eraikitzen duen narrazioa interdiskurtsiboa da bere osotasunean. “Kontatu zidan” eta “esan zidan” sarrera-formulek, hala nola, 5. lerrotik 9.era darabiltzan perpau konpletiboek aipu baten presentzia esplizitatzen dute. 10. lerrotik aurrera, indikatiboko aditzak erabiltzen hasten da, hortaz narrazioa bere eginez. Irakaslearengandik jasotako kontakizun bakan edo anekdotikotik abiatuta, hizlariak gatazka zabalagoari buruzko bere interpretazio globala eraikitzen du: irakaslearen esperientziaren gertakaria frankismoko errepresio orokorraren metonimizatzen hartzen du, elementu emozional bat (“beldurra”, 13. lerroan) erantsiz. Ez dakigu irakasleak jatorrizko kontakizuna tonu berean eraiki ote zuen edo bitxikeria tonuan kontatu ote zion, baina hartzaileak transzendentzia handi samarreko istorio bihurtzen du gatazkari buruzko bere eredu mentalaren berreraikuntzan.

Migratzaileentzat ez ezik, etxean politikari buruz mintzatzeko ohiturarik ez duten gazteentzat ere funtsezko heldulekua dira hezkuntzako diskurtsoak. Badituzte bestelako informazio iturriak, baina zalantza eta distantzia handiagoz erreproduzitzen dituzte haietatik heldu zaizkien narratibak. Hezkuntzako diskurtsoak, aldiz, oro har segurtasun handi samarrarekin erreproduzitzen dituztela behatu ahal izan dugu, hain zuzen ere iturriak ebidentzia gisara balio dielako:

1 Nola azalduko zenioke kanpotar bati zer den euskal gatazka?
2 *Ba oraintxe daukat dexente ikasita, zeren azterketa izan dugu. Foruen asuntoa*
3 *esplikatuko nioke apur bat gainetik, zeren ez dakit ondo; eta esango nioke*
4 *Francok errepresio handia egin zuela kultura eta hizkuntza eta bandera...*
5 *bandera, ez dakit? Bueno, ba euskal kultura kendu moduan egin zuen,*
6 *debekatu egin zuen, eta horrek nazionalisten artean haserrea sortu zuen, eta*
7 *sortu zen grupo bat, ETA zuena izena, Euskal Herria eta Askatasuna, eta*
8 *saiatu zirena euren borro – diktadurari eta gobernuari aurre egiteko ataque*
9 *terroristak egiten zituztela.*

Maite-17-Oñati

1 ¿En el colegio cómo habéis tratado el tema? ¿Ha salido alguna vez?
2 *Muy poco. Quizás... no, es que apenas se ha tocado. En cuarto de la ESO se*
3 *da Historia, y quizá al final de los temas sí que se habló de algo, no me acuerdo*
4 *muy bien. Pero es un tema que sí está, pero no lo hemos tratado.*
5 *¿Serías capaz de sintetizar lo que os explicaron entonces?*
6 *Apenas. Porque estaba relacionado con el terrorismo. Y pues se centraba pues*
7 *en el País Vasco. Pero no te sé con certeza decir ni cuándo se surgió ni lo que*
8 *es exactamente. Porque no sé, el tema en sí no se ha tratado. (...) Te puedo*
9 *hablar antes de las guerras del siglo XVIII que esto que acaba de pasar y que*
10 *aún es actual. Te da pena, incluso rabia no tener esos conocimientos o no*
11 *saber, porque al final en el colegio no lo trabajamos, porque en casa no lo*
12 *hablo, ni con amigos.*

Elena-17-Barakaldo

Lehenbiziko pasarte honetan, Maite eroso sentitzen da curriculumetik ikasi berri dituen edukiak erreproduzitzerakoan: zalantzazko markagailu epistemikoak txertatzen dituen arren (“ez dakit ondo” eta “ez dakit”, 3. eta 5. lerroan), oro har narrazio xehe samarra osatzen du gatazkaren sorreraren inguruan, bere adinkide gehienek elipsatutako zenbait datu esplizitatuz, adibidez, ETAre siglen esanahia (hura erabat zehatza ez izan arren). Bitxikiro, ETAre sorrera erresistentziazko testuinguru batean kokatzen duen arren eta Maiteren testuinguru soziala abertzalea den arren, oro har sektore politiko hori eta haren estrategia armatua gaitzesten duen terminologia bat erreproduzitzen du, besteak beste, “nazionalista” terminoa erabilia abertzaleak izendatzeko. Termino hori modu peioratiboan erabili ohi da sektore konstituzionalisten partetik, abertzaleen nazionalismoa seinalatzeko; espainiar nazionalismoaren hegemonia, kasu horretan, hain zuzen ere bere esplizitate faltagatik definitzen da. Antzera gertatzen da “ataque terrorista” (8-9. lerroak) terminoarekin: Maitek bere kabuz txertatzera zihoan “borroka” terminoaren ahoskatzea (8. lerroa) eteten du eta terrorismoaren *frame*-ari dagokion termino batengatik ordezkatzeko, hartara sozialki onartutako diskurtso batera egokituz. Pentsatzekoa da terminologia hau eskola materialetik erreproduzitua izatea, Maiteren beste gelakide batek ere termino oso antzekoetan erreproduzitu dituelako, beste elkarrizketa batean, eduki berberak.

Elenak, bere aldetik, frustrazioa adierazten du ikastetxetik jasotzen duen *input* eskasarekiko. Bera jakitun da bere bestelako zirkulu sozialetatik ez zaiola gaiari buruzko informaziorik iristen eta, beraz, hezkuntza sistemarengandik espero du ezagutza hori. Ondoriozta dezakegu, hortaz, ingurune despolitizatueta hazitako gazteentzat, ikastetxea bihurtzen dela transmisiorako kanal fidagarrienetako bat. Elkarrizketatuek euren informazio iturrietan adinkideak lehenago identifikatzen dituzten arren, diskurtsoen analisisian behatu ahal izan dugu hezkuntzako edukiekiko atxikimendu handiagoa erakusten dutela, haiek ziurtasun handiagoz erreproduzitzen dituztelako; hau da, testu

liburuetan eta curriculum arautuan jasota dauden diskurtsoei oro har sinesgarritasun handiagoa aitortzen diete.

Gazte hauen kasuan, eskolak behar hori ere asetzen ez duenean, gazteak euren ingurune politiko eta sozialetik *deskonektatuta* edo erabat urrunduta sentitzen dira, hura ulertzeko zailtasunak handitzen zaizkielako. Hori hurrengo adibideak ilustratzen du:

1 Politikoki aktiboa zara?
2 *Ez, ez dut inoiz parte hartu. De hecho, arazoak ditut politikari buruz, gauzak*
3 *jakiteko, porque eskolan-eta ez digute ezer irakasten politikaren inguruan, eta*
4 *orduan, ba, kostatzen zait. (...) Carrero Blanco. Bueno, bai, Carrero Blanco*
5 *nik uste dut dela [biktimarik] ezagunena.*
6 Eta nondik jakin duzu haren berri?
7 *[Barre] Eskolan. Bueno, selektibitatea prestatzeko, ba, bere gertakizuna.*
8 *(...)*
9 Non ikasi duzu gehien euskal gatazkari buruz?
10 *Eskolan. Eskolan, bai. Es que azkenean, e, eskolatik kanpo ikusten dut ez*
11 *dagoela ezer erakargarria, atentzioa deitzen dizuna irakurtzeko. Ez dakit.*
12 *Eskola, ba hori, selektibitatea prestatzeko Historia ikasi behar duzu, baina ez*
13 *dute oso modu erakargarrian [eskaintzen]: o sea, buruz ikasita eta guztia*
14 *memoriaz. Hori, gogoratzen dugun dena dira bi gauza. Así que gauza asko*
15 *ahaztu egiten dira.*
16 Eta Historiako ikasgaiari zein urtetara arte iritsi zineten? Temarioa noiz arte
17 doa? Gaur egun arte, edo bukatzen da lehenago?
18 *Trantsiziora arte.*
19 78an?
20 *Bai. Porque gaur egun ez da... ba hori. Horregatik: politika ez dugu ia – nik*
21 *uste dut politika ez dela sartzen, horregatik, Historian egiten delako*
22 *Trantsiziora arte. Eta bakarrik historian gertatutako gauzak kontatzen*
23 *dizkizute.*

Irene-19-Donostia

Erreferentzia gutxi izan arren, ikastetxean derrigortuta ikasitako kontzeptuak baizik ez ditu erreproduzitzen Irenek; elkarrizketa osoan, ez ditu ia bestelako iturriak aipatu, ez eta 1978aren ondorengo elementurik txertatu ere. Pasarte honetan, arrazoia eskaintzen digu: eskolako Historia ikasgaiko gaitegia data horretan amaitzen da. Ondoren “politika” (21. lerroa) hasten da, hau da, gaurkotasunezko gatazkak. Irene ez da gai bere egungo testuinguru sozialean euskal gatazkarekin lotutako adierazpenak identifikatzeko, eta hortaz, ikastetxeko lanketaren menpe sentitzen da egungo eremu politikoan nabigatzeko.

Pasarte honek hezkuntza arautuaren beste muga edo zailtasun bat ilustratzen du: oro har, euskal gatazka gaurkotasunezko arazo baten moduan ulertzeak zaildu egiten du hura Historiako edukietan txertatzea. Tesi honetan ez dugu argudiatzen gatazka politikoa amaitu denik, ez eta haren adierazpen armatu eta biolento guztiak erabat iraganeko kontua direnik ere, baina esan dezakegu gaur egun institutuko adinean dauden gazteentzat haren kronologiaren zati handiena ezezaguna dela, eta, beraz, hartan sozializatzeko, beharrezkoak dituztela izaera historiografikoko materialak. Paradoxikoki, gatazkaren egungo ezaugarriek (*errelatoaren bataila* gisara kontzeptualizatutako lehia diskurtsiboak eta hari lotutako posizio zurruneak) eragotzi egiten ditu horretarako baliabideak eskuratzea, bai ikerketa historiografikoa zailtzen dutelako (Majuelo Gil, 2020a, p. 284) eta baita eskola-materialaren diseinuan kontsentsuak oztopatzen dituztelako ere.

Elementuok aintzat hartzekoak dira hezkuntza eremuko transmisioaz hausnartzerakoan. Nolanahi ere, kontuan izan behar ditugu haren mugak ere: hezkuntza arautua ez da gazte baten sozializazioarako osagai bakarra. Welzerrek dioenez (2005, p. 1), ikastaro formalen ezintasun nagusia haien atxikimendu emozionalaren faltan datza: “Ezinezkoa zaie hurbileko iturriek eskaintzen dituzten iraganeko irudien inpaktu emozionalarekin lehiatzea. Historiaren ezagutza kognitiboa lausotu egiten da norberaren aitona-amonek euren ‘lehengo’ bizitzei buruz hitz egitean sortzen den harreman emozionalaren aldean”. Horregatik, hurrengo azpiatalean, elkarrizketatutako gazteek euren familiako testuinguruan nagusi diren diskurtsoak eta haien arteko talkak nola pertzibitzen dituzten deskribatuko dugu.

5.2.3. Familia

Memoriaren transmisioaren sinbolo edo irudikapen tradizionalenetako bat da familiako testuinguruan ahoz gauzatzen den komunikazioa. Oro har, belaunaldiz belaunaldi partekatzen den ezagutzatzat jo ohi da memoria. Norbanakoen sozializazio-prozesuan ere, errelebantzia berezia du sentitarteko testuinguruak: “Familiako kideek haur baten lehenbiziko marko soziala osatu ohi dute, eta, sarritan, baita garrantzitsuena ere. Esan daiteke eskema soziokulturalak eskuratzen ditugun eremu nagusietako bat familiako bizitza dela” (Erlil, 2011, p. 305). Horregatik, sentitarteko testuinguruak “memoria indibidualaren eta oroitze kolektiboaren markoen arteko kommutagailutzat” jo ohi dira (Ibid., 315), *kanpotik* (hau da, eremu diskurtsibo publikoetatik) datozen esanahiek familiako testuinguru pertsonalaren galbahearekin egiten dutelako topo lehenbizi, eta bertan balioztatzen edo baliogabetzen direlako.

Nabarmendu beharra dago, ordea, azken urrats horrek bi esferotako edozeini eragin diezaiokeela. Behatu dugun testuinguru politikoan zehazki, familiak gai zehatz bati buruz eraikita dauzkan narratibek eta haiek islatzen dituzten balio eta jarrerak aski eragin edo sinesgarritasun ez badaukate, posible da diskurtso publikoak bihurtzea kide gazteenen marko nagusi, baita etxeko narratibak kuestionatzen dituztenean ere. Kasu horietako hainbat adibide jaso ditugu gure elkarrizketetan, eta oro har familiako mutismoaren ondorio direla argudiatuko dugu datozen lerrootan.

1 Nola hitz egiten da zure etxean gai horri buruz?
2 *Naturaltasunez, eta perifrasiarik gabe, eta gauzak diren bezala kontatzen dira,*
3 *bakoitzak bere bizipenak bizitzen dituen bezala kontatzen dira, eta aunitzetan*
4 *aipatzen den gai bat da etxean. (...) [Gazte] gehienek errango dizute: “Nahi*
5 *nuke gehiago jakin, baina etxean ez dute inoiz aipatzen. Eta etxean badakizkite*
6 *gauzak, baina ez didate inoiz hitz egiten horri buruz”.*
7 Eta zergatik ez da hitz egiten horri buruz?
8 *Beldurrez, hori gibelean uzteko gogoz, seme-alabei hori ez transmititzeko*
9 *nahiz-edo... ez dakit.*

Lur-16-Hendaia

Pasarte honetan bere etxeko eremu diskurtsiboa deskribatzen duen arren, zeharka bere adinkideen familiako transmisioaz ere ari da Lur: bere familiako normaltasunean jartzen duen enfasiak (“naturaltasunez”, “perifrasiarik gabe”, “gauzak diren bezala”, etab.) hain zuzen ere kasuaren berezitasuna azpimarratzen du, hizlariak elkarrizketaren beste une batean ere esplizitatzen duena: “Gaur egun gazteok oso gutti dakigu. Nire egoera hobea litzateke, etxean aipatu izan dugulako”. Bere etxean taburik ez dagoela nabarmentzen duenean, ukazio horrek inplikatura bat dakar berarekin: besteetan badaudela tabuak, eta

hizlariak hori orokor gisara hautematen du bere inguruan. Bere adinkideen etxeko transmisioa erreproduzitutako pasartearen azken zatian deskribatzen du, guraso gehienek mutismoa emozioen (“beldurra”, 8. lerroa) eta borondate faltaren marko batean kokatuz.

Elkarrizketatuen erdiek (42tik 21ek) adierazi dute euren etxean ez dagoela politikaz hitz egiteko ohiturarik, eta testuinguru politizatueta hazitako gazte gehienek ere uste dute euskal gatazka ez dela ohiko gai bat euren familiako testuinguruan. Sarritan, gazteen inizatibazko informazio eskaera eta bilketek probokatzen dituzte gaiari buruzko elkarrizketak, eta horiek *kanpoko* katalizatzaile bat behar izaten dute, esate baterako, gazteek urteurren ofizial baten berri izaten dutenean hedabideen bidez, edota espazio publikoan arreta ematen dien irudi edo diskurtsoren bat antzematen dutenean. Halakoetan, ohikoa da senitartekoetara jotzea azalpen gehiagoren eske, baina gazteek ez dute sentitzen transmisorako inizatiba gurasoen partetik abiatzen denik. Honek ez du esan nahi, noski, gurasoak ez direnik saiatzen gatazka tematizatzen, edota ez dizkiotenik zeharkako erreferentziak egiten; agerian uzten duena da gazteek ez dutela transmisio mota hori kontzienteki hautematen, modu sotil eta naturalizatuagoan barneratzen dutela baizik.

Bestalde, oroitzen dituzten azalpen gehienak haurren ikuspegira egokitutako azalpenak dira:

1 *Ba adibidez nire aitak kontatu zidan bere lagun bat, zera, bere aita da*
2 *Soraluzekoa, Eibar ondokoa; eta adibidez, txikiak zirenean, bere lagun bat*
3 *eskolakoa, etorri ziren guardia zibilak eta hasi ziren jotzen, hola, arrazoirik*
4 *gabe, umeak jotzen. Eta horrelako gauza pila bat. Eta kontrol batzuetan tiro –*
5 *tirokatzen, baina arrazoirik gabe, eta horrela. Eta jendea hiltzen zen eta*
6 *horrela, manifestan.*

Xan-15-Hendaia

Era honetako diskurtsoetan ohikoa da narrazioko protagonistak ere haurrak izatea. Alde batetik, horrek hartzailearengan enpatia edo ulergarritasuna susta ditzake, eurak ere adingabeak direnez gero. Bestetik, inozentziaren sinbolo gisara operatu ohi du narrazio barruko haurrak, hau da, *ingroup*-aren biktimizazio injustifikatuaren narratibaren ebidentzia gisara aurkezten da. Xanen pasartearen ere, heldu talde armatu batek biktima adingabe eta, inplikaturaz, errugabeak zauritzen eta hiltzen ditu, aktoreen karratu polarizatu argi bat eraikiz. Xanek indarkeria irrazionalaren marko batean kokatzen ditu gertakariok, “arrazoirik gabe”, ziurrenik bere iturriak (aitak) ez ziolako gertakariaren oinarrian zeuden gatazka politikoei buruzko azalpen xehegerik eman.

Badirudi diskurtso sinplifikatu eta eufemistikoak adingabeekiko modalizazio diskurtsiboaren ezaugarri nagusietako bat direla. Seme-alabak historiaren alderdi mingarrietatik babesteko ahaleginaren barruan uler liteke estrategia hau, baina baita familiak bere buruaz eraikitzen duen irudiaren eraikuntzaren parte gisara ere. Senitarteko narratiben funtzio nagusietako bat, hain zuzen ere, taldearen barneko lotura estutzea da; horregatik, izaera metaforikoa dute maiz, taldeak bere buruari atxikitzen dizkion balio eta identitateei lotuta dauden neurrian (Halbwachs, 2004b, p. 181). Horregatik, ohikoa da era honetako diskurtsoetan moralitateak rol zentrala hartzea.

Gure elkarrizketatuek ere sarritan deskribatu dituzte gurasoen partetik jasotako mezuak inperatibo moral gisara. Oro har, iraganeko indarkeriarekiko (eta, bereziki, ETAk eragindakoarekiko) gaitzespena transmititu dietela iruditzen zaie, gertakari zehatzei

buruzko narratibak baino lehenago. Narratiba hauek *Biolentzia oro da txarra* bezalako topikoetan bildu daitezke, zuzentasun politikoaren eremuan kokatzen direnak, baina gatazken barruko kontraesanei iskin egiten dietenak.

1 *Nik uste dut gaizki zegoela, hori bai. Nik uste dut.. bai, izan zen: ETA eta*
2 *horren inguruan bai esan digutela hori izan dela talde terrorista bat, eta gaizki*
3 *zegoela eta hori, baina ez da asko sakondu, batez ere gurasoek. Gero aitona-*
4 *amonek kontatzen zizkiguten historietak: ba hori, aitona-amonen tipikoak*
5 *diren istorioak. Baina ez gehiegi sakonduz, o sea, hola, politikoki.*

Irene-19-Donostia

1 Etxean hitz egiten da gaiari buruz?
2 *Bai, guttitan, baina hara, ia beti ETA aipatzean, eta “hau preso joan dela”,*
3 *orain bukatu da eta bo, beti ikusten da, eta beraz lehen nolabait ttipitan*
4 *gurasoek alde egin, eta horrela.*
5 *Eta etxeko iritzi nagusia edo zein esango zenuke dela?*
6 *Bf, ez dakit xuxen. Bo, orain gurasoekin ere guttiago aipatzen dudala. Gero*
7 *badakit, ene ama hemengoa dut, euskalduna eta; baina aita kanpotiarra dut,*
8 *frantsesa. Eta beraz berak ez du berdin euskaldun batek-edo lukeen begirada*
9 *horri buruz; etorria da duela hogeï urte eta (...) aski harritua izan zen*
10 *egoerarekin. Eta beraz ez dut uste horrela alde denik; baina bo, bestalde bera*
11 *bortizkeriaren kontra da eta horrela, eta horretan sartzen da, uste dut, gatazka*
12 *hori edo borroka armatua baita.*
13 *Orduan, aitarengandik jarrera kritikoago bat sumatu duzu iragan*
14 *armatuarekiko.*
15 *Bai. Baina hara, berdin, bo, ulertzen, ene ustez ulertzen du halere; hori, eta*
16 *aldarrikapenak ukaitea, baina ez da bortizkeriaren alde bera; borroka*
17 *armatuaren alde ez da, hori badakit.*

Unai-16-Anhauze

Bi pasarteotan, gurasoen jarrera deskribatzen ahalegintzen dira Irene eta Unai. Biek argi dute gaitzespen morala transmititu dietela: biolentziaren erabilera politikoa “gaizki zegoela” (Irene, 3. lerroa) eta “bortizkeriaren kontra” egotea (Unai, 11. lerroa) zela zuzena. Halere, biek sumatzen dute informazio gehiagoren falta. Ireneren kasuan, azalpen politikoago bat nahi luke: “historietak” vs. “politika” dikotomiak informazio bera tratatzeko modu arin edo konplexuagoei egiten die erreferentzia. Senideek oro har arinkeriazko tonuan enmarkatzen dituzte iraganeko gertakizunak, berekin ari direnean.

Unai, aldiz, gurasoen posizioa zehazki zein den jakiteko zailtasunak dauzka. “Hori badakit” ebidentzialak ezagutzaren eremu zehatz bati egiten dio erreferentzia, gainerakoan ezezagutzaren eremua handiagoa dela ulertaraziz.

Unai xehetasun handiagoz deskribatzen ditu bere etxeko transmisio-mekanismoak: ohikoan ez dute euskal gatazkaz hitz egiten, ez bada ingurukoei eragiten dien gertakari zehatzen baten ondorioz. Ipar Euskal Herrian hazitako haurra izanik, bere kasuan gertakariok atxiloketekin eta klandestinitatearekin lotzen ditu Unai. “Beti ikusten da” (3. lerroa) formulak ezagutza sozial horren ebidentzial gisara operatzen du, *ikustea* ezagutzearen metafora modura erabiliz.

Euskal gatazkaz modu ahalik eta modu onargarrienean mintzatzeko ahaleginaz jabetzen dira gazteak gurasoei begiratzen dietenean. Horrek ez du esan nahi, ordea, bere horretan onartzen edo erreproduzitzen dituztenik etxeko diskurtsoak. Unai “borroka armatuz” egiten duen aipamena (16-17. lerroak) horren adibide da: “borroka armatua” kutsu

legitimatzaileko aukeraketa lexiko bat da, bere gurasoek erabilitako “bortizkeriaren” markoa neurri batean kuestionatzen duena.

Esfera diskurtsibo ezberdinetatik jasotzen dituzten narratiben arteko talka horretan, posizio bat hartu beharrean aurkitzen dira gazteak maiz, datorren adibideak ilustratzen duen moduan:

1 *Hipercorreko atentatua nik amarengandik aunitz entzun izan dut. Bera garai*
2 *hartan ibiltzen zen hemen errefuxiatuak zeudenei laguntza pertsonala ematen.*
3 *Ba batez ere medikamentu beharra zutenei, ba, Hegoaldetik medikamentua*
4 *eramaten. Eta beretzat Hipercorreko atentatua izan zen... Hipercorreko*
5 *atentatuaren ondotik gelditu zuen amak aktibitate hori. Hori izan zen ETAk*
6 *zibilen kontra egin zuen lehen atentatu masiboa. Hor gero bertsio kontua*
7 *dago: ETAren eta ezker abertzalearen bertsioa izan da atentatu hori aski ongi*
8 *abisatua zegoela eta Estatuko indarrek aski ongi zekitela eraso hori burutuko*
9 *zela, eta haiek nahita ez zutela ekidin ETAr**i** bota ahal izateko gertatzen ari*
10 *zen guztiaren errua. Izan daiteke. Ez dakit.*
11 *Eta zuk orain posizio bat hartu beharko bazenu bi bertsioen artean?*
12 *Nik ezker abertzalearen bertsioari sinesgarritasuna eman, ematen diot. Hau*
13 *da, sinesgarria egiten zait. Eta ikusita egoera zein zen, ba sinesgarritasuna*
14 *eman, ematen diot. Horrek ez du kentzen zibilak modu horretara hiltzea*
15 *gehiegikeria bat dela.*

Lur-16-Hendaia

Lur jabetzen da gutxienez bi diskurtso edo “bertsio” (6. eta 12. lerroak) kontrajarri jaso dituela gertakari berari buruz: etxekoa (amaren bidez) eta eremu publikokoa, hau da, esfera politikotik jaso duena (ezker abertzalearena). Lehenbizikoa amaren zeharkako aipu baten bidez eta haren jokabidea deskribatuz berreraikitzen du: hartan, aukeraketa lexikoak gertakariaren ikuspegi negatibo batera garamatza, “zibilen aurkako lehen atentatu masiboa” (6. lerroa) deskribapenak terrorismoaren markoan kokatzen duelako Bartzelonako Hipercor saltokian 1987an gertatutako atentatua. “Gero” lokailuaren bidez (6. lerroa), diskurtso hori emendatzen duen deusezte estrategia bat txertatzen du ostera: lokailu hori berez denborazkoa den arren, testuinguru honetan aurkaritzazko lokailu gisara operatzen du. *Disclaimer* honen bidez, ETAre**n** eta ezker abertzalearen diskurtsoa txertatzen du, haiek parafraseatuz. Diskurtso horrek ardura ETArengandik kendu eta Poliziarengan jartzen du, eta logika justifikatzaile bat dauka oinarrian, zirkunstantzietan oinarritutako legitimazio bat eraikitzen duelako (“egoera zein zen”, 13. lerroan). Hartara, terrorismoaren *frame*-tik estrategia armatuaren *frame*-ra mugitzen da hartara hizlaria.

Hizlariak esplizitatzen du biak erreproduzitutako diskurtsoak direla, eta ez ditu erabat bere egiten: “Izan daiteke, ez dakit” zalantzazko formulek (10. lerroan) eta aipuetarako sarrera-formulek (“amarengandik entzun dut”, eta “ezker abertzalearen bertsioa da”) distantzia diskurtsibo bat eraikitzen dute narrazioaren edukiarekiko. Hain zuzen ere, distantzia horrek ahalbidetzen dio Lurri itxuraz kontrajarriak diren bi diskurtsoak elkartzea: narratzaile orojakile baten posizioan kokatzen delako bera.

Kasu honetan, beha dezakegu *kanpoko* bertsioak etxekoa kuestionatzen duela; Lurrek amaren bertsioari baino sinesgarritasun gehixeago aitortzen dio, diskurtso hori xeheago erreproduzitzen duenez eta amaren diskurtsoarekiko *disclaimer* gisara ekartzen duenez gero. Nolanahi ere, amaieran bere posizioa ezartzeko erabiltzen duen balorazio morala (“zibilak modu horretara hiltzea gehiegikeria bat da”, 15-16. lerroetan) etxetik jasotakoa da. Hau da: gertakari berari buruzko diskurtsoaren osagai emozionala familiako

testuinguruan jaso ohi dute gazteek, osagai kognitibo edo informatiboa (hau da, datu zehatzen ezagutza) bestelako iturrietatik jaso arren.

Hain zuzen ere, askotariko emozioek zeharkatutako “azpitu” horiei arreta gutxi ipini zaiela argudiatzen du Welzerrek (2005, p. 1): “Luzarogian, aintzat hartzen zen aski zela zuzeneko mezua transmititzea, lezioak asimilatuak izan zitezten”. Ondorioz, hezkuntza arautuan egiten den lanketak, sarritan, “iragan problematikoari buruz politikoki zuzena den moduan nola hitz egin” (Ibid., 2) irakasten du, geuk ere aurreko azpiatalean behatu ahal izan dugun moduan.

Emozioek eta taldearekiko leialtasunak eragin handiagoa duten testuinguruetan, ordea, beste mekanismo batzuek hartzen dute indarra. Familiaren barruan, historiari buruzko diskurtsoak eta, bereziki, familiako kideek izandako inplikazioari buruzkoak, leuntzeko edo hobetzeko joera “heroizazio kumulatibo” gisara definitu du autore honek:

“Heroizazio kumulatiboa modu azkar eta sinplean gertatzen da. Aitona-amonaren errespetatu bati buruzko irudi orokortuak marko bat eskaintzen du, eta, haren barruan, familiako istorioek iradokitako edozein erreferentzia ‘istorio on’ baterantz hedatu daitezke. (...) Honen ondorioz, egiazko kontakizunaren inplikazio gatazkatsuek eratu daitezke; lekukoaren narrazioak berrantolatatu egiten dira – ñabarduraz beteak, anbibalenteak, sarritan gatazkatsuek direnak – protagonisten jarrera moralki araztu bihurtuz”. (Welzer, 2005, p. 11)

Gure datuetan ere antzeman daitezke norberaren senideak historian posizio mesedegarri batean kokatzeko ahalegin hori. Gazteek, oro har, gatazkaren alderdi armatu edo biolentoarekin harremanik izan ez duten norbanako ahalgabe eta aspetiko moduan ikusten dituzte euren gurasoak, edo harekiko jarrera kritikoa bat suposatzen diete, *bakezale* gisara kategorizatuz. Fenomeno honen adibide argiena da hizlari bakar batek ere ez duela bere gurasoen edo aitona-amonaren inplikazioa negatiboki karakterizatzen duen egoera bat hizpidera ekarri.

Beste era batera esanda, *bortizkeriaren aurkako gurasoak* kategoria eraikitzen dute gazteok euren diskurtsoetan: oro har, indarkeria oso modu generikoan aipatzen eta irmoki gaitzesten duen talde gisara pertzibitzen dituzte euren gurasoak, baina hari buruz xehetasunez gutxitan mintzo dena. Irudi hau sarritan ez dator bat euskal gatazkaz beraz duten irudiarekin: hura garai odoltsu eta biolento baten gisara kontzeptualizatzen dutela ikusi dugu dagoeneko. Hortaz, bi marko kognitibo horien arteko disonantziaren ondorioz, ohikoa da norberaren familia gatazkatik at egon den talde baten moduan pertzibitzea. Arrazonamendu horren oinarrian dagoen hurrenkera logikoa honakoa litzateke: a) *Gatazka* biolentziaz bete izan zen; b) Nire gurasoak biolentziaren aurka daude; c) Ondorioz, ez ziren gatazkan inplikaturik egon. Gurasoen bilakaera biografiko-ideologikoa ez da aintzat hartzen egitura mota honetan.

Ondorioz, hainbat gaztek harridura agertu izan dute euren gurasoen egiazko esperientzien berri izan dutenean:

- 1 Esan didazu normalean ez dela horretaz hitz egiten zure etxean.
- 2 *Orain bai. Zeren nik ikasten dut Zientzia Politikoak eta orduan hitz egiten da.*
- 3 Eta sumatzen duzu zu gai honekin hasi zarenetik nolabait ere istorio gehiago
- 4 kontaktzen dizkizutela?

5 *Bai, hori. Bai. Eta bueno, da pixkat, joe, ba ez nekien nire aitak eta nire amak*
6 *asko zekitela honi buruz, eta asko dakite; beraientzat oso garrantzitsua da.*
7 *(...) orain dakit beraiek egon zirela ez ETArekin, baina bueno, kale*
8 *borrokarekin eta horrela, orduan, niretzako da pixka bat [harridura keinua],*
9 *zeren orain, gaur egun, oso desberdinak dira.*
10 *Eta nola kontatzen dizute?*
11 *Ba kondizio bat zela lehen. Beraiek, ez dakit, hogei urterekin edo, zen kondizio*
12 *bat. Oso, o sea, beldur asko zegoela, eta, ba ez dakit, adibidez, kazetariak edo*
13 *horrela, edo zure aita, kontzejala bazen edo horrela, beldur asko zegoela, eta*
14 *orduan ba jende asko sartzen zen, bueno, ba badaezpada. Edo adibidez*
15 *guardia zibilak hiltzen baziren, ba “Bueno, no pasa nada”.*

Laura-21-Donostia

Lauraren etxean ere bere interes batek eragiten du gurasoek gatazkari buruzko ezagutza transmititzea: hizlariaren ikasketen haritik hasi dira etxean hari buruz hitz egiten. Gurasoen esperientziak ezezagunak zaizkio alabari: bere aurrean ETArek eremu inguruko biolentzien erabilerekiko kritiko agertu izan dira, eta, beraz, kosta egiten zaio haiek *kale borrokan* inplikaturik irudikatzea. Harridura horrek distantzia kognitiboa handitzen du berak ordura arte gurasoei buruz eraiki duen marko mentalarekiko, eta bi irudiok bateratzeko, behartutako parte hartzearen narratiba bat eraikitzen du: 11-15. lerroen artean, gurasoen gaztaroko giroa berreraikitzen du, eta koakziozko testuinguru batean kokatzen du haien inplikazioa. Euren biktimizazio bat edo, gutxienez, errugabetasuna nabarmentzen duen aurkezpen *hobetu* bat antzeman daiteke eraikuntza honetan: Laurarentzat, bere gurasoek zirkunstantziak bultzatuta edo behartuta hartu zuten parte *kale borrokan*, euren egiazko balioak beste batzuk diren arren.

Heroizazio hau transmititutako edukien izaera eufemistikotik zein iraganari buruzko isiltasun autoinposatutik etor daiteke. Tesi honek iraun duen urteetan testuinguru informalean elkarrizketatu ditugun gurasoek gaia euren seme-alaba nerabeekin tematizatzeko hainbat zailtasun zerrendatu dituzte. Bereziki esanguratsuak iruditu zaizkigu preso egondako bi aitak emandako azalpenak. Lehena 1970eko hamarkadan egon zen ETAn, eta gaur egun militantziazatik aldentuta dago. Hark ez dio garrantzirik aitortzen bere esperientziari: “Ni bezala, beste asko zeuden, orduan ez zen ezer berezia”. Ez dio erabilgarritasunik ikusten bere istorioa alabei kontatzeari. “Pasatutako gauza” baten gisan ikusten du bere iragan armatua.

Bigarrenak, aldiz, badu transmisioaren inguruko kezka bat: aitortzen du zailtasunak dauzkala bere hiru seme-alaba nerabeei historiaren “bere bertsioa” kontatzeko, kanpotik jasotzen dituzten eragin eta diskurtsoetatik desberdinegia delako:

Alabak baditu nire atxilotetaren oroitzenak, eta jada politizatuegia izatearen konplexua dauka, ez dit entzun nahi. Eta, kontatuko banio, ez lidake sinetsiko; horregatik ez diot kontatzen.

Koldo, preso ohia eta nerabeen gurasoa

Hortaz, esan genezake diskurtso sozial normatiboekin bat ez datozela sentitzen dutenean, gurasoek ere euren istorioak gordetzeko tentazioa izan dezaketela, diskurtso horien hartzaile ere badirela dakiten seme-alabekin konfrontazioak saihestearren.

Etxeko transmisioaren beste ohiko mekanismo bat izan ohi da gazteek iraganari buruzko esanahiak zeharka jasotzea, berez ezagutzaren transmisiora propio orientatu gabeko elkarrizketetan *airean* harrapatuta:

1 Unai: *Bai, bai, ez da batere harrotasunik edo hasteko ene familian, hasteko,*
2 *ez; badakit. Eta adibidez, hara, ene aita izan zen preso, baina biziki labur,*
3 *hilabete batzuk, baina biziki berant jakin dut, ez dut sekula jakin. Badakit ere*
4 *erregistrazioa izan zela ere nire amatxiren etxean eta dena eta orain jakin dut,*
5 *duela bi urte edo. Eta... aski bitxia egin zautan, biziki.*
6 Xan: *Bai, nik ere adibidez, nire osaba torturatua izan zela jakin dut duela urte*
7 *eta erdi, bi urte.*
8 Elkarrizketatzailea: *Eta nola jakin zenuten? Zuek galdetuta edo kasualitatez*
9 *entzunda?*
10 Xan: *Horretaz hitz egiten.*
11 Unai: *Hara, behin aita eta ama hori erraiten, deus ez balitz bezala [Barre]. A*
12 *bai, e?*
13 Lur: *Bai, denborarekin ateratzen da. Nire osaba egon zen movida batean 80.*
14 *hamarkadan, eta ateratzen da, o sea, ez da ez galdetu, ezta haiek erran, "E,*
15 *badakizu ez dakit zer?". Ez. Da horrela konbertsazio batean, eta "Ah".*
16 Unai: *Bai. Behin horrela polizia aipatzean eta, "A bai, oroitzen naiz txera jin*
17 *zirelarik eta denak e—".*

Baiona, taldeko elkarrizketa

Iraganari buruzko ezagutzak partekatutzat ematen diren testuinguru sozial baten pertzepzioa ilustratzen dute pasarte honetan mintzo diren lau hizlariak. Guztiek ere ezagutzara kasualitatez iristearen sentipena dute, eta beti epez kanpo: Unairen “berant” adberbioak (3. lerroa) eta berak eta Xanek egiten duten denboraren enfasiak (“Duela urte eta erdi, bi urte”, 5-7. lerroetan) beranduegi heltzearen sentipen hau irudikatzen dute. Unairen umorezko adierazpenak ironiazko inplikatura bat dakar: Gurasoentzat “deus ez” den hori (11. lerroa), eurentzat, asko da.

Pasarte honek transmisioan ematen den beste arazo bat ilustratzen du bere osotasunean: aurreko belaunaldiek normalizatuta eta naturalizatuta dauzkaten gertakari eta diskurtso ugari gazteentzat ere hala izango direla eman ohi dute jakintzat. Gazteentzat, ordea, informazio berria da sarritan: familiako testuinguruan sozializatu arren, ez dira beti ezagutza eta sinbolo zehatzen interpretazioan heziak izan, eta beraz, eremu diskurtsibo ezezaguna da haientzat. Aldi berean, baina, taldearen ezagutza partekatua jakintzat emateak obligazio bat dakar berarekin: taldeko kide gisara, euren arbasoen historia ezagutu behar luketela sentitzen dute, baina galdetzeak lotsa eragiten die, honezkero “berandu” datozela ulertarazten dielako agindu horrek. Belaunaldi helduagoen aurrean ezjakin gisara agertzeko beldurra identifika daiteke euren diskurtsuetan:

1 (...) *ba hori, laguna preso [dute gurasoek]. Baina bestela ez didate kontatu*
2 *beraiek gaztetan zer egiten zuten.*
3 Familiako laguna da?
4 Bai, *oso laguna da. Nire aitak bere andrearekin txikitatik ikasita.*
5 Zenbat urte daramatza preso?
6 Ia 20. *Nik ez dut ikusi bera.*
7 Eta berataz zein irudi daukazu?
8 *Nik dakit berak kartzelan ikasi egiten duela, dela pertsona kultu baten moduan.*
9 *Ez dakit. Niri kortea ematen dit gurasoei galdetzea, eta ez dakit asko.*
10 *Azkenean, tema fuertea moduan da, eta ni informatu nintzen berak zer egin*
11 *zuen, baina asko ez dakit.*

Maite-17-Oñati

Adibide honetan, nabarmena da *besteren eremuan* sartzeko beldurra. Gurasoen esperientziarekiko sarbiderik ez duenez, Maitek beste iturri batzuk lehenesten ditu etxekoan harreman-sarea ulertzeko: “ni informatu nintzen berak zer egin zuen” narratibizazioak (10-11. lerroetan) gaztearen informazio-bilaketa aktibo bat inplikatzeko

du bere ingurune sozialeko aktore bati buruzko irudia osatzeko. Kasu honetan ere, presoak "zer egin zuen", hau da, zein delitu egozten zaion da adingabeak identifikatzen duen ezagutzazko hutsune nagusia.

Esanguratsua da Maitek lotsa ("korteia", 9. lerroa) sentitzea ustez konfiantzazkoa den eremu batean gaiari buruz galdetzeko. Bistan da berak ezin duela gurasoen esperientzia partekatu: mintzagai den adiskidea bera jaio baino lehenagotik dago preso. Hala ere, gurasoen iraganari buruzko azalpen faltak eremu tabu bat sortzen du bere etxean, eta Maitek ez du hura arakatzeko legitimitaterik sentitzen.

Familiako diskurtsoen eragina ahula denean, diskurtso publikoetatik ezarritako esanahiak eta marko interpretatiboak nagusitzen dira, edo gutxienez kontraesan argia eragiten diete gazteei. Hau are nabarmenagoa da *esanezinaren eremuan* geratzen diren esperientziak dituzten familien kasuan. Euskal kasuan, ETaren indarkeria estrategia gisara babesten edo onesten jarraitzen duten diskurtsoak sartzen dira batik bat eremu honetan. Diskurtso horiek normalizatuta dauden familietako gazteek zalantza eta zailtasun ugari adierazi dituzte elkarrizketan euren etxeko transmisioa deskribatzeko; horren ordez, askok zuzenean etxetik kanpoko mundu sozialean nagusi gisara pertzibitzen dituzten narratibekiko euren gatazkak deskribatu dituzte.

1 *Es que ez dakit. O sea, daude pila bat anekdota, baina egia esan... sin más, o*
2 *sea. Ez dakit. A ver, es que nire etxean – badakit dela super krudela, baina*
3 *dauzkagu ixiste pila bat en plan biktimen inguruan. Badakit que suena igual*
4 *un poco cruel, baina klasean ere egiten dugu barre ETaren biktimengatik.*
5 *Adibidez?*
6 *Hombre, ba daukagu WhatsAppean, bidaltzen digute un coche volador, eta da*
7 *como... chiste malo. (...) Hombre, nire ama igual gai honen inguruan bai dela*
8 *como, isiltzen dela gehiago; en plan, ez dut esan behar, zeren igual... baina,*
9 *bueno, nire aitak ez du hitz egiten honetaz, eta nire anaiak hitz egiten du kalean*
10 *sin filtros y se la suda quien piense.*

Joana-16-Arrasate

Joanak hainbat itzulinguru egiten ditu bere ingurune diskurtsiboa deskribatzen hasi aurretik. "Ez dakit" aditz errepikatuak (1-2. lerroak), kasu honetan, ez du diskurtsoaren edukari buruzko markagailu epistemiko gisara funtzionatzen (Joanak badaki zer esaten den bere etxean), haren egokitasunari buruzko zalantzazko markagailu gisara baizik (ez daki testuinguru zehatz honetan esatea zuzena ote den edo ez). "Badakit dela super krudela" formulak baimen-eskaera gisara operatzen du, ondoren datorren edukiarekiko distantzia bat erakusten baitu; haren bidez, elkarrizketan *esanezinaren eremuko* elementu bat txertatzeko ahalmena negoziatzen ari da hizlaria, bere burua hartatik urrunduz eta legitimitate handiagoko posizio batean kokatuz. Bestalde, ikasgelari egindako erreferentziak ere (4-5. lerroetan) diskurtso justifikatzaile gisara operatzen du: haren bidez, bere etxeko interakzioak salbuespentasunetik ateratzen ditu, normalizaziozko testuinguru batean txertatuz.

Horren ondoren zabaltzen zaigu haren testuinguru diskurtsiboa ezagutzeko sarbidea. Bertan beha dezakegu gatazkari buruzko elkarrizketak, neurri handi batean, umorezko klabean gauzatzen direla: "auto hegalaria" irudi hiperbolikoak (7. lerroa) Luis Carrero Blancoren aurkako 1973ko atentatuari egiten dio erreferentzia; hura partekatutako ikur sozial bihurtu da Euskal Herriko komunitate ideologiko zabal batean (Ayerbe & Olaziregi, 2016).

Joanak, ordea, aldea sumatzen du bere familiako aurreko belaunaldiak eta bereak presio sozial diskurtsiboarekiko duten harremanean: gurasoek ez dute euskal gatazkaz hitz egiten, gaitzetsiak izatearen beldurrez. Gizarteko diskurtso nagusien alderdi normatibo honek eragindako koakzioa amaren figuran eta jarreran gorpuzten du Joanak: “ez dut esan behar, zeren igual...” adierazpenean (9. lerroa), aditzaren modalitate deontikoak isiltzeko obligazio bat irudikatzen du; haren arrazoa berbalizatu gabe uzten du hizlariak, baina nolabaiteko zigor sozial baten mehatxua iradokitzen du. Hau da: Joanaren gurasoek euren ikuspegia ez sozializatzea erabakitzen dute, badakitelako euren diskurtsoek talka egin dezaketela gizartean nagusitzat edo onartutzat jotzen dituztenekin. Joanak ez ditu beldur horiek hurrengo belaunaldiarengan identifikatzen: hura bere anaiak eta gelakideek gorpuzten dute, gaiari buruzko *meme*-ak eta iritziak libreki partekatzen dituztenez gero. Paradoxikoki, Joanak berak zalantza horietako ugari adierazi ditu elkarriaz honetan bertan, modalizazio diskurtsiboaren bidez; pentsatzekoa da, hortaz, presio sozialak eta tabuaren eremuak uste dutena baino gehiago eragitea gazteon jarreretan eta inplikazio diskurtsiboan.

1 *Etxean? Es que a ver, nire aitona zen oso-oso basatia. Baina oso basatia.*
 2 *Orduan, oso era basatian hitz egin da egoeraz. Eta bai eztabaidatu dela eta*
 3 *oso era gordinean: “Hau da gertatzen dena”. Eta gero ere familiako inguruan*
 4 *oso – eragin zuzena izan da: torturatuak egon dira, espetxeratuak, eta*
 5 *azkenean, ez dakit, bada beti nik izan dudana influentzia bat. Bai, determinatu*
 6 *didan egoera bat izan da. (...) Gurasoek izan dituzte eztabaidak horren*
 7 *inguruan besteekin. Saiatzen naiz pixka bat ez esaten dena. (...) Nire etxean*
 8 *egon dira... nire amak esaten du anekdota bat, berak duen oroitzapen bat da*
 9 *nire aitona – etxean zegoen pasillo luze bat, pasilloaren alde batean nire ama*
 10 *heltzen nire aitona, eta nire aita heltzen nire amona beste aldean, borrokan –*
 11 *nahi zirelako jo, a hostias, ea benetan zinegotzi bat hil beharko zen edo ez. Bai*
 12 *egon direla eztabaidak. Nik? Pues estrategikoki nik uste fallo bat izan zela*
 13 *herriaren babesa lortzeko, baina ez dakit. Ez dakit hain txarra zen como tal*
 14 *gauza.*

Ilargi-16-Etxarri Aranatz

Ilargik enfatizatu egiten du bere etxeko diskurtso nagusien izaera ez-zuzena: “basati” adjektibo errepikatu eta nabarmendua (“oso-oso basatia”, 1. lerroan) zibilizaziotik kanpoko eremu baten metafora da, hau da, ez duena gizarteko arauen arabera funtzionatzen. Ilargirentzat, bere etxeko narratibek ez dituzte betetzen kanpoko arau diskurtsiboak, eta horrek gatazkak eragin dizkie bere familiako kideei, bai familia barruan eta baita kanpora begira ere. Gatazka horiek gurasoen eta aitona-amonen esperientzien bidez ilustratzen ditu: lehenbizikoek “eztabaidak” izan dituzte “besteekin” (6-7. lerroak), hau da, ingurune sozialeko kideekin; eta bigarrenek euren artean izan dituzte liskarrak. Ondorioz, hizlariak berak ere isiltzeko erabakia hartzen du: “Saiatzen naiz pixka bat ez esaten dena” (7. lerroa).

Ilargiren narratiban ere antzeman daiteke norbere senideen aurkezpen positibo bat: haiek torturaren eta espetxe politikaren biktima gisara erretratatu ditu, eta esperientzia hori euren jarrera ideologikoak kokatzeko marko gisara erabiltzen du. Aurkezpen honek logika justifikatzailea du, hortaz. Ilargik ere bere egiten ditu etxetik jasotako zenbait iritzi, besteak beste, biolentziaren erabilera ez zela “hain txarra” izan (13. lerroa); “ez dakit” zalantzazko modalitate epistemikoak edukiarekiko distantzia bat markatzen duen arren, kasu honetan diskurtso kuestionatu bat txertatzeko formula leuntzaile gisara ere operatzen du. Politikarien hilketak “akats estrategiko” gisara definitzea narratiba autojustifikatzaile

bat ere bada, ekintzaren arrakasta edo onargarritasuna *ingroup*-aren helburu politikoen terminoetan ebaluatzen delako, ez *Bestearen* sufrimenduarekiko enpatiatik edota posizio moral batetik.

Etxeko transmisioan identifikatu dugun beste patroia bat belaunaldi arteko jauziarena da. Hau da: gazte askok ezagutza gehiago jaso dituzte partetik, gurasoen partetik baino. Narratiba hauek, sarritan, istorio zehatzen kontakizunean oinarritzen dira, eta gazteei iraganari buruzko egoerak xeheago berreraikitze aukera ematen dietelako geratu ohi dira euren memorian iltzatuta. Gurasoen partetik askoz mezu lauso eta orokorragoak jasotzen dituztela adierazi digute:

1 *Nire familian bai zer pasatu den gainetik edo horrela, bai kontatu didate,*
2 *baina inoiz ez dira posizionatu alde batean edo esan hor gauza zehatzik. Igual*
3 *gurasoek behintzat ez; tiok edo, bai.*
4 *Eta zer da iritsi zaizuna? Nahiz eta ez kontatu zehazki zer gertatu den, zein da*
5 *zure irudipena?*
6 *Gurasoek ez didate esan ez ondo ez gaizki; pasatu zen moduan. Baina tiok bai*
7 *kontatu zidan garai hartan denek hori ondo ikusten zutela, eta momentu*
8 *horretan zela normala moduan. Orain ya gauzak aldatu direla.*
9 *Zuk atzera begiratzen duzunean, kontakizun horiek entzuten dituzunean, zer*
10 *pentsatzen duzu? Zuk ere ondo ikusten duzu?*
11 *Bai, o sea, nik ulertzen dut hemen lehengoaren moduan. Beste alde batetik*
12 *baita nire amamak esaten du berak beldur asko pasa zuela, eta bere seme-*
13 *alabek esaten ziotenean: “Ez dakit nora noa”, ba igual manifestazio batera*
14 *edo, berak esaten ziela: “Egin nahi duzuna, baina ez sartu ETAn”.*

Nagore-17-Oñati

1 *Inoiz aititeri edo eskatu diot kontatzeko istorioak, gustatzen zait jakitea en plan*
2 *nondik natorren ni. Eta bai, beti dago, ba hori, frankismo garaiko gauza*
3 *guztiak, eta bueno, nire familia gutxienez ez da izan inoiz ere – pazifikoa izan*
4 *da beti, baina bai sufritu du, presioa eta horrela, eta hori bai sufritu du. Baina*
5 *hori, beti izan dira bakearen aldekoak, hori esan didate, nik dakidala behintzat*
6 *beti bakearen aldekoak. Eta hori bai, aititek-eta, zelan opresioa-eta, kartzela*
7 *eta hori, betikoa.*

Joseba-20-Bilbo

Bi adibideotan gatazkaren naturalizazio bat antzeman daiteke: “momentu horretan zela normala” (Nagore, 8. lerroa) eta “hori, betikoa” (Joseba, 7. lerroa) zela diotenean, etxetik jasotako diskurtso normalizatzaileak ari dira erreproduzitzen bi hizlariak. Bi pasarteotan, oro har, formula leuntzaileak nagusitzen dira, batik bat gurasoen jarrera deskribatzen dutenean. Nagorek jarrera aseptikoa egozten die bereei: “Ez ondo, ez gaizki; pasatu zen” (6. lerroa). Josebak ere gatazkan inplikazio handirik gabeko norbanako moralki aratz gisara irudikatzen ditu bere senideak: “beti izan dira bakearen aldekoak” (5. lerroa) dio, ostera ere haiek biolentziarengandik urrunduz. Zehaztasunak, izatekotan, partetik jaso dituzte biek; kasu honetan, beldurrari eta frankismoko zapalkuntzari buruzkoak. Josebak berak bilatzen du aitonarekiko harremana: bere senideen esperientzia bere egungo egoeranzko *bide* gisara kontzeptualizatzen du, “nondik natorren ni” (2. lerroa) mugimenduzko eta tokiko metafora erabiltzen duenean.

Kepplerrek dioenez (1994 in Erll, 2011, p. 313), familiaren memoriak dakarren batasunaren oinarriak “oroitze partekaturako aukera eta ekintzen jarraikortasuna” dira, kontatzen diren istorioen edukia eta konsistentzia baino gehiago. Aitona-amonekin

gurasoekin baino gehiago hitz egiten duten gazteen kasuan, hortaz, ez da harritzekoa garai zaharragoetako istorioak nagusitzea euren eredu mentaletan. Gure datu bilketan ere frankismoko esperientzia ugariaren kontakizunak eskaini dizkigute elkarrizketatuek:

1 *Ba adibidez nire aitaitak askotan kontatu dit egiten zutela adibidez... bueno,*
2 *es que nik izenak ez dakizkit, baina adibidez frankistak-eta, eskolan euskaraz*
3 *berba egiteagatik zeukatela eraztun bat, eta errekreoan entzuten bazuten baten*
4 *bat, eraztuna beste horri pasatu eta eskolako ordu akaberan eraztuna*
5 *zeukanak zigorra zeukala. Eta berak esaten dit bera askotan zegoela zigortuta*
6 *zeren berak familia erabat euskalduna zeukan. Eta gero baita adibidez bere*
7 *prima bati rapatu ziotela ilea, eta baita olio arraro bat eman, diarrea sortzen*
8 *zizula, eta kalera atera, jendea ridiculizatzeko, bakarrik euskalduna izateagatik.*
9 *Orduan, alde horretatik, euskalduna zenak edo euskaragatik borroka egiten*
10 *zuenak euskaragatik, ba nik uste dut jaso duela jaso behar ez zuena. Baina*
11 *baita beste aldetik hildako asko espainolak izan arren, nik uste dut horiek ere*
12 *jaso dutela. Nik uste dut bi alderdiek. Baina ez dakit esaten ze bando edo ze*
13 *talde.*

Idoia-17-Oñati

Idoiak bere aitonaaren narrazio batean oinarritzen du euskal gatazkari buruzko bere ebaluazio globala, hitzartzearen azken bost lerroetan laburtzen duena: *Alde guztiek sufritu zuten injustuki*. Euskaldunen aurkako errepresiozko adibideak ilustratuta, bereziki *ingroup*-aren sufrimendua da enfatizatzen duena. Kasu honetan, istorio bakar bat bihurtzen da historia osoaren metonimia, hura ordezkatzeko duelako: Idoiaren narrazioan, Espainia frankistak hartzen du *Bestea*-ren tokia, eta *errepresioa* da egozten zaion ekintza negatiboa; eraztunak eta umiliazio publikoak sinbolizatzen dute kontzeptu hori. Euskal hiztunek osatzen duten *ingroup*-a, aldiz, enpatia sustatzen duten ezaugarrien bidez karakterizatzen du Idoiak: biktima rol bat ezartzen dio. Biktimizazio horren jatorria “bakarrik euskalduna izateagatik” (8. orria) ebidentzian kokatzen duenean, biktima errugabearen irudia nabarmentzen du, adibideko protagonistak ez daukalako beste ezeren ardurarik; zerbait *zelako* umiliatu zuten, ez zerbait *egin* zuelako. Bere senideen aurkako errepresio erabat injustifikatuaren narratiba eraikitzen du hartara Idoiak, baina errepresio hori sufritzen duen subjektu kolektiboa bere familiarreko harremanetatik harago doa: euskaldunak barne biltzen ditu, identitate kultural hori bihurtzen duelako sufrimendu injustuaren arrazoi. Ideia honek identifikaziorako indar handia du, pertsonen euren bizitzetan txertatutako eta errotutako elementu aldaezin gisara ulertzen dituztelako euren identitate nazional edo kulturalak. Hortaz, Idoiak erreproduzitzen duen gertakari zehatz baten kontakizunaren bidez, gatazkaren eskema nagusiago baten metafora eraikitzen du: Espainiak euskaldunen aurka modu injustifikatuan eta euren identitate nazional edo kulturala deusezteko asmoz erabilitako errepresioaren narratiba. Istorioeko protagonista gisara haur bat kokatzeak ere areagotu egiten du norbere taldearen aurkezpen positibo hau: inozentziaren sinbolo batek ematen dio ahotsa bere identitate kolektiboari.

Aitona-amonekiko harreman estuagoa dutenen salbuespenaz harago, familia zabala, hau da, gurasoen haragoko harreman sarea, euskal gatazkaz hitz egiteko eremu arazotsu gisara pertzibitzen dute gazte gehienek. Euren gurasoen artean oro har kontsentsua dagoela iruditzen bazaie ere, familia zabala iritzi anitzeko eremu gisara ikusten dute, eta ondorioz, iragana gai gatazkatsua izan ohi dela adierazi digute. Ikuspegi eta esperientzia kontrajarrien arteko gatazka diskurtsiboa taldearen kohesiorako kaltegarritzat jotzen dute, eta ez elkarrizketarako aukeratzat. Ondorioz, mahaian saihestu ohi den gai bat da:

1 *Nire familian ez da egon asko, adibidez ETakorik eta horrela, baina ni*
2 *adibidez – nire osaba batek ez zuela ezer ikusteko, bo, zen abertzalea, zegoen*
3 *ETaren alde baina ez zegoen ETAn, eta horrela, torturatu zuten eta egin*
4 *zizkioten pila bat gauza, baina bo, arrazoirik gabe. (...)*
5 *Eta berak hori kontatu izan dizu zuri?*
6 *Neri ez, nire amari. Bo, bere arrebari. Eta denok badakigu, baina neri*
7 *direktuki ez.*
8 *Eta hitz egiten da horretaz familian, edo da gauza tabu bat?*
9 *Ez dakit. Ez dugu – ez dugu asko, bo, bastante hitz egiten dugu, baina nire*
10 *amarekin, nire aitarekin hola, baina gero kanpoan hola, familia guztiarekin,*
11 *beste gauza batzuetaz hitz egiten dugu.*
12

Xan-15-Hendaia

1 *Garai horri buruz nondik ikasi duzu gehien?*
2 *Ba agian lagunen artetik, esango nuke. Ba nire etxean horrelako gaiak ez*
3 *ditugu izan – o sea, ez ditugu komentatu edo hitz egin. Azkenean nire familia,*
4 *ba, da oso ezberdina: nire amaren partetik badira ba – Valladoliden jaio zen*
5 *nire aitona, eta nire amona izan zen Extremadurakoa, orduan haien ideia*
6 *politikoak badira oso ezberdinak. Eta familiarekin elkartzen garenean ez*
7 *ditugu horrelako gairik komentatzen. Nire gurasoek pentsatzen dutena ezta ez*
8 *dakit; ez dudalako izan horrelako elkarriketarik, baina egia da beste familia*
9 *batzuek edo beste – nire lagunek daukaten giroa edo horrelakoak, ba bai*
10 *lagundu izan nauela. Adibidez, nik daukadan lagun bat, ba badauka*
11 *pentsatzeko... como gustatzen zaiola eta hori guztia, eta horrelako gaiak*
12 *gustatzen zaizkio pila bat, eta orduan berarengandik ikasi dut.*

Endika-17-Tafalla

Bi pasarteotan, hizlariak argi bereizten dituzte euren gurasoekin osatzen duten familia-zirkulu txikia eta haietatik haragoko senideek osatutako familia zabala; azken horretan ez dute euskal gatazkaz hitz egiten. Taldeak partekatzen duen ezagutza batetik kanporatuta sentitzen da Xan: osabaren esperientzia amaren bidez baino ezin dezake berreraiki, bera ez dutelako sekula eremu epistemiko-diskurtsibo horretan sartu. Gatazkari buruzko ezagutzak izan arren, haiek saihesten diren eremu gisara bizi du familia, eta berak senideek sufritutako gertakariekin lotzen du.

Endikak, berriz, iritzi aniztasuna jotzen du saihestearen arrazoitzat, hura arazo gisara ikusten delako bere inguruan: aitona-amonak Espainian jaioak izateak *per se* bestelako (edo, zehatzago, *Bestearen*) ikuspegi bat ematen dietela hartzen du aintzat, nahiz eta diskurtsoaren elaborazioan zehar onartzen duen bere gurasoen iritziak ere ezezagunak zaizkiola.

Endikaren pasarteon ageri da beste figura esanguratsu bat, bere antzera etxean politikaz hitz egiteko ohiturarik ez duten gazteen narrazioetan ere sarritan agertu dena: lagun jantzi edo politizatuaren figura (10-12. lerroak), hizlariak informazio iturri fidagarritzat jotzen dutena. Hau da: familiarik jasotako *input*-a aski ez denean, gazte hauek hurrengo ingurune sozial hurbilera jotzen dute informazio eske, Interneteko bilaketan pareko neurrian. Hain zuzen ere, ideia honek garamatza aztertu nahi dugun hurrengo esfera komunikatibora: gazteon adinkideak eta aisialdiak osatutako testuinguru sozial hurbilera.

5.2.4. Adinkideak eta hurbileko giro soziala

Familiaren ostean, adinkideak eta aisialdiko gune zein eguneroko espazioak partekatzen dituzten bestelako pertsonak osatzen dute gazteen zirkulu pribatua. Eremu komunikatibor-lazional honi (Pfleger, 2021a, p. 22) testuinguru sozial *hurbila* deritzogu, hain zuzen

ere norbanakoen arteko komunikazio-harremanak espazio horretan gauzatzen direlako. Badago testuinguru sozial zabalago bat ere, norbanakoak gizarte osoarekin edo pertsonalki ezagutzen ez dituen kideekin partekatzen duena; hartatik eratortzen dira, besteak beste, esanahien eraikuntzan eragiten duten topiko, iruditeria partekatu eta *frame* ikasiak. Azken hauek, ordea, diskurtso publikoagoen eremuan kokatzen ditugu. Hurbileko testuinguru sozialaz ari garenean, gazteen harreman pertsonalek osatutako komunitatearekiko espezifikoak diren eredu mental edo jarrerei buruz ari gara. Hauen artean, honako eremu komunikatiboak bereizten ditugu:

- a) Adinkideak: gazteen lagun taldea edo kuadrilla.
- b) *Kalea*: gazteek euren eguneroko joan-etorriak gauzatzen dituzten auzo eta herriak; lagun taldeetatik harago, aisialdiko eremu informaletan izan ditzaketen harreman-sare pertsonalak.
- c) Sare sozialak: kategoria honetan sartuko ditugu gazteek Internet bidezko sare sozialetan (Instagram, Tiktok eta antzekoetan) eta mezularitza-aplikazioetan (WhatsApp, batik bat) beste norbanakoekin dituzten interakzioak, ez edukien hedapenean diharduten enpresa edo komunikabideekin. Gazteontzat, eguneroko harreman arrunten berezko osagaia dira interakzio hauek, eta gure elkarrizketetan ere bereizketarik egin gabe mintzatu zaizkigu harremanen modalitate fisikoaz eta digitalaz. Hortaz, guk ere trataera bera emango diegu bi eremuoi, Internetek medio gisara ekintza komunikatiboari ezaugarri bereizgarri batzuk gehitzen dizkiola jakin arren. Hauen eragina aurrerago sakonago azter litekeen elementu bat litzateke, ikerketa honen helburuetan sartzen ez dena.

5.2.4.1. Adinkideak

Adinkideek osatutako lagun talde itxi edo intimoetan (esate baterako, kuadrilletan) euskal gatazkaz hitz egin ohi ote duten galdetuta, gazte gehienek adierazi dute ez dutela euren artean usu aipatzen. Horren kausen artean, iraganeko edo aurreko belaunaldiei eragiten dien kontutzat jotzea da gehienek eman duten lehenbiziko arrazoia, hau da, euren egunerokotasunerako errelebantzia falta:

1 *Bueno, pues alrededor mío hay gente que le ha tocado más directamente. Y*
2 *pues evidentemente este rechazo, pero la verdad es que no se habla mucho del*
3 *tema. O sea, no es un tema recurrente. Supongo que también porque hoy en*
4 *día hay otras cosas más importantes, y yo creo que es algo más del pasado,*
5 *simplemente. Y como nosotros no hemos vivido tanto, pues ya está. Pero en*
6 *general alrededor mío es un rechazo evidentemente hacia lo que fue ETA, o*
7 *eso.*

Paulo-19-Urnieta

Paulok paralelismo bat eraikitzen du gatazka *zuzenean* bizitzearen eta iraganaren artean. Eragin zuzenaren eta zeharkako eraginaren arteko bereizketak, hirugarren kapitulu analitikoan ikusiko dugunez (5.3. *Identitatearen eraikuntza diskurtsiboak eta posizionamendurako estrategiak*), muga bat marrazten du bere belaunaldiaren eta bere aurrekoen artean: Pauloren familian biolentzia fisikoa sufritu duten arren, berak ez du sentitzen sufrimendu horren zuzeneko lekuko izan denik; euskal gatazka *beste batzuen* gatazka da, ez berea. Hura iraganean kokatuz, hartatik distantzia har dezake, eta axolagabe gisara ikusten duen bere belaunaldiarekin bat egin.

Gazteen sozializazio eta ikasketa politikoaren eraikuntzan, eragin handia dute nerabazarotik aurrera eraikitzen dituzten parekideen arteko sareek (Larrinaga & Amurrio, 2022, p. 5). Taldearen barruko kohesioa elementu erabakigarria da gazteen posizionamenduan eta diskurtsoen sorreran. Oro har, lagunarteko iritzi batasuna desiragarritzat jotzen dute: gazteek ez dute elkar kuestionatu nahi. Hortik abiatuta, planteatzen genezake honako hipotesia: familiaren antzera, adostasun politiko eta sozialak beharrezkoak dira taldearen kohesioari eusteko; horregatik, gatazkatsu edo kontrobertitutzat jo daitezkeen gaiak saihestu ohi dira, eremu tabu bat eratuz.

1 Zure inguruko, zure adineko jendearekin, hitz egiten duzu gaiari buruz?
 2 *Bo, batzuekin bai, eta gauzak ulertzeko, baina orokorrean aski gutxi. Gero uste*
 3 *dut denok iritzi ezberdinak ditugu ere, eta ez dut... [Isilunea].*
 4 Zer dago, beldurra, aldamenekoa zauritzeko?
 5 *Bai, edo berdin – ez dakit, ez ditugu berdin beti iritzi berdinak. Ez dakit, ez dut*
 6 *eztabaida hasi nahi horri buruz, ez dakit. Egia da bai, gutti aipatzen da.*
 Unai-16-Anhauze

1 Eta hitz egiten duzue batzuetan, zuen artean?
 2 *Bai, baina ez gehiegi, ezta. ETari buruz, o sea, gatazkari buruz, uste dut hitz*
 3 *egiten – belaunaldi berriok hitz egiten dugu geroz eta gutxiago.*
 4 Zergatik?
 5 *Ba ez dakit. O sea, bai hitz egiten dugu oraindik, baina ez daukat sentsaziorik*
 6 *de debatitu dugun eta hau eta bestea, ez.*
 7 Baina iruditzen zaizu adostasun bat dagoela, edo dela gai polemikoa?
 8 *Bai, hori, da como gai oso sensiblea eta orduan, “uu”.*
 Maddi-17-Tafalla

Unairentzat, talde barruko aniztasun ideologikoak edo iritzi kontrajarriek eragozten dute gazteen arteko elkarrizketa; berak ez du talka diskurtsiborik eragin nahi, eztabaida batek taldeko harremanetan izan dezakeen eraginagatik. Maddik adierazpen foniko bat erabiltzen du gaiak eragiten dion deserosotasuna deskribatzeko: “uu” fonemak (8. lerroa) beldurra adierazten du. “Gai sensiblea” metaforak, aldiz, mina eragin dezakeen auzi bat irudikatzen du: elkarren eremu intimoegi bat zapaltzearen beldurrez saihesten dute hizketagaia.

Elkarrizketa ugaritan agertu da, ordea, salbuespen bat: lagun politizatuaren figura. Gazteen ia laurden batek aipatu du uneren batean edo bestean eurak baino jantziagoa den adiskide baten presentzia, sarritan eurentzat informazio iturri bihurtzen dena. Lagun horren kasuan, euskal gatazkarekiko interesa pasio pertsonal gisara enmarkatzen da, hau da, bitxikeria moduan; edota bere familiako esperientziengatik aitortzen zaio gaiari buruz gehiago jakiteko eta, ondorioz, hitz egiteko legitimitatea:

1 *Nire familian bertan ez, baina lagun bat daukat, oso mina dena gaur egun,*
 2 *bere aita iheslaria da, eta azken bi urteetan etorri ahal izan da berriro*
 3 *[auzora] bizitzera. Eurak [auzokoak] ziren, eta joan behar izan zuten*
 4 *Iparraldera bizitzera, Urruñara. Eta bera bertan jaio zen, hiru anai-arreba*
 5 *dira, eta nik ezagutu nituen, ba, txikitako lagunak ziren gurasoenak, eta gu*
 6 *hara joaten ginen, Urruñara, eurekin, baina klaro, aita ezin zen itzuli, orduan*
 7 *hor bizi ziren. Eta orain bi urte, baimena lortu du eta [auzoan] bizi dira berriaz*
 8 *famili guztia, eta bueltan dira.*
 Gari-20-Getxo

1 *Sí que tenemos un amigo que es, ¿cómo decirlo? Que sus padres son que*
 2 *hablan mucho euskera, que les gusta mucho el euskera y así. Y se consideran*
 3 *totalmente vascos. Pero totalmente vascos, hasta el punto de llegar a una*

4
5
6
7
8
9
10
11
12

manifestación y pues igual llevar la bandera y como realmente enfrentarse a los policías, que eso es un poco como el extremo de la izquierda. Y eso, que siempre cuenta que va a manifestaciones y pega a los policías, o se supone que ellos le pegan. Y eso.

¿Tú, cuando oyes eso, qué piensas?

Yo siempre pienso que las manifestaciones son un poco tontería, porque al final nadie va a hacer nada. Aunque tú te manifiestes, lo único que vas a hacer es que en la televisión se vea tu protesta, pero no se va a hacer nada que yo sepa, vamos.

Alex-18-Barakaldo

Bi pasarteok interdiskurtsiboak dira, hau da, hizlariak euren adiskideen diskurtsoak erreproduzitzen dituzte zeharka, eta euren esperientzia eta ikuspegi propioekin osatzen dituzte. Gariren kasuan, elementu interdiskurtsiboa lausoagoa da, ez duelako esplizitatzen zer den narraziotik pertsonalki gogoratzen duena, eta zer adiskide edo senideen bidez berreraiki duena. Suposa dezakegu bere haurtzaroaz, umearen ikuspegitik, kontatzen duena (5-6. lerroetan) oroitzapen pertsonalak direla; eta bere adiskidearen familiaren egoerari buruzko sekuentzia deskriptiboak, aldiz, kanpoko diskurtsoen berreraikuntzak.

Bi kasuetan (eta identifikatu ditugun beste hirutan), lagun politizatuaren figura hainbat ezaugarri zehatzekin lotzen dute hizlariak: etxetik politizazio maila handia jaso izana, gatazkarekin zuzenean lotu dezaketen sufrimendu agerikoren bat bizi izana inguruan, edota ezker abertzaletik gertu egotea; gaiari buruz mintzatu ohi diren irakasleen patroia antzekoa betetzen du, beraz. Horrek guztiak euskal gatazkari buruzko eztabaidan inplikatzeko legitimitate handiagoa ematen dio figura horri. Kategorizazio honen ifrentzua izan ohi da hizlariak bere buruari ezartzen dion posizioa: adiskide jantziagoaren aldean, behatzaile soiltzat du gehienetan bere burua, eta ondorioz, sentitzen du ez dagokiola hitz egitea, edo ez daukala hainbeste kontatzeko.

Inplikaturata dauden harreman interpertsonalen ezaugarrien arabera, hizlariak sinesgarritasun handiagoa aitortzen diote iturri gisara operatzen duen lagun politizatuari. Gariren narratibak, esaterako, “lagun min” baten kontakizuna du oinarri; hizlariak hurbiltasun diskurtsibo bat adierazten du, adiskidearen esperientzia eta diskurtsoak ia erabat bere eginez; ez du aipurik esplizitatzen edo markagailu modalik erabiltzen, eta hortaz erabateko inplikazioa (Martin & White, 2005, p. 197) erakusten du diskurtsoaren edukiarekiko.

Alexek, aldiz, elementu distantziatzaile gehiago txertatzen ditu diskurtsoan, besteak beste, iturriaren diskurtso aipatuarekiko sarrera-formula bat (“berak beti kontatzen du”, 6. lerroan) eta posibilitatezko markagailu epistemiko bat (“suposatzen da”, 6. lerroa). Hauek ulertarazten digute hizlariak ez dituela bere egiten adiskidearen hitzak. Areago: elkarrizketatzailearen bigarren galderari erantzuterakoan, deusezte estrategia argi bat erabiltzen du, “txorakeriatzat” (10. lerroa) jotzen duen posizioa erridikulizatuz: “Azkenean inork ez du ezer egingo” (9-10. lerroak) posibilitatezko markagailuak adiskidearen jardunaren zentzugabetasunari buruzko ziurtasuna adierazten du, oro har parte hartze politikoarekiko etsipena adierazteaz gainera.

Nolanahi ere, egin ditugun taldeko elkarrizketa gehienetan identifikatu ahal izan dugu nola eragiten duten gazteen arteko botere harremanek interakzioaren garapenean: bost taldeko elkarrizketatik lautan, taldeko kide batek adituaren rola hartzen zuen, oro har elkarrizketatzaileak proposatutako gaiak lehenbizi erantzunez, hitz-txanda gehienak bereganatuz eta hartara interakzioko abiapuntuko *statu quo*-a ezarritik. Gainerako kideek

gehienetan haren gainean eraiki dituzte euren diskurtsoak, gehikuntza bidez edo hari erantzunez; edozein kasutan, kide *adituak* ezarritako markoari eutsiz. Botere dinamika argi hauek behatu ditugun hiru elkarrizketetan, figura hau mutila zen; eta, hain zuzen ere, *aditurik* nabarmendu ez zen taldeko elkarrizketa bakarra neskez bakarrik osatutako taldearena izan da. Bosgarren taldean, *liderraren* rola familia politizatu batetik zetorren eta gazte talde abertzaleetan militatzen duen neska batek bete du. Hortaz, planteatu genezake aurrerago sakontzeko galdera gisara, genero aldagaiak ere eragina duela gai gatazkatsuei buruz eta iragan ezezagunari buruzko hitz egiteko orduan: adierazpen publiko gehienentzera, neskek ez ote diren are deslegitimatutako sentitzen eremu ziurgabeen modu irekian hitz egiteko, gaiari buruzko prestakuntza egokirik ez dutela sentitzen dutenean.

5.2.4.2. Kalea

Auzoa edo herria ere bada gazteen sozializazio politikorako ingurune posible bat, eurentzat gehienetan nagusia ez izan arren, informazio iturrien mapa bat osatzerakoan kontuan hartzea merezi duena. Familiatik haragoko, baina esfera erabat publikotik hurbilago dagoen eremu hibrido horrek hainbat eratako *input*-ak eskaintzen dizkie gazteei. Alde batetik, hurbileko pertsonen eta gertuko lekuetan jazotako gertakarien memoria errazago berrarratibizatzen delako komunitate horietan:

1 *Ba adibidez nire herrian badago jendea ETAn egon dena, eta orain dela gutxi*
 2 *askatu dutena, eta azkenean ba informatu egiten zara. Eta kasu bat izango zen:*
 3 *nire aitaren kuadrillako bat sartu zuten ETAgatik, eta orain dela bi edo hiru*
 4 *urte askatu dute. Eta herrira etorri zen. Azkenean hitz egiten jendeagaz, berari*
 5 *egin dizkioten omenaldiekin eta horrelakoekin, eta azkenean informatzen zara*
 6 *apur bat ba ze gatazka mota egon diren hor zentzuan. (...) Nik esango neban*
 7 *ez dela jada askorik hitz egiten. O sea, badagozela, adibidez, atxilotu dutela*
 8 *Frantzian, eta de repente agertzen da tema, eta igual ematen jako bolotxu*
 9 *pixka bat. Baina bestela egunerokoan nik ez dut uste jendeak esaten duena,*
 10 *“ETAk ez dakit zer”, ezezkoan nago ni. Gero, ba bai, egon zirela época batzuk,*
 11 *Segi eta horrelakoak egon zirenak, eta gaur egun badagoz, ba, e, zer esango*
 12 *dotzut, ba ezkerreko gazteria animatzen dabezenak, baina ez direz ETA. Ba*
 13 *adibidez Ernai edo horrelako ekimenak, taldeak direnak, baina ez dira ETA.*

Ekhi-21-Lekeitio

Etiket kanpoko ingurune sozial hurbilean hautematen dituen interakzio komunikatibo batzuk deskribatzen ditu Ekhi, neurri batean adierazpen publikoak direnak baina tokiko komunitate zehatz baten eremura mugatzen direnak: herriko preso baten askatzearen ondorioz egindako ongietorria (1-2. lerroa), bestelako aktualitateko albisteek eragiten dituzten eztabaidak (8-9. lerroak) eta gazte talde abertzaleen aktibismoa (11-12. lerroak). Hauek guztiak ez dira etiket jaso dituen diskurtsoak, ez eta lagun artean sortutako elkarrizketen ondorioz jaso dituenak ere, ingurune sozial hurbilean hauteman dituenak baizik. *Giroko* diskurtso hauek ez ditu ia inoiz subjektu zehatzen ahotan jartzen: bera “jendeagaz” (4. lerroa) mintzo da. Aditz intrantsitiboen erabilerak ere areagotu egiten du interakzioan inplikaturako subjektu kolektibo zehazgabe baten pertzepzioa: “ez da askorik hitz egiten” (7. lerroa), eta gaia “agertu” egiten “da” (8. lerroa). Subjektu hori *komunitate* gisara izenda genezake, baina kasu honetan hizlariaren eguneroko ingurune fisikora mugatzen den komunitateaz ari gara: bere herri, auzo edo, oro har, *kaleaz*. Hura ere bere informazio iturrietako bat dela esplizitatzen du Ekhi: “Azkenean informatu egiten zara” perpausean, bigarren pertsonako aditzak bere buruari egiten dio

erreferentzia; ezagutzara iristea giroko interakzio komunikatibo horien ondorioztat jotzen du.

Halaber, kaleak eta gazteek egunero trantsitatzen dituzten bestelako espazio publikoek hurbileko gertakarien transmisio bat errazten dutela behatu ahal izan dugu. Euren inguruan memoriazko gunerik ba ote dagoen galdetuta, elkarrizketatu bakar batek ere ez du jakin oroitarri, plaka edo antzekorik aipatzen (Velte, 2020, p. 625), baina sarritan agertu dira elkarrizketetan gatazkarekin lotzen dituzten toki fisikoen aipamenak.

Datorren adibidean, bere herrian ETAk 80ko hamarkadan Guardia Zibilaren aurka egindako eraso bati buruz mintzo da gazte bat:

1 *E... ez dakit, es que ez dakit izan zen, baina badakit (...) utzi zutela guardia*
2 *zibil bat bernarik gabe. Aitak kontatu zuen. E... Eta gainera, akusazio – es que*
3 *ibiltzen gara askotan hortik korrika, eta esan zidan: “Pues hemen ez dakit*
4 *zer”, bera gaztea zenean joan zirela eta – restoak, eta bueno.*

Ekaitz-16-Altsasu

Ekaitzek ageriko zailtasunak ditu gertakaria bere osotasunean berreraikitzeko, eta beretzat esanguratsuenak diren elementuak azpimarratzen ditu modu fragmentatuan. Analisiaren lehen zatian ikusi dugun moduan, *oroitzerakoan* nagusitzen diren elementuak batik bat bi faktoreen arabera finkatzen dira gazteon eredu mentaletan: informazioa jasotzeko unean eragin zieten inpresio edo zirrarragatik, eta haiekiko senti dezaketen hurbiltasunagatik. Ekaitzen kasuan, pentsatzekoa da biolentziaren ondorio fisiko bat irudikatzea (“Guardia Zibil bat bernarik gabe”) inpresioa eragin dion irudi bat dela; eta berak egunerokoan trantsitatzen duen espazio batean (“ibiltzen gara askotan hortik korrika”) gertatu izanak hurbiltasuna gehitzen diola gertakariari.

Efektu antzekoa eragiten dute gazteek euren herri edo auzoko kaleetan ikusi ohi dituzten margoketa politikoek ere:

1 Nondik ikasi duzu gehien euskal gatazkari buruz?
2 *Telebistan eta herrian bertan. Familian horretaz ez da hitz egiten, eta herrian*
3 *bai. Bizi guztian ikusi ditut ‘Gora ETA’ eta holakok pintadak. Hasieran ez*
4 *dakizu zer den, eta gero informatzen zara pixka bat.*
5 *Zeintzuk dira herrian entzun dituzun argumentu nagusiak?*
6 *ETAren alde, baina nik uste dela gehiago fanatismo exajeratua, ez direla*
7 *kontziente beren familiako norbait hilko bazuten nola sentituko ziren.*

Imanol-15-Arbizu

1 *Ba, ETAko hori irudia egiten dutenean, aizkora sugeagaz, ba horrelakoak*
2 *ipintzen dituen nor edo nori kriston isuna erortzen zaio, suposatzen da hori*
3 *dela terrorismoa inpulsatzea, ez dakit nik zer. Baina adibidez egiten baduzu*
4 *beste pintada bat, pintada normal bat dena, ez da ezer pasatzen. Asko jota*
5 *erortzen zaizu multa bat edo garbitzea hori, eta listo. Orduan, bai, esango*
6 *nizuke hori oraindik oso politizatuta dagoen asunto bat dela.*

Ekhi-21-Lekeitio

Gaur egun Euskal Herri osoan eta udalerrri gehienetan ETAREN biolentzia gogoratzen eta salatzen duten memorializazio-adierazpen *ofizialak* dauden arren (plakak, oroitarriak eta antzekoak, besteak beste, atentatuak gertatu izan ziren guneeetan), gazteak ez zaizkigu haiei buruz mintzatu; bai, ordea, biolentzia hori gorensten duten mezuei buruz. Pentsatzekoa da azken hauek arreta handiagoa eman izan dietela, besteak beste, euren

kutsu *klandestino* edo kontranarratiboarengatik: graffitiek lehia politikorako espazioak zabaltzen dituzte (Vogel et al., 2020), sarritan bestelako adierazpiderik topatzen ez duten diskurtsoak azaleratuz (Waldner & Dobratz, 2013). Bestalde, euren formak eta haien inguruko gatazka sozialak ere (eskuz margotuta, hormetan zuzenean; eta dakartzaten zigorrak) gazteentzat erakargarria edo deigarria izan daitekeen ez-ofizialtasunaren eremuan kokatzen dituzte, hau da, transgresioarenean.

Erreproduzitu berri ditugun bi pasarteotan, ETArek aldeko margoketei buruzko eztabaida ezagutzen dutela adierazten dute hizlariak. Imanolek gaitzetsi egiten du haien edukia, egileei “fanatismo exajeratua” (6. lerroa) egotziz. Ekhik jarrera legitimatzaileagoa edo onartzaileagoa erakusten du margoketekiko, eta haien aurkako diskurtso kriminalizatzailearekiko posizionatzen da: “suposatzen da hori dela terrorismoa inpusatzea” (2-3. lerroak) zeharkako aipu bat da, eta sarrera-formula gisara erabiltzen duen modalizazio epistemikoak hizlariaren jarrera eszeptikoa adierazten du. Nola edo hala, kaleko margoketek eta bestelako adierazpen diskurtsiboek sarritan informazio-bilaketaren katalizatzaile gisara operatzen dute, Imanolek 4. lerroan esplizitatzen duenez: “... eta gero informatzen zara apur bat”.

5.2.4.3. Sare sozialak

Ikerketaren hastapenetan, Interneteko sare sozialetako jarduera bestelako ikerketa baterako ildoak izan litekeela iritzita, ez diegu gazteei propio sare sozialetan dituzten interakzioei buruz galdetu. Nolanahi ere, elkarrizketak egin ahala ohartu gara gazteentzat euren eguneroko harremanen zati ia natural bat direla plataforma digitaletan dituzten hartu-emanak. Ondorioz, elkarrizketetan interakzio horiei egin dizkieten erreferentzia espontaneoak jasotzea erabaki dugu, gazteen testuinguru diskurtsiboaren mapa aberasteko asmoz.

Elkarrizketa gehienak 2018 eta 2019 artean egindakoak direnez, gazteek gehien aipatzen duten sarea Instagram da, alde handiarekin. Haren ostean, Twitter eta Facebook aipatu dituzte. Tesi hau idazteko unean (2022) adingabeen artean gehien erabiltzen den sarea, TikTok, zabaldu gabe zegoen elkarrizketak egiteko garaian (Iqbal, 2022); horregatik ez da ageri gure datuotan.

Sare sozial digitaletan, ñabardurak ñabardura, oro har bi erabilera diskurtsibo antzeman daitezke: alde batetik, eduki *publikoak* daude, erabiltzaileek euren jarraitzaile-sare osoarentzat edo (soslai irekiak dituztenen kasuan), publiko zabalarentzat sortzen dituztenak; eta, bestetik, interakzio *pribatuak* daude, bestelako erabiltzaileekin dituzten hartu-eman pertsonalak, batik bat WhatsApp eta antzeko mezularitza-programen bidez gauzatzen direnak.

Lehenbizikoan, adierazpenerako aukerak mugatuagoak direla uste dute elkarrizketatutako gazteek, eta hartan saihestu egiten dute gaiari buruzko posizio edo eduki esplizituak partekatzea:

- 1 Orain ezin [da] sare sozialetan edozer gauza jarri, adibidez Frantzia,
- 2 Alemanian bezala. Ba *Espanian* hori ezin da; ikusi da, ez dakit, Pablo Hasel
- 3 bezalako raperoekin. Eta anekdota bezala, *orain dela gutxi Antxo*¹⁰ hil zen, eta

¹⁰ Antxo goitizenak Xabier Rey ETArek kide eta presoari egiten dio erreferentzia. Rey 2018ko martxoan hil zen Puerto-III espetxean (Cadiz, Espainia), 26 urteko zigorra betetzen ari zela (Sola, 2018).

4 pues nik Instagramera argazki bat igo nuen, “Agur eta ohore, Antxo”, eta nire
5 arrebak erran zidan: “Kontuz zer igotzen duzun sare sozialetara”. Pues hori,
6 atxilotzen ahal zaituztela-eta. Eta holako gauzak. Nabaritzen da ezin duzula
7 nahi duzuna erran, ez dagoela espresio eskubidea.

Gorka-15-Hendaia

1 Sentitzen duzu gaur egun badaukazula gai horri buruz hitz egiteko askatasuna?
2 Em... hitz egiteko bai, baina gero idazteko ya ez. Adibidez, sare sozial batean
3 idazten badugu gure iritzia, ya izango gara kritikatuak parte guztietatik, ya
4 esango digute: “Etarra”, ez dakit zer, edo “Terrorista”. Beti badira horrelako
5 jende batzuk.

Xan-15-Hendaia

Ipar Euskal Herriko biztanlea izanagatik ere, Hegoaldeko eremu komunikatiboaz mintzo da Gorka: “Espainia” erreferentzia geografiko-politikoa darabil esplizituki. Aktualitateko gai bat (Pablo Hasel rap abeslariaren jazarpena bere abestien edukia dela medio) testuinguru historikora eramaten du, eta, hala, sare sozialetan pertzibitzen duen *esanezintasunaren eremua* askatasun konstituzionalen terminoetan kokatzen du. Senide baten bidez ikasitako autozentsurazko esperientzia propio batekin ilustratzen du normatibitate horren eragina: publikoki ez da euskal gatazkaz hitz egin behar. Gorkak argitaratutako sarrera ETako kide zendu baten (“Antxo”, 3-4. lerroetan) omenezkoa izateak areagotu egiten du kontsentsua haustearen pertzepzio hori: ez da publikoki ahoska litekeen diskurtso bat. Zigorra Xanek esplizitatzen du, subjektu zehazgabe eta orokortzaileak erabiliz: era horretako iritziak argitaratuz gero, kriminalizazioa jaso daiteke “jende batzuen” partetik eta “parte guztietatik”; hau da, gizarteko diskurtso nagusiek era horretako adierazpenak kriminalizatzen dituztela pertzibitzen du.

Pertzepzio hau ulertzeko, gutxienez bi kausa bistaratu beharko genituzke. Alde batetik, sare sozialen eta, bereziki, Instagramen erabilera bera: era honetako plataformetan memoriaz edo *memoriez* egiten den interpretazioa “iragan positiboari buruzko edukietan kontzentratzen da, erabiltzaileak oroitze alaietan inplikatzera bultzatuz” (Annabell, 2022, p. 1545). Alaitasun performatibo horrek sarearen barruko jokabideekiko espezifikoa den normatibitate bat eraikitzen du, zeinaren arabera “konfiantza, erresilientzia eta positibotasuna ‘sentimendu zuzen’ gisara indartzen diren” (Ibid., p. 1549). Hortaz, pentsatzekoa da kontrobertituak, mingarriak edota *statu quo*-aren aurkakoak izan daitezkeen diskurtsoek espazio egokirik ez aurkitzea plataforma horietan, bertako arau komunikatiboak hausten dituztelako.

Bestetik, gazteotako askok *statu quo* sozialaren luzapentzat dute sare sozialen alderdi publikoa, hau da, gizartean nagusi den diskurtsoek bertan ere antzeko boterea dutela pertzibitzen dute. Horregatik, harreman pribatuetan baino erreserba edo tentu handiagoz jokatzeko dute plataforma horietan edukiak argitaratzeko unean.

Medio digitalen eremu *pribatuagoetan* konfiantza gehiago sentitzen dute euskal gatazkarekin lotutako adierazpen diskurtsiboak txertatzeko. Hauek, ordea, umorezko eranskailu (*sticker*), *meme* eta antzeko irudien erabilerara mugatzen dira gehienetan, hau da, bestelako mintzagai bati konnotazioa edo espresibitatea eransteko baliabide gisara. Termino metaforikoetan hitz eginda, euskal gatazka armatuari lotutako elementuak jatorrizko domeinu (*source domain*) gisara erabiltzen dituzte, harekin zerikusirik ez duten bestelako gaiak kontzeptualizatzeko:

1 *Elkarrizketatzailea: ¿Se habla de estos temas alrededor vuestro? Entre*
 2 *amigos...*
 3 *Erika: Mira, es un poco así [barre, deserosotasun keinua], pero en WhatsApp,*
 4 *como mucho — yo por ejemplo no suelo hablar de ese tema ni con amigas ni*
 5 *con familiares, pero tenemos stickers, y lo que se usa muchísimo, pues para*
 6 *hacer un poco de comedia con el tema, pues mandan stickers con gente de*
 7 *ETA, o — pero no es un tema — simplemente para stickers, es lo único donde*
 8 *lo he visto.*
 9 *Jaione: Sí, lo usan un poco para hacer la gracia.*
 10 *Elkarrizketatzailea: ¿Y qué imágenes son?*
 11 *Erika: Y nada, salen — nada, gente con capuchas o haciendo algo o matando*
 12 *a alguien o... pero... y luego pone ETA en grande o cualquier otra cosa con*
 13 *las iniciales.*
 14 *Elkarrizketatzailea: ¿Y eso es habitual?*
 15 *Gabriele: A mí no me han llegado.*
 16 *Jaione: A mí no me han llegado, pero sí que he visto y es que pasan*
 17 *completamente desapercibidos, creo, dentro de todo. Yo creo que también la*
 18 *gente ni se da cuenta.*

Basauri, taldeko elkarrizketa

Pasarte honetan, hizlariak tentua adierazten dute euskal gatazkari lotutako adierazpen grafikoei ematen dieten erabileraz mintzatzeko orduan: Erikaren “apur bat horrela da” (“es un poco así”, 3. lerroa) deskribapenari hizlariak berak egindako keinua gehitu behar zaio deserosotasun hori ulertzeko. “Horrela” adberbioak, kasu honetan, kontrobertsiari edo gaiaren esanezintasunari egiten dio erreferentzia: gazteak jakitun dira gizartean sentibera izan daitekeen gai bati buruz egiten dutela umorea, eta horrekin kontsentsu sozial bat hausten ari direla. Ez dute sentitzen elkarrizketa honen inguruko espazio diskurtsiboa eremu aski segurua denik egunerokoan darabilten umoreaz modu erabat irekian hitz egiteko. Horregatik, erreparatu adierazpen hauek eremu diskurtsibo hori zabaltzeko baimen eskaera gisara funtzionatzen dute.

Nolanahi ere, gazteok normalizaziozko testuinguru batean kokatzen dituzte deskribatzen dituzten euskarriak. Erikak bi bider azpimarratzen du beretzat *sticker*-ek ez dutela “ezer” (“nada” 11. lerroa) esan nahi: banalizazio estrategia bat darabil jokabide horri garrantzia kentzeko.

Hain zuzen ere, elkarrizketa gehiagotan ere jaso ditugu gazteek umorearen erabilerari buruz egindako deskribapen eta hausnarketak. Haietatik, ondorioztatu ahal izan dugu ukatua zaien eremu diskurtsibo batera sartzeko baliabideetako bat dela umorea, bestela konplexuegi edo tabu gisara hautematen duten mintzagai bat normalizatzeko modu bat delako: umorearen bidez, eurak eroso sentitzen diren eremu diskurtsibo batera dakarte euskal gatazka. Umorea ere ez dago, ordea, arau sozialetatik salbuetsita: gazteek batik bat kontsentsu sozial handiena eragiten dutela pertzibitzen duten gertakari eta figuren inguruan baimentzen diote euren buruari umorea erabiltzea. Hauek batik bat diktaduraren testuinguruan enmarka ditzaketen gertakariak izan ohi dira, eta haietan gehien errepikatu dena Carrero Blancoren aurkako atentatua da.

Umoreak eta ironiak azpitemtu partekatu bat dute oinarri (Holm, 2017; Reyes, 1996, pp. 50–53). Komunitate epistemiko bereko kideek ezagutzen eta maiz jakintzat ematen dituzten ezagutzetan oinarrituta daude efektu komikoak, esaten denaren eta errealtate sozialari buruzko ezagutzen arteko talkak eragiten dituelako. Horregatik, kodeok ulertzeko, beharrezkoa da ezagutza horietan sozializatua izatea. Gure kasuan,

interesgarria izan da behatzea euskal gatazkari buruz hitz egiteko kodeak zenbateraino diren sarritan ironikoak, zeharkakoak eta azpitemu inplizituetan oinarrituak. Perspektiba hau migraziozko historia hurbila duten parte hartzaileek eskaini digute; euren adinkideetako gehienekin alderatuta, eurentzat prozesu kontzientea izan da euskal gatazkaren historiari buruzko ikasketa, eta hari buruzko diskurtsoen oinarrian dauden inplizituak *deszifratzeko* ahalegin bat egin behar izan dute. Ondorioz, gaiaren presentzia soziala ere bertan jaiotakoei baino nabarmenagoa dela iruditzen zaie. Azken hauen ustez, oro har gutxi hitz egiten da gaiaz euren ingurunean; haurtzaroan Euskal Herrira heldutakoek, aldiz, presentzia sozial handia antzematen diote.

Datozen bi pasarteotan, gertakari berari buruzko bi bertsio jaso ditugu. Lehenbizikoan, elkarrizketaren unea baino bi urte lehenago Boliviatik Euskal Herrira iritsitako gazte batek bere gelakide baten esperientzia berreraikitzen du; bigarrengean, gelakideak berak kontatzen du istorio bera. Parte hartzaileek espontaneoki ekarritako narrazioak dira biak, ez elkarrizketatzaileak eskatuta. Horregatik, bien arteko desberdintasun diskurtsiboak are interesgarriagoak dira:

1 ¿Cuáles fueron las primeras informaciones que te llegaron, cómo empezaste a
2 informarte sobre el tema?
3 *Lo primero que se llegó fue la Guerra Carlista con el concepto País Vasco,*
4 *después en España en general fue el régimen franquista. Y ETA. Y terminé con*
5 *ETA. Que tuve — me contaron una experiencia de un compañero que tuvo*
6 *todavía contacto y estaba en ese — que era el operativo contra los agentes de*
7 *ETA.*
8 ¿Cómo fue ese caso?
9 *Me contó que el caso era que cuando estaban — era creo que un poco de*
10 *cuando tocó lo de 2006, el atentado, y era súper fuerte el rastreo contra ellos.*
11 *Y era que estaban su familia, salían en la carretera a no me acuerdo hacia*
12 *dónde, y los agarró los agentes policiales y apuntándolos con metralletas,*
13 *como si fueran los mismos terroristas, y eran la familia de sus papás y con sus*
14 *hermanos. Yo creo que el que ha podido vivir eso lo siente más y no ha podido*
15 *o ha podido superarlo, pero queda eso - yo creo que siempre va a quedar esa*
16 *espina ahí, de lo que viste en vida, o sea, lo que pudiste ver bien, a que te lo*
17 *cuenten de fuera.*

Sebas-17-Barakaldo

1 ¿Recuerdas algún atentado en concreto?
2 *No, pero sí que recuerdo lo de las típicas matrículas de coche; que ponía*
3 *'Bilbao' y te ponían ahí como si eras terrorista, incluso en la carretera podían*
4 *ir incluso con todas las armas así, de eso sí me acuerdo, pero poco más. (...)*
5 *Me contaron que la matrícula de Bilbao que tenía mi coche, bueno, el coche*
6 *de mis padres, pues sí que como que al ser de Bilbao y estar por Madrid o así,*
7 *pues que vinieron todos los ejércitos o lo que sea. Y como vieron que tenía*
8 *matrícula, le dijeron a mi padre que tenía que levantar el maletero, para ver*
9 *si tenía droga o yo qué sé, algo. Y como vieron que estaba yo detrás, con yo*
10 *qué sé, dos o tres años, dijeron: "Pa'lante". Pero sí, curioso.*

Alex-18-Barakaldo

Bi hizlariak darabilten modalizazioak desberdintasun argiak erakusten ditu gertakari berari buruzko pertzepzioan: Sebasek trauma gisara enmarkatzen duena Alexentzat garrantzia handirik gabeko bitxikeria bat da. Lehenak egitura enfatizatzaileak erabiltzen dituen tokian (12-13. lerroetako entonazioa eta 15-16. lerroetako metafora), bigarrenak indiferentziazko makuluak eta ziurtasun falta adierazten duten markagailu epistemikoak

darabiltza: “poco más”, 4. lerroan; “o lo que sea”, 7. lerroan; eta “yo qué sé” errepikatua, 9. eta 10. lerroetan.

Alexek deskribapen orokortzaile eta lausoak eskaintzen ditu: ez ditu bereizten gatazkan inplikaturako indar armatuak (“todos los ejércitos”), eta ezezagunak zaizkio haien jardunaren hainbat alderdi: esaterako, Guardia Zibilaren errepideko kontrolek sarritan ETArekiko lotura froga zezaketen elementuak bilatzea zutela helburu. Alexek hutsune kognitibo hori *polizia-kontrol* kontzeptuari buruz alde aurretik eraikita daukan eskema mentalera joz osatzen du, eta ondorioztatzen du bere kasuan ere drogen bila ari zirela.

Sebasek, Alexen narrazioaren berreraikuntzan, jatorrizko hizlariak eransten ez dion emozio bat eransten dio oroitzapenari: gaindiezina den min edo kaltearena, arantzaren metaforaren bidez kontzeptualizatzen duena. Sebasek ez du ia distantziatzko modalizaziorik erabiltzen: bi bider baino ez ditu txertatzen bere narrazioa aipu bat dela ohartarazten duten sarrera formulak (“kontatu zidan”), eta gainerakoan narrazioaren edukia ziurtasunez erreproduzitzen du, harekiko inplikazio maila handia erakutsiz.

Ondoriozta genezake, beraz, migratzaileek sarritan errelebantzia handiagoa aitortzen dietela era honetako narrazioei, ziurrenik arreta handiagoa ematen dietelako. Sebasen pasarte diskurtsiboak euren informazio iturrietan hezkuntzak betetzen duen rolari buruzko informazio argigarria ere badakar: bere formakuntza politikoa “ETArekin amaitu nuen” baieztatzen duenean (4. lerroa), hezkuntzako testu liburuaren hurrenkerari ari zaio erreferentzia egiten. Nolanahi ere, hari buruzko ezagutza adinkideek kontatutako narrazioetan kondentsatzen da. Migratzaileentzat, hortaz, eskola sozializatorako eta transmisiorako testuinguru garrantzitsua da Euskal Herriko historiarekiko lehenbiziko harreman bat eraikitzeko, bai edukien aldetik, baina batez ere adinkideekiko elkarriketa-aukerengatik. Euren gehienetan begirale rola hartzen dute, eta euren begiradaren eta ingurukoaren artean sumatzen duten aldeak harridura eragiten die:

1 ¿Entre los amigos, qué tipos de opiniones te parece que predominan?
2 *Que el conflicto no ha acabado. Para algunos que el conflicto no ha acabado,*
3 *o que no hubo — que tampoco hubo conflicto.*
4 ¿En qué sentido?
5 *Se comentó por mensaje — tampoco tuve oportunidad de comentarlo, pero*
6 *cuando les toqué el tema así, dijeron que no había conflicto. Y no puedo*
7 *entender cómo es que ellos dicen que no hubo conflicto, entonces — pero sí,*
8 *he escuchado eso, de que no hubo conflicto. Si me lo comentaron en los*
9 *mensajes... puede ser por broma también. (...) entre amigos, entre los jóvenes*
10 *creo que se toma como de chiste, porque cuando yo llegué y pregunté, me*
11 *dijeron una broma de que Franco fue héroe de España, entonces yo me quedé*
12 *con eso y después me fui enterando realmente de quién era. Pero dicen un*
13 *poco como con chiste. Pero cuando se ha tocado en serio, hay personas que*
14 *tienen mucho odio, o hay personas también que he escuchado que sus abuelos*
15 *son seguidores de Franco. Entonces, sigue habiendo eso: hay dos bandos.*

Sebas-17-Barakaldo

Sebasi kontraesankorrak zaizkio bere adinkideen artean identifikatzen dituen diskurtsoak: alde batetik, ez du kontsentsurik sumatzen gatazkaren existentziaren (eta, ondorioz, amaieraren) inguruan. Gizartean pertzibitzen dituen bi jarrera politikoak laburtzen ditu, hortaz, pasarte honetan: gatazka tematizatu eta problematizatu nahi duen sektorearena, eta hura gatazka politiko gisara ukatzen duenarena (3.6.5.1. *ETAren amaierari buruzko narratibak* atalean deskribatu ditugu xeheago bi ikuspegi edo marko hauek). Sebasek

sumatzen du bere inguruko gazteak desberdin mintzo direla gaiaz telefono bidezko interakzioetan (“mezuetan”) eta aurrez aurrekoan. Iritsi berria izanik, hizketagai sozial arrunta dela pertzibitzen du; ondorioz, kontraesankorra iruditzen zaio gatazkaren ukazioaren diskurtsoa. Beraz, adinkideak adarra jotzen ari zaizkiola ondorioztatzen du.

Perspektiba hau oso baliagarria da ulertzeko nola jaso ohi dugun historiari buruzko ezagutza: inguruneak umorezko kodean hitz egiten du egiaz tentsioa eragiten duten gaiei buruz, hartara *esanezinaren eremurako* muga ikusezin bat gaindituz. Umoreak berekin dakarren informazio inplizituaren bidez, bestela kontrobertituak izan litezkeen baieztapen ugari ahoskatu gabe eman daitezke jakintzat. Beha dezagun taldeko elkarrizketa bateko hurrengo pasartea; bertan, euskal gatazkaren historiari buruzko denbora-lerro bat osatzen ari dira sei gazte modu kooperatiboan, garrantzitsutzat jotzen dituzten gertakariak negoziatuz eta dagozkien datetan kokatuz:

- 1 *Enaitz: Ortega Lararena noiz izan zen? Orain dela gutxi, 25 urte, 30 urte?*
- 2 *Fernando: Horrelako zer edo zer.*
- 3 *Elkarrizketatzailea: Non kokatuko zenukete?*
- 4 *Enaitz: Eh... 80ta asko, 90-gutxi. [Idoiari] Jarri 90ean eta ya está. Orain dela,*
- 5 *ez dakit, atzeneko hamarkadan, e, 25 urte egin dituela esango nuke.*
- 6 *Idoia: Zer jarriko dut, Ortega Lara...?*
- 7 *Enaitz: Ortega Lara bahiketa, arresto domiciliario.*

Oñati, taldeko elkarrizketa

Taldeko elkarrizketa gehientsuenetan antzeman daiteke rolen banaketa argi bat: kasu honetan, Enaitzek adituaren rola hartzen du, gertakari esanguratsuak proposatzeko inizatiba hartuz. Idoiak, taldeko ariketa paperean idazteko arduradun edo *aktagile* rolean, Enaitzen azalpenak espero ditu gertakaria denbora-lerroan kokatzeko. Enaitzek, ordea, zailtasunak ditu José Ortega Lararen 1996 eta 1997 arteko bahiketa kronologia partekatuan kokatzeko. Hutsune kognitibo horrek urundu egiten du interakzio zehatz honetan bere adinkideekiko hartu duen aditu roletik; hortaz, umorearen bidez *kompentsatzen* du hura, ostera ere eroso agertuz. Mintzagai duten bahiketa “arresto domiciliario” edo etxeko atxiloketa gisara definituta (7. lerroa), kasuari buruzko hainbat ezagutza elipsatzen ditu; esate baterako, Ortega Lara ETak izan zuela bahituta (eta ez Poliziak, *atxiloaldiaren* kontzeptuak literalki iradokiko lukeen moduan); *zulo* gisara deskribatutako gela batean baldintza zailtan bizi izan zela tarte horretan (*etxearen* kontzeptua biziezintasun horren paradoxa da); eta Ortega Lara bera, hain zuzen ere, espetxeko langilea zela bahitu zuten unean. Enaitzen adierazpen ironikoaren efektu komikoa gauza dadin, beharrezkoa da hartzailea ezagutza horien guztien jabe izatea, hala nola, ikuspegi moral batetik gertakariaren onargarritasuna partekatzea; bestela, adierazpenak ez luke umore gisara funtzionatuko.

Ortega Lararen bahiketa ETaren historiako ekintza kontrobertituenetako bat izanik, Enaitzek badaki haren onargarritasuna diskurtso kuestionatua edo zigortua izan daitekeela sozialki. Horregatik, umoreak muga hori gainditzeko bidea eskaintzen dio, tartean mediatzen duten ezagutza horiek guztiak modu esplizituan baieztatzeke beharrik gabe. Ezagutza faltari emandako erantzun bat ere izan daiteke umorea, hau da, norbera esfera diskurtsibo batean mintzakide gisara legitimatzeko modu bat. Esplizituki iraganaz hitz egiteko aukerarik ez dagoenean (hura tabu delako edo horretarako tresnak falta direlako), umorearen erabilerak jakitun gisara agertzeko aukera ematen du maiz.

Bestalde, auzi kontrobertituen banalizazioak haiekiko distantzia kognitibo eta emozional bat erakusten du oro har: gazteok ohartzen dira iraganean kokatzen duten gatazkak euren ingurune sozialean pizten dituen sumin eta kontrobertsiez, baina eurek ez diote hainbesteko emozionalitatearik atxikitzen. Horrek azalduko luke adinkideen arteko elkarrizketa pribatuen (Sebasek aipatzen zituen “mezuen”) eta ahoz gorako adierazpenen arteko aldea: lehenbizikoan gehiagotan baimentzen diote euren buruari umorea egitea, mintzagaiari buruzko distantzia emozionala partekatutako elementutzat jotzen dutelako komunitate zehatz horren barruan.

Distantzia emozional hau handitzen doala suma daiteke, besteak beste, gure elkarrizketak bukatu ondoren eta tesi hau idatzi bitartean euskal gatazkarekin lotutako umorearen adibide gehiago behatu ahal izan ditugulako sare sozialetan, asko umore absurdoaren kodeetan. Datorren adibidea, esaterako, erabiltzaile gazte batek 2022ko udazkenean Twitterren argitaratutako bi mezuk osatzen dute. Eduki publikoa izanagatik ere, erabiltzailearen erreferentzia ezabatu egin dugu haren pribatutasuna zaintzeko helburuarekin:



16. irudia: Umorearen erabilera sare sozialetan.

Lehenbiziko mezuaren edukia testu batek eta muntaia grafiko batek osatzen dute: bertan, erabiltzailea bera ikus daiteke ETAko bi kideekin mahai batean eserita, elkarri keinu lagunkoia eginez. Muntaia euskal gatazkaren historiako irudi ikonikoenetako baten parodia da, ETAREN komunikatuen eszenifikazioarena. Testuak muntaiaren testuingurua argitzen du: “Ez galdu DBHko 4. mailako ordezkari izateko hautagaitzarako nire argazkia”. Mezuaren bigarren zatian, erabiltzaileak bere buruari erantzuten dio, honakoa gehituz: “Hau egitea edo gelako ergela bozkatzea zen [aukera]”.

Pieza diskurtsibo honen efektu komikoa hainbat kontsentsu sozialen transgresioan datza. Alde batetik, erabiltzaileak bere burua ETAko kideen alboan kokatzen du, haiekin adiskidetu: *kaputxadunek* sinbolizatutako eta diskurtso sozial eta politiko nagusiek kriminalizatutako *gaizkiaren* alboan kokatzen da hartara. Bestalde, irudiaren erabilera hautagaitza baterako da: ikastetxeko mailako ordezkariak, neurri batean, jarduera parlamentarioa imitatzen du. Hortaz, politikaren eremura darama ETAREN jarduera, hain zuzen ere gizarte sektore batzuetan kontrobertsia sortzen duen ideia batekin lotuz: gatazkaren izaera politikoarekin. Egileak berak axolagabetasuna adierazten du bere

bigarren mezuan, bere hautagaitzaren indargunea “gelako ergela bozkatzearen” alternatiba izatea baino ez dela nabarmentzen duenean. Elementuok guztiok distantzia emozional argi bat erakusten dute inplikaturako erreferentzia historikoekiko.

Molde honetako hainbat adierazpen bildu ditugu gure ikerketaren azken bi urteetan, baita berezko datu bilketa amaitutzat jo ondoren ere. Ez ditugu hertsiki material diskurtsibo gisara aztertu, baina aintzat hartu ditugu testuingurua ulertzeko baliagarri izan zaigun behaketa prozesuan. Ondorioz, etorkizunerako helduleku gisara balio dezaketen hainbat joera identifikatu ahal izan ditugu, gure helburu zehatzetatik urrundu zitezkeelako eta espazio arrazoiengatik ikerketaren muinetik kanpo utzi ditugun arren.

Horien artean daude 2020ko pandemiatik aurrera aktibismo politikoan diharduten gazteen artean nabarmenak bihurtu diren banaketak, zehazki IA Ikasle Abertzaleak taldea ezker abertzaletik urruntzearen ondoren eta GKS Gazte Koordinadora Sozialistaren hedapenarekin handitu direnak. Gure elkarrizketen garaian (2018tik 2020ko hasierara), banaketa hauek hastapenetan zeuden, eta elkarrizketetan haiei buruzko adierazpen batzuk jaso ditugun arren, ez dira aski gatazka zehatz hauen ondorengo garapena sakonean ulertzeko. Euskal Herriko gazteen zati batek bere adinkideekin duen harremanari eragiten dion gaurkotasunezko auzi bat da hau, etorkizuneko ikerketetarako material izan daitekeena, baina tesi honetan ez duguna sakonago aztertuko.

5.2.5. Komunikabideak, esfera politikoa eta kultur produktuak

Elkarrizketatu ditugun gazteek eraiki dituzten mapa diskurtsiboak osatzeko azken urrats gisara, euren testuinguru sozial zabalean pertzibitzen dituzten *input*-ak aztertuko ditugu azpiatal honetan. Euren testuinguru garaikideko esfera diskurtsibo publikoenaz ari gara, hortaz; esfera politikoan eta komunikabideetan ekoizten diren mezuek osatzen dute, azken hauek sarritan lehenbizikoaren hedatzaile gisara operatzen dutenez gero.

Atal honek berezko zailtasunak dakartza ikerketara: diskurtso publikoak eta kulturalki errotutako iruditeria kolektiboak hain harilkatuta egonik, zaila da haiek erabilzaila zehatzen interpretazio patroietan eta ekoizpen diskurtsiboan duten eragina zientifikoki neurtzea; are gehiago guk aukeratutako metodoekin, sakoneko analisi diskurtsiboarekin. Teoriatik deskribatu izan dira diskurtso publiko eta sozialki kontsentsuatueneen boterea eta haren efektu murriztaileak (Barjola, 2018, pp. 23–24; Foucault, 2005, p. 53; Juliano, 2017, p. 44), hain zuzen ere, haien ikusezintasunean datzatenak: hain partekatua edo ezagunak izateagatik sotil edo inplizitu gisara hautematen diren esanahiak dira, lengoia naturalizatuen bidez transmititzen, finkatzen eta erreproduzitzen direnak.

Hartzaileengan dituzten efektuak enpirikoki frogatzeko, ordea, gureaz bestelako metodoak beharko lirateke; esate baterako, pertzepziozko ikerketa parte hartzaileak (Hirzalla & Van Zoonen, 2017, p. 1000; Schrøder, 2018, p. 105); nolana ere, hauek ekoizpen mediatiko zehatzei loturik leudeke betiere. Gaur-gaurkoz, hedabideetako eta esfera politikoko ekoizpen diskurtsiboaren azterketa kritikoek eskaintzen dituzte diskurtso sozial dominatzaileen efektu kognitiboari buruzko analisi zehatzenak (Van Dijk, 1996, 2008), arestian aipatu ditugun teoriekin konbinatuta. Euskal gatazkaren historiari lotutako ekoizpen diskurtsibo publikoen mapa globalago bat osatzeko, haiek esparru desberdinetatik (akademiatik edota komunikabideetatik, adibidez) aztertu dituzten autoreen berrikuspen bibliografikoa egin dugu Oinarri Teorikoetan: horrek diskurtso

publiko zehatz batzuen existentzia baieztatzeko oinarria eskaintzen digu, dauden guztiak ez izanagatik ere.

Horietatik gazteengana zer heldu den jakitea, ordea, lan nekezagoa da. Botere harremanez eta afektibitatez kargatutako harreman interpersoneko testuinguruan sozializatutako norbanakoak izaki, pentsatzekoa da eurek kontzienteki erreferentziatutako iturriak baino *input* gehiago pertzibitu dituztela euren bizialdian eta sozializazio prozesuan. Diskurtso publiko ugari modu inkontzientean prozesatzen dira, *habitus* bihurtzeraino (Scollon, 2003, p. 186), eta horrek are zailago bihurtzen du haien eragina identifikatzea diskurtsoaren bidez, ez bada gazteen narratibetan azaleratzen diren zantzu interdiskurtsiboetan erreparatuz: euren jarrera pertsonalekin kontraesankorrak izan daitezkeen terminoen, topikoen eta esaldi eginen erabilerak *kanpoko* diskurtsoren baten eragina iradoki diezaguke.

Azpiatal honetan, hortaz, elkarrizketatu ditugun gazteek euren inguruko esfera mediatiko eta politikoak nola ikusten dituzten aztertu dugu hertsiki: memoria prozesu aktiboa dela jakitun, gazteek euren testuinguru diskurtsiboari atxikitzen dizkioten esanahiak ezagutu asmo ditugu. Jakin badakigu erreferentziatu dituzten iturriak ez direla euren sozializazioan eta eredu mentalen eraikuntzan eragin duten diskurtso publiko bakarrak, eta hori kontuan izanda osatuko dugu gure analisia. Nolanahi ere, aurrerantzean ikerketa molde eta ildo berrietarako baliagarri izan daitezkeen zenbait patroi identifikatu ahal izan ditugu, eta horiek jasoko ditugu atal honetan.

Diskurtso publikoen eragina hiru azpiataletan banatu dugu: 1) gazteen jardura politikoari dagokiona; 2) komunikabideen kontsumoari dagokiona; eta, azken honi lotuta, 3) kultur produktuen kontsumoari dagokiona. Azken hauen izaera aurrekoetatik bereizten dela argudia liteke, kultur produktu gehienek (musikak edo fikziozko literaturak, esaterako) entretenimendurako eta plazer estetikorako funtzioak betetzen dituztelako. Nolanahi ere, edo hain zuzen ere horregatik, memoriaren eraikuntzan dispositibo garrantzitsuak direla argudiatzen dugu. Bestalde, gazteek publikoki eskura dituzten diskurtsoak dira, eta aipatu dituztenen artean, gehienak ikus-entzunezko hedabideen bidez iritsi zaizkie, bereziki dokumentalak eta fikziozko filmak. Horregatik guztiagatik, diskurtso publikoekin batera sailkatu ditugu analisi honetan.

5.2.5.1. Parte hartze politikoa

Euskal Herriko gazteen aktibismo molde garaikideei buruz azken urteotan egin den azterketa sakonena (Larrinaga Renteria et al., 2021, p. 16) bi testuinguru nagusitan kokatzen du euren sozializazio politikoaren garapena: alde batetik, ezker abertzalearen inguruan, “urteetan gizartean landutako kultura politiko kontrahegemonikoa” ikasiz hazi diren gazteen “mintegi” izan den eremu soziopolitikoan; eta bestetik, neurri txikiagoan, 2011tik aurrera garatutako M-15 mugimenduaren inguruan. Hamarkada bat geroago, baina, jardun politikoaren ulerkera tradizioaletik at kokatzen dute euren jarduna autore hauek elkarrizketatutako gazte gehienek (Ibid., 21), eta horren ordeztu izaera indibidualagoko aktibismo sozialaren edo “mikropolitikaren” (Ibid., 46) eremuan kokatzen dute euren parte hartzea.

Datuok iradokitzen dute biraketa bat gertatu dela 2011z geroztiko leialtasun eta identifikazio politiko kolektiboen dinamiketan. Esperientziaren bidez sozializatzen bagara, gatazka armatua gorien zegoen garaia gazteen sozializazio politikoa nabarmen

egituratu zuela esan dezakegu; haren faltan, 2011tik aurrera bestelako *koordinada* politikoen arabera kokatu eta definitu behar izan dute euren burua gazte berriek. Ondorioz, “gero eta instituzionalizatuago eta eremu politikoaren egituran integratuago agertzen diren diskurtso eta praktika politikoak birformulatu dituzte” (Ibid., 31). Joera hau gure behaketan ere baieztatu dugu: 42 parte hartzailetik bostek bakarrik adierazi digute nolabait aktiboki parte hartzen dutela antolakunde politikoren batean (hiruk Ernain, batek Ikasle Abertzaleetan eta beste batek Podemosen); beste lauk euren herri edo auzoko gazte asanbladan parte hartzen dutela adierazi digute.

Kontuan izan beharra dago aztergai dugun belaunaldiak ia ez duela ilegalizazio politikorik ezagutu: 2011n legalizatutako ezker abertzaleko alderdiak (Bildu, EH Bildu eta Sortu) *establishment* politikoaren parte ziren eurak nerabazarora iristerako. Haien inguruko sektore sozialak iraganean betetako rol kontrahegemoniko eta aktibista, hortaz, leunduta edo eremu instituzionalarekin fusionatuta pertzibitu dute gazteok. Termino hauen itzalpean interpreta litezke, besteak beste, arestian ere aipatu ditugun gazte mugimenduen arteko talkak.

Larrinaga eta Amurriok (2022) behatutako biraketa bat dator gure tesiaren lehen kapitulu analitikoan behatu dugun *gatazka* kontzeptuaren ulerkera-aldaketarekin: gazteontzat, *gatazka* terminoa ez da soilik Euskal Herriaren lurraldetasunarekin, autodeterminazioarekin edota identitate kulturekin lotutako kontzeptu bat. Areago: elkarbizitzarekin eta gizarteko botere harreman intersektzionalekin (Gandarias Goikoetxea, 2017, p. 74) lotu dute hainbatek termino hori.

Gure ikerketako datu bilketa osagarria gauzatzeko aukeratu ditugun ekitaldi publikoetako batzuetan ere behatu ahal izan dugu biraketa hori, esate baterako, Bake Prozesua Indartzeko Foro Sozialak 2021eko maiatzean hainbat gazte erakundetako ordezkariekin antolatutako *Bizikidetza landuz* izenburudun mahai-inguruan. Erakunde antolatzailearen helburu nagusiak “euskal bake prozesua babestea eta azken urteetan bizi izandako indarkeria zikloaren ondorioen konponbidea errazten laguntzea” (Foro Soziala, azkenekoz 2023an kontsultatua) zirela ezagututa, jakintzat eman genuen biolentzia politikoaren ondorengo bizikidetza erronken testuinguruan arituko zirela hizlari gazteak. Haiek, ordea, ez zuten gatazka armatua interakzio osoan aipatu, harik eta galdera-erantzunen txandan publikotik galdera bat planteatu zitzaizen arte. Horren ordez, migrazioa, prekaritatea eta genero disparekotasunak izan ziren solasaldiaren gai nagusietako batzuk. Gure ikerketarako datu gutxiegi eskaintzen zituela sinetsirik, ekitaldi hau landa lanetik at uzteko tentazioa izan genuen hasieran; ondoren, eta testuinguru zabalagoaren itzalpean, ulertu genuen gatazka armatuarekiko aipamen faltak, egiaz, geronek auresuposatutakoa baino ulerkera zabalago bat inplikatzeko zuela *bizikidetza* eta haren oinarrian dagoen *gatazka* kontzeptuaren inguruan.

Gazteei zuzendutako elkarte eta mugimendu politikoetan memoriaren inguruan egin diren lanketak ezagutzeko, bi formazio motatako ordezkariak elkarrizketatu ditugu. Alde batetik, esfera instituzionalean, Eusko Jaurlaritzaren menpeko Euskadiko Gazteriaren Kontseilukoak (EGK); eta, bestetik, ezker abertzaleko bi gazte mugimendutako (Segi eta Ernaiko) kideak.

Azken hauei dagokienez, nabarmendu beharra dago ezker abertzaleko gazte erakundeek rol zentrala izan dutela euskal gatazkaren garapen historikoan (Elzo & Arrieta, 2005),

“aktibismo herritar, parte hartzaile eta komunitario mota partikular” batek ezaugarritutako “ezker muturreko nazionalismoari lotutako azpikultura bat” osatzeraino (Larrinaga & Amurrio, 2022, p. 3). ETArekin amaieraren osteko aroan militante berriak sozializatzeko orduan, “birposizionamendu” eta narratiben berregokitze bat behatu ahal izan dute autoreok (Ibid., 10-11): “Euren jatorrizko sozializazioa gertatu zeneko erakunde politikoetatik distantziatzearen bidez adierazten da hau batik bat, nahiz eta hau gehiago gertatu den praktika politikoen terminoetan, ideologikoetan baino”. Biraketa hau kapitalismo neoliberalak markatutako indibidualizazio-joera globalen testuinguruan kokatzen dute autoreok.

Gure elkarrizketetan, erakunde bakoitzak bere zailtasun partikularrak deskribatu ditu. EGK 2000. urtean hasi zen “bakearen eta bizikidetzaren kultura” lantzen (Elvira Vidalesekin elkarrizketa, 2019ko udazkenean). Orduko bake eta bizikidetzaren arduradunaren arabera, kontsentsuzko gaiari heldu zieten hasieran, baina zailtasunak zeuzkaten tentsio handiko garaietan gatazka armatuari buruzko lanketak egiteko. Eusko Jaurlaritzako gidalerroen menpe egotea ere oztopo gisara bizi izan zuten, gobernu aldaketarekin batera gidalerrook ere aldatu zirelako 2009 eta 2012 artean. PSE-EEK gobernatutako Jaurlaritzak errezelo handiagoak zeuzkan gaiaren lanketarekiko, eta hura “etenda” geratu zen gobernu osteratuta aldatu eta 2014-2017 arteko Bake eta Bizikidetzaren Plana martxan jarri zen arte. Orduan, haren itzalpean garatu da EGKren jarduna ere:

Auziaren desideologizazioa bilatu genuen, lanketa alderdi humanotik egitea. “Zer pentsatzen duzue?” galdetzen hasi ginen gazteei, baina ohartu ginen agian oraindik ez zela unea akordioak bilatzeko; agian oraindik begiratzeko unea zen. (...) orain ere ez da hitz egiten iraganaz, baina ez haren pisuagatik, baizik eta urrun geratzen delako: ez digu gure egunerokotasunean eragiten, eta blokeo handia daukagu buruan horrekin. (...) Ausentziatik dator transmisio falta, ez isiltasunetik. Isiltasuna da zerbait ez esatea erabakitzen duzunean; ausentzia da ez dagoenean erabakirik, presioa handiegia delako edo erreferentziak falta direlako. Isiltasuna atzeragarria da, ausentzia sarritan ez. Eta hori afektuarekin lotuta doa askotan, lagunduta zaudela sentitzearekin. Ausentzian, afektu hori ez duzu berreskuratuko; hori da transmisio txar baten sinonimoa.

Elvira Vidales EGK-ko bake eta bizikidetzaren arduradun ohiarekin elkarrizketa, 2019ko udazkenean

Eremu instituzionaletik kanpo, ezker abertzalearen barruko gazte mugimenduek ere zailtasun partikularrak izan dituzte euren komunitate ideologikoaren iraganeko esperientzien ezagutza kolektibizatu eta belaunaldi berriei transmititzeko orduan. Kausen artean, bi nabarmendu dituzte elkarrizketatu ditugun Segiko eta Ernaiko kideek: ilegalizazioa eta hari lotutako zailtasun materialak, eta erakundeotako kideen errotazio bizkorra.

Ilegalizazioak batik bat 2000ko hamarkadan aktibismoan inizatutako gazteei eragin zien. Elkarrizketatu dugun Segiko kide ohia 1988an jaioa da, eta bertan militatzen hasi zenean, Poliziak hainbat sarekada eginak zituen ezker abertzalearen aurka. Jazarpenaren, bazterketa politikoaren eta ETAk negoziazio prozesuetan hartutako jarrera geroz eta zurrunagoen ondorioz, mugimendu abertzalea “gizartetik geroz eta urrunago” zegoela uste du:

Perspektiba galtzen duzu, eta presio egin nahi horretan, aldi bakoitzean pixka bat gehiago estutzen duzu tuerca. (...) Bateraguneraren eta Segiko aurreko belaunaldiaren aurka jo zuten; gu sartu ginenerako, Segi jada edo ia terrorista izendatuta zegoen. Erabat galduta

geunden, ez genekien zein eztabaida izaten ari ziren aurrekoak. Estrategia aldaketan, ez genekien nola kokatu. Sentitzen genuen ez geneukala informaziorik, ezta transmisiorik ere. Eta heldutasunik ere ez garaiko galdera politikoei erantzuteko.

Segiko kide ohiari elkarrizketa, 2018ko otsailean

Espainiako Auzitegi Nazionalak 2002an ilegalizatu zuen Segi, bere sorreratik urtebetera, ETAREN menpeko erakunde izatea egotzita. Ondorioz, gazte erakundeak bere jardunaren zati handiena erdi klandestinitatean gauzatu zuen: hainbat aldarrikapen eta ekitaldi publiko egin arren, haiek beti Poliziaren isunak edo jazarpena jasotzeko mehatxupean gauzatzen ziren. Segik 2012an iragarri zuen bere disoluzioa, eta hurrengo urtean aurkeztu zuten ezker abertzaleko gazteek Ernai, tesi hau idazteko unean aktibo jarraitzen duen erakundea.

Azken hau ETAREN jarduerarik gabeko eta ezker abertzalea legeztatu ondorengo garaian jardun duen era honetako lehenbiziko taldea da, eta behin baino gehiagotan adierazi du “euskal gatazka bizi duen azken belaunaldia” izateko eta ordezkatzeko borondatea (Ernai, 2021). Lehenbiziko urteetan (2013-2017), gatazka armatutik urruntzea izan zen haren lehentasuna, batik bat oraindik ziurra ez zen legalizazioa arriskuan ez jartzearen; aurreko gazte mugimenduen esperientziak tentuz ibiltzera behartzen zituen. Horren ondorioz, aurrekoen memoria berrartzeko inizatibarik ez zen egon 2017ra arte. 2017 eta 2019 artean, kanpaina bat antolatu zuen Ernaik, besteak beste, Haika, Jarrai eta Segi gazte erakunde ohien historia euren militanteengana helarazteko: *Bulkada berrien garaia da* lelopean, hainbat topaketa antolatu zituen, eta argitalpen batean ere jaso zuten taldeen barruko historia (Ormazabal et al., 2019).

Larrinaga eta Amurrioren arabera (2022, p. 2), ETAREN jardunaren amaieraren osteko aroak marko diskurtsibo eta termino berriak sortzera behartu ditu ezkerreko abertzaleak: “Nazioa subiranotasunagatik ordezkaturia izan da”, hau da, askotariko interpretazioak ahalbidetzen dituen termino bategatik, eta, aldi berean, subiranotasunaren ulerkerak kolektiboak zein norbanakoaren bizi estiloari lotutako ulerkerak indibidualak “marko kontzeptual partekatu baten azpian” bateratzea ahalbidetzen duena.

Horrek oso urte gutxian distantziamendu bat ekarri du gazte aktibisten artera: belaunaldi berrien politika ulertzeko modua eta hura praktikan jartzeko moldeak urrundu egiten dira aurrekoek ikasitakoetatik. Erakunde hauetako parte izateko adin-baldintzak, bestalde, kidegoa urte gutxian berritzea dakar, eta horrek areagotu egiten ditu euren arteko distantzia eta transmisiorako zailtasunak:

Duela hiruzpalau urte hitzaldiak antolatu genituen mugimenduko jende helduagoarekin, eta formakuntza saioak ere bai. Jendeak bazuen interesa. Baina badakizu zer gertatzen den? Gure militantzia oso azkar aldatzen da; militanteen batez besteko adina 18 urte da. Horientzat, duela lau urteko topaketak jada urruti daude. Urtero egin beharko genuke formakuntza bera.

Ane Zaldua Ernaiko liberatuarekin elkarrizketa informala, 2021eko abenduan

Gure ikerketako parte hartzaileen artean, soilik bik aipatu dituzte euren aktibismoko sareak euskal gatazkaren historiari buruzko ezagutza iturri gisara. Oro har, gehienek ez dute gaiari buruzko ekitaldietan parte hartzen, ez bada hurbileko norbaiten omenaldietan, esate baterako, preso baten ongietorrian edo, salbuespenez, ETAREN biktimaren batenean (azken honetara biktima senide zuzena denean baino ez). Sare aktibistetan lantzen

dituzten gaiak gaurkotasunean kokatzen dituzte, eta gutxitan lotzen dituzte *euskal gatazka* terminoaz egiten duten kontzeptualizazioarekin, hura iraganeko auzitzat dutenez gero.

Hurrengo pasartean, justizia errestitutiboari buruzko liburu aurkezpen batera joan zeneko esperientzia narratzen du elkarrizketatutako gazte batek:

1 ... fue mi tía que la que me dijo: “Vienes?”. “Sí”. E... ‘Tras las huellas del
2 terrorismo en Euskadi. Justicia restaurativa: convivencia y reconciliación’. Y
3 nada, eso: fui y dijeron eso... hubo un momento, en que veías el auditorio, y
4 todos eran mayores que yo, el más joven era yo. Entonces, claro: en un acto,
5 bueno, en este caso una presentación de libro, también presentación del
6 documental, que vienen a hablar dos víctimas de ETA que te cuentan su
7 experiencia y que además han sido parte de los encuentros restaurativos, que
8 para mí los considero un ejemplo a seguir para la construcción de la sociedad,
9 pues gente de mi edad que desconoce todo eso... al final es una pena. Es lo
10 que dice mi ama: al final, a este tipo de actos vamos los de siempre. Entonces,
11 la historia se queda donde siempre, no sale. La cosa es que tiene que salir.
12 Pero ya te he dicho, los de mi clase: “¿Encuentros restaurativos? ¿Qué es?
13 Ni idea”.

Ibai-20-Donostia

Ibai ETaren biktima baten senide gisara iritsi da deskribatzen duen espazio horretara: senide helduago batek eramanda, eta ez bere inizatibaz. Interes edo motibazio pertsonal horrek bera eta bere familia (*ingroup*) gainerakoengandik bereizten dituela sentitzen du. Intertestualitatearen bidez, bere inguruan sumatzen dituen bi hurbilketa epistemikoak esplizitatzen ditu: alde batetik amaren ahotsa dago, “betikoen” esperientzia “betiko tokian” geratzen delako atsekabetuta; hizlariak bere egiten du posizio hau. Bestetik, espazio metaforiko horretatik *kanpoko* eremua dago, berak bezala biolentziaren esperientzia zuzenik izan ez duten adinkideek osatzen dutena. Bertan, indiferentzia da nagusi. Hizlaria bi eremuotan sentitzen da salbuespen: biktimen eta interesatuen eremuan, gaztea izateagatik; eta adinkideen artean, gatazkaren memoriarekiko interesa izateagatik.

5.2.5.2. Komunikabideen kontsumoa eta haiekiko jarrerak

Esanezinaren pertzepzio argia dute gazteek, eta hau euren testuinguru sozialeko lehia diskurtsiboen ondorio dela argudiatzen dugu. Edozer esan ezin den eremu bat da *kanpoa*, hau da, esfera diskurtsibo publikoena. Siltasun normatibo hau modu esplizituan ikasten dute askok etxean, adibidez, datorren pasarteko hizlariak:

1 Mi ama sí que me acuerdo que me decía que no dijera nada en la ikastola, por
2 si me miraban mal o así. Me decía: “Tú no digas nada de que tu osaba está en
3 la cárcel, ¿eh? Y menos por qué está”. Siempre me decía eso.

Nora-21-Getxo

Pasarte honetan, hizlariaren amak gorpuzten du familiako testuinguruak sarritan arau sozialen eta diskurtso pribatuen artean bete ohi duen interfaze funtzioa. Ikastetxeak, aldiz, *kanpoaren* edo eremu publiko eta, beraz, normatiboaren tokia betetzen du. Gizarteko diskurtso nagusiek duten izaera normatiboaren ondorioz, baina, portaera-arau inplizituagoen bidez ere ikasten dute gazteek zein diskurtso diren onargarriak eta zeintzuk zigargarriak. Komunikabideak gatazken bilakaeran zuzenean inplikaturako aktoreak dira, hari buruzko diskurtsoak, eskemak eta narratibak eraikitzen dituztelako hautu linguistiko, sinboliko eta semiotiko zehatzen bidez, eta horretan datza haien posizionamendua. Haien hedadura eta sinesgarritasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta boteretsuagoak izango dira eraikitzen dituzten diskurtsoak. Horrez gain, izaera informatiboko

komunikabideen iturri nagusietako bat erakunde eta alderdi politikoetako jarduerak eta haien komunikazio bulegoek sortutako diskurtsoak dira; *mass mediak* hertsiki lotuta daude, hortaz, gizarteko botere politikoei, sarritan haien bozeramaile bihurtuz, zuzenean zein zeharka.


Ikergai dugun belaunaldiko gazteek oro har komunikabide tradizional gutxiago kontsumitzen dituzten arren (Mimenza Castillo & Amezaga Albizu, 2022), nagusiki medio digitaletatik jasotzen dute haien eragina. Analisiaren atal honetarako, euren komunikabideen kontsumoaz galdetu diegu, eta eman dituzten erantzunen artetik, “sareak”, “Googleko albisteak” eta antzeko deskribapen orokorrak baztertu ondoren, gutxienez komunikabide zehatzen bat identifikatu duten erantzunak hartu ditugu aintzat. Denera, 42tik 25 parte hartzailek aipatu dute ohikoan kontsumitzen duten komunikabideren bat edota euskal gatazkarekin lotuta gogoratzen duten pieza informatibo zehatzen bat.

Irudi zehatzago bat osatzeko asmoz, komunikabide hauek euren erreferentzia-eremu geografiko eta politikoen arabera sailkatu ditugu, bost kategoriatan:


- a) Tokikoak: herri edo auzoetako komunikabideak.
- b) Nazionalak: Erreferentzia gisara Euskal Herria dutenak, baina ikuspegi nazional batetik, hau da, Estatuko ikuspegiarik gabe edo hura bigarren mailan kokatuta.
- c) Erregionalistak: Euskal Herrian edo hartako lurralde bat erreferentzia nagusizat dutenak, baina hura Espainiako / Frantziako erregio edo eskualde gisara ikusten duen marko orokor baten barruan.
- d) Zentralistak: Erreferentzia gisara Espainiako edo Frantziako estatuak dituztenak, eta haietako hiriburu edo hiri nagusietatik estatu osorako editatzen direnak.
- e) Mundukoak: aurreko kategorietan aipatutako eremuetatik kanpoko edozein gune geografiko erreferentzia puntutzat dutenak.

Gehien aipatutako komunikabideak EiTb taldeko telebistak eta irratia izan dira (%22,2); gehienetan, hizlariak ez dute zehaztu zein, eta soilik “ETB” gisara deskribatu dute. Posible da, hortaz, aipamenok ETB1 euskarazko kateari zein ETB2 gaztelaniazkoari erreferentzia egitea. Euskal irrati telebista publikoaren taldeari jarraitzen diote Espainiako telebista kate nagusiek (%16,6; nagusiena La Sexta izanik, aipamenen %11rekin) eta Vocento taldeko egunkari erregionalistek (%14,8). Bi hauei egunkari zentralistak batuta, marko geografiko eta politiko nagusi gisara Espainia duten komunikabideek aipamenen %27,76 jaso dituzte. ETBekin batera eremu nazionalean kokatu ditugun gainerako hedabideek, aldiz, %16,6 jaso dute.

Ondoren, gazteok egindako aipamenak hiru aldagaien arabera sailkatu ditugu: komunikabideen kontsumorako hautatutako hizkuntzaren arabera, hizlariaren ingurunearen politizazio mailaren arabera eta haren identifikazio politikoaren arabera. Aipamen kopurua hain urria izanik (n=54), emaitzek ez dute ondorio adierazgarriegirik eman, baina bai ikertzen jarraitzeko intuizio batzuk:



17. irudia: Komunikabideen kontsumoa, politizazio mailaren arabera.



18. irudia: Komunikabideen kontsumoa, hizkuntzaren eta identifikazio politikoaren arabera.

Datuok iradokitzen dute ingurune politizatua duten gazteek gehixeago kontsumitzen dituztela erreferentzia nazionalako hedabideak, nahiz eta estatuko marko erreferentzian argitaratzen direnak ere ohikoan asko kontsumitzen dituzten. Gazte ez politizatueta, azken hauek (zentralistak eta erregionalistak) gehiago dira nazionalak baino. Kontuan izan beharra dago datu sail honetan “nazionala” kategoriak ia eskusiboki EiTB taldeko kateei egiten diela erreferentzia: kategoria honetako gazteetatik, bakar batek aipatu du erreferentzia nazionalako beste hedabide bat (*Berria*). Plantea liteke, beraz, euskal telebista publikoa eta Espainiar markoko komunikabideak *mainstream*-aren parte direla, interes edo motibazio politiko nabarmenik gabeko gazteengana heltzeko gaitasuna dutelako, politizatuengana heltzeaz gain. Euskal Herria nazio gisara ardatz hartzen duten komunikabideak, aldiz, kontsumitzaileen politizazio maila handiago batekin lotzen dira.

Joera ideologikoa zeinahi izanik ere, oro har gehiago kontsumitzen dira gaztelaniazko edo frantsesezko hedabideak ia kategoria guztietan, tokiko hedabideetan izan ezik. Halaber, ñabardura bat gehitu behar zaio 16. irudiko azken grafikoari (*Definitugabeak*): komunikabide *nazionalen* gailentasuna EiTB taldearen nagusitasunagatik da. Hizlari gehienek ez dute zehaztu talde horretako zein kate kontsumitzen dituzten, eta gehienetan

“ETB” designazio orokorrarekin izendatu dute. Euskal telebista publikoak euskarazko zein gaztelaniazko kateak edukita, posible da izendapen horrek bietariko edozeini egitea erreferentzia. Haiek sailkatzeko ezintasunaren aurrean, propio “ETB2” zehaztu dutenetan izan ezik, elkarrizketaren hizkuntzaren arabera atxiki diogu “ETB” kontzeptuari hizkuntza bat edo beste; elkarrizketa gehienak euskaraz egin ditugunez, aipamen gehienak euskarazko hedabideen kategorian ageri dira, baina posible da haietako batzuek gaztelaniazko kontsumoarekin lotuago egotea.

Nolanahi ere, ez da gure asmoa komunikabideen produkzio diskurtsiboa aztertzea, ikergai ditugun gazteek hari ematen dizkioten esanahiak ezagutzea baizik. Horregatik, hedabideetako diskurtso orokorren pertzepzioa aztertu dugu lehenbizi. Behatu ahal izan dugun interpretazio nagusietako baten arabera, gazteek pertzibitzen dute hedabideak euren komunitate ideologikoei egokitutako diskurtsoak eraikitzen dituztela, eta aukeraketa horren arabera gaztakaren historiako hainbat pasarte eta ikuspegi elipsatzen dituztela:

1 Komunikabideetan irakurtzen dituzun gauzak uste duzu bat datozela
2 pentsatzen duzunarekin, edo badago talka bat?
3 *Depende ze komunikabidetan. Oro har komunikabide euskaldun ez*
4 *publikoetan, hau da, ‘Berria’-n – ‘Naiz’ ez dakit sartuko nukeen, baina Euskal*
5 *Herriko guttienez bai. Horietan nik azpimarratuko nuke batez ere ‘Berria’-ren*
6 *partetik neutraltasun bat eta egokitasun bat; ‘Naiz’-ek, badakigu zein den bere*
7 *ildo editoriala, eta ondorioz nik bat egiten dut, baina ulertzen dut zati bat*
8 *elipsatzen duela. Eta euskal komunikabide publikoetan, hau da, EITBn, eta*
9 *gero eskuinerago joanez, izan daiteke Vocento taldean, beste aldea elipsatzen*
10 *da, eta nire ustez elipsi horiek ez dira positiboak. Gaur egun gaude momentu*
11 *batean gatazka bukatzen ari dena, alde batetik edo bestetik, eta historia*
12 *idaztea tokatzen zaigun momentu batean gaude, eta historia nire ustez elipsirik*
13 *gabe idatzi behar da. Eta edo dena elipsatzen da, edo dena kontatzen da.*
14 Zer da zure ustez falta dena kontatzeko oraintxe bertan? Zuk zer jakin nahi
15 zenuke?
16 *Nik jakin nahiko nuke, nahiko nuke modu bat dena, hau da, bi aldeetako*
17 *gertakari guztiak dokumentatuak egoteko modu bat. Dena jakiteko: hartzeko*
18 *bai nik, baina baita ere nire gelan ikusten ditudanek, gai honi buruz jakin*
19 *nahiko luketenak eta erabat galduak daudenak, etxean ez dutelako aipatu edo*
20 *haiek ez dakitelako non bilatu, dokumentu bat edo, ez dakit, entziklopedia bat,*
21 *Wikipedian orrialde bat, dena dokumentatuta dagoena: “Euskal gatazka”.*
22 *tak. Eta hemen dena irakurtzen ahal dut; bi aldeetako sufrimendua hemen*
23 *narratua daukat eta ez dakit... ez da erraza, lan dena da, baina historia idazten*
24 *hasi nahi badugu nire ustez hori behar-beharrezko lana da.*

Lur-16-Hendaia

Politizazio maila handiko hizlari baten pasarteak ekarri dugu; Lurrek abertzaletzat du bere burua, bere adinkideek kontsumitu ohi dituzten baino komunikabide gehiago kontsumitzen ditu, eta haien artean bereizketa kritikoak egiteko gai da: esplizitatu gabe uzten du bere ustez *Naiz* komunikabideak oro har ezker abertzalearen bertsioa erreproduzitzen duela (6-8. lerroak), eta esplizitatzen du komunikabide publikoek eta espainiar markoek (*mainstream* gisara kokatu ditugunak) hain zuzen ere alde hori uzten dutela ikusezin. Ondorioz, diskurtso nagusizat bigarren hau pertzibitzen duela ondoriozta genezake.

Interesgarria da, halaber, hizlariaren beraren posizionamendua pasarte honetan. *Outgroup*-aren hedabideei ez ezik, bere joera ideologiko berbera dutenei ere historiaren

narrazio partzial intentzionatu bat egitea egozten die, berari eta bere belaunaldikoei “dena jakiteko” (17. lerroa) eskubidea ukatuz. Lurren ustez, hedabideen betebeharra da informazioa ez ezkutatzea, eta hori modalizatzaile deontikoen bidez adierazten du (24. lerroa). Aukeratutako isiltasunak eta ildo editorial zehatzek hedabideak *de facto* gatazkaren bando batean edo bestean kokatzen dituztela interpretatzen du; ez soilik *ingroup* gisara kategorizatutako komunitate ideologikoekiko, baizik eta baita gazteekiko ere.

Hartara, euren belaunaldiaren interesen aurka diharduten aktore gisara ikusten dituzte gazteek komunikabideak, euren ezjakintasuna modu interesatuan elikatzen dutela interpretatzen dutelako. Lurrek bere gelakide ez politizatuen figura erabiltzen du harreman hori irudikatzeke. Aurrerago xeheago aztertuko dugun metaforizazio espazial baten bidez, euskal gatazkari buruzko eztabaida eta eremu kognitiboa *lurralde* metaforiko baten moduan kontzeptualizatzen du, eta hartan mugitzeko tresna diskurtsiborik ez duten gazteak “galduta” daudela argudiatzen du. Hau da: komunikabideek, euren elipsi eta posizionamenduen bidez, lurralde trantsitaezin bihurtzen dute euskal gatazka gazteentzat.

Haiekiko kontrapartea *Wikipedia* kontzeptuak ordezkatzeko du Lurren narratiban. *Wikipedia* Interneteko entziklopedia kolaboratiboa da, ustez izaera demokratiko eta polifonikoduna, edozein erabiltzailek editatu dezakeen neurrian. Bertan ere botere lehiak dauden arren, Lurrek informazioaren eskuragarritasunagatik aipatzen du adibide desiragarri modura.

Politizazio maila apalagoa duten beste parte hartzaileek ere identifikatu dute joera bat komunikabideen diskurtso nagusian. Oro har, komunitate abertzalea ikusgarritasun gutxiren edota diskurtso deslegitimatzaileen objektu dela sentitzen dute:

1 *Adibidez, atzo ‘Ur Handitan’ ikusten egon nintzen, eta hor agertzen ziren bi*
2 *aldeetakoak. Bat agertu zen ETAKoen laguna edo, ba alde horretan zegoena,*
3 *eta horrek ere torturak jaso zituela, eta beste aldetik ETAk bonba bat jarri eta*
4 *horregatik secuelak zeuzkana. (...) Ez dakit, jeneralean ikusten dut oso*
5 *gainetik, terrorismoaren — bueno, terrorismoaren ez, baina nazionalismoaren*
6 *aurka bai ikusten direla zera batzuk. Zuk gero zure iritzia edukitzeko eta*
7 *gehiago jakiteko nik uste dut topatu egin behar duzula, horrekin bakarrik ezin*
8 *duzula jakin.*

Nagore-17-Oñati

Nagorek aipagai duen *Ur Handitan* saioa ETB1 euskarazko kate publikoan emititzen den aktualitateko erreportaje-sorta bat da, gizarteko auzi arantzatsuak lantzeagatik ezaguna. Saioaren gaitegia ez da euskal gatazka, baina landu izan dira harekin lotutako auzi garaikide batzuk, besteak beste, presoen egoera eta, kasu honetan, gatazkarekin lotutako biolentzien ondorioak. Kasu zehatz honetan, 2018ko maiatzean emititutako *Elkarri begira* (Ur Handitan, 2018b) deitutako saio bikoitzeko atal bat du mintzagai Nagorek.

Dokumentalaren planteamenduan oinarrituta, gatazkaren *bi aldeei* buruzko narratiba dikotomiko bat eraikitzen du hizlariak, zeinetan “ETAKoen lagunak” eta haren biolentzia sufritu dutenak polarizatzen dituen; biktima eta biktima-eragilezko eskema argi bat da, hortaz. Bere narratiban, *terrorismoa* kontzeptuak ETARI egiten dio erreferentzia, eta *nazionalismoa* kontzeptuak, ezker abertzaleari: lehena bere ekintzengatik (eta haien efektuagatik) definitzen da hartara, eta bigarrena bere joera ideologikoagatik. Biak ala biak marko erreferentzial gisara Espainiako estatua duten komunikabideek erabili ohi

dituzten designazioak dira: haietan, espainiar nazionalismoa oro har ez da halakotzat jotzen (haren hegemonia, hain zuzen ere, bere ikusezintasunean datza), eta, aldiz, estatu mailaz azpiko komunitate politikoen subiranotasun-eskaerak kategorizatzen dira *nazionalismo* gisara. Terminoak markatze ideologiko eta peioratiboa izan ohi du, *outgroup* baten eraikuntzarako dispositibo gisara operatzen duenez gero.

Asoziazio mota hau euren komunitatearen aurkako seinalamendu gisara pertzibitzen dute abertzale gisara autodefinitutako gazteek:

1 *Gero kanpotiar batek erranen du: "Hara, Euskal Herria, terroristak eta dena",*
2 *eta ez, bistan da ezetz, baina ez da — gero behar da ulertu ere besteek hori*
3 *pentsatzen dutela, eta berdin hara, ber[e]n garaian telebistan aipatu zelarik e*
4 *— horrela, ez dakit, ETAREN bonbak-edo, bistan da ez zirela ikuspuntutik – ez*
5 *direla aipatuko, hara, bonba pausatzean hil zirenak edo berdin gehiago, eta*
6 *ulertzen ahal da kanpotiarrek ere, uste dut, en fin, ikuspuntu hori ukaitzea,*
7 *nahiz eta hala ez den egia, baina berdin: ez dugu batere ikuspuntu bera ene*
8 *ustez euskal herritarrek eta beste kanpo guztiek.*

Unai-16-Anhauze

Ikerketaren abiapuntuko gure intuizioetako bat gezurtatzen du pasarte honek: Ipar Euskal Herriko gazteek presio mediatikoaren pertzepzio txikiagoa dutela Hegoaldekoek baino, eta, ondorioz, politikoki zuzentzat jotzen diren narratibak eraikitzeke obligazio txikiagoa sentitzen dutela, besteak beste, euren testuinguru sozialak euskal gatazkarekin izan duen harremanaren ezaugarriak direla medio. Alde batetik, ETAREN jarduna nagusiki Hegoaldean gauzatu zen; Iparraldean gatazka armatuaren aurpegi *humanoago* bat ezagutu zuten errefuxiatuen bidez; eta, bestalde, ETAREN desarme prozesuaren lekuko hurbil izan dira bertako herritarrak. Egia da Ipar Euskal Herriko parte hartzaileen posizionamenduan zalantzazko modalizatzaile gutxiago eta atxikimendu esplizituagoak antzeman ditugula, baita Hegoaldeko parte hartzaileen artean ia agertu ere ez diren adierazpen eta hausnarketak ere estrategia armatuaren baliagarritasun eta legitimitate posibleen inguruan, baina komunikabideei dagokienez, Hegoaldeko adinkideen antzeko pertzepzioak dituzte. Honen arrazoietako bat izan daiteke elkarriketatu ditugun Ipar Euskal Herriko lau parte hartzailetik hiru Hegoaldeko familietakoak izatea eta mugan bizitzea.

Erreproduzitu dugun Unairen adibidean, ez du zehazten nongo komunikabideen estalduraz ari den: oro har, “kanpotiarrek”, hau da, euskal herritarrak biltzen dituen komunitatetik at geratzen direnek, *mass mediak* baldintzatutako irudi okerra dutela uste du, *ingroup*-a kriminalizatzen duena. Ardura komunikabideengan ipiniz, *outgroup* horiekiko enpatiazko lotura eraikitzen du hizlariak, haien posizioak errugabetasuneko narratiba batean txertatuz.

Nolanahi ere, kontuan izan behar dugu gazte askok ez dituztela komunikabideetako diskurtsoak modu kontziente eta aktiboan prozesatzen, ez eta euren inizatibaz bertara jotzen ere informazioa bilatzera. Elkarriketatu ditugun gazteen %40k ez dute *mass mediatako* produktu zehatzik gogoratu haien kontsumoaz galdetu diegunean; haien artean, sare sozialei eta hedapen-plataformei buruzko erantzunak nagusitu dira batik bat.

1 Komunikabideak kontsumitzeko ohiturarik baduzu, aktualitateaz
2 informatzeko?

3 *M... erdizka. Bai, baina ez. O sea, según ze gaiak bai, interesatzen zaizkidan*
4 *gaiak bai begiratzén ditudala berrietan eta hori guztia, baina gutxi. Ez ditut*
5 *asko kontsumitzen.*
6 *Eta zein komunikabide edo sare izaten dira?*
7 *Ba Googlen ateratzen diren berri horiek, hasteko. Horiek, eta, ez dakit, gutxi*
8 *– ezer gehiago.*

Endika-17-Tafalla

1 *¿Qué medios sueles utilizar para informarte sobre la actualidad?*
2 *Pues Internet. Y por la tele o así.*
3 *Y en Internet, ¿suelen ser más redes sociales, o algún medio en concreto?*
4 *Quizá las noticias que te vienen en Google, pero bueno, nunca sabes si son de*
5 *verdad con certeza. O sea, siempre con — que nunca me creo cien por cien,*
6 *porque nunca sabes si... luego si sale en la tele o se oye o así, pues ya es*
7 *diferente.*

Elena-17-Barakaldo

Bi pasarteok komunikabideak kontsumitzeko modu *ez-intentzionatu* edo ausazko baten existentzia iradokitzen dute. Gazteok ez dituzte hedabideak euren edukiagatik edo ildo editorialagatik aukeratzén: sareetako bilatzaileetan promozionatutako edukiekin egiten dute topo. Endikak zein Elenak subjektu espliziturik gabeko aditzak darabiltzate prozesu hau deskribatzeko: albisteak “agertu” edo “atera” egiten dira, eta gazteon arreta erakartzen dute. Endikak jarrera anbibalentea erakusten du bere kontsumo ohiturekiko: ez da gai argi bereizteko zeintzuk diren bere kabuz bilatzen dituen edukiak eta zeintzuk kanpoko kanalen bidez bideratuta heltzen zaizkionak.

Datu hau aintzat hartzeko elementua da etorkizuneko komunikabideen eta haiei lotutako joera ideologikoen analisirako, zeinetan sarritan jakintzat ematen baiten komunikabide baten audientziaren ideologia gutxi-asko bat datorrela komunikabidearen ildoarekin (White, 2020, p. 405), eta ikus-entzule edo irakurleek produktua bere osotasunean kontsumitzen dutela. Kontrara, gure datuetan behatu ahal izan dugu gazte askok ez dituztela hedabideak *pakete* ideologiko edo informatiboen moduan kontsumitzen, hau da, ez dute egunkari edo kate zehatz batetara jotzen haren koherentzia editorialagatik edota euren uste eta jarrerekiko izan dezakeen hurbiltasunagatik. Ondorioz, elkarrizketaren uneren batean produktu mediatiko bat edo beste aipatzeak ez ditu hura argitaratu den medioaren ohiko kontsumitzaile bihurtzen.

Aitzitik, komunikabideetarako edukietarako sarbidea frakzionatua eta mediatua izan ohi da, hau da: gazteak Interneteko bestelako sareetatik jasotako erreferentzia edota esteken bidez heltzen dira komunikabideen edukietara. Informazio bilaketaren katalizatzaile gisara operatzen duten bitartekari hauek, gehienetan, bilatzaile eta hedapen-plataformetako aukeraketa algoritmikoak izan ohi dira (baita *clickbait*-en forman ere), edota erabiltzailearen sare pertsonaleko kideek partekatutakoak. Hortaz, gure buruari ezinbestean paratu behar diogun galdera da zeintzuk ote diren promoziozko algoritmo horien programazioaren atzean egon litezkeen interesak eta nola harilkatzen diren neoliberalismo garaikidearen testuinguruko kontsumo-joera globalagoekin.

Oro har, esan genezake gazteok sare sozialetatik heltzen direla hedabideen edukietara, eta hauek beste norbaiten galbahetik igarota eskuratzen dituztela. Aldi berean, baina, diskurtsiboki bederen eszeptizismoa agertzen dute sareetako edukiekiko; Elenak, esaterako, fidagarritasun handiagoa aitortzen die telebistako edukiei. Komunikabide

tradizionalei oraindik ere *egia ofizialen* hedatzaile rola aitortzen zaie, bereziki ingurune ez politizatueta hazitako gazteen artean.

Nola edo hala, sareen eta komunikabideen arteko harremana bi norabidekoa da: alde batetik, komunikabideetan *arrantzatutako* pieza informatibo edo interpretatiboek sarritan parada eskaintzen diete gazteei euren testuinguru sozialean gaiaz mintzatzeko. Historiako gertakarien kasuan, haien urteurrenek eta haiei lotutako ekitaldi memorialistikoek aktibatu ohi dute transmisio mekanismo hau. Bestetik, ezagutzen dituzten pertsonetik interakzioaren bidez iris daitezke komunikabideetara.

Iraganeko estrategia armatuen inguruan nagusitu diren izaera moraleko diskurtsoek ere badute euren isla komunikabideetan. Gazteek berretsi digute diskurtso ebaluatzaile zehatz batzuetarako sarbidea oso eskuragarria dela, eta beste eduki batzuetarakoa, aldiz, zaila. Zehazki, terrorismoaren *frame*-arekin bat datozen diskurtsoak dira euren bilaketetan errazen topatzen dituztenak, hau da, iraganeko jardun armatuari buruzko ebaluazio negatiboa dakartenak. Hauek, sarritan, ETAREN biktimen testigantzei edota damututako ETAKo kide ohiei ematen diete protagonismoa:

1 Zuk pentsatu duzu inoiz zein izan daitezkeen gatazka honen biktimak?
2 *Ba ez, egia esan, ez dakit. Bueno, bai, ikusi dut, ba, dokumentalen bat, zera,*
3 *ETAREN jarraitzaileek barkamena eskatzen, zera, ETAREN biktimei, baina ez*
4 *oso – o sea, oso orokorrean. Telebistan, berriren batean, baina ez, ez dut*
5 *jarraitu.*

Irene-19-Donostia

Irenek modu orokortzaile batean sintetizatzen du elkarrizketaren garapenean espontaneoki oroitu duen produktu mediatiko baten makronarratiba: *barkamenaren* ideiak iragan armatuaren ebaluazio negatibo bat eta erruaren aitortza inplikatzeko dituzten ETAKo kideen partetik. Hain zuzen ere, narratiba hau modu agerikoenean esplizitatzen duen produktu mediatiko bat da gure elkarrizketetan gehien errepikatu dena: Espainiako seigarren (Orús, 2022) kanal ikusiena den *La Sexta* telebista kateak emititutako *ETA desde dentro* (ETA, barrutik) izenburudun elkarrizketa (2015), *Salvados* seriearen barruan. Bertan, Jordi Évolek, Espainiako kazetari entzutetsuenetako batek, Iñaki Rekarte ETAKo kide ohia elkarrizketatu zuen bere ibilbide pertsonalaren inguruan, hark astebete lehenago argitaratutako *Lo difícil es perdonarse a uno mismo: matar en nombre de ETA y arrepentirse por amor* ('Zaila norbere buruari barkatzea da: ETAREN izenean hil eta maitasunagatik damutzea', 2015) liburuaren harira. Saioak ia hiru milioi ikus-entzuleko audientzia eta %16ko *share*-a izan zituen (Formula TV, 2015).

Edukiari dagokionez, elkarrizketatua salbuespen kasu gisara aurkezten da; ETAtik bereizi izanak eta eragindako biolentziarekiko damua adierazteak bihurtzen du elkarrizketarako objektu legitimo. Narratiba horretan, ETAREN estrategia armatuan inplikatzeko erabakia gaztaroko heldutasun faltarekin lotzen da:

Jordi Évole: Zer da zuretzat ETA?

Iñaki Rekarte: Tira, nire iragana, ezta? Nire gaztaroaren hasiera. Eta, gero, urte askotako zama bat. Hasieran zen, ez dakit zerbait dibertigarria, baina bai zerbait zorralda. Ba, gero, urte askotako zama bat.

(...)

J.E.: Zergatik sartu zinen ETAn?

I.R.: Ez dakit. Heldutasun falta handiko une bat izan nuen. Eraman nintzaten utzi nuen, haur baten pentsaera neukala oroitzen naiz.

‘Salvados’ elkarrizketa-saioaren pasarte bat, 2015eko maiatzaren 10ean argitaratua

Gure elkarrizketatuek gehien aipatu duten produktu mediatikoa da, alde handiarekin, Évoleren elkarrizketa hau. Hark gazteon eredu mentaletan duen prominentzia hainbat faktoreren ondorio izan liteke: alde batetik, Espainiako kate zentralista nagusietako bateko *prime time*-an emititu izanak bermatzen dion irisgarritasuna; eta, bestetik, euskal gatazka armatuari buruzko kontsentsu sozial nagusiekin bat datorren makronarratiba bat izatea (biolentziaren eragilearen erruaren narratiba).

Narratiba hauek aldeaz aurretik eraikitako eredu mentalekin bat datozenean, gatazkaren erreproduzio narratibo fidagarritzat hartzen dituzte gazteek:

1 *Yo por ejemplo, como, digamos, “victima de ETA”, yo puedo saber lo que ha*
2 *pasado, o sea, ha pasado a mi familia y al resto de víctimas, y saber una parte*
3 *de esa historia. Pero claro, el que haya sido afín a ETA o igual tiene un*
4 *familiar de ETA no sabe nuestra historia. Y viceversa: yo tampoco sé su*
5 *historia. Y claro, así no se puede seguir avanzando. Porque yo también quiero*
6 *saber los porqués, como me imagino que él también querrá saber los porqués.*
7 *Entonces, hay que construir entre todos.*
8 *¿A ti te gustaría conocer, por ejemplo, las historias personales de los presos?*
9 *Por ejemplo, el – uno de los asesinos de mi tío, que aparece en algún*
10 *documental, (...) y le ves hablando y no sé, lo ves un tío arrepentido. Yo creo*
11 *que con él sí se podría hablar, o sea, no sé. Yo creo que sí, conocer historias*
12 *y tal... Al final, e, también hay en ‘Salvados’ una entrevista a [Iñaki] Rekarte,*
13 *por ejemplo; jo, que venga gente que ha estado en un grupo terrorista a hablar*
14 *a jóvenes de que, “Mira, por meterme en un grupo de estos me he metido un*
15 *cuarto de mi vida en la cárcel y no me ha merecido la pena”, pues no sé;*
16 *también es saber qué te hace meter en una banda terrorista, cómo es eso de*
17 *coger una pistola, apretar el gatillo y matar a una persona a sangre fría... no*
18 *sé. Luego después en la cárcel tienes todo el tiempo el mundo; a ver qué*
19 *piensas, si consideras que aquello que has hecho lo has hecho bien, mal, no*
20 *sé. Yo creo que, en sí, para construir la historia y tal, habría que darle voz a*
21 *ellos. Porque al final, ya lo dice mi izeba, son los mayores legitimadores del*
22 *uso de la violencia. Entonces, pues decir: “Jo, pues tiene razón, ha estado mal*
23 *y tal”. Eso es lo que yo creo.*

Ibai-20-Donostia

Ibairen senide bat ETAk hil zuen arren, elkarrizketa osoan biktima gisara identifikatu den lehen pasarte da hau; atentatuaren garaian haur ninia izanik, ez du senidearen oroitzapen zuzenik, eta elkarrizketaren gainerako denbora osoan hirugarren pertsonan mintzo da biktimez. Kasu honetan, bere burua kokatzen du kategoria horretan, baina distantziakoa modalizatzaileekin esplizitatzen du hori hirugarren batek berari ezarritako kategorizazio bat dela: “digamos” (1. lerroa) aditz metalinguistikoak eta keinu eta entonazio bidez irudikatutako kakotxen erabilerak denotatzen dute kasu honetan hizlariaren urruntasuna aipatzen duen edukiarekiko. Hau da: bere buruarengan sumatzen duen kanpoko begirada bat erreproduzitzen ari da Ibai,aldi berean bere burua gatazkaren alderdi edo bando batean kokatuz.

Posizio honetatik abiatuta, modu argian delimitatzen ditu *ingroup*-a (ETAren biktimak eta haien familiak) eta *outgroup*-a (ETAko kideak eta haien familiak). Posizio sozial zurrun hauek muga epistemiko gisara esperimendatzen dituzte gazteek, mugaren *bestaldekoa* ezagutzea galarazten dietelako. Ibairen kasuan, bere familiako esperientzia

mingarriek ez diote eragozten *outgroup*-ean mintzakide bat bilatzea, berak jakin-mina baitauka. Haiekiko sarbidea sozialki eragozten zaiola sentitzen du, ordea.

Nola edo hala, Ibairen narratibak ere gatazka polarizatu baten eskemari heltzen dio: *besteari* ahotsa emateko baldintza egokia, beretzat, haren damua da, hau da, porrot morala. Onartuak diren *outgroup*-eko ahotsak euren taldeari buruzko ebaluazio negatibo bat transmiti dezaketenak dira, *ingroup*-ari arrazoia emanez.

Eskema honek gatazka armatuaren aldaera moral bati ematen dio bide, zeinetan garaile bakarra egon daitekeen, eta etsaiak, entzuna izateko, haren makronarratiba eta arau diskurtsiboak bete behar dituen. Hala, elkarrekin harilkatuta ageri dira maiz hedadura eta promozio handieneko produktu mediatikoak eta auziari buruzko diskurtso inperatiboak, gazteek eskura duten errepertorio diskurtsiboa nabarmen baldintzatuz.

1 Ohiturarik badaukazu komunikabideak kontsumitzeko, aktualitateko gaiei
2 buruz informatzeko?
3 *Bai... bai.*
4 Zeintzuk?
5 *Bueno, ba sare sozialak eta horrela, eta gero YouTuben ba bai – e, gustatzen*
6 *zaidana [da] ba hori, gehiago informatzeko eta horrela, bideoak begiratzea*
7 *edo horrela, jakiteko, zeren azkenean edo hartzen dut Internetetik informazioa,*
8 *edo ez dago. O sea, esandakoa: eskoletan ez dago informaziorik niri*
9 *interesatzen zaidanaren inguruan. (...) YouTuben ikusi ditudan gauzetan,*
10 *gehien agertzen dena da Iñaki Rekarteren - Iñaki Rekartek esaten zuela bazela*
11 *“el arrepentido” edo deitzen zutela horrela, eta ikusi ditut horrelako bideoak.*
12 *(...) Bideo horiek zure kabuz bilatu dituzu?*
13 *Mmm. Bai, igual bai, esango nuke baietz. Ez dakit, igual hasi nintzen bideo*
14 *bat ikusten eta horrela, eta bukatu nuen horretan edo ez dakit, baina bai, nire*
15 *kabuz. (...) Bilatu izan ditut ere ETA taldearen beste ikuspuntu batzuk, ez Iñaki*
16 *Rekarterenak, baina ez ditut aurkitu. O sea, ez dakit ongi bilatu dudan edo ez,*
17 *baina ez ditut aurkitu oso... informazioa horrela.*
18 Nolabait, aldekoagoak bilatzen zenituen? Damutu ez direnak?
19 *Bai. (...) Ez dakit, es que – hori, ez dakit zer izan zen ETA momentu guztietan.*
20 *En plan, zer pentsatzen zuen barruko jendeak, zer ideiak zituen eta haien*
21 *helburua. Horregatik bilatu izan dut testimonio edo zerbait horrela, ETako*
22 *partaideren batena, baina hori, bakarrik ikusi nuen Iñaki Rekarterena.*
Haizea-17-Tafalla

Haizeak bestelako esfera komunikatiboetan (eskolan, kasu honetan) jasotzen ez dituen ezagutzen bila jotzen du Interneteko hedapen plataformetara (YouTube); han ere, baina, eremu tabu bat topatzen du. Aztertu berri dugun makronarratiba (etakide damutuarena) oso eskura daukan diskurtso bat da, baina ez zaio aski bere ezagutza-nahiak asetzeko. Haizeak ezagun ditu ebaluaziozko diskurtsoak, eta, aldiz, ETArekin bilakaerarekin eta haren motibazioekin zerikusia duten ezagutzak falta zaizkiola sentitzen du, Ibaik aurreko adibidean ere eskatzen zituen “zergatien” ildo beretik: biolentziaren kausak eremu diskurtsibo eskuragaitz gisara ikusten dituzte gazteok, euren testuinguru sozialetan ez delako horretaz hitz egiten. Kotsentsuatutako diskurtsotik at geratzen den eremu bat da, eta ondorioz, tabu gisara pertzibitzen dutena.

Gazteek era honetako ezagutzak espresuki eskatzeak pentsarazi behar ligukete euskal gatazkaren testuinguruan gertatutako biolentziei buruzko diskurtso demonizatzaile eta moralizatzaileek hutsune kognitibo nabarmenak uzten dituztela, eta ez dietela balio

gazteei iraganari buruzko narratiba koherenteak eraikitzeke, sarritan euren ulermenerako beharrezkoak diren datuak elipsatzen dituztelako, esate baterako, zergatik eta zein motibazio edo legitimazio sozial zeukan biolentziaren erabilerak gatazkaren une desberdinetan.

5.2.5.3. Kultur produktuen kontsumoa: zinema, literatura eta musika

Memoriazko medio gisara, zinemak eta musikak hainbat ezaugarri partekatzen dituzte eduki informatiboko komunikabideekin, nagusiki euskarri berberetatik heldu ohi direlako hartzaileengana. Maila narratibo-sinbolikoan, ordea, arau bereziak dituzte: gertakari historikoen berreraikuntzarako askatasun handiagoa baimentzen zaie, eta haien efektua ez datza hainbeste narratutako gertakarien zehaztasunean, baizik eta aukeraketa estetiko eta erretorikoen ondoriozko eragin interpelatzailean eta sinesgarritasun edo koherentzia intra-narratiboan. Norbanakoaren ikuspegitik, errepresentazio hauek “iraganaren irudi zehatz batzuk gure buruetan sortzea ahalbidetzen diguten eskema eta gidoiak eskaintzen dizkigute, zeintzuk gure esperientzia bera ere molda baitezaketen” (Erll, 2010, p. 397). Filmeek eta antzeko kultur produktuek maila kolektiboan iraganari buruzko diskurtsoetan eragiteko, ordea, haien inguruko eztabaida gauzatu behar da. Horregatik argudiatzen du Erll-ek bitarteko hauek memorian eragiteko duten gaitasuna, egiaz, *pluri-mediala* dela (Ibid., 395): “Testuinguru mota zehatz bat behar da, zeinetan nobela eta filmak prestatuak eta pertzibituak diren memoria egituratzen duten medio gisara”.

Gure ikerketan parte hartu duten gazte gehienentzat, testuinguru medial hauek ezezagunak izan dira. Oro har, euskal gatazkaren historiarekin lotzen dituzten kultur produktu gutxi aipatu dituzte; zehazki, hiru filmeren eta dozena erdi bat abestiren aipamenak jaso ditugu, eta nobelei edo fikziozko literaturari egindako aipamen bakar bat.

a) Zinema

Josu Martinezek (2015, p. 71) deskribatutako pertzepzio sozialarekin bat datoz gazteok: euskal gatazkaren historiari buruz, entretenimendura edo fikziozko kontsumora bideratutako produktu gutxi ekoizten direla uste dute. Autore honek gezurtatu egiten du uste hori, eta argudiatzen du pertzepzio horren oinarrian dagoen arrazoa, hain zuzen ere, gaiari buruz ekoitzi diren filmeek euren testuinguru sozialean izan duten harrera falta dela, hau da, “euskal gehiengo soziologikoak” ez diela produktuoi memoriaren transmisore funtzioa aitortu.

Nolanahi ere, argudia genezake azken urteotan ekoitzi diren zenbait produktuk, salbuespen modura bada ere, izan dutela efektu esanguratsua gazteek iraganari buruz eraikitzen dituzten narratibetan. Zehazki, bi film errepikatu dira maiz gure elkarrizketetan: *Lasa eta Zabala* (Malo, 2014) fikziozko filma eta *Motxiladun umeak* (Ur Handitan, 2018a) dokumentala.

Lasa eta Zabala GAL talde paramilitarraren lehenbiziko bahiketa eta hilketen fikzionalizazio bat da. Hain zuzen ere, gure parte hartzaileen narratibetan GALi egindako aipamenek duten prominentzia deigarriaren arrazoi pisuzkoenetako bat dela esan dezakegu, hura eskola curriculum batzuetan txertatuta egoteaz gain.

1 ... torturen inguruan, entzun duzu zerbait?
2 *Bai, ba hori. GALak torturatu zituela – gainera egon zen pelikula bat, hori –*
3 *hori, bi etakide horiena, torturatu zituztela bahituta GALEk. Hori dakit*

4
5
6
7
8

pelikula ikusi nuelako. Baina bueno, interesgarria zen ikustea (...) azkenean horrelako gauzek laguntzen dute ulertzen. Niri, adibidez, ez zait asko gustatzen irakurtzea, ematen didalako, ez dakit, logura ematen dit. O sea, gustatzen zait irakurtzea, baina liburuak eta horrela, txikitatik obligatu didate eta ez dakit; baina dokumentalak modu ona dira informatzeko.

Joseba-20-Bilbo

Euskal gatazkarekin lotutako mintzagai orokorrago bati buruzko elkarrizketan (torturak eta tratu txarrak), hizlariak berak txertatzen du GAL kontzeptua, torturen eragileak izendatzeko, eta zinema aipatzen du bere informazio iturri gisara. Hari sinesgarritasuna aitortzen dio, auzia “ulertzen laguntzen” diolako (5. lerroa). Areago: mintzagai dugun filmaz oroitzen denean, dokumentalen kategorian sailkatzen du (8. lerroa), haren alderdi fikzionalaz ahaztuta. Josebak hartara bestela jasoko ez lukeen ezagutza batzuk jaso dituen arren (tortura praktikei buruzko xehetasunak, adibidez), haiek aldi berean euren testuinguru historikotik at interpretatzeko arriskua dago: kasu honetan, adibidez, Joseba ez da gai tratu txarrak bestelako erakunde polizial edo militarrekin lotzeko. Produktu mediatiko zehatzek eragiten duten efektu atomizatzaile hau “ispilu hautsi” batekin alderatzen du Martinezek (2015, p. 81), hartzaileak historiari buruz eraikitzen duen makronarratiba pertsonala fragmentu anitzen konbinazio aktiboaren menpe geratzen delako.

Fragmentu hauek gutxiegi direnean, arriskua dago hartzaileak istorio zehatz bat historia osoaren metonimiatzat hartzeko.

1
2
3
4
5
6
7

Espainiak [jokatu du], ba, o sea, bakea lortzeko oso disposizio gutxirekin. Eta... gainera ere, ba, o sea, oso zikin jolastua. Adibidez GAL bezalako bat sortzea, ba, nahiko gogorra edo. GALi buruz zer nabarmenduko zenuke? Ba... joe, Felipe González? Eta GALen inguruan gehien iritsi zaigun kasua izan da Lasa eta Zabala eta batez ere pelikula egin zelako gero eta agertzen delako.

Maddi-17-Tafalla

Maddik filmetik interpretatutako esanahietan oinarritzen du gatazkari buruzko bere makronarratiba, honela laburbildu litekeena: Espainiak (*outgroup*) GAL talde paramilitarra sortu zuenez, Espainiak ez dauka bakean interesik. Fikziozko filmak ebidentzia gisara balio dio bere argumentua sostengatzeko: *GAL sortzea* kontzeptua *zikin jolastea* adierazpen ebaluatiboarekin parekatzen da hartara, eta hura, aldi berean, aktore bati (Espainiari) atxikitzen zaion jarrera globalaren metonimia da. “Zikin jolastu” metafora, bestalde, sozialki partekatutako *gerra zikina* tropearen oihartzuna edo ezkutuko aipua da (Reyes, 1996, p. 20). Metafora horrek inplikatzeko aktore edo *jokalari* batek ez dituela gatazka armatuaren arauak bete, hau da, estatuak gorputz armatu ofizialekin (Poliziarekin) jardutea eta ETAk, bere arma klandestinoekin.

Filmetik inferi litekeen makronarratibak Estatuaren rolari buruzko ebaluazio negatibo edo deslegitimatzaile bati bide eman diezaiokeen neurrian, *Lasa eta Zabala* luzemetraiak esan daitekeenaren eremua zertxobait zabaltzen duela argudia dezakegu, korronte diskurtsibo nagusiei ahots bat gehitzen dielako eta hura ohiz kanpoko publiko batengana helarazteko gaitasuna duelako: “Duela urte gutxi, (...) pentsaezina izango zen *Lasa eta Zabala* bezalako film bat (...) egitea ez abertzale ez euskaldun ez den zuzendari batek, eta Zinemaldiko sail ofizialean aurkeztea” (Martínez Martínez, 2015, p. 80).

Erllen arabera ere, zinema historikoa da gaur egun memoria helarazteko medio indartsuenetako bat: “Pertsonalizazioan, dramatizazioan eta emozionalizazioan jartzen du arreta, eta hartara ikuslea errepresentatutako gertakarian sartzea bilatzen du” (Erll, 2017, p. 158). Produktu zehatz batek bere inguruko gizartean efektu horiek modu kolektibo eta esanguratsuan eragiten dituenean, “gertakari telebisibo” (Ibid.) bihurtzen da.

Ikergai dugun talde sozialari eta epeari dagokionez, EITB kateak ekoiztutako *Motxiladun umeak* dokumentala (Ur Handitan, 2018a) gertakari horietako baten gisan azter genezake, ez bada gertakari bakar gisara. Luzemetraia hau fikziozkoa ez izan arren eta komunikabideei dagokien atalean aipatu dugun *Ur Handitan* programaren barnean ekoiztutako produktu bat izan arren, haren izaera narratiboak elkarrizketa-kazetaritza formatutik urruntzen duela uste dugu, eta horregatik film beregain gisara sailkatu dugu kultur produktuekin batera; nolana ere, ikus-entzunezko *mass media* periodistikoaren eta zinema dokumentalaren arteko muga-lerro sarritan lausoan kokatzen denez, bi kategoriatan sailka genezake.

Dokumentalak gurasoak espetxean dituzten adingabeen bizi istorioak jasotzen ditu, haien elkarrizketetan eta eguneroko jardueren grabaketetan oinarrituta. ETArekin lotura izatea egotzita espetxeratutako euskal herritarrei aplikatu ohi zitzairen urruntze politikaren albo-kalteetan jartzen da arreta, hura *de facto* presoan seme-alabentzako zigor gisara aurkeztuz. Dokumentalak enpatiazko efektu nabarmena eragiten du, errugabetasunaren sinbolo diren figura batzuk (haurrak) eta haien sufrimendua erdigunera ekartzen dituen zergo.

Filma gertakari telebisibo bilakatu zen, alde batetik, saioaren denboraldiko kapitulu ikusiena izan zelako; %7,8ko *share*-a izan zuen EAEko ikusle guztien artean, eta euskal hiztunen artean, %16,5koa (EITB, 2018). Bestalde, haren testuinguru historikoak eta gizarteko erreakzioek eragindako eztabaidak eman zioten memoriazko dispositiboaren izaera: dokumentala 2018ko urtarrilaren 9an emititu zen, Sare Herritarra elkarteak presoan eta haien senideen eskubideen alde antolatu ohi duen urteroko manifestazio jendetsuaren bezperatan. Hortaz, funtzio sozial zehatz bat aitortzeko dokumentalari: presoan auziaren inguruko eztabaida piztea, hari gaurkotasunezko arazo gisara erreferentzia aitortuz.

Filmaren emisioak *errelatoaren bataila* berpiztu zuen. ETArekin biktimen plataforma nagusietako bateko presidentek dokumentalaren emisioa kuestionatu zuen, *motxiladun haurren* auzia euren gurasoei egotzita delituen terminoetan enmarkatuz: “EiTBk atzo dokumental bat eman zuen #etarrak diren ‘euskal presoan seme-alabei’ buruz, euren gurasoak kartzelan zergatik dauden aipatu gabe. H]aizetako bat Igor Solana eta Eider Pérezen semea da, Santos Santamaría, Martín Carpena, Cariñano eta Porteroren hiltzaileak. Noizko dokumental bat haien seme-alabei buruz?”.

Mezuak 60 erantzun jaso zituen sare sozialeko erabiltzaileen partetik, gehienak presoan eta euren familien aurkako gorrotozko diskurtsoak. AVT Terrorismoaren Biktimen Elkarteak plataformak ere komunikatu bat argitaratu zuen, EiTBk “presoei buruzko irudi distortsionatua eskaintzeko umeak erabiltzeko estrategia bati men egin eta hartara gizarteak hiltzaileekin enpatizatzea bultzatu” zuela argudiatuz (Asociación de Víctimas del Terrorismo, 2018). PP Espainiako Alderdi Popularrak EiTBren praktiken aurkako txosten negatibo bat aurkeztu zuen Gasteizko legebiltzarrean, eta telebista publikoko zuzendariaren agerraldia eskatu zuen. Gertaerak oihartzun mediatikoa jaso zuen tokiko

komunikabideetan (Gil, 2018; Naiz, 2018) zein Espainiako komunikabide eskuindarretan (El Español, 2018; Libertad Digital, 2018).

Handik bi hilabetera hasi ginen gure ikerketarako datuak biltzen, eta garaian elkarrizketatu genituen gazteen narratibetan ere antzeman genuen dokumentalaren eragina:

1 Presoen inguruan badago eztabaida oraintxe bertan: zer egin gelditzen
2 direnekin. Zuk zer proposatuko zenuke, zein iruditzen zaizu dela irtenbidea?
3 *Hombre, nik askatu egingo nituen.*
4 Denak?
5 *Bai, nik bai. O sea – edo bestela gutxienez Euskal Herrira etortzea. Zeren*
6 *adibidez, o sea, egon zen telebistan ‘Ur Handitan’, zelan haur bat daukana 8*
7 *urte, joan behar da Cádizera hilean behin ikustera bere ama 40 minutuz –*
8 *40 minutuz! Joan behar zara Cádizera. Nik hori ez dut ikusten zentzuduna.*
Joana-16-Arrasate

1 (...) presoen aldeko manifestazioetan-eta, hor askotan ikusten ditut izenak,
2 marrazkiak, irudiak... kalean ere topatu genitzake kartelak. Presoen gaia –
3 gero, adibidez, orain dela gutxi izan baita ‘Motxiladun Haurren’ dokumental
4 hori. Presoen gaia present dagoela uste dut.
5 Eta zer pentsarazten dizu?
6 Ez dela justua hemengo familiak joan behar izatea Jaeneraino familiako bat
7 bisitatzera. Baina nik – hori ez da justua, baina jendeak uste du ETAKoa delako
8 ya etxean egon beharko zela; ni horren alde ere ez nago. Zure aitak hil bazuen
9 pertsona bat, edo zure tiok, edo nire bezinoak hil bazuen pertsona bat, nahiz
10 eta izan frankista bat edo nahiz eta izan espainol bat, horrek ez du justifikatzen
11 heriotza hori.

Idoia-17-Oñati

Bi pasarteok bat datoz dokumentalaren makronarratibarekin: injustutzat jotzen dute presoen familiek sakabanaketa-politikaren kalteak sufritu behar izatea. Nolanahi ere, horrek ez du aldaketa handiegirik eragiten hizlariak presoen auziaz egiten duten balorazio orokorrean: Joanak haiek aske uztea proposatzen du, amnistia orokor baten terminoetan, eta Euskal Herriko espetxeetara hurbiltzea irtenbide horren “gutxieneko” (5. lerroa) alternatiba gisara planteatzen du. Idoiak lehendik eraikita zeukan eredu mentalari eusten dio: presoek zigorrak betetzen jarraitu behar dutela argudiatzen du, euren egoerak inplikaturako “injustiziak” gorabehera. Kasu honetan, oihartzun interdiskurtsibo bat dago: presoen aldeko mugimenduek erabili ohi zuten “presoak etxera” lelo politikoa modu literalean interpretatzen du Idoiak, hau da, euren etxe partikularretara itzultzeko eskaera gisara, eta ez Euskal Herrira hurbiltzeko eskaera gisara. Idoia ez dago ados presoak askatzearen aldarrikapenarekin, eta beraz, horrekiko oposizioan eraikitzen du bere diskurtsoa.

Hortaz, esan genezake dokumental batek enpatia eragitea ez dela aski hartzaileen posizionamendu globalean aldaketa drastiko bat eragiteko. Astrid Erllék ere ohartarazten du medioek memoria eraikitzeke duten gaitasuna hartzaileen alde aurretiko jarreraren araberkoa dela: “Iraganaren, gaurkotasunaren eta etorkizunaren arteko harremanaren bertsiozko zerumuga bat sortzen dute, zeinaren konstruktibotasuna oro har soilik ikusgarri bihurtzen den hartan kontraesanak antzematen ditugunean edota kontzienteki begirale-posizioa hartzen dugunean” (Erll, 2017, p. 151).

Horrek azalduko luke zergatik gazteek ez dituzten aintzat hartzen gaiari buruz ekoitzi diren fikzio asko: ez dietelako sinesgarritasunik aitortzen, eta, beraz, ez dituztelako baliozkotzat jotzen memoriaren eraikuntzarako.

1 Antes me has mencionado algún documental que has visto sobre el tema. ¿Se
2 te ocurren otros productos culturales como películas o canciones que
3 relaciones con este tema?
4 ¿Con ETA en sí, o con el conflicto? Pues el otro día vi una película en Netflix,
5 'Fe de etarras'. Malísima, o sea, pero malísima. No sé, y ha habido mogollón
6 de películas así de mierda. (...)
7 Entiendo que no te gustan.
8 Hombre, yo creo que han ridiculizado todo bastante. ¿no? O sea, el malo es
9 muy malo y el bueno es muy bueno.

Nora-21-Getxo

Norak aipagai duen komediazko filmari buruz ebaluazio negatiboa egiten du, ez diolako errepresentatibitatek aitortzen, eta, ondorioz, sinesgarritasunik ere ez. Berak transzendentzia aitortzen dion garai historiko edo auzi politiko batekin umorea egitea “erridikulizazio” gisara (7. lerroa) bizi du, hau da, bere esperientziekiko errespetu falta bat. Zinemako diskurtso nagusi gisara pertzibitzen duen hori “kaka-film” kategorian (5. lerroa) sailkatzen du: haren bidez, gaia landu duten filmeei orokorrean diskurtso polarizatuegiak eraikitzea egozten die. Nolanahi ere, haiek gustukoak ez izan arren, Norak xehetasunez gogoratzen du gutxienez kategoria horretako film bat, *Fe de etarras* (Cobeaga, 2017); esan liteke, beraz, ideologikoki bat ez etorri arren bere memorian finkatutako elementu bat dela ikus-entzunezkoetatik jasotako diskurtsoa. Eragin honek askotariko efektuak izan ditzake; besteak beste, kasu honetan bezala, hizlariaren posizionamenduan eragitea; ez jasotako diskurtsoa bere egiten duelako, baizik eta harekiko oposiziozko jarrera indartzen duelako.

b) Literatura

Memoriaren eraikuntza narratiboaren ikuspegitik, gehien ikertu den eremu mediatiko-kulturaletako bat izango da, ziurrenik, literatura. Gure datuetan, ordea, ez dugu gatazkarekin lotutako fikziozko idazlanen ia aipamenik jaso: Euskara eta Literatura ikasgaitik ezagutu dituzten zenbait idazleren aipamenak alde batera utzita (Joseba Sarrionandia da gehienek ezagutzen dutena, alde handiarekin), nobela bakar baten aipamen zehatza jaso ahal izan dugu: Fernando Arambururen *Patria*-rena (2016), lau urte geroago, gure elkarriketak amaitu ostean, fikziozko mini-serie bihurtuko zutena. *Bestseller* honek familia arteko liskarren terminoetan kokatzen du euskal gatazkaren historia, eta, haren bidez, “ETAren zuriketa sailhesteko memoria-funts baten sorreran” inplikatzeko borondatea agertu du egileak (Martínez, 2018, p. 14). Posizionamendu politiko argidun fikzioa da, beraz.

Liburu honi buruz mintzatu zaigun parte hartzaile bakarra, Paulo, bat dator makronarratiba horrekin, eta horretan datzate nobelari aitortzen dizkion sinesgarritasuna eta balioa:

1 Tenemos por ejemplo el libro de 'Patria', éste que ha hecho Fernando
2 Aramburu; que no es un hecho 100% verídico, creo. Evidentemente es una
3 ficción. Entonces, es para hacernos una idea de lo que se ha vivido. Y lo cuenta
4 un poco desde las dos perspectivas. Habrá gente que le guste más o le guste
5 menos, pero yo creo que es, de hecho, es un relato bastante sincero, que gente
6 que ha vivido toda la vida juntos, yo voy por aquí, tu vas un poco por aquí, y

Patria-ren irakurketan oinarrituta, absurdoaren narratiba bat eraikitzen du Paulok euskal gatazka armatuaren sorrerari buruz. Berak ez dio kausa ulergarri edo arrazionalik antzematen: “ezerezetik” sortzen den (8. lerroa) efektu natural baten terminoetan kokatzen du. “De toda la vida” (“betidanik”) denborazko egitura adberbialak (6. lerroa) *statu quo* bat eraikitzen du diskurtsoan, zeinetan gatazka armatuaren aurreko garaia elkarbizitza baketsu gisara aurkezten den; biolentzia horren aurrekari izan zitezkeen beste gatazkei, besteak beste, 1936ko Gerrari eta frankismoko lehen urteei, erreferentziarik ez egiteak indartu egiten du narratiba hori.

Testuinguru diskurtsibo honetan, ETArek sorrera *statu quo* hori arriskuan jartzen duen elementu antagonista bihurtzen da. Hortaz, *outgroup* edo aktore gatazkatsu bat identifikatzen da, hura esplizituki izendatzen ez den arren. Hala eta guztiz ere, Paulori narrazio orekatua iruditzen zaio *Patria*, “bi perspektibatatik” (4. lerroa) kontatzen duelako. Aktoreen karakterizazioa aipatu gabe, sinesgarritasun maila handia aitortzen dio nobelari, ziurrenik lehendik eraikita zeukan eredu mentalarekin bat datorrelako.

c) *Musika*

Zinemaren eta literaturaren aldean, musika izan da gure parte hartzaileek euskal gatazkarekin sarrien asoziatu duten kultur adierazpena. Aisialdiarekin oso lotuta pertzibitzen duten eremu bat da musika, sarritan adinkideekin trantsitatzen dutena; horregatik, hainbat ezagutza eta praktikatarako sarbidea da gazte askorentzat. Presoek bisitetarako dituzten *40 minutuen* kontzeptua, esaterako, ikono kultural partekatu bihurtu da musika eremuan: Ken Zazpi taldearen *Malen* 2001eko abestitik izena hartu duen 40 Minutu Rock jaialdi garaikidearen bidez, esaterako, presoek egoeraren berri jakin dutela adierazi digute bi elkarrizketatuk.

Horrez gain, izenez ezagutzen dituzten abestien artean aipatu dituzte *Itziarren Semea* (Pantxo eta Peio, 1975), *Sarri Sarri* (Kortatu, 1985) eta *Barricada* taldearen zenbait kantu, nabarmenki *No hay tregua* (1986). Erreferentzia horietako batzuk ikono kultural partekatuak diren arren, haiekiko jarrerak eta erabilerak aldatzen doazela behatu ahal izan dugu:

- 1 *Elkarrizketatzailea: Ezagutzen duzue bere garaiko beste irudi, sinbolo edo*
 2 *kantarik?*
 3 *Haritz: ‘Sarri, Sarri’. Eta gero, [abesten] ‘Carrero voló’... [Barre]*
 4 *Elkarrizketatzailea: Eta jendeak badaki ‘Sarri Sarri’-ren atzeko istorioa?*
 5 *Zuen adineko jendeaz ari naiz.*
 6 *Ilargi: Ni, adibidez, egon nintzen urteak abesti hori entzuten eta ez ezagutzen*
 7 *benetan zein zen atzeko istorioa. Orain badakit, baina denbora bat kostatu zait*
 8 *jakitea. (...) Eta, nola deitzen da hau? E... [abesten] ‘Alguien debe tirar del*
 9 *gatillo’.*
 10 *Elkarrizketatzailea: Kanta horrek zein ezaugarri edo berezitasun dauzka*
 11 *zuentzat? Zerbait berezia esan nahi du?*
 12 *Ekaitz: Ematen du, ez dakit, etakide bati buruz hitz egiten duela. Ez da – duela*
 13 *gutxi Drogasek esan du ez dela, o sea, ez duela hori pentsatzen. Igual esango*
 14 *zuen badaezpada ere edo, ez dakit. (...)*
 15 *Imanol: Garai hartan, igual sartzeraoan biolentzia espiral horretan,*
 16 *azkenean igual ez zegoen beste biderik. Baina orain entzuten badugu abesti*
 17 *hau – ideologia moduan. (...)*

18 *Ilargi: Memoria historiko moduan, nik uste. Eguneroko bat edo liburu bat*
19 *daukazun bezala memoria historikoa aurkitzeko, abesti bat izan daiteke*
20 *memoria lantzeko modu bat. Eta nik uste dut jendeak orain pilo bat banalizatu*
21 *duela abesti hori. Adibidez, lehengo urtean, gogoratzen naiz desarmearen*
22 *ondoren gazte pilo bat etortzen zela guregana juergetan oihukatzen “Gora*
23 *ETA”, eta nik uste dut ez direla lekuak horretaz hitz egiteko. Jendeak asko*
24 *banalizatu duela ETAREN historia eta guztia por ser el más guay de la izquierda*
25 *abertzale, eta ‘Gora ETA militarra’.*

Altsasu, taldeko elkarrizketa

1 Nola hitz egiten dute zure inguruko gazteek gai hauetaz?
2 *Depende ze jende. Hor bereizten da jendea oso ongi: dago jendea abertzalea*
3 *[dena] eta ETAREN alde; abertzalea, baina ez dagoena ETAREN alde; ez dena*
4 *abertzalea; ez dena ezer ez.*
5 Adibidez, zein argumentu ateratzen dira?
6 *Ba hori, Espainiaren aurka joatea... es que ez gara jartzen zu eta ni bezala eta*
7 *argumentatu. Ez, da esatea ero bezala; ez dakit, da inpulso bat bezala.*
8 Zein gauzarekin edo egoeratan etortzen dira?
9 *Ba juergetan eta horrela. Pegatinetan eta horrela, edo pues kantaren batean*
10 *aipatzen bada ETA, pues.*
11 Adibidez?
12 *Ez dakit, es que horrelako musika ez zait asko gustatzen baina... agertzen bada,*
13 *pues... (...) Bueno, ez naiz jarri behar jainko bezala, baina ignorantzia asko*
14 *dago. Jendea dabilena esaten “ETA ETA ETA”, eta beraiek ez dakite zer den*
15 *ere. Nik uste dut dela zerbaiten parte sentitzeagatik.*
16 Gaur egun, gazteentzat zerbaiten parte sentitze hori zaila da?
17 *Ez, baina hor daukate, pues, leku bat, ez dakit. Edo erabiltzen dute beraien*
18 *abertzaletasuna, esateko direla lo más. Ez bazaude ETAREN alde ez zara*
19 *abertzalea, edo horrelako zerbait. Ezta ere ez dizute esaten horrela, baina*
20 *ikusi egiten da.*

Imanol-15-Arbizu

Bi pasarteotan, Barricada taldearen *No hay tregua* abestiaren erabilera sozialaz mintzo dira gazteak. Festa eta gaueko aisialdi guneetan sarritan entzun ohi den abesti bat da, inplikazio sozial handia izan ohi duena publikoak berak erantsi ohi dizkion letrengatik: *Estás asustado / Tu vida va en ello / Pero alguien debe tirar del gatillo*¹¹ errepikaren ondorengo pasarte instrumentalean, ohikoa izaten zen publikoak “ETA, ETA, ETA” kantikoa txertatzea.

Ikergai ditugun gazteek jaso dute praktika hau, baina Ilargiri eta Imanoli kontraesanak eragiten dizkie, gatazka armatuari buruz lehendik eraikita zeuzkaten eredu mentalak kuestionatzen dituelako: hura transzendentzia handiko arazotzat duen Ilargiri, arazoaren banalizazio bat iruditzen zaio; ETAREN jarduna oro har negatiboki ebaluatzen duen Imanolentzat, aldiz, gertakarien ezjakintasunen isla da eta jarrera irrazional baten ondorio. Biek ala biek identitatearen eraikuntza sozial batekin lotzen dute gaur egungo gazteek ETA zenarekiko erakusten duten atxikimendu sinbolikoa: kultur produktuen kontsumoa norbanakoak bere buruari eransten dion atributu politiko gisara ikusten dute, zeinetan iraganeko abesti zehatz batzuek funtzio identitario bat betetzen baituten. “Leku bat” (Imanol, 17. lerroa) eskaintzen die bestela arrotza zaien lurraldean.

Pentsa liteke ETAK, talde armatu gisara ez ezik, Euskal Herriko komunitate abertzalearen inguruan eraikitako identitate kolektibo baten sinbolo gisara operatu duela urte luzez, eta

¹¹ *Izututa zaude / Zure bizitza jokoan dago / Baina norbaitek sakatu behar du katua* (ikertzailearen itzulpena).

sinbologia horren zati handi baten oinordeko direla gaur egungo gazteak, erreferentzia horiekiko eraikitzen duten harremana aski ezberdina izan arren. Aztertu ditugun pasarteetako lehenbizikoan, esaterako, gazteek ezagutzen dituzte gaiari buruzko bi kantu ezagun ('Carrero voló' eta 'Sarri, Sarri'), nahiz eta Ilargik esplizitatzen duen (6-7. lerroak) haietarako sozializazioak ez dakarrela derrigor esanahien atxikitze aktibo bat.

Datorren pasarte jausi generazional honen adibidetzat dugu. Bertan, elkarrizketatzailea eta elkarrizketatua partekatzen dituzten erreferentzia historikoei buruz mintzo dira: Carrero Blancoren aurkako atentatuaz (1973) eta Miguel Ángel Blanco zinegotziaren hilketaz (1997). Bi mintzakideen artean 11 urteko aldea dago, baina produktu eta adierazpen kultural erabat ezberdinen bidez jaso dute gertakarion berri:

1 Carrero Blanco zeuk aipatu didazu. Horren inguruan nondik ikasi duzu?
 2 *Bueno, ba, e, abestiak eta hori, ba, bai izan dela como gertaera historikoa –*
 3 *hori bai izan dela askotan entzundakoa.*
 4 Eta Miguel Ángel Blanco izena ezaguna egiten zaizu?
 5 *Bai, abestiengatik ere.*
 6 Abestiengatik?
 7 *Bai.*
 8 Ados, eta zer da dakizuna?
 9 *Es que ez dakit. Gainera dago abesti bat entzuten dena beti, eta agertzen da,*
 10 *baina ez dakit.*
 11 Eta zein abesti da?
 12 *'Latiguera y abertzale'. Eta agertzen da Carrero Blanco eta Miguel Ángel.*
 13 Norena da?
 14 *E... ez dakit nola deitzen den, baina esaten ditu gauzak "eres más mala que la*
 15 *puta ETA" edo zerbait horrela. Bai, hitz egiten du horren inguruan.*

Haizea-17-Tafalla

Carrero Blancoren aurkako atentatuaren inguruko kontsentsu sozial handiaren jakitun izanik eta hari buruzko abesti herrikoien historia ezagututa, elkarrizketatua *Carrero voló* abestiari buruz ari dela ematen du jakintzat elkarrizketatzaileak, harik eta Haizeak erreferentzia zehatza ematen dion arte: *Latiguera y abertzale* (Mitto Korokon, 2018) *trap urban* estiloko abestiak harreman sexual-afektibo baten deskribapenarekin harilkatzen ditu euskal gatazka armatu eta politikoarekin lotutako hainbat erreferentzia geografiko, historiko eta kultural. Pasarte esanguratsuenak hurrengo bi zutabeotan hautatu eta itzuli ditugu:

Jatorrizko hitzak

Conocí a una latiguera
 Y no me deja en paz
Siempre gime en euskera
 No me deja en paz
 Me gusta cómo juega
No me deja en paz
Cuando hacemos la guerra
Es sólo por la paz
 Yo la conocí marcándose un
Sarri Sarri
 Te juro no me deja margen
Me lo pide más alto
Que nos oiga Miguel Ángel
 Aunque no sea buena,
 Y haya conocido la cárcel
 Me está costando mucho

Itzulpena

Neska zigortzaile bat ezagutu nuen
 eta ez nau bakean uzten
 Beti euskaraz egiten du marru
 Ez nau bakean uzten
 Nola jolasten duen gustatzen zait
 Gerra egiten dugunean
 bakeagatik soilik da
 Sarri Sarri bat dantzatzen
 ezagutu nuen

 Zin dagizut, ez dit tarterik uzten
 Altuago eskatzen dit
 Miguel Ángelek entzun gaitzala
 Bera zintzoa ez izan arren
 eta kartzela ezagun duen arren
 asko kostatzen ari zait

Evitar enamorarme	maitemintzea saihestea
Porque <u>vuelo</u>	Hegan egiten baitut
<u>Me siento como Carrero</u>	Carrero bezala sentitzen naiz
Straight out <u>el baserri</u>	Zuzen-zuzen baserrira
Ella me quiere enseñar su colección de dildos	Berak erakutsi nahi dit bere dildo kolekzioa
Ella es latiguera pero <u>siempre vota a Bildu</u>	zigortzailea da baina beti bozkutzen du Bildu
Ella está ready desde el lunes al domingo	Bera prest dago astelehenetik igandera
Le flipa <u>mezclar Coca-Cola con el vino tinto</u>	Coca-Cola ardoarekin nahastea gustatzen zaio
Ella va todo el día con el Jo Ta Ke Ke	Egun osoa Jo ta Ke-rekin dabil
Dale <u>kalimotxo pasa de tu keta</u>	Emaiozu kalimotxoa, ez du zure keta[mina] nahi
Ella es <u>más mala que la puta E.T.A.</u>	Edozein lagun baino gaiztoagoa da bera ETA puta baino gaiztoagoa da
Y mira <u>no hay Ctrl + Z</u> pa' mi bragueta	Eta begira, ez dago nire bragetarako Ctrl + Z-rik.
Nena dándole duro	Neska, gogor ematen
Por la independencia	independentziaren alde
<u>Independencia</u>	Independentzia
Con el papito <u>Arnaldo</u>	Arnaldo aitatzorekin

Abestiak harilkatu egiten ditu euskal gatazka armatuarekiko erreferentzia historikoak (Carrero, M.A. Blanco, espetxea eta *bakea/gerra* dikotomia), politikoak (Bildu, independentzia eta Arnaldo [Otegi]), hala nola, euskal kulturari lotutako irudi tradizionalei eta tokiko kontsumo ohiturei buruzko erreferentziak (euskara, baserrira eta kalimotxoa). Bere osotasunean euskal abertzaletasunari buruzko topikoen bilduma bat irudi dezakeen arren, egileak gatazkaren historiari buruzko hainbat ezagutza erakusten ditu bertan, batzuk xehetasun maila handikoak: protagonistak kontsumitzen ez duen ketaminarekiko erreferentziak, esate baterako, ETAk 80. hamarkadan droga trafikatzailen aurka egindako kanpainaren ezagutza inplikatzeko du.

Elementu hauek guztiok gazteen gaurkotasunezko erreferentziekin konbinatzen dira diskurtsoan: “Ctrl+Z” ordenagailuko tekla-konbinazioaren aipamenak, esaterako, *desegitearen* edo *atzera egitearen* ideiarekin metafora gisara operatzen du, eta belaunaldi berriek erabat partekatzen duten erreferentzia bat da.

2008ko krisi globalaren ondorengo urteetan hirietako sektore baztertuetako gazteen artean sortutako musika genero hibridotzat jo ohi da *trap*-a, bere protesta-efektua kontsentsu politikotik at geratzen diren forma eta edukien bidez bilatu ohi zuena eta interneteko sare sozial eta plataformen bidez hedapen handia lortu duena gazteen artean. Rey-Gayoso eta Dizen arabera (2021, p. 604), jatorrian “marjinalizazioaren espresio eta baztertutako gazteriaren krisiaren soinu-banda” zena, klase ertainetara hedatu eta diskurtso neoliberalak bereganatutako eremua bihurtu zen gerora.

Tentsio hauen testuinguruan interpretatu behar genituzke euskal gatazkaren iraganeko erreferentzia kulturalen erabilera berrietako zenbait ere. Aipatu berri dugun abestiari, esaterako, kontsentsu sozialak apurtzeko eta haietaz burla egiteko borondatea atxiki diezaiokegu, gatazkaren testuinguruan eratutako erreferentzia eta jarrera

tradizionalagoetan sozializatutako entzulea eskandalizatzeke moduan. Hor kokatu genitzake, esate baterako, ETAREN biktimen izenen erabilerak, bereziki Miguel Ángel Blancorena. Haren hilketa euskal gatazkaren historiako inflexio puntua da orduan bizirik zeuden herritar askorentzat, eta oro har gertakari oso mingarri gisara gogoratzen da. Hortaz, nekez irudika liteke aurreko belaunaldietan haren izena umorerako erabiltzea.

Aldi berean, aztergai dugun abestiaren letrak ez ditu erabat hausten gizarteko korrante nagusietako beste zenbait mezu; esate baterako, ETA kriminalizatzen duen diskurtsoa. Nola edo hala, distantzia emozional handia denotatzen du mintzagai dituen edukiekiko, eta, beraz, musika mota hau sortzen eta kontsumitzen duten gazteen identitatearen eraikuntzarekin eta posizionamenduarekin lotu daiteke. Plantea genezake, beraz, trauma “errepresentazio krisi” bat baldin bada (Felman & Laub, 1992, p. 79), eta *trap*-a krisi garaietatik sortutako erantzun bat bada, Euskal Herriko gazteek ere errepresentazio krisi gisara bizi dutela iragan armatua, hari buruz mintzatzeko baliabiderik eta molderik ez daukatela sentitzen dutenez gero. Hari burla egitea eta eraikitako kontsentsuak zalantzan jartzea eurentzako posizio diskurtsibo bat negoziatzeko modua izan liteke. Horrek tesi honen hurrengo galderara eta muinera garamatza: nolako harremana eraikitzen duten gazteok euren iragan kolektiboarekin.

5.2.6. Atalaren ondorioak

Gazteek euren ingurune diskurtsiboei buruz eskaini dizkiguten deskribapenetan oinarrituta, haietatik inferitzen dituzten esanahiak eta euren jarrerak aztertu ditugu atal honetan. Familia eta komunikabideak dira sarrien aipatu dituzten informazio iturriak; hau da, diskurtso oso pribatuak eta oso publikoak jasotzen dituzte batik bat euskal gatazkaren historiari buruz, hartzailearen politizazio mailaren arabera. Nolanahi ere, ondorio hau egiaz etorkizunerako hipotesi moduan formulatu dugu, beharrezkoa baita hura metodo estatistikoen bidez frogatzea.

Analisi kualitatiboari dagokionez, familiako diskurtsoen eta diskurtso publikoen arteko harremana deskribatzea konplexuagoa da: familiako esperientziak *kanpoko* diskurtso nagusietan islarik ez duenean edo baliogabetua denean, gazteek oposiziozko jarrera aktiboa har dezakete diskurtso publikoekiko, edota senideen partetik jasotakoak kuestiona ditzakete. Gaiari buruz oro har hitz egiten ez den familietan, ordea, diskurtso nagusiok erreproduzitzeko joera dago, senideengandik jasotako osagai emozionala gehienetan mantentzen den arren.

Hezkuntza arautuarekiko, aldiz, eszeptizismoa adierazi dute gazteek. Ikasgeletan tabu da gaia: ez dago behar adina material didaktikorik, eta gatazkaren historia, gehienetan, 1978ra arte baino ez dago idatzita. Hezkuntza sistemak ez du lortu urte gutxian gertatu diren aldaketa politiko eta sozialak ikasgeletara termino historiografikoetan eramatea. Horren atzean dauden zailtasun politiko eta administratiboez gain, euskal gatazka ikusteko orduan antzematen dugun belaunaldi-arrakala baten ondorio dela ere esan dezakegu: curriculum arautuaren arduradunek osatutako belaunaldi helduagoentzat oraindik ia gaurkotasunezko auzia dena (1980tik aurrerako historia), 2000ko urteetan jaio direnentzat erabat ezezaguna da. Areago: elkarriketatu ditugun parte hartzaile helduenetako batzuk Lehen Hezkuntzako gradua amaitzen ari ziren elkarriketen unean. Beraz, euskal gatazkaren historia ezezagun zaion lehenbiziko irakasle belaunaldia sortzen ari da dagoeneko, hura ikasgeletan lantzeko tresnarik gabe.

Hainbat ezagutza jakintzat emate hau arazo da etxeko testuinguru askotan ere; gurasoek ez dute sentitzen historiari buruz dakitena esplikatzeko beharra, ezagutza sozial partekatu eta orokortzat jotzen dutelako. Euren seme-alabentzat, ordea, informazio berria da, eta hura *airean harrapatzea* izan ohi da transmisiorako mekanismoetako bat. Ondorioz, lotsa sentitzen dute *jakin behar luketen zerbait* ez ezagutzeagatik, eta gaiari buruzko isiltasuna nagusi den giro familiarretan ez dute hartaz galdetzeko legitimitaterik sentitzen.

Ikasgelan, familian zein lagun artean, taldearen kohesioa eta hartutako rola (adibidez, irakasle objektiboaren rola) arriskuan jar dezakeen faktore gisara ikusten da euskal gatazkari buruzko iritzi aniztasuna. Hura eztabaida osasuntsurako aukera gisara ikusi ordez, gaia saihestu egiten da kontsentsu askirik sumatzen ez den eremuetan.

Hain zuzen ere, ikastetxeak funtzio bikoitza betetzen du ezagutzaren transmisioan: alde batetik, diskurtsoen hedatzaile zuzena da, testu liburuen derrigortasuna eta publikoaren zabaltasuna aintzat hartuta; bestetik, adinkideen artean sozializatzeko eta irakasleekin harreman informalak izateko espazioa eskaintzen du. Hainbat gaztek adierazi digute gehiago ikasi dutela euskal gatazkaren historiari buruz interakzio informal horietan, curriculum arautuko edukien bidez baino. Nolanahi ere, diskurtsoaren analisi xeheagoari eta modalizazioaren erabilerari erreparatuta, behatu ahal izan dugu hezkuntzako edukiak, daudenean, segurtasun handiagoarekin erreproduzitzen dituztela hizlariak. Testuliburuek egia *ukigarriak* eskaintzen dizkiete gazteei, ondorengo azterketa edo ebaluazio batean erantzun zuzen gisara epaituko direnak, eta, beraz, baliozkotzat jotzen direnak. Diskurtso hauek batik bat ingurune ez politizatueta hazitako gazteentzat dira tresna garrantzitsua.

Diskurtsoon eduki proposizionalari dagokionez, oro har termino moraletan kokatutako narratibak jasotzen dituztela pertzibitzen dute gazteek, bai hezkuntzan eta baita etxean ere. Gaiari lanketaren bat eskaini dioten ikastetxeetan, nazioarteko terrorismoaren *frame*-an kokatu ohi da, gatazka armatu honen tokiko berezitasunak leunduta edo alboratuta. Familian ere diskurtso ebaluatiboak nagusitzen dira: gurasoek iraganaz *ongi/gaizki* terminoetan hitz egiten dietela sentitzen dute gazteek, baina sarritan ebaluatzen diren gertakari edo jokabideen inguruko daturik transmititu gabe.

Horren ordez, entzule adingabe ideal bati egokitutako azalpen sinplifikatu eta eufemistikoak eraiki ohi dituzte gurasoek. Pentsa liteke seme-alabak iraganeko alderdi mingarri edo lotsagarrietatik babesteko egiten dutela, edota taldearen auto-irudia zaintzearen. Horregatik, oso modu orokorrean aipatutako *biolentziaren* erabilerarekiko gaitzespena da gehienak etxean pertzibitu dutena; oro har, euren gurasoak bakezale gisara ikusten dituzte. Irudi hau ez dator bat euskal gatazkaz eraikita duten eredu mental nagusiarekin, hura batik bat gatazka biolento gisara kontzeptualizatzen baitute. Ondorioz, aintzat hartzen dute euren gurasoak hartatik kanpo geratu ziren figura moralki aratzak direla. Alde horretatik, identifikatu ahal izan dugu norbere senideak historiaren argi positibo baten pean kokatzeko ahalegin bat. Prozesu horretan, gazteek ez dituzte aintzat hartzen euren gurasoek trantsitatu ahal izan dituzten ibilbide biografiko-ideologikoak, eta ondorioz, gaia propio tematizatzen dutenean, sarritan harritu egiten dira gurasoen iraganeko inplikazioaz jabetzean.

Euskal gatazkaren historiari buruzko ezagutzak istorio solteen kontakizunaren bidez edo arinkeriazko tonu anekdotikoan transmititu ohi dira familia barruan. Honek bi zailtasun dakartza: alde batetik, historiaren ikuspegi frakzionatu bat eskaintzea, esanahien kohesio-

eta berreraikuntza-lana hartzailearengan utziz (sarritan, horretarako behar dituen baliabiderik eskaini gabe); eta, bestetik, gazteek entzundako istorio bakar bat historia osoaren metonimiatzat hartzea, *mythopoesis* (Van Leeuwen & Wodak, 1999, pp. 96–111) adibide gisa.

Transmisioaren mekanismoa honakoa izan ohi da: gazteek etxetik kanpo jasotako *input* batek (komunikabideetan ikusi duten albisteren batek, sare sozialetan jaso duten mezuren batek edo adinkideen artean aipatutako gaurkotasunezko gertakari batek) euren interesa pizten duen katalizatzaile gisara operatzen du, eta haren ondotik jotzen dute gurasoengana azalpen eske. Salbuespenetan baino ez dute sentitzen ezagutzak partekatzekeo inizatiba gurasoen partetik datorrenik; aintzat har genezake, beraz, transmisioaren zati handi bat modu naturalizatu edo inperzeptiboagoan gauzatzen dela.

Herri edo auzoak ordezkatzeko duten gazteen ohiko ingurune hurbilak ere ezagutzaren transmisioa errazten duela behatu dugu, eurek egunerokotasunean trantsitatzen dituzten espazioetan eta bertan bizi (izan) diren pertsonen gertatutako esperientzien transmisiorako katalizatzaile bihurtzen direlako maiz, nahiz eta elkarrizketatu gehienei ezezagunak zaizkien euskal gatazkarekin lotutako memoriazko leku ofizial zein ez-ofizialak.

Euren aisialdiaren zati handi bat gauzatzen den eremua ere bada kalea, adinkideekin sozializatzen direna. Testuinguru horren pertzepzioari dagokionez, interesgarria da bertan jaiotako eta migratutako parte hartzaileen perspektibak alderatzea: lehenbizikoentzat, euskal gatazka ez da ohiko mintzagai bat euren inguruan; bigarrenak, aldiz, oso present dagoen gaitzat dute. Pertzepziozko desberdintasun hauek gaiari lotutako erreferentzien naturalizazioan datzate: jaiotzatik gatazkaren terminoetan sozializatutako gazteentzat, ikusezinak dira, eta sarritan beharrezkoa da kanpotarraren begirada hartzea haien presentziaz jabetzeko. Horrek pentsarazten digu gazteen testuinguruko mapa diskurtsiboa eurek esplizitatzen edo identifikatzen dutena baino askoz zabalagoa dela, eta sozialki partekatutzat jotzen diren diskurtso eta iruditeriek ere osatzen dutela.

Adinkideen interakzioekin bukatzeko, sare sozialetan partekatzen dituzten edukiei buruzko narratibak aztertu ditugu. Hauen artean, alderdi publiko bat eta pribatu bat bereizi dituzte: lehena murriztaileagozat dute, gizartean nagusi diren arau diskurtsiboei ere operatzen dutelako bertan. Adinkideen arteko interakzio pribatuagoetan, aldiz, umorezko klabean mintzo dira batik bat gatazkaz. Gai arantzatsu bat eroso sentitzen diren eremu batera ekartzea ahalbidetzen die umoreak, tabua gaindituz. Bestalde, bazterreko posizio diskurtsibo batetik desplazatu eta norbera mintzakide gisara legitimatzeko balio du, ironiak partekatutako hainbat azpitesturen ezagutzaila izatea eskatzen baitu; hartara, bestela kontrobertituagoak izan litezkeen hainbat elementu esplizitatu gabe uztea ahalbidetzen die gazteei.

Azkenik, eremu diskurtsibo publikoenari erreparatu diogu: esfera politikoari eta haren hedatzaile izan ohi diren komunikabideei, hala nola, kultur produktu argitaratuei. Azken hauei dagokienez, elkarrizketetan oso produktu zehatz gutxi aipatu dituzten arren, haiei buruzko narratibetan jarri dugu fokua. Behatu ahal izan dugunez, *mainstream*-a, hau da, gazte gehienetara eta batik bat politizatu gabeetara heltzeko gaitasuna duten hedabideak euskal telebista publikoko kateak eta marko erreferentzial gisara Espainia hartzen dutenak dira (marko erregionalekoak edo zuzenean Madrildik editatuak). Hedabideok euren komunitate ideologikoko diskurtso nagusiak erreproduzitzen dituztela uste dute gazteek,

gizartean bestela ere tabu diren narratibak elipsatuz. Ondorioz, desoreka bat sumatzen dute eskura duten erreperitorio diskurtsiboan: terrorismoaren *frame*-ari lotutako diskurtso ebaluatzaileak erraz jasotzen dituzte, baina zailtasunak dituzte gatazkaren alderdi politikoa edo kausak tematizatzen dituztenak topatzeko. Ondorioz, elipsiok euren ezjakintasuna elikatzen dutela sentitzen dute.

Zergatiak ezagutzeko nahi hau gazteek ideologia politikoez harago partekatzen duten exigentzia bat da. Iraganeko biolentziaren kausak eremu diskurtsibo eskuragaitz gisara ikusten dituzte, euren testuinguru sozialetan ez direlako tematizatzen. Kontsentsuatutako diskurtso sozialetatik at dagoen eremu bat da, eta, ondorioz, tabua. *Esanezinaren eremuaren* pertzepzio oso argia dute gazteek, eta hau neurri handi batean euren testuinguruko esfera sozial desberdinetan gertatzen diren lehia diskurtsiboen ondorio dela esan dezakegu.

Testuinguru honetan interpretatu behar dira kultur eremuan azaleratzen ari diren zenbait adierazpen probokatzailerik ere. Euskal gatazkari buruzko errepresentazio krisi batean hazi da belaunaldi hau, *errelatoaren batailak* nabarmen mugatu duena eta hutsune kognitibo ugari sortu dituena, euren bertan aktiboki parte hartzeko tokirik ez dutela sentiarazteraino. Gazteen ezagutzarako eskakizun esplizituek pentsarazten digute biolentziari buruzko diskurtso ebaluatiboek ez dituztela hutsuneok betetzen. Haiek lehen planora ekartzea eta gatazkaren kausak eztabaidatik at uztea biolentziarekiko jarrera kritiko baten garapenarekin justifikatu ohi da, baina gazteok narratiba konplexu eta koherenteak osatzeko baliabideak ukatzen zaizkiela sentitzen dute.

Sontagek dioenez (1977, p. 32), ulermena eta kritika elkarri lotutako prozesu aktiboak dira. Hortaz, memoriazko diskurtsoak gazteek eskura duten erreperitorio komunikatibo baten parte gisara ulertzeak lagun diezaguke euren signifikazio-prozesuetan inplikaturako alderdi aktiboa ere bistaratzeko. Eta, beraz, planteatu genezake memoriaren transmisioaren lehen helburua ez dela ezagutzarik gabeko ebaluazio moral bat transmititzea, gazteek euren posizioa eraiki dezaten baliabide diskurtsiboak eskaintzea baizik. Posizioaren eta identitatearen eraikuntza diskurtsibo hori nola behatzen den datorren atalean aztertuko dugu.

Hartara igaro aurretik, baina, atal honetan identifikatu ditugun hainbat galdera esplizitatu beharra ikusten dugu, etorkizuneko ikerketa-ildoak zabal ditzaketelako. Interesgarria litzateke jakitea, esaterako, ikastetxeen izaerak eragiten ote duen transmititutako edukietan, haien formetan edota haiei esanahia atxikitze prozesuetan; edota nola eragiten duten gazteen arteko botere harremanek eta genero aldagaiak gaira hurbiltzeko eta hartaz publikoki hitz egiteko orduan. Halaber, komunikabideak kontsumitzeko modu ez-intentzionatu bat identifikatu ahal izan dugu, eta ildo horretatik pertinentzia handiko ikergaitzat ditugu, alde batetik, sareko algoritmoek sustatzen dituzten edukien eta haien mekanismoen analisia, eta *on-line* sare sozialen izaerak berak interakzioetan duen eragina. Azkenik, etorkizuneko ikerketek arreta handiagoa eskaini beharko liokete gazteen aktibismo politikoan gertatzen ari diren bilakaerei eta haietan dagoeneko identifika daitezkeen talkei, nabarmenki ezker abertzaleko gazteen eta GKS Gazte Koordinadora Sozialistaren aterkipeko erakundeetako gazteen artean sortzen ari zirenei ikerketa honetarako datu bilketa amaitu osteko garaian.

5.3. IDENTITATEAREN ERAIKUNTZA DISKURTSIBOAK ETA POSIZIONAMENDURAKO ESTRATEGIAK

Atal honetan, aztergai dugun talde sozialeko kideek euren burua euskal gatazkaren historiarekiko nola kokatzen duten aztertu asmo dugu. Gogora dezagun identitatearen eraikuntza diskurtsiboa hertsiki lotuta dagoela posizionamenduarekin: Davies eta Harréren arabera (1990, p. 48), posizionamendu-estrategien bidez kokatzen dira subjektuak (“*selves*”) elkarrizketan parte hartzaile koherente gisara. Posizionamendu hori nagusiki bi ardatzen arabera egituratu ohi da: *ni*-a munduan edo munduaren aurrean; eta *ni*-a besteekin edo besteen aurrean.

Hori dela eta, bi identifikazio maila bereiziko ditugu gure analisian: alde batetik, hizlariaren identifikazio pertsonalaren eraikuntzan funtzio bat betetzen duten egitura linguistikoak aztertuko ditugu, batik bat oroitzapen propioen narratibei, elementu ebaluatiboei eta emozioen adierazpenei erreparatuz. Horien bidez, “Ni, munduaren aurrean” erako posizionamendua ezagutu nahi dugu, hau da, hizlariak euren diskurtsoen edukiaren egiazkotasuna eta euren burua audientzia baten aurrean subjektu koherente gisara aurkezteko erabiltzen dituzten baliabide linguistikoak (Bamberg, 1997, p. 337).

Bestetik, gazteek diskurtsiboki eraikitzen dituzten identitate kolektiboak identifikatu nahi izan ditugu, hau da, “ni, besteekin / besteen aurrean” erako egiturak. Bereizketa honek Halbwachsek memoria kolektiboaren funtzionamenduaz egiten duen deskribapenean du oinarria: autore horren arabera, modu kolektiboan oroitzeak ez du esan nahi subjektu bakoitzaren ikuspuntua besteekin nahasten denik (2004a, p. 56); aitzitik, esanahisistema koherenteak sortzen dira norbanakoaren ikuspuntuaren eta taldearen barruan partekatzen diren esperientzien artean. Horregatik dio Halbwachsek memoria kolektiboan subjektuak une batez “bere buruarengandik irten” eta “taldearen ikuspuntuan kokatu” beharra daukala (Ibid., 61) kolektiboki *oroitzeko*.

Identitate kolektiboek, bestalde, gazteon posizio sozialari buruzko informazioa ematen digute: hizlariak, diskurtsoak eratzerakoan, euren uneko testuinguruaren eta bestelako talde eta subjektuekiko dituzten harremanen arabera aukeratzen dute euren egitura kognitiboetatik zer txertatu diskurtsoan eta hura nola egituratu, hau da, horren arabera *aktibatzen* dute egoera bakoitzean eredu mental bat edo beste. Eredu horiek (ingelesezko *mental models*) aldeztatik aurretik pilatutako ezagutzaren bidez eraikitako interpretazio-eskemak edo marko kognitiboak dira, informazio berria modu koherentean interpretatu eta antolatzeke funtzioa betetzen dutenak (Van Dijk 2008:165). Aldi berean, eredu mental baten aukeraketa bera (zer kontatu eta zein testuingurutan) hizlariak testuinguru horrekiko duen jarreraren adierazle bat da (Wodak, 2011, p. 168).

Kapitulu honen bigarren atalean, hortaz, identitate kolektiboen eraikuntzan inplikaturik dauden egitura linguistikoak aztertuko ditugu. Alde batetik, *Ingroup-Outgroup* erako egitura polarizatzaileetan jarriko dugu arreta (De Cilia et al., 1999, p. 153; Varela-Rey et al., 2013, p. 12), hau da, hizlariak talde sozialak kategorizatzeke erabiltzen dituzten baliabideetan: kategorizazio honek “etiketatze” (Graumann & Wintermantel, 2015, p. 161) baten forma hartzen du maiz, talde osoari ezaugarri zehatz batzuk atxikitzen zaizkiolako, baretik zein kanpotik (De Fina, 2006, p. 354). Argudiatuko dugu gure parte hartzaileek euren burua nagusiki bi kategoriatan kokatzen dutela: “gu, gazteak” eta “gu, euskal herritarrak” kolektibitateetan, hain zuzen ere. Ondoren, identitate horietako

bakoitzari kontra jartzen zaizkion alteritateen eraikuntza aztertuko dugu, hala nola, bakoitza definitzeko erabilitako baliabide linguistikoak. Ondorioztatuko dugu gazteek euren buruari bazterreko posizioa aitortzen diotela euskal gatazkari buruzko eztabaida sozial zabalean, eta hori tabuaren eta agentibitate falta baten pertzepzioarekin lotzen dela. Ondorioz, planteatuko dugu gazteei egotzi ohi zaien isiltasuna ez datorrela interes falta batetik, euren testuinguruko harreman sozialetan identifikatzen duten tabutik eta harreman sare horretan duten posiziotik baizik: euskal gatazkari buruz ez hitz egiteak zerikusi handia du euren agentibitatearekin, hau da, gatazkari buruzko eremu diskurtsiboan inplikatzeko eta diskurtso propioak modu buruaskian eraikitzeke sentitzen duten kontrol-gradu apalarekin (Pfleger, 2021b, p. 331). Azkenik, oztopo horiek gainditzeko erabilitako estrategia linguistikoak aztertuko ditugu, Van Leeuwen eta Wodaken sailkapena (1999, pp. 92–93) oinarri hartuta eta hura osatuta: iraganari buruzko ezagutzak norberaren posizioarekin kontraesankorrak direnean edo hutsune kognitiboak daudenean, gazteek alde zuzenetik eraikitako *frame* edo interpretazio-egituretara eta, zehazki, metaforetara jotzen dutela argudiatuko dugu.

5.3.1. Kokatze pertsonala: oroitzapen eta esperientzia propioak

Lehenbiziko atal honen helburua elkarrizketatutako hizlariak euren burua, norbanako gisa, taldearen historiarekiko nola kokatzen duten aztertzea izan da, edo, beste era batera formulatuta, zenbaterainoko hurbiltasuna edo identifikazioa sentitzen duten *euskal gatazka* gisara ulertzen duten horrekiko. *Distantzia* diskurtsiboak, kasu honetan, hizlariak bere diskurtsoen eduki proposizionalarekiko erakusten duen inplikazio gradua adierazten du, hau da, “beste ahots edota posizio alternatiboekin interaktuatzea eta haiekiko posizio hartzeko modua eskaintzen dioten lokuzio guztiak” (Martin & White, 2005, p. 94). Distantzia diskurtsiboa hertsiki lotuta dago hizlariak erabiltzen duen modalitatearekin, hau da, hizlariak proposizio zehatz batekiko erakusten duen jarrera edo ebaluazioarekiko; adierazpenaren eduki modala, hortaz, izaera interpretatibokoa da nagusiki (Papafragou, 2000, p. 68).

Gatazkek eurei eragin ote dien galdetuta, lehen kolpeko erantzun gehienak ezezeko garbiak izan dira, hizlari askok euren erantzuna ondoren modalizatu eta zehaztu duten arren: “Niri zuzenean ez” gisako egiturak gutxienez zortzi kasutan identifikatu ahal izan ditugu, hainbat formulazio desberdinen bidez. Gatazkek eurengan “zuzenki” (Irene-19-Donostia eta Nora-21-Getxo), “zuzenean” (Maddi-17-Tafalla), “zuzen-zuzenean” (Kepa-20-Bilbo), “directamente” (Malika-17-Barakaldo eta Eñaut-15-Oñati), “personalmente” (Maite-17-Oñati) edo “lehenengo pertsonan” (Ekhi-21-Lekeitio) eraginik izan ez duela diotenean, hizlariok guztiok espaziosko metafora batean oinarritzen dute euren diskurtsoa, gatazkarekiko harreman *zuzen* baten eta *zeharkako* harreman baten pertzepzioa deskribatzeko. Metaforizazio horrek gertakari baten inpaktua sufritzen duen *lehen lerro* edo geruza baten eta hura modu leunagoan jasotzen duen *bigarren lerro* baten irudia eraikitzen du, eta, beraz, gatazkaren esperientzietan hierarkizazio argi bat eraikitzen da, zeinaren arabera euren esperientzia pertsonalak ez diren gatazka modu *zuzenagoan* esperimintatu dutenenak bezain baliagarriak edo egiazkoagoak, eurak, subjektu gisara, ez direlako haren lekuko zuzenak izan.

1
2

Bai, niri justo asko ez [dit eragin], baina nire gurasoei eta bai. Zeren eurak joaten dira [presoei] bisita egitera, eta niri personalmente... esan duguna

Maitek bere buruaren eta bere gurasoen arteko muga argia marrazten du: presoek bisitan joatearen esperientzia haiena da, ez berea; eta, ondorioz, gatazkak eurei eragin die batik bat. Hizlariak berak esperientatu duena (aurreiritziak) leunduta geratzen da gurasoen esperientzia *zuzenagoaren* aldean: “baina” kontraktasunezko lokailuaren bidez (3. lerroa) enfasia kentzen dio bere esperientzia propioari, eta salbuespentzat jotzen du, “bestela”, oro har, bere bizitzan gatazkaren eraginik ikusten ez duela argudiatzen duenean.

Antzeko diskurtso bat identifika dezakegu hurrengo adibidean:

1
2
3
4
5
6
7
8

Sentitzen duzu euskal gatazkak zuri eragin dizula?
E... eni pertsonalki, zinez, ez dut uste hola. Gero, hara, edo hil diren pertsona horiek guztiak, ez d[er]it[ur]ut ezagutu. Eta preso izan direnak ere orain gehienak askatuak izan dira eta ez ditut preso ezagutu. Ez dakit.
 Orduan, euskal gatazkaren biktima ez zara sentitzen?
Gatazkaren biktima ez. Ez dut uste gatazka horrengatik – bo, gero ez dakit. Agian gero – beraz, ez dakit, ez dut uste. Baina beharbada gaizki – ez dut aski pentsatzen, ez dakit, beharbada.

Unai-16-Anhauze

Kasu honetan, Unai gatazkaren eragina haren ondorio fisikoak esperimentatzearekin edo ezagutzearekin lotzen du: hildako biktimarik ez duenez ezagutu, ez du aintzat hartzen berea egiazko eragina izan denik. Logika honek sufrimenduaren esperientziaren hierarkizazio bat du oinarrian, eta gatazka nagusiki gatazka biolento baten terminoetan kontzeptualizatzen duen makro-narratibatik elikatzen da: haren arabera, gatazka zenbat eta modu larriagoan esperimentatu, orduan eta egiazkoagoa da subjektu baten esperientzia; eta, beraz, hari buruz hitz egiteko legitimitatea ere handiagoa da. Hizlariak ez dituenez gatazkaren ondorio fisiko larrienak ezagutu (hildakoak), bere esperientzia pertsonalaren existentzia edo baliozkotasuna ukatzen ditu.

Esanguratsua da, halaber, elkarrizketak berak ere eragin behargarria izan ohi duela gazteen arrazoiketaren bilakaeran. Bere lehenbiziko erantzunean, Unai bi modalizatzaile epistemiko bakarrik darabiltza: “ez dut uste” (2. lerroa), eta “ez dakit” (4. lerroa). Elkarrizketatzaileak galdera birformulatzen dionean, zalantzazko jarrera nagusitzen da bere erantzunean: hasieran “ez” kategoriko bat eskaintzen du (6. lerroa), inplikazio osokoa; ondoren, adierazpenaren edukiarekiko distantzia handitzen doa, lehenbizi “ez dut uste” (7. lerroa) zalantzazko modalizatzaile epistemikoarekin; gero, ezjakintasuna adieraziz (7-8. lerroak); eta, amaieran, “beharbada” adberbioarekin (8. lerroa), zeinak probabilitatezko modalizatzaile gisara funtzionatzen baituen eta hizlaria hasieran eraikitako tesitik (“Ez naiz biktima sentitzen”) urruntzen baituen, hura zalantzan jartzen duelako. Adibide honetan argi beha daiteke hizlariaren posizionamenduaren garapena hitzartzean zehar (“ez” > “ez dut uste” > “ez dakit” > “beharbada”), eta, aldi berean, elkarrizketaren egoerak berak diskurtsoen ekoizpenean izan dezakeen eraginaren ilustragarri da: ziurrenik, hizlariak ez dio bere buruari galdera hori lehenago egin, eta *ad hoc* ari da bere posizioari buruzko diskurtso bat eratzen.

Gatazkarekiko *bigarren lerroko* posizio horrek gaiarekiko urruntze bat dakar hizlariaren posizionamenduan, eta eragin zuzena du gazteen inplikazio diskurtsiboan: zailtasunak dituzte gatazkak euren bizitzan izandako eraginak identifikatzeko, eta, beraz, *Besteei* dagokien arazo bat dela interpretatzen dute. Diskurtsootan, beti dago hura modu *zuzenagoan* esperimentatu duen figura baten aipamena: gehienetan gurasoak edo gatazkaren ondorio fisiko oso larriak esperimentatu dituzten pertsonak dira figura horiek. Migraziozko historia duten elkarriketatuen kasuan, bik adierazi dute ez direla bertan jaiotako adinkideak bezain legitimatuta sentitzen gaiari buruz hitz egiterakoan, nahiz eta biak adin oso txikitan heldu ziren Euskal Herrira, eta, beraz, euren bizialdi kontziente osoa bertan gertatu den.

Diskurtsoa aldatu egiten da, ordea, identitate kolektibo baten perspektibatik mintzo direnengan. Hizlariak bereizi egiten dituzte gatazkaren eragin indibiduala, euren testuinguru pertsonalean identifikatu ezin dutena, eta eragin kolektiboa; belaunaldi gisara, errazagoa zaie iraganaren eta euren egungo testuinguruaren arteko lotura eraikitzea. Norbanako gisara, eragin horren pertzepzioak orokorkerien forma hartzen du maiz: “hemen bizitzeko modua” (Nora-21-Getxo) edo “pentsatzeko modua” (Paulo-19-Urnieta) dira aipatzen dituzten eraginetako batzuk, baina gutxitan zehazten da zertan eragin duen gatazkak euren bizimoduan edo ekintzetan. Hizlariak modu zehatzenean aipatzen dituzten efektuetako batzuek aurreiritzi linguistikoekin eta euren parte hartze politikoarekin dute zerikusia:

- 1 Zuk esango zenuke euskal gatazkak zuri eragin dizula?
- 2 *[Pentsakor, isilunea] Niri... o sea, niri zuzenean ez, ez dudalako gehiegi bizi,*
- 3 *baina nire inguruari bai, eta horrek – o sea, historiak berez eragiten du*
- 4 *hurrengo belaunaldietan.*
- 5 Zein zentzutan?
- 6 *Ez dakit. Pues uste dut, mismamente presoen mani batera joateak esan nahi*
- 7 *du zerbait gertatu dela eta zerbait... gatazka hori izan dela gatazka hau. Edo*
- 8 *politikan gehiago sartzea izan da herria bizirik dagoelako edo dagoelako*
- 9 *zerbait oso gertukoa.*

Maddi-17-Tafalla

Pasarte honetan, Maddik subjektu kolektibo baten posizioa hartzen du bere burua gatazkaren aurrean posizionatzeko: bere jokabide indibidualaren (manifestazioetara joatearen ekintzaren bidez irudikatua) jatorria gatazka armatuan dagoela identifikatzen du, eta taldearen tokian kokatzeak lotura hori eraikitzeke oinarri diskurtsiboa eskaintzen dio. Deixiaren erabileraren bidez bereizi egiten ditu “gatazka hori” (7. lerroa), hau da, *Besteena*, lehengoa, beregandik urrunago dagoena, eta “gatazka hau”, hurbil sentitzen duena: erakusleen aukeraketak hizlariaren posizioaren araberako hurbiltasun-eskala batean kokatzen ditu gertakariak. “Zuzenean” adberbioak ere (2. lerroa), antonimiagatik, *zeharkako* harreman baten presentzia inplikatzeko du, hau da, mediatutako harreman batena. Kasu honetan, hizlariaren testuinguru sozialak (“nire inguruak”, 3. lerroan) kunplitzen du bitartekari funtzioa: inguruko pertsonen esperientzien bidez eraikitzen du hizlariak bere buruaren eta gatazkaren arteko harremana.

Horregatik, Maddi kolektibitate baten izenean mintzo da (bere belaunaldiaren izenean) bi gatazken arteko lotura eraikitzen duenean. “Herria bizirik” (8. lerroa) metafora darabilenean, prosopopeia edo pertsonifikazioa erabiltzen ari da, talde bati pertsona baten

ezaugarriak atxikiz. Maddiren diskurtsoan, identitate kolektibo hori bihurtzen da subjektu nagusi, hizlari indibiduala ordezkatur.

Diskurtsiboki subjektu kolektibo baten posizioa hartzeak hainbat funtzio sozial betetzen ditu. Alde batetik, adierazpenaren edukiarekiko inplikazio pertsonala murrizten du (Wodak, 2011, p. 175): norbanako anitzez osatutako subjektu kolektibo horretan, hizlariaren agentzia lausotuta edo sakabanatuta geratzen da. Bestetik, taldearen izenean hitz egiteak taldeari buruz eraikitako diskurtso kontsentsuatueta eta iruditeria partekatuetara jotzeko aukera ematen du, zeinak beste egoera batean, norbanakoari aplikatuta, topiko gisara interpretatuko bailiratekeen. Izan ere, memoria kolektiboa taldearen identitateari buruzko oinarritzko galderak erantzuten dituen esanahi-sistema bat da; taldearen iragan partekatuari buruzko istorioek osatzen dute (Erlil, 2017, p. 27), hau da, Assmannek (2011, p. 59) aipatzen dituen “mito fundazionalek”. Istorio horiek nortasun kolektibo baten testuinguruan hartzen dute koherentzia, oro har ez datozelako erabat bat taldea osatzen duten norbanakoen bizi esperientzia zehatzekin; oster, komunitatearen barruan aski indar sinboliko dute komunitateko kide diren norbanakoek diskurtso horiei egiazkotasuna aitortzeko eta euren burua bertan identifikatuta senti dezaten, euren esperientzia pertsonalak zeinahi izanik ere.

Gure ikerketako parte hartzaileek euskal gatazkarekiko sentitzen duten harremana ere izaera sinbolikokoa da neurri handi batean, hau da: talde gisara lotura sentitzen dute gatazkaren iragan hurbilarekin, baina pertsonalki zailtasunak dituzte haren eraginak euren eguneroko bizitzan identifikatzeko. Disoziazio bat dago belaunaldi gisara eraikitzen dituzten iraganaren irakurketa kolektibo politikoen eta euren bizi esperientzien narratiba pertsonalen artean, disoziazioa “gorputz kognitibo bereizi eta sarritan kontraesankorrak mantentzea ahalbidetzen diguten kontzientzia-egoera” (Bloom, 2010, p. 200) ezberdinen koexistentzia gisara ulertuta. Onegaren arabera (2012, pp. 85–86), disoziazioak bi funtzio bete ohi ditu: alde batetik, norbanakoari iragan traumatikoak kudeatzea ahalbidetzen dion defentsa-mekanismo bat da; bestetik, gertakari traumatiko horien lekuko zuzenen ezagutzak kontzientzia kolektiboan txertatzea ahalbidetzen du.

Horregatik, ohikoa da euskal gatazkarekiko loturaz galdetuta, aurreko belaunaldiekin duten transmisio-harremanaz hitz egitea, esate baterako, hurrengo adibidean:

1 Zuk sentitzen duzu euskal gatazkak eragin dizula?
2 *Hombre, ba ez dakit. Zuzenki-zuzenki ez, baina azkenean nire familiaren gauza*
3 *bat [baldin bald]a, niregan edukiko du eragin moduko bat. O sea, eurek –*
4 *eurengan badauka eragina, azkenean niri modu consciente edo*
5 *inconscienteagoan transmitituko dit zer edo zer. Baina ez dakit orain zer*
6 *transmitituko didan.*
7 Esan zenezake gutxi gorabehera zure izaerako zein atali eragin dion? Zure
8 sineskera politikoei, adibidez?
9 *Ez dakit. O sea, nahiko – hori, nahiko pacifistak izan direnez, ez daukat ere ez*
10 *hor kriston diziplina buruan sartu didatela, en plan, pf pf pf [keinua, zerbait*
11 *indarrez sartzearena]. (...) es que ni azkenean gehiago nago hemengo*
12 *ikuspuntura, zeren hemengoa naiz, eta orduan eman didate niri hau jateko eta*
13 *hau defendatuko dut. Baina azkenean horrelako gauzetan izan behar da apur*
14 *bat neutroa. O sea, nik ulertzen dut hori, España profundako batek ulertzen*
15 *du, ikusten du hau como terrorista eta dena, baina hemengo batek ez du ikusten*
16 *terrorista bezala. Ba ez dakit, ziren pertsona batzuk joan zirela ba herria*
17 *salbatu nahian; ez zirela formarik onenak, baina bueno, garai hartan hartu*
18 *zuten forma horiek.*

Joseba-20-Bilbo

Josebak, bere narratiban, Maddik bezalaxe, jakintzat ematen du sozializazio bidezko memoria-transmisio *natural* baten existentzia, norbanakoek taldeko kide izate hutsagatik egiten duten ikasketa-prozesu bat: ez da gai deskribatzeko zertan datzan euskal gatazkaren historiatik bere senideen bidez iritsi zaion eragina, baina existitzen dela ziurtatzen du. Baieztapen hau, nolana ere, probabilitatzeko modalizatzaile epistemikoen bidez leuntzen du, besteak beste, etorkizuneko aditz forma hipotetikoak erabiliz (“edukiko du eragin moduko bat”, 3. lerroan); ez da erabat ziur sentitzen esplizitatu duen tesiaz, ezin duelako ebidentzia zehatzik eskaini hura indartzeko. Deskribapen zehatzen ordez, egiturazko metafora batera jotzen du transmisio hori deskribatzeko: “(...) eman didate niri hau jateko”. Egiturazko metaforek ez dute bakarrik kontzeptu konplexu bat osotasun edo substantzia ezagun baten terminoetan kontzeptualizatzen (metafora ontologikoen egiten duten moduan); horrez gain, kontzeptu bat metaforikoki egituratutako beste kontzeptu baten terminoetan planteatzen dute (Lakoff & Johnson, 1980, p. 96). Kasu honetan, elikaduraren metafora aktibatzen du: bere gurasoen partetik jasotako ikasketa politikoak haur batek jasotzen duen elikadurarekin parekatuta, iraganari eta gatazkari buruzko ezagutza aurreko belaunaldien eskutik beregana jariatzen den korrante edo gai baten gisan irudikatzen du, hazteko balio diona. Josebak bere burua subjektu hartzaile pasibo gisara erretratatu du narratiba honetan: memoria bere ingurune sozialetik iristen zaio, eta bere parte hartzea hura pertzibitzera eta erreproduzitzera mugatzen da. Azken bi lerroetan (“ziren pertsona batzuk joan zirela herria salbatu nahian”) esplizitatu duen diskurtso justifikatzailea, hain zuzen ere, ezkutuko aipu bat da, Josebak adibide gisara erabiltzen duelako bere komunitate epistemikotik jaso dituen ikaskuntza politikoak deskribatzeko: hausnarketa metadiskurtsibo baten barruan kokatzen denez, egiaz bere komunitatearen zeharkako aipu bat da.

Narratiba honek memoriaren transmisioaren rol nagusia belaunaldi helduagoi egozten die: haiek dira agentibitate handieneko subjektuak, esperientzia bildu dutelako eta eurek transferitzen dutelako ezagutza. Horrela, memoriaren transmisioa norabide bakarreko korrante gisara kontzeptualizatzen da, komunikazioaren hastapenetako teoriak (Shannon, 1948) planteatzen zuten *igorle-kanal-hartzaile* egitura kanonikoaren ildotik. Memoriaren transmisioa ez da, ordea, ezagutza denboran subjektu batzuetatik besteengana garraiatzen duen ibilbide lineal bat: aitzitik, memoria orainalditik eta testuinguru garaikide zehatz batean eskura dauden elementuekin osatzen den eraikuntza diskurtsibo eta sinbolikoa da, subjektuaren parte hartze aktiboa eskatzen duena ezinbestean. Gure parte hartzaileek euskal gatazkari buruz duten ezagutza-espektroak hainbat uste, jarrera eta erreferentzia kultural biltzen ditu, eta haien bidez eraikitzen dituzte gatazkari buruzko diskurtsoak, betiere euren egungo posiziotik abiatuta eta posizio hori erreferentzia puntu gisara hartuta: badute harreman pertsonal bat euskal gatazkarekin. Beraz, lotura hori ukatzen dutenean edo baliorik aitortzen ez diotenean, diskurtso horiek bestelako funtzio sozial bat betetzen dutela suposa dezakegu, hau da, euskal gatazkaren historiarekiko pertzibitzen edo adierazten duten desidentifikazioak zerikusia daukala euren posizio sozialarekin eta hari lotutako legitimitate edo agentibitatearekin.

Halaber, desidentifikazio honek gazteon testuinguru diskurtsiboaren berri ere eman diezaguke. Horren adibide da migraziozko historia hurbila duten elkarrizketatuen artean

ugariagoak direla inplikazio handiko diskurtsoak, eta gutxiago estrategia diskurtsibo leuntzaile edo urruntzaileak. Aldera ditzagun, esate baterako, honako bi pasarteak:

1 ¿Sientes que el conflicto vasco te ha afectado a ti personalmente?
2 *Sí. Sí, te llega a tocar cuando escuchas y — a esas personas que eran niños y*
3 *todavía se acuerdan. (...) personalmente sí te toca mucho, porque te enteras*
4 *de que muchas personas murieron solo por intentar defender sus ideales, o en*
5 *sí la complejidad del conflicto, que es muy complejo. Yo vi que era muy*
6 *complejo cuando me tocaron lo de Franco, lo de la Guerra Civil, y lo mismo*
7 *ETA. Entonces es muy complejo; cuando tú sientes eso es como, wow, todo lo*
8 *que pasa a la gente, que tú viviste algo muy parecido, pero no llega a ese nivel.*
9 *Entonces, sí te toca, y es como, wow: lo que pasó, es como — cómo puede*
10 *haber tantos problemas en casi una historia de que tú no sabías. Yo no sabía*
11 *nada de la historia de Europa en sí.*

Sebas-17-Barakaldo

1 ¿Tú dirías que el conflicto te ha afectado a ti personalmente?
2 *M... no. O sea, personalmente igual en cuanto a qué pensar sobre ello, o así,*
3 *pero en mi día personal, no.*
4 ¿No te sientes víctima?
5 *No, en absoluto.*

Paulo-19-Urnieta

Bi pasarteotan, alde handia dago hizlarien posizionamenduan. Sebas haur migratzailea da eta, begirale rola hartzen duen arren, eragin pertsonal zuzena deskribatzen du: besteen esperientzien lekuko izateak, hau da, ezagutzak (mediatua izanik ere) gatazkara hurbiltzen duela sentitzen du, eta hura bere testuinguru diskurtsiboan present dagoela sumatzen du. Paulok, aldiz, familia hurbilean biolentzia zuzeneko esperientziak izan dituen arren, distantzia agertzen du gatazkaren eraginekiko, eta ez du bere burua biktima gisara identifikatzen. Kasu honetan, Pauloren diskurtsoak gatazkaren esperientzien normalizazio bat adierazten du: ez du sentitzen gaia bere inguruan oso present dagoenik. Sebasen diskurtsoak, aldiz, sentsibilizazio handiago bat erakusten du gatazkaren presentzia diskurtsiboarekiko. Horrek, ziurrenik, bi hizlarien sozializazioarekin du zerikusia: Paulo gatazkari buruzko diskurtsoen artean hazi da, eta, beraz, haietako gehienak hain arruntak zaizkio, non ez baitituen aintzat ere hartzen. Areago: gaiari eta bere buruari bigarren mailako posizioak aitortzen dizkie. Sebasentzat, aldiz, informazio oro da informazio berria, eta, beraz, askoz modu kontzienteagoan prozesatzen edo egokitzen du bere alde aurretiko ezagutzara: beretzat, ezagutza hori eskuratzea komunitate epistemiko batean sartzea izan da, gatazkari buruzko eztabaida sozialean posizio bat hartzeko aukera eman diolako, hura begirale posizioa izanagatik ere. Posizio horretan jaio eta hazi direnek joera handiagoa dute euren ingurune diskurtsiboa eta gatazkaren inguruan eraikitako harreman sareak normalizatu eta ikusezin gisara pertzibitzeko.

Gatazka politiko eta armatuarekiko desidentifikazioa are handiagoa da parte hartzaileei biktima sentitzen ote diren galdetuz gero. Biolentzia hurbiletik ezagutu dutenek ere ez dute euren burua kategoria horretan sailkatzen, ez behintzat maila pertsonalean. Biktima identitatea diskurtsoan agertzen denean, oro har talde-nortasun baten barruan izaten da: familiaren izenean, belaunaldiaren izenean edo, oro har, euskal herritarren izenean.

1 ¿Cómo dirías que te ha afectado personalmente el conflicto?

2 *A ver, yo realmente – o sea, apenas conocía a [mi tío], entonces, afectar,*
3 *afectar como tal, no me ha afectado. Soy, digamos, una víctima indirecta.*
4 *¿Afectarme? Pues yo creo que igual sí dejó a mi abuela bastante tocada. O*
5 *sea, yo a mi amona sí que la noto a veces, con temas de política: “La política*
6 *es una mierda, mira lo que le hicieron a mi hermano, no te metas en política”.*
7 *Por ese lado sí que víctima sí, porque al final mi amona, para mi amona es un*
8 *antes y un después. Pero la familia – bueno, luego la familia sí que ha vivido,*
9 *o sea, hay distanciamiento entre la mujer de [mi tío] y algunos hermanos de*
10 *mi amona. Porque ellos son izquierda abertzale, y mi tía creo que es socialista,*
11 *vaya. Entonces hay un poco de confrontación o tensión, no se hablan.*

Ibai-20-Donostia

1 *Biktima nagusiak gatazka honetan? Nik uste euskal herritarrek izan garela.*
2 *Ez zuzen – agian, bai ikusten dela atentatuetan ez dakit zenbat pertsona hil*
3 *diren eta hori guztia, baina nik uste dut askotan ez dela kontuan hartzen*
4 *borroka horretatik kanpo egon diren gauzak. Egon den – orain dagoen*
5 *errepresioa horren ondorioz, hori baino lehenago egon den errepresioa,*
6 *bitartean egon den errepresioa; torturatu guztiak... eta baita ere orain bizitzeko*
7 *ari garen egoera, ez dela – errepresioa, gatazkarekin zuzenean zerikusia*
8 *daukana: prekarietatea, gazte prekarietatea baita, bi bandoetako baten*
9 *ekintzak, eta nik uste hori bai sartu beharko dela gatazkaren barnean. (...)*

Euskal gatazkak zuri eragin dizula sentitzen duzu?

Bai.

Nola?

13 *Pues – ni euskal gatazkaren parte naiz. Ez dakit nola azaldu. Baina nire*
14 *harremanak, nire pentsatzeko era, guztia determinatu du gatazka honek. O*
15 *sea, familian, familia giroa erabat – es que familia guztia egon da gatazkaren*
16 *barne, era batean edo bestean, pues Herri Batasunan, edo Gestoras-en,*
17 *Jarraien... eta ere erakutsi didate horren ondoren.*

Ilargi-16-Etxarri Aranatz

Bi adibideotako hizlariak oso bestelako esperientziak ezagutu dituzte gatazkari dagokionean: Ibairen senide bat ETAk hil zuen 2000ko urteen hasieran, bera haur txikia zela; Ilargik, aldiz, ezker abertzalean aktibo izandako senideak ditu, eta haien abaroan gauzatu du bere sozializazio politikoaren zati handi bat. Bi kasuetan, baina, ez dago *biktima* kategoriarekiko identifikazio zuzenik, identifikazio mediatu bat baizik: bietan, familiak (eta, Ilargiren kasuan, baita talde sozial zabalagoak ere) funtzionatzen du identifikaziorako zubi edo bitartekari gisara. Hizlariak kolektibitate horien parte sentitzen diren neurrian sentitzen dira gatazkaren biktima, talde horiei eragin dieten arazoak (biolentzia, tentsioak, errepresioa, prekarietatea, eta abar) identifika ditzaketelako. Ez dituzte arazo horiek euren eguneroko bizitzetan kokatzen (ez behintzat diskurtso hauetan): Ibaik adierazpen metalinguistiko bat darabil distantziamenduzko estrategia gisara (“digamos”, edo “nolabait esateko”, 3. lerroan) eta bere burua “zeharkako” biktima gisara definitzen du, hau da, bigarren mailako pertsonaia gisara. Aitzitik, bere senideak kokatzen ditu gatazkaren esperientzien lehen lerroan, eta haien bidez eraikitzen du gatazkarekiko bere lotura propioa. Ilargi, berriz, biktima gisara identifikatzen da *ingroup*-aren izenean mintzo denean: “errepresioa” terminoaren errepikapenak (5., 6. eta 7. lerroetan) karakterizazio hori indartzea du helburu, *ingroup*-ak sufritutako kaltea nabarmentzen delako diskurtsoan. Maila indibidualean, ordea, Ilargik ez du kalte horren eraginik aipatzen: modalitate epistemikoak adierazten digu zailtasunak dauzkala gatazkarekiko bere harremana definitzeko, “ez dakit nola azaldu” (3. lerroa) aditz metakognitiboaren (Astington & Olson, 1990, p. 78) erabilerak adierazten duenez.

Irtenbide gisara, metaforizaziora jotzen du: “ni gatazkaren parte naiz” (13. lerroa) dioenean, bera barne biltzen duen osotasun baten gisara kontzeptualizatzen du gatazka; edo, beste era batera esanda, gatazka hainbat aktore eta harreman mota biltzen dituen *zelai* baten gisara eraikitzen du, eta hizlariak bere burua bertan kokatuz eraikitzen du haiekiko lotura. Nolanahi ere, esanguratsua da eraikuntza diskurtsibo honetan agentibitatea gatazkarengan kokatzen duela hizlariak: gatazkak “determinatu” (14. lerroa) ditu hizlariaren jokabide eta ekintzak, ez alderantziz. Bere burua gatazkaren eragina modu pasiboan jasotzen duen subjektu ez-agentibo gisara aurkezten du Ilargik eraikuntza honetan. Behaketa hau bat dator Shirkanth eta Szpunar-ek egindako ikerketa enpirikoekin (2021, p. 184): haietan frogatu zuten ohikoak direla era honetako disoziazioak egitura kognitibo indibidualen eta kolektiboen artean, bai iraganari dagokionez, eta baita etorkizunari dagokionez ere.

Aztertu berri ditugun bi adibideetan jakintzat ematen da *giroko transmisio* baten existentzia, hau da: ingurune edo metaforikoki ulertutako *lurrealde* sozial zehatz batean hazteagatik posizio sozial zehatz bat egokitu zaiela interpretatzen dute, eta posizio horretan jaso dutela gatazkaren eragina, hurbilekoen esperientzien bitartekaritzarekin, haiek sufritu zuten gatazka, eta haien lekukotzen bidez iritsi zaie ezagutza hizlariari. Nolanahi ere, ez da egia gure ikerketako parte hartzaileek ez dutela gatazkarekin lotutako esperientzia zuzenik: elkarrizketen analisisan gatazkarekin lotutako hainbat ezagutza, iritzi, jarrera eta emozio identifikatu ahal izan ditugu. Horiek guztiak gazteek gatazkarekin duten harremanaren osagaiak eta euren esperientzien bildumaren parte dira, euren behar besteko garrantzirik ez aitortu arren.

Alde batetik, euskal gatazka nagusiki maila sinbolikoan esperimentatu dutela behatu ahal izan dugu. Hainbat gazte mintzatu dira arrazoi politikoei lotutako aurreiritzi eta iruditeriei buruz, eta horiek epai injustu baten gisara ebaluatu dituzte:

1 Sentitzen duzu euskal gatazkak zuri eragin dizula?
2 *Hombre, bai, zergatik... es que ez dakit nola esan... da Irlandan bezala: bati
3 galdetzen badiozu ea independentista den, eta esaten badiozu baitez, eta
4 erlazionatzen badu hori ETArekin... es que nik ez dut nahi horren parte izan.
Imanol-15-Arbizu*

Imanolek bere bizitzan identifika dezakeen eragin pertsonal bat deskribatzen du pasarte honetan. Horretarako, konparazio batera jotzen du testuinguruko informazioa osatzeko: Ipar Irlandako gatazka aipatzen du (2. lerroan), gatazka armatuari buruz ari dela deskribatzeko. Ondoren, kanpoko begirada baten posizioa hartzen du, eta zeharkako aipu hipotetiko bidez berreraikitzen ditu bere buruarekiko edo bere taldearekiko sentitzen dituen aurreiritziak. Azkenik, apreziaziozko modalitatea (zehazki, optatiboa, 4. lerroan “Nik ez dut horren parte izan nahi” dioenean) darabil bere posizioa eraikitzeko: deserosotasuna adierazten du aurreiritzi horiekiko, eta haietatik distantzia hartzen du.

Era honetako lekukotzek adierazten digute gazteek euskal gatazka, modu kontzientean bederen, maila sinboliko eta diskurtsiboan esperimentatzen dutela nagusiki: euren kontakizunetan maiz agertzen diren elementuak dira banderak, sare sozialetako argitalpenen eta kaleko adierazpen publikoen mugatzea, eta aurreiritziak, baita linguistikoak ere, batez ere joera politiko zehatzekin lotutako espazioetan (adibidez, jai gune batzuetan), edota testuinguru politiko eta soziolinguistiko oso desberdinetatik datozen adinkideekin elkartean:

1 Zuk zeuk sentitzen duzu euskal gatazkak eragin dizula?
 2 Ba hori, Escolapiosekin elkartu ginenean eta haiek “etarrak” deitzen
 3 gintuztenean, eta guk haiek “fatxak”. Ba azkenean bazen hor – o sea, ez
 4 geneukan ideiarik, eta ezberdintzen gintuen bakarra izan zen euskara. Euskara
 5 jakitea edo ez. Orduan, ba hori: ba haiek esaten zuten Nafarroa zela Espainia,
 6 guk esaten genien ezetz, ikasten genuelako Ikastolan bazela – o sea, Ikastolan,
 7 LHn, ikasten genuen zazpi probintziak, Euskal Herria; eta haiek ez zutelako
 8 halakorik ikusten. Horrek ezberdintzen gintuen pila bat eta gatazka moduko
 9 horiek bai bizi izan genituela.
 10 Zuek momentu horretan bazenekiten zer esan nahi zuten “etarra” eta “fatxa”
 11 hitzek?
 12 Ez, ez. O sea, agian – es que, uste nuena izan zen ETA zela talde bat, txikitán,
 13 ez? Talde bat, ba, euskaraz zekiena eta euskararen alde zegoena. Baina ez
 14 nekienez gehiago.
 15 Bere alderdi armatuari buruz gerora jakin duzu?
 16 Bai.

Endika-17-Tafalla

Van Dijk-en (2003) kontzeptuak erabiliz, hizlariak lau ideologiko argi bat eraikitzen du, *Besteen* kategoría bat (*outgroup*) eta *Gureen* kategoría bat (*ingroup*) polarizatuz. Lehenbizikoan leudeke Escolapios eskola erdaldun eta erlijiosoko ikasleak; bigarrenean, aldiz, ikastolako haur euskaldunak, hizlaria bera barne. Hizlariak hainbat datu elipsatzen ditu kooperazio printzipioa jarraituz (Grice, 1975): printzipio honek elkarrizketetan elipsatutako informazioa eta esanahien interpretazioa gidatzen duten egokitasunezko maxima batzuk ezartzen ditu, zeinaren arabera hizlariak esanahia inferitzeko beharrezkoa eta doia den informazioa ematen duten (Davies, 2000, p. 23). Aztergai dugun adibidean, hizlariak informazio partekatutzat jotzen ditu hainbat datu, eta, beraz, ez ditu esplizitatzen; besteak beste, ikastolek curriculum propioa daukatela geografia gaitan.

Endikak erabateko identifikazioa erakusten du *ingroup* horrekiko, lehen pertsonako aditzek (2. eta 3. lerroetan) eta izenordainen erabilerak (2., 3., 5. eta 6. lerroetan) erakusten dutenez, eta aipatutako diskriminazioa ilustratzen duen narrazioa esperientzia pertsonal batean oinarritzen denez gero. Polarizatze-estrategia horretan, *ingroup*-aren ezaugarri positiboak eta *outgroup*-aren ezaugarri negatiboak nabarmendu ohi dira (Van Dijk, 1997, p. 211). Kasu honetan, hizlariak aitortzen du bi taldeek zeuzkatela elkarrekiko aurreiritziak; *etarra* eta *fatxa* termino peioratiboek metafora funtzioa betetzen dute kasu honetan, ezinezkoa baita gazteotako inor ETAn kide izatea euren adinarekin. Ez dira, ordea, jarrera politiko bat irudikatzen duten metaforak soilik, identitate kultural eta linguistiko bat baizik. Ondorioz, bere kulturagatik seinatua den norbaiten gisara aurkeztzen du bere burua hizlariak. Bigarren erantzunean ikus daitekeenez, esperientzia horrek hainbesteko indarra izan zuen, ezen gatazka armatuari buruzko bestelako erreferentziarik ez zeukan haur batek (ETA zer zen ez jakiteraino), gatazka hizkuntzarekin baizik ez baitzuen lotu. Hizlariak, nolana ere, ez dio heltzen eskema polarizatzaileari; estrategia diskurtsibo leuntzaile bat darabil, haurren ezjakintasuna nabarmenduz (3-4. lerroak).

Gatazkari buruz pentsatzeak eragiten dizkien emozioei erreparatuta, gazteok gehien aipatu dituzten emozioak tristura (5 aipamen), harridura (4 aipamen), beldurra (3 aipamen) eta lotsa (3 aipamen) izan dira. Harridura, kasu gehienetan, ulertu ezinari lotuta agertu da:

1 *Niri harritzen dit hil ziren — esan nahi dut, pixkat urruti geratzen den zerbait*
2 *da, baina niri harritzen dit zelan, ba, bastante jende hil egin dela bezala. Eta*
3 *da bizitza bat de repente ja — ez da zer edo zer, ba, txantaje bat bezala edo*
4 *amenaza bat. Hori bai iruditzen zait gogorra bezala, eta horraino iristea, hori*
5 *harrigarria iruditzen zait.*

Ane-21-Mutriku

Aneren pasarte honek distantzia handia adierazten du bere taldearen historiarekiko: metafora espazial baten bidez adierazten du distantzia hori (“urruti geratzen den zerbait”, 1. lerroan), eta zailtasunak ditu historiari buruzko narratiba koherente bat eraikitzeko; hau da, ulertu ezin bat dago bere diskurtsoaren oinarrian. Harriduraren adierazpenak, hortaz, ezjakinaren rola hartzea ahalbidetzen dio, eta bere burua iraganeko biolentziatik distantziatzea.

Beldurra, aldiz, oro har etorkizunera begirako kezka lotuta ageri da (errepresioa edo aurreiritzi gehiago sufritzeko beldurrari), eta ez hainbeste iraganeko oroitzapen zuzenei. Hizlariok biolentziatzko gertakari buruz dituzten oroitzapenak haurtzaroko oroitzapenak dira oro har, baina ez daude beldurrak zeharkatuta. Sarritan, kontrakoa identifikatu ahal izan dugu: normaltasun giro baten barruan kokatzen dituztela gertakari esanguratsuenak. Esate baterako, aurreko hizlari beraren elkarrizketako beste pasarte honetan:

1 *Es que orain hori esan duzunean, etorri zait: ni txikia nintzenean, Mutriku,*
2 *horrela bonba bat ipini zuten justo, e, portuan. Eta, bueno, ez dakit, 4-5 urte*
3 *inguru edukiko nituen, eta abisatu egin zuten, esan zuten zegoela portuko*
4 *puntu batean eta egongo zela kalea itxita ez dakit ze ordutatik ez dakit ze*
5 *ordutara. Eta bakarrik — gu etxean geunden eta entzun zen burrunda bat eta*
6 *ez zen egon inongo — inor eta zaurituta ez ezer, bakarrik hura, materialak eta*
7 *pixkat.*
8 *Eta orduko sentazioaren bat gogoratzen duzu?*
9 *Ez, zeren nik sentitu nuena zen jendeari ez zitziola arraroa egiten. Esan nahi*
10 *dut, garai hartan oraindik egoten ziren bonbak leku desberdinetan-eta, orduan*
11 *zen zer edo zer — oraindik, txikia zarenean ez duzu hainbeste replanteatzen*
12 *gauzak, orduan, zen egun berezi bat, zer edo zer gertatu zelako, baina*
13 *inguruan normala izango balitz bezala. Ba guk gure artean, "A, atzo ez dakit*
14 *zer egon zen, entzun zenuen zarata?"-eta, baina berez ez zen hain — nahi dut*
15 *esan.*

Ane-21-Mutriku

Aneren pasarteak, alde batetik, agerian uzten du memoriazko diskurtsoek sarritan elementu aktibatzaile bat behar izaten dutela interakzio komunikatiboaren barruan azaleratzeko: kasu honetan, gatazkari buruzko elkarrizketak berak eragin du hizlariak haurtzaroko gertakari bat gogora ekartzea. Bestalde, oroitzapenaren prominentzia bi faktorek eragiten dute. Alde batetik, hizlariarekiko hurbiltasunak: parte hartzaileek zuzenean oroitzen dituzten gertakarien artean, hurbileko erreferentziak nagusitzen dira, hau da, euren herri edo auzoan gertatutakoak edota euren testuinguru sozial hurbileko pertsonak inplikatzeko dituztenak. Anek, orduko haurraren tokian jarrita, haur horren egunerokotasunean eragin zuten elementuak gogoratzen ditu batik bat: kalea itxi zutela (4. lerroa) eta ezohiko zarata (“burrunda”, 5. lerroa). Bestalde, *atentatu* kategoriarekin bat datozen gertakariak ere gehiago eta xeheago ageri dira gazteon narratibetan, bereziki leherketak eta haien ondoriozko suntsipen materialak. Gure hipotesia da gazteek errazago lotzen dituztela ezaugarri horiek dituzten gertakariak *gatazka* kontzeptuarekin, hain zuzen

ere euskal gatazkaren inguruan nagusitzen ari den eta analisi honen lehen kapituluan aztertu dugun *terrorismoaren* narratibaren ondorioz.

Zehazki, 2011 baino lehenagoko gertakarien artetik, ETAk 2008ko abenduaren 31n EiTB irrati-telebista publikoaren Bilboko egoitzan ipinitako lehergailua izan da parte hartzaileek euren oroitzapenen artean gehien aipatu duten gertakaria (6 aipamen). Atentatu hori ETaren azkenekotakoa izan zen, eta parte hartzaile gehienek, haur txikiak izanagatik ere, gogoratzeko moduko adina zeukaten ordurako. Haren ondoren, desarmeari eta ETari buruzko ikus-entzunezko albisteak, presoekin lotutako objektu eta ongi etorriak eta polizia kontrolak dira gazteek gehien gogoratzen dituzten elementuak.

1 Gogoan daukazu bereziki anekdotaren bat etxean errepikatzen dena?
2 *Egia erran, ez. Nik gogoan dudana da bai Bilboko ETBren egoitzaren kontra*
3 *ETAk egin zuen eraso horretan, justu aita ondoan zegoen, Bilbotik bueltan*
4 *Termibusen autobusa hartu behar zuen, eta justu hor ondoan zegoela. Eta hori*
5 *izan zen niretzat ETaren aldetik ba beldur... hurbiltasun handiena agian*
6 *sentitu dudan momentua, eta hala ere nik beti azpimarratzen dut, ez? Hor*
7 *sentitu nuen beldurra ez dela ezer Hendaiatik Irunera pasatzean kontrol*
8 *batean sentitzen dudan beldurrarekin [alderatuta]. Niretzat hori oso*
9 *adierazgarria da; hor nolabait haur batek sentitzen ahalko luke bere aita*
10 *hiztorian egon daitekeela, bai, baina adibidez nik beti azpimarratzen dudana*
11 *da askoz beldur handiagoa sentitzen nuela gurasoak errandako ordua baino*
12 *beranduago iristen zirenean, ustez auskalo zer gertatzen ahal zitzaien baina*
13 *beti poliziaren eskutik, ez ETaren eskutik.*
14 Zuk nola gogoratzen dituzu kontrol horiek?
15 *Beldurrez. Beldur handia. Zubira iritsi, sirenak ikusi eta tripan bola ikaragarri*
16 *bat, gaur egun oraindik pixkat sortzen zaidana. Eta guttitan gelditu gintuzten,*
17 *betiko kontua: haur bat dagoenean beti askoz guttiago gelditzen da, baina*
18 *beldur ikaragarria eta gelditu gaituzten aldietan beldur handiz eta bortizkeria*
19 *handiz.*

Lur-16-Hendaia

Berak esperimentatutako emozioei buruz ari da Lur pasarte honetan: haurtzaroko beldurra gogoratzen du, eta bi gertakariarekin lotzen du emozio hori. EiTBren aurkako atentatua, nolana ere, mediatutako oroitzapen bat da, berak ez baitzuen zuzenean presentziatu; Lurren memorian leku esanguratsua hartu izanaren arrazoia, hain zuzen ere, bere aitaren inplikazioa da; hori da gertakaria hizlariarengana hurbilarazten duen elementua. Lurrek orduko emozioa beste gertakari batek eragindakoarekin alderatzen du: Hego Euskal Herriaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko mugan esperimentatutako polizia-kontrolak eragindako beldurrarekin. EiTBren aurkako atentatua narratzerakoan baino egitura enfatizatzaile gehiago darabiltza (“ez da ezer”, 7. lerroan, eta “askoz beldur handiagoa”, 10.ean), baita bere posizioa ilustratzen eta ulertarazten duten azalpenak ere: alde batetik, “auskalo zer gertatzen ahal zitzaien” (12. lerroa) bere buruaren zeharkako aipu bat da; bestetik, lengoia figuratiboa darabil bere orduko sentsazioak berreraikitze baliabide erretoriko gisara (“tripan bola ikaragarria”, 15. lerroa). Oro har, hizlariak bigarren gertakari horren esperientziaren kontakizunarekiko adierazten duen inplikazioa handiagoa da lehenbizikoarekiko baino: hura modu *zuzenagoan* esperimentatu zuenaren seinale.

Nolana ere, salbuespenak dira Lurren moduko narrazio xeheak. Oro har, haurtzaroko oroitzapen gehienak, zuzenak izanagatik ere, partez mediatutako oroitzapenak dira, haurrak hautemandako elementu, inpresio edo giroak ia beti behar duelako informazio

osagarri bat diskurtso koherente bihurtzeko. Informazio osagarri horrek guraso edo heldu baten azalpenaren edota hizlariaren beraren *a posteriori*-ko elaborazio diskurtsiboaren forma hartzen du ia beti. Mediazio hori Lurren narratiban ere antzeman daiteke, bertan egiten duen alderaketa bere posizio garaikidetik, edo, gutxienez, gertakariak esperimentatu ostean egin duen ebaluazio batetik datorrelako. Ondorengo adibidean garbiago identifika daiteke haurtzaroko oroitzapenen alderdi mediatua:

1 ¿Recuerdas alguna acción o atentado concreto de ETA?
2 [Isilunea, pentsatzen] Pues puede ser en Burgos, cuando era más pequeña,
3 pues me acuerdo que cuando íbamos de vacaciones pasamos por esa calle y
4 no me acuerdo si era un edificio o una comisaría o algo así, pero estaba
5 destruido. Entonces mi ama me dijo: “Mira, aquí pusieron una bomba los de
6 ETA”. Y me acuerdo en plan de ver todo en ruinas y así. Eso es lo más cercano
7 que tengo.

Elena-17-Barakaldo

Elenaren narratiba koherentea da hizlariaren oroitzeko gaitasunak barne hartzen duen garaiarekin (Peterson, 2021): ETAk atentatu bat eragin zuen 2009ko uztailaren 29an Burgosko (Espainia) Guardia Zibilaren kuartelaren aurka; taldearen azken-bigarren atentatu planifikatua izan zen (Lopez Adan, 2021b, p. 798). Hizlariak zortzi urte zeuzkan orduan, beraz, sinesgarria da bere kontakizuna esperientzia pertsonal batean oinarrituta egotea: Elenak inpaktu handiko irudi bat gogoratzen du modu nabarmenean (eraikina suntsituta), eta hura bat dator gatazka biolentoaren edo terrorismoaren *frame*-arekin.

Nolanahi ere, pasarteak berak erakusten digu oroitzapen pertsonal horrek ere osagai interdiskurtsibo bat daukala: hizlariak bere amaren zuzeneko aipu bat txertatzen du narrazioan (5-6. lerroetan). Amaren azalpen hori beharrezko datua da bere oroitzapena osatzeko, orduko haurra haren bidez baizik ez zelako jabetu hautematen ari zenaren esanahiaz.

Gure datuetan ageri diren oroitzapen pertsonal guztiak haur baten pertzepzioan oinarritutako *a posteriori*-ko narrazioak dira. Haietan sentimenduak, sentsazioak, giro zehatz baten pertzepzioak eta objektu eta irudi fisikoen aipamenak nabarmentzen dira; behaketa hau koherentea da Shapirok eta Hudsonen (1991) egindako ikerketarekin, zeinetan frogatu baitzuten ikusizko elementuek eta inpaktu bisual handia dutenek pisu handiagoa dutela adin txikietan narratibak eraikitzeko orduan. Beste era batera esateko: gure parte hartzaileek irudi eta inpresio bakanetan gogoratzen dute gatazka, eta bestelako ahots batzuen diskurtso osagarriak erabiltzen dituzte irudi horiek narratiba bilakatzeko. Horregatik, euren oroitzapen guztiak interdiskurtsiboak eta neurri handiago edo txikiagoan mediatuak direla defendatzen dugu; horrek indartzen du, bestalde, epistemikoki belaunaldi propio bati buruz hitz egin dezakegula dioen hipotesia.

Ikus ditzagun mekanismo honen beste bi adibide:

1 ¿Tú tienes algún recuerdo directo que relacionas con este tema?
2 En mi caso sí, porque tengo un familiar que es fiscal de aquí, del País Vasco,
3 y cuando era pequeño por ejemplo, cuando venía a visitarnos o así, pues venía
4 con sus escoltas. Yo no entendía muy bien por qué y tal, pero con los años he
5 visto que era para que no le pusieran una bomba en el coche o estuviera
6 siempre protegido. Es lo que he vivido.
7 ¿Y tú, en casa, preguntabas?

8 *Bueno, sí, un poco, pero no mucho, la verdad. Y luego alguna vez de preguntar*
9 *– cerca había carteles o así que veías en la parte vieja de Donosti, y me*
10 *acuerdo de preguntar lo que era la amnistía y cosas así, porque no sabía lo*
11 *que era la palabra.*

Paulo-19-Urnieta

1 *Zure etxean hitz egiten da gai hauei buruz? Ateratzen dira noizbait?*
2 *Bai, bai. Zeren nire amaren kuadrillako bat, e, izan zen ETakoa, eta badago*
3 *orain ez dakit non, baina...*
4 *Ihes eginda dago?*
5 *Bai. Eta horrekin, ba ez dakit, txikiagoa nintzenean, bazituen nire amak*
6 *eskutitzak eta horrela, irakurri izan ditut eta horrela. (...)*
7 *Eta nola gogoratzen dituzu zure umetako oroitzapenak gai hauen inguruan?*
8 *Adibidez, iheslari honen istorioa kontatu zizuten etxean?*
9 *E, ez. O sea, en plan, sin más: izan zen, ba hori, bazegoela ihes eginda, baina*
10 *ez zidaten esan “horregatik”, edo ez dakit. Txikia nintzen eta horrela, igual ez*
11 *naiz oroitzen, baina... [Etena].*

Haizea-17-Tafalla

Bi kasuetan, hizlariak pertsonalki bizi izandako egoerak narratzen dituzte. Egoera horiek hurbileko pertsonen bidez ezagutu dituzte, Paulok bere osabaren bidez eta Haizeak bere amaren bidez. Bietan, begirale rola hartzen dute hizlariak, orduko haurraren oroitzapenean euren ezohikotasunagatik prominentzia gehien izan zuten elementuak nabarmenduz: bizkartzainaren (testuinguru familiarretik kanpoko pertsona arrotz baten) figura, kartelak eta espazio publikoko irudiak, eta presoek gutunak. Nolanahi ere, bi kasuetan azalpen osagarri bat behar izan dute bizipen horri buruzko narratiba bat osatzeko eta haren dimentsio guztiak ulertzeko. Biek oroitzen dute informazio falta: Pauloren kasuan, berak bere buruari osatu dio gerora hutsune diskurtsibo hori; eta Haizearenean, amarengandik espero izan du, beti iritsi ez zaion arren.

Euren haurtzaroko ingurune sozialeko giroaz ere badituzte hainbat oroitzapen elkarrizketatutako gazteek. Batzuek normaltasun gisara deskribatu dute 2000ko urteetako giro politikoa (ikus Ane-21-Mutrikuren adibidea, gorago), baina beste batzuek etxean inposatutako tabua gogoratzen dute. Biolentzia maila altua sufritutako familia batean hazitako parte hartzaile batek biolentzia hori “gai pribatua” zela adierazi du (Ibai-20-Donostia), eta beste elkarrizketatu batek gogoratzen du ETaren 2011ko su-etenaren adierazpenaren ondotik hasi zirela bere ingurukoak euskal gatazkari buruz hizketan:

1 *Nik gogoratzen dut garrantzia handia eman zitzaioala 20[11]ko azken zera*
2 *horri, eta gero... em... gogoratzen dudana da nola oso – oso hitz egina zen,*
3 *nik ez nuen igual inoiz hitz egin inorekin, eta desarmaea eman zen momentutik,*
4 *jendea, ba ez dakit eskolan edo ikastolan ere, edo Teleberrian ere, eta*
5 *gurasoek ere asko kontatu zutelako-edo, gure artean ere: “E, ETak ez dakit*
6 *zer...”. (...) Zer da, ja komunikatu dutenez utziko dituztela [armak] edo*
7 *desarmaea esan dutenez, jada bihurtu da gaia hitz egingarri, edo? Ez dakit.*
8 *Pixka bat sentsazio arraro hori.*

Gari-20-Getxo

Gaia “hitz egingarri bihurtu” adjektibazioak (7. lerroan) baimendutako eremu diskurtsiboaren zabaltze bat irudikatzen du Gariren narratiban: ETaren jardun armatua indarrean zegoen bitartean, bere inguruan gaia tabu zela gogoratzen du. Hizlariak 13 urte zeuzkan behin betiko su-etenaren iragarpenaren unean, eta bere inguruko giroaren pertzepzioa izateko aski kontzientzia. Nolanahi ere, litekeena da testuinguru geografiko

eta sozio-politiko batetik bestera desberdina izatea giro honen pertzepzioa; horregatik, Gariren narratiba nahikoa bat dator bere herrikide eta ia adinkide batek (Nora-21-Getxo, hurrengo adibidean) eraikitako kontakizunarekin, baina ez, adibidez, herri askoz txikiago eta politikoki homogeenago batean hazitako beste parte hartzaileak (Ane-21-Mutriku, aitzinetik aztertutako adibidean) eraikitakoarekin.

1 ¿Tú tienes recuerdos directos de tu tío estando en la cárcel?
2 *Sí, y de mis aitas llorando, mis primos llorando porque él estaba allí por*
3 *quemar un puto contenedor. (...)*
4 ¿Y cuándo salió?
5 *Hace dos años o tres, yo creo.*
6 ¿Cómo fue? ¿Podrías contar un poco cómo fue la llegada?
7 *Hombre, pues yo el recuerdo que tenía era de súper txiki. Al final era mi osaba*
8 *y, pues... yo le veía raro, o sea, no era como mi tío ya, había cambiado. Se le*
9 *veía como más triste, diferente. Tuvo mogollón de problemas para volver a*
10 *adaptarse a la sociedad; le costaba, o sea, tenía miedo de salir a la calle, en*
11 *plan, se sentía como raro, eso me contaban mis aitas. A mí nunca me lo ha*
12 *contado personalmente, pero hablando en casa: “Mira, a osaba, que le da*
13 *miedo salir a la calle”. (...) Y yo: “Joe, pues sí... ¿Pero qué ha hecho? Si ha*
14 *quemado un contenedor, ama, si eso no es para tanto”. Yo no entendía*
15 *realmente lo que eso implicaba. Entonces, pues igual sí que [el conflicto] ha*
16 *tenido eragina [en mi vida], no sé.*

Nora-21-Getxo

Pasarte honetan, hurbileko senide baten presoaldiari buruzko oroitzapenak narratzen ditu Norak. Familiak atzera begirako prisma emozional gisara operatzen du, haien emozioen bidez eraikitzen baitu orduko haurrak egoerari buruzko bere eredu mentala; era horretako interpretazio-eskemak *situation model* edo egoerazko eredu gisara definitu izan dira (Bietti, 2011, p. 185), eta egoera komunikatiboko parte hartzaile bakoitzak, sozialki ikasitako informazioan oinarrituta, egoerari buruz eraikitzen dituen eskemak biltzen dituzte.

Noraren kasuan, haurtzaroko oroitzapenak bakarrik ez, baizik eta gaiari lotutako oroitzapen berantiaragoak ere, osabaren kartzelako irteerari dagozkionak, gurasoen diskurtsoen bidez mediatuta daude. Halaber, ezagutza horren transmisioa ez da protagonistaren bidez ematen, zeharkako interdiskurtsibitatearen bidez baizik: hizlariak gurasoen bidez izan zuen osabaren esperientzien berri. Hala ere, Norak erabat bere egiten ditu euren hitzak, 10-12. lerroen artean ez baitu inolako modalizatzailearik erabiltzen, adierazpenaren edukiarekiko erabateko inplikazioa adieraziz. Ondoren zehazten du adierazpen hori, egiaz, zeharkako aipua dela, eta berezko iturria bere gurasoak zirela (12-14. lerroak). Haurrak arazoaren muinean kontainer bat ikusten du, eta ez haren erretetan inplikaturako bestelako kontzeptuak: biolentzia, kale borroka, gatazka historikoa, eta abar. Horregatik, oroitzapen zuzen horrek koherentzia izan dezan, ezinbestekoa zaio testuinguruaren ezagutza bat, *a posteriori* gehitu diona diskurtsoari.

Noraren kasuan bezala, parte hartzaile gehienek oroitzapen zuzenei buruzko narrazioetan ageri da haurtzaroan jasotako kanpoko azalpenen bat, eta, beraz, gehienetan ematen da gatazka pertzibitzen duen subjektuaren bikoizketa bat: hizlariak pertsonalki gogoratzeko beste subjektu baten (gurasoen edo identitate kolektibo baten) posizioa hartu behar dute derrigor (Olick et al., 2011, p. 227). Modu horretan *besteen* esperientziez jabetzeak, bestalde, gaiarekiko distantzia eta desidentifikazioa gaintzen laguntzen die, eta euren

buruari aitortzen dieten bazterreko posizioa subjektu-izaera agentiboago batengatik ordezkatzea ahalbidetzen die. Horregatik, Norak bere buruarekiko emendazio-estrategia bat txertatzen du bere hitzartzearen amaieran, “ba agian bai izan duela eragina” dioenean (19-20. lerroak). Elkarrizketaren beraren bilakaeran oinarrituta, gezurtatu egiten du lehenago esplizitatu duen diskurtso bat (gatazkak ez diola pertsonalki eragin), baina modalizatzaile epistemikoen bidez (“agian”, “ez dakit”) distantzia eta zalantza agertzen ditu eragin horren inguruan: zailtasunak izaten jarraitzen du bere burua gatazkaren eraginaren lehen lerroan kokatzeko.

5.3.2. Identitate kolektiboen eraikuntza diskurtsoan: ‘*Ingroup-Outgroup*’ erako egiturak

Kapitulu honen lehenbiziko atalean behatu ahal izan dugunez, identitate kolektiboak ezinbesteko tresna dira gazteek iraganari buruzko diskurtsoak eraikitzen dituztenean, bai haurtzaroan esperimendatutako gertakari, emozio eta giroko inpresioak narratiba koherente bihurtzeko orduan, eta baita erabat interdiskurtsiboak diren oroitzapenak bere egiteko orduan ere.

Horregatik, bigarren azpiatal honen helburua gure elkarrizketetan ageri diren identitate kolektiboen eraikuntza diskurtsiboak aztertzea da. Jakin nahi dugu belaunaldi berrietako kideek nola *eurenganutzen* dituzten iraganari buruzko narratibak, zentzu bikoitzean: alde batetik, eurak nola posizionatzen diren eta zein rol eraikitzen dituzten haiei buruzko diskurtsoak sortzen dituztenean, eta, bestetik, zein mekanismo psikolinguistikoko erabiltzen dituzten iraganari buruzko informazioa, bereziki ezezaguna edo kontraesankorra izan daitekeena, lehendik eraikita dauzkaten interpretazio-patroi eta eskema kulturaletan txertatu eta egokitzeko.


Kasu honetan, identitatea ez dugu ulertzen norberaren narrazio autobiografiko baten eraikuntza gisara soilik, diskurtsoan gauzatzen den eraikuntza interakzional gisara baizik (De Fina, 2015, p. 356). Hortaz, identitatearen eraikuntza baliabide linguistikoen bidez diskurtsoa eratzen den unean gauzatzen den prozesu kokatu eta zehatza dela hartzen dugu aintzat, hau da, “testuinguru diskurtsibo lokaletan sortzen eta zirkulazioan jartzen den fenomeno erlazional eta soziokulturala, psike indibidualean edo kategoria sozial finkoetan kokatuta dagoen egitura egonkor bat baino gehiago” (Bucholtz & Hall, 2005, pp. 585–586). Eraikuntza linguistikoko horiek informazioa eman diezagukete subjektu hizlariak bere burua harreman sozialen sare zabalago baten barruan ikusten duen moduan.

Memoria kolektiboak nortasun kolektibo baten existentzia (ere) inplikatzeko duenez (Halbwachs, 2004a, p. 79), nortasun horien definizioak eta adierazpen diskurtsiboak identifikatu nahi izan ditugu lehenik eta behin. Horretarako, talde-izaera bati erreferentzia egiten dioten elementu linguistikoak euren testuinguruan aztertu ditugu, eta arreta jarri diegu, halaber, hizlariaren identifikazio maila eta posizionamendua markatzen duten beste elementu batzuei ere, nagusiki aktoreen kategorizazioari, modalizazioari, aukeraketa lexiko-semantiko esanguratsuei, elementu baloratibo edo ebaluatzaileei, eta metaforen erabilera nabarmenei. Horiek guztiak hizlariak euren taldearen historia euren testuinguru eta posizio garaikideekin kohesionatzeko erabiltzen dituzten estrategia psikolinguistikoko zabalagoen parte dira (Wodak, 2011, p. 173). Van Leeuwenek eta Wodakek (1999, pp. 92–93) lau estrategia nagusi identifikatu zituzten euren ikerketan: 1) Eraikitze estrategiak; 2) Justifikazio estrategiak; 3) Deuseztatze estrategiak; eta 4) Transformazio estrategiak. Azken hauen artean identifikatu zituzten mekanismo nagusiak

informazioaren elipsia, berrantolaketa, ordezkapena eta gehikuntza (Ibid., 1999, pp. 96–98) dira. Guk sailkapen hau hartuko dugu oinarritzat gure parte hartzaileen diskurtsoetan present dauden estrategiak identifikatzeko. Ondorioztatu ahal izan dugunez, gazteek euren testuinguru garaikidearen eta bertan okupatzen dituzten posizio sozialen arabera egokitze-estrategiak erabiltzen dituzte iraganari buruzko ezagutzak euren egungo posizioekin bateratzeko; iraganari buruzko hutsune kognitiboak dauden kasu ugarietan, aldiz, aldez aurretik eraikitako eskema interpretatiboetara jotzen dute esanahi berriak eraikitzeko, besteak beste, metaforizazioa, naturalizazioa eta diskurtsoaren barruko elementuen berrantolaketa erabiliz baliabide gisara.

Gazteek euren burua modu kontzientean txertatuta ikusten duten identitate kolektiboari buruzko narratibak aztertzerakoan, gure abiapuntua nortasun kolektibo bati erreferentzia egiten dioten elementu linguistikoak identifikatzea izan da. Lehenik eta behin, *gu* pluraleko lehen pertsonako izenordaina eta hartatik eratorritako forma linguistikoak txertatzen dituzten testu-pasarteak identifikatu ditugu, eta haietan behatu dugu *gu* edo *ingroup* horrek zein kolektiboteri egiten dion erreferentzia. Horrekin batera, identifikatu dugu zein talde erretratatu den alteritate edo *outgroup* gisara; eta zeintzuk diren talde bakoitzari egotzen zaizkion ezaugarriak. Halaber, *Ingroup-Outgroup* binomio argirik identifikatu ez dugun egituretan, *antagonista* terminoa (Pfleger, 2021b, p. 331) erabili dugu hizlariak bere buruaren edo taldearen aurka edo kompetentzian diharduten indarrak izendatzeko.

Grafikoki, honela labur litezke identifikatu ditugun bi talde identitario nagusiak:



19. irudia: gazteen diskurtsoetan identifikatutako eraikuntza identitario nagusiak.

5.3.2.1. Belaunaldi ardatza

Gure datuetan, elkarrizketatutako gazteek bi ardatzen arabera egituratutako karratu ideologikoak (Van Dijk, 2003, p. 58) eraiki dituzte batik bat. Lehenbizikoari *belaunaldi ardatza* deituko diogu: hartan, gazte gisara identifikatzen da *ingroup*-a, nagusiki belaunaldi helduagoei kontrajartzen zaion identitate bat eraikiz. *Outgroup*-a euren gurasoek, hezkuntza sistemak eta, neurri txikiagoan, komunikabideek gorpuzten dute.

Narratiba honetan, bi taldeen arteko desberdintasun nagusia epistemikoa da: “Guk ez dugu gatazka bizi izan” da *ingroup*-ari batasuna ematen dion narratiba nagusietako bat,

hainbat elkarrizketatan formula oso antzekoetan errepikatu dena. Diskurtso horretan, ukazio batean oinarritutako identitatea eraikitzen dute gazteek: haren oinarrian esperientzia falta baten irudipena dago. Deigarria da abiapuntu hau, oro har identitateari buruzko diskurtsoak klabe positiboan eraiki ohi direlako: hau da, “Nor/zer gara?” galderari erantzun ohi diote lehenik eta behin, “Nor/zer ez gara?” galderari heldu aurretik.

Gazteon kasuan, klabe negatiboan eraikitzen den identifikazio honek hainbat funtzio betetzen ditu eta euskal gatazkaren historiarekiko (hura eremu diskurtsibo-epistemiko gisara ulertuta) euren posizionamenduari buruzko hainbat datu esanguratsu eskaintzen dizkigu. Alde batetik, ezjakintasunaren aldarrikapenak euren burua bigarren mailako pertsonaia gisara kokatzea ahalbidetzen die: horrek iraganarekiko ardura murrizten du, eta aurreko belaunaldia seinatzen du arduradun gisara edo lehen lerroko pertsonaia gisara. Diskurtso horretan, belaunaldi berria helduagoek transmititutako ezagutzen menpe agertzen da:

1 *¿Las diferencias? Hombre, pues partiendo de la base que yo no lo he vivido*
2 *tan directamente, pues que no tengo tanto conocimiento sobre la situación de*
3 *ese momento. Al final, yo sé lo que me han contado, y ya está; y solo me puedo*
4 *limitar a reproducir lo que me han contado. Y a pensar de manera crítica sobre*
5 *eso, pero no tengo conocimiento suficiente porque no lo he vivido. Y, al final,*
6 *como nos han querido ocultar parte de esa historia también... hay muchos*
7 *vacíos.*

Nora-21-Getxo

Gazteen identifikazio pertsonalari buruzko diskurtsoetan bezalaxe, posizio kolektiboetatik mintzo direnean ere sarritan errepikatzen da gatazkaren “zuzeneko” eta “zeharkako” eraginaren ideia (1-2. lerroak). Haren arabera, belaunaldi helduagoa da gatazkari buruzko ezagutza bertatik bertara bildu eta jaso duena, eta haren esku dago hura hurrengoei transferitzea: hartara, galbahe baten funtzioa betetzen dute helduek diskurtso honetan. Belaunaldi gaztea agentibitate gutxiko subjektu gisara eraikitzen du Norak: “azkenean” (“al final”) adberbioaren erabilera errepikatuak (3. eta 5. lerroetan) funtsezko errealitate aldagaitz bat irudikatzen du, saihetsezintasunaren narratiba elikatzen duena (Wodak, 2011, p. 186). Aditzen aukeraketa ere esanguratsua da: belaunaldi helduagoari baieztapenezko aditzak lotzen zaizkio (3., 4. eta 6. lerroak); bere buruari edo bere belaunaldiari buruz mintzatzeko, aldiz, ukaziozkoak erabiltzen ditu ia pasarte osoan (1., 2., eta 5., lerroak).

Norak iraganari buruzko ezagutza hari buruz hitz egiteko gaitasunarekin lotzen du: lehenbizikoa ukatu zaionez, bigarreneako ere ezintasuna adierazten du (3-4. lerroak). Ondorioz, ezagutza zuzenean lotzen zaio elkartruke diskurtsiboan inplikatzeko legitimitatearen autopertzepzioari. Ideia hau ondoko pasartean ere beha daiteke argiki:

1 ETAre desarma eta desegitea duela nahiko gutxi izan dira. Jarraitu zenuen
2 apur bat?
3 Bai, egon ginen etxean familiarekin esan zutenean. Eta esaten zuten gure
4 gurasoek izango zela momentu historikoa. Eta egon ginen justu sofán ikusten
5 esan zutenean mitina egingo zutela. Eta ondo.
6 Eta zuretzat, zer inpresio? Entzuten diezunean gurasoei esaten historikoa dela,
7 zuen belaunaldikook ere sentitzen duzue historikoa dela?
8 Hombre, bai, zeren azkenean egon da pila bat denborako gatazka bat hemen.
9 Guk azkenean ez dugu bizi hain – azaletik, o sea, ez da berdina eurek entzutea
10 notizi hori, ezabatzen dela, guk entzutea baino. Zeren ni nintzen bastante

11 *txikia, baina bai, berez izan zen historikoa, ez? Ba azkenean, nahi dut esan,*
 12 *supuestamente gatazka hori, bai.*
 13 *(...)*
 14 *Bueno, ba, hombre, ba sufrimendu gehiago daukatela euren gorputzean. O*
 15 *sea, nik egin ahal dut berba biktimei buruz, baina ez daukat azalean. O sea,*
 16 *izango bazen nire anaia hil dutela, ez zen izango berdina sentsazio hori. Baina*
 17 *hori; bueno, nire familian normalki badira nahiko pazifikoak, eta orduan, ba*
 18 *hori. ETArean – nire amama eta hori – ba ETari buruz esan didate, bastante*
 19 *sufrimendu egon zen hemen, eta azkenean sufrimendu batek – hori bai, gauza*
 20 *da: gaur egun euskara kontserbatzen da. Hori dena konfliktua ez bazen*
 21 *egongo, zeratuko zen euskara? Hori ja ezin jakin. Azkenean igual horregatik*
 22 *gaur egun pixka bat mantentzen da, egon delako hori konfliktua. Ez dakizu.*
 23 *Gauza da hori, euskarak momentuz hor jarraitzen duela.*

Joseba-20-Bilbo

Pasarte honetan, Josebak ikusle rola hartzen du gertakari historiko baten aurrean (ETAren desarmaea): lehenbizi, bere gurasoen begiradaren prismatik ebaluatzen du, haien ahotsa erreproduzitzen (3-4. lerroetako zeharkako aipua). Gorputzarekin lotutako metaforak erabiltzen ditu bi taldeek iraganarekiko dituzten harremanen arteko aldea azaltzeko: gurasoek “azalean” (9. eta 15. lerroak) bizi izan dute gatazka (hau da, lehen lerroan). Gorputza bizialdiaren metonimia da, eta zerbait (kasu honetan, sufrimendua) norbere bizitzan edo larruan esperimendatzea egiazko esperientzia gisara interpretatzen da. Hizlariak bere bizitzan ez duenez eragin hori identifikatzen, berea zeharkako edo bigarren mailako eragina dela ondorioztatzen du: hortaz, ez gurasoena bezain erreal edo baliozkoa, eta horrek gaiari buruz hitz egiteko legitimitatea murrizten dio. Legitimitate falta hori adierazpenen edukiarekiko distantzia adierazten duten estrategien bidez eraikitzen da diskurtsoan: zeharkako testu aipatuak (3-4. lerroak), adierazpen erlatibizatzaileak (“hombre”, 8. lerroan; “berez”, 11.ean; eta “supuestamente”, 12.ean) eta ahalerazko modalizazioak (15. lerroan) distantziazko posizio bat eraikitzen dute hitzartzearen lehen zatian: estrategia leuntzaileak dira, hizlariaren inplikazioa murrizten dutenak. “Nik egin ahal dut berba biktimei buruz, baina ez daukat azalean” esaldian (15. lerroan), aurkaritzazko lokailuak *disclaimer* funtzioa betetzen du: aurreko perpausari balioa kentzen dio eta ostera gorputzaren metafora txertatzen du bere legitimitate falta irudikatzen. *Disclaimer* terminoak gatazkatsuak izan daitezkeen elementu diskurtsiboak esanguratsu bihurtzeko edota hizlariak diskurtsoan eraiki duen identitatearekin bateratzeko erabili ohi diren lerrotatze-estrategia linguistikoei (Overstreet & Yule, 2001, p. 48) egin ohi die erreferentzia. Josebaren adierazpenak, bere osotasunean, funtzio deontiko bat betetzen du hortaz, hizlariaren obligazioari lotuta doana, eta honela labur litekeena: “Ez dagokit niri gatazkari buruz hitz egitea”. *Biktima* terminoak, kasu honetan, gatazkaren alderdi kontrobertitu edo mingarrien metonimia gisara funtzionatzen du.

Esanguratsua da, halaber, Josebaren hitzartzearen azken zatian (19-23. lerroetan) dagoen aldaketa agentibitate eta inplikazio mailan. Behin bere burua bere talde sozialeko harremanetan bazterreko posizio batean kokatu ostean, talde horretan nagusi diren narratibekiko negoziazio-prozesu interdiskurtsibo bati ekiten dio: alde batetik, gurasoen ahotsa dago, taldearen barneko kontsentsuaren irudikapen gisara. Diskurtso horrek desarmaea positiboki ebaluatzen du, “momentu historiko” gisara interpretatuz (4. lerroa). Kontsentsu hori amamaren ahotsaren aipamenarekin indartzen da, zeinak ETAren karakterizazio negatibo bat eskaintzen duen, hura sufrimendu-eragile gisara erretratatu (18-19. lerroak). Josebak, ordea, *disclaimer* bat txertatuz *erantzuten* die aurreko

belaunaldioi (19-20. lerroak), transformazio-estrategia bat erabiliz: gatazkarekin lotzen duen elementu berri bat txertatzen du diskurtsoan (euskararen biziraupena); egoera hipotetiko bat eraikitzen du, eta haren ondorio kaltegarrien arabera ebaluatzen du iraganeko gatazka (20-23. lerroak). Galdera erretorikoak iradokitzen du bere hipotesia, zeinak narratiba justifikatzaile bat elikatzen baituen, gatazkaren testuinguruko biolentziaren erabilera baliagarri gisara ebaluatuz: “Gatazkarik / biolentziarik gabe, okerrago legoke orain euskara [okerrago geundeke gu]”.

Egitura hauetan, oro har informazioaren jabe den talde gisara kontzeptualizatzen dira aurreko belaunaldietako kideak, eta gazteak, aldiz, ezjakin edo ikasle/ikusle gisara autokategorizatzen dira. Informazioa eta ezagutza ondasun baten terminoetan metaforizatzen dira: hura erreklamatzeko diote *outgroup*-ari, eta ez ematea leporatzen diote. Aktoreen polarizazio horretan, bi estrategia mota erabiltzen dituzte *outgroup*-a karakterizatzeke: alde batetik, estrategia demonizatzaileen bidez manipulaziorako borondatea eta informazioa interes propioengatik ezkutatzea leporatzen diete aurreko belaunaldiei. Horietan, aurreko belaunaldiekiko haustura identitarioa handiagoa da; esate baterako, ikusi dugun lehen adibidean, Norak aurreko belaunaldiekiko konfrontazio zuzen bat eraikitzen du. Haustura hori erabatekoa ez den kasuetan, aldiz, ohikoagoak izaten dira gurasoen jokabideari azalpen bat bilatzen dioten estrategia justifikatzaileak: narratiba horietan, beldurragatik, traumagatik, kanpoko zirkunstantziek eraginda (ilegalizazioak eta kriminalizazioak) edota gazteak babesteko borondateagatik gordetzen dute informazioa helduek. Kasu bakoitzetik adibide bana aztertuko dugu jarraian:

1 *Erika: Bueno, pero nuestros pensamientos también — por ejemplo, en*
2 *nuestras casas me imagino que, aparte de que no han pasado por eso, y que*
3 *normalmente nos dejan pensar lo que queramos, somos más libres. Hay*
4 *algunas cosas que los padres les meten en la cabeza a los niños: que estuvo*
5 *bien lo que pasó, y se nota. Hay gente de nuestra edad que está muy a favor*
6 *de lo que pasó. Y a lo mejor no es algo que ellos piensen de por sí, es algo que*
7 *les han metido de pequeños. Entonces, la mentalidad de uno también depende*
8 *de cómo haya crecido.*

Basauri, taldeko elkarrizketa

Pasarte honetan, *ingroup*-a (gazteak) bi taldetan banatzen du hizlariak: lehenbizikoak elkarrizketako parte hartzaileak barne biltzen ditu, eta gazte “libreagoek” (3. lerroa) osatzen dute, askatasuna ilustrazio metaforiko baten zentzuan ulertuta. Karakterizazio erabat positibo honetan, gatazkarekin esperientzia zuzenik izan ez duten familietako seme-alabak (“hortik *igaro* ez direnak”, 2. lerroko mugimenduzko eta espaziozko metaforaren bidez irudikatuak) modu autonomoagoan pentsatzeko gai dira. Bigarren taldean, aldiz, etxean biolentzia legitimatzen duten diskurtsoak aditu dituzten gazteak daude. Gazte horien agentibitatea murriztuta agertzen da, esaldian ere ekintzaren hartzaile pasibo gisara kontzeptualizatzen direlako (4. eta 7. lerroetan, zerbait “buruan sartzea” ezagutza indarrez transmititzearen edota pentsamendua manipulatzearen metafora bat da). Nolanahi ere, euren ardura gutxitzeko estrategia justifikatzailea darabil hizlariak, (6. eta 7. lerroak) eta *akatsaren* benetako errua *outgroup*-ari, hau da, haien gurasoei, egotzen die, zeintzuk aktore manipulatzailerik gisara erretratatzeko baitituen.

Belaunaldi helduagoi buruzko bigarren narratiba onberago batek euren ezintasunei egotzen die memoriazko diskurtsoen transferentzia falta:

1 Ez dakit beldur bat den. Badagoena, nire etxean ez hainbeste, baina ikusten
2 da argiki badela tabu bat, edo guttienez, ez dute nahi — ez dakit, e? Uste bat,
3 ba, guri hori kontatuz gero, guk ere segituko dugula zauri horrekin hor. Eta...
4 borondate onez egiten dute. Hau da, haiek nahi dute guk hori ez ezagutzea —
5 guk gutti ezagutu dugu, eta ez dute nahi zahartasunaren xehetasunak
6 gureganatzea. Ba aitzinera joateko, ez dakit.

7 (...)

8 Nik uste dela batez ere [torturak] garai berriagoetan jasan dituztenek, horiek
9 barnerago daukate bota behar dutela, eta aipatu behar dutela. Berdin duela
10 3-4 hilabete atera zen informe horretan, Eusko Jaurlaritzak eta EHUK burutu
11 zutena, hor erraten zuten, ez? Elkarrizketa batzuetan. Errazenak, informazioa
12 biltzeko errazenak, kasu berrienak izan zirela. Ematen du igual ez dela
13 errazena izango zauria irekia dutelako oraindik, baina ez; horiek biziki
14 kontziente dute, e — kontatu behar dela. Igual jada torturatu zaharrek, duela
15 40 urte gertatu zenek, alde batetik jada pasa dute eta nahi dute pasa, utzi jada
16 eta hori alde batera utzi; uf, auskalo, edo igual ildo politiko zera bat aldatu
17 dute eta dena alde batera utzi dute. Baina ba kasu berriagoek aipatu, aipatu
18 egiten dute. Eta ez dakit, argi dute igual guk hori jakin behar dugula aurrera
19 segitzeko ere.

Lur-16-Hendaia

Kasu honetan, *outgroup*-aren aurkezpen positiboago bat eskaintzen du hizlariak. Narratiba horretan, gazteen hobe beharrez dihardute helduek, iraganari buruzko ezagutza ez partekatzea erabakitzen dutenean. Ostera ere gorputzezko metafora batera jotzen du Lurrek aurreko belaunaldiak gatazkarekin duen harremana deskribatzeko: zabaldutako zauriak (3. eta 13. lerroetan) iraganean sufritutako minaren trauma irudikatzen du, “tortura” kontzeptu metonimikoa aukeratuta haren kausak irudikatzen. *Outgroup*-aren jarrera zeharkako aipu bidez berreraikitzen du hizlariak, hartara haren jokabiderako estrategia justifikatzaile bat eskainiz (3-4. lerroak). Gazteen funtzioa “aitzinera” joatea dela dioenean (6. lerroa), norabide edo helburu bat irudikatzen duen espaziozko metafora bat erabiltzen du Lurrek: helduen esperientzietatik eta iragan mingarritik, minik gabeko etorkizuneranzko desplazamendu gisara kontzeptualizatzen du gatazkaren garapen historikoa. Bi metaforen konbinazioan, gorputzari desplazatzea eta leku mingarritik ateratzea eragozten dioten zauri bihurtzen dira iraganeko traumak. *Ingroup*-ak “aitzinera” egitea *outgroup*-aren lurraldean ez geratzea da kasu honetan: belaunaldien arteko hausturak mugimendu hori eskatzen du.

Pasartearen bigarren zatian, *outgroup*-a bitan banatzen du Lurrek: alde batetik, iraganeko minari buruz irakatsi nahi ez eta informazioa partekatzen ez duten esperientziadunak daude; bestetik, hartaz hitz eginez partekatzen dutenak. Bereizketa hori legitimatzeko, bere burua jakitun gisara autoerrettratzen du, iturri autorizatu bat aipatuz (Eusko Jaurlaritzaren ikerketa, 10-11. lerroetan). Hizlariak modalitate deontikoaren bidez agertzen du bere posizioa auziarekiko, “jakin behar dugu” erako formulazioen bidez (9., 14. eta 18. lerroak).

Lurren pasarte diskurtsibo honetan, oro har deigarria da hizlariaren distantziamendua: modalizatzaile epistemiko (Martin & White, 2005, pp. 104–107) ugari erabiltzen ditu bere ezezagutza adierazteko (1., 2., 6., 16., eta 18. lerroak), nahiz eta gero eduki semantiko handiko perpausak eta deskribapen zehatzak eskaintzen dituen. Horregatik, ondoriozta liteke modalizatzaile epistemikoek ez dutela hainbeste ezezagutza bat irudikatzen (hizlaria jakitun delako eskura dituen ezagutzez), baizik eta baimen-

eskaera bat: hizlariak bere sentitzen ez duen eremu diskurtsibo batean inplikatzeko legitimitatea irabazteko sarrera-formulak dira, gai horrekiko bere posizio soziala (ezjakinarena, bazterrekoa) berresten dutenak eta hartatik abiatuta parte hartzeko aukera eskaintzen diotenak. Hartara, hizlariak agentibitatea eta diskurtoaren gaineko kontrola handitu ditzake, talde sozialean ezarritako ordena kolokan jarri gabe.

Oraingoan ere, irakurketa orokor bat kontrajartzen zaio esperientzia pertsonalari. Norberaren familia libre dago errutik, eta salbuespena da kategoria orokorragoei aplikatutako definizioetan. Izan ere, Lur ez da ari bere errealitate zehatza deskribatzen, bere belaunaldiari buruz eraikita daukan eskema mental bat erreproduzitzen baizik (“nire etxean ez hainbeste, baina ikusten da argiki badela tabu bat”, 1-2. lerroetan): narratiba honetan, *etxeak* bere familiako testuinguru hurbila metaforizatzen du; hari dagokion ukazioak eta “ikusten da” aditz inpertsonalak familiako diskurto pribatuen eta kanpoko diskurto orokor eta publiko baten arteko talkaren pertzepzioa irudikatzen du. Azken hori baliozkoa zaio bere identitate kolektiboaren eraikuntzarako, ez bere posizio pertsonala irudikatzeko.

Diskurto minoritarioago, baina aintzat hartzeko moduko batek, aldiz, aditu edo jakitun gisara autokategorizatzen ditu gazteak. Hartan, gurasoen garaiaren ondoren jaiotzeko ez dituzten ezjakinago bihurtzen, alderantziz baizik: iraganari buruzko epai justuagoak emateko posizioan kokatzen ditu.

- 1 *Elkarrizketatzailea: Zer da gai honen inguruan aurreko belaunalditik gehien*
2 *bereizten zaituztena?*
3 *Imanol: Guk igual ez dugula bizi. Guretzako da zerbait pasatu dena jada. Ez*
4 *dakit.*
5 *Ilargi: Bai, eta guk ez dau[zk]agu beraien ondorio psikologikoak. Asko daude*
6 *nahiko nekatuak, edo psikologikoki oso ondorio txarrak izan dituztenak, eta*
7 *burutik gaizki daudenak batzuk. Eta nik uste baita guk ez dugunez hori bizi, ez*
8 *daukagula hainbeste min beraiak bezala. Nik uste lehenengo hori, daudela*
9 *minduak gehienbat.*
10 *(...)*
11 *Ekaitz: Igual guk ez dugu garai hori bizi, eta horregatik daukagu pixkat, punto*
12 *- igual kritikotasun pixka bat gehiago. Igual ez zaigulako tokatu.*

Altsasu, taldeko elkarrizketa

- 1 Zure gurasoen belaunaldiarekin alderatuta, zuek zertan ikusten duzue
2 desberdin?
3 *Nik uste dut guk egiten dugula berba jaso dugun jakintasunekin. Bizi ez dugun*
4 *zer edo zer izan da, eta horrek eragin du gauzak ikusteko moduan: bai gauza*
5 *onak hobeto ikusteko eta bai gauza txarrak okerrago ikusteko.*

Fernando-17-Oñati

Bi pasarteetan, esperientzia zuzenak iraganarekiko irakurketa baldintzatzen eta partzialago bihurtzen duela hartzen dute aintzat hizlariak. Lehenbizikoan, Ilargik erabiltzen duen “burutik gaizki egon” metaforak (6-7. lerroak) eromena edo irrazionaltasuna iradokitzen ditu, eta, ondorioz, aurreko belaunaldiei fidagarritasun falta atxikitzen die iraganari buruzko epai arrazionalak egiteko. Irrazionaltasunak, halaber, alderdi ez-gizatiar bati egiten dio erreferentzia (Barjola, 2018, p. 167): orotara, *outgroup*-a (gurasoen belaunaldia) lurralde mingarritik ateratzeko gaitasunik izan ez duen animalia zauritu baten terminoetan karakterizatzen da.

Bigarren pasarte, “ikus” aditzak (4. lerroa) funtzio metaforiko bat betetzen du ostera: hizlariak behatzaile rola hartzen du, baina ez protagonista bati so dagoen ikusle pasibo baten moduan, epaile orojakile baten forman baizik. Edo, ostera metafora geografiko batera itzulita: lurraldetik distantzia batera planeatzen duenaren eta, ondorioz, lurralde hori bere osotasunean hautemateko gai den begirada zabala egozten dio bere buruari, gurasoen tokian tokiko begirada partzial eta murrizaren ordez.

Belaunaldi helduago jakitunaren narratibara itzulita, antzeko funtzioa aitortzen diete gure ikerketan elkarriketatutako gazteek hezkuntza arautuari eta komunikabideei. Biak kontzeptualizatu dituzte informazioa ukatzen dieten sistema gisara. Nolanahi ere, aktoreen karakterizazio negatiboa leunagoa da irakasleei buruz ari direnean (horietan, haien beldurrarekin justifikatzen dute isiltasuna), curriculumak diseinatzen dituzten hezkuntza-erakundeei buruz ari direnean baino:

1 *M... esango nuke, adibidez DBHn, ba dago ya gaitegi bat eman behar dena,*
2 *eta agian ETA hau, ba, Espainiari ez zaio komeni ematea, ba ideia edo como*
3 *pentsaera pila bat – pentsaera asko ba sor ditzakeelako. Azkenean ematen*
4 *diguten gaitegia bada ikasteko, eta horren inguruan ez duzu ezer gehiago*
5 *pentsatzen. Eta honek lagun dezake ba hori: pentsatzen, zergatik zegoen*
6 *horrelako talde bat Francoren aurka. Baina ez zen eman, pues ez zuelako nahi*
7 *gobernuak.*

Endika-17-Tafalla

Pasarte honetan, hizlariak sozialki partekatutzat jotzen duen diskurtso baten pertzepzioa esplizitatzen du: gatazka armatuaren historiari buruz hitz egiteak haren sorrera ulertzeko eta, ondorioz, legitimatzeko bidea ematen duela; eta, beraz, hori saihesteko irtenbide egokiena gaiari buruzko eremu diskurtsiboa murriztea dela. Ondorioz, transmisio falta *outgroup*-aren interes gisara hautematen da, haren bidez diskurtso ofizialak kuestiona ditzakeen kontra-narratiba bat eztabaida sozialean txertatzea eragotz dezakeelako. Ideia hau hainbat aldiz errepikatu da guk bildutako datuetan, eta ebaluazio pertsonal oso negatiboei lotuta joan ohi da, gazteek euren belaunaldiari zuzenean eragiten zaion kalte gisara interpretatzen dutelako:

1 *(...) jo, me da mogollón de pena para las futuras generaciones, y yo que voy a*
2 *ser irakasle, el no tener recursos para contarles la historia de verdad. Porque*
3 *al final, todos los rastros que han podido quedar, los han hecho desaparecer.*
4 *Y todo eso se va a perder. O sea, dentro de 10 años nadie va a saber*
5 *absolutamente nada, porque el Estado lo va a querer ocultar. Y eso es súper*
6 *triste, porque forma parte de ellos, de su identidad. Y al final vamos a ser*
7 *analfabetos culturales de absolutamente todo lo que nos rodea. Y me da*
8 *mogollón de pena, porque digo: jo, yo, como irakasle, ¿cuál es mi labor? Yo*
9 *tengo que tener un compromiso para con mi pueblo por decirlo de alguna*
10 *manera, pero ¿de dónde saco esos recursos? Ahí esta mi preocupación, vaya.*

Nora-21-Getxo

Pasarte honetan, belaunaldi berriak eta Estatua polarizatzen dituen aktoreen lauki bat eraikitzen du hizlariak. Lehenbizikoak biktima gisara kategorizatzen dira: ezjakintasunera kondenatuta daude, hain zuzen ere bigarrenak informazioa ezkutatzen dielako. Pasarte honetan, iraganari buruzko ezagutza norbere identitaterako baliabide edo tresna gisara kontzeptualizatzen du Norak: belaunaldi berriei lehena ukatuta, bigarrena ebasten zaiela interpretatzen du. Testuinguruagatik inferitu daiteke Estatuak hezkuntza

arautua eta bertan transmititzen diren ezagutzak (“baliabideak”, Noraren hiztegian) kontrolatuz manipulatzeko duela taldearen iraganari buruzko diskurtsoak: irakasle rolean “egiazko historia” kontatu ezin duela dioenean erabiltzen duen adjektibazio enfatizatzaileak (2. lerroa) antonimo edo ispilu-elementu baten existentzia iradokitzen du, hau da, ikasgelan *historia faltsu* bat transmititzen dela. Iritzi hau hobe uler dezakegu Noraren istorio pertsonala aintzat hartuz gero: bere familiako esperientziak talka egiten du hezkuntzan eta esfera politikoan nagusitzat jotzen dituen diskurtsoekin, eta hala adierazten du elkarrizketa beraren beste zenbait unetan.

Maila erretorikoan, hizlariak *pathos*-aren erabilera nabarmena egiten du, hura “hizketakidearekin elkar hartzeko helburuz ikuspuntu erretoriko batetik egiten den hizkuntzaren manipulazio” (Charaudeau, 2009, p. 128) gisara ulertuta. Norak negatibotzat ebaluatzen duen egoera bati buruz hitz egiteko elementu enfatizatzaile eta apreziaziozko modalizatzaile ugari darabiltza (1., 5., 7., eta 8. lerroetan, besteak beste); bestalde “azkenean” (“al final”) denborazko adberbioak ondorio saihestezin baten narratiba eraikitzen du. Etorkizuneko indikatiboko aditz formek, modalizazio epistemiko faltak eta enfasiak adierazpenaren edukiarekiko erabateko atxikimendua adierazten dute.

Halaber, esanguratsua da Norak bere buruaren eta etorkizuneko belaunaldien artean eraikitzen duen distantzia, haiei buruz hirugarren pertsonan mintzo baita, bere burua talde horretan sartu gabe. Horrek iradokitzen digu Noraren belaunaldia, tesi honetan aztergai duguna, agian ez dela transmisio-katearen azken begia, baizik eta haietako asko jada transmisore-belaunaldien parte ere badirela: Norak, 2020an Magisteritzako ikasketak bukatzean dagoelarik, hala ikusten du bere burua. Horrek pentsarazi behar liguke tesi honetan planteatzen diren galderak ez ote diren dagoeneko berandu iristen ari.

5.3.2.2. Nazio-ardatza

Noraren diskurtsoan bezalaxe, hainbat elkarrizketatan parekatzen dira Estatuak (edo gobernuak) eta hezkuntza arautuko curriculumak, edo instituzio politikoak jotzen dira derrigortutako eta nahikotzat jotzen ez diren eduki batzuen sortzaile eta inposatzailetzat. Puntu honetan, gurutzatu egiten dira atalaren hasieran aipatu ditugun bi ardatz identitarioak: belaunaldi-ardatza eta nazio-ardatza.

Bigarren honetan, karratu polarizatzaile nagusia ez da zabaltzen gazteen eta aurreko belaunaldiaren artean. Gazteek euren burua gurasoen eta aurreko belaunaldien talde sozial berean kokatzen dute, eta lotura historiko eta kultural bat ematen diote identitate horri. Oro har, *euskal herritar* gisara identifikatzen dute euren burua diskurtso mota honetan, eta identitate hori *kanpotarren* kategoria bati kontrajartzen zaio, sarritan “Espainia” edo “Espainiako Gobernua”, eta, maila txikiagoan, “Frantzia”, “Frantziako Gobernua”, edota “frantziarrak” eta “espainiarrak” gisara definitzen dutena. Bestalde, era honetako eraikuntzetako batzuetan, euskal herritarren barruan ere zabaltzen da aktoreen karratu polarizatzaile bat: euskal herritar ez abertzaleak eta abertzaleak bereizten ditu hark, eta, azken hauen barruan, ETA da *ingroup*-ari kontrajartzen zaion aktore nagusia. Egitura hauek identifikatutako narratiba nagusien eskematizazio bat dira, baina ez dira inondik inora bateraezinak, alderantziz baizik: sarritan, hizlariak hainbat karratu polarizatzaile eraikitzen dituzte diskurtso berean, edota euren posizioa aldatzen dute egoera komunikatiboaren eta bertan eraikitako *frame*-aren arabera.

Horregatik, nazio ardatzaren gainean eraikitako narratiba gehienek Frankismoa hartzen dute euskal gatazkaren sorrerako testuinguru edo abiapuntu gisara, eta, haietan, hizlariak kontzientzia kultural eta historiko zabalago batekin identifikatzen dira. Gatazkaren alderdi xeheagoi buruz galdetuz gero, ordea, aktore gehiago identifikatu ohi dituzte *outgroup* edo antagonista gisara.

Oro har, aurreko belaunaldiekin lotzen dituen jarraikortasun historiko baten narratiban oinarritzen dira diskurtso hauek: haietan, gazteak katebegi bat gehiago dira euren guraso eta aitona-amonek ere osatzen duten taldearen bizi-esperientzian. Narratiba hauetan, taldeari batasuna ematen dioten hiru elementu nagusi behatu ahal izan ditugu gazteen ahozko diskurtsoetan: *ingroup*-aren biktimizazio historikoa, helburu edo idealen jarraipena eta iraganeko esperientzia armatuaren balio sinbolikoa. Azken hau bi modutan identifikatu ahal izan dugu: kasu batzuetan, elementu kohesionatzaile gisara; eta besteetan, hausturarako elementu gisara.

a) *Ingroup*-aren biktimizazio historikoa

Narratiba honen arabera, euskaldunak *ingroup* gisara kohesionatzen dituen esperientzia nagusia *outgroup* baten partetik sufritutako urraketak dira. Biktimizazio horrek bi adierazpen mota dauzka: adierazpen historiko bat (Frankismo garaiko errepresio kulturala) eta egungo testuinguruari egokitutako adierazpen bat (euskaldunen aurkako aurreiritzi politiko eta kulturalak). Gure elkarrizketatuek, sarritan, ez dute bietariko bakar bat pertsonalki esperimentatu, baina horrek ez die eragozten esperientzia horiekin identifikatzea.

1 *Hombre, aparte de la independencia, que no solo es la – yo no entiendo la*
2 *independencia como separarse de España únicamente, es separarse – yo, por*
3 *ejemplo, no comparto los valores culturales que tiene un español. Y entonces*
4 *creo que habría que subrayar eso desde el principio: vale, ¿ por qué no quiero*
5 *formar parte de España? Porque no comparto valores, no tengo nada que ver*
6 *con una persona de Madrid. Entonces, también recalcar eso, que deberían*
7 *darnos autonomía y valorar nuestra cultura. Porque al final hemos estado sin*
8 *poder ser nosotros, que forma parte de nuestra identidad, y por lo tanto se nos*
9 *ha impuesto. Y habría que explicar eso; que nosotros tenemos nuestra*
10 *identidad y que tenemos derecho a tenerla, y que por culpa de un gilipollas o*
11 *un grupo de gilipollas lo hemos perdido. Y se nota, porque yo ahora estoy*
12 *hablando en castellano; y tengo más facilidad para hablar en castellano*
13 *porque a mis aitas les prohibieron hablar euskera. Y si no les hubieran*
14 *prohibido eso, sería de otra manera.*

Nora-21-Getxo

Norak kausa eta efektuzko lotura zuzena ezartzen du bere familiako aurreko belaunaldiek (“gurasoak” metonimiak irudikatzen dituenak, 13. lerroan) Frankismoan sufritutako debeku eta errepresio linguistikoarekin eta bere egungo errealitate linguistikoarekin. Harreman hori kausalitatezko lokailuekin (13. lerroa), aditz denboren aldaketarekin eta denborazko deixiarekin eraikitzen du: “orain” deiktikoak (11. lerroan) hizlariaren testuinguru garaikidetik egiten duen iraganaren irakurketa bat dela nabarmentzen du, eta iraganeko gertakariak harekiko harremanean definitzen ditu. Hartara, *outgroup*-ak (Espainia frankistak, kasu honetan lexiko peioratiboz definitzen duena 10. eta 11. lerroetan) aurreko belaunaldiei eragindako kaltea bihurtzen da hizlariaren egungo joera linguistikoen kausa.

Endikaren pasarteko 4. lerroan) edota haren alderdi epaitzaile eta armatuak nabarmenduz; Imanolen diskurtsoko 12. lerroan, Justizia aparatua eta Guardia Zibila bihurtzen dira *outgroup*-aren aurpegi. Endiak gerraren *frame*-a eraikitzen du aurkakotasunezko eraikuntzen bidez eta gatazka armatuari erreferentzia egiten dion “borrokatu” metaforaren bidez, 8. lerroan; aktoreen karratu polarizataile historiko argi bat eraikitzen du hartara. Areago: lehen pertsona pluraleko aditzen bidez, gatazka armatuan inplikaturako aktoreekiko erabateko identifikazioa eraikitzen du (“haien aurka borrokatu izan dugula”, 8-9. lerroetan), nahiz eta berak, norbanako gisara, ez duen sekula gatazka politiko batean armekin edo biolentzia fisikoz parte hartu.

Bi hizlariak euren gatazka garaikideei egiten diete erreferentzia, *outgroup*-aren eta *ingroup*-aren arteko harremanak definitzeko. Hauek ez dira erabat esplizitatzen, informazio partekatutzat jotzen direlako: hala, bi hizlariak aintzat hartzen dute elkarrizketatzaileak badakiela zer gertatu zen Altsasun eta Katalunian, eta gertakari horiei buruzko eredu mental edo *frame* berbera eraikita daukala (botere gehiegikeria edo injustiziarena).

Endikaren kasuan, Kataluniako gertakariak bide ematen diote *outgroup*-a aktore erreprimiztaile gisara erretratatzeko (haren biolentziaren erabilera nabarmenduz). Behin *outgroup*-a biktima-eragile gisara kategorizatuta, *ingroup*-a kontrastez definitzen du hizlariak, eta katalanekin batera, euskaldunak ere biktima gisara kategorizatzen ditu, etsai komunaren irudia erabilia. Bereizketa bitxia egiten du 5. lerroan: Espainiako Gobernuak Katalunian biolentzia fisikoa erabili zuela dioenean, inferentziaz interpreta daiteke ez duela elementu hori Euskal Herriko historian identifikatzen. Gatazkaren irakurketa erabat garaikidea egiten du hartara, tokiko historiaren zati handiena diskurtsotik kanpo utzita.

Imanolen diskurtsuan, aldiz, taldeen arteko polarizazioa bereizketa esentzial eta gaindiezin batetik dator: “izan” aditz intrantsitiboaren bidez eta erredundantzia enfatizataile baten bidez (“beraiek dira beraiek eta gu gara gu”, 4. lerroan), eraikuntza existentzial irmo bat osatzen du hizlariak (4. lerroa), aktoreen kategorizaziorako oinarri bihurtzen dena. Funtsezko bereizketa horrek ondorengo argumentaziorako premisa gisara funtzionatzen du, aktoreen arteko bereizketa identitarioa naturalizatzen duelako. “Bat bestearen gainean egotea” espaziozko metaforaren bidez, berriz, hizlariak nagusitasunezko eta menpekotasunezko harreman bat eraikitzen du aktoreen artean (5. lerroa): bere burua bigarren talde horretan kokatzen du, alde batetik bera kalte-eragile izan daitekeela ukatuta (3-4. lerroetan) eta bestetik *outgroup*-arekin lotzen duten ezaugarrietatik distantziatuz. Hala, gaztelaniaz jakitea eta Espainiaren parte izatea “nahitaez” (modalitate deontikoa), eta beraz ez borondatez atxiki zaizkion ezaugarriak direla nabarmenduz du.

Gatazkaren izaera historikoa arazo politiko garaikideekin lotzen duen beste diskurtso nagusi batek gatazkaren alderdi sinboliko eta kulturalari erreparatzen dio. Elkarrizketa gehienetan, euskaldunen aurkako aurreiritziei buruz mintzatu dira gure ikerketako parte hartzaileak, bai esperientzia propio gisara, eta baita (batez ere) euren talde-identitatearen aurkako diskriminazio historiko jarraitu gisara ere:

1 *Jaione: (...) yo, por ejemplo, tengo un pueblo en la Rioja y ahí pues a veces*
2 *me preguntan: “Tú, ¿tú qué te sientes? ¿Vasca o española?”. Y yo, pues*
3 *tampoco sé responderle, porque sí, soy vasca, pero no sé si me identifico como*

4 *española, porque tampoco mis padres nunca me han dicho: “Sí, tú eres tal”.*
5 *Me han dejado un poco decidir y no sabría responder.*
6 *Gabriele: Sí, o sea, nos juzgan un montón. Yo lo noto. También tengo un*
7 *pueblo, es verdad, me acabo de dar cuenta, y sí que te preguntan o como que*
8 *[te hacen]*
9 *Edurne: [“¿Quieres la independencia”?*
10 *Jaione: [¡Sí!]*
11 *Gabriele: [Sí.] Como que a partir de eso te van a catalogar o algo.*
12 *Jaione: Sí, sobre todo en pueblos en los que no hay una segunda identidad*
13 *digamos, en plan – por ejemplo, los de Burgos no se pueden sentir –*
14 *Gabriele: O Madrid.*
15 *Edurne: Eso es. Son españoles pues porque –. Pero nosotros somos como un*
16 *pueblo dentro de un pueblo. Y enonces pues sí que hay como ese conflicto ahí.*
Basauri, taldeko elkarrizketa

Pasarte honetan, elkarrizketako parte hartzaileek *ingroup*-aren kategorizazio zehatz bat eraikitzen dute elkarren esperientzietan oinarrituta: euskaldunak epaiketa edo kuestionamendu baten objektu gisara erretratatzeko dira Euskal Herritik ateratzean, espainiarren partetik. Erreferentzia toponimikoek sinekdoke funtzioa betetzen dute, osotasun bati erreferentzia egiteko haren zati bat izendatzeko delako (Lakoff & Johnson, 1980, p. 69); kasu honetan, “Errioxa”, “Burgos” eta “Madril” erabiltzen dira lurralde espainiarretan bizi diren herritarrek irudikatzen. Hauen ezaugarriak, *ingroup*-ari kontrajarrita, identitate nazional monolitikoa izatea eta *ingroup*-arekiko epaile gisara jardutea dira, sekuentzia diskurtsibo honetan. Hizlariak kanpoko taldearen ahotsa berreraikitzen dute, zuzeneko aipu hipotetiko baten bidez haien jarreraz duten irudia erakutsiz (2. eta 9. lerroetan). “Katalogatu” metaforak *outgroup*-ak *ingroup*-ari ezartzen dion sailkapen estereotipatu bat ebokatzen du, eta aditz aktiboen erabileraren bidez (2., 6., 7., eta 11. lerroetan) agentibitate maila handia atxikitzen diote hizlariak lehenbizikoari. Aldiz, *ingroup*-ari eta haren kontraesan eta aniztasun identitarioari buruz aritzean (gainjarritako bi identitateren moduan kontzeptualizatzen dute euskal herritar izatea Jaionek eta Edurnek), hizlariak modalizatzaile epistemiko gehiago erabiltzen dituzte, zalantzaren eta distantziamenduaren seinale (3. eta 5. lerroetan). Oro har, *outgroup*-aren sinplifikazioa eta *ingroup*-aren konplexutzea ere badira karratu ideologiko baten eraikuntzarako tresna ohikoak, *ingroup*-arekiko enpatia handitu eta *outgroup*-aren deshumanizazioa erraztu ohi dutenez gero (Galtung, 2003, p. 5); kasu honetan ere operatzen du mekanismo horrek.

1 *Galder: Mi pregunta es: de qué nos tienen miedo, tal vez. Por qué.*
2 *Lander: ¿Pero quién te tiene miedo?*
3 *Galder: Los españoles nos tienen miedo, por alguna razón.*
4 *Jokin: Y asco.*
5 *Lander: Los españoles se ríen a nuestra cara. Yo lo veo así.*
6 *Eider: Sí.*
7 *Galder: Pero por algo lo están haciendo.*
8 *Elkarrizketatzailea: ¿Creéis que es miedo?*
9 *Jokin: En algunos casos sí.*
10 *Ana: [Asco]*
11 *Galder: [Yo creo que sí, que es miedo].*
12 *Eider: Yo creo que asco. ¿Miedo? Si se ríen a nuestra cara.*
13 *Lander: Yo creo que es ninguna de las dos. [Es...]*
14 *Jokin: Incluso rabia.*
15 *Ana: A un conocido mío, en Cádiz, en la playa, llevaba un tatuaje en la*
16 *espalda, creo que era — no me acuerdo qué era, no sé si una bandera o algo*

17 *del País Vasco, y le zurraron, sin más, por ir por la calle con un tatuaje, que*
 18 *tú vas como quieres. Le zurraron.*
 19 *Eider: Y luego somos nosotros “los malos” [kakotxen keinua]. Que*
 20 *supuestamente, e — le pegan no sé qué, porque lo de la bandera de España el*
 21 *otro día en Cataluña... pero solo sacan eso. No ven la otra parte. Sí. Por*
 22 *ejemplo, dicen que cuando salías antaño con matrículas de Vitoria, Navarra...*
 23 *que los coches... pf. Podían aparecer, pues, mal. ¿Y por qué? Ellos venían con*
 24 *matrículas ‘Murcia’ y no sé qué, y no se tocaban. Pero no se habla de eso.*
 25 *Jokin: Hicieron una investigación; dejaron un coche en Madrid y lo rayaron.*
 26 *Dejaron uno aquí con un toro de Osborne y una bandera española en los*
 27 *asientos traseros, y no le pasó nada. El coche estaba en Rentería, y al que fue*
 28 *a Madrid, el coche lo dejaron destrozadísimo: retrovisores rotos, la luna rota,*
 29 *la trasera rota, las ruedas pinchadas y rayadísimo.*
 30 *Eider: Pero eso no sale. Siempre somos los demás los malos. Los etarras...*
 Gasteiz, taldeko elkarrizketa

Taldeko elkarrizketa honetan, modu kooperatiboan eraikitzen dute hizlariak *outgroup*-aren karakterizazio negatibo bat. *Outgroup*-aren motibazio hipotetikoei buruzko negoziazio-sekuentzian, elkarrizketaren barruko *statu quo* bat eraikitzen dute (1-12 lerroetan). Galdera-erantzunek estrategia integratzaile moduan funtzionatzen dute, haien bidez elkarrizketako parte hartzaileek elkar interpelatzeko baitute: egia partekatu bat ezartzeko estrategia eraikitzaile baten parte dira. Birdefinizioak itxurazkoak baino ez dira, funtsean hizlari bakoitzak erantsitako azalpenak (beldurra, nazka edo burla ote den *outgroup*-ak sentitzen duena) funtzio berbera betetzen duelako: *Bestearen* karakterizazio negatiboa elikatzea.

Lander, 13. lerroan, ordura arte elkarrizketan eraikitako kontsentsua kolokan jar dezakeen deusezte estrategia bat txertatzeko zorian dagoenean, Eiderrek estrategiaz aldatzen du, eta ordura arteko eraikitako *egia* berretsiko duen istorio baten kontakizuna txertatzen du; *mythopoesis* adibide horretan, protagonistak (hizlarietatik kanpoko figura batek) biolentzia sufritzen du bere komunitate kulturalaren sinboloak erakusteagatik. Egoera komunikatibotik at dagoen eremu batetik elkarrizketara ekartzen den esperientzia estradiegetiko bat da Eiderrek argumentaziora dakarrena: hizlarietako inork zuzenean bizi izan ez duen arren, egiazkotasunaren balioa aitortzen diote, istorioak funtzio errepresentatiboa betetzen duelako gatazkari buruz eraikitzen ari diren narratiban. Hartara, biolentzia sufritu duen pertsonaia euskal herritarren eta espainiarren arteko harreman historikoaren metafora bihurtzen da; jipoitzaileak, aldiz, espainiarren sinbolo gisara operatzen dute kontakizunean. Kontzeptu hauek testuinguru historikoaren ezagutza partekatutik datorren iruditeria zabal baten parte dira: hizlariak Frankismoko errepresio kulturalaren *frame* edo eskema mentalera jotzen dute haiek interpretatzeko garaian. Interpretazio-patroi hori aski errotuta dago euren komunitate kulturean, eta horregatik, kontakizuna ez da kuestionatua eta ez du behar hizlarien esperientzia zuzenik berretsia izateko: errepresiozko harreman historiko bati buruzko *egia* partekatu baten adierazpen gaurkotu baten forma hartzen du.

Eiderrek aipu ironiko (Reyes, 1996, p. 50) batekin indartzen du bere kideek eraikitako *statu quo*-a (19. lerroa). Ironia nagusiki perpausaren tematizaziotik (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 47) dator: *denborazko deiktikoa* + *aditza* + *subjektua* + *konplementua* antolaketak enfasia lokailu kopulatiboan eta deiktikoan jartzen du (“y luego somos nosotros”), hain zuzen ere lehendik esplizitatutako kontakizunari erreferentzia egiten dioten bi elementuetan. Bi adierazpenen edukiaren arteko talkatik (Anak kontatutako

anekdota eta Eiderren itxurazko proposizioa) sortzen da efektu ironikoa: hizlariaren bikoizketa bat dago, zeinetan ahots bat erridikulizatua den (Reyes, 1996, p. 56). Ironiak bi funtzio betetzen ditu kasu honetan: alde batetik, Eiderrek distantzia erakusten du perpausaren edukiarekiko, “malos” edo *gaiztoak* adjektiboari keinuzko kakotxak ipintzen dizkionean; bestetik, ironiak interpelatzaile gisara funtzionatzen eta hizlarien arteko harremana estutzen du, partekatzen duten ezagutza batean oinarritzen delako aipu ironikoa ulertzeko egin beharreko inferentzia (Ibid., p.55).

Negoiazioaren une horretan, ia erabateko kontsentsua eraiki dute parte hartzaileek: euren narratiba partekatua indartzen duten adibideak irauarazte-estrategien parte dira. Horiek hainbat estrategia legitimatzaileekin bateratzen dituzte: autorizazioa (Jokinek bere burua jakitun gisara autoertratatu du, kanpoko ikerketa bati erreferentzia eginez, euren tesiari zientifiko tankerako oinarri bat eskainiz eta iritzia partekatzen duen komunitatea elkarriketa-taldeaz harago doala ulertaraziz) eta zentzu komunari edo ezagutza partekatuari egindako erreferentziak. Eiderrek ez du esplizitatzen zer gertatu den Katalunian Espainiako banderarekin (20-21. lerroak): informazio partekatutzat jotzen du, ez badakielako bere kideek kasu zehatz hori ezagutzen dutela, baizik eta ordura arte elkarriketan eraikitako eredu mentalarekin osa daitekeelako elipsatutako informazioa.

Pasarte honetan, *ingroup*-a zein *outgroup*-a erreferentzia toponimikoen bidez irudikatzen dira: Errenterriak, Gasteizak eta Nafarroak euskal herritarrei egiten diete erreferentzia; Murtziak eta Madrilek, aldiz, espainiarrei. Halaber, esanguratsua da Eiderrek “etarrei” buruz egiten duen aipamena (30. lerroa): adierazpen hori zeharkako aipu bat da, hizlariak *outgroup*-aren ahotsean kokatzen duena, eta *ingroup*-aren erretratazio demonizatzaile bati egiten diona erreferentzia. “Etarra”, linguistikoki, aktore baten toponimizazio bat da: ETA talde armatua toki bat bihurtzen da, eta, ondorioz, hari atxikitako pertsonak “etar” bihurtzen dira, jentilizio baten logika jarraituz. Jatorri geografikoaren metafora horrek jaiotzaz edo integrazio kulturalaz atxiki zaizkion iritzi eta jarrera sorta bat aurreuposatzen dizkio jentilizio horri, haren identitatearen parte finkotzat jotzen direnak, eta, beraz, aldagaitzak.

“Etarra”, historikoki, ETako kideak izendatzeko eta haren inguruko eremu abertzaleaz modu negatiboan hitz egiteko erabili izan den terminoa da (Velte, 2016b, p. 32). Guk bildu ditugun datuetan, 15 elkarriketatuk erabili dute termino hori: denera, 27 aipamen jaso ditugu. Horietatik 12tan erabilera interdiskurtsiboa eman diete hizlariak, hau da, kanpoko ahots baten zeharkako edo zuzeneko aipamenaren bidez txertatu dute “etarra” terminoa, harekiko distantzia nabarmena hartuta. Gainerako 15 aipamenetan, euren diskurtsoan txertatutako elementu gisara agertu da terminoa, modalizatzaile urruntzailerik gabe; kasu gehiagotan agertu da, beraz, naturalizatuta, kuestionatuta baino.

Oro har, maiz errepikatzen da euskaldunak kanpoko aurreiritzien biktima gisara erretratatu dituen narratiba, arrazoi kulturalengatik zein ETaren jarduera armatuari lotutako arrazoiengatik. Sarritan, era horretako seinalamenduak kanpoko diskurtso nagusi baten parte direla hautematen dute elkarriketatuek, eta eraikitzen dituzten diskurtso ugari kanpoko *egia* partekatu horrekiko erantzun edo kontra-narratiba modura eraikitzen dira:

1 *Hitz egiten badugu borroka armatuaz, hildakoak, mm... hildako gutxiago egon*
2 *dira. Manifestazioetan, torturatuak... bai, baina [ikus] behar da]*
3 *proporzionalki ere zein den gure herriaren biztanleria. Nik uste*
4 *proporzionalki bai Estatu espainolak bai pertsona gehiago hil dituela, eta aldi*

5 berean ez dela bakarrik hil ala ez hil: nola biziarazten dituzun pertsonak, dena
6 kontuan hartu beharko dela. Eta hor bai izan dela pleno de Estatu
7 espainolarena. (...)
8 Estatu espainolaren izaera rencorosoa da, o sea, rencorra. Eta Altsasun
9 gertatu dena nik uste dela adibide argi bat. Altsasun gazte gehiago mugitzen
10 ari zen, gazteria indar pila bat hartzen ari zen, ari zen planteatzen euskal
11 herriko gatazkan zer gertatu den; zer gertatzen ari den, eta zer gertatuko den
12 edo zer nahi dugun gertatzea. Eta bai ari zela, e, pues zerbait sortzen, eta ez
13 zela zuzenean Estatu espainolaren kontra era armatu batean edo. Zen
14 erresistentzia puntu bat bezala gazterian, eta suntsitu du, nik uste
15 rencorrenengatik; hainbeste urte eskatzea rencorra dela. Manifestazio batean
16 hamar urte – e, manifestazio batean, txakurren, e, polizien aurka joateagatik
17 hamar urte eskatzea pasada bat da. Eta hori guztia rencorrenengatik da.

Ilargi-16-Etxarri Aranatz

Pasarte honetan, Ilargi gatazkan inplikaturako aktoreek eragindako kaltearen ebaluazio bat negoziatzen ari da bere buruarekin, bere ahotsaren bikoizketa baten bidez. Ebaluazio hori bihurtuko da ostera aktoreen kategorizaziorako oinarri. Hasieratik bertatik *ingroup*-aren exkulpazio bat dago, besteak beste, hark erabilitako biolentziaren deskribapen eufemistiko eta legitimatzaile baten bidez: 1. lerroko “borroka armatua” terminoa komunitate politiko zehatz baten barruko terminologia partekatua da. Nolanahi ere, *ingroup*-aren biktimizazio-narratiba kuestionatzen duen proposizio batekin abiatzen du bere argumentazioa: Ilargik kanpoko diskurtso nagusi bat erreproduzitzen du, hau da, hildako gehiago eragin dituela ETaren “borroka armatuak”. Jarraian, ordea, *disclaimer* bat txertatzen du (2. lerroan), bere burua zuzenduz transformazio estrategia batekin: “biktima” kontzeptua birdefinitzen du, kategoria horretan, hildakoez gain, atxilotuak eta torturatuak ere txertatuta. Modalitate deontikoak (“kontuan hartu behar da”, 6. lerroan) adierazten ditu irakurketa horren premia, eta interpelatzaile gisara funtzionatzen du, elkarrizketaren une horretatik aurrera biktimaren bere definizioa izan dadin diskurtsoaren oinarri partekatu. Torturatuak eta atxilotuak (Estatuaren indar armatuek eragindako biktimak) agentibitate gabeko biktima gisara erretratatu agertzen dira hartara: 5. lerroko “biziarazi” aditzaren aukeraketak euren bizitzaren jabe ez diren aktore gisara kategorizatzen ditu, eta, aldiz, agentibitatea (eta bizitza horien ardura) *outgroup*-ari atxikitzen dio. Hura agente boteretsu eta maltzur gisara erretratatu du, esate baterako, pertsonifikazioa erabiliz: “rencor” edo gorrotoaren aipamen errepikatuaren bidez (8., 15., eta 17. lerroetan), pertsonak esperimendatzen dituzten sentimenduetako bat atxikitzen zaio instituzio politiko bati. Hura bihurtzen da ostera haren jarreraren ebaluaziorako oinarri. “Pleno” adierazpen metaforikoak (6. lerroan) bingo jokoari egiten dio erreferentzia; hartan, elementu guztien jabe den aktorea irteten da garaile. Ondorioz, kaltearen ardura osoki *outgroup*-ari egozten dio hizlariak, eduki proposizionalarekiko inplikazio handiz: 4-17. lerroen arteko pasartean ez du modalizatzaile epistemikorik erabiltzen, alderantziz baizik: elementu enfatizatzaileak txertatzen ditu. Karakterizazio negatiboa indartzeko, Altsasuko auziari buruzko ezagutza partekatua eta *outgroup*-aren irudikapen metaforiko bat erabiltzen ditu: “txakur” metafora *ingroup*-ak partekatzen duen iruditeria historiko zabalago baten parte da, sozialki errotutako lengoiaia erabat konbentzional bat, zeinak Polizia piztia irrazional eta obeditzaileen moduan irudikatzen dituen. Hizlariak modu inkontzientean erreproduzitzen du lengoiaia hori, baina jarraian bere burua zuzentzen du (16. lerroan): dagoen egoera komunikatiboan (ikerketa baterako elkarrizketa bat, ezagutzen ez duen elkarrizketatzaile batekin, esfera publikotik gertuago,

beraz) terminologia hori desegokia izan daitekeela ohartzean, modalizatu eta termino neutralago bat eskaintzen du, “polizia”.

Ilargiren helburu diskurtsiboa, funtsean, euskal herritarrak (eta bereziki abertzaleak, zeintzuekin hizlaria ere identifikatzen baiten) kalte-eragile nagusi gisara seinalatzen dituen narratiba nagusia deuseztatzea da. Antzeko estrategia darabil Gorkak honako pasartearen:

1 *Nik uste munduan ez dagoela justiziarik, mundu guztiarentzat justua den*
2 *zerbait. Bo, ezinezkoa da. Eta pf, azkenean adibidez ETAk egin duenarekin –*
3 *justua, hil diren pertsonekin eta beraien familiekin, ez da justua. Baina nik ez*
4 *dut uste guregan horrelako errepresioa justua denik ere.*

Gorka-15-Hendaia

Pasarte honetan, *egia* absolutu gisara planteatutako premisa batetik abiatzen da Gorka: ezinezkoa da biktima guztiei justizia egitea. Ondoren, itxuraz karratu polarizatzailea leuntzen duen enpatiazko eraikuntza bat txertatzen du, ETAk eragindako biolentzia injustu gisara kategorizatuz eta haren biktimen ikuspegia hartuz (3. lerroa). “Baina” lokailuarekin, ordea, *disclaimer* bat txertatzen du: ondorengo perpausak indarra kentzen dio aurretik esplizitatutakoari, eta ostera *ingroup*-aren sufrimendua nabarmentzen da *outgroup*-arenaren gaineratik. Hizlariak erabateko identifikazioa ageri du bere taldearekiko eta hark historian sufritutako errepresioarekiko, lehen pertsona plurala erabiliz bere burua “Gu” kategoria zabalago baten barruan kokatzen baitu.

Norbere taldearen biktimizazioa kohesio historikorako hari sendoa den moduan, ohikoa da *outgroup*-aren ezaugarri negatiboenak nabarmentzea narratiba hori koherentea izan dadin. Estrategia horren barruan, hizlariak maiz ospe txarrena duten aktoreak *outgroup* osoaren errepresentatibo bihurtzen dituzte, edota haren alderdi armatua nabarmentzen dute, gatazka armatuan izandako ardura azpimarratuz. Horregatik, ez da harrizkeoa Guardia Zibilaren aipamenak nabarmentzea era honetako eraikuntzetan: aurretik azaldutako arrazoiez gain, hizlariok euren testuinguru garaikidean ezagutzen duten eta identifika dezaketen aktore bat da, eta euren belaunaldiarentzat sinboliko bihurtutako gertakari zehatz baten (Altsasuko auziaren) protagonistetako bat. Ohikoa da, hortaz, figura horri erreferentzia egitea eta hura problematizatzea gatazkari buruzko irakurketak egiterakoan.

1 (...) eta Guardia Zibilaren presentzia gaur egun zergatik mantentzen dela uste
2 duzu?
3 *Ba kontrolatzeagatik. Batez ere kontrolagatik, eta beldur puntu batengatik,*
4 *zerbait gertatzeko edo guk egiteko.*
5 Iruditzen zaizu oraindik gertatu daitekeela, arrisku bat existitzen dela gaur
6 egun? Bueltatu daitekeela gatazka armatua?
7 *Gatazka-gatazka nik uste ez dela bueltatuko, baina alde batetik ere beste –*
8 *beste ekintza[k] edo egiteko, beti daude berdeak, presentzia, eta ez dute uzten*
9 *guk ezer adieraztea. Ez defendatzea, ez salatzea.*
10 Hori adibidez zein momentutan sentitu duzu, ezin zenuela zerbaitek adierazi?
11 *Ba adibidez pasa den urtean, e, egin genuen institututik e manifa bat, herrira.*
12 *Ikasleok, e, LOMCEren aurka egin genuen, eta herrian geundela geratzen*
13 *zitzaizkigun hogeit metro plazara iristeko; bukatzen zen han, eta gelditu*
14 *gintuzten, manifa ilegala zela esanez, eta dispertsatzeko esanez. Eta egin*
15 *zuten.*

Eli-15-Altsasu

Elik karratu polarizatzaile argi bat eraikitzen du Guardia Zibilak irudikatzen duen *outgroup* baten eta tokiko ikasleek (berak barne) irudikatzen duten *ingroup* baten artean. Lehenbizikoak sozialki partekatutako formula eraiki batekin deskribatzen dira: “Berdeak” (8. lerroan) deitzen zaie modu metonimikoan, hau da, polizia-uniformearen kolorearen bidez deskribatzen da erakundea; deshumanizazio bat dago hartara, poliziak kolore bat bihurtuz.

Bestalde, esanguratsua da hizlariaren agentibitatearen pertzepzioa: bere esperientzia pertsonaleko pasarte bat darabil aktore bakoitzari egozten dion botere-maila ilustratzeko. Hartan, *outgroup*-a kontrolaren jabe den eragile gisara agertzen da; hau aditz trantsitiboan eta subjektu aktiboan eraikuntza linguistikoen bidez antzeman daiteke (13-14. lerroetan), hala nola, euren ahotsaren presentzia interdiskurtsiboan (14. lerroan). *Outgroup*-aren presentzia intimidatzaile eta orokor gisara hautematen du hizlariak (“beti” denborazko adberbioaren bidez eta “kontrola” aukeraketa semantikoz). *Ingroup*-ari atxikitako aditzetan, aldiz, subjektu pasibo edo objektu zuzen gisara kontzeptualizatzen da taldea gehienbat (8-9. eta 13-14. lerroetan).

Laburtuta, esan genezake nazio identitatea ardatz duen diskurtso bateratzaileak taldearen biktimizazio historikoa duela oinarri nagusizat. Gazteon diskurtsoetan behatu dugunez, Frankismo garaiko esperientzia kolektiboek *frame* sozial gisara operatzen jarraitzen dute oraindik, gatazkaren adierazpen garaikideagoak oraindik ere haien terminoetan interpretatzeko marko gisara funtzionatzen dutenez gero.

b) Taldearen jarraikortasun ideologikoaren narratiba

Nazio ardatzaren barruan identifikatu dugun bigarren patroia diskurtsiboak taldearen kohesioa eta iraupena haren ezaugarri ideologikoen eta helburu politikoen terminoetan kokatzen ditu. Eraikuntza mota honetan, taldearen iraunkortasuna ez dator (soilik) iraganean sufritutako esperientzia batetik edo haren interpretazio partekatutik, baizik eta taldeak partekatzen duen etorkizunerako jarrera edo helburu batetik.

Etorkizunerako biraketa honek, halaber, hizlariak belaunaldi gisara taldean integratzea ahalbidetzen du, gatazka euren testuinguru garaikidean kokatzen duenez gero.

1 Atzera begira, nola laburtuko zenuke ETari buruz gelditu den iritzia?
2 Nire gertuan esango nuke – o sea, egin zuena izan zela ona. Azkenean, e,
3 konbatitu zuen edo izan zuen guztia izan zen gure – orain ditugun ideia politiko
4 horiek defendatzeko, modu batean. Orduan, nire inguru – o sea, nik daukadan
5 ingurugiroan izan da – iritzi ona dago.

Endika-17-Tafalla

Adibide honetan, bere talde sozialean nagusi den diskurtsoa ari da erreproduzitzen hizlaria: bere egiten du inguruko pertsonen partetik jaso duen ebaluazio morala (interdiskurtsibitatearen erabileraren bidez), eta haren oinarrian dagoen argumentazioa ere erreproduzitzen du. *Ingroup*-arekiko identifikazio argia antzeman daiteke pasarte honetan, lehen pertsonako izenorde eta aditzen erabilerak erakusten duenez (3. lerroa). Eraikuntza honetan, *ingroup*-aren iraganeko eta gaur egungo ideologia politikoak lotzen dira, eta ETA haien defendatzaile gisara kategorizatzen da. Ondorioz, haren jarduna legitimatuta geratzen da helburu partekatu legitimo batzuen mesedetan: helburuaren bidezko justifikazio-estrategia bat dago. “Azkenean” denborazko adberbioak (2. lerroan)

naturalizazio-estrategia bati erantzuten dio: aktore baten zilegitasunaren inguruko eztabaidan, haren jokabidearen oinarrian dagoen elementu esentzial bati egiten dio erreferentzia, kasu honetan positiboa dena (ETAren helburua *ingroup*-aren ideiak defendatzea zela); alderdi positibo hori nabarmentzen zaio aktoreari, eta, aldiz, gainerako alderdiak, karakterizazio positibo hori zalantzan jar lezaketenak, bigarren mailakotzat jotzen dira.

1 Lotzen dituzu gaur egungo arazoak oraindik euskal gatazkarekin? Zeintzuk
2 esango zenuke direla gelditu diren ondorio horiek edo ebazteko dauden
3 arazoak?
4 *Mm... ba nik ikusten dudana da, e, oraindik zorrotzagoa edo krudelagoa dela*
5 *zigorra. Eta nik uste dut horrek eragin duela pixkat lotzea, zeba Altsasukoa*
6 *presente daukagu, eta badakigu mendeku bezalako bat – es que ez dakit nola*
7 *deitu, baina utzi duela horrek erraztasun bat edo gogorkeri bat, esango nuke*
8 *ba beste aldetik, edo eskumaren aldetik, dena justifikatzeko. Eta hori, dena*
9 *justifikatzea ere bai, ba entzun behar izatea dena ETA dela, ezkerre ETA dela,*
10 *horrek eragin duela. Eta gero hala ere nik uste dudana da balore positibo*
11 *asko, ba, sinesten dudalako ez balitz egon bere garaian e – borroka edo*
12 *intentzio bat, ez zela gaur egungo gauza asko dagoen bezala egongo, eta*
13 *guretzako errazago eta. Orduan, bi aztarna horiek.*

Gari-20-Getxo

Semantikoki kontrajarriak diruditen hainbat tesi nahasten ditu Garik pasarte honetan. Alde batetik, bere testuinguru garaikidea iraganari buruz eraikita daukan eredu mentalarekin alderatzen du, eta gaur egungo egoera, gazteentzat, okerragoa dela ebaluatzen du. 4. lerroan, “ikusten dudana” markagailu ebidentziala erabiltzen du bere burua autorizatzeko estrategia modura: “oraindik” denborazko adberbioak, kasu honetan, “are” enfatizatzailaren sinonimo gisara funtzionatzen du. Testu-pasarte honen lehenbiziko zatian (4-10. lerroak), *ingroup*-aren iraganeko gatazkengatik prezio bat ordaintzen ari den talde gisara erretratatu du Garik bere belaunaldia: 6. lerroan txertatzen duen *mendeku* kontzeptuaren bidez eraikitzen du lotura. *Outgroup*-a “eskumak” ordezkatzeko du, hau da, alderdi politiko eskuindar edo kontserbadoreek: aktore horiek “ezkerreko” gazteak kriminalizatzen dituzte, azken hauek ETAren jardunarekin lotuz. Hizlariak diskurtso nagusi baten pertzepzioa esplizitatzen du zeharkako aipu baten bidez (“dena ETA dela, ezkerre ETA dela”, 9-10. lerroetan), eta horri erantzuten dio pasartearen amaieran. “Hala ere” aurkakotasunezko lokailuaren bidez, deusezte estrategia bat erabiltzen du, bere tesia txertatzeko (10-13. lerroak): haren bidez, ETAren jardura armatuaren justifikazio bat eranstean dio bere argumentazioari, bere egungo egoerarako mesedegarri izan dela ebaluatuz. Kasu honetan, hizlariak aipatzen duen “intentzioak” (12. lerroan) ETAren helburu politikoei egiten die erreferentzia, haren estrategia faktikoari kontrajarrita. Ostera ere, aktorearen kategorizazioarekin bat datozen ezaugarrien aukeraketa bat dago diskurtsoan, Endikaren adibidean bezalaxe.

Azken tesi hau, alegia, hizlariaren egungo testuingurua hobea dela iraganeko gatazka armatuari esker, kontraesankorra da pasartearen hasieran esplizitatu duenarekin: haren arabera, gaur egungo gazteak okerrago daude lehengoak baino. Beraz, pasarte berean bi narratiba nagusi elkarrekin bizi direla identifika dezakegu: alde batetik, norbere taldearen biktimizazio historikoaren narratiba; eta, bestetik, jarraipen historikoaren narratiba legitimatzailea. Ondoriozta genezake, kasu honetan, hizlariarentzat garrantzitsuagoa dela

ingroup-aren jarraipen historiko eta ideologikoaren diskurtsoa eraikitzea, aurreko belaunaldiekiko desberdintasunak nabarmentzea baino.

Taldearen iraunkortasunaren gakoetako bat da haren helburu eta interesak ulergarri eta legitimo bihurtuko dituen diskurtso partekatu bat eraikitzea (Van Dijk, 2003, p. 45). Horregatik, Euskal Herriko gazteek (bereziki iraganean ETAk erabilitako estrategiarekin identifikatzen direnek), *ingroup*-aren iraganaz duten irudia kuestionatua ikusten dutenean, sarritan defentsazko posizio bat hartzen dute, zeinak *ingroup*-arekiko identifikazioa are sendoago bihurtzen baituen diskurtsoan. Hala gertatzen da, besteak beste, terrorismoari buruzko diskurtso dominatzaileekin konfrontatzen direnean:

- 1 *Gorka: Nik uste dut terrorista dela, azkenean gauzak egiten dituen helbururik*
2 *gabe. Hiltzen duena hiltzeagatik eta horrela.*
3 *Lur: Nik "terrorista" hitzari biziki adiera simplea ematen diot. E — Hitzak*
4 *erran nahi duena: beldurra sortzen duena. Eta terrorista, bakoitzak erabakiko*
5 *du nor den eta nor ez den. Nik, atzo aipatzen nuena, nik oso argi dut niretzat*
6 *nire hautzaroon Espainiako Polizia Nazionalea eta Guardia Zibila terroristak*
7 *zirela. Niri beldurra sortzen zidaten, beldur ikaragarria. Beldurra sortzen*
8 *didaten momentutik, horrelako beldurra, niretzako terroristak dira. Eta nire*
9 *ustez terrorista nor den eta nor ez den, bakoitzak erabaki behar du. Norberak*
10 *erabaki behar du beldurra sortzen dion edo ez.*
11 *Unai: Nik sentitzen dut biziki lanjerosa dela nahastea gu adibidez orain diren*
12 *terrorista-edo horiekin, ero horiekin, izan direnak hor Pariseko atentatueta*
13 *edo, em — eta hiltzen dituztenak edonor, ehunka inozente eta horrela, eta hori*
14 *pentsatzea euskaldunak ere horrelakoak direla; hori dut biziki lanjerosa so*
15 *egiten guretzat. Hori litzateke kaltegarriena, denek horrela pentsatzen badute.*

Baiona, taldeko elkarrizketa

Egoera honetan, 15 eta 16 urteko lau nerabe partekatutako eta esplizitatu gabeko azpitu baten gainean ari dira negoziatzen: euskaldunak terrorista gisara erretratatu dituen diskurtsoaren gainean. Narratiba horrek *ingroup*-a demonizatzen duenez, hizlariak hainbat estrategia erabiltzen dituzte hura deuseztatzeko. Agerikoena eztabaida metalinguistikoa da: *terrorista* terminoa birformulatuz, ezarritako *egia* partekatuaren funtsezko elementu baten inguruko kontsentsua hautsi nahi dute. Gorkak eskaintzen du lehenbiziko birdefinizioa, terminoari *outgroup* baten ohiko ezaugarri negatiboak atxikita: helburu politiko edo arrazionalik eza eta biolentziaren erabilera indiskriminatua, legitimitate falta moral bati lotuta (Shanahan, 2010, pp. 175–176). “Azkenean” adberbioak, lehenago aipatu dugun moduan, esentzialismo bat dakar, “terrorista” adjektiboaren sustantibazioak (oro har orokortua denak) ere elikatzen duena: narratiba horretan, norbait terrorista *da*; ez ditu ekintza terroristak *egiten*. Hortaz, aktorea identitate estatiko eta aldagaitz batera murrizten da, haren parte hartze aktibo eta kontzientea (eta, ondorioz, aldakorra) eskatzen duen jokabide bat nabarmendu ordez.

Lurrek distantzia hartzen du *terrorista* terminoaren erabileratik, esplizituki aipu bat dela iradokiz (3. lerroan); hartara, hizlariak adierazten du ez duela partekatzen terminoaren erabilera konbentzionala. Hura deuseztatzeko, aldiz, bestelako bi estrategia erabiltzen ditu: alde batetik, arrazionalizazio-estrategia baten bidez, bere posizioa legitimatzen duten datu objektiboen jakitun gisara kategorizatzen du bere burua, 3-4. lerroen artean *terrorismo* terminoaren definizio bat eskainiz. Ez du iturri zehatzik aipatzen, baina “hitzak esan nahi duena” adierazpen metalinguistikotik inferi daiteke terminoaren

definizio arautu edo unibertsal bati buruz ari dela: autorizaziozko argudio bat litzateke, beraz. Terminoa bera sentimendu batekin lotuta (beldurrarekin, 4., 7. eta 8. lerroetan errepikapenaren bidez enfatizatzen duenez), sentimendu horren jabe diren aktoreak bihurtzen dira haren definitzaile legitimo. Hizlaria horien artean kokatzen da: “ni” lehen pertsona singularreko izenordearen eta hartatik eratorritako formen errepikapen deigarriaren bidez (5-9. lerroetan), hizlariak bere subjektibitatea nabarmentzen du, baina ez modalizatzaile epistemiko distantziagarri gisara, baizik eta bere burua iturri autorizatu gisara kategorizatzeke: terrorismoa definitzea esperientzia edo irakurketa pertsonalen arabera bada, bere iritzi pertsonala erabat legitimoa eta baliozkoa da.

Bestetik, bere haurtzaroko esperientzia bat ilustratzen du froga ebidentzial gisara: hartan, sufritzen duen narratzaile-biktima bat eraikitzen du, izututako haur errugabeak sinbolizatzen duena. Eraikuntza honek Espainiako polizia-erakundeak erretratatzeko dituzten negatiboki, *outgroup* eta kalte-eragile gisara.

Azken hitzartzean, Unai kanpoko aktore berri bat txertatzen du antagonista gisara. Lehen pertsonaren erabilerarekin (11., 14. eta 15. lerroetan), erabateko identifikazioa adierazten du *ingroup*-arekin (euskaldunek osatzen dutena, ETAk eta bestelako talde armatuak barne). *Outgroup*-a, aldiz, bi taldetan banatzen du: alde batetik, ‘beste’ terroristak daude, *ingroup*-etik argiki bereizten dituen talde armatu islamistak; eta bestetik, iritzi publiko zabala (“denak”, 15. lerroan), antagonista gisara. Lehenbizikotik bereizteko, hizlariak denborazko deixia erabiltzen du: “orain” adberbioak (11. lerroan), *lehengo* edo *betiko* talde batzuen eta *berri* batzuen existentzien arteko diferentzia eraikitzen du; azken horiek Parisen 2015eko azaroan (elkarrizketa gauzatu baino bi urte eta erdi lehenago) egindako atentatuen egileek sinbolizatzen dituzte. Haien erretratazio demonizatzaile bat eskaintzen du Unai: eromenaren metaforak (12. lerroan), izaki irrazional gisara irudikatzen ditu, helburu politikorik gabe jarduten dutenak (Gorkak aurretik 1-2. lerroetan esplizitatutako esanahiaren bidez indartzen da irudi hau), eta, ondorioz, ilegítimoak direnak. Kontrastez, hizlaria *betiko* taldeekin identifikatzen da eta haien legitimitzat ditu. Bitxikiro, hizlariak bere *ingroup*-aren aurka erabili ohi diren argudio eta iruditeria berberak erabiltzen ditu terrorismoaren *frame*-a beste talde batzuei ezartzeko.

Finean, eraikuntza diskurtsibo hauen bidez beha dezakegu gazteok euren taldearen elementu bateratzailetzat dituztela, alde batetik, haren jarraikortasun ideologikoa historian, eta ideologia horrengatik seinatua izatearen kontzientzia bestetik. Bildu ditugun narratiba asko, hain zuzen ere, pertzepzio horren gainean eraikita daude, zuzenean edo zeharka erreferentzia egiten diotenez gero.

c) Iragan armatuari lotutako sinboloak, elementu kohesionatzaile gisara

Biolentzia maila handiko gatazketan, talde sozialen identitateak polarizatu egiten dira, *Besteak* norberari eragindako kaltea gatazka ulertzeko aldagai nagusietako bat bihurtzen delako. Gerraren *frame*-a ezarrita dagoenean, taldeko kide guztiak edo gehienak sentitzen dira gatazka armatuaren partaide, baita pertsonalki armarik hartu ez dutenean ere (Armoudian, 2015, p. 376). Iruditeria hori aldatzea, sarritan, gehiago kostatzen da gatazka armatua bera amaitzea baino. Euskal Herrian eta 2020ko hamarkadan ere, ETAk eta bestelako talde armatu batzuek oraindik sinbolo partekatu gisara operatzen dute komunitate ideologiko baten barruan, eta komunitate horri kohesioa eskaintzen diote

iraganeko erresistentzia baten narratiba bat eraikiz eta komunitatea haren bidez interpelatuz. Zulaikak duela 30 urte (Zulaika, 1990, p. 369) deskribatutako elementuetako zenbait transmititu dira hurrengo belaunaldietara, eta gure elkarrizketetan ere behatu ahal izan ditugu.

1 Esango zenuke euskal gatazka bukatu dela?
2 *[Isilunea] Ba igual ez, zeren... bueno, bukatu berez bai, baina ideia oraindik*
3 *— ideia batzuk oraindikan tente daude batzuen barruan ere bai. Pentsatzen*
4 *dut pertsona batzuk igual oraindik nahiko zutela mantendu. Ez igual izan den*
5 *bezala, baina bai egotea hor erakunde bat bezala, edo talde bat, indarra*
6 *daukana eta saiatzen dena ba hobeto horra eramatzen, edo behintzat, ba*
7 *igual Espainiak guregan daukan indar hori gutxitzen-edo.*

Ane-21-Mutriku

1 *Euskal gatazka izan zen euskaldunen askatasunagatik talde armatu batek, bo,*
2 *talde armatu bat saiatu zena askatasuna, ba hori, ez? Eskatzen edo... eskatzen*
3 *azkenean. Baina gobernuak ez ziola jare eta orain gaudela armak jartzen-edo,*
4 *ea nola bukatzen den.*

Eñaut-15-Oñati

Bi pasarteotan, *ingroup*-aren interesen babesle edo defendatzaile gisara erretratzen da ETA. Hura ez da sekula aipatzen zuzenean, baina bai eufemismoen bidez (“talde armatu bat”, Eñauten kasuan, edo “erakunde bat”, Aneren kasuan). Biek parekatu egiten dituzte “gatazka” terminoa eta ETAre jarduera armatua. Aneren hitzartzeko 4. lerroko “persona batzuek nahiko zuten mantendu” perpausean, ez da objektua esplizitatu; galdegaiari erantzuten ari zaiola interpreta liteke, eta, beraz, gatazkari buruz ari dela. Gero, berak zehazten du iritzi zabalduago horren desioa dela “erakunde bat” mantentzea, *outgroup*-aren eragina murriztuko duena: *erakundea* hain zuzen ere, ETAre inguruan historikoki erabili den termino legitimatzaile bat da, eta, beraz, kasu honetan hizlariak kanpotik egoera komunikatibora dakarren elementu interdiskurtsibo bat.

Eraikuntza honetan, iraganaren idealizazio bat edo nostalgia bat dago: ETAre irudikatzen zuen babesle faltan botatzen du hizlariaren inguruko komunitateak, eta hizlariak hori diskurtsuan islatzen du. Hizlariaren distantziamendua aldatzen doa pasarteon zehar: hasieran, hirugarren pertsona darabil, bere burua jarrera horretatik urrundu (3-4. lerroetan); “persona *batzuk*” determinatzaile zehaztugabearen erabilerak ere funtzio hori betetzen du (4. lerroa). Gerora, inplikazioa handitzen du, lehenbiziko pertsona erabiliz eta bere burua taldearen barnean kokatuz (“guregan daukan indar hori”, 7. lerroan).

Eñaut, aldiz, euskal gatazkaren definizio bat eraikitzen saiatzen da: “izan zen” existentziazko aditz intrantsitiboak, alde batetik, iragandako egoera bati egiten dio erreferentzia; bestalde, definizioaren objektu gisara ETAre jarduera deskribatzen du. Hura bere helburuen aipamenaren bidez legitimatzen du (“euskaldunen askatasuna eskatzea”, 1-2. lerroetan). Hizlariak identifikazio argia erakusten du aktore horrekiko; hainbeste, ezen Eñautek lehen pertsona baitarabilen desarmeaz hitz egiteko. Ezinezkoa da berak sekula arma bat erabili izana, are gutxiago ETAre bizialdiaren testuinguruan; hala ere, bere sentitzen du desarme prozesua, bere komunitatearen esperientzien parte den neurrian.

1 *Lur: Ikusiko dugu — oraindik denbora aunitz falta da, baina errango nuke*
2 *hemendik 25 urtera, begiratu 30 urte atzera, hau da, 2011n ETAren su-etenetik*

3 begiratu 30 urte geroagora, 2040an, eta nire ustez *ikaragarritzko abantzea*
4 *egongo da euskal gizartean.*

5 Unai: *Bistan da, baina aitzinetik bestea izan da baita ere. Nik uste dut zinez*
6 *ETAk aterarazi zuela, en fin, Iparraldean hasteko, eta lehen, ene ustez, jendeak*
7 *ez zuen deus egitekorik euskaldunekin. (...) ETAk erakutsi zuen hor ginela,*
8 *lehen hori ukan du, nahiz eta izan diren biktima guztiak. Baina izan du hori*
9 *aterarazteko, hara, euskaldunak hor zirela eta zerbait egin ahal zutela*
10 *euskaldunek. Eta bistan da ez zela borroka armatua, ez zela soluzio baten edo*
11 *zinez zerbaiten lortzeko, baina ene ustez beharrezkoa izan da hala ere gaur*
12 *egun dugun egoerara iristeko — e — beharrezkoa izan da hori izaitea lehenik,*
13 *gero gaur egun dugun — zinez negoziaketak hasteko, eta erakusteko: gu hor*
14 *gira eta ikusi duzu zertarako kapaz ginen, baina ez da hori guk nahi duguna*
15 *zinez. Guk hori egin dugu zuek egin zenutenez, bestenaz ez genuen deus*
16 *eginen; gu behartuak izan gira hori egitera, behartuak izan gira borrokatzera*
17 *armekin, eta gaur egun nahi dugu onarpen bat-edo erraiteko gu ez garela*
18 *terroristak, eta gu garela populu bat beti zapaldua izan dena eta behartua izan*
19 *dena borrokatzera.*

Baiona, taldeko elkarrizketa

Pasarte honetan, ETAREN desarmeari buruzko ebaluazio bat negoziatzen ari dira bi hizlariak. Lurrek, modalizatzailer epistemiko baten bidez (“errango nuke”, 1. lerroan), distantziamenduzko gradu apal batekin txertatzen du bere iritzia: ETAREN su-etena *ingroup*-aren interesetarako mesedegarri izan zela. Tesi hori indartzeko, desarmearen ondorio litzatekeen etorkizuneko egoera hipotetiko bat eraikitzen du, zeina positiboki ebaluatzen baituen. Kontuan izan behar da Lur eta Unai Ipar Euskal Herriko komunitate abertzalean hazi direla; bertan, ETAREN iraganeko jardura armatua sinbolo partekatua da. Hego Euskal Herriarekin alderatuta, komunitate horrek euskal gatazkarekin izandako harremana zertxobait desberdina izan da, aurreko ataletan xeheago deskribatu dugunez. Hortaz, ETAREN su-etena positibo gisara ebaluatzerakoan, Lur bere komunitatearen barruko kontsentsu historikoetako bat ari da kuestionatzen: distantziamenduzko modalizatzailerak kontrobertitua izan daitekeen iritzi bat txertatzeko aukera ematen dio.

Unai arrazoi ematen dio lehen unean, baina segituan *disclaimer* bat eransten du (“baina”, 5. lerroan), eta transformazio-estrategia bat txertatzen du, ETAREN iraganeko jardura mesedegarritzat joz. Narratiba honetan, *ingroup*-aren defendatzaile gisara kategorizatzen da ETA. Metafora geografikoek (“aterarazi” eta “hor ginela”, 6. eta 8. lerroan), ezkutututako subjektu bat ebokatzen dute: diskurtsoan, euskaldunen agentibitatea handitu egiten da ETAREN eraginpean. “Zinez” adverbio enfatizatzaileraren erabilera errepikatuaren bidez (5., 7., 11., 13. eta 15. lerroetan) eta “bistan da” ebidentzialaren bidez (5. eta 10. lerroetan), bere posizioa indartzen du diskurtsiboki, 10 eta 12. lerroen artean esplizitatzen duena: alde batetik, arrazoiak aitortzen dio Lurri biolentziaren erabilera alferrikakotzat jotzen duenean; oster, baina, kontrakotasunezko lokailu baten bidez, kontrako iritzia esplizitatzen du, modalitate deontikoz lagunduta (“beharrezkoa izan da”). ETAREN jardunaren justifikazioa nagusitzen da hartara diskurtsoan. Amaieran, karratu polarizatzailer argi bat eraikitzen du, aktore horrekin erabat identifikatuz: lehen pertsona pluralean mintzo da Euskal Herriko talde armatuez, baina haiek eragindako biolentzia ez du zuzenean aipatzen, “hori” deiktiko orokortzailearen bidez baizik (16. lerroan).

Unairen hitzartzean, hainbat diskurtsoren arteko talka identifika daiteke: alde batetik, Lurrek eraikitako oinarri diskurtsibo partekatua eta Unairen beraren printzipio moralak (biolentzia gaizki dagoela diotenak) mantendu nahi ditu; bestetik, *ingroup*-aren iraganeko jokabideak justifikatzeko beharra sentitzen du, lehen tesiarekin kontraesankorrak izan

daitezkeen arren. Biak integratuko dituen narratiba koherente bat eraikitzeko, estrategia justifikatzaile bat erabiltzen du: *ingroup*-aren biolentzia *outgroup*-ak behartua izan zela azaltzen du (14-17. lerroetan), lehenaren borondatearen aurka, eta, beraz, haren ardura bigarrenari egozten dio. Hirugarren diskurtso nagusi baten presentzia ere badago pasarte honetan: euskaldunak terrorista gisara erretratatzeko dituen makronarratibarena. Unai zeharka aipatzen du hura ukatzen duenean (18. lerroan), eta birformulazio batekin eraldatzen du, *ingroup*-aren karakterizazio positiboago bat eraikiz.

Diskurtso honetan, gatazkaren biktima zuzenak albo-kalte gisara agertzen dira erretratatuta (“nahiz eta” eta “baina” kontrakotasunezko lokailuen artean indargabeturik), eta “euskaldunak”, aldi berean, biktima gisara erretratatzeko dira, kanpoko zirkunstantziek indarkeria erabiltzera behartu zuten gaitz-eragile berez on modura. Pasartearen amaieran, lauki polarizatzaile argia zabaltzen du Unai, *ingroup*-a formulazio legitimatzaileekin aurkeztuz: “Gu ez gara terroristak” ukaziozko perpausa ezarritako diskurtso nagusi bati egindako erreferentzia da, hau da, zeharkako aipu bat; eta hari erantsitako azalpena, “gu garela populu bat beti zapaldua izan dena eta behartua izan dena borrokatzera”, emendatze bidezko transformazio-estrategia bat. Kasu honetan, *erresilientziaren narratiba* bat darabil Unai justifikazio gisara: euskaldunek tresna armatu bat (ETA) erabili beste aukerarik ez zuten izan, euren nahiaren kontra, egoera desiragarriago batera iristeko.

ETAri atxikitako esanahi historiko honek elkarrizketatu ditugun gazteen egitura diskurtsiboetan espero baino presentzia handiagoa duela identifikatu dugu, baita haren jarduna ideologikoki eta gaur egungo posiziotik negatiboki ebaluatzen duten batzuen kasuan ere:

1 ETA nola deskribatuko zenuke?
2 *Ba... e, igual euskaldun moduan, edo euskaldun – ez dakit zein momentutan*
3 *igual orgulloa ematen dizu: “Joe, ze indartsuak garen”. Baina azkenean*
4 *kasik-kasik zela gehiago kontra que alde.*

Ekaitz-16-Altsasu

Ekaitzi ETA deskribatzeko eskatu diogunean, identitate kolektibo baten posiziotik egindako ebaluazio batekin abiatzen du bere erantzuna: gutasun bat eraikitzen du “euskaldun moduan”, eta ETA kolektibitate horren indarraren sinbolo bihurtzen du. Gero, auto-zuzenketa edo transformazio estrategia bat darabil diskurtso hori eraldatzeko: bere egungo posiziotik, ETAREN jarduna kaltegarri gisara ebaluatzen du. “Helburua ona zen, bidea txarra” narratibaren barruan koka daiteke pasarte hau, baina baita Ekaitzek hainbat marko kognitibo bateratzeko egiten duen ahaleginaren barruan ere.

Era honetako narratibek izaera nostalgikoko diskurtsoei eman diezaiekete bide, sarritan norberak esperimendatu ez duen iraganaren idealizazioa oinarri dutenak. Etorkizun hipotetikoetan oinarritutako iraganaren ebaluazioak ohiko eraikuntza diskurtsiboak dira gazteen ahozko narratibetan. Arrazoiketa horren beste aldaera batek historiaren bilakaera paralelo batekin hipotetizatzen du, eta emaitza garaikide okerrago bat eraikitzen du. Iragana berez geratzen da orduan justifikatuta:

1 *Es que... batzuetan, o sea, claro, nik pentsatu egiten dut, lógicamente. Baina*
2 *igual batzuetan bai pentsatzen dut: es que ez bazen gertatu gertatu zena, igual,*
3 *nire situazioa oraintxe bertan izango zen txarragoa. Igual nire gurasoak – es*

4 *que igual hemen egongo zen hain zapaldua gure herria, nire bizitza izango*
5 *zela oraindik txarragoa. Nik batzuetan pentsatzen dut: igual ez bazen gertatu*
6 *gertatu zena, ez bazen ETA egon, igual nire bizitza izango zen askoz ere*
7 *txarragoa.*
8 *Zein zentzutan?*
9 *Ba igual hemendik kanpo joaten banintzen, igual oraindik sentsazio txarragoa*
10 *edukiko nuen nirekin. Zeren igual, como - a ver, es que igual suena mal, baina*
11 *igual beltz bat joaten bada oraintxe Madrilera, ba igual arrazismoa jasotzen*
12 *du. Ba igual nik ere horrelako zerbait jasoko nuen; zeren azkenean herri*
13 *zapaldu bat ez da ondo ikusia beste herri batean.*
14 *Eta iruditzen zaizu borroka armatuari esker irabazi dela legitimitatea herri*
15 *bezala?*
16 *O sea, es que nik uste dut – a ver, askatuta ez gaude, baina igual kate batzuk*
17 *bai apurtu direla horren esker. (...) Hitz egiten dudanean kasu honetaz pues*
18 *igual jendea se pone en plan... [keinu eskandalizatua]. Nire ustez ETAk,*
19 *azkenean zela bere helburua Euskal Herria beste batzuegandik askatzea eta*
20 *beste, e, beste batzuetatik askatzea. O sea, hori da nire iritzia. O sea, nik uste*
21 *dut egiten zituzten ekintzak ba igual jendearentzat dela nahiko, como fuertea.*
22 *Baina adibidez nik uste dut Euskal Herria momentu horretan ez zegoela bere*
23 *momentu oso onean. Orduan, ba, momentu horretan igual jendea bai hasteko*
24 *borrokan eta bai konturatzeko non gauden eta zer – eta zer momentu zegoen*
25 *Euskal Herrian, ba igual bai zela ETA – o sea, nik uste dut igual ekintza batzuk,*
26 *ba igual ahal direla justifikatu.*

Joana-16-Arrasate

Pasarte honetan, hizlariak bere iritzia legitimatzeko hainbat estrategia darabiltza. Aurretik aipatutako kausa eta efektuzko egitura hipotetikoak eraikitzeaz gainera (“igual” adberbioaren errepikapen ugariak ilustratzen dutenez), bere burua subjektu arrazional gisara kokatzen du diskurtsoan, “pentsatu egiten dut” adierazpen ebidentzialak azpimarratzen duenez (1. lerroan). Bestalde, metaforizaziora jotzen du askapen borrokaren *frame*-a eraikitzeko: kateen metaforak, *ingroup*-ari ezarrita, preso dagoen subjektu kolektibo bat irudikatzen du (16-17. lerroetan), eta haiek apurtzeak askapen-keinu gisara kontzeptualizatzen du biolentziaren erabilera.

Nolanahi ere, Joana jakitun da bere iritzia talka egiten duela sozialki onartutzat jotzen duen diskurtso nagusiarekin. Horregatik, lehen pasartean probabilitatezko modalizazioa darabil iritziarekiko bere inplikazioa leuntzeko (“igual”, 2. eta 4. lerroetan). Bigarren pasartean, esplizitatu egiten du talka hori, bere iritzia gizartean eragin dezakeen erreakzioa baliabide proxemikoen, hau da, keinu eta bestelako gorputz-adierazpenen bidez antzetzuz (18. lerroa). Joanak ahots disonante gisara kategorizatzen du bere burua, kontrako iritzia daukan masa gisara irudikatutako kolektibitate handiago batekin parez pare dagoena. “Jendea”, kasu honetan, subjektu kolektibo orokortu eta anonimizatua da, gizarteko joera nagusia (eta, ondorioz, botere diskurtsiboa duena) irudikatzen duena. Horregatik, pasarte honetako modalizazio epistemikoak bi funtzio betetzen ditu kasu honetan: alde batetik, estrategia leuntzaile bati erantzuten dio, egokitzeat jotzen ez den iritzi bat plazaratzeko baimen eskaerak baitira “o sea”, “batzuk” eta “igual” formulak. Bestalde, hizlariaren subjektibitatea nabarmentzen duten modalizatzaileek (“hori da nire iritzia” eta “nik uste dut” errepikatuek, 16., 20., 21., 22. eta 25. lerroetan) autorizaziorako estrategia bat ere betetzen dute. Izan ere, adierazpenaren eduki semantikotik dakigu hizlariak erabateko konpromisoa agertzen duela sozialki zuzena ez dela badakien iritzi batekin, eta hura iritzi nagusiaren kontra defendatzen duela modu kontzientean. Ondorioz, subjektibitatea nabarmentzen duten formula linguistikoek ez dute

distantziamendua eraikitzen, hizlariak aurretik hartutako ahots disonantearen posiziotik datorren autorizazioa baizik.

d) Iragan armatuarekiko haustura, elementu identitario gisara

Orain arte aztertutako pasarteek, oro har, iraganari lotutako sinbolo positibo moduan ikusten dute Euskal Herriko talde armatuen (eta, bereziki, ETAre) parte hartzea gatazkaren alderdi biolentoan. Kontrara, identifikatu ahal izan ditugu alderdi hori modu negatiboan *gogoratzen* duten diskurtsoak ere: haietan, hizlariak oro har distantzia handia eraikitzen dute aktore horiekiko, eta haietatik bereizitako talde nortasunak eraikitzen dituzte diskurtsiboki. Eraikuntza mota honetan, ETAr buruz hirugarren pertsonan mintzo dira hizlariak, eta oro har ezaugarri negatiboak atxikitzen dizkiote:

1 Adibidez, etorriko balitz turista bat kanpotik, ez dakiena ezer Euskal Herriko
2 historiari buruz, nola azalduko zenioke?
3 Bua. Ba ez dakit. Es que hori, historiagaz azkenean ez dakit larregi ere ez.
4 Baina ez dakit, azkenean beti lotzen gaituzte, beti ETAgaz lotzen gaituzte gu.
5 Ba ez dakit, hori esplikatzea. Ez dakit, azkenean ere bai da a lo ikustea
6 badagoela hemen ere jende diferentea, o sea, ez garela denok leku batean
7 sartzeko moduan, azkenean esplikatzea, ba ez dakit, hombre, ba bada jendea
8 nik baino askoz gehiago dakiena, baina hombre, ba niri galdetuko bazidaten,
9 ba ez dakit zer esango nukeen, egia esan.

Udane-18-Markina-Xemein

Pasarte honetan, hizlariak kanpoko diskurtso edo begirada baten aurrean bere burua ETArengandik bereizten du: interdiskurtsibitatearen bidez, *ingroup*-aren kanpoko kategorizazio bat berreraikitzen du, eta deusezte estrategia batekin ukatzen du (6-7. lerroak). Hizlari honek ez du bere burua politikoki definitzen, eta politikari buruz hitz egiteko zailtasunak esplizitatu ditu elkarriketan: ezagutza falta dela medio, ez da legitimatuta sentitzen *kanpora begira*, hau da, publikoki euskal gatazkari buruz hitz egiteko. Modalizatzaile epistemikoen erabilera deigarria da, baita tematizazioa ere: elkarriketatzaileak gatazkaren definizio bat eskatzen dionean, eskaintzen duen lehen erantzuna bere ezjakintasunaren azalpen bat da.

1 Dagoela hierarkia bat Espainia mailan, Euskadi ez dela kontatzen ba herri bat
2 bezala, baizik eta Espainiako beste parte bat. Eta horrekin ba hasten dela baita
3 identitate nazional bat gehiago edo indartuago sortzen Euskal Herrian. Eta
4 horrekin, ba, gure kultura ba mantentzea edo hizkuntza, eta, bai. Eta, bueno,
5 ba errebindikatu edo. Eta gero jada ETArekin, ba bueno, Franco garaian baita
6 ere egon zen; orduan ba bueno, hori garrantzitsua izan da baita mugimendu
7 bezala Francori aurre egiteko, zeren diktadura bat izan zen; orduan hitz egitea
8 edo zure pentsamenduekin aurre egitea diktadura bati, pues oso potentea da
9 baita. Orduan baita izan da, a ver, ez da justifikatzeko, e? Baina ETA garai
10 hartan, Francorekin ba izan zen pixkat ahots bat baita Francori aurre egiteko,
11 eta gero jada, bueno, trantsizioan-edo hori, jada beste gauza bat da. Nik uste
12 dut beraien aukera izan zela; ez dago ondo niretzako, eta bueno, segitu zuten.

Laura-21-Donostia

Kasu honetan, formakuntza politiko sendoagoa eta identifikazio politiko argia (ezkertiarra eta ez abertzalea) agertu dituen hizlari bat daukagu. Laurak Udane bano modalizatzaile nabarmen gutxiago erabiltzen ditu: seguruago ageri da bere adierazpenen edukiarekiko. Euskal Herriko identitate nazionalaren sorreratik urruntzen da hirugarren

pertsona erabilia, baina, aldiz, bertako kulturarekin identifikatzen da lehenbizikoa erabilia (2-4. lerroak). ETA *ingroup*-etik bereizten du, hirugarren pertsonako “beraien” izenordain indartua erabiliz eta ebaluazio morala erantsiz. Haren jarduna ebaluatzeko garaian, nolahi ere, bi faseen narratiba darabil, testuinguru politikoan oinarrituta: haren arabera, ETAREN biolentzia legitimatuz zegoen Frankismoan, Trantsizioaren ondoren baino. Esanguratsua da, halaber, hizlariak 9. lerroan txertatzen duen interpelazioa (“A ver, ez da justifikatzeko, e?”): ETAREN jarduna partzialki legitima dezakeen narratiba bat ahoskatzeko baimen eske ari zaio elkarrizketatzaileari, esatera doana gizarteko kontsentsu politikotik at gera daitekeela dakielako.

Distantziamenduan koska bat harago doaz ETA *ingroup*-aren sinbolo partekatua gisara, baina haren interesetarako oztopo gisara irudikatzen duten narratibak. Diskurtso mota hauetan, nazio ardatza mantentzen da, Espainiak oraindik *outgroup*-a gorpuzten duelako, baina ETA aktore antagonista gisara erantzen zaio hari, Estatuak hura tresna gisara erabili izan duela hartzen delako aintzat.

1 *O sea, nik ezin dut esan ETAREN jarduna ez danik izan bitala historiako*
2 *momentu batzuetan, baina XXI. mendean gaur eguneko, ba hori, gaur egungo*
3 *gatazka eramateko moduarekin bat ez datorren borroka bat izan da ETAREN*
4 *borroka armatua. Baita Estatuaren borroka armatua ere, oraindik segitzen*
5 *duela; baina nik uste dut ETAREN desarma edo ETAREN... ba hori, azkenean*
6 *ETAREN desagerpena-edo bai dela pausu handi bat guretzako; ez hainbeste*
7 *Estatuarentzako, baina bai guretzako. Zergatik azkenean izan da modu bat*
8 *Estatuan pasatu diren, ba, Estatuaren kloaka denak tapatzeko modu bat izan*
9 *da ETA urteetan zehar, eta orduan ailegatu da puntu bat ba igual kloaka*
10 *horiek denak agerian geratu direnak benetan lortu nahi zuena lortzeko.*

Enaitz-17-Oñati

Hizlari honek ere kanpoko diskurtso nagusi bat hartzen du abiapuntu gisara, hain zuzen ere ETAREN jarduna beharrezkotzat jotzen duena, hizlariak ziurrenik bere testuinguru sozialean hautematen duena. 1. lerroko ezezko bikoitza ezkutuko aipu horrekiko erantzuna da (Reyes, 1996, p. 45): hizlariak denborazko erreferentzia zehatz bat txertatzen du ñabardura gisara (“historiako une batzuetan”), ebaluazio absolutuetatik urrunduz. 2. lerroko “baina” kontrakotasunezko lokailuak *disclaimer* bat txertatzen du: pisu gehiago du ondoren datorren perpausak. Hartan, hizlariak bere burua eta bere taldea / belaunaldia ETAREngandik bereizten ditu denborazko deixiaren bidez. Azken horri egotzen dion ezaugarri nagusia anakronismoa da, hau da, urruntasuna hizlariaren egoera garaikidearekiko.

ETAREN desagerpena *ingroup*-aren interesetarako positiboa dela baloratzen du hizlariak: ez hari eragin dion kalte zuzenagatik, baizik eta *outgroup*-aren tresna gisara operatu duelako, haren urraketak estaltzeko aitzakia eskainiz. Estolderiaren metafora (“kloaka”, 9. lerroan) sozialki partekatua den formulazio egin bat da, oro har Estatuaren ustelkeriari erreferentzia egiteko erabiltzen dena (Roures i Llop, 2017); gure adibidean elementu interdiskurtsibo bat da, hortaz.

Era honetako adibideek erakusten dute tokiko talde armatuekiko desidentifikazioak ez dakarrela derrigor *Beste* alde batekiko identifikazioa: hainbat gaztek antagonista gisara irudikatzen dituzte iraganeko gatazka armatuan inplikaturako alde guztiak. Batzuek ETA eta antzeko taldeak eta haiek eragindako biolentzia kanpo uzten dituzten nazio identitate

bat eraikitzen dute, eta belaunaldi gisara, hainbat aktore eta hainbat biolentzia motaren biktima gisara ikusten dute euren burua:

1 Eta gatazkaren biktima nagusiak zeintzuk izan dira?
2 *Ba azkenean... o sea, euskaldunak orokorrean niretzako. Zeren azkenean talde*
3 *bat egonda ere, zuk nahiz eta talde horri babes bat eman, edo nahi duzun dena,*
4 *baina ez izan horretako taldekoa, jada euskalduna izatearren bakarrik jada*
5 *irudi hori ipini dizute. Eta gaur egun ere bai. Adibidez kriston arazoak ikusi,*
6 *gu joan ikasbidaian ez dakit nora, eta guri, o sea, edozer esaten jendea,*
7 *horiengatik. Hori gaur egun ere ikustea pixka bat lotsagarria egiten zait, baina*
8 *bueno.*
9 Aurreiritziak, euskaldunak izateagatik?
10 *Bai.*
11 Eta, adibidez, zer gauza esaten dizkizute?
12 *Joe, ba ez dakit. O sea, ja, niretzako ja, ikusi egiten gaituzte; jendeak ja ikusten*
13 *bazaitu euskaraz berbetan-edo, beti hori da. Adibidez, Altsasun pasatu*
14 *denaren moduan.*

Udane-18-Markina-Xemein

Bildutako datuetan maiz errepikatzen den topikoa darabil Udane: “Herriak sufritu du gehien” gisara laburbil liteke. Narratiba horretan, *ingroup*-a nagusiki aurreiritzien biktima gisara kategorizatzen da. Ideia hau bat dator Wodakek (2011, p. 175) bere analisi empirikoetan behatutako estrategiekin: “gerra oro da txarra” bezalako topiko orokortzaileek justifikazio-estrategia gisara operatzen dute, gertatutakoaren arrazionalizazio bat eskaintzen dutelako.

Kasu honetan, hizlariak ez du ETA zuzenean aipatzen (“talde bat” eufemismoaren bidez aipatzen du, 3. lerroan), eta bereizi egiten ditu alde batetik ETA eta haren babesleak, eta bestetik bere burua kokatzen duen taldea. Distantziamendua partziala da: ez du erabateko haustura irudikatzen hirugarren pertsona baten bidez, eta ezta identifikazio absoluturik ere lehen pertsonaren bidez. Horren orde, bigarren pertsona hautatzen du, elkarrizketatzailearekiko interpelazioan. Udane erabiltzen dituen bi distantziamendu-graduen arteko aldea suma daiteke berari pertsonalki gertatutako esperientzia narratzen duenean: orduan lehen pertsona lehenesten du, identifikazio argi bat eraikiz *ingroup* berri batean, “gu, euskaldun gazteak” edo “gu, ikasleak” gisara laburbildu litekeena. Talde hori aurreiritzien biktima da, hain zuzen ere, ETArri atxikitako iruditeria bat ezartzen diotelako kanpotik. Une horretan bere belaunaldiko kideen izenean ari dela uler liteke, besteak beste, Altsasuko auziari egiten dion erreferentziagatik: bere arazo garaikide baten prismatik eraikitzen ditu gatazkari buruzko bere interpretazio-patroiak.

Nolanahi ere, iragan armatuarekiko distantziamendu maila handiena ETA antagonista gisara kategorizatzen duten diskurtsoek erakusten dute. Narratiba hauek *ingroup*-aren interesekiko aurrez aurre kokatzen dute aktore hori, haren jarduna negatiboki ebaluatuz eta norbere taldearentzako kaltegarri gisara erretratatu.

1 *Galder: Todo lo que viene de — como, al relacionarnos nosotros también con*
2 *ETA, pues ya nos — como que nos diferencian. (...) Yo creo que los que*
3 *realmente han estado metiéndonos en plan — metiendo miedo a los españoles,*
4 *de que nosotros somos de ETA y esa gente, yo creo que son los fascistas.*
5 *Eider: Son ellos.*
6 *Jokin: Es un método de control. El Rivera y demás hablando del ‘cuponazo*
7 *vasco’ y demás cosas que no conocen, no saben y no entienden, y aun así lo*
8 *usan como arma arrojadiza contra nosotros, por tener un concierto económico*

Pasarte honetan, hizlariak bere burua ETArekiko posizionatzen du, haren deskribapen bat eraikiz eta aktore horri hainbat ezaugarri atxikiz. Karakterizazio horrek kontraesankorra dirudi lehen begiradan: alde batetik, hizlariarentzat desiragarri edo legitimo gisara aurkezten den helburu bat atxikitzen zaio (Euskal Herriaren askatasuna; hizlariak partekatzen duen desio bat, alegia); baina, bestetik, karga semantiko negatiboko adjektibo bati lotzen zaio ("terrorista"). Hizlariak terminoen kontrajartze baten bidez kudeatzen du kontraesana: helburuak eta bidea bereiziz, jarrera justifikatzailea ager dezake deskribatzen ari den aktorearen alderdi *erosoenarekiko*, hau da, bere balio-sisteman eta ingurune sozialean onartuta dagoen diskurtsoarekiko, eta, aldiz, jarrera kritikoa ager dezake alderdi *deserosoenarekiko*, biolentziaren erabilerarekiko alegia.

Ordura arte, posizionamendu pertsonala da hizlariak agertzen duena. Pasartearen amaiera aldera (3-4. lerroak) eraikitzen du bere burua barne biltzen duen taldea: "Gu" eta "Haiek" bana dago, bi talde argi banatuz, baina testuinguruagatik (elkarrizketa bereko beste pasarte batzuetan ere antzeko kategoriak erabili dituelako) inferitu behar da lehen pertsonak euskal herritarrei egiten diela erreferentzia eta hirugarren pertsonak espainiarrei. ETA azken hauen pareko kalte-eragile gisara pertzibitzen da. *Ingroup*-aren zuzeneko aipuak ("Horiek terroristak dira", 4. lerroan) funtzio interpelatzaile eta barneratzailea betetzen du: haren bidez, hizlariak bere burua *ingroup*-aren barnean kokatzen du, bere posizioa berretsiz; horrek bide ematen dio, gerora, ETA negatiboki erretratatzeko *ingroup*-aren mugak zeharkatu gabe.

Azkenik, badira indar armatuek erabilitako biolentzia legitimatzen duten diskurtsoak ere. Hauek, nolahi ere, minoritarioak izan dira gure datu-bilaketan; alde batetik, ziurrenik, parte hartzaile gehienek euren burua "ezkertiar" edo/eta "abertzale" gisara definitu dutelako, eta, bestetik, Poliziaren biolentzia esplizituki defendatzea ez delako iritzi maitatua izaten belaunaldi gazteen artean, are gutxiago Euskal Herriko iragan gatazkatsuaeren testuinguruan. Era honetako legitimazioak Guardia Zibilaren normalizaziozko diskurtso baten testuinguruan topatu ditugu ia beti:

1 Hablemos de temas un poco más actuales. ¿Qué te sugiere la presencia de la
2 Guardia Civil en el País Vasco? ¿Por qué están, cual es su función?
3 *Es que está un poco distorsionada la realidad, yo creo. Por todo esto de*
4 *Cataluña y todo el rollo. Pues hombre, la Guardia Civil nos protege; en cierta*
5 *manera está bien que la tengamos. Pero hombre, relacionado con lo de*
6 *Cataluña, si se supone que la Guardia Civil pegaba y todas estas cosas, pues*
7 *hombre, no me parece bien, pero no creo que... pegar así porque sí. O sea,*
8 *también nosotros tenemos que mirar por nosotros mismos. Igual a veces*
9 *hacemos cosas y decimos cosas que no están bien y entonces responden con*
10 *violencia. Pero tienen como derecho, ¿no? A responder con violencia. O sea*
11 *que bien, guay.*

Alex-18-Barakaldo

Alexen hitzartzean, lehen pertsona pluraleko erabilerak ("gu"-aren errepikapenak, 4., 5., 8., eta 9. lerroetan) gizarte zibilari egiten dio erreferentzia, herritar arruntei, haien ideologia edo esperientzia politikoak zeinahi izanda ere. *Ingroup*-aren infantilizazio bat eraikitzen da, zeinetan herritarrek babestuak izan behar duten eta euren portaera okerragatik zigortuak diren. Hartara, Guardia Zibilaren funtzioa eta haren biolentziaren

erabilera legitimatuta geratzen dira. Poliziaren “eskubidea” aldarrikatuz, haren irudi positiboa zaintzen du hizlariak.

Esanguratsua da, halaber, elkarrizketatzaileak Guardia Zibila hizpidera ateratzen duenean, euskal gatazkaren historiari buruzko elkarrizketa zabalago baten testuinguruan, hizlariak ez duela Euskal Herriko historia zehatzarekin loturarik eraikitzen, Kataluniakoarekin baizik. Horrek pentsaraz diezaguke Guardia Zibilaren presentzia Euskal Herrian normalizatuta daukala, ez baitzaio elementu aipagarria iruditzen. Halaber, esanguratsua da hizlariak bere erantzuna emendazio-estrategia batekin abiatzea (“dena pixkat distortsionatuta dago”, 4. lerroan): ezkutuko aipu edo diskurtso partekatu bati erreferentzia egiten ari zaio, hau da, hizlaria jakitun da existitzen dela Guardia Zibila negatiboki erretratzen duen diskurtso nagusi bat, eta hari erantzunez eraikitzen du bere hitzartzea.

Laburtuta, gazte askorentzat ETA eta haren jardun armatua komunitate ideologiko eta historikoaren kohesionatzaile gisara operatzen duten elementu sinbolikoak izateak ez du esan nahi bere horretan ontzat ematen dituztenik; aitzitik, badago ETA antagonistatzat duen diskurtso sendo bat ere gazteon artean. Antagonismo hau ez datza hainbeste ETArek ekintzek hizlariengan izandako eraginean (hura identifikatzeko zailtasun handiagoak dituzte), baizik eta haren izenean sufritzen duten zeharkako biktimizazio baten erruan; biktimizazio honek iraganeko gatazka armatutik iraun duen alderdi sinbolikoarekin du maiz zerikusia, esaterako, euskal herritarren aurkako aurreiritziekin.

5.4. TABUA ETA EZJAKINTASUNA KUDEATZEKO ERABILITAKO ESTRATEGIA PSIKOLINGUISTIKOAK

Ikerketa-lan honen abiapuntuko kezka nagusietako batek euskal gatazkaren historiarekiko eta, bereziki, biolentzien motibazioekiko tokiko gizartean sortzen ari daitekeen tabuan du jatorria. Tabua, tradizionalki, talde sozial bateko arau eta balio nagusiek komunikazioaren esfera publikoenetan duten eragin murriztaile edo “autokontrolatzaile” (A. Assmann, 2020, p. 82) gisara ulertu izan da: haren boterea oinarrian duen *egiaren* itxurazko unibertsaltasunean eta kuestionaezintasunean datza. Tabua esan ezin daitekeenaren eremua da: balio eta arau partekatuekin talka egiten duten diskurtso pribatuek publikoki zigorra jasotzeko arriskua duten espazioa. Traumaren literaturak sarritan minaren oroitzapenarekin lotu du ondorengo garaietako isiltasuna eta ez ahoskatzea (Auxéméry, 2021; Kirmayer, 1996), eta Euskal Herriko testuinguruan ere sozialki aski errotutako ideia da iraganeko minak kontatzean, sufrimendua ostera berraktibatuko dela, edo hurrengo belaunaldiek jasoko dutela.

Belaunaldi horietako kide diren gazteei galdetuta, ordea, susma dezakegu haien kasuan tabua edo isiltasuna ez datorrela hainbeste iraganeko min batekiko beldurretik edota sozialki gaitzetsitako gai bat ez ukitu nahi izatetik, euren buruari aitortzen dioten ezjakintasunetik eta hark eragindako lotsatik baizik. Ideia hau sarritan errepikatu da gure elkarrizketetan, eta Lurrek esplizitatzen du modu argienean ondorengo pasartean:

- 1 Zure adineko jendearekin hitz egiten duzunean, sumatzen duzu badagoela
- 2 beldurra gaia ateratzeko, edo askatasun gehiago dago?
- 3 *Beldurra badago, eta batez ere ezjakintasuna. Hau da, beldurra agian ahoa*
- 4 *ireki eta gauza oker bat errateko, ez dakitelako zeri buruz ari diren: gaur egun*
- 5 *gazteok oso gutti dakigu. Nire egoera hobea litzateke etxean aipatu izan*

Lurrek berak enfatizatzen du euskal gatazkari buruz hitz egitea eragozten diona, lehen lerroan, ezjakintasuna dela: “gauza oker bat esatea” adierazpen metalinguistikoak, kasu honetan, konpetentzia diskurtsibo (Calsamiglia & Tusón, 2012, p. 31; Gumperz, 1982, p. 24) faltari egiten dio erreferentzia: gazteek memoria kolektiboaren eraikuntzan, hau da, gatazkaren iraganari buruzko *eztabaida* sozial zabalean parte har dezaten, eztabaida horren arau komunikatiboak ezagutu behar dituzte, eta ez dute uste behar bezain prestatuta daudenik eremu horretan parte hartzeko. Egoera komunikatibo sozial arautu batean arauak hausteari diote beldurra.

Ondorioz, esan genezake ezjakintasun pertzibituak euskal gatazkari buruz hitz egiteko (eztabaida sozialean inplikatzeko) legitimitate gutxiago dutela sentiarazten diela gazteei. “Guk ez dugu bizi izan” eta “Beraz, guk ez dakigu” narratibek gazteen posizio soziala baldintzatzen duten mantra gisara funtzionatzen dute, euren ezagutza eta jarrerak diskurtsoan azaleratzea eragozten edo balaztatzen dutenak. Oztopo hori gainditzeko, euren posizio soziala (isilik beharko lukeen subjektu ezjakinarean posizioa) eta euren komunikaziorako nahia bateratzea ahalbidetzen dieten, eta, ondorioz, euren hitz egiteko legitimitatea handitzen duten hainbat mekanismo psikolinguistikotara jotzen dute. Datozen orriotan aztertuko ditugu baliabideok xehetasunez.

5.4.1. Ebaluazio moralaren nagusitasuna eta baimen eskaerak

Gure datuetako elementu deigarrienetako bat izan da gazteetako askok, gertakari edo aktoreen deskribapen soilak eskatuta ere, ebaluazio moralak eskaini dituztela erantzun gisara; sarritan, eskatutako deskribapen edo narratibizazioak ordezkatzuz edo haien aurretik kokatzuz. Mekanismo hau deigarria iruditu zaigu, logikoagotzat geneukalako (elkarrizketatuen adina eta elkarrizketaren testuinguru erdi-formala kontuan hartuta) iraganari buruzko narratibizazio edo deskribapen aseptikoagoak eskaintzea. Horren orde, ebaluazio moralaren (eta, ondorioz, inplikazio pertsonalaren) nagusitasun deigarri batekin egin dugu topo, hurrengo adibideen bidez xeheago aztertuko duguna:

1 Nola deskribatuko zenuke, orokorrean, ETaren jarduna?
 2 *Urte hauetan edo lehenago?*
 3 Hasi zenetik.
 4 *Uste dut hasieran egin zutena ongi dela, esan nahi dut, bueno, bai, ongi dela.*
 5 *Baina gero egin dituztela ekintza batzuk ez zirela – ez dakit, ustez nahi bada,*
 6 *ez dakit, helburua bezala baldin bazen Frankismoa eta hori dena gelditzea, ez*
 7 *z[ir]jen biktima inozente batzuk erail behar, ez dakit. Adibidez, Hipercorrean*
 8 *bezala. Nire ustez ez da hori egin behar. Ez dakit, nahi badugu zerbait lortu –*
 9 *ez dakit, ni nago biolentziaren aurka, baina adibidez jartzen banaiz hor,*
 10 *ETako idean bezala, egin dutenean hori, ba ez dakit, hasieran egin dutela ongi*
 11 *bezala, gauza batzuk direktuak bezala, baina gero joan direla, ez dakit. Ez*
 12 *direla joan direktura, joan dira adibidez hiltzen enpresako batzuk, eta hori ez*
 13 *da oso direktua Espainiako Estatuarekin.*

Elkarrizketatzaileak ETari buruzko deskribapen bat eskatu dion arren, Xanek haren jarduera armatuari buruzko ebaluazio propio batekin abiatzen du bere pasartea: elkarrizketatzaileak iritzirik eskatu ez dion arren, berehala argitzen du Frankismoaren

testuinguruan “ongi” (justifikatuta) ikusten duela (4. lerroan), baina ondoren jada ez. Denborazko eraikuntza horri eutsiko dioten datuak nabarmentzen ditu: hala, gatazkaren bi faseen narratiba bat eraikitzen du hizlariak. Lehenbiziko fasean ETA erresistentziatzko indar antifrankista gisara erretrata dezake, haren biktimak “direktuak” edo zuzenak, hau da, Estatu aparatuari dagozkionak, eta, beraz, helburu legitimoarekin bat datozenak zirela argudiatuz (11. lerroa). Bigarren faseaz ebaluazio negatibo bat eskaintzen du, eta biktima errugabeak (zibilak, Hiperkorreko atentatuak sinbolizatzen dituenak, 8. lerroan) eragitea aipatzen du aktorearen deskribapen gisara.

Diskurtso honetan hainbat posizio sozialen arteko elkarreragina suma daiteke. Alde batetik, hizlariak *ingroup* bat eraikitzen du lehen pertsona pluralaren erabilerarekin: 8-9. lerroetan erabiltzen duen adierazpen modalizatzaile optatiboarekin (“nahi badugu zerbaite lortu”), bere burua kokatzen du helburu politiko zehatz batzuk dituen taldearen barruan. Eztabaidagai dena ETAREN jardueraren erabilgarritasuna denez, testuinguruagatik inferi liteke *ingroup* horrek gutxienez ETAREN helburuak partekatzen dituela, eta, beraz, hizlariak bere ingurunean sumatzen duela aktore horrekiko identifikazio maila bat. Nolanahi ere, bere jarrera pertsonala (“biolentziaren aurka” dago, 9. lerroan) kontraesankorra da jarduera armatuaren erabateko justifikazio batekin: hortaz, hizlariak ETAREngandik bereizten du bere burua, bakezale gisara auto-erretratatu eta ETARI buruz aritzeko hirugarren pertsona erabiliz. Halaber, identifika daiteke kanpoko diskurtso nagusi baten pertzepzioaren eragina, zeinak modalizazio bidezko auto-negoizazio bat eragiten duen hitzartzearen hasieran: 4. lerroan, ETAREN jarduna une batean ontzat jotzen duela esplizitatu eta berehala, auto-zuzenketa bat txertatzen hasten da hizlaria; ondoren, bere tesiaren justifikazio-estrategia bati ekiten dio (“esan nahi dut”), baina ez du burura eramaten; horren ordez, argumentazioa eten eta bere posizioa berresten du (“bueno, bai”). Lehendik esplizitatu duen iritziarekiko *erantzun* bat aurreratuko balu bezala eraikitzen du diskurtsoa: internalizatutako kanpoko diskurtso baten presentzia dago bertan.

Modalizazioak funtzio garrantzitsua betetzen du pasarte honetan: modalizazio deontikoaren bidez, hizlariak bere jarrera ebaluatiboa esplizitatzen du (8. lerroan); eta modalitate epistemikoak, aldiz, baimen edo legitimazio eskaera gisara funtzionatzen du. “Ez dakit” aditzaren erabilera errepikatua beha daiteke 5., 6., 7., 8., 11. eta 12. lerroetan; haren bidez, hizlariak ezjakin gisara kategorizatzen du bere burua, bere posizio sozial pertzibituarekin bat. Xan ez da ziur sentitzen, baina ez bere diskurtsoaren edukiaz, hark testuinguru sozial-diskurtsiboan izan dezakeen harrera eta eraginaz baizik.

1 *Ba jakin beharko zen zergatik hainbeste obsesio Espainiako Gobernuak gu ez*
2 *garatzeko. O sea, ez dakit zergatik hainbeste beti – ez dakit, o sea, hainbeste*
3 *matxakatu, hainbeste euskara-eta. Zer uste zuten, konkistatu behar genuela*
4 *Espainia osoa edo? Ez dakit zergatik ez digute utzi mantentzen gure euskara.*
5 *Azkenean, beste hizkuntza bat dago eta ya está, ez? Ez dauka zentzurik. Eta*
6 *gero egon ziren gauza horiek denak, GAL eta hori dena – horrek ez dauka...*
7 *hori izan zen kriston barbaridadea. O sea, ze hori da azkenean demokrazia*
8 *garaian gobernu batek finantzatzea talde hori, da azkenekoa. Nire ustez hori*
9 *da ETA baino gaitzagoa, zeren bale, ETA da talde terrorista bat, eta zaude*
10 *kontra dena, bale, delako terrorista eta hori: gobernu horren kontra. Baina*
11 *gobernu demokratiko batek sortzea talde bat, armatua, joateko ETAREN*
12 *kontra... nik uste hori ya – impensable. Nik uste dut hori dela jada azkena.*

Joseba-20-Bilbo

Pasarte honetan eraikitzen den karratu ideologikoak argi bereizten ditu *ingroup*-aren ezaugarri positiboak (edo hura biktima gisara erretratzen dutenak) eta *outgroup*-aren ezaugarri negatiboak. Alde batetik, Josebak Espainiako Gobernuaren jarduera armatua nabarmentzen du, hark gatazka biolentzian izandako inplikazioa ikusaraziz; GALEk haren jardunaren sinbolo gisara funtzionatzen du. Deskribapenentarako, oro har, karga semantiko negatibodun lexikoa eta elementu enfatizatzaileak aukeratzen ditu (“kriston barbaridadea”, 7. lerroan). Pertsonifikaziora jota, “obsesioz” jardutea egozten dio hizlariak (1. lerroan), instituzioari izaera irrazionala atxikiz. Eraikuntza honetan, *outgroup*-ak helburu batez dihardu: *ingroup*-aren garapena eragozte.

ETAren eta Gobernuaren jarduera armatuen arteko alderaketa moralak indartu egiten du karratu polarizatzailea. *Bestearen* biolentzia okerragotzat ebaluatzen da: “azkena” metafora errepikatuak, 8. eta 12. lerroetan, hierarkia moral bati egiten dio erreferentzia. Horrez gain, hizlariak galdera erretoriko ironiko bat darabil bi taldeen arteko harremana deskribatzeko: egoera hipotetiko eta hiperboliko bat irudikatuz (euskal herritarrek “Espainia osoa” mendean hartzea, 3-4. lerroetan), *outgroup*-aren jarrera erridikulizatzen du Josebak. Ironia azpitemtu partekatu batean datza: hizlariak zein elkarrizketatzaileak badakite Espainia dela estatu nagusia, eta euskal lurraldeek erkidego estatusa daukatela gehienez ere, hau da, maila administratibo baxuagoa. Inferitzen den ebaluazioa honakoa da: euskal herritarrak ez dira mehatxu bat Espainiarentzat; ondorioz, eurekiko erasoak injustifikatuak dira. Tesi honek, bestalde, kanpoko diskurtso nagusi baten oihartzuna dakar, eta harekiko erantzun gisara interpreta daiteke: euskal herritarrak erasotzaile gisara erretratzen dituen diskurtso sozial batean dago oinarrituta Josebaren hitzartzea. Kanpoko diskurtso hau 9. eta 10. lerroetako zeharkako aipuaren bidez esplizitatzen du: “Bale, ETA da talde terrorista bat, eta zaude kontra”. Bigarren pertsonaren erabilerak, alde batetik, Espainiari egiten dio erreferentzia, baina aldi berean elkarrizketatzailearekiko interpelazio bat da, kasu honetan iritzi publikoaren ordezkartzat hartzen duena hizlariak.

Ebaluazio moralak hizlariaren posizio pertsonala kanpoko diskurtso nagusiekin bateragarri bihurtzeko funtzioa bete dezakeela behatu dugu; hala gizarteko diskurtso dominatzaileekin, nola hizlariaren komunitate hurbilean indarrean dauden kontsentsuekin:

1 *Nik uste dut edozein jaietan horrela gazteentzako guneetan edo Fan Hemendik*
2 *egunean hori transmititzen dela, gorroto hori Guardia Zibilekiko. Nik badakit*
3 *hemen Guardia Zibilak sobran daudela, udaltzainak dauzkagu eta eurak*
4 *sobran daude, baina joder, ya joatea eurena eta insultatzea, dauzkatenean*
5 *umeak. Adibidez, gure eskolan dago bat, neska bat, gu baino lau gazteagoa,*
6 *bere aita guardia zibila dela; ume horrek zer kulpa dauka bere aita guardia*
7 *zibila dela? Bere aitak seguramente nahiago du Madrilen bizi, hemen baino;*
8 *han maitatua, bueno, maitatuak... hemen denok gaude euren kontra. Es que ni*
9 *baita; nire ustez hemen eurak sobran daude. Baina ya adibidez Fan Hemendik*
10 *egunean joatea eurenana eta insultatzea... edo behin, orain dela urtebete edo*
11 *bi, lapiko bat jarri zen hor kuartelaren ondoan, eta ematen zuen bonba bat*
12 *zela edo eurekiko. Eta niri errespetu falta horiek... esaten dut: bale, ados,*
13 *sobran daude, baina eurak egiten baziguten berdina, gero gu kejarren gara*
14 *eurak bazilatu egiten digutela. Ba ostia, gure aldetik ere jarri beharko dugu*
15 *zerbait. Ez dakit ulertzen nauzun.*
16 *(...) Nik uste dut euskaldunoi batez ere min asko eman digutela, baina (...)*
17 *eurekiko errespetu minimo bat eduki beharko genuke, eurek gurekiko baita,*
18 *Nik entzuten dut Altsasuko kasua eta negargurea ematen dit, lotsa ematen dit*

19
20
21
22
23
24

Espainia ba herrialde modura, lotsatu egiten naiz. Eta ni ez naiz sentitzen espainola, e? Baina gero eurak guri errespetua asko falta diguten modura, gure aitaita-amamari, ba guk eurari... jende askok esaten du “Eurak egin digute guri, orain guk eurei gehiago”. Jo, ba nik hor... es que ez dakit, igual da asko enpatizatzen dudala, baina ni jartzen naiz euren lekuan, euren seme-alaben lekuan, eta ez zitzaidan gustatuko nire aitari hor txilioka egitea.

Idoia-17-Oñati

Identitatearen eraikuntza konplexua dugu hemen. Alde batetik, hizlariak bere egiten du bere komunitatean nagusi den diskurtsoa, Guardia Zibila *outgroup* gisara demonizatzen duena eta irtenbide gisara haren kanporatzea proposatzen duena. 2 eta 3. lerroetako aipuaren bidez, arau sozialen ezagutzaile gisara autokategorizatzen da hizlaria; “nik badakit” modalizatzaile epistemikoaren bidez nabarmentzen ditu taldearekin partekatzen duen ezagutza eta jarrera. Karakterizazio hori *Gu-Haiek* eskema argiarekin eraikitzen da, lehen eta hirugarren pertsonako izenordeen erabilera errepikatuaren eta kontrajarriaren bidez: hartan, oso modu argian kontrajarrita daude “Gu, tokiko herritarrok” bat eta “Haiek, Guardia Zibila” bat. Hizlariak identifikazio argia eraikitzen du euskal herritarrekin, eta jarraikortasun historiko baten kontzientzia antzeman daiteke haren diskurtsoan, aurreko belaunaldiei egindako kaltea bere egiten duenean (13-16. lerroetan).

Identitate kolektibo hori esplizituki une bakar batean ere kuestionatu gabe (areago, hura esplizituki berretsiz), hizlariak taldeko diskurtso nagusia emendatzen du hainbat unetan, esate baterako, “baina” lokailuaren osteko *disclaimer*-a sartuz 4., 9., 13., eta 16. lerroetan eta *outgroup*-arekiko enpatia adieraziz: hartara, Euskal Herrian gogoz kontra edo behartuta dagoen aktore baten moduan erretratzen du Guardia Zibila; haren agentibitatea murriztuz, aktoreari atxikitako ardura eta demonizazioa leuntzen dira. Modalitate deontikoaren bidez nabarmentzen du bere jarrera 14. eta 17. lerroetan: “Gure aldetik ere jarri beharko genuke zerbaite” eta “errespetu minimo bat eduki beharko genuke”.

Aldi berean, hizlariak “lotsa” gisara deskribatzen du Espainiak eragiten dion sentimendua (18. lerroa). Ondorioz, badago identifikazio maila bat, norbaitek berak edo bere komunitateak egindako kalteagatik sentitzen duelako lotsa; kontrakoa auzolotsa edo demonizazioa litzateke. Hizlariaren komunitatean nagusi den kontsentsuak, ordea, presiorako elementu gisara funtzionatzen du diskurtsoan, eta horregatik jarraian esplizitatzen du bera ez dela espainola sentitzen, bere burua talde horrekiko ostera urrunduz.

1
2
3
4
5
6
7
8
9
10
11
12
13
14
15

Unai: (...) eta hor dago guk berdin ikuspuntu objektiborik ez genuela ere ez, eta gehien kontatu zigutenak horren partaide edo protagonistak ere izan zirela. Beraz, horrekin, horrek kontaturiko gauzeekin bakarrik ezin dela ikuspuntu objektibo bat ukan, bakoitzak bere bizipena kontatuko baitu.

Lur: Bai, eta gero hori da, guk ez dugu inoiz — nire kasuan guttienez — nik ez dut gai honi buruz inoiz hitz egiteko aukerarik ukan ETA erakundearen edo guttienez horren biktima izan den norbaitekin, edo hori hurbilagotik bizi izan duen norbaitekin, ez? Ez dakit, alde espainiarzaleko norbaitekin, polizia baten seme-alabekin... ez dut inoiz ukan aukerarik horiekin solasteko, eta hori ere interesgarria litzateke.

Unai: Bai.

Lur: Hau da, guk beti, botako dut, ez? Biktimak bi aldeetakoak dira, baina nik benetan ezagutzen ditudan biktimak alde batekoak dira. Nik ez dut ezagutzen ETArekin edo ez dakit noren biktimarik, pertsonalki, horrekin ez dut inoiz solastu. Eta hori ere bada, ez? Nahi eta nahi ez, guk gure errelatoa

Pasarte honetan, *gazte* eta *abertzale* gisara eraikitzen dute identitate kolektiboa hizlariak. Identitate hori komunitate epistemiko gisara eraikitzen da gatazkaren historiarekiko: ezagutza faltak edo ezagutza partziala soilik izateak ematen die batasuna belaunaldi gisara. Unai eta Lurrek erabilitako arrazionalizazio estrategiekin justifikatzen dute euren posizioa: haien arabera, ingurune sozialaren partetik gatazkaren historiaren kontakizun edo bertsio bakarra jaso izanak gatazkaren poloetako batean kokatu ditu ezinbestean. Diskurtso honetan, gazteen agentibitatea gutxienera murriztuta dago: ideologia politikoa transmisio komunitarioaren eta norberaren posizio sozialak dakartzan ezagutzen menpe kokatzen dute.

Lurrek 12. lerroan txertatzen duen interjekzioak (“Botako dut, ez?”) komunitate epistemiko-ideologiko horren existentzia berresten du: taldean dominatzailetzat jotzen dituen diskurtsoekiko kontrobertitua izan daitekeen informazioa txertatzeko baimen-eskaera bat da interpelazio hori. *Outgroup*-aren esperientziekiko interesa agertzeak, neurri batean, leundu egiten du karratu polarizatzailea; Lur kontziente da horretaz, eta horregatik “eskatzen” die baimena kideei iritzi hori eztabaidan txertatzeko. Halaber, “bota” aditzak funtzio metaforikoa betetzen du: perpaus baten sarrera-aditz gisara operatzen du, eta haren edukia pisuzko objektu baten edo inpaktua izan dezakeen objektu baten terminoetan kontzeptualizatzen du.

5.4.2. Idealizazioa

Gazteek euskal gatazkaren historiari buruzko *eztabaida* sozial zabalarekiko duten bazterreko posizioak eta hartatik eratorrita sentitzen duten legitimitate eta agentibitate faltak, sarritan, euren rola gutxiestera bultzatze dituzte. Gazteak ez dira historiaren protagonista sentitzen: aurreko belaunaldiak jotzen dituzte pertsonaia nagusi eta agentibotzat. Horri euren testuinguru politiko garaikidearekiko etsipena (Larrinaga Renteria et al., 2020, p. 41) gehituz gero, kasu batzuetan indarrean dagoen *statu quo* politikoa kuestionatzen duten diskurtso nostalgiko edo idealizatzaileekin egiten dugu topo. Diskurtso hauetan, gazteek berreraikitzen ari diren iraganean bilatzen dituzte garai interesgarriagoak edo *ingroup*-aren agentibitate-gradu handiagoak.

1 *Es que... asko, nik uste gehienbat dela – eta niri gertatu zaidana da, hasten*
2 *zarenean ezagutzen zer gertatu den, baina ez daukazunean formakuntza, eta*
3 *da asko aitona-amonek, familiak, gurasoek... ingurukoek kontatzen dizutena,*
4 *daukazula como “Bua, zenbat egin duten eta gu ze gutxi egiten ari garen”. Eta*
5 *nire ingurukoak hasten dira: “Bai, ba nire aitak errepideak ixten zituen, eta*
6 *erruedekin su – su ematen zien erruedeñ”. Eta claro, ya e – el super-borroka,*
7 *ahí, “pues nik nahi dut izan bera bezala”, orduan bai dago idealizazio hori,*
8 *ez dugula izan nahi – ez dakit nola azaldu, porrotera – porroteko generazioa,*
9 *horrela esateko.*

Ilargi-16-Etxarri Aranatz

Ilargik bere belaunaldiaren izenean hitz egiten du, talde-identitate argi bat adieraziz: “porrotaren belaunaldia” (8. lerroa) karga semantiko handiko adierazpena da, osagai emozionala nagusi dena; porrotak erdietsi gabeko helburu bati egiten dio erreferentzia. Hizlariak, beraz, bere belaunaldia katebegi gisara ikusten du jarraikortasun historikoa duen eta helburu (politiko) bat partekatzen duen talde zabalago batean. Aurreko

belaunaldiei atxikitzen dizkion *kale borrokako* ekintzak (5-6. lerroetan) miresgarri edo desiragarri gisara aurkezten ditu, gurasoak subjektu agentiboago gisara erretratatu. Bien arteko alderaketan, bere belaunaldiari agentibitate eta lorpen gutxiago aitortzen dizkio. Elkarrizketaren testuingurutik dakigu hizlari hau esplizituki identifikatzen dela ezker abertzalearekin, eta, beraz, erreferentzia egiten dion helburua independentziaren edo nazio askapenaren *frame*-aren barruan kokatzen duela.

Hainbat gaztek euren testuinguru sozialean sumatzen duten iraganaren nostalgia edo idealizazioa deskribatu badigute ere, era honetako diskurtsoak zuzenean eraiki eta haiekin inplikazioa erakutsi duten hizlariak, oro har, joera politiko antzekoak dira: guztiak identifikatu dira esplizituki ezker abertzalearekin, eta gehienak nolabaiteko aktibista politikoak dira, batik bat gazte mugimenduetan edo euren herriko gaztetxeetan dihardutenak. Idealizaziozko diskurtsoek, oro har, bi foku nagusi dituzte: alde batetik, iragana eremu libreago baten gisara kontzeptualizatzen duten diskurtsoak daude, *ingroup*-aren agentibitatea iraganean handiagoa zela nabarmentzen dutenak. Bestetik, gazteen artean aski zabaldutako diskurtsoa da euren belaunaldia euren aurrekoa baino pasiboagoa dela, hurrengo bi adibideetan beha dezakegunez:

1 *A ver, Ernaiek ez du egiten borroka horrela moduan, eurak joaten dira pintxo*
2 *potera eta ya está: iuju, triki-abertzale-poteo, eta venga, Ernaira.(...) Es que*
3 *a ver... o sea, ez dakit. Es que ezker abertzalea ere bai oraintxe dago nahiko*
4 *light. O sea, ez da lehen moduan, sartzen zirela en plan a full. Da nahiko light.*
Joana-16-Arrasate

1 Zuretzat zeintzuk izan dira desarmearen arrazoiak?
2 *Uste dut aldatu zela asko hasierako helburua eta gero gertatu izan zena, batez*
3 *ere gobernuak zeukan boterearengatik. Eta azkenean, ba, denbora aldatu da*
4 *eta ez da berdina oraingo gazteria eta lehengoa. Eta orain gazteriak daukan,*
5 *ez dakit, ba borrokatzeko gogoa edo, lehen bazen beste – edo igual jasotzen*
6 *zen, e, mina edo horrela, bazen zuzenagoa. Edo orain da zuzena edo ez gara*
7 *hainbeste konturatzen, zeren badaude orain arazoak ere; baina jendeak uste*
8 *dut – oraingo gazteriak sobre todo ez dauka borrokatzeko sumin hori-edo. Ez*
9 *dakit. (...) oraintxe bertan dago guztia oso – es que ez dakit lehen nola zen,*
10 *baina orain ikusten dudana da ez dagoela un objetivo claro, edo jendeak ez*
11 *duela borrokatzen por un mismo – edo ez duela borrokatu nahi.*
12 *Eta zergatik iruditzen zaizu dela?*
13 *Izan daiteke beldurra. Altsasuko kasuak bai uste dut sortu duela beldurra*
14 *belaunaldian. Eta – beldurra edo, ez dakit, jarrera pasiboa, o sea, jendeak ez*
15 *dauka – orain dago guztia beste modu batean jarrita edo.*
Haizea-17-Tafalla

Bi kasuetan, euren belaunaldiaren deskribapen negatiboa eraikitzen dute hizlariak. Joana ezker abertzale instituzionalizatuari buruz ari da: ironikoki deskribatzen du haren gazte adarraren jarduna, haren izaera despolitizatu festa baten metaforarekin kontzeptualizatuz (2. lerroa). Ezker abertzalea erretratatzeko, aldiz, denborazko deixia darabil haren *bi bertsioak* deskribatzeko: *light* eta *full* anglizismoak (biak 4. lerroan, bigarrena gaztelaniazko preposizio bati lotua) baliabide espresiboak dira, aktore baten jarrera politikoaren intentsitatea neurtzeko edo ebaluatzeko metafora gisara funtzionatzen dutenak.

Haizearen diskurtsoa partekatutako informazio kopuru handi samar batean oinarritzen da, eta hura inferitzeko elkarrizketaren testuingurura jo beharra daukagu: “hasierako

helburua” independentzia da, elkarrizketa berean aipatu duenez. “Gero gertatu zena” denborazko egiturak (2. lerroan), aldiz, ETaren jarduera armatuaren bilakaera errealari egiten dio erreferentzia. Denborazko deixiak bi adierazpenen edukiaren arteko bereizketa irudikatzen du: banatu egiten ditu, beraz, jatorrizko helburu politikoa eta gertakari zehatzen bilakaera. Desarma porrot militarren narratiba baten barruan kokatzen du (3. lerroa), baina baita *ingroup*-aren agentibitatearen dekadentziaren testuinguruan ere: denborazko deixiaren erabilera errepikatuak (“lehen” eta “orain” terminoak kontrajartzen ditu hiru aldiz) bere belaunaldiaren eta aurrekoen arteko distantzia handia eta desidentifikazioa irudikatzen ditu.

Pasarte hauetatik ondoriozta daiteke gazteen sektore ideologiko zehatz baten barruan makro-narratiba bat finkatzen ari dela, norbere posizioari buruzko ebaluazio baten inguruan eraiki dutena eta honela laburbildu litekeena: “Lehen, egoeran eragiteko ahalmen (agentibitate) gehiago geneukan, orain galdu dugu orduko kemena”. Narratiba honek iraganaren idealizazio bat du oinarrian, baina koherentea da gazteen artean are zabalduagoa den auto-irudiarekin, hau da, esperientzia falta dela-eta ezagutzarik eta legitimitaterik ez duen posizio batekin.

5.4.3. Mito fundazionalen (berr)eraikuntza

Iraganari buruzko hutsune eta kontraesan diskurtsiboak kudeatzeko sarritan erabiltzen den beste estrategia bat da *ingroup*-ari buruzko *mito fundazonaletara* jotzea. *Mito* hauek *ingroup*-ak bere buruari kontatzen dizkion istorioak dira (Erl, 2017, p. 112), haren funtsezko ezaugarriei buruzko galderak erantzuten dituztenak (“Nor gara gu?”, “Nondik gatoz?” eta “Nora goaz?”), eta bere buruari behin eta berriz kontatzearen ondorioz taldearen identitatearen zutabe bihurtu direnak. Sarritan, topikoen forma hartzen dute horregatik. Topikoei funtzio ideologiko argia dute: istorio edo narratiba errepikatu horien aukeraketaren bidez, *ingroup*-ari buruzko ezaugarri zehatz batzuk nabarmentzen dira, eta beste batzuk ezkutatu.

Gure elkarrizketetan gehien errepikatu den topikoa azalpen orokortzaile bat da: “Gatazkan, herriak sufritu du gehien”.

1 Atzera begiratuta, zeintzuk esango zenuke direla gatazka honen biktima
2 nagusiak?
3 Ba herri osoa. Azkenean, Espainiako aldetik eta gure aldetik. Baina hori:
4 gauza da, ez dakit, a ver, azkenean gatazka hasi da, hombre, diktaduraren
5 ondorioz, Azkenean diktadura sartu zen hemen, eta azkenean hemengo jendeak
6 alternatiba bat hartu behar zuen. (...) Hemen daude estatuko biktimak eta
7 denak, eta, zelan da? ETak hil zuen jendea ere bai, biktima horiek ere badute
8 sufrimendua.

Joseba-20-Bilbo

Herria subjektu kolektiboa biktima bihurtzea iraganeko konplexutasun eta kontraesanak kudeatzeko estrategia *erosoenetako* bat da, harekin interpelatzen den komunitatea aski zabala delako hizlariak bere burua haren barruan koka dezan eta, aldi berean, ez duelako kalte-eragile zehatzik seinalatzen. Diskurtso honek bat egiten du maila globalean zabalduta dagoen beste makronarratiba batekin, alegia, “Gerretan beti jende xeheak galtzen du” dioen narratibarekin (Wodak, 2011, p. 175). Josebak ere irudi horretara jotzen du, eta zubi bat eraikitzen du *outgroup*-aren aldeko *herriarekin*, hau da, bere parekoekin

(“Estatuaren aldeko biktimak”, 6. lerroan). Nolanahi ere, *disclaimer* bat txertatzen du, eta *ingroup*-aren sufrimendua lehen planora ekartzen du ostera: gatazka Espainiako diktaduraren eraginez hasi zela argudiatzen du, eta euskal herritarren parte hartzea haren ondorio derrigor gisara aurkezten du (6-9. lerroak). “Azkenean” adberbioaren errepikapen deigarriek (4. eta 5. lerroetan) eta modalizazio deontikoak (6. lerroan) naturalizazio bat edo saihetsezintasunaren narratiba bat elikatzen dute.

Ingroup-aren *biktimizazio historikoa* atalean deskribatu ditugun narratibetako batzuen prominentzia ere handia da, gazteok narratiba horiek euren talde-identitatearen oinarriko mito fundazionaletan txertatzen ari daitezkeela sumatzeraino. Zehazki, behin eta berriz eta hainbat modutara errepikatzen den egoera konkretu baten kontakizuna identifikatu ahal izan dugu: kanpora joan eta biolentzia (fisikoa edo hitzezkoa) sufritu duen euskal herritarren istorioa erabat orokortutako narratiba da gure datuetan; hainbeste, ezen hipotetizatu baitezakegu gazte askok gatazkari buruz eraikitzen dituzten diskurtsoen oinarrian dagoen iruditeriaren parte bihurtzen ari dela, hau da, mito fundazional. Istorio hauek, gainera, azpitu historiko bat dute oinarri: *ingroup*-ak Frankismoan sufritutako zapalketa. Honek erakusten digu nola iraganeko esperientzia kolektiboek, norberak pertsonalki esperimentatu ez dituen ere, gaurkotasunetik egiten diren interpretazioei forma eman diezaieketen. Frankismoko esperientziek trauma kolektiboa izaten jarraitzen dute, eta haren presentzia oraindik identifika daiteke gazteen diskurtsoetan: behin eta berriz *azaleratzen* da, esperientzia eta gatazka berrien interpretazioa gidatzen duten alde aurretiko eredu mentalen forman.

Hipotesi hori indartzen du, bestalde, kontakizun hauetako askoren izaera teoriko edo mitologikoak: izan ere, antzeko esperientzia zuzenik izan gabe ere, hainbat elkarrizketatuk egiazkotzat edo esperientzia partekatutzat jo dute.

1 Zure kabuz Interneten [bilatu duzu informazioa]?
2 Bai, eta galdetu gurasoei, galdetu aitite-amumei... azkenean, interes bat, zeren
3 azkenean da gure historia eta interesgarria da jakitea apur bat – zeren
4 kanpora zoaz edo, eta jendeak galdetu ahal du. Espainiara zoaz eta eduki
5 behar duzu informazio nahiko defendatu ahal izateko, ez? Zeren bestela,
6 bueno, bai, “egon zen zer edo zer, bai”...
7 Topatu zara egoera horretan?
8 Ez, baina prest beti. [Barre]. Ez, normalean ez. Zeren azkenean ez dakit,
9 jendeak ez dakit gura duen gai hori atera ere. Baina behintzat prest hitz
10 egiteko edonorekin. Zeren azkenean ulertzen ditut bi aldeak: ulertzen dut euren
11 sufrimendua eta ulertzen dut gure sufrimendua.

Joseba-20-Bilbo

Gatazkaren historiari buruzko informazio-iturriei buruzko elkarrizketa-pasarte baten testuinguruan kokatzen da sekuentzia hau. Josebak ezagutzarako bere interesa termino belikoetan planteatzen du, “defendatu” metafora (5. lerroan) erabiltzen duenean: Euskal Herritik kanpo (kasu honetan, *kanpoa* eremua Espainiak irudikatzen du) *outgroup* baten partetik jaso dezakeen tratua *eraso* gisara kontzeptualizatzen du hartara. Horrek obligazio baten aurrean kokatzen du (modalitate deontikoa, 5. lerroan): informazioz hornitzea. Metaforizazio honetan, informazioa subjektuari agentibitatea eta boterea ematen dizkion arma bat da.

Hizlariak ez du lehen hitzartzean modalizatzaile epistemikorik erabiltzen, eta, beraz, erabateko inplikazioa erakusten du bere diskurtsoaren eduki proposizionalarekiko:

erabateko egiazat du deskribatzen duen egoera. Nolanahi ere, *egia* hori ez dago bere esperientzia erreal edo zuzenetan oinarrituta, aurreiritzietan baizik: berak *outgroup*-ari buruz eraikita daukan kategorizazio batean, eta *outgroup*-ak berari buruz izan dezakeela ondorioztatzen duen kategorizazioan. Elkarrizketatzailearen kuestionamenduaren ondotik (bere esperientzia errealei buruz galdetzen baitio, 7. lerroan), hizlariak leundu egiten du karratu polarizatzailea, modalizazio epistemikoa erabiltzen du edukiarekiko distantzia gehixeago erakutsiz, eta *outgroup*-arekiko enpatia adierazten du.

1 *Ba Espainia mailan, ETA – o sea, azken batean gu Nafarroatik edo Euskal*
2 *Herriatik ateratzen ginenean baginen “etarrak” edo horrelako izenak ematen*
3 *zizkiguten, zirenak despektiboak. Eta orduan orain hitz egitea horri buruz, izan*
4 *dena, pues hori, ez dena ongi onartua Espainia mailan, ba hori, berriz hitz*
5 *egitea da zaila.*

Endika-17-Tafalla

Kasu honetan, ez dago oso garbi Endika bere bizitzako esperientzia zuzen bati buruz ari den, edo identitate kolektibo baten oinarrian dagoen narratiba bat bere egiten ari ote den, eta, beraz, deskribapena modu sinbolikoan ulertu behar ote den. Nola edo hala, erabateko identifikazioa adierazten du aurreiritziak sufritzen dituzten edo iraganean sufritu dituzten euskal herritarrekin, lehen pertsonaren erabilerak erakusten duenez (2-3. lerroak). Iraganari buruzko narratiba hori bere testuinguru garaikidearekin lotzen du: “orduan” lokailuak (3. lerroa) kausa eta efektuzko harreman bat eraikitzen du iraganean sufritutako kaltearen oroitzapenaren eta gaur egun (“orain” deiktikoa) dagoen tabuaren artean.

Iraganeko biolentziari buruz aritzerakoan, bereziki *ingroup*-ak eragindakoari buruz mintzatzerakoan, maiz errepikatzen den beste istorio edo mito fundazional batek *ingroup*-a borondate oneko, baina zirkunstantziek edo kanpoko indar batek behartutako gaitz-eragile gisara erretratatu du. Diskurtso hau, sarritan, kanpotik pertzibitzen den narratiba nagusiago batekiko kontra-narratiba gisara eraikitzen da, hau da, euskal herritarrek biolentziaren eragile gisara erretratatu dituen diskurtso nagusiaren aurka.

1 *Eta gatazka armatuan zentratuta, azkeneko 50 urteetan, demagun kanpotik*
2 *datorrela turista bat ez dakiena ezer Euskal Herriari buruz; eta galdetzen*
3 *badizu, nola azalduko zenioke?*
4 *Nik esplikatuko nioke ez dela bakarrik gure aldetikan egon, eta guk egin*
5 *duguna dela errepresio aunitz jaso dugulako, eta ya ezin genuelako gehiago*
6 *frankismoarekin. Eta gero beraiek ere bai pues GAL eta Batallón Vasco-*
7 *Español eta holakoekin – beraiek ere bai egin dutela gatazka. Eta ETAre*
8 *helburua – helburua zela independentzia, eta ez zela jendea hiltzea helburua.*

Gorka-15-Hendaia

Elementu interdiskurtsiboak errebantzia handia hartzen du pasarte honetan: izan ere, Gorkak bere definizioa deusezte-estrategia batekin abiatzen du. Hau da, euskal gatazka *zer den* azaldu ordez, *zer ez den* azaltzen du. Hau ezohiko egitura bat da, tradizionalki definizioak klabe positiboan ematen direlako. Beraz, aldatutako egitura honen atzean aipu inplizitu bat dagoela pentsa genezake, hizlariak diskurtso orokor edo informazio partekatutzat jotzen duelako esplizitatzen ez duena: gatazkaren ardura euskal herritarrei (beraz, hizlariaren *ingroup*-ari) egotzi ohi zaiela. Hizlariak gatazkaren definizioa kanpoko diskurtso horri erantzunez abiatzen du: hortaz, kontra-narratiba bat eraikitzen du.

Hizlariak erabateko identifikazioa adierazten du iraganeko gatazka biolentzian inplikaturik egondako Euskal Herriko taldeekin, lehen pertsona pluralean mintzo baita *ingroup*-aren

iraganaz: “gure aldetikan” (4. lerroa); “errepresio aunitz jaso dugulako” (5. lerroa); eta “ezin genuelako gehiago” (5. lerroa) adierazpenak darabiltzanean, bere burua subjektu kolektibo horren barruan kokatzen du. ETAz aritzeko hirugarren pertsona darabil, baina diskurtsoaren barneko koherentziagatik uler dezakegu aktore hori ere *ingroup*-aren barnean kokatzen duela, haren jardunerako *ingroup*-arentzako erabiltzen duen justifikazio-estrategia berbera erabiltzen duelako: jatorrizko borondatea eta ekintzak bereiztea (5. eta 8. lerroetan). Bereizketa horrek ahalbidetzen dio argumentatzea norberaren taldeak eragindako kaltea ez zela borondatezkoa edo bilatua izan, *outgroup*-ak eta testuinguruko baldintzek behartua baizik. Ondorioz, *ingroup*-ari ardura kentzen dion eta haren irudi positibo bat eraikitzen duen narratiba biktimizatzaile bat osatzen du (Wodak, 2011, p. 175), biolentzia erresistentziazko edo biziraupenerako terminoetan kokatuz.

Esanguratsua da, halaber, “gatazka” terminoaren erabilera: Gorkaren diskurtsoan, biolentziaren edo gerraren sinonimo gisara funtzionatzen du. “Gatazka egin” (7. lerroan) aditz trantsitibo bihurtzen du Gorkak, eta *outgroup*-a bihurtzen du haren subjektu, ardura hari atxikiz.

Pasartearen amaieran, ostera erantzuten dio ETA eta euskal herritarrak hiltzaile gisara erretratatzeko kanpoko diskurtsoari, oraingoan gehixeago esplizitatuta: “(...) ez zela jendea hiltzea helburua” (7-8. lerroetan). Ukazio orok, Reyesek dioenez (1996, p. 45), aipu inplizitu bat dakar: ukatzen den tesia bera, hain zuzen ere. Kanpoko narratiba bati erantzunez eraikitzen diren diskurtso identitario askoren izaera interdiskurtsiboa horretan datza, ondorengo adibidean ere beha daitekeenez:

- 1 *Gu[k] ere azkenean hori sufritzen dugu, gure kontrakoan... bo, azkenean... ez*
- 2 *dakit nola esplikat. Orain dagoen Euskal Herriaren kontrako hori moduan;*
- 3 *guk ere alde batetik sufritzen ditugu konsekuentzi horiek.*
- 4 Nor da “gu” hori?
- 5 *Euskaldunak. Ahal dugu sufritu apur bat baita.*

Maite-17-Oñati

Maiteren kasuan ere identifika daiteke talde-nortasun baten eraikuntza: euskaldunak biktima gisara erretratatzeko dira, nahiz eta ez den esplizitatzen zeren biktimak diren: “gure kontrako hori” deskribapen orokortzaileak (2. lerroan) elipsatu egiten du edukia, baina ondoriozta liteke aurreiritzi edo jarrera bati egiten diola erreferentzia. Nolanahi ere, Maiteren diskurtsoa bere osotasunean kanpoko narratiba batekiko erantzuna da, eranste bidezko transformazio-estrategia bat: *ingroup*-ak “ere” sufritzen duela nabarmentzen duenean (bi bider erabiltzen ditu “ere” eta “baita” emendiozko lokailuak, 3. eta 5. lerroetan), *ingroup*-aren irudi positibo bat eraikitzen ari da, hari buruzko irudi negatibo bat eraikita dakarren narratiba batekiko kontra-narratiba gisara. Kanpoko diskurtso horrek biktimak euskaldunek eragindakoak direla dioela ondoriozta dezakegu, eta hizlaria auto-irudi positiborako bere legitimitatea negoziatzen ari dela.

5.4.4. Naturalizazioa eta eufemismoen erabilera

Oro har, bildu ditugun datuetan deigarria izan da biolentziari buruz modu esplizituan hitz egiteko ezintasuna: 42 elkarrizketatutik 21ek aipatu dituzte zuzenean *biolentzia* edo *indarkeria* terminoak. Denera, 51 aipamen identifikatu ditugu elkarrizketa horietan; horietatik, %45 *outgroup*-aren biolentziari eginiko erreferentziak ziren; %31tan, ez zen subjektu zehatzik identifikatzen (“biolentziazko giroa” edo “biolentziaren aurka egotea”

bezalako adierazpen orokortzaileen testuinguruan erabiltzen zen terminoa); eta %24tan nolabaiteko *ingroup* intradiskurtsibo bati atxikitzen zitzaion aipaturiko biolentzia. Elkarrizketatuen beste erdiek, aldiz, ez dituzte behin ere erabili *biolentzia* edo *indarkeria* terminoak esplizituki euskal gatazkaren historiaz aritzerakoan; euren testuinguru sozial gehienetan pertzibitzen duten tabuaren sintomatza jo dezakegu auto-zentsura hori.

Aitzitik, biolentzia zeharka izendatzeko eufemismo ugari identifikatu ahal izan ditugu gazteen narratibetan. “Gertatu zena / gertatu zen hura”, “Hori” edo “Gauza” gatazkaren alderdi biolentoenak izendatzeko ohiko esapideetako batzuk dira. Eufemismoen erabilera honek, alde batetik, hizlariaren distantziamendua handitzen du, eta, bestetik, narratiba naturalizatzaile zabalago baten barnean kokatzen da. Biolentziaz hitz egiteko kontzeptu estatikoak (“egoera”, “garaia”) eta aditz intrantsitiboak (“gertatu zen”, “izan zen”) erabiltzean, oro har ezkutatu egiten dira subjektuak: agente aktiborik ez seinalatzea ahalbidetzen duten egiturak dira. Hartara, biolentziaren ardura lausotu eta biolentzia bera naturalizatu egiten da. Maiz errepikatzen den “hori” deiktikoak, bestalde, erreferentzia partekatu bati egiten dio keinu: ahoskatu gabe ere, mundu guztiak daki zer den *hori* euskal gatazkaren testuinguruan.

Hain zuzen ere, naturalizazio hori iragan konplexu bat norbere taldearen historian kokatzeko mekanismoetako bat da: gertatu zen, eta igaro da. Iragandako denbora bati berezkoa zitzaion egoera estatiko batengan pentsatzeak gaur egungo belaunaldi gazteekiko loturarik ez daukala pentsatzea ahalbidetzen du, eta, beraz, ardurazko bereizketa bat ezartzea euren eta aurreko belaunaldien artean.

1 *Ba, euskal gatazkarekin igual esango nuke orain dela – bai, bueno, gu jai*
2 *baino lehenago (...) egon zen egoera hori, ba pixkat ETAk – ez igual sortuta,*
3 *bai, baina bueno, egoera baten aurrean ba ETAk irtenbide bezala edo topatu*
4 *zuen... hor, ba, sortu ziren konfrontazioak eta inseguridadea batzuentzat, eta*
5 *egoera inestable, ez egonkor bat bezala, pixka bat.*

Ane-21-Mutriku

Aneren pasarte hau biolentziaren naturalizazio diskurtsiboaren adibide paradigmaticoa da: gatazka iraganeko egoera estatiko baten moduan irudikatzen du, denborazko deixiak (1-2. lerroetan), iragan denborako aditzen erabilerak eta aditz intrantsitiboen nagusitasunak erakusten dutenez. 3. lerroko “egon zen egoera hori” deskribapen eufemistiko eta erredundantea da, biolentziaren *egote* estatiko eta lokalizatuari egiten diona erreferentzia.

Hizlariak zailtasunak ditu egoera horren kausak eta ardurak subjektu zehatz bati atxikitzeko. Modalizazio epistemikoa nabarmena da: 2-3. lerroetan, zalantzati agertzen da, eta bere buruarekin negoziazio bati ekiten dio, gatazkaren ardura ETari egotzi edo ez erabakitzeke. ETA biolentziaren eragile gisara definitzen hasten da, baina esaldi erdian autozuzenketa bat txertatzen du: “ez igual sortuta” (2. lerroa) ahoskatzera zihoan tesiarekiko erantzun bat da. Jarraian, “Bai, baina bueno” *disclaimer*-ak birformulazio bati ematen dio bide: ondorengo tesian (semantikoki nagusitzen den zatian), biolentziaren erabilera zirkunstantzia antagonista batean bilatutako irtenbide baten terminoetan kokatzen du (3-4. lerroetan), birformulazioa estrategia legitimatzaile baten mesedetan erabiliz. Hirugarren lerroan aipagai duen “egoera” horrekin Frankismoari erreferentzia egiten ari zaiola uler liteke ETaren sorrera-garaia ezagutuz gero, hau da: testuinguruko informazio ugari elipsatuta dago diskurtso honetan. Hizlariak ez du subjektu eragilerik

izendatzen, ez eta egoeraren bestelako deskribapenik ematen ere; “irtenbidea” metaforatik ondorioztatu behar da nolabaiteko itxitasuna edo harrapatuta egotea inplikatzeko zuela egoera horrek. Gatazka eta hari lotutako biolentzia, aldiz, efektu natural bihurtzen dira “sortu ziren” aditz intrantsitiboarekin eta termino orokortzaileekin (“konfrontazioak eta inseguridadea”, 4. lerroan).

Azken bi termino horiek, euren karga semantiko negatiboagatik, diskurtso osoko elementu zehatzenetakoa dira, baina oso urrun daude *biolentzia* edo *indarkeria* bezalako terminoek izan dezaketen enfasitik: *konfrontazioak* bi aldean arteko talka bat iradokitzen du, ardura zehatzik seinalatu gabe; eta *segurtasun falta* subjektuek esperimendatzen duten sentimendu bat da, ez duena derrigor kanpoko eragile baten presentzia diskurtsiboa eskatzen. Aitzitik, hizlariak modalizazioaren bidez leuntzen du bere diskurtsoa: sentimendu horiek subjektu “batzuei” (4. lerroa) eragiten zietela dioenean, bere adierazpenaren unibertsaltasuna deusezten ari da, eta harekiko distantzia hartzen.

1 *[Gatazka] sortu zela gure kultura edo ez errespetatzeagatik edo sortutako*
2 *amorrurik horretatik ya sortu zela, ba ETArekin amorrurik hori handitu egin zela.*
3 *Más o menos.*

Nagore-17-Oñati

Aurreko adibidearen antzeko diskurtso naturalizatzaile bat eraikitzen du Nagorek, bere tonua enfatikoagoa den arren eta modalizazioak hizlariaren segurtasun handiagoa erakusten duen arren, izan ere, 3. lerroko “más o menos” adierazpenak baizik ez du distantzia markatzen diskurtsoaren eduki proposizionalarekiko. Nagoreren diskurtsoan ere, gertakari historikoak eta haiei lotutako sentimenduak *sortu egiten dira* (hiru bider erabiltzen du aditz intrantsitibo hori), haiek eragiten edo sufritzen dituen subjektu eragile zehatz bat seinalatu gabe: diskurtso honetan, testuingurutik inferitu behar dugu nork ez duen errespetatu *ingroup*-aren kultura, eta nork sentitu duen amorrua, hizlariak ia agentzia oro ezabatu duelako. Aipatzen duen aktore bakarra ETA da: amorruren hazkunderarekin lotzen du, baina kasu asoziatiboa erabiliz (“ETArekin”, eta ez, adibidez, “ETAren ondorioz” edo “ETAk eraginda”), haren inplikazioa gutxienera murrizten du, kasik kausa-efektu naturalezko kate luze bat eraikitzeraino, non elementuak berez sortzen diren elkarren hurrenkeran.

1 *Hombre, es verdad que no hemos vivido los años duros, porque yo creo que*
2 *cuando yo era joven, o sea, pequeño, ETA mataba, pero no eran crímenes tan*
3 *habituales como ha habido en los últimos años, entonces tampoco lo vivíamos*
4 *tan intensamente. Sabíamos que había un conflicto, pero no era una cosa tanto*
5 *del día a día. (...) En la universidad tuvimos [testimonios] de, tanto de una*
6 *chica que su padre le asesinó no uno de ETA, sino unos guardia civiles o*
7 *algo... No asesinaron, sino que le hicieron unas torturas, no sé qué, y al final*
8 *acabó muriendo. Y otro que su padre era un directivo de Telefónica si no*
9 *recuerdo mal, y se lo encontraron muerto en Uliá creo que fue, en el monte*
10 *por ahí, y bueno, pues eso: nos contó cómo él lo había vivido y todo eso.*

Paulo-19-Urnieta

Pasarte honetan, iraganeko biolentziaren naturalizazioa hizlariaren modalizazioan antzeman daiteke. Paulok normaltasunezko giro bat berreraikitzen du bere haurtzaroko oroitzapenean oinarrituta: “pero no eran crímenes habituales” *disclaimer*-arekin, pisua kentzen die ETAren atentatuei. Paradoxikoki, Pauloren familiako historiak gainerako elkarrizketatu gehienek baino hurbilago kokatzen du biolentzia fisikoaren esperientziatik:

ETAk mehatxatutako senide bat izan zuen, eta familiak hainbat eraso fisiko sufritu izan ditu. Informazio hau elkarrizketa bereko beste pasarte baten bidez dakigu:

1 ¿Hay alguna anécdota que te hayan contado en casa, que se te haya quedado?
2 *No, que les haya pasado así... bueno, sí, en el caso, pues lo de mi tío y tal,*
3 *pues que una vez uno de [el municipio colindante] a mi abuela le quemó la*
4 *puerta de casa. Bueno, y el tema del impuesto revolucionario y así, que mi*
5 *abuela no pagaba. Tenía un local y eso, le pedían pero no, no.*
6 ¿Y eso pasó? ¿Que le quemaron la puerta?
7 *No por eso, sino por mi tío, que metió a uno en la cárcel. Bueno, le acusó para*
8 *que le metieran. Y por eso. Pero vamos, nunca ha habido directamente nada*
9 *grave en mi familia.*

Paulo-19-Urnieta

Pauloren familian biolentzia zuzena sufritu dute, bigarren pasartean esplizitatzen duenez. Hala ere, berak ez dio bere historia familiarrari larritasunik aitortzen, eta ez du bere burua biktimizat. Kontrara, normalizaziozko narratiba naturalizatzailer bat eraikitzen du, apreziaziozko modalitatearen bidez indiferentzia adieraziz: “o algo” eta “y todo eso” makulu-adierazpenek, lehen pasarteko 7. eta 10. lerroetan, edukiarekiko distantzia eta indiferentzia adierazten dute: istorioaren zehaztasuna berdintsu zaiola adierazten du, eta, nolana ere, *besteen* esperientziak direla, ez bereak. Bigarren pasarteko “(y) eso” eta “y así” deiktikoen errepikapenak (4., 5., eta 8. lerroetan) enfasia kentzen dio adierazpenaren edukari. Biolentziaren biktimei buruz hitz egiteko erabiltzen dituen aditzek ere ez dute subjektu eragilerik seinalatzen: diskurtsoko pertsonaia batek “hiltzen bukatu zuen” torturatua izan ondoren (aditz intransitiboa 8. lerroan). Biolentziaren eragileak (Guardia Zibilak) eta ekintza (tortura) diskurtsuan esplizitatzen diren arren, ez dira egitura transitibo batean lotzen; aitzitik, ekintzaren agentibitatea lausotuta geratzen da, heriotzaren subjektu gisara hildakoa bera utziz. Bigarren pertsonaia bat “hilda topatu zuten”: agentibitatea hirugarren batengan kokatzen duen aditz transitibo bat darabil, ez heriotza eragin dutenetan, ez eta hildakoan ere.

Naturalizazioak biolentziaren kausei eta eragileei buruz, hala nola, haren ondorioei buruz arrazoitzea eragozten du: eztabaida-aurreko eremu bat eratzen du (Irazuzta et al., 2017, p. 64), aldagaitza eta gaurkotasunetik ulergaitza edo zeharkaezina. Estrategia diskurtsibo hori iraganeko garai osoei edota aktore zehatzei ezar diezaiekete hizlariak; ohikoa izaten da, esaterako, aktoreen arteko karratu polarizatzailea *outgroup*-aren ezaugarri esentzializatzaile batzuekin naturalizatzeari. Ostera, badira *ingroup*-aren naturari buruzko usteak iraganeko biolentziaren aurrean hartutako jarreraren oinarri justifikatzaile bihurtzen dituzten diskurtsuak ere:

1 Eta Poliziaren partetik tortura salaketen berri-eta izan duzu? Baduzu gogoan
2 kasuren bat?
3 *Ba hori, hombre, se supone – [barre urduria] es que hori, gauza da – ez dakit,*
4 *gauza da: ez dakit gu garen horrelakoak, baina beti jotzen dugu, o sea,*
5 *isiltzera. O sea, ez dakit, da... horrelakoak gara, beti da. Igual gertatu da zer*
6 *edo zer txarra, zuk jaisten duzu burua eta isiltzen duzu. Hori da, ez da*
7 *hainbeste esaten dena “Hau da biktima”, ez dakit, guk etxetik beti isiltasuna,*
8 *O sea, ze nik badakit adibidez hori, nire amamaren - ez dakit zen nire*
9 *amamaren amaren ahizparen, bueno, ez dakit, lehengusuari, sartu zirela*
10 *[familiarren herriko] zona batean, Durangaldean, ez dakit, sartu ziren mitiko*
11 *Francoren “los moros” famosoak eta hil zutela bere gurasoak, bere ama, eta*
12 *umeari – hori kontatzen dute – umeak ez dauzka bi atzamar edo, zeren justo*
13 *ipini zuen txikitan aitaren aurpegian eta eman zioten tiro aitari, eta orduan ez*
14 *dauzka bi atzamar hauek [bere eskukoak seinalatzen ditu]. Eta hori da bere*

15
16
17
18

historia. Eta neska horrek, andre horrek, ez zuen inoiz ez aipatu hori; borratu zuen eta ya está. Eta isilik. Eta jendeak sufritu zuen hor ere bai, ez kontatzen familiari; azkenean isildu da eta hori, ez zen egiten barbarik eta ya está. Defensa modu bat izango zen, supongo.

Joseba-20-Bilbo

Josebak zailtasun handiak ditu elkarrizketatzailearen galderari erantzuteko: modalizatzaile epistemikoz, lokailu kontsekutiboz, deiktikoz, sarrera-aditzez eta urduritasuna adierazten duten elementu proxemikoz itzulinguruka ibili ostean (2-3. lerroak), ez dio galdegaiari erantzuten (torturaren ezagutzari buruzkoa baitzen jatorrizko galdera); horren orde, *ingroup*-aren deskribapen kultural edo esentzialista baten azalpena eskaintzen du. Gure hipotesia da 3. eta 4. lerroetan adierazten duen ezintasun komunikatiboaz ohartuta, ezintasun horri berari esplikazio bat bilatzen diola hizlariak berak; erantzun osoa bere ezezagutzari buruzko azalpen justifikatzaile bat da. Torturaren inguruan ezin duenez ezer esan, etxeko transmisio falta eta inguruan sumatzen duen isiltasun soziala deskribatzen ditu, haren kausak bertan kokatuz. “Beti” denborazko adberbio errepikatuak (5. eta 7. lerroan) *ingroup*-aren ezaugarri historiko eta aldagaitz bati egiten dio erreferentzia: hartara, “Gu horrelakoak gara: isilak” narratiba *ingroup*-aren mito fundazional naturalizatzaile bilakatzen da. Bere senideek 1936ko Gerran sufritutako biolentziaren eta haren ondoko komunikazio faltaren adibideak indartu egiten du bere tesia, horrekin galdegaitik are gehiago urruntzen den arren: *mythopoesis* edo istorioen kontaketa errepresentatzaileen adibide bat da. Bestalde, pasarte honek Josebaren inguruko giro sozialaren pertzepzioaren berri ere ematen digu: bere ustez, euskal herritarren artean ez dago ondo ikusia biktima edo pertsona hauskor gisara agertzea.

5.4.5. Metaforizazioa, zehazte-estrategia gisara

Azkenik, lengoaia figuratiboaren erabilerari erreparatu diogu, elkarrizketatu ditugun gazteen diskurtsoetan maiz irudikatzen direlako iraganeko gatazkak modu metaforikoan. Sarritan, norbere testuinguru garaikidearekin edo balio pertsonalekin kontraesankorra den edo ulergaitza izan daitekeen informaziozko eta emoziozko haril konplexua izan daiteke iragana, are gehiago, ikusi dugun moduan, disputatua eta tabua denean. Metaforek informazioa sozialki partekatutako *frame* sinpleagoetan antolatzeak aukera ematen dute, hartara ulermena eta komunikatzeko gaitasuna erraztuz (Turner & Fauconnier, 1995, p. 12). Bestalde, informazio ugari dakarte hizlariaren posizionamenduari buruz, sarritan lengoaia figuratiboaren bidez adierazten dituztelako esplizituki ahoskatu ezin dituztela uste duten adierazpenak: pertzibitutako legitimitate falta gaintzeko baliabide bat ere badira, beraz, metaforak. Honakoak dira gure elkarrizketetan gehien nabarmendu direnak:

5.4.5.1. Lurraldearen metafora

Behatu ahal izan ditugun metaforen artetik, gehien nabarmentzen direnak toki-metaforak dira: hau da, euskal gatazka edo harekiko harremana termino espazialean kontzeptualizatzen duten eraikuntza linguistiko figuratuak. Metaforizazio mota hau batik bat mugimendua edo desplazamendua adierazten duten aditzen bidez eta tokiko deiktikoen bidez behatu ahal izan dugu, esate baterako, gazteek adierazi digutenean euren adinkideak “ez direla gaian sartzen” (Idoia-17-Oñati) eta hura “pasatzen uzten” dutela (Eli-15-Altsasu); euskal gatazkaren gaia “urruti geratzen” zaien zerbait dela (Ane-21-Mutriku); edo “ez baiginen hor” (Unai-16-Anhauze). Halaber, “gaian sartua egotea”

(Ilargi-16-Etxarri Aranatz) politikoki aktiboa izatearen sinonimotzat jotzen dute, hau da, gatazka politikoarekin harreman estua izatea.

1 Zuk sentitzen duzu pertsonalki eragin dizula euskal gatazkak, era batera edo
2 bestera?
3 *Pf. M... nik uste ezetz. Ez dakit. Nik uste, zera, pixkat urruti geratzen zaidala*
4 *gertatutakoa, porque gainera justu jaio ginenean, nintzenean, ETA ya zegoen*
5 *pixka bat uzten, eta horregatik nik uste ez dudala e, zuzenki, e, haren eragina*
6 *jaso. Baina suposatzen dut, zera, gurasoek edo bereziki jaso zutela hori.*

Irene-19-Donostia

Irenek distantziamenduzko estrategia bat darabil, ez baitu gatazkaren eragin zuzenik identifikatzen bere bizitzan; bai, ordea, bere familiako aurreko belaunaldienengan. Adin tarte horrek gatazkaren esperientziarekiko *urruntasun* fisiko bat irudikatzen du, Irene berak ere esplizitatzen duena (3. lerroa). Kapitulu honetan azertu ditugun posizionamendu-estrategia pertsonal zein kolektiboetan ere maiz errepikatzen den “zeharkako” eta “zuzeneko” eraginaren ideia ere, funtsean, gatazkarekiko harreman moten kontzeptualizazio metaforiko bat da: urrunagoko posizio edo *bigarren lerro* batean kokatzen dira haren bidez gazteak. Bigarren eskuko esperientzia bat da eurei iristen zaiena, behin guraso eta aitona-amonen *lerro* edo galbahetik igaro ostean.

1 *Hombre, ba – es que... gai honi buruz nik ez dut egin asko berba horrela*
2 *inoregaz. Adibidez, hori — adibidez bada jendea, o sea, gehiago ulertzen*
3 *duena, edo gehiago dakiena honetaz, niri joan egiten zait. Azkenean, zuk hau*
4 *ikasi duzu, se supone, eta adibidez hemen fakultatean ere bada nire klasean*
5 *zegoen bat, eta pila bat daki gai honi buruz, eta ni naiz más, ba... beste*
6 *aldekoa, ez dakit.*

Udane-18-Markina-Xemein

Udanek bi metafora espazial darabiltza bere posizioa deskribatzeko. Alde batetik, “joan egiten zait” aditzak (3. lerroan) objektu baten mugimendua irudikatzen du: euskal gatazka eskuragaitza den edo harrapatu ezin litekeen objektu gisara kontzeptualizatzen du hizlariak, hartaz *jabetzeko* (hura ulertzearen eta fisikoki eskuratzearen zentzu bikoitzean) zailtasuna nabarmenduz. Funtsean, gaiarekiko bere agentibitate diskurtsiboa ari da erretratatzeko, hau da, hari buruzko interakzio komunikatiboan inplikatzeko gaitasuna. Udanek bere burua subjektu ezjakin gisara autokategorizatzen du, lagun jantziagoaren figuraren alboan, eta bien arteko muga fisiko bat irudikatzen du hitzez, bera “beste aldean” (5-6. lerroak) dagoela nabarmentzen duenean. Euskal gatazka *gaiari* buruz ari da, hau da, haren inguruko eremu diskurtsiboari buruz: eremu hori beretzat irisgaitza den lurralde gisara kontzeptualizatzen du. Mugaren alde batean daude hari buruzko ezagutza dutenak, eta bestean, ez dakitenak, eta ondorioz, ez dutenak *gaiari* buruz hitz egiten.

Iragana debekatutako lurralde gisara kontzeptualizatzeko honek egiturazko metafora zabaldutako bat du oinarrian (Lakoff & Johnson, 1980:120-129): *historia bidaia gisara* planteatzen duen metaforak, hain zuzen ere, egituratutako beste kontzeptu baten (*bidai*) termino zehatzagoetan kokatzen du *denbora* kontzeptu lausoagoa. Bidaiak desplazamendu bat irudikatzen du, norabide eta helmuga batekin. Historia ibilbide gisara ulertzen badugu, iraganeko garai zehatz bakoitza lurralde zati baten moduan uler dezakegu: subjektuek lurralde horiek trantsitatuz gauzatzen dute euren ibilbide historikoa. Metafora bera erabili zuen Lowenthalek (1998), L.P. Hartley-ren aipua erabiliz bere lana titulatzeko: “Iragana lurralde arrotza da; gauzak beste era batera egiten dituzte han”. Kontzeptualizazio honetan, euskal gatazka iraganeko lurralde horietako bat litzateke,

gure ikerketako parte hartzaileentzat urrunegi dagoena edo trantsitatzeko baimenik sentitzen ez dutena.

Kontzeptualizazio hau identifikatu ahal izan ditugun espaziozko metafora gehienek oinarrian dagoen arren, bereziki esplizitua da ondorengo adibideotan:

1 ¿Por qué crees que no se habla del tema en tu casa?
2 *Pues supongo que porque no está muy presente. Y luego, si sale el tema, yo
3 *tengo un hermano pequeño; tampoco sabríamos muy bien llevar esa*
4 *conversación. O sea, sería como un tema de adultos. Entonces no — yo creo*
5 *que por eso.*
6 Se percibe como un tema fuerte o sensible.
7 *Sensible, y luego quizá que nosotros no tenemos tanta idea para meterte en*
8 *este tema de conversación.**

Elena-17-Barakaldo

Pasarte honetan metafora geografikoen eta mugimenduzko metaforen erabilera nabarmena dago: “gaia”, euskal gatazka, ez dago “present” (hau da, *hemen*, hizlariaren lurraldean); “atera” egiten da (hau da, gordea dago beretzat); eta gazteek ez dakite “eramaten” (eurekin, euren bidean); ez dira “sartzen” helduena den eremu horretan. Orotara, euskal gatazkaren inguruan eraikitako eremu diskurtsiboa belaunaldi gazteentzat ezezagunegia, astunegia edo debekatuegia den espazio baten moduan kontzeptualizatzen du Elenak, eta berak ere ezjakintasuna aipatzen du isiltasunaren arrazoi gisara.

1 Sentitzen duzu euskal gatazkak zuri eragin dizula?
2 *Ez dakit. Ee... nik uste, euskal gatazkarekin jaio naiz ni, batera. Historian*
3 *zehar. Eta nik egin behar dudala, nik eta nire generaziokoek, segitu behar*
4 *dugula gatazka, helburua lortu arte.*

Gorka-15-Hendaia

Pasarte honetan, *historia ibilbide gisara* metaforaren beste aldaera bat identifikatu dezakegu. Gorkaren diskurtsoaren oinarrian dagoen kontzeptualizazioa antzekoa da, baina erabilera desberdina ematen dio: gatazka politikoa, beretzat, ez da iraganeko une zehatz bati dagokion lurralde itxi eta trantsitaiezina, baizik eta historia zeharkatzen duen korrante edo lurraldea da. Hizlaria egoera politiko batean jaio da, norbait herrialde batean jaio den modu berean, hura aukeratu gabe: ondorioz, *ingroup* bat eta haren helburuen araberrako rol bat dagozkiola interpretatzen du. Mugimenduzko metafora bat erabiltzen jarraitzen du oinarrian, eta erabateko identifikazioa dago ibilbide horren norabidearekin. Rol hori modalitate deontikoaren bidez adierazten du Gorkak (“segitu behar dugula”, 3-4. lerroetan): helburu politikoa, kasu honetan, korrante metaforikoaren norabide gisara kontzeptualizatzen du.

Halaber, interesgarria da behatzea noiz erabiltzen duen Gorkak desplazamenduaren metafora: bere hitzartze hasierako modalizatzaile epistemikoak (“ez dakit”, 2. lerroan) eta zalantzazko adierazpen paraberbaiek (fonetikoki “Ee” gisara transkribatu ditugunak) erakusten dute hizlariak zailtasunak dituela elkarrizketatzailearen jatorrizko galderari erantzuteko: ez da gai gatazkak bere bizitzan izan duen eragin zehatz bat deskribatzeko. Horren ordez, identitate kolektibo batekiko eragin orokor bat irudikatzen duen metaforizazio batera jotzen du. Hau da, kasu honetan, bidaiaren metaforak ez du soilik informazioa kondentsatzeko eta termino ulergarriagoetan antolatze funtzioa betetzen; hizlariaren hutsune kognitibo bat osatzeko *mental model* edo eskema interpretatibo gisara ere operatzen du.

5.4.5.2. Itxitako liburuaren edo amaitutako etaparen metafora

Identifikatu ahal izan dugun beste ohiko egitura batek objektu fisiko delimitatu eta agortu baten moduan kontzeptualizatzen du euskal gatazka. Metaforizazio ohikoenak itxitako liburu bati egiten dio erreferentzia: besteak beste, “orrialdea pasatzeko” (Jaione-16-Basauri eta Paulo-19-Urnieta) eta “orrialde berri bat idazteko” beharra (Lur-16-Hendaia) aipatu digute hainbat elkarrizketatuk. Metafora ontologiko hutsaz harago, baina, esan genezake egiturazko metafora gisara funtzionatzen duela *ixitako objektuaren* ideiak, etapa aldaketa bat nabarmentzen duelako, eta, beraz, errealitate aldaketa bat. Izan ere, finean, denboraren edozein mugatze ere kontzeptualizazio metaforiko bat da, hizlariak berak ezartzen baitu hitzez muga hori. Beraz, iragana delimitatzen duen edozein diskurtsok ere egiturazko metafora bat du oinarrian:

1 Atzoko albistea: ETAREN disoluzioa. Etxean hitz egin zenuten?
2 Ez.
3 Zuk horretan pentsatzen duzunean, zer eragiten dizu? Zuretzat zer da?
4 *Ba hori, lehen esan dudana, behintzat zer edo zer bukatu moduan egin dela eta*
5 *orain hasi litekeela beste prozesu bat edo beste etapa bat ba guk edo dagoen*
6 *helburua lortzeko. Zeren ikusi da horrekin ez duela egin aurrera. Orduan ya*
7 *beharrezkoa moduan dela.*

Nagore-17-Oñati

Nagorek gertakari historiko zehatz bat (desarmaea) bere egungo posiziotik ebaluatzen du: “zer edo zer bukatu” izana (4. lerroan) ETAREN jardun armatuaren etapari erreferentzia egiten dion eufemismoa da. Denborazko deixiak, hau da, 5. lerroko “orain” adberbioak, *hizlariaren garaia* irudikatzen du, bi zentzutan: bera bizi den garai fisikoa da, eta, aldi berean, agentibitatea daukan garaia, ez baita gauza bera garai historiko bat presentziaztea eta hartan eragin ahal izatea. Agentibitate handiagoa duela aditz trantsitiboan eta lehen pertsonako subjektu aktiboan bidez irudikatzen du Nagorek (5-6. lerroetan). *Orain*, inflexio-puntuaren alde honetan, hizlariak politikoki parte hartzeko legitimitatea sentitzen du, ibilbidearekin jarraitzeko; lehengo garaian *sartzeko*, aldiz, ez du legitimitaterik sentitzen. Metaforizazio honek haustura argia adierazten du iraganeko lurralde horrekiko, eta, beraz, harekiko ardura ukatzea ahalbidetzen dio hizlariari.

5.4.5.3. Epaietaren metafora

Hirugarrenik, modu errepikatuan identifikatu ahal izan dugun egitura metaforikoa epaietarena da. Gazteak injustuki epaituak sentitzen dira euskal gatazkaren historian egondako biolentziengatik, eta sentimendu hau hainbat modutara adierazten dute. Egitura ohikoena atal honetan xeheago aipatu dugun *topos* (Wodak & Meyer, 2009, p. 21) edo topiko errepikatua da: kanpora joan eta nolabaiteko kaltea sufritzen duen euskaldunaren istorioak, funtsean, euskal herritarren aurkako epaiketa baten metafora gisara operatzen du diskurtsuan. Horrez gain, badira propio gazteak belaunaldi gisara epaituak direla irudikatzen duten metaforizazio esplizituagoak ere, esate baterako, honako hau:

1 *Gabriele: E... no sé, que eso forma parte de nuestra historia, pero que nosotros*
2 *tampoco — o sea, somos la generación de después, no nos tienen que juzgar*
3 *por lo que pasó, sino... no somos partes — bueno, no sé como explicarlo.*
4 *Eduarne: Al igual que a los hijos de un criminal no se les toma como si hubiesen*
5 *hecho el delito, nosotros somos como ese hijo que ha nacido después de todo*
6 *lo que pasó.*
7 *Gabriele: Eso es [barreak].*

Basauri, taldeko elkarrizketa

Kasu honetan, epaiketaren metaforizazio esplizitu bat daukagu: delitugile baten seme-alaben terminoetan kokatuz, euren burua haur errugabe gisara erretratatzeko dute hizlariak, eta, aldiz, gatazkaren ardura (5. lerroko “delitua”) aurreko belaunaldiari egozten diote osoki. “Gu” lehen pertsonako izenordainak, kasu honetan, gazteei egiten die erreferentzia. Biolentzia iraganeko alderdi deserosoa da hizlariarentzat: hartaz hitz egiteko eufemismoak darabiltzate, besteak beste, “eso” deiktikoaren (1. lerroa) eta “lo que pasó” aditz intransitiboaren (3. eta 6. lerroetan) bidez. Ondorioz, ulergarria eta koherentea da eraikitzen duten hitzezko irudia: aurreko belaunaldia errudun gisara erretratatzeko, gatazkaren ardura belaunaldi osoari egozten zaio. Alemaniako esparru memoristikoa aski zabalduko “Gnade der späten Geburt” edo jaiotza berantiarraren graziaren (der Spiegel, 1986) topikoa darabilte hizlariak euren burua ardura horretatik urruntzeko.

5.4.5.4. Gerraren metafora

Azkenik, maiz behatu ahal izan ditugu euskal gatazka gerra baten terminoetan kontzeptualizatzen duten metaforak. Egitura honek gertakari historikoen erreibantzia handitzen du, eta biolentziaren erabilera edo bestela justifikagaitzagoak liratekeen jokabideak justifikatzeko marko interpretatibo bat eskaintzen du; marko horretan, ardura indibiduala ere subjektu kolektibo zabalagoan lausotuta agertzen da.

Metafora honen presentzia nagusiki lengoia belikoaren bidez behatu ahal izan dugu, gazteek “borroka”, “defentsa” eta, zuzenean, “gerra” bezalako terminoak erabili dituztenean, baina baita herri edo kolektibitate oso zabalaren arteko aurrez-aurreko konfrontazio zuzena irudikatzen duten egitura narratiboetan ere. Era horretako egiturek *ingroup* eta *outgroup* zabalak delimitatzen dituzte, subjektu gehienak interpelatzen dituztenak, gerra batek ere nazio edo komunitate bateko kide guztiak interpelatzen dituen moduan. Hortaz, aurreko metaforek, oro har, hizlaria gatazkaren historiatik distantziatzeko funtzioa betetzen zuten moduan, honek kontrako funtzioa betetzen du: hizlariak, gerraren metaforaren bidez, gehienetan bere taldearen iraganeko ekintzak legitimatzeko edo integratzeko estrategia bat erabiltzen du.

1 *Ba ez dakit, [gatazka] hasi zela, bueno, zer nahi duzu esatea? Karlistak eta*
 2 *hori dena? Hori, betiko gerrak. Baina gero sartu zela Franco, eta ba gero,*
 3 *Francoren diktaduraren ondoren, egon zela hemen bastanteko opresioa*
 4 *hizkuntzarekin eta dena, eta jendea ez zen egon horren ados, eta orduan sortu*
 5 *[ir]en talde militar batzuk gura zutenak hori aldatu, eta orduan hasi zen, ba,*
 6 *gerra moduan: hasi zen Espainia gure kontra, eta gu euren kontra, eta bueno.*
 7 *Gerra armatu bat, eta gero hori; gauza izan zen, supuestamente sartu ginela*
 8 *demokrazia garaian, eta hemengo talde konfliktiboak ba ez zuten demokrazian*
 9 *parte hartu, eta orduan izan zen ya, pf, demokraziaren kontra armatuki joatea:*
 10 *orduan ya zen kriston marroi modukoa. Baina hori, baina gero kontutan hartu*
 11 *behar da ere bai Espainiako demokrazia zelakoa den, zeren hori ya beste*
 12 *gauza bat da.*

Joseba-20-Bilbo

Gerra Karlistei eta “betiko gerrei” buruzko aipamenarekin (1-2. lerroak), bere diskurtsoaren edukia termino belikoetan interpretatzeko marko bat eraikitzen du Josebak. *Ingroup* zabal bat eraikitzen du, euskal herritar guztiak barne biltzen dituena: tokiko deixiaren bidez (“hemen”, 3. lerroa) eta *ad populum* erako orokortzeen bidez (“jendea”, 4. lerroan) eraikitzen du subjektu kolektibo hori, eta esplizituki identifikatzen da harekin,

pluraleko lehen pertsonaren bidez. 6. lerroan, *ingroup* eta *outgroup* handi horien arteko aurrez aurreko konfrontazioa irudikatzen du, eta metaforizazio esplizitu batekin borobiltzen du bere eraikuntza: “gerra armatu bat” zen (7. lerroa) euskal gatazka bere hastapenetan.

Adibide hau da euskal gatazkaren historian izan diren talde armatuen pluraltasuna nabarmentzen duen bakarrenetakoa; gehienek ETAre existentzia baino ez dute aipatu era horretako aktoreen artean. Josebak *Besteek* eragindako biolentziaren ondorio natural gisara eraikitzen du haien agerpena, eta *ingroup*-aren interesen defendatzaile gisara erretratatzeko ditu. *Ingroup*-ari atxikita daudenez gero, ez du haien alderdi biolentzia esplizitatzen, eta horren orde eufemismoetara jotzen du: “talde militar batzuk” (5. lerroan) edo “hemengo talde konfliktiboak” (8. lerroan) deskribapenek funtzio hori betetzen dute.

Subjektuen eraikuntza konplexuagoa bihurtzen da diskurtsoaren bigarren zatian, hizlaria diktadura ondorengo testuinguruaz mintzo denean. Orduan jada ez darabil gerraren metafora, eta *ingroup*-a diluitu egiten da: konfrontazioa *Gu* eta *Haien* artekoa izatetik *Hemengo talde konfliktibo batzuen* eta *Demokraziaren* artekoa izatera igarotzen da. Azken egitura honek subjektuen legitimitatean aldaketa dakar: bere ingurukoak izan arren, taldeotatik distantziatzen da hizlaria haietaz hirugarren pertsonan hitz eginez eta “konfliktibo” adjektiboa erabiliz, zeinak gatazkaren eragilezat nabarmentzen baitituen. Bestalde, “demokrazia” subjektu bihurtzeak legitimitate handiko errepresentazio bat dakar; lehenbiziko subjektua (“talde konfliktiboak”) salbuespentzat jotzen da, bigarrena orokor eta hegemonikotzat.

Josebak *outgroup*-aren aldaketa bat irudikatzen du lehenbizi, baina aipu ironiko baten bidez egiten du, “supuestamente” adberbioa erabiltzen duenean (7. lerroan). Ondorioz, aipatu dugun aurkezpen positiboak ere aipu ironiko horren testuinguruan operatzen duela uler dezakegu: hau da, “demokraziaren kontra armatuki joatea” ez direla hizlariak bere egiten dituen hitzak, *Beste* bati egozten dizkionak baizik. Izan ere, Josebak distantzia handia hartzen du Espainiako demokraziaren aurkezpen positibo horrekiko: 10-11. lerroetan *disclaimer* bat txertatuz eta galdera erretoriko baten bidez (“Espainiako demokrazia zelakoa den”) jartzen du zalantzan. Pasarte hau, beraz, kanpoko diskurtso batekiko posizionamendu pertsonal gisara irakurri behar da.

Gerraren metafora bat dator euskal gatazka nagusiki gatazka biolento gisara kontzeptualizatzen duen narratibarekin (5.1. *Euskal gatazka definitzen* atalean xeheago azaldu duguna). Gazteek, sarritan, harreman anibalentea daukate alderdi horrekin. Alde batetik, gerraren kontzepzioak urrundu egiten ditu gatazkarekiko identifikaziotik: ez dituzte euren esperientzia pertsonalak dimentsio horretako arazo batean islatuta ikusten. Bestetik, jakitun dira esperientzia horietako asko gatazkaren testuinguruan baizik ezin daitezkeela ulertu. Hurrengo adibidean, lau parte hartzaile gatazka *gerra* eta *bake* terminoetan definitzen eta euren burua *continuum* horretan kokatzen ahalegintzen dira:

- 1 *Elkarrizketatzailea: Denok zarete 2000tik aurrera jaiotakoak. Zerk esango*
- 2 *zenukete bereizten zaituztela aurreko belaunalditik? Zertan zarete zuek*
- 3 *desberdinak?*
- 4 *Unai: Gu ez baiginen hor. Ez baitugu bizi ukan direktuki gatazka armatua.*
- 5 *Lur: Bai. Odol gutti ikusi dugu alde horretatik.*

6 *Elkarrizketatzailea: Eta horrek zertan eragin izan du zuen iritzi edo*
7 *jarreretan?*
8 *Gorka: Bueno, nik uste dut odol gutti ikusi baino, kontziente izan arte pasatu*
9 *den denboran, hor bai ja gutti ikusi dugula, baina gu jaiotako urteetan pixkat*
10 *ere segitu zuen.*
11 *Lur: Bai, eta gero aunitz bada ja bake prozesua argiki hasteko borondatea*
12 *bazen. Hau da, gu 2000n, 2002an jaiotakoak gara; 96an hasi zen Lizarra-*
13 *Garazi, hor ja bazen argiki borondate bat euskal gizartean bake prozesu*
14 *baterako. Eta ja baziren urte batzuk lanketa hori egiten hasia zela. Eta guk*
15 *ditugun 16-17 urteetan izan dira hori, o sea, hamarkada eta erdi, bake*
16 *prozesuaren inguruko lanketa bat. Eta horrek azkenean markatzen du;*
17 *bakearen inguruan edo bakearen gogo horren inguruan hazi gara, nahiz eta*
18 *oraindik "si vis pacem para bellum" kontzientzia horretan.*
19 *Elkarrizketatzailea: Bai? Iruditzen zaizu oraindik badela?*
20 *Lur: Ez, Garai hartan bai, bazen hori, gaur egun ja... eta nik uste, e? Gu hazi*
21 *garen horretan, ez dakit, asimilatuagoa edo guttienez euskal gizarteak*
22 *asimilatuagoa bake behar bat bazela.*
23 *Gorka: Nik ikusten dut bake beharra baino lehenago bazela negoziatzeko*
24 *beharra.*
25 *Lur: Hm. Bai.*
26 *Xan: Hm [buruarekin baietz].*
27 *Unai: Bai.*
28 *Gorka: Eta bakea ez zela... hori gehienbat nahi zuela, bo, mundu guztiak nahi*
29 *zuen, baina adibidez ETAk eta horrela nahi zuela kondizio batzuekin.*
30 *Unai: Ez zen bake berdina denentzat.*
31 *Lur: Ez.*
32 *Unai: Euskaldunok nahi genuen bakea eta — ba hori, estatuak-eta nahi ez*
33 *zuten bakea zen justuki. Euskaldunek-eta hor gelditzea, denak gelditzea eta*
34 *bakean uztea. Baina ez zen hori guretzat bakea.*

Baiona, taldeko elkarrizketa

Kapitulu honetan aztertu ditugun hizlarien identifikazio- eta posizionamendu-prozesuen adibide paradigmaticoa da pasarte hau, hainbat estrategia eta baliabide diskurtsibo identifika daitezkeelako. Alde batetik, esperientzia baten falta errepikatzen da *ingroup*-aren ezaugarri partekatu gisara: “hor” tokiko deiktikoak eta gatazka “direktuki” bizitzaren aipamenak (4. lerroan) modu espazialean egituratutako kontzepzio metaforiko bat dakarte, zeinaren arabera gatazka hizlariengandik urrun dagoen lurralde bat den (“hor”, ez “hemen”). *Zuzenean/zeharka* binomioak hierarkizazio bat eraikitzen du gatazkaren esperientzia posibleetan, eta “odola ikustea” adierazpenak ere funtzio metaforikoa betetzen du: *lehen lerro* horren irudia eraikitzen du ostera. Metafora ontologiko bat da: ikustea zerbait egiaztatzeko modua da. Ezagutza *zuzenak*, kasu honetan, ez du soilik lehen eskuko ezagutza edo lekukotza bat esan nahi: gertakariari buruzko ezagutza egiazkoagoa izatea ere inplikatzeko du. Gazteek diskurtsu baliozkoagoak aitortzen dizkiote belaunaldi helduagoari: hartara, norberaren posizio epistemikoa eztabaidan inplikatzeko legitimitatearekin lotzen da.

Lurrek testuingurura jotzen du bi talde sozialen (helduen eta gazteen) arteko bereizketa eraikitzeko: haren arabera, gazteak bakearen kulturari hazi dira; helduak, aldiz, iraganeko gerraren kultura batean. Azken ideia hori enfatizatzen, intertestualitateari jotzen du: *si vis pacem para bellum* latindar maximak (euskal kulturaren eta gatazkaren testuinguruan Hertzainak taldearen izen bereko abestiak eguneratu zuenak) autorizazio-estrategia gisara operatzen du 18. lerroan: haren bidez, Lur ezagutza partekatu horren jakitun gisara autokategorizatzen da, eta argi eta garbi bereizten ditu *gerra* eta *bakea* markoak, aurreko belaunaldiaren eta oraingoaren arteko diferentziak sostengatzeko.

Rol honek, ordea, talka egiten du gazteen berezko bi desioekin: eztabaida sozialean protagonismo edo agentibitate handiagoa eskuratzea eta euren esperientzia pertsonalak gatazkari lotutako testuinguru koherente batean kokatzea. Horregatik, Gorkak transformazio estrategia bat darabil kideek ordura arte eraikitako kontsentsu diskurtsiboa (“Guk ez genuen bizi izan”) emendatzeko, eta ñabardura bat eranstean dio: bizialdi “kontzientea” (8. lerroan) eta lehen haurtzaroa bereizten ditu, eta bigarren hori gatazkaren lurraldean kokatzen du. Oroitzapen faltaren aurrean darabilen auto-legitimazio estrategia bat da, finean.

Sekuentzia honetako negoziazioaren zati nagusia Lurren eta Gorkaren artean gertatzen da: Xanek eta Unai ikusle edo babesle rola hartzen dituzte batik bat, nor bere kide hurbilenaren diskurtsoa indartuz; izan ere, Lur eta Xan gela batekoak dira, eta Gorka eta Unai, beste batekoak. Funtsean, honela laburbildu litezke bakoitzaren posizioa interakzio honetan: Lurrek hausturaren narratiba eraikitzen du, zeinaren arabera eurak, gazteak, bake testuinguru batean hazi diren, helduekiko kontrastean: bi jokaleku edo lurralde bereizi dira, beraz, talde bakoitzaren testuingurua. Gorkak, aldiz, jarraipenezko narratiba bat eraikitzen du, bere burua aurreko belaunaldien lurralde berean kokatuz.

Lurrek hainbat autorizazio-estrategia darabiltza bere posizioa indartzeko; besteak beste, bere burua gaiaren jakitun gisara erretratzen du, bake prozesuen inguruko datuak aipatuz (12-16. lerroak). Elkarrizketatzailearen kuestionamenduaren aurrean (19. lerroa), leundu egiten du bere posizionamendua: subjektu kolektiboarekiko identifikazioa lausotu egiten da, *Gu* pluraleko lehen pertsona izatetik “euskal gizartea” izendapen orokortzaileraren igerotzen delako (21. lerroa), eta adierazpena bera zalantzazko modalizatzaile epistemikoen bidez leuntzen delako (“nik uste, e?”, “ez dakit”, “asimilatuagoa”, “guttienez”, 20-22. lerroetan).

Gorkak, aldiz, Lurrek eraikitako tesiak kuestionatzeko hartzen du hitza bi bider: bigarrenagoan, hark bakeari buruz eraikitako kontzeptualizazioa (*ingroup*-aren interesekoa den zerbaiten gisan) eraldatzen du, birformulazio baten bidez: “Bakea baino, negoziazio beharra”, zehazten du 23-24. lerroetan. Puntu honetan, solaskideak ohartzen dira arazo semantiko bat sortzen zaiela *bake* kontzeptuaren interpretazioarekin. Lurrentzat, bakea gerraren edo biolentziaren desagerpena da. Gorkak, aldiz, bereizi egiten ditu *bakea* eta *negoziazioa*. Bereizketa honek azpitemu inplizitu bat dauka: Gorkarentzat, *bakea* kontzeptu deserosoa da, *outgroup* batek definitutako kontzeptua delako, *ingroup*-aren interesei erantzuten ez diena, *ingroup*-aren jardunaren amaiera osoa inplikatzeko duelako (“denak gelditzea”, Unai 33. lerroan birformulatzen duenez). Ostera, *negoziazioa* litzateke *ingroup*-aren intereseko bakera iristeko baldintza: hori da ETAK planteatzen duen bakea, eta Gorkak eta Unai bere egiten duten posizioa, ETaren helburuak eta *ingroup*-arenak parekatzen dituztenean (28. eta 32. lerroak).

Unairen ekarpena ere interesgarria da sekuentzia honetan: arazo semantikoa esplizitatzen du, bakea modu desberdinetan uler litekeela adieraziz. Estrategia hau barneratzailea da: elkarrizketan agertu diren posizio polarizatuak bateragarri bihurtzeko funtzioa betetzen du. Izan ere, elkarrizketaren printzipio edo arau garrantzitsuenetako bat da kooperazioarena (Davies, 2000, p. 23): taldean legitimitatea izateko, ezinbestekoa da norberaren tesiak besteekin ahokatu ahal izatea. Unai elkarrizketaren alderdi

epistemikoa seinalatzen duenean, elkarrizketaren barruko rol-dinamikak eteten dituen hutsarte bat deklaratzeko du.

5.4.6. Eredu mentalen funtzioa memoriazko diskurtsoetan: berrantolaketa eta osaera

Orain arte aztertu ditugun kudeaketa-estrategiak iraganari buruzko ezagutza eta sentimenduak hizlarien egungo testuinguruarekin bateragarri bihurtzeko estrategia diskurtsiboak izan dira. Nolanahi ere, guztiak oinarritu dira iraganaren nolabaiteko ezagutza batean: hizlariak aldarrikatutako ezezagutza gorabehera, eskura zituzten informazio kontraesankorrak bateratzeko erabilitako baliabide psikolinguistikoak dira orain arte zerrendatu ditugunak.

Gertaera edo garai bati buruzko ezagutzak egiaz absente daudenean, aldiz, bestelako mekanismoak sartzen dira jokoan: haiek ulertzeko, *mental models* edo eredu mentalen kontzeptua baliagarria zaigu. Gogora dezagun “hizkuntzaren erabiltzaileek egoera sozialean errelevantziakotzat jotzen dutenaren eraikuntza mentalak” (Van Dijk, 1999, p. 26) direla eredu horiek, ezagutza partekatua eta pertzepzio indibidualaren arteko bitartekari lanak egiten dituztenak eta, beraz, norbanakoei informazioa aldeztu aurretik eraikitako patroien arabera antolatzea ahalbidetzen dietenak.

Ikerketa honetan bildutako hainbat diskurtsoetan ere behatu ahal izan dugu hizlariak lehendik eraikita zeuzkaten interpretazio-patroi edo eskemetara jotzen dutela falta zaien informazioa osatzeko. Prozesu horren emaitza gisara sortzen dituzten narratibak, sarritan, urrun egon ohi dira gertakarien egia frogatu edo adostutik, baina hizlarien unean uneko posizio eta interesetarako funtzio kohesionatzailea betetzen dute. Gure analisisian, lau berrantolaketa edo osatze estrategia mota identifikatu ahal izan ditugu:

I. Asoziazio logiko bidezko berrantolaketa: “suposatzen dut”

- 1 Si te pregunto sobre Carrero Blanco, ¿te suena?
- 2 *Creo que sí. El del coche, ¿no? Sí, sí. Bueno, no sé mucho, pero... en Gernika,*
- 3 *¿no?*
- 4 *¿Qué pasó?*
- 5 *Que tuvo una bomba en el coche y fue pa'rriba.*
- 6 *¿Y quién era Carrero Blanco?*
- 7 *Supongo que alguien malo.*

Alex-18-Barakaldo

Ziur aski ETArek historiako ekintza ezagunena izan den eta kontsentsu politiko zabalena eragin duen atentatuari buruz galdetu diogu elkarrizketatuari: Luis Carrero Blanco Espainiako Gobernuaren presidenteordearen hilketaz, frankismo amaieran (Agirre, 1978). Kulturalki partekatutako ezagutza horrek oihartzun bat eragiten du Alexen memorian: Carrero Blancori buruz aritzeko determinatzaile mugatzaileak erabiltzen ditu (“*el del coche*”, 2. lerroan), eta hartara kasuaren partikulartasuna nabarmentzen du. Partekatutako iruditeria jotzen du atentatuaren ezaugarri zehatz bat deskribatzeko: lehergailuak Carrero Blancoren autoa propulstatu zuela eraikin baten gainetik. Diskurtsoaren tonu umoretsuak adierazten du hizlaria eroso edo konfiatuta sentitzen dela eztabaidaren edukiarekiko: ez du hautematen gai sentsible gisara.

Nolanahi ere, hizlaria gai den arren istorioaren alderdi batzuk xehetasun handiz berreraikitzen, bestelako elementu batzuk identifikatzeko zailtasuna agertzen du, esate baterako, *nor ote zen* mintzagai den aktorea. Ezezagutza hau ziurtasun falta adierazten

duen hainbat modalizatzailearen bidez erakusten du, besteak beste, aditz epistemikoen bidez (“creo” eta “supongo”, 2. eta 7. lerroetan) eta interpelazioaren bidez *feedback* positiboa eskatuz (“¿no?”, 3. lerroan).

Hutsune horietan jotzen du hizlariak testuinguruko ezagutzara, falta zaion informazioa osatzeko. Alde batetik, *Gernika* erreferentzia toponimikoa txertatzen du. Gernika nazioartean partekatutako sinboloa da, eta euskal herritarren 1936ko Gerrako eta Francoren agindupeko sufrimendua irudikatzen du. Nolanahi ere, erreferentzia geografiko gisara, ez dauka lotura zuzenik Carrero Blancoren heriotzarekin, hura Madril hil baitzuten 1973an, Gernikako bonbardaketatik 36 urtera. Alexek elementu hau bere diskurtsoan txertatzeko arrazoi posible bat da Gernikak euskal gatazkaren historian duen garrantzia sinbolikoak laguntzen diola diskurtso koherenteago bat eraikitzen ezagutza zehatza falta zaion tokian: ondoriozta dezakegu hizlariak ez dakiela *non* hil zuten Carrero Blanco, eta beraz, gatazkarekin zalantzarik gabe lotu dezakeen eremu geografiko batekin lotzen duela haren istorioa; Gernikarekin, alegia.

Bestalde, eztabaidagai den aktorea deskribatzeko, berreraikuntza logikora jotzen du. Carrero Blanco nor ote zen galdetuta, ez du informaziorik eskaintzen aktorearen ezaugarriei edo haren rol historikoari buruz, baizik eta narratiba koherente bat eraikitzen du *ad hoc*, pertsona *zintzoei* eta pertsona *gaiztotei* buruz eraikita dauzkan eskemetan oinarrituta. Eskema argumentatibo hori honela labur liteke:

- 1. premisa: Pertsona zintzok ez dute merezi erasoak sufritzea, gaiztok bai.
- 2. premisa: Carrero Blancori eraso egin zioten.
- Ondorioa: Carrero Blanco norbait gaizttoa zen.

Amaierako adierazpen ebaluatiboa ez da argumentazio prozesu sakon baten emaitza, baizik eta ekintza komunikatiboaren garapenean zehar modu espontaneoan eraikitako narratiba bat, diskurtsoaren ko-testuaren bidez elikatua. posible da, halaber, *ingroup*-aren identitateari eta testuinguru historikoari buruzko jarrera batean oinarritutako hirugarren premisa inplizitu batek (hau da, “Frankismoa gaizttoa izan zen gurekiko” eta “Carrero Blanco frankista zen”) ere eragin izana berreraikuntza logiko honetan, baina diskurtsiboki bederen ez da esplizitatzen eta, beraz, interpretazioaren eremuari dagokion hipotesi bat da.

1 Ba al dakizu ‘Egunkaria’ zergatik itxi zuten?
2 *Uste dut izan zela 2001ean. Ez dakit. Es que jaiio nintzen 2002an, orduan ez*
3 *dakit 2001 edo 2003. Bueno ba, en plan, e, artikuluengatik eta horrela, ez? Ba*
4 *idazten zutenagatik, ez? Supongo.*

Joana-16-Arrasate

Berrantolaketa logikoaren beste adibide bat da honakoa. Hizlariak *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxierari buruzko ziurgabetasuna adierazten du; hura 2003ko otsailean itxi zuten Auzitegi Nazionalaren aginduz, ETArekiko loturak egotzita. Egunkariari erakunde armatua finantzatzea leporatu zioten, baina haren ildo editoriala ez zuten sekula ikertu polizia-erakundeek (Torrealdai Nabea, 2021). Nolanahi ere, Joanak ez du datu hori ezagutzen, eta, ondorioz, alde aurretik eraikitako eskemetan oinarritzen du bere diskurtsoa: zehazki, *egunkariaren itxiera* kontzeptuari buruz eraikita daukan interpretazio-patroian, zeinaren arabera egunkariak ixteko arrazoi logiko bat euren edukia den. Joanak

zentsura kontzeptuari loturako *frame*-a aktibatzen du, eta hari lotutako ezagutza baliatzen du testuinguru komunikatibo zehatz honetan falta zaion informazioa osatzeko.

Berrantolaketa mota honen hirugarren adibidea honakoa dugu:

1 Ezagutzen duzu iheslaririk edo ezagutzen duzu baten baten kasua?
2 *Joseba Sarrionandia.*
3 Zein da bere historia?
4 *E... kartzelaratua izan zela, ez dakit ETAkoa izan zen edo; badakit idazlea eta*
5 *poeta dela, eta ihes egin zuela bafle baten barruan. Imanolen kontzertu batean,*
6 *ez dakit, bafle baten barruan. Eta gero idatzi ziola kanta bat Kortatu taldeari.*
Ekaitz-16-Altsasu

Elkarrizketatu honek Joseba Sarrionandiaren istorioa narratibizatzen du. Sarrionandia euskal literaturako autore ezagunenetakoa bat da, eta haren 1985eko kartzelako ihesaldia, euskal gizartearen oroitzapen partekatu hedatuenetakoa bat, besteak beste, haren formengatik (Martinez, 2014) eta Kortatu punk-rock taldeak urte hartan bertan argitaratutako *Sarri, sarri* abestiaren popularizazioaren ondorioz. Abestiaren letrek Sarrionandiaren ihesaldiaren istorioari egiten diote erreferentzia, eta, ondorioz, memoriaren transmisiorako baliabide bihurtu da kantua, baina haien egilea ez da, Ekaitzek dioen moduan, Sarrionandia bera; oro har, idazlearen hurbileko adiskideak jo izan dira egiletzat, baina ez da autore ofizialik ezagutzen.

Ihesaldiaren memoria partekatzen duen talde sozialeko kide da Ekaitz: transmisiorako baliabide horretarako sarbidea izan du, eta, ondorioz, istorioaren hainbat alderdi ezagutzen ditu. Hala ere, informazioa berrantolatu egiten du bere diskurtsoan: abestiaren idazketa istorioaren protagonistari berari egozten dio. Horren arrazoia izan liteke elementu ezezaguna diskurtsoan modu koherentean txertatzeko beharra: Ekaitzek hutsune kognitibo bat topatu du (ez daki norena den letren egiletza), eta hura osatzeko alde zurretik eraikitako eredu mentaletara jotzen du. Berreraikuntza logikoa honakoa litzateke:

- 1. premisa: Poetek abestien letrak idazten dituzte.
- 2. premisa: Sarrionandia poeta / idazlea da.
- 3. premisa: *Sarri, Sarri* abestia Sarrionandiaren istorioari lotuta dago.
- Ondorioa: Sarrionandiak idatzi zituen *Sarri, Sarri* abestiaren letrak.

Adibide honek, gorago aipatutako Alexen adibideak bezalaxe, herri kulturak interpretazio-eskemen eraikuntzan eta esanahien interpretazioan izan dezakeen eragina ilustratzen du: sarritan, oso ezagunak diren ikus-entzunezko filmek eta abestiek modela dezakete iraganeko gertakarien pertzepzio soziala.

II. Gehikuntza edo elaborazio bidezko berrantolaketa

1 ¿Qué acciones o atentados de ETA conoces?
2 *El del aeropuerto de Madrid.*
3 ¿Qué pasó?
4 *Creo que murieron dos ecuatorianos, ¿no? Y fue en el — donde se pasa creo*
5 *que para subir al avión. Creo que no sé bien dónde fue la — pero creo que*
6 *murieron dos ecuatorianos, y muchos heridos.*
Sebas-17-Barakaldo

Sebasek Madrilgo Barajas aireportuko T4 terminalaren aurkako atentatua deskribatzen du, 2006ko abenduan gertatu zena. Bere diskurtsoan, pertsonalki esangura gehien aitortzen dien elementuak nabarmentzen ditu, bereziki biktimen naziotasuna; hizlaria bera

ere jatorriz Latinoamerikako herrialde batekoa izanik, identifikazio handiena sentiarazten dion elementua dela ondoriozta dezakegu. Alexek lehenbiziko adibidean egin duen antzera, Sebas ere ahalegintzen da atentatuaren eszenatoki fisikoa berreraikitzen, baina informazio hori falta zaio. ETAk lehegailua, egiaz, aireportuko aparkalekuan ipini zuen; hura erabat hustu zuten, euren autoetan lo zeuden bi gizon salbuetsita (Lopez Adan, 2021b). Hizlariak, ordea, ez du informazio hori ezagutzen, eta, beraz, *aireportu* kontzeptuari dagokion alde aurretiko eskemaren elementu bat txertatzen du hutsune diskurtsiboa osatzeko: bidaiarien hegazkineratzeko zubia, hortaz istorioari elementu *berri* bat erantsiz eta jatorrizko narratibaren zati bat distortsionatuz.

Bestalde, egoeratik nagusiki hildakoak eta zaurituak nabarmentzea koherentea da atentatuaren *frame*-arekin: eraso hark 11 zauritu arin eragin zituen (Europa Press, 2006); kopuru txikia, ETAk espazio publikoan leherrarazitako bonbek eragin ohi zituzten eta aireportu batean egon litezkeen biktima posibleak aintzat hartuta. Sebasen diskurtsoan, ordea, koherentzia handiagoa du “zauritu asko” (6. lerroan) eragin zituen leherketa handi baten irudiak, bat datorrelako atentatu bati buruz eraikita daukan irudi mentalarekin.

Erll-ek dioen moduan (2017, p. 14), distortsio hauek ohikoak dira iraganari buruzko berreraikuntza diskurtsiboetan, hizlariak bere unean uneko baliabide, posizio eta interesen arabera egokitzen duelako sortzen duen diskurtso berria. Iraganeko gatazkari buruzko informazio gutxien duten nerabeen kasuan, fikzioa ere informazio iturri bilakatu daiteke:

1 Tus padres, cuando les has oído hablar de ETA, ¿qué te han solido transmitir?
2 *Es que me acuerdo una vez que fui a casa y les dije, "¿Qué es ETA?", y*
3 *— porque a mí me dijeron en clase que mataban a mujeres rubias y morenas.*
4 *No sé por qué. Entonces yo decía, "¿Por qué mataban a mujeres rubias y*
5 *morenas?". Y me dijeron: "No, no, a cualquiera". Como que iban por casas,*
6 *algo así. Y que mataban a quien ellos querían. O sea, no por ser mujer o así,*
7 *sino por lo que sea.*

Alex-18-Barakaldo

Alexek ezagutzazko hutsune bat dauka ETArri buruz, erakunde gisara: ez ditu ezagutzen haren helburu edota metodoak, ezta gatazkaren oinarri politikoa ere. Horren ordez, biolentzia indiskriminatuzko eta inprobisatuzko narratiba bat eraikitzen du terrorismoaren *frame*-an oinarrituta, eta hari lotutako kontzeptuak atxikitzen dizkio *ETA* aktoreari. Elaborazio horretan zehar, egiazko gertakarien deskribapen fikzionalizatu edo, gutxienez, oso hiperboliko bat eraikitzen duten xehetasunak txertatzen ditu, esate baterako, hilketak “etxez etxe” (“por casas”, 5. lerroa) gertatzen zirela. Gauza jakina da ETAREN modus operandia alde aurretik planifikatutako atentatuak izan ohi zirela, norbanako zehatzen aurka edota espazio publikoan lehegailuak erabiliz (Lopez Adan, 2012). Alexek *libreki* txertatutako xehetasun horiek, ordea, funtzio bat betetzen dute diskurtso zehatz honen barruko koherentziaren eraikuntzan: hizlariak irrazional edo ulertezin gisara ebaluatzen duen ekintza baterako ebidentzia edota logika bat eskaintzen dute, egiazko gertakarietatik zeinahi urrun egonik ere. Deskribapen honek agerian uzten du hizlariak motibazio politiko edo arrazionalik gabeko odol hotzeko hiltzaile-talde gisara ikusten duela *ETA*; haren narratibazioak *outgroup* baten aurkezpen negatiborako baliabide gisara operatzen du, beraz.

1
2
3

ETAren zein ekintza gogoratzen dituzu?
Gogoan dut hau, e, ez dakit, Madrilen izan zen tren... tren bat, bonbaz reventatu zutena, ez dakit, e? Hori gogoratzen dut.

Gari-20-Getxo

Pasarte honek 2004ko martxoaren 11n Madrilgo hainbat tren geltokitan izandako leherketei egiten die erreferentzia. Atentatuok hasiera batean ETARI egotzi zitzaizkion arren, aurki gezurtatu zuten, Al-Qaedak aldarrikatu baitzuen haien egiletza. Hizlariak, gertakarien garaian sei urte izanik, ez dauka informazio hori, eta, beraz, gertakariaren oinarritzko alderdi batzuk baino ez ditu ezagutzen: lehergailuekin trenen aurka egindako eraso bat, eta eszenatoki bat (Madril). Atentatu hau ETAREkin lotzeak bi arrazoi posible izan ditzake, testuinguruari begiratuz gero: alde batetik, litekeena da noizbait publikoki esplizitatua izan zen eta gerora ezagutza sozialean mantendu den diskurtso batean oinarritzea; eta, bestetik, posible da Garik *ETA* aktorea narratiba honetan txertatzea, hain zuzen ere, alde aurretik eraikitako eskema mental batean oinarrituta eraikitzen ari delako bere diskurtsoa. Eskema horren arabera, ETAK antzeko erasoak egiten zituen gizarte zibilaren aurka; eta, beraz, koherentea litzateke Madrilgoa ere harekin lotzea. Garik sortzen duen narratiba berria, “ETAK leherrarazi zituen Madrilgo trenak”, hizlariaren sinesmen-sistemarekiko koherentea den narratiba bat litzateke hortaz, edukia okerra izan arren. Aurreko adibidearen antzera, estrategia honek ere aktoreen kategorizaziorako dispositibo gisara operatuko luke, baina kasu honetan *ETA outgroup* gisara erretratatu luke, hizlariak taldeari atxikitzen dizkion ezaugarri negatiboekin bat.

IV. Birkontestualizazio bidezko berrantolaketa: ‘asmatutako’ oroitzapenen adibide bat

Iraganari buruzko diskurtsoak aldiro berriki sortzen diren narratibak dira, hizlariaren posizioaren arabera molde zehatz batzuk hartzen dituztenak. Prozesu horretan, hizlariaren beraren posizioa ere alda daiteke, hura interakzio komunikatiboaren *leku berri batean* ipiniz:

1
2
3
4
5
6

Zuk badaukazu oroitzapen zuzenik edo, erasoren batena edo?
Bai. ETBko sedea. Uste dut eskolan, ikastolan, nengoen entzun genuenean gertatu zena; uste dut jarri zutela bonba bat edo zerbait, baina entzun zen zarata bat oso handia.
Leherketa entzun zenuen?
Bai. Entzun genuen ikastolatik.

Dani-18-Bilbo

Hizlariak EiTb irrati-telebista kate publikoaren aurkako atentatua pertsonalki oroitzen duela baieztatzen du pasarte honetan, lekukotzaren ebidentzia bat eskainiz (“entzun genuen”, 6. lerroan), baita bere orduko posizioaren deskribapen zehatz bat (“ikastolan nengoen”, 2. lerroan) eta bere pertzepzioaren deskribapen enfatiko bat (“zarata bat oso handia”, 4. lerroan) ere. Danik aipagai duen atentatua, ordea, 2008ko abenduaren 31n gertatu zen: Urte Zahar bezpera izanik, ikastetxeak itxita zeuden ezinbestean. Beraz, hizlariak deskribatzen duen egoera ezinezkoa da fisikoki. Hala ere, bere narratiba osatzen duten agertokia (ikastetxea) eta elementuak (zarata handia, leherketa baten hotsa eta bere buruaren irudia hura entzuten) Danik iraganeko gertakari horri buruz daukan pertzepzioaren parte bihurtu dira.

Danik gertakarien *a posteriori*-ko berreraikuntza bat egiten du, bere eskema mentaletatik testuinguruko hainbat ezagutza mota erabiliz: leherketa baten soinuari buruzko informazioa, gertakariaren gutxi gorabeherako urteari buruzkoa (bere haurtzaroan

kokatzen du); eta testuinguru fisiko logiko bati buruzkoa (eskolan egon beharko zuen). Berrantolaketa horren emaitza, alde batetik, gertakariak modu koherentean harilkatzeko balio dion narratiba bat da (errealitatearekin bat ez etorri arren), eta, bestetik, narratiba horrek diskurtsoa eraikitzen duen unearan arabera berregituratutako autoaurkezpen estrategia gisara operatzen du: leherketaren oroitzapen zuzenen kontakizun bat eskaintzerakoan, elkarrizketa honetan errelebantziazko informazioa eskain dezakeen norbaiten posizioa hartzen du Danik. Bi kasuetan, aldez aurretik eraikitako patroik kognitiboek eragin nabarmena dute esanahiak eraikitzekeo prozesuan.

5.4.7. Kapituluaren ondorioak

Laburbilduta, atal honetan elkarrizketatutako gazteek diskurtsoaren bidez eraikitzen dituzten identifikazio- eta posizionamendu-estrategiak aztertu ditugu. Maila pertsonalean, behatu ahal izan dugu gehienei kosta egiten zaiela euskal gatazkaren eragina euren eguneroko bizitzan identifikatzea, eta, ondorioz, urrun sentitzen dituztela gatazkarekin lotutako arazoak. Euren diskurtsoetan gatazkaren esperientzien hierarkizazio bat antzeman daiteke: lehen eskuko lekukotzak, esperientzia zuzenak eta sufrimendu handia inplikatzeko duten esperientziak *egiazkoagotzat* jotzen dituzte, eta, gehienek euren bizitza pertsonalean ez dutenez halakorik identifikatzen, oro har egiten duten interpretazioa da gatazkak ez duela euren egunerokotasunean eragin nabarmenagirik izan.

Ukazio horren atzean, ordea, gatazkaren eragina definitzeko zailtasun bat dago, ez haren benetako absentsia bat. Gazteak jabetzen dira euskal gatazkaren arrastoak badaudela euren bizitzetan, baina kosta egiten zaie haiek zehaztasunez deskribatzea. Kontraesan hori gainditzeko, subjektuaren bikoizketa batera jotzen dute: bereizi egiten dituzte gatazkaren eragin indibiduala eta kolektiboa, eta subjektu edo identitate kolektibo baten posizioa hartzen dute gatazkak euren nola eragin dien deskribatzeko.

Gazteek euskal gatazkarekiko sentitzen duten harremana nagusiki izaera sinbolikokoa da, hortaz: nortasun kolektibo baten existentzia aintzat hartzen eta diskurtsiboki eraikitzen dutenean dira gai haren loturak ezartzeko, baita eragin horiek euren eguneroko bizitza pertsonalean identifikatzen ez dituztenean ere. Ideia hau indartu egiten da hizlarien haurtzaroko oroitzapenen narrazioak aztertzerakoan: gatazka armatuaren azken urteetan jaio izanik, gertakari gutxi oroitzen dituzte pertsonalki, eta oroitzen dituztenak, oro har, hurbileko testuinguruan gertatutako pasarteak eta atentatuaren *frame*-arekin bat datozenak dira. Nolanahi ere, guztiek dute elementu interdiskurtsibo bat: hau da, haurtzaroko pertzepzio mugatua ez da aski esperientzia baten narrazio bihurtzeko, heldu baten azalpen osagarria edo hizlariaren beraren *a posteriori*-ko elaborazioa behar duelako esanahiz janzteko. Honek bide ematen digu argumentatzeko aztergai dugun belaunaldiak euskal gatazkarekiko dituen esperientziak nagusiki kolektiboak, mediatuak eta polifonikoak direla. Hizlariak, gogoratzeko, beste subjektu baten posizioa hartu behar dute ia beti: esperientziari esanahia erantsi zion hizlariarena (guraso edo senideena, oro har) edo subjektu kolektibo zabalago batena.

Nortasun kolektibo horrek nagusiki bi talderen forma hartzen du gure elkarrizketetan: alde batetik, elkarrizketatuak gazte gisara kokatzen dira euren guraso eta aurrean. *Belaunaldi ardatza* deitu diogu egitura identitario honi. Aktoreen kategorizazio horretan, gatazka zuzenean esperimendatu duen *lehen lerro* baten eta ezagutza haren eskutik jaso

duen (edo ez duen) *bigarren lerro* baten arteko bereizketa eraikitzen da; gazteak bigarren lerro horretan kokatzen dira, gatazkarekiko urruntasuna adieraziz. Belaunaldi helduagoak (eta, neurri batean, baita ikastetxeak eta komunikabideak ere) informazioaren jabe den subjektu gisara kontzeptualizatzen dira: euren esku dago ezagutza transferitzea, eta sarritan ez egitea egozten diete gazteek, interes berekoiengatik edota ezintasunengatik. Gazteak, aldiz, esperientzia zuzenik eta agentibitate gabeko subjektu pasibo gisara autokategorizatzen dira gai honekiko, bazterreko posizio diskurtsibo bat hartuz.

Posizio honek iraganeko biolentziekiko arduratik urruntzea dakar, baina gatazkari buruzko eztabaida sozial zabalean inplikatzeko legitimitate faltaren sintoma ere bada. Gazteen diskurtsoetan, iragana trantsitatu ezin den lurralde tabu gisara kontzeptualizatzen da: aurreko belaunaldiarena den espazio diskurtsibo bat da. Eurek ez dute baimenik sentitzen hartan sartzeko, eta horretarako behar besteko ezagutzarik ere ez dutela uste dute. Hortaz, defendatzen dugu euskal gatazkari buruzko mutismoa, hain sarritan gazteei egotzi zaiena, alde batetik tabuaren pertzepzioetik datorrela, eta, bestetik, konpetentzia komunikatibo faltaren pertzepzioetik.

Behatu ahal izan ditugun beste metaforizazio batzuek ere kontzeptualizazio hau indartzen dute, esate baterako, epaietaren metaforak: gazteak injustuki epaituta sentitzen dira euren iragan kolektiboarengatik, eta hartatik distantzia hartzen dute diskurtsiboki. Iraganeko biolentzien normalizazioak ere estrategia honi erantzuten dio: garai bati berezkoa zaion egoera edo elementu bati erreferentzia egiteak aurre-politiko edo eztabaiaezina den eremu bat eraikitzen du, eta haren ostean jaiotakoei haren arduratik urruntzea ahalbidetzen die. Normalizazio hau giro sozialaren pertzepzioarekin ere lotu daiteke: migratutako historia hurbila zuten hizlariarentzat, gaiaren presentzia diskurtsiboa handia da; bertan hazitakoek, aldiz, ia hautemanetzintzat jotzen dute gaia euren eguneroko testuinguruan.

Estrategia hauek aurreko belaunaldiekiko haustura edo urruntze bati erantzuten diote. Halaber, identifikatu ahal izan ditugu aurreko belaunaldiekiko lotura historiko bat eraikitzen duten diskurtsoak ere. Identifikazio kolektiboaren terminoetan, *Nazio ardatza* deitu diogunaren araberrako egiturak osatu dituzte: hau da, gazteak nagusiki *euskal herritar* gisara identifikatu dira gatazkari buruzko diskurtsoetan. Autodefinizio honek, baina, ez du esan nahi elkarrizketatu ditugun gazteak bereziki abertzale direnik (batzuk hala identifikatu dira, besteak ez), edota ez dutenik espainiar nortasun bat ere euren egiten; termino historikoetan esplizitatzen duten identitate bat da euskal herritarrena, sarritan interakzioaren markoak berak bultzatzen duena. Hau da: euskal gatazkaz galdetzen diegunean, askok frankismoko esperientzietan oinarritutako *frame* bat aktibatzen dute, eta, beraz, euskal herritarren biktimizazio historiko baten narratibaren gainean oinarritzen dituzte euren egitura diskurtsiboak. Aitzitik, elkarrizketatu askoren diskurtsoetan, inplizituki bada ere, antzeman dugu espainiartasunarekiko edo espainiar marko geografiko eta politikoarekiko identifikazioa, baina hizlariak ez dute horren inguruko elaboraziorik eskaini. Gure hipotesia da elkarrizketaren gaiaren markoak berak (euskal gatazka) errazten duela *euskal herritar* gisara identifikatzea, eta identitate espainiarrak bere presentzia hegemonikoagatik ez duela esplizituki agertzeko beharrik. Nolanahi ere, aurreragoko ikerketa-ildo bati bide eman diezaioke galdera honek.

Nazio ardatzaren arabera egituratutako diskurtsoetan, gazteek oro har *eurenganatu* egin dituzte euren talde sozialaren esperientziak. Identitate horri eusten dioten narratiba nagusiek taldearen biktimizazio historikoa, haren ezaugarri ideologiko edota helburu politiko partekatutako edota iragan armatuko erreferentzia sinbolikoak dituzte oinarri, besteak beste, ETAK eta haren inguruko estrategia armatuak irudikatzen dituzten idealak. Sinbolismo horrek, nolana ere, banaketa eragiten du *euskal herritar* gisara identifikatzen direnen artean: batzuentzat, taldeari lotura historikoa ematen dion elementua dira taldeak iraganean hartutako posizio politikoak; beste batzuk, aldiz, justuki iraganeko jokabide horien biktima gisara sentitzen dira, gaurkotasunean injustuki epaitzen dituztela uste dutelako.

Bigarren mota honetako narratibetan, norberaren taldearen iraganeko ekintza eta jarreretikiko justifikazio-estrategiak erabiltzen dira nagusiki: norberaren biktimizazioa eta *Bestearen* aurkezpen negatiboa indartzen duten narratibak, arrazionalizazioa eta erlatibizazioa, eta marko justifikatzaileen eraikuntza (gerraren *frame-a*) izan dira gazteek gehien erabili dituzten estrategiak. Bestalde, euskal gatazkaren iraganari buruzko eztabaida sozialean okupatzen duten bazterreko posizio horrek, hainbat kasutan, iraganaren idealizazio bati ere bide eman diezaiokeela behatu dugu; era honetako diskurtsoak nagusiki parte hartzaile politizatuenean artean identifikatu ahal izan ditugu batik bat.

Hainbat kasutan, ordea, talka bat antzeman dugu gazteek euren taldearen iragana justifikatzeko sentitzen duten beharraren eta euren egungo iritzia eta balioekin koherentea den diskurtso bat eraikitzeke nahiaren artean. Azken hauek euren inguruko narratiba sozial dominatzaileekin bateratzeko erabiltzen dituzten estrategia diskurtsiboetako batzuk identifikatu ahal izan ditugu; bai gizarteko narratiba nagusiekin (esate baterako, biolentziaren gaitzespen orokortuarekin), eta baita euren talde sozial ertain eta murrizetako diskurtsoekin ere (esate baterako, taldearen iraganeko jarrerak kuestionatzen dituztenean). Gazteek nagusiki distantziamenduzko modalizazioa eta hizlariaren urruntasuna adierazten duten posizionamendu-estrategiak erabili dituzte euren agentibitatea eta legitimitatea handitzeko euren posizio soziala kuestionatu gabe, hau da, egoera komunikatiboaren arauak hautsi gabe. Halaber, ebaluazio moralak ere funtzio hori bete dezakeela behatu dugu: haren bidez, hizlariak *baimena* eskatzen du bere testuinguru sozialean (edukiagatik edo ez dagokion norbaiten posiziotik etortzeagatik) kontrobertitua izan daitekeen iritzia bat txertatzeko.

Eraikuntza diskurtsibo ia guztietan, aldeztatik aurretik eraikitako marko kognitibo eta interpretazio patroien garrantzia identifikatu dugu, atal honetan oro har *eredu mental* (*mental model*) edo *frame* kontzeptuekin izendatu ditugunak, haien izaera pertsonalago edo sozialagoaren arabera. Gure elkarrizketatu gehienek testuinguruari buruzko aldeztatik aurretiko ezagutzara jo dute iraganari buruzko narratibak eraikitzerakoan, batez ere hutsune kognitiboak osatzeko edota diskurtso kontraesankorrak kudeatzeko orduan. Prozesu honen ondorioz, hizlariak iraganeko gertakariei buruzko narratiba *berriak* eraiki dituzte maiz, ez zetozenak derrigor gertakarien *egiazko* edo kontsentsu zabaleneko bertsioekin bat, baina diskurtsoko elementuak hizlarien uneko interes, jarrera eta identitatearekiko koherentea zen modu batean antolatzen zituztenak.

Prozesu hauek nagusiki transformazio-estrategia gisara identifikatu ditugu, eta, zehazki, berrantolaketa estrategia gisara. Besteak beste, logika, gehikuntza, elaborazio eta ordezkapen bidezko berrantolaketak identifikatu ditugu, baita birkontestualizazio estrategiak ere. Haietako gehienek hizlariaren posizio komunikatiboarekin lotutako makro-funtzio zabalagoak betetzen zituzten, hau da: autoaurkezpen positiborako, norbere taldearen legitimaziorako edota Bestearen karakterizazio negatiborako dispositibo gisara erabiltzen zituzten hizlariak.

Behaketa hauetan oinarrituta, argudia dezakegu memoriaren eraikuntzak, konstruktuki diskurtsiboa den neurrian, oroitzen duen belaunaldiaren parte hartze aktiboa eskatzen duela, are gehiago belaunaldi horrek bere iraganarekiko duen harremana tabuak, ezjakintasunak edota legitimitate faltak zeharkatzen dutenean. Hortaz, *estrategia diskurtsibo* kontzeptua baliagarria dela defendatzen dugu prozesu hau ulertzeko, norberaren posizioak eta unean uneko interesek baldintzatzen dutelako memoria-ariketa oro. Harreman politiko eta sozialek eta tabu-giro batek gatazka sozialei buruzko eztabaidan parte hartzea eragozten duten testuinguru batean, are esangura handiagoa dute gazteen *agentibitatea* bezalako kontzeptuek, hau da, eztabaida horretan parte hartzeko erabiltzen dituzten estrategia diskurtsiboak.

6. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK

6.1. TESIAREN ONDORIO OROKORRAK

Gazteek euskal gatazka armatuaren historiarekin duten harremana eta haren memoriaren eraikuntzan duten inplikazioa ulertzea izan da tesi hau bultzatu duen interes nagusia, edo, zehatzago formulatuta, 1968 eta 2011 arteko gatazka armatuarekiko haien ustezko mutismoaren atzean dauden faktoreak identifikatu nahi izan ditugu. Orriotan argudiatu dugu gazteen isiltasun edo inplikazio falta honen jatorria ez dela hainbeste euren interes falta; aitzitik, gazteekin gauzatutako elkarrizketen analisi diskurtsibo xehean behatu ahal izan dugunez, isiltasun mota honek zerikusi handiagoa du euren testuinguru diskurtsiboan pertzibitzen duten tabuarekin, eskura duten erreperitorio diskurtsiboarekin eta eztabaidagaiaren inguruan eratutako harreman-sarean euren buruari egozten dioten bazterreko posizio sozialarekin.

Ondorio horretara iristeko, lau urratseko analisi bat baliatu dugu, tesiaren hasieran planteatutako lau ikerketa-galderak erantzuteko asmoz. Lehenik eta behin, gazteok euskal gatazkari berari buruz eraiki dituzten makronarratiba nagusiak eta haien kokatzeko erabili dituzten marko interpretatiboetako batzuk identifikatu ditugu. Ondoren, ikerketako parte hartzaileek euren testuinguru diskurtsiboa nola pertzibitzen duten aztertu dugu, fidagarri, legitimo edota eraginkortzat jotzen dituzten informazio iturriak eta esfera sozial ezberdinetan eskura sumatzen duten erreperitorio diskurtsiboa ezagutzeko asmoz. Hirugarrenik, testuinguru diskurtsibo horrekiko nola kokatzen diren aztertu dugu, eta horretarako diskurtsoaren bidezko posizionamenduari behatu diogu, bereziki identitate kolektiboen eraikuntzan arreta jarritz. Eta, azkenik, ingurune sozialetik ikasitako ezagutza, jarrera eta arau diskurtsiboak euren testuinguru garaikidearekin bateratzeko erabiltzen dituzten estrategia psikolinguistikoetako batzuk identifikatu ahal izan ditugu.

Ondorio orokor gisara, baieztatu dezakegu 1990eko hamarkadaren amaieran eta 2000ko lehen urteetan jaiotako gazteek euskal gatazka armatuaren historiari buruz bernarratibizatzen dituzten oroitzapenak ia osoki mediatuak direla. Ez soilik ETaren jardueraren historiako gertakari gehienak euren bizialdia edo oroitzeko gaitasuna baino lehenagokoak direlako, baizik eta haurtzaroan esperimendu dituzten gertakariak ere *a posteriori*-ko elaborazio diskurtsibo-narratibo bat behar dutelako helduaroan gogoratuak eta, beraz, bernarratibizatuak izateko. Iraganean haur gisara pertzibitutako inpresio eta irudien esanahitze-prozesu horretan, sarritan mediatzen du gurasoen begiradak marko esplikatibo gisara. Beste kasu batzuetan, gazteak berak jatorrizko oroitzapenaren ondoren jasotako ezagutzekin osatzen du bere narratiba. Nola edo hala, gazteak oroitzen duen unean, hainbat *input* diskurtsibo bateratzen dituen narratiba berri bat eraikitzen du, unean uneko egoera komunikatibora eta testuinguru sozialera egokitzen dena.

Bigarrenik, gazteok berretsi digute euren historia kolektibo eta konfliktiboaz ikasteko baliabideen falta sumatzen dutela: gaia gizartean oraindik disputatua izateak diskurtso kontsentsuaturik ez dagoela ulertarazten die, eta hari buruzko material didaktikorik ia ez egotea horren adibidetzat dute. Nolanahi ere, erdi egituratutako, sakoneko eta aski pertsonalizatutako elkarrizketen bidez, behatu ahal izan dugu transmisio-politika adosturik ez izateak ez duela esan nahi gazteok inolako ezagutzarik jaso ez dutenik: balio, emozio eta portaerazko zein adierazpenezko arauz beteriko testuinguru diskurtsiboetan sozializatu dira, eta sozializazio horren bidez barneratu dituzte testuinguru bakoitzean

nagusi diren esanahi eta ezagutzak. Mediazio diskurtsibo maila altu honen ondorioz, euskal gatazkaren historiarekiko eraiki duten harremana batik bat sinbolikoa da, eta aurreiritzi, jarrera eta emozioen bidez esperimintatu dituzte haren adierazpenak. Nolanahi ere, ikasketa horiek guztiak ez dituzte egiazko ezagutzat jotzen, eta ez diete baliorik aitortzen euskal gatazkari buruzko eztabaidan inplikatzeko tresna gisara. Norbere ezagutzaren gutxieste honen atzean hainbat arrazoi daude, euskal gatazkari buruzko makronarratiba sozialen izaera murriztailearekin eta gazteon testuinguru diskurtsiboak ezarri dien posizio sozialarekin zerikusia dutenak.

Alde batetik, gaur egun euskal gizartean nagusitzat pertzibitzen dituzten diskurtso hegemonikoek biolentziaren definizio hertsia bat ezarri dute, gazteek euren eraikuntza diskurtsiboetan ere erreproduzitzen dutena. Hartan, euskal gatazka batik bat biolentziazko gatazka gisara kontzeptualizatzen da, haren alderdi odoltsuenak nabarmenduz eta alderdi ideologikoagoak ezkutatuz. 2001etik aurrera globalizatutako *terrorismoaren* ulerkerak eta euskal kasuan estatuen aurka erabilitako biolentziaren deslegitimazio sozial zabalduak printzipioz kontrajartzen dituzte *biolentzia* eta *politika* terminoak, lehenaren erabilera testuinguru demokratikoetan *per se* gaitzesgarri bihurtuz. Ulerkera honetan, *biolentzia* terminoa biolentzia fisikoarekin parekatzen da, eta, euskal kasuan, gehienetan ETAK eragindako kalte pertsonalekin. *Frame* hau elkarrizketatu ditugun gazteen narratibetan ere antzeman dugu: euskal gatazkari buruz batik bat *hildakotan* pentsatzen dute. Ondorioz, biktimatzat ere, hau da, sufrimenduaren lekukotza emateko legitimatutako ahotstzat, biolentzia fisikoa sufritu dutenak edo hildakoen hurbilekoak dituzte.

Ikuspegi honek, ordea, hainbat hutsune eta eragozpen dakartza gazteen berreraikuntza narratiboari eta identifikazioari dagokionez. Fokua indarkeriaren espresio bakar batean jarrita (haren adierazpen fisikoengan), gainerako biolentziak definiziotik at uzteko arriskua dago; ondorioz, gazteek, testuinguru despoltizatuenetatik datozenek bereziki, zailtasunak agertzen dituzte gatazkaren alderdi ez hain *ikusgarriak*, hau da, biolentziaren aspektu kultural eta sinbolikoak, edota haren erro historikoak ulertzeko. Ondorio gisara, biolentzia biolentziaren xedeagatik eragiten den gatazka baten narratiba eraikitzen dute, gatazkaren funts ideologiko edo politikoa eta haren bilakaera historikoa ulertzeko behar dituzten oinarriko daturik gabe. Gure ikerketan behin baino gehiagotan identifikatu dugun *absurdoaren narratiba* zailtasun hori kudeatzeko modu bat da, gazteek euren historia kolektiboarekiko sentitzen duten deskonexio edo identifikazio faltaren sintoma. Gatazka biolentoaren narratiba hutsak ez dizkie bakarrik gatazka bere konplexutasunean ulertzeko tresnak ebasten: haien interesa itzaltzen eta eurak mintzagaitik ere urruntzen ditu; gertakari historikoak testuinguru eta hurrenkera ulergarri batean antolatze bitartekorik ez badute, zailtasun handiagoak dituztelako gatazka euren testuinguru garaikidearekin lotzeko.

Iraganeko biolentzia politikoa gai erakargarria da gazteontzat, horretan ez da zalantzarik: alde batetik, sumatzen dutelako euren bizialdiko hainbat elementu eta gatazka bilakaera historikoaren produktu direla; eta, bestetik, ETAREN biolentziaren kausak eta motibazioak propio eztabaidatik at utzi izan diren auziak direla interpretatzen dutelako. Gazteak era horretako diskurtsoekin kontaktuan egoteak eurengan idealizazioa edota erradikalizazioa eragin ditzakeela argudia liteke, agian, horretarako arrazoitzat. Ikerketa honetan, ordea, frogatu dugu diskurtso subalternoekin edo *statu quo* soziala kuestionatzen duten diskurtsoekin (esate baterako, ETAREN biolentzia ontzat jotzen dutenekin) kontaktuan

egoteak ez duela eragiten gazteek haiek kuestionatu gabe onartzerik, kontrara baizik: iraganeko biolentziari buruzko diskurtso anitz eta kontrajarriak jaso dituztenek (etxeo narratibak narratiba publikoekiko ezberdinak direlako, adibidez) kudeaketa-lan aktiboa egin dute kognitiboki diskurtsook euren artean eta beraien testuinguru eta posizio garaikideekin bateratzeko. Ondorio gisara, biolentzia hutsaren markotik eratorritako *absurdoaren narratiba* baino eraikuntza narratibo konplexuagoak osatu dituzte iraganeko gatazkari eta bertan inplikaturako aktoreei buruz. Hau da: diskurtso aniztasunak hain zuzen ere gazteen pentsamendu kritikoa susta dezake, narratiba ezberdinen arteko ustezko bateraezintasuna kudeatzera behartzen dituelako. Kudeaketa-lan aktibo honen adibide dira, esaterako, ETArri buruz eraikitzen duten *bi aurpegiko aktorearen narratiba*: estrategia horren bidez, aktore berari buruzko pertzepzio pribatuak eta sozialak batera ditzakete haren alderdi edo motibazio ideologikoekin bat datozen gazteek, aldi berean haren jardun armatua gaitzetsiz. Gatazkaren historian bi fase bereizten dituen narratibak ere antzeko prozedura kognitibo bati erantzuten dio: euskal gatazkaren izaeran aldaketa ekarri zuen inflexio puntua frankismo ondorengo trantsizioan kokatuz, euskal gizartean historikoki pisu handia izan duen nazio askapenaren narratiba egungo terrorismoaren markoarekin batera dezakete gazteek. Hartara, *statu quo* diskurtsibo garaikidera egokitzen dira, euren taldeari batasuna ematen dion sinbologia historikoari erabat uko egin gabe.

Azurmendik (1997) duela ia 30 urte deskribaturako *Demokratak eta biolentoak* dikotomia gaur egungo interpretazio-patroien oinarrian dagoen egitura bat da. *Terrorismoa* terminoaren naturalizazio bat antzeman dugu gazteon diskurtsoetan, funtsean biolentziatzko edozein ekintza kategoria horren pean kokatzeraino. *Gatazka* terminoa, bestalde, birsemantizatzen ari da, *euskal gatazka* kontzeptuari lotutako interes-talka historiko, identitario eta politikotik urrunduz eta (*elkarbizitza*) *arazo* terminoarekin parekatuz. Testuinguru horretan, eztabaida politikoa elementu desirakaitz gisa ikusten da, eta ez da elkartruke osasuntsurako aukeratzat hartzen.

Ondorioz, euskal gatazkaren historia eremu diskurtsibo deserosoa da gaur egun. Gazteek, oro har, kontsentsu sozial handia dagoenetan baizik ez dute gaia aipatuko, hau da, antzera pentsatzen duten pertsonen testuinguruan edota publikoki legitimaturako oinarri diskurtsiboek helduta. Gure datuetan behatu ahal izan dugunez, gutxienez hiru faktorek eragiten dute oroitzapen eta narratiba zehatzen iraupenean eta prominentzian. Alde batetik, sozialki ezarritako narratiba nagusiekin duten koherentziak: terrorismoaren *frame*-arekin bat datozen gertakariak sarriago eta ziurtasun handiagoz erreproduzitzen dituzte gazteek euren ahozko narratibetan, esate baterako, hildako biktimak eragin dituzten atentatuak. Testuinguru berean interpretatzen dugu gatazkaren protagonista gisara ia eskusiboki gizonezkoen izenak aipatu izana, eta, batik bat, gatazkaren alderdi militarari lotutako figurenak.

Elkarrizketaturako gazte guztientzat, ETA kontzeptu zentrala da euskal gatazkaren historiari buruzko eztabaidan. Haren jarduna indar armatuena baino xeheago deskribatzeko gai dira, batik bat giza bizitzen galerak inplikatzen dituzten ekintzak eta arreta mediatiko handiena jaso dutenak. Paradoxikoki, ez dute sentitzen aktoreari buruz mintzatzeko edo galdetzeko legitimitaterik, eta ohikoa da hari buruz termino eufemistikoetan hitz egitea. Adinkideen artean, umorezko klabeen soilik baimentzen diote euren buruari ETA aipatzea. Gure elkarrizketaturako batek bere belaunaldiaren

ikono kultural bat erabiliz deskribatzen duenez, “ETA Voldemort da” gaur egungo gazteentzat: gaizkiaren eta esanezinaren sinboloa.

Tabu horrek zeharka presoiei buruzko kontzepzioak ere modulatu ditu. Tesi hau idazteko unean euskal gatazkarekin lotuta espetxean dauden 150etik gora pertsonak sinboloak baizik ez dira gazteentzat; haietako zati handi bat, hain zuzen ere, ikergai dugun belaunaldia jaio baino lehenagotik dago preso. Euskal gatazkaren ondorioen artetik, gaur egun oraindik giza bizitzaren kalitatea gehien mugatzen eta kaltetzen duena da presoaren auzia; gazte gehienek, ordea, ez dute presorik ezagutzen. Ezezagutza eta distantziamentu emozional horrek *preso* kategoriari buruzko irakurketa hiperbolikoei ematen die bide, kasu batzuetan idealizazio forman eta gehienetan demonizazio forman. Presoak egozten zaizkien edo gauzatu dituzten delituen arabera ebaluatuak dira, terroristen *frame*-arekin koherentziaz. Hau presoak ideologikoki babesten dituzten gazteen diskurtsoetan ere antzeman izan dugu; hortaz, esan dezakegu harreman pertsonalik ez dagoenean indartsuagoa dela *statu quo* diskurtsiboaren eragina gazteon marko kognitiboan eraikuntzan.

Euskal gatazkaren historian rol erabakigarria jokatu duten indar armatuen jarduerak, aldiz, etxekoen esperientziaren eta narratibizazioaren bidez ezagutu dituzte elkarriketatuta ditugun gazteek. Esperientzia hauek sarritan tonu anekdotikoan erreproduzitu dituzte, normalizaziozko testuinguruan eta errelebantzia handiegirik aitortu gabe. Halaber, alde handia sumatu dugu gatazkaren historian inplikaturik egondako erakunde polizialei buruzko diskurtsoetan: gazteak ziurrago mintzatu dira historian urrunago dauden eta denbora aldetik eragin laburragoa izan duten talde paramilitarrez (GALi buruz, esaterako), gaur egunera arte gatazkaren osagai izaten jarraitzen duen Guardia Zibilaria buruz baino. Azken hau normalizatzen duten hainbat diskurtso bildu ditugu: badira Guardia Zibila euskal gatazkaren historiarekin lotzeko gai ere ez diren gazteak, haiekin harreman pertsonalik izan ez dutenean bereziki. GALen parte hartzea aski dokumentaturik dago, eta testu liburuetan, ikus-entzunezkoetan eta testu juridikoetan jasota dago; Guardia Zibila eta harekiko elkarbizitza-arazoak (Altsasuko kasuan kristalizatzen direnak), aldiz, gai gatazkatsua dira oraindik, eta ez dago haiei buruzko diskurtso kontsentsuaturik. Hortaz, Lowenthal (1998) ihardetsi geniezaioke iragana batzuetan lurralde ezagunagoa izan daitekeela gaurkotatua baino, batik bat fidagarritzat jotako euskarri batean *idatzita* edo jasota dagoenean. Antzeko fenomeno bat behatu ahal izan dugu ETA desarmatze eraman zuten bake inizatibekin: haiei buruzko ezezagutza orokorra izan da guk bildutako ahozko datuetan, gatazkaren amaierari buruzko diskurtso partekaturik ere identifikatu ez dugun bezalaxe.

Finean, esan dezakegu gertakari historiko zehatzei buruzko kontsentsu soziala zenbat eta handiagoa izan, orduan eta sendagoa dela haiei lotutako ezagutzen transmisioa; ez soilik haiek sarriago tematizatzen direlako esfera diskurtsibo ezberdinetan (agenda mediatikoan, familiako elkartrukeetan, hezkuntzan...), baizik eta, horren bidez, euren inguruko eremu diskurtsibo baimendua edo *esangarria denaren eremua* zabaltzen delako. Hau da, euren erreperitorio diskurtsiboko euskarri gehiagotan jasota dauden ezagutza eta kontakizunei fidagarritasun handiagoa aitortzen diete gazteek, soilik etxean edo ingurune sozialean aditu dituztenei baino. Polemiko gisara hautematen diren auziak, aldiz (gure kasuan, ETA bera eta haren biolentziaren erabilera) saihestu egiten dituzte gazteek: haiek tematizatuz, inguruneak eraikitako kontsentsua, hau da, *eztabaidaren arauak*, hautsiko

dituztela sentitzen dute, edota ez dute aski heldulekurik sentitzen mehatxagarri gisara pertzibitzen duten eremu batean sartzeko.

Hortaz, iraganeko gatazken memoriaren eraikuntza gizarte osoa inplikatzeko duen eztabaida zabal baten terminoetan ulertzen badugu, ezagutzen transmisioa ere irisgarritasunaren terminoetan planteatu behar dugu, hau da, gazteek eskura duten eta beharraren arabera erabil dezaketen errepertorio komunikatibo baten terminoetan. Pertinentziatzeko galdera da, hortaz, errepertorio horretan zeintzuk ote diren eskuragarrien dituzten diskurtsoak, eta zeintzuk zaizkien ukatuak, horrek nabarmen baldintzatuko baititu mintzagaira hurbiltzeko dituzten moduak.

Izan ere, gazteen desidentifikazioari kontu eman diezaioketen arrazoen artean, faktore erabakigarrietako bat da euren testuinguru diskurtsibotik jasotzen dituzten mezuen forma eta edukia. Zirkulu sozial txikietan, oro har, gai arantzatsua edo tabua da euskal gatazkaren iragan biolentoa, baina, paraleloki, haren egiei buruzko *errelatoaren bataila* politiko bat dago indarrean esfera instituzional eta mediatikoan. Zabaldutako metafora beliko horrek gerra baten terminoetan planteatzen du iraganari buruzko lehia diskurtsiboa, eta singularraren erabilerak (*errelatoa*, eta ez *errelatoak*) kontakizun garaile bakarra egon daitekeela inplikatzeko du: ahots bakarreko memoria hegemoniko baten aldeko eskaera bat da, hortaz.

Gazteak diskurtso oso pribatu eta oso publikoen hartzaile dira aldi berean: familia hurbila eta komunikabideak dira, euren hitzetan, historiaz ikasteko iturri nagusiak. Iturriotako bakoitzak gazteen paisaia diskurtsiboan duen pisua haren politizazio-mailaren arabera da: etxean politikaz hitz egiteko ohiturarik ez dutenek menpekotasun handiagoa dute diskurtso publikoekiko.

Nolanahi ere, elkarrizketatu ditugun gazte guztien informazio-kanal nagusietako bat euren abiatutako bilaketak dira, bai Interneteko sareetan, eta baita etxean transmisioa galderen bidez probokatuta ere. Gurasoen partetik ez dute sentitzen iraganaz hitz egiteko inizatibarik datorrenik. Aitzitik, zalantziak ikusten dituzte senide helduagoak: askok ez dakite gaia nola azaldu seme-alabei, edota eufemismoz betetako kontakizun frakzionatuak baino ez dizkiete eskaintzen.

Hain zuzen ere, familiarteko memoriaren transmisioan behatu dugun ohiko mekanismo bat hartzaile adingabe ideal bati egokitutako narratiba eufemistikoak eraikitzea da. Hau da, gurasoek, sarritan, *ongi* eta *gaizki* termino moraletan kokatutako kontakizunak eskaintzen dizkiete seme-alabei, baina ebaluatutako gertakari edo jokabideen inguruko daturik esplizitatu gabe. Kontakizun hauek, sarritan, anekdota edo bitxikeria bakanen forma hartzen dute; gainera, haurrak izaten dituzte figura protagonistatzat; eta historia osoaren metonimia gisara operatzen dute, gurasoen eta norbere taldearen auto-irudiaren definizioaren ilustragarri bihurtuz. Hau da, etxeko transmisioak norberaren identitate kolektibo zein pertsonalaren eraikuntzari erantzuten dio gehienetan.

Ondorioz, gazteek sarritan ez dute ezagutzen euren guraso eta esperientzien zati handiena. Aitzitik, ezagutzara ustekabeen helduaren irudipena dute: familiako belaunaldi helduagoek ezagutza partekatutzat jotzen dituzte euren bizialdian gertatutako hainbat jazoera, eta, beraz, ez dute haiei buruzko narratibak esplizituki seme-alabekin partekatzeko premiarik sentitzen. Ondorioz, gertakari edo garai horiekiko zeharkako

erreferentzien bidez ikasten dute gazteek haien berri. Taldearen memoria partekatzea taldeko kide izateko baldintzetako bat da, hau da, gutasun edo *ingroup*-aren esperientziak baliabide sinboliko berberen bidez interpretatu eta antzeko esanahiak erantsi ahal izateak osatzen du memoriazko komunitate bat, gertakari zehatz horiek pertsonalki ez esperientzatu arren haiekiko identifikazioa ahalbidetzen duena. Aztergai ditugun gazteok, ordea, sarritan sentitzen dute familiarena den ezagutza partekatu horretan ez daudela integratuta, euren inguruan jakintzat ematen direlako eurentzat egiaz erabat ezezagunak diren hainbat datu. Alde horretatik, belaunaldi arrakala nabarmena antzeman dugu gaur egun gazte direnen eta euren gurasoen bizi esperientzien artean: lehenbizikoentzat euskal gatazka armatua (ETAren biolentziaren ikuspegitik, batik bat) ia historiako beste edozein gertakari bezain urrun dagoen bitartean, bigarrenentzat gaurkotasunezko gai bat da oraindik. Gazteek sentitzen dute jakintzat ematen den eta, beraz, esplizitatzen ez den hori jakin beharko luketela taldeko kide gisara; euren bizialdian eskura izan dituzten iturriekin, ordea, gehienetan ez dute aski baliabiderik hutsune informatibo horiek osatzeko, eta horrek ezagutzara berandu heltzearen sentipena eta lotsa eragiten dizkie. Ondorioz, parte hartzaile batzuek adierazi digute nahiago izaten dutela falta zaien informazioa euren kabuz esfera diskurtsibo publikoetan bilatu, etxean galdetzea baino.

Hala eta guztiz ere, ez da gutxietsi behar familiarteko testuinguruak iraganarekiko ikuspegietan duen eragina. Ezagutza zehatzak modu frakzionatuan transmitituta ere, gurasoen prisma emozionalak historia eta errealitate sozialak ebaluatzeko *pantaila* gisara oraindik eragin handia duela behatu ahal izan dugu.

Bestalde, gertakari edo *oroitzapen* sozialen, hau da, memoria gisara bernarratibizatutako esperientzien prominentzia gazteen testuinguru diskurtsibo ezberdinetan aitortzen zaien garrantziaren menpe dago. Hurbiltasun pertsonal eta geografikoa, esaterako, aldagai esanguratsua da etxeko eta familiako transmisioan: iraganaren irakurketa euren posizio garaikidetik egiten dutenez gero, hurbileko pertsona eta espazioek gertakari historikoak kokatzeko *attrezzo* ezagun bat eskaintzen diete. Familiako transmisioan, ohikoa da hurbileko pertsonen bizi esperientziak narratzea; ondorioz, litekeenagoa da gazteak haiekiko identifikatuta sentitzea eta haiek aiseago gogoratzea.

Era berean, gazteek egunerokotasunean trantsitatzen dituzten espazioek, hau da, bizitokitza dituzten auzo eta herriek ere, sarritan operatzen dute iraganari eta norbere talde sozialaren historiari buruzko ezagutza iturri gisara, batik bat erreferentzia eta arau kulturalen sozializaziorako eremu delako *kalea*. Espazio publikoak gazteek pertzibitzen dituzten baino esanahi gehiago biltzen ditu, halere; elkarrizketatu ditugun parte hartzaile gehienak ez dira kontziente egunerokoan trantsitatzen dituzten oroitze-gune eta aurreko belaunaldiek hala izendatutako *memoria leku* ofizialez, eta, beraz, galde genezake espazio horiek egiaz memoria leku gisara funtziorik betetzen ote duten.

Etxeko eta testuinguru sozial hurbileko *input*-en ostean, hezkuntza arautua izan ohi da haur eta nerabeak diskurtso publikoenekin kontaktuan sartzen diren hurrengo eremua. Euskal gatazkaren historiaren kasuan, gaia ikasgeletan tabu dela pertzibitzen dute gazteek, besteak beste, eskolak ez duelako asmatu azken hamarkadotako garapen eta aldaketa sozialak termino historiografikoetan geletara eramaten: testu liburuek, oro har, frankismo amaierara arteko gertakariak baino ez dituzte jasotzen, eta horren ondorengoak

etikaren eta moralaren terminoetan kokatzen dituzte, sarritan 2001etik aurrerako nazioarteko terrorismoari buruzko diskurtsoen ildoan. Tesi hau idazteko uneraino, hezkuntza erakundeek ez dute lortu euskal testuinguruko biolentzia politikoa propio eta bere konplexutasunean tematizatzen duen material didaktikorik ikasgeletara hedatzerik.

Material falta honek euskarri diskurtsiboak ebasten dizkie bai ikasle eta baita irakasleei ere; azkenok eremu subjektibo, eta, beraz, kuestionagarritzat dute euskal gatazkaren historia. Bestalde, ez dugu identifikatu bakearen hezkuntzarako kulturarik Galtungek (Webel & Galtung, 2007) definitutako terminoetan, hau da: esperientzia eta iritzi ugaritasuna ikasgelan oro har kontsentsua edo bake soziala kolokan jar dezakeen arrisku gisara ikusten da, eskola-eremua eztabaida eta elkartruke osasuntsurako foro gisara ikusi ordez.

Nolanahi ere, hezkuntzako curriculumak, jasotzen dituen edukiengatik zein elipsatzen dituenengatik, eragin handia du gazteek ostera historiak eraikitzen dituzten diskurtsoetan, gazteek eurek aitortzen diotena baino gehiago. Alde batetik, gogoratzen dutenaren agenda neurri handi batean testu liburuetan *Historia* gisara ikasi dutenaren menpe dago; eta, bestetik, ziurtasun handia erakusten dute edukiok narratiboki erreproduzitzerako orduan, eskola curriculumari oinarri diskurtsibo sendo eta fidagarriaren rola aitortzen diotela erakutsiz.

Bestalde, hezkuntzak funtzio bikoitza betetzen du gazteen ikasketa politiko eta sozialen prozesuan: alde batetik, publikoki balioztatutako eta normatiboki ebaluatutako diskurtsoen transmisio formala sustatzen du; eta, bestetik, gazteen arteko zein irakasle eta hezkuntza komunitatearekiko harremanak eraikitzeko espazioa eskaintzen du. Bigarren transmisio mota hori oso garrantzitsua da euren testuinguru pribatuetan euskal gatazkaz hitz egiteko ohiturarik ez duten gazteentzat eta Euskal Herrira iritsi berriak direnentzat, sarritan bertan jasotzen dituztelako historiaren zati horri buruzko lehenbiziko erreferentzia eta esanahiak, gero bilaketa autonomoei bide eman diezaieketenak.

Hori esanda, gure ikerketan parte hartu duten gazteontzat ezohikoa da gaia bere horretan adinkideen artean tematizatzea; ez dute pertzibitzen euren inguruan sarritan aipatzen den auzi bat denik. Paradoxikoki, guztiz bestelako pertzepzioa dute gazte migratzaileek: haiek gaia oso present dagoela uste dute, eta euren inguruan maiz egiten zaizkiola eurentzat ezezagunak diren keinu eta erreferentziak. Ondoriozta genezake, beraz, bertan hazitako gazteek euskal gatazkarekin lotutako esanahi eta praktika ugari normalizatuta dauzkatela, eta, beraz, ikusezin zaizkiela euren egunerokotasunean.

Harreman pertsonalek osatutako esfera diskurtsibo pribatuagoetatik heldutako diskurtsoak, sarritan, lehian daude esfera publikoenetatik heldutakoekin. Komunikabideetan eta eremu politiko-instituzionalean, *errelatoaren batailak* hainbat adierazpen hartzen ditu. Alde batetik, gazteek sumatzen dute diskurtso zehatz batzuk oso eskuragarri dituztela Interneteko bilaketetan eta haiek promozionatzen dituzten hedabideetan: diskurtso hauek iraganeko biolentziaren (eta bereziki, ETaren indarkeriaren) ebaluazio moralarekin dute zerikusia, eta *terrorismo* terminoetan kokatzen dute euskal gatazka. Narratiba hauek batik bat politizatu gabeko gazteetara heltzeko gaitasuna duen *mainstream*-ean identifikatu dituzte, hau da, ikus-entzunezko kate publikoetan eta erreferentzia gisara espainiar markoa dutenetan. Terrorismoaren *frame*-a kuestiona dezaketen narratibak, aldiz, eskuragaitzagoak zaizkiela sentitzen dute gazteek:

ETAren biolentziaren motibazioei buruzko edukiak aktiboki bilatuta ere, haietara heltzeko zailtasunak dituzte.

Oro har, *esanezinaren eremuaren* kontzientzia argia dute gazteok: badakite zeintzuk diren agendatik at geratzen diren gai arantzatsuak eta zeintzuk diskurtso onartuak. Horrek are handiago bihurtzen du eztabaidatik at uzten diren auzien inguruko jakin-mina: gatazkaren arrazoiak ulertzeko desioa joera ideologikoez gaindi identifikatu dugun eskaera orokorra izan da.

Izan ere, euskal gatazka soilik bere adierazpen biolento esplizituagatik (eta, bereziki, aktore batek eragindakoagatik) definitzeak beste ondorio kaltegarri bat dakar: biktimatza soilik biolentzia fisikoaren ondorio larrienak sufritu dituztenak jotzen baditugu, herritar gehienek esperientzia baliogabetzat jotzen da gatazkaren lekukotza legitimo gisara. *Biolentzia* gisara soilik hilketak eta zauritze larriak ulertzen baditugu, kategoria horretatik at geratzen diren bizi esperientziak errelebantziarik gabekotzat hartuko dira. Gazteen kasuan, belaunaldi osoari ulertarazten zaio berea ez dela euskal gatazkarekin hertsiki lotutako esperientzia bat; ondorioz, urruntze bat antzematen da euren jarreretan. “Guk ez dugu gatazka bizi izan” da talde gisara eraikitzen duten narratiba bateratzailea. Hau da: euskal gatazkarekiko klabe negatiboan eraikitzen dute euren identitatea.

Honezkero argudiatu dugunez, baina, ez da egia gazteok ez dutenik euskal gatazka inolaz esperientzatu: harekin lotutako hainbat ezagutza dituzte, baina ez diete baliorik aitortzen. Horregatik, argudiatzen dugu euren testuinguru sozialean pertzibitzen duten legitimitate eta agentibitate faltaren terminoetan interpretatu behar dela ukatze hori, euren posizionamendu pertsonal eta kolektiboekin lotuta.

Gazteok zailtasunak dituzte euskal gatazkak euren bizitza pertsonaletan izan duen eragina identifikatzeko, hain zuzen ere haren eraginak kategoria oso murrizt batekin asoziatzen dituztelako, *biolentzia* kontzeptuarekin. Ondorioz, besteei dagokien arazotzat jotzen dute gatazka, eta haren memoriaren eraikuntza prozesutik kanporatuta sentitzen dira. Hau ideologia politikoa zeinahi delarik ere errepikatzen den patroia bat da: abertzale gisara identifikatzen ez diren gazteek abertzaleen eremutat dute gatazkaren memoriaren eraikuntza, eta familian presoak edo ETAko kide ohiak dituztenek ere ez dute sentitzen “espazio segururik” dutenik euren esperientziak modu irekian narratzeko.

Termino diskurtsibo-metaforikoetan, *besteren lurraldea* da euskal gatazka gazteontzat. Hierarkizazio argi bat antzeman daiteke gatazkaren esperientziak sailkatzeko orduan: gazteok sarritan “zeharkako” eta “zuzeneko” eragin baten artean bereizten dute, gatazkaren historiarekiko izan daitezkeen harreman motak ilustratzeko. Metaforizazio espazial batera joz, zuzenekotasun eta zeharkakotasun horrek gatazkaren inpaktua jasotzen duen *lehen lerro* baten eta *bigarren lerro* baten arteko muga irudikatzen du: lehenbizikoan leudeke aurreko belaunaldiak, gatazka zuzenean esperientzatu edo behatu zutenek, egiazkoagoa den ezagutzaren jabe direnak, eta, beraz, legitimitate handiagoa dutenak hari buruz mintzatzeko. Bigarren lerroan kokatzen dira, aldiz, gazteak: euren bigarren eskuko ezagutza bat da, beraz, ez hain legitimoa. Mugaren euren aldean ez daukate besteen begiradaren bidez ikusitakoaz hitz egiteko eskubiderik. Ezezagutza interakzio diskurtsiboan inplikatzeko legitimitate faltarekin lotzen da hartara zuzenki.

Beste era batera formulatuta, iraganari buruzko ezagutza ondasun baten terminoetan kontzeptualizatzen dute gure parte hartzaileetako batzuek: gurasoak eta aitona-amonak, hezkuntza sistema eta oro har, eskura dituzten diskurtso nagusiak eraikitzen dituzten belaunaldi helduagoak iraganari buruzko informazioaren jabetzat dituzte. Haiek ezarri dituzte euskal gatazkaren memoria den eztabaida sozial zabal horren oinarri eta arauak. Informazioa botere mota bat da testuinguru honetan, eztabaidaren arauotan sozializatua izatea lurralde diskurtsibo horretan mugitzeko tresnak eskuratzea baita. Hau da, iraganari buruzko ezagutza hari buruzko diskurtsoen eraikuntzan inplikatzeko legitimitatearekin lotuta dago zuzenki, eta hori migraziozko historia duten parte hartzaileen diskurtsoetan beha daiteke modu argiengan: komunitate epistemiko baten komunikazio-arau eta esperientzietarako sarbidea da eurentzat taldean txertatzeko bidea. Gazteei oro har euskal gatazkaren iraganari buruzko eztabaidarekin antzeko zerbait gertatzen zaie: ez dute sentitzen aski tresnarik dutenik (hau da, aski informazio eta portaera-araurik ezagutzen dituztenik) besteek eraikitako eremu diskurtsibo eta normatiboa trantsitatzeko. Horren adibide da euren diskurtsoetan identifikatu dugun ebaluazio moralaren nagusitasuna eta diskurtso zuzenak emateko sentitzen duten beharra: presio sozial handia pertzibitzen duten eremu diskurtsibo batean sartzeko *baimen eskaerak* dira.

Kontraesan horiek gainditzeko eta gaira hurbiltzeko irtenbide gisara, subjektuaren bikoizketa bat identifikatu ahal izan dugu gazteotako gehienek diskurtsoetan. Gatazkaren eragin indibidualak eta kolektiboak bereizita, gai dira taldearen posizioa hartuta euskal gatazkaren esperientziak *gogoratu* eta eurenak direla aintzat hartzeko. Beste era batera esanda, identitate kolektiboen eraikuntza bestela urrunegia zaien eremu diskurtsibo batera hurbiltzeko tresna bat da: gazteok interpelatuago sentitzen dira gutasunetik, nitasunetik baino.

Identitate kolektibo horien eraikuntza diskurtsiboak bi funtzio betetzen dituela behatu ahal izan dugu: alde batetik, norbanakoaren ardura lausotzea; eta, bestetik, taldearen barruko esanahi-sistema eta sinboloak berrindartzea eta birdefinitzea. Euskal Herriko gazteek gaur egun euskal gatazkarekiko duten harremana nagusiki sinbolikoa dela diogunean, hain zuzen ere, taldeak bere konbentziozko esanahi-sistemen bidez mediatzen duela esan nahi dugu; hau da, gazteek taldearen bidez topatzen dutela euren tokia gatazka historiko zabalean.

Tesi honetan, bi talde nortasun nagusi identifikatu ahal izan ditugu, *belaunaldi ardatzaren* inguruan eta *nazio ardatzaren* inguruan egituratutakoak. Lehenbizikoan, gorago deskribatu ditugun botere harreman kognitibo eta esperientzialek ezartzen dituzte *ingroup* eta *outgroup*-en arteko mugak, hau da: gazteak euren gurasoekiko eta, oro har, aurreko belaunaldiekiko posizionatzen dira. Nazio ardatzean, familiaren esperientziekiko lotura sinbolikoa mantentzen da: seme-alabak gurasoen esperientziez *jabetzen* dira, horrela gaiarekiko desidentifikazioa eta distantzia murriztuz, eta harekiko sentitzen duten bazterreko posizio soziala posizio agentiboago batengatik ordezkaturik.

Nortasun kolektibo honi lotura ematen dion diskurtso nagusietako bat euskal herritarren biktimizazio historikoaren narratiba da. Zehazki, argudia dezakegu frankismoko esperientzia kolektiboek ondorengo adierazpen gatazkatsu ugari interpretatzeko azpitemu historiko partekatu gisara operatzen jarraitzen dutela; esate baterako, gazteek euren bizialdian esperientziatzen dituzten aurreiritzietako asko, *euskaldun terroristaren*

irudiarekin zerikusia dutenak, euskal herritarrek iraganean Espainia frankistan sufritutako errepresio historikoaren marko horren terminoetan kokatzen dituzte hainbat hizlarik. Halaber, euren diskurtso ugari esperientzia horiek aintzat harturik edo haiei erantzunez osatzen dituzte. Marko honetan, ETak oraindik erreferentzia sinboliko garrantzitsu gisa operatzen jarraitzen du sektore sozial zabal batentzat, baita hura esplizituki babesten ez dutenen artean ere: iraganeko biktimizazio kolektibo baten aurrean gauzatutako erresistentzia baten narratiba gorpuzten jarraitzen du, narratiba hori ondoren hedatu den terrorismoaren *frame* globalagoarekin lehian dagoen arren.

Hortaz, sinpleegia litzateke gazteak diskurtso bakar baten eraginpean daudela esatea. Aitzitik, hainbat esfera diskurtsibo eta marko interpretatiboaldi berean bateratzeko eta haien arteko kontraesanak kudeatzeko gaitasuna dute, eta horretarako interpretazio eta bernarratibizazio lan aktiboa egiten dute memoriako diskurtsoak eraikitzen dituztenean.

Lakoff eta Johnson (1980), Wodak (2011, 2015) eta Welzer (2001, 2005) bezalako autoreek alde aurretik garatutako kontzeptuetan oinarrituta, gure ikerketako parte hartzaileek euren inguruko diskurtso anitzekin interaktuatzeko dituzten modu edo estrategia psikolinguistikoetako batzuk identifikatu ditugu tesi honetan. Hauen artean, bereziki iragan tabu edo ezezagunera hurbiltzeko eta, hartara, iragan kolektibo horri buruzko eztabaida sozialean parte hartzeko agentzia handitzeko erabilitako baliabide diskurtsiboan jarri dugu arreta.

Alde batetik, behatu ahal izan dugu metaforizazioak eta birsemantizazioak ez dutela soilik ezezagun edo konplexutzat pertzibitutako eremu diskurtsibo bat termino ulergarrietan planteatzeko bitarteko gisara operatzen: hari buruz zerbait esateko baliabidea ere badira. Hau da, iraganeko gatazka aurreko belaunaldiek ezarritako sistema kontzeptualetatik ateraz eta euren terminoetan birformulatuz, hartaz *jabetzen* dira gazteak, eta euren burua eztabaidan integratzen dute. Iragan kolektiboari sarritan ezarritako espaziozko metaforen bidez, esaterako, arazo politiko eta sozial konplexu bat kontzeptu ezagun baten terminoetan kondentsatzen dute, baina, aldi berean, eurak subjektu bihurtzeko ere erabiltzen dituzte metafora hauek: bilakaera historikoa espazio fisikoetatik barrena doan ibilbide gisara planteatuz, “euren bidea” bezalako irudiak sor ditzakete hitzez, subjektu gisara erreferentzia handiagoa ematen dietenak historia horren trantsizioan.

Funtzio bera betetzen du umorearen erabilerak ere. Alde batetik, gazteek iraganeko gatazka politiko eta armatuarekiko sentitzen duten distantzia emozionalaren sintoma argia dira hari buruz egiten dituzten txantxak eta trukutzen dituzten adierazpen ironikoak. Bestalde, baina, ezezagutzari eta tabuari aurre egiteko mekanismo bat izan daiteke umorea: ironiaren bidez, lengoia figuratuaren bidez bezala, ahoskatu gabe uzten dira partekatutzat emandako azpitemu implizitu asko. Hartara, gaiaren ezagutzaile gisara autoertratatu daitezke gazteak, kontsentsu soziala kuestiona dezaketen baieztapen ugari esplizitatu behar izan gabe.

Identifikatu ditugun beste metaforizazio mota batzuek euskal gatazkaren memoriaren eraikuntza diskurtsiboan interplatuta dagoen taldearen delimitazioarekin dute zerikusia: estrategia naturalizatzaileen artean identifikatu dugun *senide arteko tragediaren* topikoak, esaterako, iraganeko kalteen arduradunak seinlatu gabe uztea ahalbidetzen du, aldi berean gizarte osoa barne hartuz; gazteak, euren komunitateko loturengatik, interplatuta leudeke gatazkaren ulerkera honetan. Gerraren metaforak, aldiz, bi

norabidetan operatzen du: alde batetik, gazteek gatazka euren testuingurutik urruntzea dakar, ez dutelako euren bizialdian neurri horretako gatazka beliko batekin asoziatzen duten adierazpenik identifikatzen; baina bestetik, gerrak interpelatu dituen sektore sozial zabaletan euren burua txertatzeko balio dezake, subjektu kolektiboa nazio terminoetan eraikitzen denez gero.

Bestalde, iraganari buruzko eztabaidara hurbiltzeko identifikatu ahal izan ditugun beste mekanismoetako batzuk dira norberaren ezjakintasun posizioa azpimarratzen duten *baimen eskaerak*, modalizatzailer epistemikoen eta eufemismoen forman. Hartara, ezarritako arau diskurtsiboekin disonanteak izan daitezkeen ikuspegiak txerta ditzakete gazteek, ezarritako hierarkia sozialak hautsi gabe, hau da, euren sinesgarritasuna hain zuzen ere ezjakinaren posizio horretan oinarritzen dute, euren agentzia negoziatzeko abiapuntu gisara.

Welzerrek (2001) deskribatutako heroizazio kumulatiboa edo norbere familia historiako posizio onuragarriagoetan kokatzeko ahalegina ere identifikatu ahal izan dugu euskal kasuan. Heroizazio edo idealizazio hau norbere senideei egungo terminoen arabera jarraera bakezale bat erantsiz gertatzen da, haien ibilbide biografiko eta ideologikoei erreparatu gabe. Defendatzen dugu, dena den, irudi honek zerikusi zuzena duela gazteok gurasoen partetik jaso dituzten diskurtsoen izaera nagusiki normatibo eta moralarekin. Nolanahi ere, heroizazioa ez zaio soilik odolezko familiar ezartzen, baizik eta baita *ingroup* ideologiko zabalari ere. Hala, patroierrepikakorra da norbere taldearen iragana leuntzea: *ingroup*-ak kaltea eragin bazuen, *outgroup*-ak edo zirkunstantziak eraginda izan zen. Norbere taldea borondate oneko, baina testuinguruak bultzatutako gaitz-eragile gisara erretiratzen da hartara, bereziki ETA iraganeko erresistentziaren sinbolo partekatutzat duen komunitate epistemikoaren barruan. Zentzu horretan, Galtungek (2003) eta Lederachek (2007) deskribatutako gatazkaren ulerkera eta kategorizazioek neurri handi batean indarrean jarraitzen dute. Gure parte hartzaileen narratibetan, euren familia partikularra ez da sekula iragandako kalteen eragile gisara inplikaturik egon.

Azkenik, iraganari buruzko ezagutzak absente daudenean aktibatzen diren mekanismo psikolinguistikoetako batzuk identifikatu ahal izan ditugu. Zehazki, testuinguruaren eredu mentalek iraganari buruzko hutsune kognitiboen berreraikuntzan duten funtzioa frogatu ahal izan dugu, Euskal Herriko gazteek iragandako gatazkaz eraikitzen dituzten diskurtsoetan oinarrituta: hari buruzko informazio edo datu zehatzen faltarekin topo egin dutenean, alde aurretik eraikitako eskema kognitiboetara jo dute hutsuneak osatzeko. Emaizta, sarritan, egiazko gertakariekin inkoherentea den narratiba bat izan da, kasu batzuetan oroitzapenak *asmatzeraino*, baina hizlariaren posizionamendurekiko eta alde aurretiko ikasketekiko koherentea dena. Aurkikuntza honek memoriaren alderdi aktibo eta bernarratibizatzaileari buruzko ikuspegi argigarri bat eskaintzen digu, eta ulertarazten digu transmisio faltaren gainean ere memoriaren eraikuntza lan aktiboa egiten dutela gazteek, besteak beste, euren testuinguru diskurtsibo garaikideak eskaintzen dizkien markoak erabiliz.

6.2. IKERKETAREN EKARPENAK ETA INPLIKAZIO SOZIALAK

Tesi honetan, lehenbiziko aldiz ikertu da Euskal Herriko gazteek euskal gatazkaren memoriaren eraikuntzan duten inplikazioa eta parte hartze aktiboa diskurtsoaren analisi xehearen bidez. Haren bidez, ulertu dugu gazteak hainbat ezagutza motaren jabe direla,

eta haien gainean ari direla euren memoria eraikitzen, sozialki ezjakin eta desinteresatu gisara kategorizatuak izan diren arren. Memoriako diskurtso hasi berri hauek izango dira etorkizunean euskal gatazkari buruz indarrean egongo diren kontsentsu sozial batzuen oinarriak. Haien azpian dauden arrazonamenduak ezagutzea ezinbestekoa da gazteon pertzepzioak eta jarrerak ulertzeko. Haur eta nerabeei zuzendutako memoriako politikak diseinatzeko edozein ahalegin eraginkorragoa izango da adin talde horien ikuspegia aintzat hartzen duten analisiak txertatzen baditu. Hortaz, gure buruari galdetu behar diogu nolako erreperitorio diskurtsiboa eskaini nahi diegun gazteoi: iragan gatazkatsuaren konplexutasunari bizkarra ematen dion ikuspegi murriztaile bat, edota hartan eraikitako eskema mentalak transformatzeko tresnak eskaintzen dizkien *menu* diskurtsibo polifoniko bat.

Denok nahi ditugu iraganeko kalteekiko kritiko diren belaunaldi berriak, baina inork ez du nahi norbere taldearen inplikazioarekiko kritika argiegirik entzun. *Errelatoaren batailak* bestearen desakreditazio hori du oinarrian: iraganeko kaltea seinatuz eta hari oro har eragile bakarra atxikiz (*outgroup*-a), mintzakideak eztabaidatik at uztea du helburu. Iraganarekiko jarrera kritikoa sustatzeaz ari garenean, ordea, *kritika* iraganeko jokabideak moralki gaitzesteaz harago doa: haiek ulertzeko gauza izatea inplikatzeko du, haien aurrean posizio bat hartu eta biolentziarik inplikatzeko ez duten bestelako adierazpideetara egokitzeke.

Bakerako hezkuntzak (Cabezudo & Haavelsrud, 2007) hainbat lezio eskaintzen dizkigu horretarako: hezkuntza araututik askoz harago joan daitezkeen errespetuzko foroak sortuta, ahots aniztasuna bilatu eta baloratzea da elkarrizketa emankor baten abiapuntua. Horretarako, eztabaidan parte hartzeko legitimatuta sentiarazi behar dira ahal bezainbeste aktore sozial: euren esperientziak partekatzea baloratzen dela sentiarazi behar zaie, baita tribialentzat jotzen direnak ere. Memoriaren eraikuntza gizarte osoa barne biltzen duen eremu diskurtsibo edo negoziazio baten terminoetan ulertzen badugu, hartatik kanporatuak izan direnak (gure kasuan, gazteak) gonbidatuta senti daitezkeen bermatu behar du memoriako politika inklusibo batek, eta horretarako euren ahotsak baliozkotzat jo behar ditu.

6.3. IKERKETAREN MUGAK

Tesi honek, perspektiba global batetik begiratuta, auzi oso lokal bati erreparatu dio, baina egiaz oso zabala eta konplexua den arazo sozial batekiko hurbilpen konkretu bat planteatu du. Memoriaren eraikuntzan ahots polifonia ezinbestekoa den moduan, euskal gatazkaren bilakaera sinbolikoa ulertzeko ere diziplina eta analisi-maila askotako ikerketak bateratu beharko genituzke. Guk Diskurtsoaren Analisisitik egindako hurbilpen bat proposatu dugu, baina jakitun gara erabili dugun metodologiak hainbat muga dituela. Ahozko narratiben analisi diskurtsibo xeheak parte hartzaile zehatzen egitura kognitiboetako batzuetarako sarbidea ematen digun arren, lengoaiak ez dio uzten errealitate sozialarekin harremantzeko modu bat izateari: diskurtsiboki adierazten diren jarrera eta esanahiek ez dute zertan beti bat etorri pertsonen euren eguneroko interakzio sozialetan gorpuzten dituztenekin.

Horregatik, analisi honek muga gisara aintzat hartu beharko lituzke antolatutako elkarrizketen *artifizialtasuna* eta gazteen adierazpen linguistiko naturaletara iristeko zailtasunak. Muga hori gainditzeko izaera etnografikoko lan sakonago bat erantsi beharko

litzaioke, guk gazteekin igaro dugun baino denbora gehiago irauko lukeena; eta, hala eta guztiz ere, aski irisgaitzak liratekeen eremuak geratuko lirateke, esate baterako, etxeko elkarrizketa intimoak edota sare sozialetako interakzio pribatuak. Lehenbiziko hurbilpen honetan, beraz, gazteek harreman sozial horiei buruz eraikitzen dituzten kontakizunekin konformatu gara: uste dugu horiek ere aski informazio eskaintzen digutela euren pertzepzioak, esanahitze-prozesuak, eta, batez ere, ekoizpen diskurtsiborako baliabideetako batzuk ezagutzeko.

Ikerketaren beste muga bat, hain zuzen ere, diskurtso hauen izaera pertzeptiboan datza; hau, batez ere, gazteon inguruko mapa diskurtsiboaren eragina ezagutzerakoan izan da oztopo. Familiak, hezkuntzak edota komunikabideek gazteon eredu mentaletan izan dezaketen eragin erreala eurek kontzienteki pertzibitzen eta erreproduzitzen dutenaz bestelakoa izan daiteke, eta hori egiaztatzeko bestelako neurketa-sistemak beharko genituzke. Horregatik, uneoro argi utzi beharra daukagu gure kasuan gazteon pertzepzioetan oinarritutako diskurtsoak ari garelako ikertzen.

Bestalde, badira laginaren aukeraketan sortu zaizkigun zailtasun batzuk ere. Euskal Herriko aniztasun sozioekonomiko eta kulturalaren zati handi bat aintzat hartzen saiatu garen arren, kontziente gara ez garelako sektore guztietara iritsi. Ipar Euskal Herrian, esaterako, ez dugu frantses hiztun elebakarrik elkarrizketatu ahal izan, elkarrizketatzailearen beraren gaitasun linguistiko mugatua dela eta. Bestalde, gure parte hartzaile guztiak nola edo hala hezkuntza sisteman txertatutako gazteak izan dira: adingabeen kasuan, ikastetxeen bidez kontaktatu ditugulako; eta 18 urtetik gorako kasuan ere, guztiak izan dira unibertsitateko edo Lanbide Heziketako ikasleak. Hezkuntza sistematik at dauden gazteak, sarritan sektore sozioekonomiko baztertuenetakoak ere badirenak, ez ditugu ikerketa honetan parte hartzaile gisara izan, eta ez dugu uste udalerrien indize sozioekonomikoak aintzat harturik egin dugun laginaren planifikazioak hutsune hauek guztiz betetzen dituenik. Nolanahi ere, aintzat hartu behar da talde hau murrizta dela Hego Euskal Herrian: 14 eta 21 urte artekoen %13 baizik ez daude eskolaratu gabe; 14-19 urte artekoetan, %5¹².

Azkenik, talde nortasunen azterketari dagokionean, arreta eman dezake *euskal herritar* identifikazio-kategoriaren prominentziak. Espainiar (eta, parte hartzaile batzuen kasuan, frantziar) Estatuko marko erreferentzial, kultural eta politiko baten testuinguruan egonik, baliteke guk ezarritako ikerketa-markoak berak (*euskal gatazka* ikertu nahi izateak, alegia), gazteei euskal herritar gisara identifikatzea erraztu izana; ondorioz, posible da espainiartasun identitatearen adierazpenei behar baino gutxiago erreparatu izana tesi honetan. Aintzat hartu behar dugu identitate kolektibo hori, existitzeaz gain, zentzu askotan hegemonikoa ere badela, eta agian horregatik ez dela esplizitatzen gazteen diskurtsoetan.

6.4. ETORKIZUNERAKO IKERKETA ILDO POSIBLEAK

Ikerketa honetan planteatu dugun kezka akademikoa, hau da, euskal gizarteak iragan armatuaz egiten dituen interpretazioak eta harekiko agertzen dituen posizionamenduak, ez da belaunaldi zehatz honi soilik dagokion zerbait. Fenomeno hori aztertzeko hurbilketa diskurtsibo-historikoaren baliagarritasuna balioztatuz gero, bestelako belaunaldiekin

¹² Iturria: INE, Espainiako Estatistika Institutua.

erabiltzeko moduko ikerketa-metodotzat har daiteke, baita gatazka pertsonalki esperimentatu zuten belaunaldi geroz eta helduagoekin egindako elkarrizketetan ere. Hartara, belaunaldi arteko ikerketa konparatibo diakronikoak gauzatu ahalko dira etorkizunean, besteak beste, diskurtsook belaunaldiz belaunaldi nola aldatzen doazen jakiteko. Izan ere, gure elkarrizketatuetako batzuek ohartarazi diguten moduan, *Z belaunaldia* jada ez da esanahi historikoen hartzaile den azken katebegia: haietako batzuk irakasle dira dagoeneko, hau da, formalki transmisio-katean txertatuta daude jada.

Bestalde, ikerketa honek zabalik uzten du aldagai zehatzen arabera azterketak egiteko atea. Interesgarria litzateke, esaterako, ikastetxe motaren arabera transmisio-moduak ikertzea, edota Interneteko bilatzaileen emaitzak promozionatzen dituzten algoritmoek nola modulatu duten gai honi buruzko agenda mediatikoa. Halaber, beharrezkoa deritzogu gazteen produkzio diskurtsiboan identifika daitekeen genero arrakala ikertzeari, bai memorian iraun duten figura eta jardueren izaera ezagutzeko, eta baita memoriaren eraikuntza diskurtsiboan inplikatzeko legitimitatea genero harremanek nola zeharkatzen duten ulertzeko. Oraingoan, hedadura arrazoiengatik behar baino gutxiago heldu diogu galdera honi, baina etorkizunean arakatzeko eremu emankorra delakoan gaude.

Maila globalago batean, Memoria Ikasketen diziplinartekotasunean sakontzeko bidean urrats bat gehiago da tesi hau. Memoria Ikasketetako teoriak Diskurtsoaren Analisitik planteatutako kontzeptuekin lotuta, gogoratzearen alderdi narratiboan inplikaturik dauden mekanismo psikolinguistikoak identifikatzen jarraitzeko bidea zabaltzen du, esate baterako, ikerketa konparatiboagoetan mekanismook bestelako testuinguru geografiko eta politikoetan nola gauzatzen diren aztertuz.

Finean, inklusibitatearen galdera memoriaren eraikuntza diskurtsibora hedatzea da gure ikerketa gidatu duen motibazio motorra: nola bermatu komunitate bateko partaide guztiek, euren esperientzia partikularra zeinahi izanik ere, euren iragan kolektiboari buruzko eztabaidarako sarbidea izatea. Horretarako, historikoki eta globalki deskribatu diren ezintasun berberak identifikatu ditugu euskal kasuan ere: euren posizio sozialarekin lotutako lotsa, ustezko ezezagutza edota tabu soziala dira *hurrengo belaunaldiek* sumatzen dituzten traba nagusiak, guztiak ere gatazkaren alderdi sinboliko, diskurtsibo eta erlazionalarekin zerikusia duten elementuak. Dimentsio horiek ikusarazteak esanahitze-prozesu historikoen alderdi garrantzitsu bat ulertzen laguntzen digu: pertsonak euren iragana *irakurtzeko* eta interpretatzeko erabiltzen dituzten baliabide psikolinguistikoak eta kulturalak.

7. BIBLIOGRAFIA

- Adorno, T. W. (1998). *Prismen. Kulturkritik und Gesellschaft (1951): Vol. 10.1* (R. Tiedemann, Ed.). Wissenschaftliche Buchgesellschaft.
- Agirre, J. (1978). *Operación Ogro: Cómo y por qué ejecutamos a Carrero Blanco*. Hordago.
- Agirrezabal Moreno, A., & Intxusta Pagola, A. (2018). *Altsasu: el caso Alsasua*. Txalaparta.
- Aguilar, P. (2003). Institutional Legacies and Collective Memories: The Case of the Spanish Transition to Democracy. In J. K. Olick, J. Adams, & G. Steinmetz (Eds.), *Continuities, Conflicts, and Transformations in National Retrospection* (pp. 128–160). Duke University Press. <https://doi.org/doi:10.1515/9780822384687-007>
- Aizpeolea, L. R. (2013). *Los entresijos del final de ETA: un intento de recuperar la historia manipulada*. Los libros de la catarata.
- Aizpeolea, L. R. (2018, apirilak 16). La batalla por el relato de los años de plomo. *El País*.
- Albin, D. (2018a, urtarrilak 16). Euskadi se mantiene como el lugar con más presencia policial de la UE pese al fin de ETA. *Público*.
- Albin, D. (2018b, ekainak 28). La dispersión de presos de ETA, el invento de Felipe González que enterrará Pedro Sánchez. *Público.Es*.
- Albin, D. (2021, uztailak 7). El “Todo es ETA” de Aznar que llevó a la cárcel a periodistas y abogados se reactiva con nuevas acusaciones. *Público*.
- Alvarez Ortiz, A. (2020). *Erabakitzeke Eskubidea. XXI mendeko eskubide baten genesisia*. [Doktore-tesia]. UPV/EHU.
- Amezaga Albizu, J. (2009). Talde nortasunak eta komunikabideak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 72(3), 41–50.
- Annabell, T. (2022). ‘Sharing for the memories’: Contemporary conceptualizations of memories by young women. *Memory Studies*, 15(6), 1544–1556. <https://doi.org/10.1177/17506980221133729>
- Aramburu, F. (2016). *Patria*. Tusquets.
- Arana Arrieta, E., Mimenza Castillo, L., & Narbaiza Amillategi, B. (2016). Transmedia bizipenak egituratuz: “Tirabirak / Tiras que aflojan” proiektuaren kasua. *AusArt Journal for Research in Art*, 4(2), 93–112. <https://addi.ehu.es/handle/10810/45628>
- Arendt, H. (1953). *Mankind and Terror* (pp. 297–306). Schocken.
- Arendt, H. (1958). The Modern Concept of History. *The Review of Politics*, 20(4), 570–590.
- Armoudian, M. (2015). Constructing “the Others” During Conflict: How Journalism’s Norms and Structures Temper Extreme Portrayals. *The International Journal of Press/Politics*, 20(3), 360–381. <https://doi.org/10.1177/1940161215577450>

- Asociación de Víctimas del Terrorismo. (2018). Los niños del cementerio. In *avt.org*. <https://avt.org/es/n/1284/los-nios-del-cementebio>
- Assmann, A. (2009). From Collective Violence to a Common Future: Four Models of Dealing with a Traumatic Past. In R. Wodak & G. Auer Borea (Eds.), *Justice and Memory. Confronting traumatic pasts. An international comparison* (pp. 31–48). Passagen Verlag.
- Assmann, A. (2020). *Das neue Unbehagen an der Erinnerungskultur: Eine Intervention* (3rd ed.). Beck C. H.
- Assmann, J. (1988). *Kollektives Gedächtnis und kulturelle Identität* (J. Assmann & T. Hölscher, Eds.; pp. 9–19). Suhrkamp.
- Assmann, J. (1992). *Das kulturelle Gedächtnis. Schrift, Erinnerung und politische Identität in frühen Hochkulturen*. Beck.
- Assmann, J. (1999). Zeitkonstruktion und Gedächtnis als Basisfunktionen historischer Sinnbildung. In J. Rüsen (Ed.), *Westliches Geschichtsdenken: Eine interkulturelle Debatte* (pp. 81–98). Vandenhoeck & Ruprecht.
- Assmann, J. (2011). *Cultural Memory and Early Civilization: Writing, Remembrance, and Political Imagination*. Cambridge University Press. <https://doi.org/doi:10.1017/CBO9780511996306>
- Astington, J. W., & Olson, D. R. (1990). Metacognitive and Metalinguistic Language: Learning to Talk about Thought. *Applied Psychology: An International Review*, 39(1), 77–87. <https://doi.org/10.1111/j.1464-0597.1990.tb01038.x>
- Atutxa, I. (2011). La Construcción Discursiva del Terrorista Vasco. *452ºF. Revista Electrónica de Teoría de La Literatura y Literatura Comparada*, 5, 63–73.
- Austin, J. L. (1962). *How to do Things with Words*. Oxford University Press.
- Auxéméry, Y. (2021). Le traumatisme psychique constitue une blessure du langage par atteinte des réseaux de significations. *L'Évolution Psychiatrique*, 86. <https://doi.org/10.1016/j.evopsy.2020.09.004>
- Ayerbe, M., & Olaziregi, M. J. (2016). Yup lala! Carrero Blanco como lugar de memoria en la canción y literatura vascas: narraciones históricas y representaciones culturales. In *El atentado contra Carrero Blanco como lugar de (no-)memoria* (pp. 215–230). <https://doi.org/10.31819/9783954878598-011>
- Azurmendi, J. (1997). *Demokratak eta biolentoak*. Elkar.
- Bakhtin, M. (1979). *Estética de la creación verbal*. Siglo XXI.
- Bally, C. (1965). *Linguistique générale et linguistique française*. Franke.
- Bamberg, M. (1997). Positioning Between Structure and Performance. *Journal of Narrative and Life History*, 7, 335–342. <https://doi.org/10.1075/jnlh.7.42pos>
- Barandiaran Amillano, A. (2021). *Gurea falangista zen*. Susa.

- Barjola, N. (2018). *Microfísica sexista del poder*. Virus.
- Bauman, Z. (1988). Sociology after the Holocaust. *The British Journal of Sociology*, 39(4), 469–497. <https://doi.org/10.2307/590497>
- Bengoetxea, J. (2019). The unique Basque peace process: Linking Basque and European generations for global transitional justice. *Oñati Socio-Legal Series*, 10(3), 584–615. <https://opo.iisj.net/index.php/osls/article/view/1173>
- Benjamin, W. (1980). *Über den Begriff der Geschichte* (Vol. 1, pp. 691–704). Suhrkamp.
- Benveniste, É. (1978). De la subjetividad en el lenguaje. In *El hombre en la lengua* (pp. 179–188). Siglo Veintiuno.
- Benwell, B., & Stokoe, E. (2006). *Discourse and Identity*. Edinburgh University Press.
- Berger, J. (2000). *Modos de ver*. Gustavo Gili.
- Berger, P. L., & Luckmann, T. (1966). *The Social Construction of Reality: A Treatise in the Sociology of Knowledge*. Penguin Books.
- Bernecker, W. L. (2009). Dealing with the Past in Spain: Between Amnesia and Collective Memory. In R. Wodak & G. Auer Borea (Eds.), *Justice and Memory. Confronting traumatic pasts. An international comparison* (pp. 123–146). Passagen Verlag.
- BerriaTB. (2021, October 23). *Laba, “Oso latza izan da” solasaldia*. Berria. <https://www.berria.eus/berriatb/bilduma/azken-bideoak/5543/>
- Biber, D., & Finegan, E. (1989). Styles of Stance in English: Lexical and Grammatical Marking of Evidentiality and Affect. *Text*, 9, 93–124. <http://dx.doi.org/10.1515/text.1.1989.9.1.93>
- Bietti, L. M. (2011). Joint remembering: Cognition, communication and interaction in processes of memory-making. *Memory Studies*, 5(2), 182–205. <https://doi.org/10.1177/1750698011404986>
- Bilgune Feminista. (2015). *Hau ez da gure bakea*. Pikara Magazine.
- Blanco, M. (2012). ¿Autobiografía o autoetnografía? *Desacatos: Revista de Ciencias Sociales*, 38, 169–178.
- Bloom, S. (2010). Bridging the black hole of trauma: the evolutionary significance of the arts. *Psychotherapy and Politics International*, 8, 198–212. <https://doi.org/10.1002/ppi.223>
- Bodnar, J. (1992). *Remaking America: Public memory, commemoration, and patriotism in the twentieth century*. Princeton University Press.
- Bourdieu, P. (1986). *The Forms of Capital*. Greenwood Press.
- Bourdieu, P., & Eagleton, T. (2000). Doxa y vida ordinaria. In *New Left Review* (Vol. 0, Issue Ejemplar dedicado a: Pensamiento crítico contra la dominación, pp. 219–231).

- Bucholtz, M., & Hall, K. (2005). Identity and Interaction: A Sociocultural Linguistic Approach. *Discourse Studies*, 7, 585–614. <https://doi.org/10.1177/1461445605054407>
- Burke, P. (1997). *History as Social Memory* (pp. 43–59). Cornell University Press.
- Cabezudo, A., & Haavelsrud, M. (2007). *Rethinking peace education* (pp. 279–296). Routledge.
- Calsamiglia, H., & Tusón, A. (2012). *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso* (3ª). Editorial Planeta.
- Caruth, C. (1995). *Trauma: Explorations in Memory*. The John Hopkins University Press.
- Castells, L., & Rivera, A. (2021). Políticas de memoria de la violencia terrorista. Cuando el pasado no lo es. In R. Leonisio, F. Molina Aparicio, & D. Muro (Eds.), *ETA. Terror y terrorismo*. Marcial Pons, Ediciones de Historia.
- Castro Seixas, E. (2021). War Metaphors in Political Communication on Covid-19. *Frontiers in Sociology*, 5. <https://doi.org/10.3389/fsoc.2020.583680>
- Charaudeau, P. (2009). Análisis del discurso e interdisciplinariedad en las ciencias humanas y sociales. In L. Puig (Ed.), *El discurso y sus espejos* (pp. 99–133). Universidad Autónoma de México.
- Cobeaga, B. (2017). *Fe de etarras*. Netflix.
- Conseil de l'Europe. (2018). *Affaire Portu Juanenea et Sarasola Yarzabal c. Espagne (Requête no 1653/13)*.
- Crespo-Fernández, E. (2021). Metaphors Used to Communicate the Coronavirus State of Emergency in the United Kingdom and Spain: A Contrastive Analysis. *Miscelánea: A Journal of English and American Studies*, 64. https://doi.org/10.26754/ojs_misc/mj.20216050
- Dascal, M. (2003). Identities in Flux: Arabs and Jews in Israel. In G. Weiss & R. Wodak (Eds.), *Critical Discourse Analysis: Theory and Interdisciplinarity* (pp. 150–166). Palgrave Macmillan UK. https://doi.org/10.1057/9780230514560_8
- Das, E., Bushman, B. J., Bezemer, M. D., Kerkhof, P., & Vermeulen, I. E. (2009). How terrorism news reports increase prejudice against outgroups: A terror management account. *Journal of Experimental Social Psychology*, 45(3), 453–459. <https://doi.org/10.1016/j.jesp.2008.12.001>
- Das, V. (2008). *La antropología del dolor* (pp. 409–436). Pontificia Universidad Javeriana y Universidad Nacional de Colombia.
- Davies, B. (2000). Grice's cooperative principle: Getting the meaning across. *Leeds Working Papers in Linguistics and Phonetics*, 8, 1–26.
- Davies, B., & Harré, R. (1990). Positioning: The Discursive Production of Selves. *Journal for the Theory Of Social Behaviour*, 20(1), 43–63. <https://doi.org/10.1111/j.1468-5914.1990.tb00174.x>

- Davies, B., & Harré, R. (1999). Positioning and Personhood. In R. Harré & L. van Langenhove (Eds.), *Positioning Theory: Moral Contexts of Intentional Action* (pp. 32–52). Blackwell.
- Dávila Balsera, P., & Amezaga Albizu, J. (2003). Juventud, identidad y cultura: el Rock Radical Vasco en la década de los 80. *Historia de la Educación: Revista Interuniversitaria*, 22–23, 213–231.
- De Cilia, R., Reisigl, M., & Wodak, R. (1999). The Discursive Construction of National Identities. *Discourse & Society*, 10(2), 149–173. <http://das.sagepub.com/content/10/2/149>
- De Fina, A. (2006). Group identity, narrative and self-representations. In A. De Fina, D. Schiffrin, & M. Bamberg (Eds.), *Discourse and Identity* (pp. 351–375). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511584459.018>
- De Fina, A. (2015). Narrative and Identities. In A. De Fina & A. Georgakopoulou (Eds.), *The Handbook of Narrative Analysis* (pp. 351–368). Wiley Blackwell. <https://doi.org/10.1002/9781118458204.ch18>
- Der Spiegel. (1986, irailak 14). Verschwiegene Enteignung. *Der Spiegel*, 38.
- Devine, P., & Schubotz, D. (2010). “Caught up in the past”? The views of 16-year olds on community relations in Northern Ireland. *Shared Space*, 10, 5–22.
- Durkheim, É. (1995). *The Elementary Forms of the Religious Life*. The Free Press.
- Dutceac Segesten, A., & Wüstenberg, J. (2016). Memory studies: The state of an emergent field. *Memory Studies*, 10(4), 474–489. <https://doi.org/10.1177/1750698016655394>
- Dyrstad, K., & Hillesund, S. (2020). Explaining Support for Political Violence: Grievance and Perceived Opportunity. *Journal of Conflict Resolution*, 1–30. <https://doi.org/10.1177/0022002720909886>
- Echterhoff, G., & Kopietz, R. (2018). *The Socially Shared Nature of Memory: From Joint Encoding to Communication* (M. L. Meade, C. B. Harris, P. Van Bergen, J. Sutton, & A. Barnier, Eds.; pp. 113–134). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oso/9780198737865.003.0007>
- EITB. (2018, June 27). *Audientzia datu bikainekin agurtu du denboraldia “Ur Handitan” saioak*. Eitb.eus.
- Elejabarrieta Diaz, G. (2015). From freedom fighters to terrorists and back again: the Basque case. In I. Tellidis & H. Toros (Eds.), *Researching Terrorism, Peace and Conflict Studies: Interaction, Synthesis and Opposition* (1st ed., pp. 146–164). Routledge.
- El Español. (2018, urtarrilak 10). Un documental emitido en la ETB usa a los hijos de etarras para “blanquear” a la organización terrorista. *El Español Navarra*.

- Elzo Imaz, F. J. (1987). *Una lectura de la juventud vasca (y aspectos comparativos con los estudiantes de Deusto). Lección inaugural del curso académico 1987-1988*. Universidad de Deusto - Deustuko Unibertsitatea.
- Elzo, J., & Arrieta, F. (2005). Historia y sociología de los movimientos juveniles encuadrados en el MLNV. *Ayer*, 59(3), 173–197.
- Erll, A. (2010). Literature, Film, and the Mediality of Cultural Memory. In A. Erll & A. Nünning (Eds.), *An International and Interdisciplinary Handbook* (pp. 389–398). De Gruyter. <https://doi.org/doi:10.1515/9783110207262.6.389>
- Erll, A. (2011). Locating Family in Cultural Memory Studies. *Journal of Comparative Family Studies*, 42(3), 303–318. <https://doi.org/https://doi.org/10.3138/jcfs.42.3.303>
- Erll, A. (2017). *Kollektives Gedächtnis und Erinnerungskulturen: Eine Einführung* (3rd ed.). J.B. Metzler.
- Ernai. (2021, urtarrilak 2). *Gazteok zuekin. Askatasuna. Konpromisoa. Elkartasuna. Maitasuna*. Ernai.eus.
- Eser, P., & Peters, S. (2016). El atentado contra Carrero Blanco como lugar de (no-)memoria. In P. Eser & S. Peters (Eds.), *narraciones históricas y representaciones culturales*. Vervuert Verlagsgesellschaft. <https://doi.org/doi:10.31819/9783954878598>
- Esnaola, E. (2017). Herri urrats bat bake prozesurako. *Berria* (pp. 2–3).
- Esnaola Karrera, E. (2017). *Luhuso. ETAren armagabetze zibilaren kontakizuna*. Elkar.
- Etxeberria, F., Martín Beristain, C., & Pego, L. (2017). *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960 y 2014*.
- Etxerat. (2020). *2020ko urtekaria*.
- Etxerat. (2021). *2021eko urtekaria*.
- Europa Press. (2006, abenduak 31). ETA.- Todos los heridos del atentado en la T4 han sido dados de alta. *Europapress.es*
- Euskadi Ta Askatasuna. (2010). Euskadi Ta Askatasunaren agiria Euskal Herriari. *Gara*.
- Euskadi Ta Askatasuna (2018). ETAk Euskal Herriari: eragindako kalteari buruzko adierazpena. *Gara*.
- Fairclough, N. (2001). Critical Discourse Analysis. In A. McHoul & M. Rapley (Eds.), *How to analyse talk in institutional settings: a casebook of methods* (pp. 25–38). Continuum.
- Feldman, J. (2017). *Memorylands: Heritage and Identity in Europe Today*. Sharon Macdonald. London: Routledge, 2013. 320 pp. *American Ethnologist*, 44, 145–146. <https://doi.org/10.1111/amet.12434>

- Felman, S., & Laub, D. (1992). *Testimony: Crises of Witnessing in Literature, Psychoanalysis, and History*. Routledge.
- Fernández Iriondo, J. (2022, azaroak 17). Lurralde-identitateen erreproduzio hutsala derrigorrezko hezkuntzan: testuliburuak aztergai. *Subiranotasuna(k) Aztergai Kongresua (IIIth Conference on Nationalism)*.
- Ferrándiz, F. (2009). Fosas comunes, paisajes del terror. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, LXIV(1), 61–94. <https://doi.org/10.3989/rdtp.2009.029>
- Ferrándiz, F. (2011). Autopsia social de un subterro. *Isegoria*, 45, 525–544. <https://doi.org/10.3989/isegoria.2011.i45.741>
- Ferreira, M. (2019, August 2). La central nuclear de Lemoiz, el proyecto que puso a la sociedad vasca entre la espada de ETA y la pared del Estado. *Eldiario.es*.
- Fischer, D. (2007). Peace as a Self-Regulating Process. In C. Webel & J. Galtung (Eds.), *Handbook of Peace and Conflict Studies* (pp. 187–209). Routledge.
- Fivush, R. (2010). Speaking silence: The social construction of silence in autobiographical and cultural narratives. *Memory*, 18(2), 88–98. <https://doi.org/10.1080/09658210903029404>
- Formula TV. (2015, maiatzak 11). *Antena 3 firma un 15,9% con la derrota de Rafa Nadal ante Andy Murray en el Madrid Open*. *Formulatv.com*.
- Foucault, M. (1972). *The Archaeology of Knowledge* (Classics). Routledge.
- Foucault, M. (1992). *Microfísica del poder*. La Piqueta.
- Foucault, M. (2005). *El orden del discurso*. Tusquets.
- Friedländer, S. (1992). *Probing the Limits of Representation: Nazism and the “final Solution.”* Harvard University Press.
- Gaindegia. (2020). *Biztanleria sexua eta adinaren arabera*.
- Galardi Fernandez de Agirre, M. (2021). “¿Abrir el melón para cerrar las heridas?”. Reflexión metodológica sobre cómo abordar temas de conflictos armados desde una perspectiva feminista e investigación participativa. *XV Congreso Español de Ciencia Política y de la Administración*, 1–15.
- Galdeano, K. (2012). *Todas las verdades: eje de la convivencia democrática*. Universitat de Barcelona Publicacions i Edicions.
- Galtung, J. (1996). *Peace by peaceful means. Peace and Conflict, Development and Civilization*. Sage.
- Galtung, J. (2003). Violencia cultural. *Gernika Gogoratu*, 14.
- Galtung, J. (2006). Theoretical Challenges of Peace Building with and for Youth: A Short Story from Post-Accord Europe. In S. McEvoy-Levy (Ed.), *Troublemakers or Peacemakers? Youth and Post-Accord Peace Building* (pp. 259–279). University of Notre Dame Press.

- Galtung, J., & Fischer, D. (2013). *Johan Galtung. Pioneer of Peace Research* (Vol. 5). Springer.
- Gandarias Goikoetxea, I. (2017). ¿Un neologismo a la moda?: Repensar la interseccionalidad como herramienta para la articulación política feminista. *Investigaciones Feministas*, 8(1), 73–93. <https://doi.org/10.5209/INFE.54498>
- Gara. (2009). *Atxiloketak 2008*. <https://gara.naiz.eus/gaiak/atxiloketak/index2008.php>
- García González, A. (2019). Desde el conflicto: epistemología y política en las etnografías feministas. *Antípoda. Revista de Antropología y Arqueología*, 35, 3–21. <https://doi.org/10.7440/antipoda35.2019.01>
- Garmendia, H. (2015). Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura. *Jakin*, 208.
- Gatti, G. (2016). El misterioso encanto de las víctimas. *Revista de Estudios Sociales*, 56, 117–120. <https://doi.org/10.7440/res56.2016.09>
- GazteAukera. (2009). *2008an atxilotutakoen ia erdia 30 urtetik beherakoa da*.
- Geeraerts, D., & Cuyckens, H. (2010). Introducing Cognitive Linguistics. In D. Geeraerts & H. Cuyckens (Eds.), *The Oxford Handbook of Cognitive Linguistics* (pp. 1–21). Oxford University Press.
- Gil Grande, R. (2022, uztailak 10). *Miguel Ángel Blanco y el espíritu de Ermua: cuando la sociedad acorraló a ETA en las calles y dijo “Basta ya.”* RTVE.
- Gil, L. (2018, urtarrilak 10). Covite carga contra EITB por un documental sobre hijos de presos de ETA. *El Diario Vasco*.
- Giró, X. (2007). Enfoques analíticos críticos sobre el discurso de la cobertura informativa de conflictos. In T. Telleschi & E. A. Sandoval Forero (Eds.), *Espacio y tiempo en la globalización. Una visión de la transparencia en la información*. Universita’ di Pisa y Comisión Estatal para el Acceso a la Información Pública del Estado de Sinaloa.
- Goenaga, E. (2013). *GAL 30 urte* (E. Goenaga, Ed.). Elkar.
- Goffman, E. (1974). *Frame Analysis: An Essay on the Organization of Experience*. Harvard University Press.
- Gogora, M. B. eta G. E. I. (2019). *ETAren armagabetzean eta desegitean Eusko Jaurlaritzak egindakoaren deskribapena eta balorazioa*.
- Goikoetxea, G. (2019). Liskar politikoen eraginez eten dute eskoletan indarkeria lantzeko plana. In *Berria* (pp. 2–3).
- González, M., Roseano, P., Borràs-Comes, J., & Prieto, P. (2017). Epistemic and evidential marking in discourse: Effects of register and debatability. *Lingua*, 186–187, 68–87. <https://doi.org/10.1016/j.lingua.2014.11.008>
- Graumann, C.-F., & Wintermantel, M. (2015). *Diskriminierende Sprechakte. Ein funktionaler Ansatz* (S. K. Herrmann, S. Krämer, & H. Kuch, Eds.; pp. 147–178). transcript Verlag. <https://doi.org/doi:10.1515/9783839405659-006>

- Greco, L., & Mondada, L. (2014). *Identités en interaction: une approche multidimensionnelle*. Lambert Lucas.
- Green, S. T., Kondor, K., & Kidd, A. (2020). Story-telling as memorialisation: Suffering, resilience and victim identities. *Oñati Socio-Legal Series*, 10(3), 535–543. <https://doi.org/10.35295/osls.iisl/0000-0000-0000-1122>
- Grice, H. P. (1975). Logic and Conversation. In P. Cole & J. L. Morgan (Eds.), *Syntax and Semantics, Volume 3: Speech Acts*. Academic Press.
- Gumperz, J. J. (1982). *Discourse strategies*. Cambridge University Press.
- Habermas, J. (1986). Vom öffentlichen Gebrauch der Historie. *Die Zeit*.
- Hackett, C., & Rolston, B. (2009). The burden of memory: Victims, storytelling and resistance in Northern Ireland. *Memory Studies*, 2(3), 355–376. <https://doi.org/10.1177/1750698008337560>
- Halbwachs, M. (2004a). *La memoria colectiva*. Prensas Universitarias Zaragoza.
- Halbwachs, M. (2004b). *Los marcos sociales de la memoria*. Anthropos.
- Halliday, M. A. K., & Matthiessen, C. M. I. M. (2004). *An Introduction to Functional Grammar*. Hodder Arnold.
- Hammersley, M., & Atkinson, P. (1994). *Etnografía. Métodos de investigación*. (2nd ed.). Paidós.
- Hart, C. (2015). *Discourse* (E. Dabrowska & D. Divjak, Eds.; Vol. 39, pp. 322–364). Mouton de Gruyler.
- Heath-Kelly, C., & Fernández de Mosteyrín, L. (2021). The political use of victimhood: Spanish collective memory of ETA through the war on terror paradigm. *Review of International Studies*, 47(1), 1–18. <https://doi.org/10.1017/S0260210520000182>
- Hirsch, M. (2012). *The Generation of Postmemory: Writing and Visual Culture After the Holocaust*. Columbia University Press.
- Hirsch, M., & Smith, V. (2002). Feminism and Cultural Memory: An Introduction. *Signs*, 28, 1–19. <https://doi.org/10.1086/340890>
- Hirszowicz, M., Neyman, E., & Kosicki, P. H. (2007). The Social Framing of Non-Memory. *International Journal of Sociology*, 37(1), 74–88. <http://www.jstor.org/stable/20628286>
- Hirzalla, F., & Van Zoonen, L. (2017). Media Effects: Methods of Critical Audience Studies. In P. Rössler, C. A. Hoffner, & L. Van Zoonen (Eds.), *The International Encyclopedia of Media Effects*. John Wiley & Sons. <https://doi.org/10.1002/9781118783764.wbieme0218>
- Holm, N. (2017). *Humour as Politics: The Political Aesthetics of Contemporary Comedy* (1st ed.). Palgrave Macmillan.

- Holquist, M. (Ed.). (1982). *The Dialogic Imagination: Four Essays By M. M. Bakhtin*. University of Texas Press.
- Hoondert, M. J. M., & Varona Martínez, G. (2020). Introduction. Practices of Memorialization and the Process of Social Reconstruction. *Oñati Socio-Legal Series*, 10(3), 535–543. <https://doi.org/10.35295/osls.iisl/0000-0000-0000-1120>
- Hoye, L. (2008). Evidentiality in discourse: A pragmatic and empirical account. *Pragmatics and Corpus Linguistics: A Mutualistic Entente*, 151–174. <https://doi.org/10.1515/9783110199024.151>
- Husserl, E. (2008). *Die Lebenswelt. Auslegungen der vorgegebenen Welt und ihrer Konstitution. Texte aus dem Nachlass (1916-1937)* (Vol. 39). Springer; Dordrecht.
- Huyssen, A. (1995). *Twilight Memories: Marking Time in a Culture of Amnesia*. Routledge.
- Hymes, D. (1974). *Foundations in Sociolinguistics: An Ethnographic Approach*. Routledge.
- Ibarra Güell, P. (2017). Logros y retos en el proceso de paz del País Vasco. *Policy Paper*, 15, 1–5.
- Idoiaga, P., & Ramírez de la Piscina Martínez, T. (2002). *Al filo de la (in)comunicación: prensa y conflicto vasco*. Fundamentos.
- Ifantidou, E. (1994). *Evidentials and relevance* [PhD Thesis]. University of London.
- Ife, J. (2007). Human rights and peace. In C. Webel & J. Galtung (Eds.), *Handbook of Peace and Conflict Studies* (pp. 160–172). Routledge.
- Iqbal, M. (2022, azaroak 11). *TikTok Revenue and Usage Statistics (2022)*. Business of Apps.
- Irazuzta, I., Rodríguez Maeso, S., & Villalón, A. M. (2017). ‘Victims as Educators’: Sentimental Education in a Peace-Building Context. *Journal of Human Rights Practice*, 9(1), 50–67. <https://doi.org/10.1093/jhuman/hux004>
- Iruretagoiena, H. (2016, otsailak 19). Herri harresiak, erdigunetik. *Berria.eus*
- IVAC/KREI. (2022). *Investigación sobre la tortura y otros malos tratos en Navarra desde 1979 a la actualidad*.
- Jäger, M. (2004). *Diskursanalyse: Ein Verfahren zur kritischen Rekonstruktion von Machtbeziehungen*. Verlag für Sozialwissenschaften.
- Jakubowski, J. (2021). Political socialization in meme times: Adolescents and the sources of knowledge concerning politics. *Review of Education, Pedagogy, and Cultural Studies*, 43(3), 254–274. <https://doi.org/10.1080/10714413.2021.1872315>
- Juliano, D. (2017). *Tomar la palabra: mujer, discursos y silencios*. Edicions Bellaterra.
- Kirmayer, L. J. (1996). *Landscapes of Memory: Trauma, Narrative, and Dissociation* (P. Antze & M. Lambek, Eds.; pp. 173–198). Routledge.

- Kligler-Vilenchik, N., Tsfati, Y., & Meyers, O. (2014). Setting the collective memory agenda: Examining mainstream media influence on individuals' perceptions of the past. *Memory Studies*, 7(4), 484–499. <https://doi.org/10.1177/1750698014523443>
- Krause, P., Gustafson, D., Theriault, J., & Young, L. (2022). Knowing is Half the Battle: How Education Decreases the Fear of Terrorism. *Journal of Conflict Resolution*, 66(7-8), 1147-1173. <https://doi.org/10.1177/002200272211079648>
- Lakoff, G., & Johnson, M. (1980). *Metaphors we live by (Metáforas de la vida cotidiana)*. University of Chicago (Cátedra).
- Landsberg, A. (2003). *Prosthetic memory:; the ethics and politics of memory in an age of mass culture* (P. Grainge, Ed.; pp. 144–161). Manchester University Press. <http://www.jstor.org/stable/j.ctt155jfm0.12>
- Larrinaga, A., & Amurrio, M. (2022). Legacy and Rupture: The Political Learning of Young Left-wing Basque Nationalists in the Post-ETA Period. *YOUNG*, 31(1), 22-37. <https://doi.org/10.1177/11033088221111216>
- Larrinaga, J. (2015). Musikak gatazka islatu edota performatu, gatazkak musika ito. *Jakin*, 209, 35–52.
- Larrinaga Renteria, A., Zabalo Bilbao, J., Epelde Juaristi, M., Iraola Arretxe, I., Odriozola Irizar, O., & Amurrio Velez, M. (2020). *Parte hartu ala paso egin? Gazteen ikasketa politikoak aztergai*.
- Larrinaga Renteria, A., Iraola Arretxe, I., Odriozola Irizar, O., Amurrio Velez, M., Zabalo Bilbao, J., & Epelde Juaristi, M. (2021). Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai. *Jakin*, 243, 11–65.
- Lederach, J. P. (1998). *Construyendo la paz: Reconciliación sostenible en sociedades divididas*. Bakeaz / Gernika Gogoratzuz.
- Lederach, J. P. (2007). *La imaginación moral. El arte y el alma de la construcción de la paz*. Bakeaz. Gernika Gogoratzuz.
- Leipold, S., & Winkel, G. (2017). Discursive Agency: (Re-)Conceptualizing Actors and Practices in the Analysis of Discursive Policymaking. *The Policy Studies Journal*, 45(3), 510–534. <https://doi.org/10.1111/psj.12172>
- Leizaola, A. (2007). La mémoire de la guerre civile espagnole : le poids du silence. *Ethnologie Française*, 3(37), 483–491. <https://doi.org/10.3917/ethn.073.0483>
- Leizaola, A. (2010). *Memoria historikoaren berreskurapena eta gertakari traumatikoen transmisioaren erronkak. Gerra Zibileko lekukotza-bilketarako ohar metodologikoak* (pp. 349–378). Udako Euskal Unibertsitatea.
- Lemke, J. L. (1995). *Textual politics: Discourse and Social Dynamics* (1st ed.). Taylor & Francis Ltd.
- Libertad Digital. (2018, January 10). Covite acusa a EiTB de ponerse al servicio del blanqueamiento de ETA. *Libertaddigital.com*.

- Li, J., Dijkstra, K., & Zwaan, R. (2022). The use of direct and indirect speech across psychological distance. *Memory & Cognition*, 1–11. <https://doi.org/10.3758/s13421-021-01267-x>
- Lobato, R. M., Ruipérez, J., & Marrero, I. (2022). Strategies for Preventing Radicalisation: An Insight from Practitioners' Point of View. *Journal of Peacebuilding & Development*, 17(2), 173-193. <https://doi.org/10.1177/15423166221093923>
- Lopez Adan, E. (2012). *ETAren estrategia armatuaren historiaz*. Maiatz.
- Lopez Adan, E. (2021a). *Borroka armatua Euskadin 1967-2011. Bigarren liburukia 1981-1990* (Vol. 3). Maiatz.
- Lopez Adan, E. (2021b). *Borroka armatua Euskadin 1967-2011. Hirugarren liburukia 1991-2011* (Vol. 3). Maiatz.
- López Romo, R. (2021). ¿Libertad para investigar? El mundo académico ante el terrorismo vasco. *RIET (Revista Internacional de Estudios Sobre Terrorismo)*, 4, 28–44.
- Lotman, I. M. (1993). La semiótica de la cultura y el concepto de texto. *Escritos, Revista Del Centro de Ciencias Del Lenguaje*, 9, 15–20.
- Lowenthal, D. (1998). *El pasado es un país extraño*. Akal.
- Macdonald, S. (2013). *Memorylands: Heritage and Identity in Europe Today*. Routledge.
- Majuelo Gil, E. (2020a). El historiador ante el pasado vasco (no tan) reciente. *Segle XX, Revista Catalana d'història*, 13, 283–296. <https://doi.org/10.1344/segleXX2020.13.14>
- Majuelo Gil, E. (2020b). El historiador ante el pasado vasco (no tan) reciente (II). *Segle XX, Revista Catalana d'història*, 0(13), 310–318. <https://doi.org/10.1344/segleXX2020.13.16>
- Malo, P. (2014). *Lasa eta Zabala*. Abra Producciones.
- Marín-Arrese, J. I. (2011). Epistemic legitimizing strategies, commitment and accountability in discourse. *Discourse Studies*, 13(6), 789–797. <https://doi.org/10.1177/1461445611421360c>
- Martinez, J. (2014). *Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak*. Elkar.
- Martínez Martínez, J. (2015). Ispilu hautsiaren memoria. *Jakin*, 209, 69–82.
- Martínez, M. V. (2018). Memoria, Historia, Relato: contar los años de ETA según Patria, de Fernando Aramburu. *RECIAL: Revista Del Centro de Investigaciones de La Facultad de Filosofía y Humanidades, Áreas Letras*, 9(13). <https://doi.org/10.53971/2718.658x.v9.n13.21023>
- Martin, J. R. (2003). Voicing the 'Other': Reading and Writing Indigenous Australians. In G. Weiss & R. Wodak (Eds.), *Critical Discourse Analysis: Theory and*

Interdisciplinarity (pp. 199–219). Palgrave Macmillan UK.
https://doi.org/10.1057/9780230288423_10

- Martin, J. R., & White, P. R. R. (2005). *The Language of Evaluation: Appraisal in English*. Palgrave Macmillan.
- Mateos, A. (2018, urtarrilak 10). Críticas a EiTB por poner su programación «al servicio del blanqueamiento de ETA». *ABC*.
- McCormick, L. (2020). Marking time in lockdown: heroization and ritualization in the UK during the coronavirus pandemic. *American Journal of Cultural Sociology*, 8(3), 324–351. <https://doi.org/10.1057/s41290-020-00117-8>
- McEvoy-Levy, S. (2006). *Troublemakers or Peacemakers? Youth and Post-Accord Peace Building*. University of Notre Dame Press.
- Mees, L. (2022). Die Ausfahrt aus dem Labyrinth: Nationalismus, Gewalt und Erinnerung im Baskenland (2005-2021). In C. Collado-Seidel (Ed.), *Spanien heute: Politik, Wirtschaft, Kultur* (pp. 131–167). Iberoamericana Editorial Vervuert.
- Mimenza Castillo, L., & Amezaga Albizu, J. (2022, May 25). *Behategiaren emaitzak ezagutarazteko agerraldia*. Eusko Legebiltzarra.
- Ministerio del Interior. (2018). *El terrorismo en España: unidad didáctica para Historia de España* (Dirección General de Apoyo a Víctimas del Terrorismo. Ministerio del Interior, Dirección General de Evaluación y Cooperación Territorial. Ministerio de Educación y Formación Profesional, Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo, & Fundación Víctimas del Terrorismo, Eds.).
- Misztal, B. A. (2003). Durkheim on Collective Memory. *Journal of Classical Sociology*, 3(2), 123–143. <https://doi.org/10.1177/1468795X030032002>
- Molina, F. (2010). La eterna “cuestión vasca.” *Claves de Razón Práctica*, 199, 64–71.
- Montero, M. (1998). *La transición y la autonomía vasca* (pp. 93–120). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Morales, O. A., & Lischinsky, A. (2008). Discriminación a través de las ilustraciones de libros de texto de Educación Secundaria Obligatoria en España. *Discurso & Sociedad*, 2(1), 115–152.
- Muro, D. (2016). ETA during democracy, 1975–2011. In R. Leonisio, F. Molina, & D. Muro (Eds.), *ETA's Terrorist Campaign: From Violence to Politics, 1968–2015* (pp. 35–53). Routledge.
- Murua, I. (2014). *The End of ETA (2007-2011): Narratives from the Media and from the Actors* [Doktorre-tesia]. University of Nevada.
- Murua Uria, I. (2015a). *Ekarri armak. ETArek jardun armatuaren bukaeraren kronika*. Elkar.
- Murua Uria, I. (2015b). The End of ETA: errelatuaren borroka akademian. *Jakin*, 209, 101–116.

- Nafarroako Gobernua. (2016). “*Memoria duten eskolak, bakea eta bizikidetzaren lantzen*” programa.
- Naiz. (2018, urtarrilak 11). El PP pedirá la comparecencia de Maite Iturbe por el programa ‘Motxiladun umeak’ en ETB. *Naiz.eus*.
- Naiz. (2018, martxoak 11). “Aizkora eta Arbola” eskultura bihurtuko dute Baionan transmisio ariketa gisa. *Naiz.eus*.
- Naiz. (2021, azaroak 15). Piden que la Ley de Memoria Histórica de la CAV sancione la obstrucción al acceso a documentos. *Naiz.eus*.
- Next Educación. (2020). *Las Claves del fin de ETA según Alfredo Pérez Rubalcaba*. Canal Historia.
- Nieto, A., de la Rúa, A., & Gosálvez, P. (2021, October 17). Crecer sin ETA. *El País*.
- Nohrstedt, S. A., & Ottosen, R. (2015). Peace journalism: A proposition for conceptual and methodological improvements. *Global Media and Communication*, 11(3), 219–235. <https://doi.org/10.1177/1742766515606289>
- Nora, P. (1984). *Entre Mémoire et Histoire: La problématique des lieux*. Gallimard.
- Ohme, J., & de Vreese, C. (2020). *Traditional and “New Media” Forms and Political Socialization* (pp. 1–9). <https://doi.org/10.1002/9781119011071.iemp0167>
- Olariaga, A. (2019, September 25). Helburu politikoak lortzeko biolentzia erabiltzea ongi ote dago? *Gara*, 11.
- Olaziregi Alustiza, M. J. (2009). La recuperación de la memoria histórica en la novela contemporánea vasca. *Euskera*, 54(2–2), 1027–1047.
- Olaziregi Alustiza, M. J., & Altuna Lizarraga, M. (2020). Euskal narratiba eta memoria historikoa. *Hermes: Pentsamendu Eta Historia Aldizkaria = Revista de Pensamiento e Historia*, 67(Ejemplar dedicado a: Euskara, memoria eta erronkak), 10–15.
- Olaziregi, M. J. (2019). Cualquier tiempo pasado fue peor. Reflexiones sobre la narrativa vasca post-ETA. *Olivar: Revista de Literatura y Cultura Españolas*, 19(30), e060. <https://doi.org/https://doi.org/10.24215/18524478e060>
- Olick, J. K. (Ed.). (2003). *States of Memory: Continuities, Conflicts and Transformations in National Retrospection*. Duke University Press.
- Olick, J. K., Vinitzky-Seroussi, V., & Levy, D. (2011). *The Collective Memory Reader*. Oxford University Press.
- Onega, S. (2012). Affective Knowledge, Self-awareness and the Function of Myth in the Representation and Transmission of Trauma. *Journal of Literary Theory/Zeitschrift Für Literaturtheorie*, 6(1), 83–102. <https://doi.org/doi:10.1515/jlt-2011-0018>
- Ormazabal, M., Sienra, I., & Iraola, X. (2019). *40 urte... eta segi aurrera!* Txalaparta.
- Orús, A. (2022, July 28). *Cuota de pantalla de los principales canales de televisión en España en 2021*. Statista.

- Osmanska-Lipika, I. (2012). Elements of Gestalt Psychology in American Cognitive Linguistics. *Annales. Universitatis Mariae Curie-Sklodowska*, XXX(2), 47–72.
- O. Urain, J. (2022, urtarrilak 4). Hirutik birentzat euskal gatazka itxi gabe dago, Naziometroaren arabera. *Berria*.
- Overstreet, M., & Yule, G. (2001). Formulaic disclaimers. *Journal of Pragmatics*, 33(1), 45–60. [https://doi.org/10.1016/S0378-2166\(99\)00125-3](https://doi.org/10.1016/S0378-2166(99)00125-3)
- Pando Canteli, M. J., & Rodríguez Pérez, M. P. (2020). Las mujeres de ETA: activismo y transgresión. *Arbor*, 196(796), a554. <https://doi.org/10.3989/arbor.2020.796n2007>
- Papafragou, A. (2000). *Modality: Issues in the Semantics-Pragmatics Interface*. Elsevier.
- Pederson, J. (2014). Speak, Trauma: Toward a Revised Understanding of Literary Trauma Theory. *Narrative*, 22(3), 333–353. <https://doi.org/10.1353/nar.2014.0018>
- Pemberton, A. (2018). Undoing injustice in social reconstruction. In *Practices of Memorialisation & the Process of Social Reconstructions after large-scale Human Rights Abuses and Violations*.
- Peterman, B. (1932). *The Gestalt Theory and the Problem of Configuration*. Kegan Paul, Trench, Trubner & Co.
- Peterson, C. (2021). What is your earliest memory? It depends. *Memory*, 29(6), 811–822. <https://doi.org/10.1080/09658211.2021.1918174>
- Pfleger, S. (2021a). El discurso como un espacio comunicativo, relacional e identitario: framing y construcción de la identidad. *Andamios*, 18(47), 19–43. <https://doi.org/10.29092/uacm.v18i47.864>
- Pfleger, S. (2021b). Fuertes, libres, rebeldes. Hacia una identidad más agentiva del movimiento feminista en México. *Millcayac*, VIII(14), 325–347. <https://doi.org/https://doi.org/10.48162/rev.33.015>
- Pfleger, S., Salgado, M., Cruz, E., Romero, R., Ángel, I., & Arai, K. (2017). ¿Quién es quién en el espacio comunicativo relacional e identitario de Ayotzinapa? *Discurso & Sociedad*, 11(4), 671–703.
- Poole, R. (2008). Memory, history and the claims of the past. *Memory Studies*, 1(2), 149–166. <https://doi.org/10.1177/1750698007088383>
- Posner, R. (2008). *Kultursemiotik* (A. Nünning & V. Nünning, Eds.; pp. 39–72). J.B. Metzler. https://doi.org/10.1007/978-3-476-05057-1_3
- QSR International Pty Ltd. (2020) NVivo (released in March 2020), <https://www.qsrinternational.com/nvivo-qualitative-data-analysis-software/home>
- Quintero Mejía, M., & Vasco Montoya, E. (2007). Justificaciones y sentimientos morales de jóvenes universitarios y jóvenes desplazados acerca de las acciones justas e injustas. *Acta Colombiana de Psicología*, 10(1), 99–110.

- Radio Bilbao. (2021, October 19). “¿Sabrías decirme el nombre de una víctima de ETA?”: *Lo que saben los jóvenes sobre la banda terrorista*. Cadena Ser.
- Radio Bilbao. (2022, July 5). “Miguel Ángel Blanco, silencio y memoria”, *el podcast que radiografía la memoria 25 años después del secuestro y asesinato del concejal de Ermua*. Cadena Ser.
- Ramírez de la Piscina Martínez, T., Murua Uria, I., & Idoiaga Arrospide, P. (2016). Prensa y conflicto vasco (1975-2016): Recopilatorio de actitudes y vicisitudes. *Revista Latina de Comunicación Social*, 71, 1007–1035. <https://doi.org/10.4185/RLCS-2016-1132>
- Ramsay, G. (2015). Why terrorism can, but should not be defined. *Critical Studies on Terrorism*, 8(2), 211–228. <https://doi.org/10.1080/17539153.2014.988452>
- Reidy, C. M., Taylor, L. K., Merrilees, C. E., Ajdukovic, D., Biruski, D. C., & Cummings, E. M. (2015). The political socialization of youth in a post-conflict community. *International Journal of Intercultural Relations*, 45, 11–23. <https://doi.org/10.1016/j.ijintrel.2014.12.005>
- Reisigl, M., & Wodak, R. (2017). The Discourse-Historical Approach (DHA). *The Routledge Handbook of Critical Discourse Studies*.
- Rekarte, I. (2015). *Lo difícil es perdonarse a uno mismo: Matar en nombre de ETA y arrepentirse por amor*. Ediciones Península.
- Reverter, S. (2022). Epistemologies of violence against women. A proposal from the South. *Cogent Social Sciences*, 8(1), 2038356. <https://doi.org/10.1080/23311886.2022.2038356>
- Reyes, G. (1996). *Los procedimientos de cita: citas encubiertas y ecos* (2nd ed.). Arco Libros.
- Rey-Gayoso, R., & Diz, C. (2021). Música trap en España: Estéticas juveniles en tiempos de crisis. *Revista de Antropología Iberoamericana*, 16(3), 583–607. <https://doi.org/10.11156/aibr.160307>
- Rheindorf, M., & Wodak, R. (2017). “It was a long, hard road”: A Longitudinal Perspective on Discourses of Commemoration in Austria. *10plus1: Living Linguistics*, 3, 22–41.
- Rodríguez Fouz, M. (2021). A vueltas con el pasado violento. Memoria colectiva y disputas por el relato de ETA. *Política y Sociedad*, 58(2 (Ejemplar dedicado a: Monográfico: Nuevas articulaciones de la extrema derecha global: actores, discursos, prácticas, identidades y los retos de la democracia)), 1–12. <https://doi.org/10.5209/poso.66078>
- Rodríguez Lara, Z. (2013). Las mujeres de ETA en la prensa escrita. *Mediatika*, 14, 151–167.
- Roures i Llop, J. (2017). *Las cloacas de Interior*. Mediapro.

- Ruiz Olabuénaga, J. I. (2005). *Kale borroka. Violencia juvenil vasca*. Grupo Delta Ediciones Digitales.
- Ruiz Olabuénaga, J. I., Fernández Sobrado, J. M., & Novales, F. (1985). *Violencia y ansiedad en el País Vasco*. Tarttalo.
- Sacks, H. (1985). On doing “being ordinary.” In *Structures of Social Action* (pp. 413–429). Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/CBO9780511665868.024>
- Sáez de la Fuente Aldama, I., Bermúdez Vélez, Á., & Prieto Mendaza, J. (2020). *Memoriaren historiazioa. Euskadiko gazteekin egindako ikaskuntza-komunitate baten esperientziaren azterketa*.
- Sagardoy-Leuza, I. (2020). The Altsasu case: terrorism without terrorists. *Critical Studies on Terrorism*, 13(2), 296–311. <https://doi.org/10.1080/17539153.2020.1714416>
- Salvados. (2015, maiatzak 10). *ETA desde dentro*. LaSexta.
- Santa-Barbara, J. (2007). Reconciliation. In *Handbook of Peace and Conflict Studies*. Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203089163.ch12>
- Sare. (2021). *Zigorren batuketa. Cómputo de penas*.
- Schegloff, E. A. (2007). A tutorial on membership categorization. *Journal of Pragmatics*, 39(3), 462–482. <https://doi.org/10.1016/j.pragma.2006.07.007>
- Schrøder, K. C. (2018). Audience Reception. In P. M. Napoli (Ed.), *Mediated Communication* (Vol. 7, pp. 105–128). De Gruyter Mouton. <https://doi.org/doi:10.1515/9783110481129-008>
- Schütz, A. (1962). *The Problem of Social Reality: Collected Papers I*. Martinus Nijhoff.
- Scollon, S. (2003). Political and Somatic Alignment: Habitus, Ideology and Social Practice. In G. Weiss & R. Wodak (Eds.), *Critical Discourse Analysis: Theory and Interdisciplinarity* (pp. 167–198). Palgrave Macmillan.
- Senehi, J., & Byrne, S. (2006). From Violence Toward Peace: The Role of Storytelling for Youth Healing and Political Empowerment after Social Conflict. In S. McEvoy-Levy (Ed.), *Troublemakers or Peacemakers? Youth and Post-Accord Peace Building* (pp. 235–258). University of Notre Dame Press.
- Shahzad, F. (2011). Collective memories: A complex construction. *Memory Studies*, 5(4), 378–391.
- Shanahan, T. (2010). Betraying a certain corruption of mind: how (and how not) to define ‘terrorism.’ *Critical Studies on Terrorism*, 3(2), 173–190. <https://doi.org/10.1080/17539150903306139>
- Shannon, C. E. (1948). A Mathematical Theory of Communication. *The Bell System Technical Journal*, 27, 379–423.

- Shapiro, L., & Hudson, J. (1991). Tell Me a Make-Believe Story: Coherence and Cohesion in Young Children's Picture-Elicited Narratives. *Developmental Psychology*, 27, 960–974. <https://doi.org/10.1037/0012-1649.27.6.960>
- Shopes, L. (2002). *Making Sense of Oral History*. History Matters: The U.S. Survey Course on the Web.
- Shrikanth, S., & Szpunar, K. K. (2021). The good old days and the bad old days: evidence for a valence-based dissociation between personal and public memory. *Memory*, 29(2), 180–192. <https://doi.org/10.1080/09658211.2020.1871024>
- Silverman, D. (1998). *Harvey Sacks: Social Science and Conversation Analysis*. Polity Press.
- Sola, R. (2018, martxoak 7). El preso Xabier Rey muere en Puerto tras diez años de cárcel y aislamiento. *Gara*.
- Sontag, S. (1977). *Sobre la fotografía* (11th ed.). Penguin Random House.
- Stone, C. B., & Hirst, W. (2014). (Induced) Forgetting to form a collective memory. *Memory Studies*, 7(3), 314–327. <https://doi.org/10.1177/1750698014530621>
- Stringer, M., Irwing, P., Giles, M., McClenahan, C., Wilson, R., & Hunter, J. (2010). Parental and school effects on children's political attitudes in Northern Ireland. *British Journal of Educational Psychology*, 80, 223–240. <https://doi.org/10.1348/000709909X477233>
- Terr, L. C. (1985). Psychic Trauma in Children and Adolescents. *Psychiatric Clinics of North America*, 8(4), 815–835. [https://doi.org/https://doi.org/10.1016/S0193-953X\(18\)30658-0](https://doi.org/https://doi.org/10.1016/S0193-953X(18)30658-0)
- Thompson, J. P. (2005). The Civil War in Galiza, the Uncovering of the Common Graves, and Civil War Novels as Counter-Discourses of Imposed Oblivion. *Iberoamericana (2001-)*, 5(18), 75–82. <https://doi.org/10.18441/ibam.5.2005.18.75-82>
- Tolosaldeko Ataria. (2014, maiatzak 15). 25 urte bete dira euskal presoek sakabanaketa hasi zutela. *Tolosaldeko Ataria*.
- Toolis, E. E., & Hammack, P. L. (2015). The lived experience of homeless youth: a narrative approach. *Qualitative Psychology*, 2(1), 50–68. <https://doi.org/10.1037/qup0000019>
- Torrealdai Nabea, J. M. (2021). *Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta*. Elkar.
- Turner, M., & Fauconnier, G. (1995). Conceptual Integration and Formal Expression. *Journal of Metaphor and Symbolic Activity*, 10. https://doi.org/10.1207/s15327868ms1003_3
- Ur Handitan. (2018a, urtarrilak 9). *Motxiladun umeak*. EiTB.
- Ur Handitan. (2018b, maiatzak 16). *Elkarri begira: bigarren atala*. EiTB.
- Uriarte, J. M. (2012). *Reconciliación: una tarea delicada e ineludible* (pp. 21–42). Universitat de Barcelona Publicacions i Edicions.

- Uson Gonzalez, I., Urrutia Asua, G., & De la Cruz Ayuso, C. (2017). *Unibertsitateko gazteek Euskadin bizi izan den terrorismoari eta giza eskubideen urraketei buruz dakitena eta duten diskurtsoa*.
- Van Alphen, E. (2006). Second-Generation Testimony, Transmission of Trauma, and Postmemory. *Poetics Today*, 27(2), 473–488. <https://doi.org/10.1215/03335372-2005-015>
- Van der Kolk, B. A., Herron, N., & Hostetler, A. (1994). The History of Trauma in Psychiatry. *Psychiatric Clinics of North America*, 17(3), 583–600. [https://doi.org/https://doi.org/10.1016/S0193-953X\(18\)30102-3](https://doi.org/https://doi.org/10.1016/S0193-953X(18)30102-3)
- Van Dijk, T. A. (1996). Opiniones e ideologías en la prensa. *Voces y Culturas*, 10, 9–50.
- Van Dijk, T. A. (1996). Power and the news media. In D. L. Paletz (Ed.), *Political Communication in Action* (pp. 9–36). Hampton Press.
- Van Dijk, T. A. (1997). *Cognitive Context Models and Discourse*. John Benjamins.
- Van Dijk, T. A. (1999). El análisis crítico del discurso. *Anthropos*, 186, 23–36.
- Van Dijk, T. A. (2001). Multidisciplinary CDA: a plea for diversity. In R. Wodak & M. Meyer (Eds.), *Methods of Critical Discourse Analysis* (pp. 95–120). SAGE.
- Van Dijk, T. A. (2003). *Ideología y discurso*. Ariel.
- Van Dijk, T. A. (2003). The Discourse-Knowledge Interface. In G. Weiss & R. Wodak (Eds.), *Critical Discourse Analysis: Theory and Interdisciplinarity* (pp. 85–108). Palgrave Macmillan.
- Van Dijk, T. A. (2005a). Ideología y análisis del discurso. *Utopía y Praxis Latinoamericana*, 10(29), 9–36.
- Van Dijk, T. A. (2005b). Política, ideología y discurso. *Quórum Académico*, 2(2), 15–47.
- Van Dijk, T. A. (2008). *Discourse and Power*. Palgrave Macmillan.
- Van Dijk, T. A. (2015). *From Text Grammar to Critical Discourse Analysis: A brief autobiography* (Màster En Estudis Del Discurs: Comunicació, Societat i Aprentatge (Asignatura Discurs i Cognició Social)).
- Van Langenhove, L., & Harré, R. (1999). Introducing Positioning Theory. In L. Van Langenhove & R. Harré (Eds.), *Positioning Theory: Moral Contexts of Intentional Action* (pp. 14–32). Blackwell Publishers.
- Van Leeuwen, T., & Wodak, R. (1999). Legitimizing immigration control: a discourse-historical analysis. *Discourse Studies*, 1(1), 83–117. <https://doi.org/10.1177/1461445699001001005>
- Varela-Rey, A., Rodríguez-Carballeira, Á., & Martín-Peña, J. (2013). Psychosocial analysis of ETA's violence legitimization discourse. *International Journal of Social Psychology*, 28(1), 85–97. <https://doi.org/10.1174/021347413804756050>

- Velte, S. (2016a). La representación de los presos políticos vascos en la prensa española (2011-2016). *Discurso & Sociedad*, 10(3), 491–544.
- Velte, S. (2016b). *La representación de los presos vascos en la prensa española (2011-2016)* [Masterreko tesia]. Universitat Pompeu Fabra - Universitat Autònoma de Barcelona.
- Velte, S. (2019a). Euskal gatazka armatuaren historia hezkuntzako edukietan: azterketa diskurtsibo bat. *Tantak*, 31(2), 41–73. <https://doi.org/10.1387/tantak.20983>
- Velte, S. (2019b, urriak 25). Memory building through history books: analysing the first attempts to teach about the Basque conflict (1968-2011). *Constructions of Identity Conference, 10th Edition: History, Memory and Accomplishment*.
- Velte, S. (2020). Oñati's Youth Facing the Armed Conflict: Analysing the Discourses of the First Post-Conflict Generation. *Oñati Socio-Legal Series*, 10(3), 616–641. <https://doi.org/10.35295/osls.iisl/0000-0000-0000-1043>
- Ventas, L. (2017, abenduak 8). “El de ETA fue el único caso en el mundo en el que una organización armada estuvo dispuesta al desarme y el Estado se negó.” *BBC Mundo*.
- Vogel, B., Arthur, C., Lepp, E., O’Driscoll, D., & Haworth, B. T. (2020). Reading socio-political and spatial dynamics through graffiti in conflict-affected societies. *Third World Quarterly*, 41(12), 2148–2168. <https://doi.org/10.1080/01436597.2020.1810009>
- Waldner, L. K., & Dobratz, B. A. (2013). Graffiti as a Form of Contentious Political Participation. *Sociology Compass*, 7(5), 377–389. <https://doi.org/https://doi.org/10.1111/soc4.12092>
- Webel, C., & Galtung, J. (2007). Handbook of Peace and Conflict Studies. In C. Webel & J. Galtung (Eds.), *Handbook of Peace and Conflict Studies*. Routledge. <https://doi.org/10.4324/9780203089163>
- Weiss, G., & Wodak, R. (2003). Introduction: Theory, Interdisciplinarity and Critical Discourse Analysis. In G. Weiss & R. Wodak (Eds.), *Critical Discourse Analysis: Theory and Interdisciplinarity* (pp. 1–34). Palgrave MacMillan.
- Welzer, H. (2001). Kumulative Heroisierung. *Mittelweg*, 36(2), 57–73.
- Welzer, H. (2005). Grandpa Wasn’t a Nazi: The Holocaust in German Family Remembrance. *International Perspectives*, 54, 1–31.
- Welzer, H. (2008). Collateral Damage of History Education: National Socialism and the Holocaust in German Family Memory. *Social Research*, 75(1), 287–314. <https://doi.org/10.1353/sor.2008.0049>
- Wertsch, J. V. (2002). *Voices of Collective Remembering*. Cambridge University Press. <https://doi.org/10.1017/cbo9780511613715>
- White, P. R. R. (2020). The putative reader in mass media persuasion – stance, argumentation and ideology. *Discourse & Communication*, 14(4), 404–423. <https://doi.org/10.1177/1750481320910512>

- Whitfield, T. (2014). *Endgame for ETA: Elusive Peace in the Basque Country*. Oxford University Press.
- Whitfield, T. (2015). *The Basque Conflict and ETA. The Difficulties of an Ending*.
- Wilches Tinjacá, J. A., & Hernández Pérez, M. (2016). Jóvenes universitarios: percepciones y encuestas sobre conflicto armado y paz en Colombia. *Reflexiones*, 95(2), 33–55.
- Wodak, R. (2001). The discourse-historical approach. In R. Wodak & M. Meyer (Eds.), *Methods of Critical Discourse Analysis* (pp. 63–94). SAGE.
- Wodak, R. (2006). Mediation between discourse and society: assessing cognitive approaches by CDA. *Discourse Studies*, 8(1), 179–190. <https://doi.org/10.1177/146144560605956>
- Wodak, R. (2011). La historia en construcción/ La construcción de la historia. La “Wehrmacht alemana” en los recuerdos colectivos e individuales de Austria. *Discurso & Sociedad*, 5(1), 160–195.
- Wodak, R. (2015). *Critical Discourse Analysis, Discourse-Historical Approach*. John Wiley & Sons.
- Wodak, R., & Fairclough, N. (1997). *Critical Discourse Analysis* (pp. 258–284). Sage.
- Wodak, R., & Krzyzanowski, M. (2008). *Qualitative Discourse Analysis in the Social Sciences* (R. Wodak & M. Krzyzanowski, Eds.). Palgrave Macmillan.
- Wodak, R., & Meyer, M. (2009). Critical Discourse Analysis: History, Agenda, Theory, and Methodology. *Methods of Critical Discourse Analysis*.
- Wodak, R., & Weiss, G. (2003). *Critical Discourse Analysis: Theory and Interdisciplinarity*.
- Yerkes, M. (2004). Facing the Violent Past: Discussions with Serbia’s Youth. *Nationalities Paper*, 32(4), 921–938.
- Zabalo, J., & Saratxo, M. (2015). ETA ceasefire: Armed struggle vs. political practice in Basque nationalism. *Ethnicities*, 15(3), 362–384. <https://doi.org/10.1177/1468796814566477>
- Zabalza, J. (2017). *Nombres para recordar*. Euskal Memoria Fundazioa.
- Zubiaga, M. (2011, maiatzak 23). Conciliar la convivencia vasca: Sugerencias para una mejor gestión del pasado, presente y futuro. V. *Jornadas de Reflexión*.
- Zulaika, J. (1990). *Violencia vasca. Metáfora y sacramento*. Nerea.
- Zulaika, J. (1991). Reyes, políticos, terroristas. la función ritual de ETA en relación al nacionalismo vasco. *Revista de Antropología Social*, 0, 217–230.
- Zulaika, J. (2006). *ETAren hautsa*. Alberdania.

Zulaika, J., & Douglass, W. A. (2008). The terrorist subject: terrorism studies and the absent subjectivity. *Critical Studies on Terrorism*, 1(1), 27–36. <https://doi.org/10.1080/17539150701844794>

Zulaika, J., & Murua, I. (2017). How terrorism ends – and does not end: the Basque case. *Critical Studies on Terrorism*, 10(2), 338–356. <https://doi.org/10.1080/17539153.2017.1282666>

8. ERANSKINAK

8.1. IRUDI ETA TAULEN AURKIBIDEA

8.1.2. Irudiak

1. irudia: ETAre desarme prozesuaren inflexio-puntu nagusiak.	2
2. irudia: Van Dijken karratu ideologikoa.	20
3. irudia: Diskurtsoaren analisi mailak eta erabilitako teoriak.	45
4. irudia: Parte hartzaileak, jaiotza-urtearen arabera.	80
5. irudia: Denbora-lerroaren ariketa, amaituta.....	86
6. irudia: Denbora-lerroaren berreraikuntza digitala.	87
7. irudia: 'Aizkora eta Arbola' (Koldobika Jauregi).....	87
8. irudia: Kodeen hierarkia, elkarrekiko harremanaren eta item kopuruaren arabera. ...	91
9. irudia: Testu-analisiaren mailak.	97
10. irudia: Lehenbiziko asoziazioen hitz-lainoa.	107
11. irudia: ETari buruz eskainitako definizioak.	109
12. irudia: ETaren karakterizaziorako erabilitako adjektibo eta ekintzak.	112
13. irudia: Biktimak eta haien sailkapena, gazteen diskurtsoetan.	127
14. irudia: Gazteen informazio iturri ohikoentak.	166
15. irudia: Gazteen iturri ohikoenak, politizazio mailaren arabera.	168
16. irudia: Umorearen erabilera sare sozialetan.	203
17. irudia: Komunikabideen kontsumoa, politizazio mailaren arabera.	211
18. irudia: Komunikabideen kontsumoa, hizkuntzaren eta identifikazio politikoaren arabera.	211
19. irudia: gazteen diskurtsoetan identifikatutako eraikuntza identitario nagusiak.....	248
20. irudia: Aktoreen kategorizazio graduatua.....	275

8.1.3. Taulak

1. taula: Elkarrizketen planifikazioa, lurraldeka.....	81
2. taula: Elkarrizketatuen jatorrizko hiri eta herrien adierazle nagusiak	82
3. taula: Datuak sailkatzeko erabilitako kategoria edo kodeak.	91
4. taula: Parte hartzaileen soslai zehaztuak.	92
5. taula: Estrategia diskurtsiboak eta haien makro-funtzio sozialak.	96
6. taula: Behatutako elementuak, ikerketa-atalen eta galderen arabera.....	98
7. taula: ETari atxikitako gertakariak.	122
8. taula: Indar armatuei atxikitako gertakariak.	123

8.2. ERABILITAKO MATERIAL GEHIGARRIA

8.2.1. Gonbidapen gutunaren eredia

Ikerketan parte hartzeko proposamena

Euskal Herriko Unibertsitateko NOR ikertaldeko Samara Velte doktoregaia Euskal Herriko **belaunaldi berriei buruzko ikerketa** bat egiten ari da. Zehazki, 15 eta 22 urte arteko gazteek Euskal Herriko historia hurbilaz duten iritzia eta jarrera jakin nahi ditu. Horretarako, **1997 eta 2002 urteen artean jaiotako gazteak** behar ditu.

Ikerketan parte hartzeko prest dauden gazteek elkarrizketa bat eduki beharko dute ikertzailearekin. Elkarrizketak banakakoak edo taldekoak izan daitezke, eta gehienez ere ordubete iraungo dute.

Elkarrizketa hauek ez dira azterketa bat edo horrelako ezer. Ez da zuen ezagutza neurtuko edo baloratuko, baizik eta zuen **iritziak jakitea da helburua, eta iritzi horiek hizkuntzaren bidez nola adierazten diren**. Ondorioz, berdin du historia hurbilaz asko dakizuen edo gutxi; garrantzitsuena parte hartzeko prest egotea da. Trukean, EHUko ikertaldeko zenbait material jasoko dituzue opari, eta Euskal Herri mailako azterketa soziologiko garrantzitsu baterako datuak sortzen lagunduko duzue.

Elkarrizketak zuen ikastegian bertan egin genitzake edo erosoan zaizuen tokian, zuen disponibilitatearen arabera. Ikerketan parte hartzeko prest bazaudete edo zalantzak badituzue, e-maillez edo telefonoz kontaktatu dezakezue ikerlariarekin (WhatsApeez ere bai), eta berekin adostuko dituzue elkarrizketen datak eta tokiak:

Samara Velte
[Kontakturako datuak]

Ikerketan parte hartzera animatuko zaretelakoan, agur bero bat.

8.2.2. Baimen informaturako agiri-eredua

GURASO EDO LEGEZKO TUTOREENTZAKO INFORMAZIO-ORRIA

1. Ikerketaren nondik norakoak

- Zuen kargu duzuen adingabea ‘*Euskal gatazkaren memoria: belaunaldi berrien diskurtsoak gatazka armatuari buruz*’ ikerketan parte hartzera gonbidatua izan da. Ikerketa hau Samara Velte Moran ikertzailearen doktorego-tesiaren oinarria da, eta Euskal Herriko belaunaldi berriek historia hurbilaz eta, bereziki, gatazka armatuaz dituzten iritzi eta diskurtsoak ikertzea da helburua.
- Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitateko NOR ikertaldearen babesa du, eta bi zuzendarik dihardute tutoretza lanetan: Josu Amezaga Albizuk, Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatetik, eta Aitzpea Leizaola Egañak, Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatetik.
- Ikerketa prozesuak 2017ko urritik 2020ko udazkenera arte iraungo du printzipioz, eta elkarrizketak 2018ko udaberrian egingo dira.

2. Adingabeen parte hartzea

- Ikerketarako elkarrizketak hamar ikastetxe eta fakultatetan egingo dira. Bakoitzean, lau ikasle elkarrizketatuko ditu ikerlariak.
- Lehenbiziko saioa banakakoa izango da: ikasleek elkarrizketatzailearen galderei erantzungo diete ahalik eta zehatzen.
- Bigarren saioa taldeko elkarrizketa bat (*focus group*) izango da. Lau ikasleek elkarren artean eztabaidatuko dute ikerlariak emandako material zehatzen inguruan. Material hauek prentsako artikulua, diskurtso ofizialak edota herri kulturako elementuak izan daitezke.
- Ikasleek borondatez hartuko dute parte elkarrizketa saioetan, eta borondatez erantzungo diete ikerlariaren galderei.
- Posible bada, banakako elkarrizketak ikasleak eskatutako hizkuntzan egingo dira. Taldeko elkarrizketan hizkuntza ikasleen artean adostuko da.

3. Datuen trataera eta konfidentzialtasuna

- Ikerketaren helburu nagusietako bat da gazteen diskurtsoen analisi linguistikoa egitea. Horretarako, grabatu egingo da elkarrizketen soinua. Grabaketak diskurtsoen transkripzioa erraztuko du. Ez da irudirik hartuko.
- Ikerlariak bakarrik erabiliko ditu datu hauek ikerketan esanguratsuak diren ondorioak ateratzeko.
- Tesia erredaktatzerakoan, anonimotasunez tratatuko dira elkarrizketetako parte hartzaileen nortasunari dagozkion datuak, esate baterako, “M-16-Zarautz” moduko kodeak erabiliz (mutila – 16 urte – zarautzerra). Inolaz ere ez da argitaratuko parte hartzaileen izen-abizenik. Hartara, iritzirik ez da agertuko izen bati lotuta.
- Ikerlariak ikerketa honen amaieran argitaratuko duen tesirako eta ikerketatik eratorritako bestelako argitalpenetarako erabili ahal izango ditu elkarrizketetatik ateratako datu eta ondorioak. Grabatutako materiala deuseztu egingo da, soilik elkarrizketen transkripzio idatzia geratzeko.

4. Balizko eragozpenak: Ikerketa honetan parte hartzeko, ikasle bakoitza ordubetez liberatu beharko da bere eskolako ikasketa orduetatik, bi egunetan. Elkarrizketak ikastetxean bertan izango dira.

5. Balizko irabaziak:

- a) Parte hartzaileek ez dute jasoko diruzko edo bestelako ordain materialik ikerketa honengatik.
- b) Nolanahi ere, euren inguruko errealitate soziala ulertzeko datuak sortzen lagunduko du euren parte hartzeak. Ikerketaren ondorioak helaraziko zaizkie ikerketaren amaieran.

6. Kontakturako datuak: Ikasleek edo euren gurasoek uneoro kontaktatu ahal izango dute ikerlariarekin, ikerketarekin zerikusia duten galdera edo zalantzak argitzeko. Helbide elektroniko bidez egingo dute: [ikertzailearen helbidea]

GURASO EDO LEGEZKO TUTOREEN BAIMEN INFORMATURAKO FORMULARIOA

Nik, _____-(e)k, _____ NAN zenbakidunak, baimena ematen dut nire kargu daukadan _____

adingabeak parte har dezan '*Euskal gatazkaren memoria: belaunaldi berrien diskurtsoak gatazka armatuari buruz*' ikerketan.

Halaber, aitortzen dut ikerketari buruzko informazioa jaso eta irakurri dudala, zalantzak adierazteko aukera izan dudala eta behar bezala argitu dizkidatela. Adostasuna adierazten dut aurreko orrialdean planteatutako baldintzekin.

Parte hartzailearen sinadura

Guraso edo tutorearen sinadura

Lekua eta eguna:

8.2.3. Banakako elkarrizketetarako erabilitako gidoi orientatiboa

1. Aurkezpen laburra: Ikerketan parte hartzeagatik eskerrak eman ostean, haren helburuen berri ematen genien elkarrizketatuei eta euren parte hartzeko motibazioez galdetzen genien. Atal honen helburua zen eurei ingurune seguru batean zeudela sentiaraztea; horretarako, esplizitatzen genien elkarrizketan ez genuela iritzirik ebaluatuko edo ezagutzarik neurtuko, ez zeudela azterketa batean, eta euren erantzunetan ahalik eta xehetasun gehien txertatzeko eskatzen genien, burura zetozkien deskribapen, emozio eta bestelako elementuak ere ahoskatuz.

2. Atal teknikoa: Elkarrizketaren data eta lekua jasotzeaz gain, elkarrizketatuari buruzko oinarriko datu batzuk bildu ditugu, gero analisi diskurtsibo xehearekin gurutzatzeko edo helburu estatistikoetarako baliagarri izango zaizkigunak; besteak beste, jaiotza urtea, jatorria, ikasketa maila, identifikazio politikoa, eta ingurunearen politizazio maila.

3. Gatazka kontzeptuari buruzko ulerkerak: Atal honetan, gazteek *euskal gatazka* terminoari buruz eta 1958-2018 arteko garaian buruz dituzten eskema mentalak eta narratibak azaleratu nahi izan ditugu. Horretarako, hiru galdera mota erabili ditugu batik bat:

- “Zer da burura datorkizun lehen gauza *euskal gatazka* entzuten duzunean?”. Elkarrizketa guztiak galdera honekin abiatu ditugu, gai sakondu aurretik gehiegi arrazionalizatu edo modalizatu gabeko erantzunak lortzeko helburuz. Gazteek gatazkari buruz eraikita dauzkaten eskema mentalak modu zuzenagoan behatu nahi izan ditugu lehenbizi, jakinik elkarrizketak berak (eta haren giroak, elkarrizketatzailearekiko eraikitako konfiantzak edo haren faltak, galderek eragindako deserosotasunak, eta abar) ere aldaketak eragin ditzakeela (eta eragin ohi dituela) diskurtsioan. Lehenbiziko galdera honetan, beraz, gaiari buruzko oinarriko asoziazioak ezagutzeaz gain, elkarrizketatzailearen jarrera eta egoeraren irekitasuna komunikatu nahi izan diegu parte hartzaileei, ziurgabetasuna eragin ziezaieketen galdera zehatzagoak planteatu aurretik. Horretarako, eta euren adina kontuan izanda, terminologia akademikoa saihestu dugu eta tonu informala lehenetsi dugu, *gauza* termino orokortzailea erabiliz edota interpelazio zuzen bidez, esaterako.
- “Nola azalduko zenioke kanpotar bati zer izan den *euskal gatazka*?”. Bigarren galdera honek gatazkaren historiaren berreraikuntza diskurtsiboa eta hari buruzko makronarratibak azaleratzeko helburua izan du. Elkarrizketatuei erantzun osatu eta modalizatuagoak eskatu dizkiegu, ahalik eta informazio gehien esplizitatzeko eskatuta; horretarako, atzerritar hipotetikoaren figura baliatu dugu, parte hartzaileek bestela elkarrizketatzailearentzat ezagunak edota ezagutza partekatua zirelakoan elipsatuko zituzketen elementuak ere esplizita zitzen.
- “Noren artean izan zen *gatazka*, nola hasi zen?”. Galdera hauek gutxitan egin behar izan ditugu, funtsean aurrekoaren birformulazioak direlako: gatazkaren historia diskurtsiboki berreraikitzeke gonbidapen bat. Soilik atzerritarraren galderan zailtasunak edo zalantzak zeuzkatela sumatu izan dugun elkarrizketatuei planteatu dizkiegu, galdegaiaren formulazio argiago bat

eskaini asmoz. Gerora, erantzunetan, arreta berezia ipini diegu atal honetan egindako aktoreen kategorizazioari eta haiei atxikitako ezaugarriei, hala nola, historiaren antolaketa narratiboari.

4. Kokatze pertsonala: Atal honetan, hizlariak gatazkarekin duten edo izan duten harremana aztertu nahi izan dugu: informazio iturri nagusiak, oroitzapen zuzenak eta mediatuak, euren posizionamendua eta ebaluazio morala. Honako galderak planteatu dizkiegu, besteak beste:

- Informazio iturriak:
 - “Nondik ikasi duzu gehien euskal gatazkari buruz?”.
 - “Etxean hitz egiten da gai horri buruz?”, “Zer esan ohi dizute etxean?”.
 - “Eskolan nola landu duzue gaia?”.
 - “Zein komunikabide kontsumitu ohi dituzu gai hauei buruzko informazioa jasotzeko, eta konforme zaude bertatik iristen zaizunarekin?”.
 - “Zer botatzen duzu faltan, edo zer aldatuko zenuke gatazkari buruz jaso duzun formakuntzan?”.
- Identifikazio pertsonala:
 - “Zure bizitzan edo inguruan egon al da gatazkarekin lotutako esperientziarik?”.
 - “Euskal gatazkak zuri eragin dizula sentitzen duzu?”, “Hala bada, nola eragin dizu?”.
 - “Euskal gatazkaren biktima sentitzen zara?”.
 - “Zein sentimendu edo sentsazio eragiten dizkizu gai honek?”.
- Ebaluazio morala:
 - “Iraganeko biolentzian edo giroan pentsatzen duzunean, zer sentitzen duzu?”.
 - “Justizia egin dela uste duzu?”.
 - “Zeintzuk dira, zure ustez, falta diren urratsak?”.
 - “Barkatzea posible dela uste duzu?”.

5. Gatazkaren alderdi zehatzak: Atal honetan, gatazkaren historian gehien nabarmendu diren gertakariei buruz galdetu diegu parte hartzaileei. Alde batetik, galdera zabalekin abiatu dugu atala, eurentzat erreferentzia handiena hartu duten gertakizunak eta haiei buruzko narratibak ahalik eta askatasun handienarekin berreraikitzeak aukera eskaini asmoz; ondoren, gertakari zehatzagoak planteatzen jarraitu dugu, elkarrizketaren norabidea modu argian bideratuz. Honako gaiak tematizatu ditugu, besteak beste:

- “ETAren zein atentatu eta ekintza gogoratzen dituzu edo nabarmenduko zenituzke?”. Aterki-galdera honen barruan, hainbat data edo gertakari zehatz aipatu ditugu:
 - Tokian tokiko erreferentziak
 - Luis Carrero Blancoren hilketak (1973)
 - Hipercorreko atentatua (1987)
 - Miguel Ángel Blancoren hilketak (1997)
 - T-4ko atentatua (2006)
 - Biolentziarik inplikatu ez zuten ekintzak
- “Espainiako eta Frantziako gobernuak nola jokatu dute urteotan?”.

- Torturaren erabilera
- Atxiloketak eta ilegalizazioak
- *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera (2003)
- Guardia Zibilaren presentzia Euskal Herrian
- GAL (1983-1987)
- “Zeintzuk izan dira biktima nagusiak?”.
- “Presorik ezagutzen duzu? Zein da euren egoera?”

6. Gatazkaren amaiera eta bakea: azken atal honetan, gatazkaren amaierari eta bakeari buruzko diskurtso eta kontzeptualizazioak ikertzeko ahozko datuak sortu nahi izan ditugu.

- “Gatazka bukatu dela esango zenuke?”, “Hala bada, nola bukatu zen?”.
- “Nola iritsi zen ETaren desarma?”, “Baduzu horren oroitzapenik?”.
- “Gaur egun geratzen al da gatazkarekin lotutako arazorik?”.
- “Zein bake inizatiba ezagutzen dituzu?” (galdera honetan, eurek ekinbide zehatzik planteatu ez dutenean, zerrendatu egin dizkiegu kontzeptu orientatibo batzuk: Lizarra-Garazi, Loiola, Aiete, Bakearen Artisauak...).

7. Besterik: Amaitzeko, elkarrizketan zehar azaleratu ez den edozein gai aipatzeko aukera eskaini diegu, baita hasierako galderetako bat birformulatzeko aukera ere: “Hitz egin dugun guztiaren ostean, demagun beste atzerritar bat etortzen zaizula galdezka. Nola azalduko zenioke orain zer izan den gatazka?”. Espero genuen moduan, parte hartzaileak euren narratibak egokitzen joan dira elkarrizketan zehar.

Tesi honen zatiak berrerabil daitezke Creative Commons lizentziaren terminoak betez gero:
Aitoru – Ez Komertziala - Berdin

(cc)2023 SAMARA VELTE MORAN (cc by-nc-sa)